

1.go LIBURUA:

Paisaia-Ikuspegia eta bere Lau Dimentsioak

BOOK 1 :

The Landscape Perspective and its Four Dimensions



**PAISAIA-IKUSPEGIA ETA BERE LAU DIMENTSIOAK:
METODO INTERPRETATZAILE KONSTRUKTIBISTA BATEN
PROPOSAMENA
BILBOALDEKO HIRI BAZTERREKO PAISAIA MENDITSUEN KASUAN
APLIKATUA**

*[THE LANDSCAPE PERSPECTIVE AND ITS FOUR DIMENSIONS:
A CONSTRUCTIVIST INTERPRETATION METHOD PROPOSAL
APPLIED IN THE CASE OF BILBAO'S MOUNTAINOUS URBAN
LANDSCAPE]*

Maidier Elixabete Uriarte Idiazabal

Nazioarteko doktorego tesia - *International PhD thesis*

Elaborated under the supervision of

Dr. Arch. Marte Mujika Urteaga

Prof. Dr.-Ing. Sören Schöbel-Rutschmann

-ren zuzendaritzapean osatua

[2015]

Arkitektura Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea

Department of Architecture, University of the Basque Country

Oharra

***Tesiaren bertsio digital honek
2015/05/25ean depositatu zen bertsioko
akatsak edo erratak zuzenduta ditu.***

Observation

*This digital version of the thesis contains
the correction of misprints found on the
submitted version of 2015/05/25.*

AURKIBIDE OROKORRA

1.GO LIBURUA

I ZATIA

SARRERA

II ZATIA

OINARRI TEORIKOAK ETA METODOLOGIKOAK

III ZATIA

PROPOSAMENA: PAISAIA-IKUSPEGIEN
METODOLOGIA

IV ZATIA

ONDORIOA

2. LIBURUA

INGELESEZKO LABURPENA

ERANSKINAK

GENERAL INDEX

BOOK 1

SECTION I

INTRODUCTION

SECTION II

*THEORETICAL AND METHODOLOGICAL
FUNDAMENTS*

SECTION III

*PROPOSAL: LANDSCAPE-PERSPECTIVE
METHODOLOGY*

SECTION IV

CONCLUSION

BOOK 2

ENGLISH SUMMARY

APPENDIXES

LABURPENA

Tesi hau hiri bazterreko paisaien izaeraren interpretazioari buruzko lan bat da. Ikerketak jorratu duen arazoa konbinaketa bat da; batetik, paisaion izaera kontzeptualizatzeko ohiko irudikapen problematikoa edota generikoa legoke, eta, bestetik, paisaia-plangintzarentzako eta -zaharberitze prozedurentzako paisaiok behar bezala ezagutzen ez diren tokiak direnez gero suposatzen duten erronka legoke. Hortaz, lanak hiri bazterreko paisaien kudeaketarako onuragarria izan daitekeen ezaugarri kualitatiboan erabileraren bidezko paisaia-izaeraren definizioa bilatzen du. Horretarako, tesiak paisaion izaeraren definizio onargarri bat formulatzen du eta dokumentatutako gizarte eraikuntzak interpretatzen ditu. Helburua berezko paisaia-egiturak eta paisaiaren garapenaren joerak bilatzea da, berriazko kudeaketa eta plangintza-irizpide zehatzak sortzeko onuragarriak izan daitezkeelakoan.

Ikerketari abia eman zitzaion hiri bazterreko paisaien izaera ulertzeko proposamen batekin, hurrengo hiru oinarriek eusten dutena: bata, paisaia gizarteak eraiki duen geruza anitzeko kontzeptu gisa ulertzen duen teoria-ikuspegia; bigarrena, konstruktibismoa oinarri duen interpretazio tresna baten egituraketa; azkena, hiri-bazterreko paisaien ikerketa kasu konkretu baten erabilera. Tesi-proposamenak oinarri teoriko konstruktibistak dituen tresna bat garatzen du eta hura frogatzeko Bilboaldeko hiri bazter menditsuko paisaia-interpretazioa jorratzen du.

Estrategia erreflexibo bat dela medio, hiru pausu nagusi jarraitzen dituen metodo interpretatzaile bat osatu egin da. Hasteko, aurrekari bibliografikoen berrikuspenaren bitartez interpretaziorako testuinguru teorikoa osatu egin da, eta hiri bazterreko paisaiaren izaera teorikoa ere ezarri egin da. Ondoren, proposatutako interpretaziorako Paisaia-Ikuspegia tresna ikerketa kasuan aplikatu egin da. Aplikazio horrek bi pausu edo eszena jarraitu ditu; Landa lana eta Artxibo lana, alegia. Horrela, hastapeneko paisaia-izaeraren formulazio espekulatibo bat osatu da begi-bistakoak diren lurralde elementuak oinarri hartuta, eta segidan, formulazio hori sakonago aztertu egin da agiritegietako dokumentuak erabiliz. Hortaz, emaitzak bi motatakoak dira; lehenengo paisaiaren ulerkera sortzaile gisa aintzat hartu daitekeen berreraikuntza bat, eta bigarren paisaiaren bilakaera ulertzeko, baita hura kudeatzeko egitura ikusezinak, joerak eta aukerak identifikatu dira, nolabait lehenengo paisaia-karakterizazioaren osagarri direnak.

Tesiak proposatzen duen Paisaia-Ikuspegia tresnaren ekarpena hiri bazterreko paisaiak ulertzeko hurbilketa konstruktibista batekin egiten du. Halaber, hiri bazterreko paisaietako eraikuntza ukigarri eta ukiezinak tresnak duen jarrera interpretatzaile zabal eta enpatikoak lekuan lekuko analisi prozedura tradizionalak osatzeko ahalmena izan dezake.

BOOK 1.go LIBURUA

Esker onak	15
Irudiak eta Taulak	17

I. ZATIA

Sarrera	19
1.0 ATALA. Sarrera	21
1.1 Motibazioa	21
1.2 Ikergaia eta ikerketa galderak: nolakoak dira Hiri Bazterreko Paisaiak?	22
1.3 Erronka:Hiri Bazterreko Paisaien ulermena	23
1.4 Proposamena: interpretazio metodo bat	24
1.5 Egitura eta edukia	27
1.6 Termino erabilienean esanahiak eta argipenak	29
1.7 Tesiaren ibilia	33
1.8 Euskaraz idatzitako tesia	34

II. ZATIA

Oinarri teorikoak eta metodologikoak	35
2.0 ATALA. Paisaia	37
2.1 Definizio Etimologikoak	37
2.2 Definizio Onartuak	39
2.3 Paisaiaren hautematea eta jakintza: Objektibista, Subjektibista eta Subjektu-artekoa	40
2.4 Lurraldea ikusteko modu bat: ikuspegi konstruktibista	43
2.5 Paisaiaren barnean, paisaiatik at	46
2.6 Neurgarria eta ukiezina	48
2.7 Paisaiaren irudikapena: mapak, argazkiak, filmak	50
2.8 Paisaia arketipikoak eta idealak	52
2.9 Paisaiaren eraikuntza: fisikoa eta kontzeptuala, politikoa eta egunerokoa	56
2.10 Ondorioak	57
3.0 ATALA. Hiria eta Hiri-ertza	59
3.1 Hirigunea	60
3.1.1 Hiri eraikuntza geruza-anitzak	61
3.1.2 Lurralde eta Mundu eskalan hedatzen diren hiriak.	64
3.1.3 Tarteko hiriaren aurkezpena	68
3.2 Hiri ertza	69
3.2.1 Hiri ertza: ikuspegi diakroniko bat	69

3.2.2 Askotariko hurbilketak	73
3.2.3 Modelizazioa eta Praxia	74
3.2.4 Ertzaren existentziaz hausnarketa	77
3.3 Ondorioak	79
4.0 ATALA. Bazterraren aldirietako gaiak	83
4.1 Paisaia kulturalaren berrikuspena	83
4.2 Paisaia eta Natura	86
4.2.1 Antropozenoaren paradigmaren eraginak	87
4.2.2 Paisaia-ekologiaren ekarpenak	91
4.3 Mendi-Paisaiaren Eraikuntza	93
5.0 ATALA. Hiri-bazterreko Paisaia	99
5.1 Onartutako Fenomenoa	99
5.2 Bazterreko Paisaiaren izaera baztertua	100
5.3 Ohiko Interbentzioak Ertzeko Paisaietan: kualifikazioa	104
5.3.1 Hiri Bazterreko aspektu naturala	105
5.4 Indarguneak eta Aukerak	106
5.5 Irudikapen berrien beharra: Paisaia arketipoak eta irudikapenaren krisia	110
5.6 Ondorioak: Hiri-Bazterreko Paisaien beharrak	113
5.7 Laburpena: literaturaren ekarpenak	114
5.7.1 Galderak eta beharrak	114
5.7.2 Ikerketaren interesa	117
5.7.3 Testuinguru teoriko orokorra	118
6.0. ATALA. Testuinguru metodologikoa	121
6.1 Ikerketa Testuinguru Orokorra	121
6.1.1 Epistemologia konstruktibista	122
6.1.2 Estrategia abduktiboa	124
6.2 Analisi eta interpretazio eredu konstruktibistak	125
6.3 Paisaia hiritartuen interpretazioak ikuspegi anitzen bidez	127
6.4 Metodo aurrekarien alderaketa	130
6.5 Landa lan teknikak: txangoak	140
6.6 Artxibo lan teknikak: interpretazioa	141
III. ZATIA	
Proposamena: Paisaia-Ikuspegi Metodologia	145
7.0 ATALA.	
Metodo proposamena:	
Paisaia-Ikuspegi tresna	147

7.1 Testuinguru teoretiko eta metodologikoa	147
7.2 Paisaia-Ikuspegi tresnaren erabileraren helburua	150
7.3 Paisaia-Ikuspegiaren eta ikerketa-estrategiaren ezaugarriak	151
7.4 Tresnaren lau dimentsio elkarlotuak	152
1. Dimentsioa: Ideia	153
2. Dimentsioa: Irudikapena	154
3. Dimentsioa: Agentzia	156
4. Dimentsioa: Elementuak	157
8.0 ATALA.	
Ikerketa kasua eta oinarri enpirikoa:	
Bilboaldeako bazterreko paisaia menditsuak	161
8.1 Aurkezpena	161
8.1.1 Bilboaldeko hiri-garapena eta plangintza	162
8.2 Bilboaldeko mendien bazterketa	171
8.2.1 Bazterreko paisaiek irudikapen gutxi dituzte	172
8.2.2 Lehen arketipoa: nekazaritza giroko euskal paisaia	173
8.2.3 Bigarren Arketipoa: Bilbo = Itsasadarra	174
8.2.4 Euskal Artearen historiari gainbegiratu labur bat	175
8.3 Paisaia iruditegi grafikoaren interpretazio lana	178
8.3.1 Bilboren bi irudi 19. Mende hasieran	178
8.3.2 Material grafikoaren azterketa	178
8.3.3 Euskal paisaia arketipoaren osatzea: Nekazaritza paisaiaren irudikapenak 181	
8.3.4 Bilboko itsasadar industrialaren arketipoaren osatzea	182
8.3.5 Begirada hibridoa: hirugarren saila	183
8.4 Itsasadarraren eta Mendiaren banaketa	184
9.0 ATALA. Lehen Eszena:	
Landa Lana	187
[Tresnaren lehen aplikazioa]	187
9.1 Sarrera	187
9.2 Landa Lana eta dokumentazioa	187
9.3 Paisaia Elementuen bilketa eta sailkapena	191
9.4 Paisaia Ikuspegiaren formulazioa eta kartografia	192
9.5 Sei Ikuspegiaren formulazioa eta esanahia.	195
0. Mendi Tradizionala	197
1. Mendi Baliabide: Basogintza eta Meatzaritza	197
2. Mendi Oztopoa	200
3. Mendi Erabilgarria	201

4. Mendi Berdea	202
5. Mendia Bizilekua	203
9.6 Ondorioak	205
10. ATALA. Bigarren Eszena:	
Artxibo lana	207
10.1 Sarrera	207
10.1.1 Dokumentazio prozedura	209
10.2 Agirietako edukien dokumentazioa eta analisia	217
0. Mendi Tradizionala	219
1.1. Mendia Meatzaritza Baliabidea	224
1.2. Mendia Basogintza Baliabidea	228
2. Mendi Oztopoa	231
3. Mendi Erabilgarria	236
4. Mendi Berdea	239
5.1 Mendia Bizileku Formala	241
5.2 Mendia Bizileku Informala	245
10.2.1 Dokumentazioaren eta Analisiaren Ondorioa	247
10.3 Agirien irakurketa teorizatua	248
0. Mendi Tradizionala	250
1.1. Mendia Meatzaritza Baliabidea	253
1.2. Mendia Basogintza Baliabidea	257
2. Mendi Oztopoa	261
3. Mendi Erabilgarria	265
4. Mendi Berdea	270
5.1 Mendia Bizileku Formala	276
5.2 Mendia Bizileku Informala	280
10.4 Ondorioa	283
11.0 ATALA. Emaitzak eta Eztabaida	285
11.1 Testuinguru teorikoa eta metodologikoa	286
11.1.1 Testuinguru teorikoa	286
11.1.2 Testuinguru metodologikoa	289
11.2 Paisaia-Ikuspegi tresna eta bere lau dimentsioak	290
11.2.1 Tresnaren oinarri teorikoak	290
11.2.2 Paisaia Ikuspegi Tresnaren ekarpen onargarriak	291
11.3 Ikerketa kasua: Bilboaldeko paisaia menditsuaren bazterreko izaera osatuz	293
11.4 Lehen Eszena	294

11.4.1 Lehenengo eszenaren helburua eta diseinua	294
11.4.2 Paisaia Ikuspegi tresnaren zenbait muga metodologiko	296
11.4.3 Paisaiaren Interpretazio Ikuspegi anitza eta Bigarren Eszenaren beharra	296
11.5 Bigarren Eszena	297
11.5.1 Bigarren Eszenaren helburua eta diseinua	297
11.5.2 Hiri Bazterreko Paisaiaren osaketan joerak: Dimentsio barneko joerak	299
11.5.3 Hiri Bazterreko Paisaiaren osaketan joerak: Dimentsioen arteko gainjartzeak	305
11.5.4 Berariazkoa ez den paisaia eraikuntza	308
11.5.5 Bigarren Eszenaren mugak: agiri kopurua eta teoria anbiguoak	309
11.6 Ikuspegi arteko konbinazioak eta beste mendi mota batzuk	311
11.6.1 Konbinaketak	312
11.6.2 Beste mendi mota batzuk	316
11.6.3 Laburpena	323
11.7 Eraitzen Ondorioak	323

IV. ZATIA

Ondorioa	327
12. ATALA. Ondorioa	329
12.1 Laburpena	329
12.2 Ikerketa helburuak erdiestea	333
12.3 Mugak	335
12.4 Aurrera begira	336
BIBLIOGRAFIA	339

Esker onak

Tesi hau gauzatzeko ezinbestekoa izan diren hainbat pertsonen eta erakunderen laguntza jaso egin dut joan diren urteetan. Hasteko, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzaren eskutik 2009ko deialdian jasotako doktoretza aurreko dirulaguntzari esker, lanaren zati handiena egin ahal izateko beharrezkoa den funtsezko iturri ekonomikoaz gozatu ahal izan dut. Horrezaz gain, Euskal Herriko Unibertsitateako mugikortasun dirulaguntzak ere jaso egin ditut atzerrian bi egonaldi egin ahal izateko, 2012 eta 2013 bitartean.

EHUko Donostiako Arkitektura Eskolatik, aipatu beharra daukat Arkitektura Saileko zuzendari den Lauren Etxeparen Arkitekto Doktore jaunaren aldetik jaso dudana erabateko babesa prozesu osoan zehar. Era berean, nire tesi zuzendaria izan den Marte Mujika Arkitekto Doktore andrearen eskutik erabakiak hartzeko eta ikerketa bideratzeko malgutasun eta ikuskera zabala eskaintzeaz gain, tesiaren garapenean eta bilakaeran bere askotariko laguntza eta onespena ezinbestekoak, eta eskertzekoak dira.

Gainontzean, 2012ko Urtarrila-Ekaina bitartean University College of London-en the Bartlett Arkitektura Eskolako Urban Lab-ean egin nuen egonaldian gidari izan nituen Nick Gallent katedraduna eta Ben Campkin doktorea eskertu behar ditut sakontasun eta zabalera teoriko zein metodologikoen aukera aniztasunera hurbiltzeagatik, baita bertan lana elkarbanatzeko izan nituen oportunitate askotarikoengatik ere.

Amaitzeko, Munichen 2012-2013 bitartean Technische Universität Müncheneko Arkitektura Fakultatearen barne dagoen LAREG [*Landschaftsarchitektur Regionaler Freiräume* edo Lurralde mailako espazio irekien paisaia-arkitektura] katedran tesiaren norabidea findu baita zurrundu ere egin zen bertako katedraduna den Sören Schöbel-Rutschmann jaunari esker, zeinak, gerora ere, tesiko zuzendarikide bezala, ezinbesteko laguntza eta gidaritza eskaini egin dizkidan. Berezi eskertzekoak dira haren abegikortaunsa, eskuzabaltasuna eta dedikazioa, katedrako publikazioetan parte hartzeko nahiz bestelako baliabideak erabiltzeko aukerez gain.

Halaber, aipatu nahi nituzke Martin Prominski Katedradun jaunak eta Vera Vicenzotti Doktore andreak nazioarteko tesia aipamena lortu ahal izateko egindako iruzkinak; horiek biltzeko egindako esfortzua eta berauen zorrozatasuna benetan dira eskertzekoak.

Urte guzti hauetan hainbat tokietatik pasatzeak, ezinbestean hainbat egoera berrietara eramane nau, horrek dakarren egokitzapen beharrekin, beti nahi ez bezain xamurrak. Bidean ezagutu ditudan hiri guzti horiek—Londres, Munich, Kashiwa— tesi honen, baita neronen zatiak ere badira. Hauei ere eskerrak emateko beharrean naiz. Noski, betiko tokiei, Bilbori, eta betiko lagunei ere esker aunitz. Batetik bestera ibilita ere, beti bueltan jaso nautenak, haiek ere nolabait aldatuta, moldatuta, berrituta. Ezin aipatu gabe utzi ditzaket bidean egin ditudan lagun berriak, egoera berriak erreztu egi dira haien konpainia onean.

Etxekoei, eskerrik beroena eta maitasunik handiena, edonola eta edonoiz ere, beti aurrera egiten laguntzeagatik.

Kepari, aitzinera egiteko dudan bidaide onenari, beste dena, eta guztia eskertzen diot, bihotz bihotzez.

Irudiak eta Taulak

Taulak

1 Taula Oinarrizko lan teorikoen ekarpenen epistemologia.	46
2 Taula Barneko eta Kanpokoaren arteko ezberdintasunak adierazten ditu Cosgroven lana oinarri hartuta (D. E. Cosgrove, 1998).	47
3 Taula Paisaiaren eraikuntzaren dikotomiak	57
4 Taula Hiriaren kontzeptualizazioak dataren, eskalaren eta geografia erreferentearen arabera sailkatuak	60
5 Taula Hiri-ertzaren eta hiri-bazterren kontzeptualizazioak urtearen, kontzeptuaren, egilearen eta erreferente geografikoaren arabera	70
6 Taula Hiri-ertza formulatzeko beste hainbat adiera (Adell, 1999; Thomas, 1990)	72
7 Taula Lurralde Multi eta Mono –funtzionalen arteko ezberdintasunak (Selman, 2009)	93
8 Taula Ikerketa estrategiak (Deming & Swaffield, 2011, p. 9)	123
9 Taula Rayner Banhamen Los Angeles hiriaren interpretazioa lau ekologien bidez.	126
10 Taula Pinchemel eta Turriren ereduaren, eta Busquetsek Paisaiaren Kudeaketa Proiektu bateko pausuen arteko elkarkidetzak (Busquets, 2009).	131
11 Taula Paisaia-lzaeraren Ebaluaziorako Metodologiaren jario diagrama (Swanwick & Land Use Consultants, 2002, p. 13) interpretatua.	132
12 Taula Tesian proposatzen den metodoaren eta metodo aurrekarien prozeduaren arteko alderaketa taula.	136
13 Taula Bilboaldeko garapenaren lau plangintza fase nagusi (Erquicia & País Vasco, 2003)	164
14 Taula Bilboaldeko eta Euskal Herriko garapen historiaren kronologiako zenbait gertakari eta elementu, eta haien datak.	168
15 Taula Bilboaldeko eta Euskal Herriko paisaia irudikapenen edukiaren analisirako taula. Ikusi A Gehiagarria aztertu diren irudietako batzuk ezagutzeko.	179
16 Taula Lurraldeko elementuak eta jarduerak sail generikoetan bilduta.	192
17 Taula Bilboaldeko Bazterreko Paisaien berreraikuntza espekulatiboa osatzeko prozedura eta egituraketa.	193
18 Taula Esplorazioan osatu den lurralde elementuen sailkapenaren doiketa: Ikuspegi mugatzea.	196
19 Taula Bigarren Eszenako ikerketa prozedura: faseak, teknikak, irizpideak.	209
20 Taula Egokiro bildu nahi ziren elementuen inguruko informazioa, eta haren balizko kokapen agiritegi/ datu basea.	211
21 Taula Dokumentuen analisirako galdetegi generikoa.	216
22 Taula Paisaia Ikuspegiko Lau Dimentsioak interpretatzeko irizpideak.	249
24 Taula MMB Dimentsioen korrelazio taula	255
25 Taula MBB Dimentsioen arteko korrelazio taula	260
26 Taula MO Dimentsioen arteko korrelazio taula.	263

27 Taula ME Dimentsioen arteko korrelazio taula.	268
28 Taula MBe Dimentsioen arteko korrelazio taula	274
29 Taula MBiF Dimentsioen arteko korrelazio taula.	278
30 Taula MBil Dimentsioen arteko korrelazio taula	282
31 Taula Lau Dimentsioen artean topatu diren gainjartzeen laburpena	309

Irudiak

1. Irudia Tesi egituraren eta metodologiaren ikuspegi diagramatikoa	27
2. Irudia Zube, Sell & Taylor-en eredia paisaia hautemateko, hiru dimentsioen interakzioan oinarritua: Gizakia, Paisaia eta Emaizak	127
3. Irudia Paisaia-Ikuspegia metodo interpretatzailearen aplikazio-prozedura bi Eszenatan eta eratorri daitezkeen emaitzak.	149
4. Irudia Paisaia Ikuspegiaren lau dimentsiotako egitura	152
5. Irudia Paisaia-Ikuspegia tresnaren Lau Dimentsioen arteko interakzioa	153
6. Irudia 1946ko planeko planoetan ageri den mendien altxaera azaltzen duen ilustrazio dekoratiboa	165
7. Irudia Oilarraren deskribapen organikoa edo metafora urbano zoomorfikoa.	166
8. Irudia 1964ko Planeko eremu landatarren eta parkeen analisi planoak.	167
9. Irudia 1964ko Planeko Zonifikazio planoak.	167
10. Irudia Bilboalderako formulatu diren 6+2 Paisaia Ikuspegiak.	194
11. Irudia Sei Ikuspegi bidezko interpretazioa irudikatze geruza anitzeko mapa.	195
12. Irudia Mendi Tradizionalaren barneko elementuen kartografia.	197
13. Irudia Mendia Baliabidearen Ikuspegi barneko elementuen kartografia.	199
14. Irudia Mendia Oztopo Ikuspegiaren barneko elementuen kartografia.	201
15. Irudia Mendi Erabilgarria Ikuspegiaren barneko elementuen kartografia.	202
16. Irudia Mendi Berdea Ikuspegiaren barneko elementuen kartografia.	203
17. Irudia Mendia Bizilekuaren barneko elementuen kartografia.	205
18. Irudia Ikergaiaren testuinguru teoriko nagusia	286
19. Irudia Ikuspegien arteko Konbinaketak. Urdinez ageri dira maizen konbinatzen diren Ikuspegiak.	314
20 Irudia Metodologiaren laburpena: Pausu metodologikoak eta bakoitzetik eratorritako Kategoriak edo Emaizak	332

I. ZATIA

Sarrera

Tesi hau lurraldearen ulermenaren eta eraldaketaren arteko harremanari buruzko lan bat da. Inguratzen gaituzten tokien irakurketen eta horien eraginez sortzen ditugun eraldaketen arteko interakzio aniztasuna da lanaren abiapuntua. Tesiak interpretazio metodologia bat proposatzen du Bilboaldeko Hiri-Bazterreko Paisaien kasuko aplikazioaren bitartez garatua. Honek, praxiari erronka bat planteatzen dio; espazio-irudikapen aniztasunak sortzen duen erabakimenerako egoeraren konplexutasunak suposatzen duen erronka, alegia. Ikerketaren funtsezko postura teorikoa eta metodologikoa ikuspuntu paisajistikoak ezartzen du; hots, tokian tokiko kultura eta geografia baldintzen arabera lurralde-eraikuntza kontzeptualaren eta fisikoaren arteko elkarreraginak.

1.0 ATALA. Sarrera

1.1 Motibazioa

Tesiaren motibazioa bi alderdi nagusik osatzen dute. Batetik, arkitekturaren edo diseinuen eta tokiaren arteko harremanaren oinarrian dagoen espazioaren irakurketa irizpideak, eta, bestetik, eraikuntzaren eta ekonomiaren krisiak eragindako praktika testuinguru berria..

Iñaki Abalosek (2001) *La Buena Vida* liburuan arkitektura eta fenomenologia aztertzen zuen atalean galdetzen zuen: posible ote da toki degradatu bat fenomenologikoki irakurtzea arkitekturaren bitartez esperientzia atsegingarri bat sortu ahal izateko? Fenomenologiaren oinarrian dago tokiaren *genius locia* ulertzea, eta hirien periferien kasuan, esaterako, Eduard Bruren (1997) ustez, jainuek alde egin dute eta hortaz izaerarik edo esentziarik definitzea ezinezkoa edo, zaila bihurtzen da. Alegia, eremu degradatu bat fenomenologikoki ulertzerakoan oztopoak topatzen dira ezaugarri horiekin arkitektura edo diseinu erakargarri bat osatu ahal izateko.

Bestalde, tokiaren irakurketa subjektiboen kontsiderazioek ez dute islarik praktika arruntan, kontutan hartzen baldin badugu hirigintza arauak edota eraikuntza kode teknikoak ezartzen dituzten tokiaren baldintzak kuantifikazioaren bidez soilik zehazten direla. Hortaz, lekuaren irakurketa fenomenologiko edo subjektiboentzako tokia urria dela esan daiteke.

Bigarren alderdiak, 2008tik irauten duen krisialdiak marraztutako egoera profesionalarekin du zerikusia. Hots, arkitektura estilismoen eta hiriaren hazkuntzari nolabaiteko muga jarri zion egoerarekin. Horren arabera, existitzen den hiriaren berreskurapena eta birgaitzea bilakatzen da arkitektoen etorkizuna ahalbidetu dezakeen praktika eremua.

Existitzen den lurralde eraikiaren kudeaketak hiri bazterra kudeatzea ere dakar, hots, fenomenologikoki kualifikatzea zailak diren eremuen antolamendua eta diseinua. Kasu horietan, hirigintzak ezartzen dituen interbentzio irizpideen argitasuna hirigunearekin alderatuta ilunagoa edo zehaztapen urriagokoa dela esan daiteke. Eremu hura gobernatzen duen arau nagusia, EAEko testuinguruan bederen, hiru lurzoru klasifikazioen artekoa bereizketa erabakitzen duena da: urbanoaren, urbanizagarriaren eta ez-urbanizagarriaren arteko muga lauso bezain erabakigarria ezartzen duena; hots, hiri bazterrik onartzen ez duena.

Nahiz eta hainbat terminoren bitartez hiri bazterreko paisaiak izendatu daitezkeen—periferia, periurbanitatea, bazter hiritar-landatarra, *sprawl*, hiri-ertza eta abar, bere existentzia

edota izaerak ez du islarik ezta onarpenik ere euskal plangintza eta antolamendu testuinguruetako dokumentuetan, behintzat. Egon badago Hiri Bazterreko Paisaien onarpena egiten duen tresna ofizialik, hain zuzen ere, Europako Paisaiaren Hitzarmena. Alabaina, bere ekarpen kontzeptualak estimagarriak badira ere –jendearen hautematea eta toki orok duen paisaia izaera onartzen baititu–, oraindik orain, lausoegia suertatzen da paisaia interbentzio eta balorazio irizpideei dagokionez. Hitzarmena oneste hutsak ez du paisaien mantenua, planeamendua eta kudeaketa bermatzen, eta irizpideak lantzeke daude, paisaia-izaerak kasuan kasu aztertzeke beharra adieraziz.

Hortaz, motibaziotik bi ikerketa-arazo eratorri daitezke: tokiaren irakurketa objektiboen eta subjektiboen arteko talka –edo hirigintzaren kuantifikazioen nagusitasunak irakurketa kualitatiboetara jartzen dizkion mugak, eta bestetik, hiri-ertzaren kudeaketaren kasu zehatzean, honen definizio gabeziak eta kualifikazio negatiboek marrazten duten interpretaziorako erronka edo *genius loci*-aren ausentzia.

1.2 Ikerketa eta ikerketa galderak: nolakoak dira Hiri Bazterreko Paisaiak?

Hasierako burutapen horiek, hots, hiri ertzean interbenitzeko irizpideen gabezia, eta lekuen irakurketa objektibo eta subjektiboen arteko talka, hiri bazterreko paisaien izaeraren ezaugarriak eta nolakotasunak bilatzeko asmo bilakatu ziren. Lan hori aurrera eramateko, ezaguna zen toki baten kasua ikertzea erabaki zen, hots Bilboaldeko hiri bazterra. Kasu honek, errealitate konkretu bat ordezkatzeko du, baina era berean, hiri bazterreko paisaia mota bat gehiago da. Hots, paisaia tipologia baten ezaugarriak ditu, baina era berean tokiko berezitasunak ere baditu. Hortaz, tesiaren ikerketa-galderak hurrengoak direla esan daiteke:

-Bazterreko paisaiaren berezko izaera nolakoa da? Osatu duten elementuen eta eraginaren ezaugarriak zeintzuk dira?

-Zeintzuk dira plangintzan edo interbentzio bidez indartu daitezkeen bazterreko paisaiaren balio potentzialak?

-Nola interpretatu daiteke bazterreko paisaia bat alderdi eta ezaugarri subjektiboak eta objektiboak biak kontutan hartuz?

Galdera horiei erantzuteko, tesi hau bazterreko paisaia-izaeraren azterketari ikuspegi subjektibo-arteke baten bidez eta hurbilketa espekulatibo bat eginez abiatzen da; hots, tokian tokiko ezaugarri neurgarriak eta ukiezinak elkarlotzen dituen, eta berezkitasunak bilatu nahi dituen Hiri Bazterreko Paisaien ulkerak konplexu eta barnerratzaila bati ekiten zaio ezarritako lurzoru kategorizazioak gainditzeko asmoz.

Tesi honek hiri bazterreko paisaien izaera ulertzen lagun dezakeen tresna metodologiko bat izan nahi du. Lurraldearen ulermen objektibo eta subjektiboaren tentsioek sortzen duten testuinguru praktikoari egin nahi zaio ekarpena, baita paisaia hiritartuek duten diseinu eta

plangintza irizpide gabeziak zehaztutako testuinguruari ere. Zehazki, diseinu eta plangintza erabakiak hartzen lagunduko duen eta tokian toki historikoki eta kulturalki zehatza den ulerkerak bat osatzeko ahalmena duen interpretazio tresna bat proposatuaz eremu praktikoari egin nahi zaio kontribuzioa.

1.3 Erronka:Hiri Bazterreko Paisaien ulermena

Tesi honen erronka nagusia da beraz, Hiri Bazterreko Paisaien izaera ulertzeko metodo bat diseinatzea. Horrek baldintza batzuk aurretik ezarrita dakartza: Hasteko, gizarteak lurraldearengan duen eragin kontzeptual eta fisikoa aintzat hartzeko beharra, eta lurraldearen interpretazio mota anitzak aintzat hartzea; hainbat agenteen eskutik datozen ulerkerak objektiboak nahiz subjektiboak, alegia. Ulermen hori modu sistematiko eta normalizagarri batean egin beharko litzateke prozedura propositiboetako analisi eta proposamen prozedurekin bateragarria suertatu dadin.

Gainera, paisaia arketipiko ezagunen eragina saihestu beharko litzateke, baliotsua eta esanguratsua denaren kontsiderazioari dagokionez ahal bezain ikuspegi barneratzailea bilatu ahal izateko. Horrek esan nahi du, analisia egiterakoan aurrez tokiaren bokazioa edo estetika kalitatea ezarri gabe bideratu beharko litzatekeela, lurraldearen etorkizuneko egoera bertako ezaugarri eta indarguneetan bilatuz. Analisia gainera, lurraldeko elementu eraikien arteko balio diskriminaziorik ezarri gabe egin beharko litzateke; hots, orokorrean atseginak eta desatseginak diren elementu eraikien artean bereizketarik egin gabe. Alderantziz, jarrera enpatiko baten bidez aurre egin beharko litzaiok paisaiaren analisiari (Sieverts, 2003).

Irudi konplexu horrekin lan egin dezakeen testuinguru teorikoa epistemologia konstruktibista batek eskaintzen du. Gizarte konstruktibismoaren irizpideak paisaiara estrapolatzen baldin badira—errealitatea gizarte praktiken eta prozesuen ondorioa da, eta gizarteari buruzko jakituria gizarteak berak sortzen du (Sandywell, 2008), esan daiteke paisaia gizarteak eraikitako fenomeno bat dela, hainbat parte-hartzailerekin eta beste hainbeste jardueren ekoizpenarekin osatua dena, eta paisaiaren jakitura ere gizarteak eraikitakoa da. Era berean, paisaiaren inguruko ideiak kulturalki zehatzak direla ere iradokitzen du ontologia konstruktibista batek (Swaffield, 2006). Ondorioztatzen da, gizartea aldatzen den bezala, paisaiak ere aldatzen direla, bai maila materialean, zein ideologikoan ere (D. E. Cosgrove, 1998). Beraz, hainbat geruzatiko eta beste hainbeste aktoreen eraikuntza edo ekoizpen bat bezala irudikatu daiteke paisaia (Meinig, 1979). Alegia, Paisaiaren osaera konplexua kudeatzeko ahalmena du postura konstruktibista batek.

Hortaz, tesiaren helburua den hiri bazterreko paisaien ulermena lortzeko ikuspegi subjektu-arteak batetik abiatzen da, postura objektibistarekin edo subjektibistarekin bat egin gabe, eta, ordea, bien artean bitartekari lanak eginez (Swaffield, 2006). Tesi honek Bazterreko

Paisaien izaera interpretazioaren bidez ulertzeko asmoa dauka, esan bezala, paisaiaren alderdi materialak zein kontzeptualak aztertuz, paisaia kulturaliki eta geografikoki zehatza den kontzeptu eraiki bat dela onartuta. Izaera zehatz horren bilaketak, paisaia tipo hauen izaera-gabetasun usteak gainditu nahi ditu, eta etorkizuneko egoerak planifikatzeko baita diseinatzeko ere baliagarriak diren ezaugarri zehatzak topatu nahi ditu ertzeko lurralde horietan.

1.4 Proposamena: interpretazio metodo bat

Tesiaren Estrategia nagusiak ikerketan eman diren pausuak zehazten ditu, eta, kasu honetan prozesu abduktibo edo erreflexibo bat jarraitu da. Aldiz, tesiaren alderdi Epistemologikoak, ikerlariaren eta ikergaiaren baita proposamenaren arteko harremana zehazten du. Lehenengo aspektu estrategikoak teoria eta metodoaren arteko lotura bat definitzen du, hots, hainbat metodorekin esperimendatzen da ikerketa galderari hobekien lerrotzen zaion erantzun onargarriena bilatzeko. Bigarren alderdiak berriz, oinarri epistemologiko konstruktibista bat du, eta paisaiaren jakintza oinarrien izaera *eraikia* ere onartzen du. Ondorengo lerroetan, ikerketa testuinguru honen arabera diseinatu den ikerketa azaltzen da, pausuz pausu.

Hasteko, Hiri Bazterreko Paisaia ikergaiarekin zerikusia duen Literaturaren berrikuspena egin da, testuinguru teorikoa ezartzeko, ikergaiaren irudi garbiago bat lortzeko eta joera teorikoak detektatzeko. Jarraian, testuinguru metodologikoaren egituraketa landu da paisaia analizatzeko eta interpretatzeko ezarriak dauden metodoetan oinarrituta. Bi alderdi teoriko eta metodologikoen bidea eman diote kasu gisa aukeratu den Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia menditsuaren interpretazioari. Interpretazio lanak bi metodo nagusien bitartez egin dira, Landa Lana eta Artxibo Lana, hainbat ikerketa teknika erabiliz eta tresna zehatz bat aplikatuz.

Tesi honek Hiri Bazterreko Paisaien interpretaziorako tresna bat eta prozedura bat proposatzen du. Bi alderdi nagusi berezitu daitezke proposamenean, batetik tresna interpretatzailea, eta bestetik, tresnaren aplikazio prozedura. Tresna interpretatzailea Paisaia-Ikuspegia(PI) izenarekin adierazi da eta paisaiaren ulermen konstruktibistaren oinarri teorikoak biltzen ditu. Bi helburu betetzeko diseinatu da; batetik, lurralde konkretu bat osatu duten hainbat *ikuspegi* edo lurraldea ulertzeko modu onargarriak formulatzeko, eta bestetik, formulatzen den Paisaia-Ikuspegi bakoitzeko ikerketa hermeneutikozko lau lerro ezartzeko. Laburrean esanda, Paisaia-Ikuspegi tresna paisaiaren ebaluazio espekulatiboa egiteko eta era berean paisaiaren interpretazio sistematiko bat egiteko erabiltzen da. Hots, tresnak internet bilatzaile baten moduan funtzionatzen du ikertzen den fenomenoaren hainbat hurbilketa

eskaintzeko gai delako, eta bestalde, filtro gisa ere balio du ikerketa egituratzen duelako hainbat motako informazioa sailkatuz eta bilduz. Funtzionalitate bikoitz hau bi Eszena edo fasetan frogatzen da eta elkarlotuta dauden bi emaitza sorta eragiten ditu.

Hortaz, Paisaia-Ikuspegi tresna hiri bazterreko paisaien ikerketa kasu zehatz baten interpretazio prozeduraren bidez inplementatzen eta frogatzen da: Bilboko kasu menditsuan, hain zuzen ere. Kasu zehatz honek ere tresna enpiriko baten izaera du, izan ere, proposatzen den hiri bazterreko paisaien interpretaziorako metodoaren garapenean eta frogatzean erabiltzen da.

Paisaia-Ikuspegiaren aplikazioko lehen pausuari Lehenengo Eszena izena eman zaio eta lehen aipatu Landa lanaren bitartez ematen zaio abiada. Landa lana hainbat dokumentazio txangoetan ematen da eta emaitza gisa azter-eremuaren hastapeneko interpretazio barneratzaile bat lortzen da, hainbat Paisaia Ikuspegiaren bitartez osatzen den paisaiaren ebaluazio espekulatzailea, alegia. Landa Lanak begi-bistaz ikusten diren elementuak dokumentatzen ditu 30 txango ingurutan eta ehundaka argazkitan. Elementuak kategorizatu eta geruzatan mapeatzen dira. Sail eta geruza horiek lurraldea interpretatzeko Paisaiaren Ikuspegiak adierazten dituzte.

Ikerketaren bigarren zatian, edo Bigarren Eszenan lehenengo berreraikuntza horretatik abiatzen da artxibo lan bat egiteko. Atal honen helburua, 1.go Eszenan formulatu diren Paisaia-Ikuspegiaren alderdi ukiezinak osatzea da. Artxibo Lanean, edo Bigarren Eszenan, sailkatutako eta interpretatutako lurralde elementuekin zerikusia duten agiriak osatu dute datu base enpirikoa, ia 100 agiri bilduta. Horiek analizatu eta interpretatu egin dira beraien edukia analizatuz, baita diskurtso eta irudien esanahiak interpretatzeko teknikak erabiliz ere. Analisi eta interpretazio honek tresnaren bigarren funtzionalitatea irudikatzen dute, hots, modu sistematikoan paisaiaren izaera interpretatzen duena hainbat informazio motaren bilaketak egituratuta. Artxiboko dokumentazioak Paisaia-Ikuspegi bakoitzeko lau dimentsioetan zehazten den informazioa bilatzen du agiritan:

Ideia-1.go Dimentsioa: lurraldearen ulerkera

Irudikapena-2. Dimentsioa: Ideiaren edo 1.go Dimentsioaren irudi bidezko edo idatzitako irudikapena.

Agentzia-3. Dimentsioa: Ideia sustatu duen eta Irudikapena ekoitzi duen gizarte agentea(k).

Elementuak-4. Dimentsioa: Ideiaren eraginez eraikitzen-sortzen direnak.

Ondoren, bi Eszenatan lortu diren emaitzak aztertzen dira, eta elkarren arteko loturak eta joerak bilatu dira. Bertan, ikerketa kasuaren izaera osatzen duten egiturak eta joerak biltzen dira emaitza gisa, baita proposatzen den metodoak egiten duen ekarpenaren justifikazio gisa

ere. Finean, Bazterreko paisaiaren kasuistika konkretutik, paisaiaren interpretazio estrategia orokor bat planteatzera iritsi dela esan daiteke. Kasuistika konkretu hori Bilboaldeko mendialdeko paisaiak osatzen du, eta kasuak kutsu instrumentala du eta oinarri enpiriko gisa erabiltzen da.

Amaitzeko, epistemologia konstruktiboaren baitan ikerlariak duen rolari buruz hitz bi. Ikerketa modu honek ikerlariak ikergaiarekin duen lotura onartzeko ahalmena du. Hortaz, aztertzen den fenomenoari buruz hark egin ditzakeen balorazioak aintzakotzat hartzen dira ikerketan. Kasu honetan ikerlariak lotura zuzena du ikerketa kasuarekin, Bilboaldearekin, alegia. Horregatik, errealitatearen (Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia menditsuen) begirada balioztatuak eragina du ikerketa kasuaren interes eremuak eta oinarrizko paisaia elementu esentzialak identifikatzerakoan. Ikerlariaren eragina beraz, tokiko arazo eta garapen zehatzak ezagutzen dituelako, elementuen eta tokien aukeraketan topatu daiteke; “aukeraketa irizpide” batean gorpuztua, alegia.


1.5 Egitura eta edukia

I Zatia Sarrera

1.0 At. Sarrera

II Zatia

Oinarri teorikoak
eta metodologikoak



1. Irudia Tesi egituraren eta metodologiaren ikuspegi diagramatikoa

Lau Zati nagusik egituratzen dute tesia, eta zati bakoitza atal ezberdinez osatua dago. Hau da, tesia 12 ataletan garatzen da eta hauek Lau Zatitan antolatzen dira. Horrezaz gain, III. Zatik 9. eta 10. Ataletako bakoitzak ikerketa enpirikoaren Lehen eta Bigarren Eszenak irudikatzen dituzte.

Lehenengo zatia ikerketaren Sarrera da. Bertan ikerketa motibatzen duten arazoak adierazten dira, ikerketa galdera, helburua, estrategia, epistemologia eta proposamen metodologikoarekin batera. Horrezaz gain, ikerketan zehar hainbat alditan errepikatzen diren hitz-gakoak ere azaltzen ditu. Bigarren zatia, ikergaiaren inguruko lan aurrekariak eta teoria biltzen ditu. Horretarako, hiri bazterreko paisaiak zuzenean landu izan dituzten eta zeharka eragiten dieten gaiak jorratu dira. Lanaren oinarri teorikoa arautzen duten irizpideak ezartzea da helburua, horretarako ikergaiaren ikuspegi zabal bat erabiliz. Hirugarren zatia da denetan luzeena. Bertan tesiaren proposamen nagusia azaltzen da. Funtsean, bertan paisaia interpretatzeko metodologiaren azalpena egiten delako tesiaren gorputza dela esan daiteke. Laugarren zatia Ondorioa eta Aurreragoko Ikerketak osatzen dute.

II. zatia ikerketa eta teoria aurrekarien berrikusketa biltzen du, eta han hainbat gai lantzen dira; Hiri Bazterreko Paisaiekiko ukitzailak diren gaiak, baita oinarrizkoak direnak ere. Funtsezkoak diren ikuspegiak Paisaia, Hiri eta Hiri-Ertza dira, eta 2. Eta 3. Atalean biltzen dira, hurrenez hurren. Nolabait periferikoagoak direnak, Kultura-Paisaia, Paisaia eta natura, eta ikerketa kasuarekin lotura zuzena duen Mendi-paisaia ere elkartuta aurkezten dira 4. Atalean. Ondoren, 5. Atalak Hiri Bazterreko Paisaien inguruko eztabaida eta hurbilketak lantzen ditu eta berrikuspenetik eratorritako ondorioak biltzen dira. Era berean, ikerketa metodologiaren irizpideak diren oinarrizko baieztapen teorikoak biltzen dira bertan. Gai aniztasun honekin, ikergaiari eragiten dion diziplina alor zabala adierazi nahi da. Gainera, tesiaren oinarri teorikoak eta gaiaren hurbilketa zehaztu nahi dira.

II. Zatiko amaierako 6. Atalean, ikerketa-metodologiaren testuingurua ezartzen da, estrategia eta epistemologia azalduaz. Gainera, eredugarriak diren beste analisi metodologia batzuk aipatzen dira, horien prozedurak, dokumentazio mota eta teknikak nabarmenduz. Horrezaz gain, erabili diren ikerketa-tekniken landa-laneko eta artxibo-laneko erreferentziatzko zenbait ikerketa eredu deskribatzen dira

III. Zatia Paisaia Ikuspegi tresna ikerketa kasuarengan aplikatuz burututako Bi Eszenatiko Interpretazioa biltzen du, eta bost Ataletan egituratzen da beraz. Esan nahi baita, Lurraldearen analisirako eta hiri bazterreko paisaien izaeraren ulermenerako interpretazio proposamen metodologikoaren garapena azaltzen dela bertan. Bi Eszena nagusiak azaltzeaz gain, Bilboaldeko Ikerketa kasua aurkezten da, eta funtsezko tresna den Paisaia-Ikuspegiaren ezaugarriak azaltzen dira hemen.

7. Atala Paisaia-Ikuspegia tresnaren deskribapena eta azalpenak aurkezteko erabiltzen da. Hura moldatzen duen testuinguru teorikoa, bilatzen duen helburu hermeneutikoa eta ahalbidetu dezakeen paisaiaren interpretazio konstruktibistaren eta sistematikoaren balizko onurak aipatzen dira bertan.⁸ Atalean Bilboaldeko Bazterreko Paisaia menditsuen kasuaren

aurkezpena egiten da. Haren aukeraketa justifikatzeko asmoz, Bilboko eremu menditsuen bazter izaera azaltzeko argumentuak adierazten dira.

Lehen Eszena den 9. Atalean tesi-proposamenaren aurreneko pausua esplikatzeko, landa lanaren bitartez aurrera eramaten dena. Datuen bilketa prozedurak azaltzen dira, lurraldeko elementuen sailkapena, eta azkenik, sail horiek erabilia egiten den Paisaia-Ikuspegiaren formulazioa azaltzen da. Amaieran Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuetako Sei Ikuspegiak banaka aurkezten dira. Bigarren Eszena, edo Artxibo lana, 10. Atalean biltzen da eta bi zatitan dago banatua, hots, agiritegiak materialaren analisi eta interpretazio zatietan. Dokumentazio prozedura azaltzen da aurrena, eta ondoren, bildutako agirien analisiaren eta interpretazioaren irizpideak aurkezten dira.

III. Zati metodologikoko azken Atala, 11.a, alegia, Eztabaidarena da. Bertan, metodologia osoaren ekarpenak eta emaitzak aztertzen dira, bereziki Paisaia-Ikuspegia Tresna eta Bi Eszenatako metodologiaren emaitzak landuz. Metodologiaren lorpenak aipatzen dira luze zabalean, Paisaia Ikuspegi bakoitzeko dimentsioen barneko, dimentsioen arteko, baita Paisaia-Ikuspegiaren arteko loturak eta joerak identifikatuz ere. Azkeneko partean aipamena egiten zaie ikerketan bilatu diren eta paisaiaren indargune propositiboak izan daitezkeen, eta espero ez ziren paisaia edo lurralde ulermenei. Amaitzeko, 12. Atalean, tesia itxi egiten da azkenburuko iruzkin batekin eta etorkizunerako ikerketa gomendio batzuen bidez.

1.6 Termino erabilienean esanahiak eta argipenak

1. Paisaia: Europako Paisaia Hitzarmenaren arabera, paisaia “lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita” (Europe, 2000).

Testuinguru horrekin bat eginez, paisaia tesi honetan ikuspegi konstruktivistaren ikuspegitik definitzen da argudiatuz gizarteak egituratutako fenomeno bat dela, une historiko eta kultural zehatzek izan dituzten ingurumenaren ulermen eta eragin dituzten eraldaketetan oinarrituta (D. E. Cosgrove, 1998).

Irudi estetiko atsegingarri bat bainoago, hiriaren kontrakoa den eremua bainoago edota hiriaren atzealde eszeniko bat bainoago, paisaiak geografikoki, indibidualki eta kolektiboki zehaztasuna dute eta denboraren arabera dira. Paisaia ugari existitzen dira, pertsona, kultura, lurralde eta eremu ugari existitzen diren bezalaxe.

2. Lurraldea: Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren arabera, lurralde hitzaren 3. Adierak dio “Estatu baten legeak aplikatzen diren eta bere erakunde politikoek boterea duten lur-, aire- eta itsas eremua” dela.

Tesian, baina, lurralde hitzarekin ikerketa kasuari egiten zaio erreferentzia, eta lantzen eta behatzen den errealitatea adierazten da. Hain zuzen ere, tesiak interpretatzen eta jorratzen duen informazioa eskaintzen duen errealitatea da lurraldea.

3. Hiri-ertza: normalean zatiketa garbi bat (Meeus & Gulinck, 2008) eremu urbanoa eta landatarra kategorizatzen dituen (Qviström, 2013), eta zenbaitzuen arabera oraindik existitzen dena “tradizionaliki hiri gisa ulertzen denarekiko gertu dagoen zona” bezala definituta (Gallent, Andersson, & Bianconi, 2006, p. 5). Antzina hiri hormek gorpuzten zuten elementu morfologikoa, eta tesi honetan kontzeptu abstraktu gisa aipatzen da Espainiar Estatuko eta EAeko plangintza testuinguruetan lurzorua kategorizatzeke erabiltzen den tresna esanguratsua.

4. Hiri-bazterra: Ertza banatzailea baldin bada, bazterrak konektibitatearekin zerikusia du (Meeus & Gulinck, 2008, p. 11), baita trantsizioarekin ere (Gallent et al., 2006). Hiri-ertza eremu bilakatzearen ondorioa da (Shoard, 2000) eta elementu morfologiko gisa landu izan da (Whitehand, 1988). Hiri bazterra suburbanizazio prozesuekin lotuta dago (Adell, 1999; Ipsen & Weichler, 2005; Thomas, 1990), baita periurbanizazioarekin (Adell, 1999; Ipsen & Weichler, 2005), exurbanizazio eta rurbanizazioarekin ere (Gant, Robinson, & Fazal, 2011; Thomas, 1990). Sprawl, suburbio eta bazter peri-urbanoarekin zerikusia du ere (Adell, 1999; Meeus & Gulinck, 2008), ertzeko-eremu izenez [edgeland] ezaguna (Gallent et al., 2006; Qviström & Saltzman, 2008; Shoard, 2000) edo Zwischenstadt edo tarteko-hiri gisa ere (T. Sieverts, 2003). Izaera dinamikoa du lurzoru erabilera eta funtzioen arteko lehiakortasunari dagokionez (Gallent, Shoard, Andersson, Oades, & Tudor, 2004). Esaten da zoriz eraikia izan dela eta hazkuntza prozesu organikoak pairatzen dituela (Gallent et al., 2006) baita hirigintza prozesu bizkorak ere (Qviström, 2013) edota sprawla, eta hala, izaera planifikatua eta kontrolik gabekoa izan ohi duela. Horrek eraginda, plangintzak beti jorratu izan du arazo gisa (Qviström, 2013; Thomas, 1990).

5. Hiri Bazterreko paisaia: hiri bazterreko paisaia bereiztailea da (Antrop, 1994; Gallent et al., 2006; Meeus & Gulinck, 2008; Shoard, 2000). Kontzeptuaren historiari begiratuta, lehenengoz Lefebvrek aipatu egin zuela topatuko da (“Urbane Landschaft,” 2014) zeinak paisaia hiritartu berriarekiko itsutasun bat salatzen zuen. Itsutasun hau paisaia ulertzeko arketipoek moldatutako begiratu baldintzatuak eragiten zuen (Lefebvre, 2003). Beraz, urbanizazio planetarioa den hiriaren hedapen globalarekin (Brenner & Schmid, 2011; Lefebvre, 1989) dauka zerikusia hiri bazterreko paisaiak.

Hiriko eta landa-eremuk paisaiarekiko “nahiko ezberdina den paisaia” (Shoard, 2000) da eta bere izaera anbiguo edo iragankor gisa zehaztu daiteke (Qviström & Saltzman, 2008), hibridoa (Qviström, 2013), efimeroa (Qviström & Saltzman, 2008), kaotikoa (Gant et al., 2011), funtzio anitzekoa (Gallent et al., 2006), modularra (Ipsen & Weichler,

2005), hondar izaerakoa (Marcuse, 2002), zatikatua (T. Sieverts, 2003a), konplexua eta dinamismo altua duen (Antrop, 1994) elementu eta lurzoru erabilera sorta heterogeneoak osatzen dute (Ipsen & Weichler, 2005; Shoard, 2000). Beraiek eraiki dituzten plangintza eta kontrolatzeko prozedurak direla eta maiz deskribatzen da nolakotasunik ez duen paisaia gisa (Clemmensen, Daugaard, & Nielsen, 2010; Muñoz, 2005). Planifikatzaileentzat, zehaztu gabe dagoen egoera bat da, eta hortaz alde batera uzten da (Qviström, 2008) edo ez da aintzat hartzen (Gallent et al., 2006). Hiri bazterreko paisaiak *stand-by* egoera batean egoten dira plan batek beraien egungo egoera eraldatzen duen arte (Qviström & Saltzman, 2008).

Paisaiok nonahikoak (Diener, Herzog, Meili, Meuron, & Schmid, 2005) eta mugagabeak (Picon, 2000) dira baina nolana ere, kasu batetik bestera nolakotasun zehatzak bereiztea posible da (Ipsen & Weichler, 2005). Normalean, haien bazterreko izaerak definitzen ditu, horrek esan nahi du hiri baten irudikapenaren edo identifikazioan tokirik ez daukatela paisaiok. Tesi honetan jorratzen den hiri bazterreko paisaien kasua Bilboaldeko bazterreko mendietan kokatzen dira.

6. Bilboaldea: EAEko plangintza testuinguruan, Lurralde Antolamenduaren legeak EAEko lurraldea antolatzeko ezartzen dituen 15 Ereku Funtzionaletako bat, 35 udalerririk osatua, 370 km²ko hedadura duena eta 862.813ko biztanleria duena 23371,7 bizt/km²ko dentsitatean banatuta.

Tesiaren baitan, Bilboaldeak muga horiek modu lausoan onartzen ditu, eta batik bat bertako mendi magalak aintzat hartzen ditu.

7. Mendia: Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren arabera “Inguruko lurretatik nabarmenki goratzen den lur-zatia, bakartua edo beste batzuekin multzoa osatuz dagoena”.

Bilboaldeko lurzoruaren gehiengoaren malda %10 baino handiagoa da. Nahiz eta gailurrak oso altuak ez izan (gehienak 200-500m artekoak dira), itsasoarekiko gertutasunak eta itsasadarraren presentziak, altitude aldaketa nabarmenak daudela esan nahi du; posible da Bilboko erditik (8m) 4 orduko ibileran Ganekogorta gailurrera igotzea (999m).

Tesiaren baitan mendia, malda eta magala hitzek %10eko malda duen terrenoa izendatuko du. Menditsu izenondoa berriz maldatsua den terrenoa izendatzeko erabiltzen da.

8. Bazterreko Paisaia Menditsua: hiri bazterreko paisaia kasu zehatz bat da mendiak edo terreno menditsu eta geomorfologia zail batek izaera markatzen diona. Kontzeptuaren oinarrian dago geografiak izaera berezia eragiteko duen ahalmena, maila ikusgaiean zein ukiezinean. Menditsu izateak hiri bazterreko paisaien goreneko hierarkian azpisail paisajistiko bat gehiago aldarrikatzen du.

Menditsu adieraren erabilerak, terrenoaren zailtasuna gogora ekartzen du magalen malda pikoen bidez eta ez hainbeste altitudearen bidez, eta bestetik, mendiko baliabideek paisaiaren garapenean izan duten eragina ere adierazten du. Menditsu izateak terrenoaren ezaugarri geomorfologikoak—eta ez ordea klimatikoki anitza den paisaia—adierazten ditu baita berezkoak diren ezaugarri material sorta bat ere—energia, mineralak, baso baliabideak eta abar. Ezaugarri hauek gizarte eta kultura eraldaketak eragin eta pairatu dituzte, denboran zehar une ezberdinetan, gizarte-talde ezberdinen eraginez.

Hortaz, hiri bazterreko paisaia menditsuak eraikuntza kultural bat adierazten dute, hainbat ikuspegiren eraginez egituratua. Ikuspegi hauek mendiko ezaugarri zehatzak aintzat hartzen dituzte, eta orokorrean ikuspegi ruralak eta urbanoak bereizten dira, baita industrialak eta tradizionalak ere. Bilboren kasuan, paisaia hauen bazterreko izaera eta interesgarritasuna mendiek kontsolidatu den hiriarekiko duten gertutasunean eta presentzia maila altuan datza. Distantzia labur horrek hainbat ulerkerak eta transformazio eragin dituzte, batik bat, hiriaren ikuspegitik. Besteak beste, ekintza transformatzaileak, babestzaileak eta mendia muga bezala ulertzeko joera aipa daitezke. Gainera, esan daiteke Bilboren kasuan ertz edo muga naturalek hiriaren eremu erakargarriak eta hiriaren identitatea zedarritzeko duten rolean ez dutela berebiziko garrantzirik. Hiri generikoan gertatzen denaren alderantzizkoa (Koolhaas, 2006) dugu Bilbon; mendiek gorpuzten duten ertz natural hauek bigarren mailakoak direlako, eta, hortaz, haien bazterreko nolakotasuna indartu egiten da paisaiak eraikitzerakoan jasaten duten utzikeria dela eta.

9.Paisaia-Ikuspegia tresna / Paisaia-Ikuspegia (PI): lurralde bateko paisaia ulertzeko diseinatu den tresna edo gailu interpretatzailea da, eta tesiaren ekarpen nagusitzat hartu daiteke. Tresna hau lurraldea “ikusteko” moduak formulatu eta ulertzeko erabiltzen da. Ikuspegi horiek talde edo norbanako batenak dira, denboraren une konkretu batean jazoak, eta eragin transformatzaile edo eraikuntza kontzeptual baten inplikazioa dakarte. Eraldaketa hauek ikusgai diren lurraldearen ezaugarriak baita gizartearen paisaia-eraikuntza ukiezinak dituzten oinarrian.

Tresna egituratzen duten lau Dimentsio existitzen dira: Ideia, Irudikapena, Agentzia eta Elementuak. Lau dimentsio hauek elkarren artean lotuta daude eta interakzio egoera batean daude paisaiaren eraikuntza prozesua islatzen dutelarik.

10.Dimentsioa: Paisaia Ikuspegi (tresna)a egituratzen duen paisaia-adierazlea da eta paisaiaren eraikuntzaren interpretazioa gidatzeko lerro bat osatzen du. Lau Dimentsio nagusi zehaztu eta ezarri dira:

10.1 Ideia Dimentsioa/1. Dimentsioa (1D): Ikuspegi Tresnaren oinarritzko dimentsioa. Lurraldearen eta, bereziki, elementu geografikoen irakurketa eta ulermena formulatzen du.

10.2 Irudikapena Dimentsioa/2. Dimentsioa (2D): Dimentsio honek, Ideia irudikatzen du, eta 3. Dimentsioaren arabera irizpideen arabera egiten den lurraldearen analisia eta ulermena adierazten ditu. Adierazpideak anitzak dira, hemen grafikoak eta idatziak aztertu dira batik bat.

10.3 Agentzia Dimentsioa/3. Dimentsioa (3D): lurraldea behatzen duen gizartea edo norbanakoa adierazten du, eta eraldaketaren edota irudikapenaren egilea edo sustatzailea izan daiteke.

10.4 Elementuak Dimentsioa/4. Dimentsioa (4D): Paisaia Ikuspegi bakoitzak elementu batzuk eragiten ditu. Paisaiaren eraikuntza adierazten du dimentsio honek. Elementuak, ukiezinak edo fisikoki eraikiak izan daitezke.

11. Ikuspegi-Anitzeko Interpretazio Espekulatzailea/ Atzera Begiko Berreraikuntza: Lurralde bat Paisaia-Ikuspegia tresnaren bitartez analizatzerakoan osatzen den irakurketa. Irakurketa honek, lurraldea osatu duten Paisaia Ikuspegi ugariak onartzen ditu, eta geografiaren ulermenaren arabera dira. Interpretazio honen izaera espekulatiboa da ez duelako paisaia konkretu baten eraikuntzaren azalpen edo deskribapen frogatu bat egiteko asmorik. Alderantziz, balizkoa den eraikuntza bat adierazten du, edo hobe esanda, iraganaren berreraikuntza bat. Finean, interpretazio bat da, egungo egoeraren azalpen onargarri edo sinesgarri bat ematen duena, bilakaera historikoa aintzat hartuaz. Izaera irekiko interpretazio bat da, hau da, sortu eta bururatu daitezkeen hainbat Paisaia Ikuspegi onartzeko gai da, eta hortaz ez da paisaiaren interpretazio hertsia eta behin betiko bat.

12. Eszena/ Fasea: Paisaia Ikuspegi tresnaren erabilera proposamena egituratzen duten zati edo pausu metodologikoak. Kasu honetan, interpretazio prozedura Bi Eszena edo Zatik osatzen dute.

13. Interpretazioa: elementu, gertakari edo, kasu honetan, lurralde eta paisaia baten izaera ulertzeko egiten den irakurketa arautua eta teorizatua.

1.7 Tesiaren ibilia

Tesi hau burutzeko prozedura garatu ahala suspertzen joan egin den hainbat faseko bidaia bat izan da, bakoitza bere kutsuarekin eta tesiaren zati batekin lotura duena. Hasiera Donostian eta Bilboaldearen artean zedarritu zen, Marte Mujika doktorearen laguntzarekin eta begirada malgu eta irekiaren laguntzaren bitartez. Hastapeneko hiri-ertzaren esplorazio eta saiakera morfologikoen ondoren, Londresera lekualdatu zen tesia. Bertan, hiriarren eta hiritartasunaren kontzeptualizazioan sakondu egin zen UCLko Urban Lab-aren baitan pasatako 6 hilabeteetan. Bilbora berriz bueltatzerakoan, Hiri ertza, bazter bilakatu zen eta landa lanaren garapenak mendialdean jarri zuen tesiaren fokua. Bidaiaren 4. txanpak Munichera ekarri zuen tesia,

Schöbel katedradunaren LAREG departamentura, hain zuzen ere. Horri esker, tesiak zehaztasunera jo zuen, batik bat alderdi paisajistikoari dagokionez – paisaia hiritartuen [urban landscape] eta paisaia kulturalaren teorian sakontzearen bidez, eta ikerketa zein paisaiaren analisi metodoaren garapena ekarri zuen; hots, tesiaren 1.go Eszenari amaiera eman zitzaion. Hurrengo pausua, atzera Bilbora bueltatzea izan zen. Bertan, ikerketa kasuaren bigarren faseari ekin zitzaion, hots artxibo lanari. Amaierako azken uneak, tesiaren azken gogoeta eta idazketa lanena, Japoneko hiri bazter lasai eta generiko batean burutu egin dira. Honek metodologiaren bukaera eta tesiarekiko distantziamendua ekarri du, azkenburuko eztabaida eta irakurketa baloratua erdiesten lagungarria suertatu dena.

1.8 Euskaraz idatzitako tesia

Tesiaren beste alderdi esanguratsu bat da euskaraz idatzia izan dela, eta ikerketa aldiz, hainbat hizkuntzetan burutu izan dela. Honek zenbait zailtasun eragin dizkio ikerketari, batik bat, euskarazko iturrien gabeziak sortutakoak. Honek lanaren garapena etengabe “itzulpen” egoera batean burutu dela esan nahi du, gehienetan iturriak eta lana bera ingelesetik eta espainoletik edo frantsesetik euskarara itzulpenak eginez. Lanerako testu eta kontzeptu asko ingelesez garatu eta idatzi dira, eta ondoren itzuli dira euskarara. Hala ere, lan honen testua osorik idatzi egin da euskaraz, 8. Kapitulua izan ezik, ingelesezko atal baten zirriborroa itzuli eta euskaraz moldatua izan baita. Zailtasunak zailtasun, itzulpengintza atergabe horri esker, egindako lana zuzendu eta berrikusi egin da, hau ere, etengabe.

II. ZATIA

Oinarri teorikoak eta metodologikoak

Tesiko II. zati honen helburu nagusia, Hiri Bazterreko paisaia ikergaiaren inguruko teoriei eta literaturari gainbegiratu bat eginuz, hura hobeto ulertzeko balio dezaketen hainbat ikuspegi biltzea eta aztertzeaz gain, tesiaren testuinguru metodologikoaren nondik norakoak ezartzea ere bada. Literaturaren baitan topatu diren ikuspegi eta galderetatik abiatuta, ikerketari eragiten dion oinarritzko testuinguru teorikoa eta baieztapen nagusiak zehaztuko dira hurrengo ataletan. Horrezaz gain, testuingur metodologikoa ezartzeko, tesiaren proposamena aurrera eramateko ikerketa estraegia eta epistemologia ezartzeaz gain, baita erreferentziazko lanak ere errebisatuko dira.

Literaturaren Berrikuspenean Hiri Bazterreko Paisaia kontzeptu eratorriaren nolabaiteko jatorritzko temak landu dira, hala nola, Paisaia eta Hiria. Era berean, ikergai nagusiarekin zerikusia duten, eta hein batean bere izaera osatzerakoan eragina duten beste gai batzuk ere izan dira hizpide: Kultura-paisaia, Natura Antropozenoaren paradigmaren arabera, eta Paisaia-Ekologia. Amaitzeko, ikerketa kasuari erreferentzia egiten dion Mendi-paisaia ere jorratu da.

Sei alor horien eztabaida nagusiak, ezaugarriak, garapen historikoak, arazoak eta proposamenak aztertu ondoren ikerketaren testuinguru teorikoa eta beharra ezartzen duten hainbat ideia bildu dira. Ideia horiek batik bat paisaiaren zehaztapen konstruktibista bat aurreratzen dute. Horrezaz gain, ikerketan lagungarriak suertatu diren hiri bazterreko paisaia-elementuak identifikatu egin dira.

II. Zatiarekin bukatzeko, 6. Atalean tesiaren estrategia abduktibo/erreflexiboa eta epistemologia konstruktibista azaltzen ditu, horien inplikazio teoriko eta metodologikoak jorratuz. Ondoren, paisaia eta lurraldea analizatzeko eta ulertzeko ezarrita dauden erreferentziazko metodo teoriko eta praktikoak, baita horiekin bat datozen ikerketa teknikak aztertzen dira.

2.0 ATALA. Paisaia

Paisaiaren definizio bat eta anitz daudela esan daiteke, izan ere, diziplina bakoitzak berea darabil ikerketa lanetarako (Corboz, 1983). Bestalde, esan daiteke pertsona haina paisaia daudela, norberaren bizikizunek paisaiaren ulerkeran duen eragina dela eta. Zilegi da esatea paisaia kontzeptuan barneratzeko beharrezkoa dela hau analizatzeko eta hautemateko modu ezberdinak ezagutzea.

Paisaia kontzeptualizatzeko eta lantzeko existitzen diren hurbilketa ugarien ikuspegi zabal bat egingo da atal honetan, hura lantzerakoan topatzen ditugun eztabaida eta lanildo nagusien bilketa bat egite aldera. Horretarako, paisaia baten eitean eragina duten, baita paisaiak eragiten dituen hainbat alderdi landuko dira hemen. Hasteko, paisaiaren definizioak aztertuko dira semantikaren aldetik baita onarpen ofizialek esaten dutenaren aldetik. Ondoren, paisaiaren aspektu nagusi gisa, gizakiak harekin duen harremana eta eragina ere jorratu egingo da, epistemologiaren hiru eredu nagusi ezberdinuaz: objetibisita, subjektibisa eta subjektu-artekoa. Horien arabera ere, paisaiaren analisi elementu ezberdinak aipatuko dira, paisaia kontzeptualizatzeko eta ulertzeko erabiltzen direnak. Paisaiaren analizatzeko modu ezberdinak aipatu ondoren, paisaiaren irudikapena eta adierazpiderako teknika ezberdinak aztertuko dira, batia paisaiak ideologiarekin eta boterearekin duen lotura ere.

2.1 Definizio Etimologikoak

Paisaiaren esanahia semantikaren aldetik, hots, euskara ez dan beste hizkuntza talde nagusietan, erro latindarrak eta anglosaxoiak aintzat hartuta, bi adiera nagusi topatuko ditugu: paisaje eta landscape.

Jacksonek (2010) batez ere erro anglosaxoia lantzen du, eta hemen banatu egiten ditu batetik *land* eta *scape* erroak. Bere esanetan, *land* [lurraldea edo lurra] erroak nekazaritza sail batekin zerikusia du, erdi-aroko Europa anglosaxoian hala ulertzen omen zelako. Hots, *land* hitzak adierazten zuen modu zehatzean mugatua zegoen lurrazalaren zati bat, zela granja bat edo herrialde bat. Finean, eskala aldetik malgua zen adiera, baina jendarteak eta administrazioek identifikatzeko mugak zituen lur-zatia zen *land*. *Scape* adierari buruz dio Jacksonek sistema edo antolamendu batekin duela zerikusia. Antzekoak diren elementuen multzo bat adieraziko luke *scape*-k. Hortaz, bi erroen hitz eratorriak, *landscape*-k, alegia, lur-zati mugatu baten multzoketa adieraziko luke.

Erro latindarrari buruz ezer gutxi esaten du Jacksonek. *Descubriendo el Paisaje Autóctono*-n (Jackson, 2010) dioenez, *pagus* erro komuna dute *paisaje*, *paysage*, *paisaggio* hitzek, eta honek

“landa eremu definitua” adierazten omen du. Erro honen esanahia gehiago garatu zuen Ignasi de Solá Morales-ek zera esanez: *pagus* eta bizitokia den lurraldea gauza bat eta bera direla. Horretarako, *paisano* edo *payés*, baserritarra edo nekazaria, dakartza gogora. Hauek toki baten biztanle dira, lurralde zati batean jartzen dira bizitzen.

Alain Roger filosofo frantsesak ere, hizkuntza ezberdinetako erroak darabiltza paisaiaren esanahi etimologiko bat osatzeko. Gainera, semantikaz beste, berea duen teoriarekin nahastuta saiutzen da paisaia definitzen. Paisaia ez da berezkoa, baizik eta gizarteak osatutako *artealiziatio* prozesu baten kontzeptu eratorria da. Hartara, erro latindarra, *pays* [landa, lurra, saila] *paysage* bilakatzen da begirada estetiko eta etiko baten ondorioz (Roger, 2007). Hots, lurraldea ulertzeko eta lantzeko modu baten ondorioz existitzen da paisaia kontzeptu eta objektu fisiko gisa. Hala Rogerrek aurkezten duen *artealiziatio* prozesuaren bitartez, *país*, *paisaje* bihurtzen da; *paese*, berriz, *paesaggio*. Greziar modernoan ere, *topos*, *topio* da. Eta baita erro anglosaxoia den *land*-ekin ere, *landscape*, *landschaft*, *landschal*, *landscap*, *landkal* eratorriak sortzen dira begirada estetikoaren bidez. Gainera, Rogerrek zera adieraziko du: paisaia hiritarren asmakuntza bat dela; hots, lurraldea [pays] begirada estetikoaren bitartez sortzen den kontzeptua. Baserritarrak [paysane] ez darabil paisaia hitza, *lurra* baizik. Horregatik, Sola-Moralesek ez bezala, paisaia ez du baserritarrarekin lotuko, hiritarrarekin baizik. Azken honi izen berri bat bilatzen dio: *pays*-ek *paysanne*-a baldin badu biztanle – hots, lurrak baserritarra – *paysage*-ek, *paysagene*-a, edo paisaiak paisaitarra.

Gure esparruari dagokionez, euskaraz paisaia definitzeko dauden hitzei dagokionez, zaila da semantika eta etimologiaren bidetik aurkikuntza esanguratsurik egitea, izan ere, lan hori egiteke dagoela esan daiteke. Berquek proposatu gizarte paisajistak definitzeko faktoreak aztertuko bagenitu¹, izango genuke, agian, euskarak berezkoa zukeen esanahi eta adiera bat proposatzeko ahalmena eta froga sorta. Ziurrenik, hori ez da ikerketa lan honen helburua, baina bai ordea, azterketa horren beharraz ohartzea, baita paisaiaren adiera ez hain jasoak kontsideratzea, eta gorpuzkera herrikoiagoetara jotzea paisaia tradizio bat neurtzeko. Hizkuntzalaritzaren esparrutik *Paisaia* baino egokiagoa den hitz bat proposatzeko aukeraz gain, bidean, Euskal Herriko paisaia kulturalen ikerketa bat egiteko abagune paregabea izango litzatekeela uste da. Etorkizuneko ikerketa ekintza horren erronka alboratu gabe, eskuartean dugun honekin jarraitzeko, paisaia adierarekin egingo dugu lan, oraindik orain, horixe delako onartua dagoen hitza.

Honenbestez, etimologiaren bidetik egiten diren definizioek, oso argi ez bada ere, nekazaritzarekin eta lurralde esparru konkretuekin lotua den kontzeptu bat aurkezten dute

1 Augustine Berquek gizarte baten paisaia-tradizioa neurtzeko 4 irizpide proposatzen ditu: paisaiaren adierazpen linguistikoak, paisaren literatura idatzizko edo ahozko irudikapenak haren edertasuna laudatzen dutenak, margolaritza bidezko paisaia irudikapenak, naturaren estetika interpretatzen duten lorategigintzako kultura (ez baratz eta ortuen kultura).

kasu gehienetan. Hala, paisaia edo *landscap* hitza landa-lurrarekin nahasten duten tradizioa oso errotua dago, batez ere kultura anglosaxoian. Hortaz, onar dezagun paisaia ez dela existitzen gizakiaren eraginik gabe.

2.2 Definizio Onartuak

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hiztegi Entziklopedikoak onartzen duen paisaiaren esanahia hurrengoa da:

“Toki batetik ikusten den lurralde, itsasalde edota zerualdea, ikuskizun gisa hartuta. Adiera hertsiagoan, inguru bateko forma eta ezaugarri geologiko, biologiko eta antropikoen multzoa eta ezaugarri-multzo horren arabera Lurraren gainazalean bereizten diren formetako bakoitza.”²

Adiera honek garrantzia ematen dio batetik, ikusmenari edo ikuspegi bati, eta bestetik, elementu fisikoei, direla jatorri naturalekoak edo antropikoak/artifizialak. Definizio honek paisaia kontzeptua zehazteko hain garrantzitsuak diren bi esparruak nabarmentzen ditu, batetik hautematea (ikuspegia), eta, bestetik fisikotasuna (ezaugarri geologikoak, biologikoak eta antropikoak).

2000. urtean Florentzian sinatu zen Paisaiaren Konbentzio Europarrak (PKE) egun onartuen dagoen paisaiaren definizioa zehaztu zuen. Zera dio honek: paisaia lurraldeko edozein zatia dela, biztanleriak hautematen duen moduaren arabera, eta, gizatiarrak edo/eta naturalak diren faktoreen eraginaren eta elkarreraginaren ondorioz sortu diren ezaugarriak dituen zatia dela. Hemen ere, elkartuta ageri zaizkigu hautematea eta elementu fisikoak paisaia definitzeko. Definizio honen arabera, paisaia ez da berez existitzen baldin eta gizakiak ez badu hautematen. Hautemate hori adierazi eta irudikatu egin daiteke, eta hala lurralde bati dagokion paisaia definitu —gerora ikusiko dugun paisaia arketipoekin gertatzen den bezala. Bestalde, hautematea, maila indibidual eta pertsonalago batean egin daiteke, eta hemen, ikusmenaz beste gizakiak dituen beste lau zentzumenen bitartez lortzen den esperientzia ere aintzat hartu beharra dago. Definizio honek ekarpen esanguratsu bat egiten du, hots, paisaiaren existentzia gizakiarekin lotzen duela. Hots, paisaiarik ez dagoela gizakiaren esku-hartzerik gabe, behinik behin, hark hura begiztatu gabe.

“El paisaje es, a la vez, una realidad física y la representación que culturalmente nos hacemos de ella; la fisonomía externa y visible de una determinada porción de la superficie terrestre y la percepción individual y social que genera; un tangible geográfico y su interpretación intangible. Es, a la vez, el signficante y el significado, el continente y el contenido, la realidad y la ficción” (Nogué, 2010:125)

Zita honek ongi laburbiltzen du paisaiaren izate eta esanahi zabala; atal honetan paisaia hautemateko eta kontzeptualizatzeko, analizatzeko, irudikatzeko eta erabiltzeko hainbat eredu eta eztabaida aztertuko ditugu.

2 Euskal herriko ingurumen entziklopedia

Modu simple batean bereizteko, batetik pasaiaren esanahi kulturala aztertu daiteke, eta bestetik, paisaiaren egitura edo funtzionamendu naturala edo ekologikoa. Normalean banatuta egin badira ere, egun, badira biak elkarlotuta aztertzen duen teoriarik ere, ikusiko dugun bezala.

Batetik, paisaia irakurgarria edo ulergarria den testu batekin alderatzen duen metafora maiz erabili dute ildo konstruktibistako autoreek; palimpsesto geruza anitz bat bailitzan (Corboz, 1983), edota irakurketa gaurkotuagoan, testu-prozesadoreaz idatzitako testua “botoi bat sakatze hutsarekin” bere esanahia sortu, luzatu, eraldatu, landu eta ezabatu daitekeena (D. Cosgrove & Daniels, 1988). Hots, esanahi zehatzak dituzten elementuek egituratutako espazio-testu bat bailitzan, historian zehar idatzi, berridatzi, ezabatu egin den testua edo palimpsestoa (Corboz, 1983). Hots, historian zehar gizarteak eraldatu eta moldatua izan den kontzeptu dinamiko gisa (Jackson, 1997) ere ulertu izan da. Paisaiak jendarteak asmatu egiten ditu, esaterako mendia, desertua, itsasoa: antzina beldurgarria zena, gizakiak egindako irakurketa eta esplorazioak bidenabar, erakargarri eta eder bilakatu ditu (Roger, 2007). Esan daiteke, ikuspegi honetan, gizartearen, baita norbanakoaren iritziek nahiz sinismen subjektiboek garrantzia dutela paisaia definitzerakoan.

Bestalde, paisaiaren ekologiaren arabera, hau ekosistema baten parekoa da, eta elementu naturalez, edo giza nahiz natura-elementuez osatua dagoen eremu bat da. Ekologiaren logikaren arabera aztertu daiteke egoera ekosistemiko bat zeina fenosistema eta kriptosistema (Bernaldez, 1981) ataletan banatu daitekeen. Fenosistemak ikusi eta hauteman daitezkeen elementuak adierazten baditu, kriptosistemak begiz jo ezin daitezkeen prozesu eta portaerak adierazten ditu. Paisaiaren ekologian, hura, hainbat elementu eta egitura neurgarrik edo paisaia-metrika ezberdinek osatzen dute. Posible da esatea, ikuspegi honek adituaren begirada balioztatzen duela eta honen ulermena eta ebaluazio objektiboa gailentzen dela paisaia hautematerakoan.

2.3 Paisaiaren hautematea eta jakintza: Objektibista, Subjektibista eta Subjektu-arteak

Maiz eztabaida antzu bat sortu ohi da paisaiaren benetako esanahia zein hurbilketak ezartzen duen, edota zeinek duen garrantzia handiagoa hura kudeatzerako orduan; hots ikuspegi subjektiboak ala objektiboak. Hurrengo lerroetan, paisaia ulertzeko, analizatzeko eta modelizatzeko hurbilketa objektibista eta subjektibistak ikertu dituzten lan nagusi bi aipatu eta aztertu ditugu. Eredu hauek, gizakiak munduarekiko duen ikuspegia antolatze eta ulertzeko oinarritzko kategoriak dira.

E.H. Zubek (1982) paisaia pertzepzioaren inguruko artikulua errebisatu zituen paisaiaren hautemate joera nagusi batzuk identifikatu ahal izateko. Paisaia definitzeko hiru aspektu nagusi

zehazten zituen: gizakia, paisaia elementuak eta ondorioak, hirurak hautemate interakzio batek lotzen dituelarik. Hots, paisaiaren hautematea interakzio prozesu baten barne dagoela (gizakia eta paisaia elementuen artekoa), eta interakzio horren paisaiarengan ondorio eta eraldaketa batzuk sortzen dituela (Zube, Sell, & Taylor, 1982). Ondorio hauek, era berean, gizakiaren eta paisaiaren arteko hautemate interakzioari berriz ere atzera eragiten diote. Hala, hautemate berri bat sortuko da, eta, honek, bestelako eraginak sortuko ditu lurraldearengan. Hiru aldeko eredu hau garrantzitsua da Zubereren (1982) artikulu errebisioa aurrera eraman ahal izateko.

Esan bezala, gizakiaren eta paisaiaren arteko interakzio horren ondorioz, hots, paisaia hautematearen ondorioz, emaitza batzuk sortzen dira. Era berean, emaitza hauek interakzioari eragiten diote, *feedback* bat eraginez; gizakiak beste modu batera hautemango du paisaia. Eredu horren arabera 160 artikulu aztertu ondoren 4 pertzepzio joera zerrendatu zituen Zubek, hots: adituarena [expert], psikofisikoa [psychophysical], kognitiboa [cognitive] eta esperientziala [experiential]. Lehenengo ereduan aditu batek balio eta ezagutza jakin batzuk ditu, hots, diziplinaren araberako ikuspegi objektibo eta arrazional baten bidez hautematen ditu paisaiak. Bigarren ereduak, psikofisikoak, populazio zati jakin batek paisaiari buruz duen iritzia bilatzen du, gizarte-lagin baten paisaia hautemate ez-aditua. Hirugarren eredu kognitiboak esanahia bilatzen du paisaiarengan, hura bizitzeko eta harekiko dituen asmoekin nahasten da; hots paisaiak gizakiarentzat duen esanahia bilatzen du eta funtsean paisaia buru-erakuntza bat dela du oinarri epistemologikotzat. Azkenik, pertzepzio esperientzialak, gizakiaren eta paisaiaren arteko interakzioa edo harreman intimo eta estetikoak aztertzea du helburu.

Interakzioari buruz hitz egiten du baita ere Jonesek (1991). Honek paisaia ulertzeko eta ikertzeko moduak aztertu zituen 3 postura zehaztuaz: objektiboa, objektibo aukeratua, eta paisaia subjektiboa [*Scientific-Objectivist, Applied-Objective but value-laden, Humanistic-Subjective*] (Jones, 1991). Lehenengo ikuspegiak, zientifikoak, paisaiaren elementu guztiak aintzat hartzen ditu, ikusten den guztia. Baina hura bere handitasun eta xehetasun aberastasun horretan ulertzea ezinezkoa denez, hainbat alorretan, edota diziplinatan banatzen du. Hortaz, diziplina bakoitza paisaiaren zait bati buruz bakarrik hitz egiteko gai da. Bigarren ereduak, paisaiaren zenbait elementu aukeratzen ditu haien balio intrintsekoak direla eta. Paisaia behar den bezala ikusten eta antolatzen du, balio-juzku bat ezarriz. Jonesek galdera bat botatzen du: zein da aukeraketa horren atzean dagoen irizpide sorta? Zergatik dira elementu batzuk baliotsuak eta besteak ez? Azkenekoz, ikuspegi subjektiboa definitzen du Jonesek (1991) Cosgroven (1998) teoria erabiliz; hots paisaia “ikusteko modu bat” bezala definituz (Jones, 1991). Hortaz, indibiduo edo kultura bakoitzak paisaia ulertzeko modu bat duela esan daiteke.

Honek erronka bat suposatzen du, izan ere nola erabaki eta negoziatu hainbeste esperientzia berezien artean paisaiari eragiten dion erabaki bat hartzeko? Nola sailkatu ikuspegi eta talde ezberdin horiek? (Jones, 1991).

Hiru eredu hauen artean bitartekaritza egiten duen kontzeptua proposatzen da. Alegia, objektibitatearen, objektibitate baliotsuaren eta subjektibitatearen arteko loturak kudeatzeko balio dezakeen tarteko ikuspegia. Konstruktibismoaren arabera, errealitatea ez da guztiz objektiboa, ezta guztiz subjektiboa ere. Pertzepzio oro, neurgarriak nahiz neurri-ekinak, kultura eta gizartearen bidez eratzen dira. Horregatik, adituen eta ez adituen arteko paisaiaren ulermen kontrajarrien artean, zubia eraikitzeke asmoa du inter-subjektibitatearen, edo subjektu-arteke ikuspegia mahairatzen da (Jones, 1991). Honek, bi aldeak aintzat hartzeaz gain, beraien arteko loturak marratzeko gaitasuna ere badu, nolabaiteko tarteko postura bat onartuaz (Jones, 1991; Swaffield, 2006).

Zubek (1982) eta Jonesek (1991) paisaia hautemateko launa eta hiruna joera edo ikuspegi aurkeztu bazituzten ere, oinarri oinarrian dagoen eztabaida hautemate objektibo eta subjektiboaren artekoa dela esan daiteke. Esan bezala, Jonesek argi aurkezten du inter-subjektibitatearen joera edo sozialki eta kulturalki moldatua dagoen paisaiaren ikuspegia eta hautematea jarrera objektibistak eta subjektibistak elkarlotzeko. Hots, gizarteak araututako jakintzaren bidez egiten den paisaiaren ulermena, hein batean, interes konkretuen arabera adostua.

Teoria konstruktibistaren arabera, paisaia ez da bere kabuz existitzen den eta “hor kanpoan” dagoen errealitate isolatu bat. Aitzitik, paisaia hauteman egiten da, eta, gizakiak kulturalak edo jendarteak adostutako irizpideen bitartekaritza eta bizipenak darabiltza hura kontzeptualizatzeko edo eraikitzeke (Swaffield, 2006). Ikuspegi objektibistatik osatzen den jakintzak, ikerlaria paisaiarekiko distantzia batean kokatzen du, eta ildo subjektibistak berriz paisaiaren jakintza norbanakoaren esperientziak arautzen du (Cosgrove, 1998; Swaffield, 2006). Ikuspegi konstruktibista baten arabera, paisaia gizarteak eraikitzen du, bi modutan gainera, kontzeptualki eta materialki (Swaffield, 2006), edota *in-visu* eta *in-situ* (Roger, 2007). Eraikuntza bikoitz honek paisaiaren izaera konplexuaren onarpena dakar.

Swaffieldek (2006), Jonesek (1991) bezala, paisaiaren inguruko jakintza eta teoria osatzeko, baita hura hautemateko eta proiektatzeko ere, subjektu-artekotasunaren eta konstruktibismoaren onurak ditu hizpide. Postura honek oinarrian du paisaiaren ulerkera konstruktibista, hots, aipatu den bezala, gizartearen eta kulturaren eraginez osatzen den fenomeno fisiko zein abstraktua. Jarrera inter-subjektibo batek epistemologia ezberdinen artean zubi lanak egiteko duen ahalmena azpimarratzen dute bai Jonesek zen Swaffieldek; Subjektu-artekotasunaren oinarrian konstruktibismoak ezartzen duen konbentzio sozialen araberako mundu-ulerkera datza (Jones,1991), eta hortaz, kolektibitatearen eta kulturaren

garrantzia azpimarratzen da (Swaffield, 2006). Subjektu-artekotasunaren zubi lanak diziplinen arteko lotura osatzea ere dakar, baita paisaiaren ulermen objektibo eta subjektibo ikuspegi ezberdinen arteko kontsentsu eta adostasun maila ezberdinekin lan egitea ere (Jones, 1991). Hots, adituen zein “ez-adituen” hautemate eta balorazio anitzak lotzeko kapazitatea. Subjektu-artekeo begiradak bitartekari lanak egiteko ahalmenak ditu paisaiaren egoera konplexua aintzat hartuta etorkizun komun bat eraiki ahal izateko (Swaffield, 2006). Subjektu-artekotasunaren bidez “paisaiaren inbentario eta dokumentazioak kontzientzia kritikoa eskakizuna (suposatzen da), erregistratzen denaren aukeraketa arrazoiekiko, eta komunikatzen diren esanahi eta balioekiko ere...subjektuen (!) aukera guztiak gizarteak eta kulturak mediatzen ditu.” (Jones, 1991:242). Konstruktibismoaren arriskua eta aldibereko oportunitatea hurrengoa da, eraikuntzak eraldagarriak direla, eta gizartea aldatzen den bezala, erraz *des-eraikitzen* direla (Cosgrove, 1997); alegia, paisaiaren izaera dinamikoak eraikuntzak kolokan jartzen dituela etengabe.

2.4 Lurraldea ikusteko modu bat: ikuspegi konstruktibista

Denis Cosgrove-k (1998) paisaiaren kontzeptualizazioa eta esanahia konstruktibismo sozialaren teoria erabiliz— marxismoak moldatutako ikuspegi zehatzagotik—landu zuen hain esanguratsua den *Social Formation and Symbolic Landscape* lanean. Zehazki, feudalismotik kapitalismorako trantsizioan sortu zen lurraldea ulertzeko modua hartu zuen abiapuntu nagusitzat paisaia “ikusteko modu” bat bezala definitzeko. Horretarako, trantsizio horren epe zabal bat aztertu zuen hainbat kulturetan eta herrialdetan, besteak beste, Italiako garai Barrokoa Florentzia eta Veneto aldean, Herbehereetako urrezko garaia, Ingalaterrako industrializazioa eta Ipar Ameriketako kolonizazio prozesua. Esan bezala, Cosgroven aburuz, paisaia-idea gaur egun ezagutzen dugun moduan, lurraldea ikusteko modu bat da, eta horrenbestez, gizakiak mundua ulertzeko modu bat lurraldean proiektatuz, lurra kudeatzeko eta ustiatzeko modu bat sortzen du.

Paisaia-idea, garai zehatz batean, Europako gizarte baten jakituriaren garapenaren ondorioz jaio zela zioen; hots “ikusteko modu” horren funtsa, errenazimenduan deskubritu edo asmatu zen perspektibaren legeak omen direla zioen Cosgrovek (1998); azken finean, begia eta optikaren zientziak ezarritako arauen bidez ulertzen hasi baitzen lurraldea Berpizkundetik aurrera. Perspektiba optikoak errealismo piktorikoaren, irudikapen *errealaren* legeen eta irizpideen nagusitasuna ahalbidetu zuen 19. Mendearen amaiera bitarte. Paisaia-ideiak historian zehar bilakaera bat jasan zuen, eta kontzeptua doitzen joan zen 19 mendean artea eta zientziaren arteko banaketa eman, eta argazkilaritzaren garapenaren ondorioz, paisaia sozialki eta kulturalki esanguratsua den kontzeptu bezala hiltzen den arte (D. E. Cosgrove, 1998). Aurretik, artea eta zientziak elkarren eskutik pairatzen zituzten eraldaketak eta elkarri eragiten zioten, ikergaiak edo langaiak ez ziren diziplina ikuspegi isolatuen arabera aztertzen, alegia. Inflexio puntu horretatik aurrera, paisaia zientzia eta plangintzaren objektua baino ez

da, edota norbanakoaren gozamen subjektiboaren elementua, ez da esanguratsua elementu eraldatzaile edo politiko gisa eta urrutitik behatzen den zera bilakatzen da. Horrela ezartzen da Cosgroven paisaiaren lehenengo anbiguetatea: norbanakoaren eta munduarekiko lotura definitzen dituen bi ereduaren arabera: subjektibista eta objektibista (D. E. Cosgrove, 1998).

Aurrerago azalduko zaigun Cosgroven (1998) aburuz existitzen den paisaiaren bigarren anbiguetatea, lurrarekiko gizakiak duen harremanaren arabera ezberdindua; hots, barnekoa eta kanpokoaren harremanak ezberdinak dira lurrarekiko, eta paisaia-ideia ezberdinak adierazten ditu batak zein bestek.

Paisaiaren hautemate eta kontzeptualizazioaren harira aipagarria da hurrengo ideia: lur zati bat begiratzeko 10 modu existitu daitezkeela (Meinig, 1979). Inolako lotura ekonomiko eta soziopolitikorik egin gabe askoz ere hizkuntza arruntagoan hamar ikuspegi horiek paisaia hurrengo kontzeptuekin lotzen dute: paisaia natura gisa, bizileku gisa, artifizio gisa, sistema gisa, arazo gisa, aberastasun gisa, ideologia gisa, historia gisa, leku gisa [place], estetika gisa (Meinig, 1979). Ulermen hauetako bakoitzaren atzean kokatzen da pentsaera eta ideia sorta bat, paisaiaren irudikapen bat, eta maiz diziplina akademiko edo profesional baten oinarri ontologiko eta epistemologikoak; hots, errealitatearen ikuspegiak eta errealitatea ikertzeko hamaika modu. Finean, plangintzan edota lurralde antolamenduan, baita gizartearen esparru orokorrean egon daitezkeen irizpide aniztasunaren ispilu dira lurraldea ulertzerakoan sortzen diren begirada edo paisaia-ideia ugariak.

Meinigen lana erabilgarria da Cosgroverena (1998) osatzeko. Azken honek, agente edo begirale bakarra ezartzen bazuen – gizonezkoa, zuria eta lurjabea, Meinigen (1979) lanaren arabera, ideia ezberdin bakoitzeko agente edo agente talde bat dagoela aurreikusi daiteke. Cosgroven azterketa, alderdi horretatik kritikatu izan da: generoaren aldetik, gizonaren ikuspegia gailentzen baita berak erabilitako ereduaren, gizaki horren jatorriaren aldetik berriz, eurozentrismoa dela salatu dute post-kolonialismoaren ikuspegitik; eta, gainera, teoria okularzentrismoa dela ere kritikatu izan zioten. Cosgrove (1998) kritika horiek onartu zituen liburuaren 1998ko berrargitalpenean. Meinigen (1979) lanak ez du konfliktu hau sortzeko aukerarik ematen ez baitu generorik, ez egoera ekonomikorik ezta politikorik definitzen ere. Finean, gizakia eta lurraldea lotzen dituen harremanaren oinarrian diskurtso ideologiko ezberdinak daudela dio, ikuspegi ezberdinak, alegia, kasu zehatzik erabili gabe, eta agian, zabalegia eta lausoegia den 10 ikuspegiaren sailkapenean.

Amaitzeko Meyerrek (2002), teoria feministatik eratorria den *grounded theory* edo tokian tokiko teoria izendatu daitekeenaz baliatzearen alde egiten du paisaia kontzeptualizatzeko. Bere ustez, paisaia baieztapen unibertsalek, edo egia objektiboei baino, lekuan lekuko berezitasunek definitzen dute, eta hauen garrantziaz ohartarazi nahi du bere lanarekin.

Ikerketa kasu espezifikoko gehiago behar direla aldarrikatzen du, aurreiritzi eta jakintza oinarri orokorrak eta ustez egia unibertsalak diren aterabide generikoak gainditu ahal izateko. Hartara, tokian tokiko kultura eta ingurumenaren ulerkerek indar berezia hartzen dute Meyerren (2002) aburuz paisaiaren garrantzia eragilea handitze aldera.

Aipatu diren autoreen ikuspegiak, bi talde nagusitan: objektibitatearen eta subjektibitatearen artean banatuta sailkatu daitezke. Aipatu bezala, Zubereren (1982) eta Jonesen (1991) launa, hiruna ereduak objektibitatearen, subjektibitatearen artean banatuak daude nagusiki, salbuespen batzuk tarteko. Cosgrovek (1998) argi banatzen ditu zientifikoaren objektibitatea eta norbanakoaren gozameneko jarrera subjektibista. Meinigen (1979) 10 ikuspegiak, batzuk argi sailka daitezke, beste batzuk ez horren erraz. Adibidez, paisaia naturarekin eta Sistemarekin parekatzen dutenen ikuspegia, objektiboa dela esan daiteke. Aldiz, lekua eta estetikarekin parekatzen duenena, subjektibitatearekin. Meyerren (2002) tokian tokiko teoriaren arabera paisaia, subjektiboa dela esango dugu, baina ez guztiz. Hots, badira Objektibo eta Subjektibo muturretan hain modu garbian koka ez daitezkeen paisaiaren, zein munduaren ulerkerak.

Horren irtenbide gisa inter-subjektibitatea azaldu da, bi talde horien arteko zubi lanak egin ditzaken ikuspegi bateratzaile edo integratzaile gisa. Jonesen (1991) aburuz, joera honek bi muturren baitan dagoen, eta gizarte- edo kultura-konbentzio eta kontsentsuak moldatutako espazio komuna onartzea dakar. Hots, jakintzaren edo esperientziaren bitartekaritza sozialaren eta kulturalaren eraginaren pisua. Swaffielden (2006) ustez, paisajismo diseinu-jardunarentzako joera inter-subjektiboak duen abantaila zehatzak suposatzen du ikerketa metodo, jakintza forma eta irudikapen modu anitz onartzeko ahalmena duela. Alegia, subjektu-artekotasunak konplexutasuna eta aniztasuna onartzeko abildadea du, bi muturretako ikuspegi hertsia batuz. Paisaiarekiko inter-subjektibitatearen ekarpenaren funtsa natur zientzietatik abiatzen diren premisak (paisaia ekologia adibidez), baita oinarri humanistagoa duten jakintza oinarriak (diseinua, artea edo giza geografia) batzeko eta alderatzeko ahalmena da. Hein batean, kanpoko mundua irudikatzen dutenen eta gizakiaren esperientzia lantzen dutenen arteko zubia eraiki ahal izateko.

1 Taula Oinarrizko lan teorikoen ekarpenen epistemologia.

	Objektibista	Inter-subjektibista	Subjektibista
Cosgrove	Ikerketa zientifikoaren objektua		Hautemate subjektiborako eta pertsonalerko elementua
Zube	Aditua/Psikofisikoa [Expert /Psychophysical]	Kognitiboa, buruaren baitako kontzeptua [Cognitive; “mind concept”]	Esperientziazkoa [Experiential]
Jones	Zientifikoa/Aplikatua [Scientific / Applied]	Subjektiboa; “ikusteko modu bat” (Cosgrove)[Subjective (sic); “a way to see”]	
Meinig	Natura/ Sistema[Nature/ System]	Ideologia/Historia/Lekua/Estetika [Ideology/History/Place/Aesthetic...]	Lekua/ Estetika[Place/ Aesthetic]
Meyer		Tokian zedarritua[Grounded]	

2.5 Paisaiaren barnean, paisaiatik at

Orain arte ikusi dugun bezala, gizakiaren ikuspegiari garrantzi handia aitortu diote hainbat autorek; aipatutako lan gehienek darabilte gizakiaren errepresentazio bat paisaia definitzeko, hots, nola edo hala gizakiak jarrera bat du paisaiarekiko aipatutako lan guztietan. Postura edo jarrera hauek bi talde nagusitan banatu daitezke era berean, eta zenbaitzuen arabera, bateraezinak dira (D. E. Cosgrove, 1998). Gainera, esan daiteke, jarrera bakoitzak paisaia mota bat edo beste sortzen duela gerora ikusiko den bezala. Oraingoan, Cosgrovek ezarri zuen paisaiaren bigarren anbiguetatearekin lan egingo da.

Perspektiba optikoa erabiltzen du Cosgrovek (1998) gizarte feudaletik kapitalistara egiten den aldaketa irudikatzeko eta horrek paisaiaren egungo kontzeptualizazioan duen eragina ulertzeko. Paisaia ikusteko modu bat dela esaten duenean, gizartearen eta gizakiak lurraldearekiko duen “kokapena” aipatzen du bidenabar, eta hala lurrarekiko dagoen lotura ere azaltzen da. Hots, paisaia ikusteko modu bat baldin bada, honek esan nahi du ikuspegi hori pertsona batek duela, eta, horrek lurra kanpotik edo distantzia batetik ikusten duela (perspektibaren arauak ezartzen duten bezala) boterea duelako lur horren gainean. Cosgrovek, paisaiaren hautematean barnekoak eta kanpokoak bereizten ditu hortaz; hots, barnekoak gizarte feudaleko gizasemeak dira, ez dute distantziarik hartzen lurrarekiko ez eta perspektibarik. Hortaz, barnekoek, edo nekazariak, ez dute paisaia kontzeptua sortzeko gaitasunik edo beharrik. Bestaldean, kanpoko agenteak daude; hauek distantziatik ezartzen dute harremana lurrarekin, eta paisaia ideia bat sortzen dute lurrarekin harreman arrazionalizatu baten dokumentazioaren, irudikapenaren, kontabilizazioaren, salerosketaren bidez. Hots,

Cosgrovek paisaia ikusmenarekin, eta barneko nahiz kanpoko agenteekin lotzen du, eta bi postura edo kokapen horiek suposatzen duten boterearekiko dagoen harremanarekin ere.

2 Taula Barneko eta Kanpokoaren arteko ezberdintasunak adierazten ditu Cosgroven lana oinarri hartuta (D. E. Cosgrove, 1998).

Barnekoa	Kanpoko
Ekonomia naturala	Ekonomia kapitalista
Lurra eta gizakia modu natura-lean, alienaziorik gabe elkarlotuak	Lurrarekiko harremana jabetza eta ondasunen araberakoa da eta alienatua
Teknika eta baloreek lurraren erabilera dute oinarri	Lurrak balio estatistiko bat dauka, haren gastu/mozkina bere erabilera industrial edo bestelakoaren aurka neurtu daitekeena.
Lurraren interpretazioa analogikoa da	Interpretazioa kausala da:
Lurrarekiko sentipena ezin da komunikatu “artearen hizkuntza artifizialaren” bidez	Perspektibaren, pastoralismoaren eta artearen konposaketa-tekniken bidez sortzen da lurrarekiko distantzia alienatzailea
Jarrera aktiboa	Jarrera Pasiboa

Pasaia “ikusteko modu” bat bezala definitzen duen Cosgroven (1998) teoriak, behatzaile kanpotar bat oinarri hartuaz eraikia dago. Kanpotarra da finean, nekazaria ez dena, lurra lantzen ez duena. Begirale honek lurraren jabegoa du, hura kudeatzen du eta haren mugak eta balioak ezagun ditu. Balio horiekin espekulatzeko ahalmena eta nahia izaten du, erabileratik urrunago joanez³. Ingurumenarekin duen esperientzia hautemate-balio eta premisa estetiko batzuen arabera arautua dago eta ikusmenaren bitartez ematen da, ondorio gisa irudikapen grafiko bat sortzen da, gehienetan arte forma bat edo beste izango duena (literatura, musika, pintura etab.) (D. E. Cosgrove, 1998).

Lurra barnetik ezagutzen dutenak, apenas du paisaiaren kontzientziarik. Bere harremana lurrarekin erabileran oinarritua da eta intuizioak gidatuta egingo du lan arau sorta tradizional batzuen arabera. Ez du lurraldea irudikatzen arau estetiko jasoen bitartez, baina badu sinbolo sorta bat zeinak lurraldeari balio eta esanahiak ematen dizkion (D. E. Cosgrove, 1998). Horiek, ordea, ez dira irudikapenen bidez dokumentu bilakatzen.

³ Aipagarria da hemen Lefebvrek hiriko espazioaren erabilera eta truke ekonomikorako baliabideen arteko ezberdintasuna ere aipatu zuela. Cosgrove, Lefebvre bezala eskola marxistatik datorrenaren seinale da.

Barnekoak gizarte edo tradizio intuitibo eta feudal batean dute jatorria eta kanpokoek, ordea, gizarte arrazional eta kapitalistan. Lurrarekiko harreman ezberdina dutenez, bateraezinak dira aldi berean barneko eta kanpoko posturak (D. E. Cosgrove, 1998).

“Sometimes a landscape seems to be less a setting for the life of its inhabitants than a curtain behind which their struggles, achievements and accidents take place. For those who, with the inhabitants, are behind the curtains, landmarks are no longer geographic but also biographical and personal.” (John Bergerren zita Cosgrove, 1998:271).

Antzeko zerbait dio Raymond Williamsek “ a working country will hardly ever be a landscape country” (Williams-en aipamena Corner, 1999:11). Hots, paisaiaren nozioa izateko lurrarekiko engaiamendurik ezin dela izan, eta pausu bat atzera eman beharra dagoela (Corner, 1999b; D. E. Cosgrove, 1998; Roger, 2007).

2.6 Neurgarria eta ukiezina

Paisaia analizatzeko moduak haren beharra duten helburuen eta asmoen adinakoak dira. Baina, esan dezakegu, gorago banatu dugun hautemate joera nagusi bien, subjektibistaren eta objektibistaren artean topatu daitezkeela ezberdintasun nagusiak. Gainera, hirugarren aukera den intersubjektiboa edo subjektu-arteak hautemateak, bestelako analisi elementu batzuk biltzen dituela esan daiteke.

Jonesek (1991) gizakiaren jarrera hiru ataletan sailkatu zuen esan bezala. Haren arabera, objektiboek paisaia den bezala [as is] aztertzen dute eta diziplina bakoitzari dagozkion elementuak banatu, sailkatu, eta aztertzen ditu; ekologia, geologia, hidrologia, geologia, biologia, etab. Bigarren jarrerak, *objective value-laden* edo objektiboa hautatuaren eredia, paisaiaren zati batzuk hautatzen ditu hura izan behar lukeen modura aztertuz [as it ought to be] balio jakina duten elementuak soilik lantzen dira. Azkenik, Jonesen hirugarren jarrerak, subjektibistak, paisaiaren elementu sinboliko eta esanahiz beteak direnak hautatuko ditu [as a way of seeing] jendartearen edota norbanakoen esperientziarekin zerikusia eta esanahia duten elementuak aztertuz: monumentuak, elementu erlijioitsuak, ohitura eta errito ezberdinekin zerikusia duten espazioak eta abar (Jones, 1991).

Zuberen (1982) lau jarrerek edo interakzioek, *expert, cognitive, experiential* eta *psychophysical*, orokorrean denek aztertzen dituzte elementu ukigarri eta ukiezinak. Adituak, paisaiaren formak, oreka, kontrastea, izaera, dibertsitatea, baliabide material eta energetikoak; hurbilketa psikofisikotik publikoak paisaiaren elementu zehatzekiko dituen iritzi estetikoak landuko dira; azterketa kognitiboak esanahi sozial eta kulturalak analizatzen ditu, hala nola, paisaiaren misterioa, irakurgarritasuna, bereizgarritasuna, ikuspegiak, babesak, arriskuak; eta azkenik, esperientziatzko jarrerak, gizakiaren eta paisaiaren arteko alde-bietako interakzioa aztertuko ditu eguneroko bizitzan —paisaiarekiko atxikimendua, espazio publikoa, paisaia estiloak (Zube et al., 1982).

Laburtuz, objektibistek, neurgarria den oro analizatzen dute, informazio kuantitatiboa sortzen dutelarik. Talde honetan sartuko litzateke, esaterako, paisaia ekologian aitzindari izan zen Ian McHargen lana. Honek paisaia, edo hobe esanda, lurraldea geruzatan sailkatzen zuen. Geruza bakoitzak elementu zehatzak biltzen zituen, zientzietako diziplina ezberdinetatik aztertzen direnak: hidrologia, biologia, geologia etab. (McHarg, 2000). Egun, paisaia-ekologian hain arrunta den behaketa, analisi eta irudikapen tresnaren aurrekaria izan zen bere metodologia, hots GIS-arena (Geografia Informazio Sistema edo Geographical *Information System*). Analisi horien arabera, mapa ezberdinetan irudikatzen zuen informazioa. Mapak gainjarriz gero, paisaiaren osotasuna eta toki ezberdinetako egoerak eta ezaugarriak ulertzeko eta atzemateko gai zen. Paisaiaren ekologia lantzen duenaren jarrera guztiz objektibista dela esan daiteke (Swaffield, 2006).

Muturrean, subjektibistak ditugu. Talde honetan zenbait arkitektoen pentsamoldea bildu daiteke, esaterako aitzindari gisa, Norberg-Schulz norvegiarrak hainbat lurraldetan egindako *genius loci*-aren irakurketa aiapatu daiteke (Norberg-Schulz, 1980). Peter Zumthor eta bere *atmosfera* kontzeptua (Zumthor, 2009), edota, Steven Hollen tokien irakurketa poetikoak eta hortik eratorritako *anchoring* kontzeptua (Holl, 1989) edo arkitektura eta tokiaren arteko lotura ere fenomenologiatik eratorritako arkitektura ereduak dira. Zumthorrek edo Hollek sortzen dituzten arkitekturak oinarrian, tokian-toki egiten duten paisaia ebaluazioaren islak dira. Zumthorren atmosfera kontzeptua leku bateko giroa osatzen duten elementuen pertzepzio oso konkretuek, memoriatik pasa eta gero sortzen den oroitzapenak dira. Intentsitate eta dentsitate berezietan konbinatzen diren argiak, itzalak, soinuak, testurak, zaratak, usainak, kiratsak, haize-brisak osatutako momentu bizituaren akorduak dira atmosferak, Peter Zumthorrek paisaia bati egiten dion irakurketa fenomenologiko edo subjektibista. Ordea, paisaiaren irakurketa subjektibo horien isla arkitektonikoak ezin esan erabiltzaile orok antzemateko ahalmena duenik, eta horregatik, aski indibidualistak direla esan daiteke.

Egun indarra hartzen ari den jarrera hibrido bat da geografiaren esparruan suspertzen ari den teoria ez-errepresentatzaileena [non-representative theories]. Horien arabera, espazioa gorputz bidez hautemateak esperientzia indibidual eta intimoaz harago, kritikarako eta politikagintzarako ekarpenak egiteko gaitasuna ere badu. Horretarako, egunerokotasunaren praktika bidez izaten diren esperientzien kontzientzia aurrekognitibo, ia fenomenologikoetan oinarritzen dira ikerlariak (Waterton, 2013).

Amaitzeko, jarrera konstruktibista edo intersubjektiboaren ikuspegia aipatuko dut. Esan bezala, analisi inter-subjektiboak ez-aditu eta adituaren begiradaren arteko zubia eraikitzeko asmoa du, hots, esanahi adostuak (aditu nahiz norbanakoak ontzat eman ditzakeenak) eta konplexuak (dimentsio anitzekoak) bilatzeko joera du. Finean, subjektu-arteak hautemateak, komunitate batek ontzat eman ditzakeen espazio-balioen bilketa bat egiteko asmoa du.

Hots, espazio konkretu bati jendarte batek eman diezazkiokeen balio erantsien bilketa bat. Espazioen eta balio, esanahi, izate, erabilera ezberdin horiek paisaia “ikusteko modu” anitz osa ditzakete. Analisi metodo konstruktibisten ereduak aipatuko dira aurrerago, testuinguru metodologikoan.

2.7 Paisaiaren irudikapena: mapak, argazkiak, filmak

Paisaia ikertzen duen edonork topatuko ditu bidean honen irudikapen eta adierazpide ezberdinak, diziplina ezberdinek darabiltzaten ikerketa-elementu eta tekniken bidez adierazita. Paisaiak, hura behatu eta analizatu ondoren adierazten direlako, lurraldea hautemateko edo paisaiari hurbiltzeko modu bakoitzaren araberrako irudikapenak egiten direla esan ohi da (Corner, 1992). Horretarako erabiltzen den medio nagusia, espazioa aztergai duen edozein diziplinak bezalaxe, grafikoa da. Atal honetan, paisaia eta lurraren irudikapen grafikoa jorratuko dira, hots kartografia mapak eta diseinu proiektuetako planoak adibidez. Elementu hauen kutsu ideologiko eta propositiboa ere aipatu egingo da, paisaiaren alderdi ideologikoa ere landuz. Horren harira, boterearen, identitate nazionalaren eta paisaia erreferentzialak sortzeko ahalmenaren arteko loturak ere izango dira eztabaidagai. Azkenik, turismoaren hedapen masiboak eta argazki bidezko paisaia komunikazioaren eraginez sortu den paisaiaren irudikapenaren krisia ere aztertuko da.

Paisaia-ideiak bere adierazpide propioak ditu, baina hauek kultura-adierazpideekin dute zerikusia era berean. Adibidez, kartografia eta pinturaren artean 16. Mendeko Flandria eta Herbehereen zuten harremanaren kasu ezaguna dago. Abraham Ortelius kartografoaren eskolaren eta Pieter Bruegel Zaharraren margolanen izaeren artean loturak azpimarratu izan dira (Besse, 2010; D. E. Cosgrove, 1998): humanismo eta Ptolomeoren ikuspegi kosmiko berriaren irizpideek eragindako enpirizismo zientifikoa eta zehaztasun matematikoa ageri da mapetan, eta, margolanetan berriz, gizakiaren esku dagoen ikuspegi zabal eta deskriptiboak diren paisaia-panorama zabalak irudikatzen dira (D. E. Cosgrove, 1998). Hots, Lurraren ikuspegi eta kontrol bisual orokor baten ahalmenak eragindako irudikapenak dira biak ala biak. Ikuspegi enpiriko honek gainera Italiako Venetoan ez bezala, erreferentzia klasikoan gabezia bat ahalbidetzen zuen, eta egia bat adierazteko, behaketaren bidez hautematen zen munduaren ikuspegia adierazten zen mapetan, eta eguneroko bizitza margoetan (D. E. Cosgrove, 1998).

Material grafikoa eta paisaiaren irudikapenaren arteko loturaren inguruan, James Corner-en lana aipatzea ezinbestekoa da. Cornerrek (1999b) bi ideia nagusi adierazi izan ditu bere idatzietan: lehenengoa, mapek (kartografiek, planoek) beti dutela atzean asmo eta helburu bat, eta horregatik ez direla neutroak ezta errealitatearen irudikapen % 100 fidel bat. Bigarrena, paisajismoan—edo beste diseinu diziplina batean, hala nola hirigintzan, arkitekturan—plana edo proiektua diseinatzerako orduan egiten den tokian tokiko espazioaren azterketa

eta adierazpena ere egilearen ekarpen bat dela. Hots, paisaia-proiektuak duen espazio-kontestuaren interpretazio eta adierazpena txertatzen duela mapa edo plano batean egileak. Eta horrexegatik, dokumentuok, diseinuaren zati garrantzitsu bat direla (Corner, 1999b).

Mapek hortaz—eta mapa ingelesez adiera zabalagoa da planoak ere barne hartuz—errealitate hautemangarriko elementuen aukeraketa baten eta horien irudikapenaren ondorio dira; aukeraketa bat direnez gero, horrenbestez, ikuspegi bat irudikatzen dute. Irudikapen hauek, paisaia proiektuaren eremuan bereziki, baina bestelako diseinu prozesurekin berdin gertatzen dela esan daiteke; alegia, mapak interpretazioaren, aukeraketa eta filtratzearen bitartez paisaiaren etorkizuneko egoera aurkezteko modua dira. Cornerren (1999b)ustez, mapek tokian tokiko potentzialak topatu eta egituratzeko ahalmena dute. Tresna sortzaileak dira, elementu esanguratsuen aurkikuntza eta egituraketa direla medio; hots, “lehenengo deskubrituz ... eta gero eszenifikatu egiten dituzte errealitate berrien agerpenerako baldintzak” (Corner, 1999b)

Mapak lurraldearen forma adierazteko eta irudikatzeko tresnak dira. Lurralde konkretu batekin duten harreman estua dela eta, proiektu soziokultural eta politikoak dira (Corboz, 1983), berezitasun kulturetz eta ekintza konkretuez osatuak. Corbozek (1983) dioen bezala, baina, mapak eta lurraldeak ez dira bat eta gauza bera, ezta mapa eta paisaia ere. Ordea, mapak lurraldea ordezkatzeko duela esan daiteke egun, are gehiago, hirigintza plana, lurraldea moldatzeko tresna nagusia bilakatu den honetan, eta ez alderantziz—paisaiak plana baldintzatzen duen egoera (Corboz, 1983). Irudikapen horiek egileak edo sustatzaileak egindako aukeraketa batetik eratorriak dira. Mapen adierazkortasun teknikak garatu diren heinean, are informazio gehiago marratu da beraietan, kasik irudi hiperrealista bilakatu arte (Corboz, 1983). Hiperrealismo hau egungo datu base informatiko eta digitalek ordezkatzeko dutela esan daiteke.

Nolanahi ere, plangintzan eta lurralde antolamenduan erabiltzen diren mapak edo planoak lurraldearen ispilu abstraktuak dira eta diskurtso politiko ideologiko bati erantzuten diote, jendartearen eta tokian tokiko biztanleen eguneroko esperientziak, nahiz natuaren dinamismoa kanpo uzten delarik (Corboz, 1983; Nogué, 2008). Corbozen (1983) hitzetan, arrazoi horregatik, askotan gezurra diote mapek: ekintzaren atzean asmo eta aukeraketa zehatz batzuk daudelako beti (Corboz, 1983) zenbait gauza kanpoan uzten edota ezkutatu egiten dira. Honek zerikusia du Cornerrek (1999b) aipatzen duen maparen diseinu izaerarekin, egileak betiere errealitate irudikatuko dituen elementuak aukeratzen baititu.

Funtsean, paisaiaren irudikapenek, kriptikotasuna baztertuz elementuak modu argian adierazten duten interpretazio eta proposamen sortzaile baten ondorioa beharko lukete izan (Schöbel, Dittrich, & Czechowski, 2012). Schöbelen eta lankideen (2012) arabera, gainera, tokiaren konkretutasuna abstrakzio espazialaren bidez hobetsi behar dute, egitate

unibertsalen ordez aldagarritasun eta zirkunstantzialtasuna onartuz. Paisaia irudikapenek, tokiko ezaugarrien aniztasuna eta bilakaera prozesuak agertu behar dituzte, erredukzio sintetikoak erabili beharrean. Finean, paisaiaren sakontasuna egituratzen duten harremanak erakutsi behar dituzte, irudi estetiko atseginaren ordez. Horiek dira paisaiaren irudikapen baten nolakotasun egokiaren irizpideak (Schöbel et al., 2012).

Gaur egun ere paisaia iruditegia erreferentziazkoa ugaria da, batik bat, mendebaldeko gizartearen kultura globalizatuak jasaten eta eragiten duen argazki-jasen bidez sortutako iruditegiak direla eta. Tokien *egiazko* transmisioa, komunikazioa, eta ezagutza irudien bidez egiten da (Sontag, 1977), batik bat arteak paisaiaren motiboa baita errealismoaren adierazpidea abandonatu zuenetik (D. E. Cosgrove, 1998). Argazkiek moldatu eta osatu dute gure begirada, bai arkitekturarekiko, zein hiriarekiko ere (Solá-Morales, 2009). Fotografiek ez dute, ordea, errealtatearen kopia analogo bat edo ikono bat sortzen. Bestela, erretratzen duten errealtate horren inguruko indizioak ematen dituzte, iradokizunak (Rosalind Krauss-i aipamena Solá Morales, 2009).

Autore askok aipatu dute, era berean, mugimenduak paisaiaren hautemateari eragin dion aldaketa, esaterako hegazkinez edo helikoptero bidezko hautematearen askatasuna nabarmentzen du Corbozek (1983), errealtatea eta irudimena nahastuz imajinaria berriak sortzeko ahalmena duelako. Bideoaren eta zinemaren bidezko irudikapenen indarra ere hainbatetan azaltzen da. Piconek (2000) dio, egungo hirietako paisaia hobeki adierazten dela argazki eta zinemaren bitartez, honek hirien mugagabetasuna hobeto atzematen duelako, margolanen marko zehatzen bidez baino. Hiriko paisaia bezain mugagabea da edozein paisaia edo lurralde, hortaz, bideoa paisaiaren irudikapenerako tresna paregabea dela esan daiteke.

Egun hainbat saiakera egiten ari dira horren inguruan, esaterako ETH Züricheko Cristophe Giroten katedran⁴, non bideoa paisaiaren analisi sentsoriala egiteko tresna gisa darabilten 2012tik. Are gehiago, dronen bidez filmatutako eta eskaneatutako lurraldeak dokumentatu dituzte paisaiaren irudi total bat lortuz, *cloud-point* teknikaren bitartez. Honen harira, Girotek (2013), *Topologie-Topology* [alemanez eta ingelesez, hurrenez hurren] adiera proposatzen du paisajismoaren edo *landscape architecture*-aren esparrua modu unitario eta zabalagoan izendatu ahal izateko; arkitektura adieraren parekoa. Topologiak paisaiaren hiru aspektu garrantzitsuak batu ditzake: egitura, azalera eta atmosfera: Hiru alderdi horiek adierazten dituzte, hurrenez hurren: tokiko egitura eta forma fisiko geomorfologiko nahiz eraikiak, tokian tokiko ekonomia eta kultura egiturak, eta, tokian tokiko aspektu immaterial sinbolikoak. 3D eskanerraren bitartez, hiru aspektu horiek adierazteko gai direla baieztatzen du, gainera, proiektatzerakoan elementu berriaren barneratze egokiena bermatzeko ahalmena ere baduena (Giro, 2013).

2.8 Paisaia arketipikoak eta idealak

4 <http://girot.arch.ethz.ch/>

Paisaia eraikitzerakoan, gizarte konkretuen eta botere politiko konkretuek izan duten eragina eta sortu dituzten paisaia tipoak maiz agertzen dira. Esaterako, paisaia identitate sozial eta subjektiboak osatzeko prozesu gisa definitu izan da, azterketarako objektu edo interpretaziorako gai baino gehiago (Mitchell, 2002). Paisaiak *zer egiten* duen eta zerk osatzen duen aztertzea da helburua, haren esanahiaren azterketa baino gehiago. Paisaia botere kulturalaren tresna gisa definitzen denez, ideologia indartzeko gai diren bi rol nagusi betetzen ditu: batetik, egoera bat edo gizarte- eta kultura-eraikuntza bat naturalizatzen du ezinbesteko egitatea edo errealtatea balitz bezala, bestetik, paisaiaren irudikapena erabilgarria egiten du behatzailearen usteak egoera horren egitasuna zalantzan jarri ez dezan (Mitchell, 2002). Mitchellen (2002) ustez, paisaia lantzen duen ikerketa batek, paisaiak bere burua egi bezala naturalizatzeko, eta aldi berean, bere irakurgarritasuna ezabatzeko jarraitzen duen prozesua landu beharko luke. Gainera, paisaia horren behatzaileen berezko istorioen arabera ulertu beharko luke prozesu hura (Mitchell, 2002).

Ideologiaren ildotik ere, Baker-ek (1992), paisaiaren eitean ideologiak izan duen eragina aztertzen du, jarrera ideologikoen eta hauek sortutako jardueren azterketaren bitartez. Paisaia, Cosgrovek (1998) dioen bezala, ikusteko modu bat da, baina baita pentsatzeko eta egiteko jarrera bat ere (Baker, 1992). Paisaia osatzen duten elementuak aztertzeaz gain, hauen kontestu ideologikoaren— eta jarduerak/ekintzak—ulermena aldarrikatzen du Bakerrek (1992). Izan ere, ideologiek ziurtasunez hornituta dauden egungo egoera perfektuen edota etorkizuneko utopien ikuspegi sinplifikatuak irudikatzen dituzte (Baker, 1992) lurraldearen eraldaketetan gorpuztuta eta irudikapenetan adierazita.

Gizarte guztietan egon diren sektore boteretsuek (eliteek, oligarkia industrialek, erregimen politikoe) ezarri izan ditu paisaia egokien ezaugarriak, eta, hala sortu dira erreferentziazko paisaiak edo arketipikoak (Nogué, 2010; Nogué & Vicente, 2004). Noguék (2004; 2010) dionez tipo ideal horien eraginez beste batzuk estigmatizatzen dira. Gainera, arketipo edo erreferentzia irudi horiek, lurralde politikek errepikatzen dituzte (Gallent, 2009). Esaterako, Kataluniako paisaia arketipo nazionalisten ondorioz, horrelakoak ez direnak estigmatizatuak izan dira (Nogué & Vicente, 2004) interbentzio funtzional eta lurralde eraldaketa sakonak pairatuz iparraldeko mendien ingurugiro babesaren orde (Nogué & Vicente, 2004).

Paisaia arketipoek eta naziotasunaren irudikapen eta sinboloek lotura estuak dituzte. Esaterako, Ingalaterrako garai Victorianoan, industrializazioak sortutako hiri-egoera kaltegarri eta jasanezinen aurka, nekazaritza giroko eremuetako pasaia irudikatu eta haren balio kultural eta moralak goraipatu zituzten joera erromantiko eta pintoreskoen jarraitzaileek (D. E. Cosgrove, 1998). Horrezaz gain, eremu landatarreko irudikapen eta idealizazioek, aldarrikapen etiko bat ere egitea zuten helburu; hots, hiriak ordezkatzeko zuten sistema kapitalistaren baitako lurzoru kudeaketa espekulatiboaren orde, erabileraren arabera balioan zedarritua zegoen lurzoru kudeaketa tradizionalaren alde egitea suposatzen zuten (D.

E. Cosgrove, 1998).

Ideologiaren arabera ere eraiki eta diseinatu dira hiri eta hiri sistemak. Nazio-estatuaren kontzeptuan aitzindari izan zen Frantziar estatuak ere ilustrazioaren proiektua eta irizpide arrazionalak erabiliz Estatu eta lurralde antolakuntza erreferentziazko garatu zuen. Hala, izaera zentralista indartsu bat oinarri hartuta lurralde osoaren koherentzian oinarritutako homogeneitatea ezartzeko gai izan zen azpiegitura eta politika agrarioaren bitartez (Picon, 2010). Antzeko zerbait esan daiteke Ameriketako Estatu Batuetako *survey*-az [lurraldea kartografiatzeko eta ordenatzeko lana], Jeffersonek diseinatutako eta ilustrazioaren ideologiak hauspotutako nekazaritza herrialde ideal eta arrazionalerako plana (Jackson, 2010). XX mendeko bi ideologia nagusiek sortutako hiri eta estatu azpiegiturak ere aipagarriak dira: komunismo estalinistak eraiki zuen Sobietar batasuna, eta faxismoaren eskutik eraiki ziren Espainia, Italia edota Naziak Alemania. Hots, gizarte zati boteretsuaren ideologia eta iruditegia propagandistikoaren arabera osatu izan dira lurraldeak eta paisaia irudiak oinarrian zegoen nazio edo lurralde eredu ideal zein utopiko baten arabera sortutako lurralde antolamendu baten ondorioz (Denecke, 1992).

Hortaz, paisaiaren eraldaketa, honen inguruan dagoen ideiek, usteek eta irudikapenek baldintzatzen duela esan daiteke, baita indarrean dagoen ideologiaren ondorioz garatzen, eraldatzen, alperrik galtzen edo zaintzen dela paisaiaren eraldaketa, itxura bat edo beste sortuz.

Paisaia idealizatuen erreferentzia horiek artearen eta kulturaren hainbat adierazpideren bidez komunikatu izan dira. Adibide errazena propaganda poster eta kartelak dira, baina baita boterean dagoen ideologiak onartzen zuen paisaia irudikapen artistiko, ustez, egokien bidez: ezagunak dira errealismo sozialista edota Naziak ezarritako artelan egokiek sortutako lurraldearen eta nazioaren iruditegia paisajistikoa.

Esan bezala, Baker-en (1992) arabera, paisaiaren analisis burutzeko, bertako ezaugarri eta elementu fisikoez gain, haiek eraiki eta moldatu dituzten joerak eta ideiak ere aztertzea beharrezkoa da. Ideologia batek, munduaren ikuspegi ordenatu eta sinplifikatu bat eskaini lezake (Baker, 1992) eta berrantolaketaren bitartez, hots ideologiaren adierazgarri nagusiaren bidez, hura paisaiaren eraldaketa fisikoetan gorpuztua azalduko zaigu (Denecke, 1992).

Denecke-ren (1992) arabera, paisaiaren eta lurraldearen plangintza eta antolamenduaren esparruan eragiten duten lau ideologia talde nagusi existitzen dira eta bakoitzak eragin fisiko eta asmo konkretu batzuk ditu. Hasteko Ideologia politikoak diseinu monumentalak, asentamendu hierarkiaren arabera egituratuak, espantsioa, kolonialismoa eta desjabetzea eragiten ditu. Asmoa, estatu kontrola, estatu irabaziak eta sistema politikoaren egonkortasuna mantentzea dira. Ideologia sozial/humanista edo ideologia gizartekoiek “topografia sozialaren

gaineo hierarkia”, ongizate institutuen egitura eta gizarte eredu berrien sorkuntza bultzatzen ditu, behetik-gorako politikarekiko atxikimenduaren bidez. Aldiz, Erljio ideologiek eliza komunitateko gune bilakatzen, paisaiari erljio kutsu edo esanahia ematen, eta monasterioak erljioaren eta ekonomiaren gune ezartzen dituzte. Helburu nagusia dute elizaren sendotzea eta zabaltzea. Amaitzeko, Munduaren ikuspegi bat proposatzen duten ideologiek (erljioaren ordezkioak) baliabide naturalen ustiaketa, paisaiaren babesa eta paisaiaren birgaitzea sustatuko dituzte: helburua hemen ere, gizarte politikaren demokratizazioa eta atxikimendua dira. (Denecke, 1992)

Boteretik ez zuen jende taldeak, ordea, beste paisaia batzuk landu izan ditu, egunerokotasunaren oinarri espazialak ziren eta diren tokiak, alegia. Adostuak ziren arau batzuen arabera, lurra modu batean kudeatu eta landu egin izan da historian zehar (D. E. Cosgrove, 1998). Tokian tokiko baliabideei kasu eginez, baita, unean uneko baldintzen arabera jardunez, paisaia kultural bezala ezagutzen direnak osatu egin dira horrela.

Egunerokotasunaren praktikaren bitartez sortzen diren espazioen egikaritzea prozesuak aztertzen ditu geografian suspertzen ari den *non-representational* teoriek. Jatorrian, Nigel Thrift geografoak erabili zuen adiera lehenengoz 1996an (Waterton, 2013). Haren arabera, mundua ez *da*, baizik eta mundua etengabe egiten da [perpetual state of becoming]. Teoria hau osatu zuen begiradaren bitartez ulertzen zen munduari buruzko jakintzaren eraikuntzak esperientzia bizituen eta materialitatearen garrantzia arbuiazen zutelako. Hasiera batean, konstruktibismo sozialarekin lotura baldin badu ere, Thriften asmoa esparru sinbolikoaren diskurtso eta egituren dimentsio errepresentatiboak—konstruktibismo sozialaren joera—gainditzea zen, eta egunerokotasunean, gorputzaren bitartez sortzen den jakituria lantzearen aldekoa agertu zen. Horregatik, maiz fenomenologiaren aurrekari teorikoekin lotua izan da pentsamendu ez-errerepresentatiboa, besteak beste Heidegger edo Maurice Merleau Pontyren lanekin. Izan ere, gorputza funtsezkoa du teori honek, egunerokotasunaren eta praktika/ekintzarengan jartzen duen garrantzia dela eta (Waterton, 2013). Fenomenologiaren jarrera intuitiboa eta aurre-kognitiboak erabiltzen ditu teoria honek, lekuarekiko eguneroko jardute eta aritzearen bitarteko harreman sentsuala landuz eta honen bidez sortzen diren mundu ikuspegiak aztertuta. Esperientzia subjektibo eta gorputz-bidezko hauen ahalmen politikoa eta parte-hartzailea indartzea da teoria hauen helburua (Wylie, 2005). Paisaiaren hautemate eta kontsiderazio hauek azken bi hamarkadetan indartzen ari den espazioarekiko harreman performatibo eta *relazionalaren* adibide batzuk dira. Oinarrian kanpo/barne, subjektu/objektu, natura/artifizio dikotomiek ezarritako muga lausotzea datza, eta tradizioz objektu ez-eragileak direnen *afektu* ahalmena bezalako kontzeptuen suspertzeak eragindakoak.

Honenbestez, esan daiteke paisaia komunikatu egiten dela hura irudikatuz. Irudikapen hau, idatziz eta beste medio batzuen bidez egin bada ere, garrantzi handiena duen medioa grafikoa da: margoa, kartografia, planoak, marrazkia, argazkia eta mugimendudun irudia edo bideoa. Komunikatze eta irudikatze horren helburuak anitzak dira: proiektuen sustapena, turismo komertziala, ideologia baten erreferentzia bilakatzea, tokian tokiko identitatearen ikur bezala erabiltzea edota paisaiaren ezaugarriez gozatzea eta hauek deskribatzea. Horrenbestez, asmo horien atzean dagoen pertsona edo jendartearen begirada biltzen duela ere esan daiteke paisaia-irudikapen bakoitzak. Horrexegatik, hauek ez dira neutroak eta beti dute errealitatearen ikuspegi partzial bati onar diezazkiokegun gabeziak. Nahiz paisaia irudiek askotan lurraldeak eta tokiak ordezkatzera iritsi badira ere, hauek ezin dute errealitatearen konplexutasuna ordezkatu. Gainera, irudikatzen diren paisaiak baino askoz ere gehiago daudela ere esan beharra dago, esaterako, eguneroko paisaien kasuan bezala, edo batik bat, hiri ertzeko paisaia ustez zatar eta hondar izaerakoez gain, subjektiboagoak edo indibidualagoak direnak ere. Ikuspegi hau ordea eraldatzen ari da egunerokotasuneko praktikaren eta iruditegia subjektiboen eragin ekintzailea lantzen duten teoria ez-erreprentatzaileen bidez, esan bezala.

2.9 Paisaiaren eraikuntza: fisikoa eta kontzeptuala, politikoa eta egunerokoa

Lehenago aipatu egin da nola paisaiaren eraikuntza modu bikoitzean eta sozialki eraikia dela, maila material zein teorikoan (Swaffield, 2006). Honekin lotura du Rogerren (2007) artealizazio bikoitzaren teoria; hots paisaia bi modutan sortzen edo artealizatzen baita: *in visu* eta *in situ*. Horren arabera, lurra in-situ edo tokian bertan, edota in-visu edo distantziatik bilakatzen da paisaia. Nekazariak, edo langileak in-situ eraldatzen eta osatzen du paisaia; ordea, teknikoak, diseinatzaileak, margolariak etab distantzia batetik, begiradaren bitartez moldatzen du. Horrenbestez, paisaia fisikoki eraiki daitekeela dio, baita modu abstraktu edo kontzeptualean ere, proiektu, diseinu eta irudikapenaren bidez (Roger, 2007).

Era berean, Jacksonen (2010) aburuz, bi paisaia mota nagusi daude, politikoa [political] eta bizitua [inhabited]. Edozein lurraldetan bien ereduak aurkitu daitezke presentzia maila ezberdinetan gorpuzturik, baina elkarlotuta. Paisaia politikoen oinarrian, kontrola, araudia, mugen definizioa dago. Paisaia bizituak ordea, eguneroko bizitzan eta tradizio kulturalak eragindakoak dira (Jackson, 2010).

Cosgroven (1998) barneko eta kanpoko agenteak, Rogerren (2007) paisaia sortzeko bi moduak, eta Jacksonen (2010) ezaugarri ezberdineko bi paisaien oinarrian dago gizakiak tokiarekin, lurraldearekin duen harremana eta harekiko lotura eta bertan jarduteko modua. Harreman horien oinarrian dago enpatia eta partaide izate maila bat, batzuetan estuagoa bestetan urrunagoa. Horien arabera, hots agenteen eta haien lotura eta, finean esperientzia mailaren arabera, paisaia modu batean edo bestean ulertu eta moldatuko dala diote hiru autoreek.

Henri Lefebvrek (Lefebvre, 2003) hiru geruza ezberdin zituen hiriaren forma azaltzeko. Aipatu autoreek ezarritako dikotomiaren arabera: kanpotar/politiko eta barneko/egunerokotasunaren bi muturretan kokatzen dira Lefebvreren (2003) hiru geruzetako bi: espazio politikoa (G maila) eta egunerokoa (P maila), hurrenez hurren. Ordea, tartean, mediaziorako espazio (M maila) bat ere aipatzen zuen: espazio publikoa, alegia. Maila hauek gizartearen eraikuntza material zein kontzeptualak dira.

3 Taula Paisaiaren eraikuntzaren dikotomiak

Roger (2007) paisaiaren arteal-zazio bikoitza	In-situ & In-visu
JB Jackson (2010): paisaia motak	Inhabited Political
Lefebvre (1971): hiriko espazioaren geruzak	Everyday Private Space & Mediating public Mixed space & Political Space

Lefebvreren (2003) hiri-espazioaren eraikuntza sozialaren geruzak aipatzea baliagarria izan dakiguke. Geruzok oso lotua dagoen paisaiaren esparrura ekarriaz, berriz ere azaltzen zaigu tarteko espazio eta kontzeptu bat zeinak zubi lanak egiten dituen lurrareskiko harreman eta postura distantziatuaren eta lotura aktibo estuagoaren artean: bitartekaritzarako espazioa edo pentsamoldea (Schmid, 2005). Tarteko espazio honek, lurrareskiko harreman kulturalki ezarritakoa, sozialki eraikitako eta oinarrizko paisaiaren ulermen komun bat izateko aukerak ematen ditu.

2.10 Ondorioak

Atal honetan paisaia kontzeptuaren hainbat alderdi aztertu egin dira: esanahi etimologikoak, definizio onartu eta jasoak, eredu epistemologikoak, ikuspegi konstruktibisten ekarpenak, gizakiaren eta paisaiaren arteko distantziaren ereduak, paisaiaren elementuak, irudikapena, ideologiaren eta boterearen eragina, eta azkenik eraikuntza.

Segida horretan antolatu den gai sortak, paisai bat sortzeko edo lurralde bat eraldatzeko prozedura bat adierazi nahi du. Hala, hasierako ideien eta errealtatearen ulermen ereduak batera, gizakiaren jarrerak lotzen zaizkio, eta eredu konstruktibistaren ikuspegitik egiten den kontzeptualizazioari indarra eman zaio. Ondoren, paisaia osatzen duten elementuak aipatu dira, hauek irudikatzeko dauden moduek jarraituta. Irudikapen horrekin lotua duen ideologia konkretuek sortutako paisaia motak aipatu dira. Amaitzeko, ideologiaren eta lurralde ikuskeren ondorioz eraikitzen diren paisaien alderdi ezberdinak aztertu egin dira.

Zenbait ideia nabarmentzearren hurrengoak aipatuko dira. Etimologiaren aldetik, hizkuntza erdaldunetan (erro anglosaxoi eta latinoak dituztenak) paisaiak nekazaritzarekin eta lur esparru zehatzen kudeaketarekin zerikusia du. Onartutako definizioak aztertuz gero,

paisaiak nekazaritzaz gain, lurralde oro barne hartzen dituen kontzeptua da, eta gainera, gizartearen ikuspegiaren arabera ulermena gailentzen da. Beste definizio batzuek paisaia testu gisa, palimpsesto gisa, eszena gisa, kontzeptu kultural eraiki gisa, edota neurgarria den sistema gisa ulertzen dute.

Hiru eredu epistemologiko nagusi bereiztu dira paisaia aztertu eta paisaia-jakintza sortzeko: objektibista, subjektibista eta inter-subjektiboa. Azken honen haritik, paisaia gizarte-erakuntza gisa ulertzen da. Eta, gizartearen izarea dinamikoaren eraginez, paisaiak dekonstruitu egiten direla ere onartzen da. Ikuspegi konstruktibistaren ekarpen nagusi bezala Denis Cosgrovena (1998) nabarmendu da, paisaia gizarte jakin eta une historiko zehatz batek sortzen duen lurraldea “ikusteko modu” gisa definitzen duena. Meinigen (1979) lanarekin konbinatuta, onartzen da lurraldea ikusteko, eta paisaia eraikitzeko, modu bat baino gehiago existitzen direla

Epistemologia ereduaren arabera, paisaiean elementu batzuk edo besteak aintzat hartzen dira: hartara, subjektibistek kalitateak aintzat hartzen dituzte atmosfera (Zumthor, 2009) edo *genius loci* bezalako kontzeptuen bidez gidatuta, eta objektibistek berriz neurgarriak diren elementuak. Fenomenologiaren eta teoria ez-errepresentatiboen ikuspegiaren aipamen bat aurreratu egin da. Eredu intersubjektiboek, aldiz, bi alderdietako elementuak elkarlotuta analizatzen eta ulertzen dute paisaia.

Elementuen aintzatespenak, irudikapen bat ekarri ohi du, eta hortaz, irudikapen bakoitzaren atzean epistemologia bat dagoela esan daiteke; hots, egilearen edo agentearen aukeraketa filtro bat. Beste modu batean ere formulatu daiteke hau, eta epistemologiaren ordezkari ideologia baten presentzia aipatu. Ideologiaren eta lurraldeen eraikuntza era eraldaketa konkretuak ere landu egin dira. Paisaia ikusteko modu bat ezezik, egiteko modu bat dela ere nabarmenduz (Baker, 1992). Amaitzeko, paisaiearen eraikuntza prozeduren zatian, hura modu kontzeptual edo fisikoan eraikitzen ahal dela azaldu da, edota maila politiko nahiz eguneroko bizitzaren arabera. Tarteko modu mediatzaile baten presentzia ere nabarmendu da (Lefebvre, 2003; Schmid, 2005), epistemologia intersubjektiboarekin lotzen duen paisaia eraikuntza modua.

3.0 ATALA. Hiria eta Hiri-ertza

Hiriaren aldaketaren kronologia eta berrikusketa bat egitea da atal honen helburua, kontzeptualki eta morfologikoki nola eraldatu eta garatu den ulertu ahal izateko. Horretarako, atal hau bi zatitan banatua dago; batetik, Hiriaren garapena aztertzen da, bestetik, Hiri-ertza. Izan ere, elkarri eragiten dioten fenomenoak badira ere, hiria eta hiri-ertza ikergai gisa modu berezian lantzen direla adierazten dute bibliografia-erreferentziek. Alabaina, ikusiko den bezala, ezinbestean bien arteko gainjartzeak ematen dira.

Hirigunea izendatu den azpiatalean, hurrengo gaiak landuko dira: hasteko, kontzeptu eta adiera zerrenda bat aurkezten da, hainbat autoreek 20 eta 21. Mendeetan egin dituzten ekarpenekin. Taula hau hiru zatitan banatzen da: hots, hiriaren osotasuna atalen bidez osatzen dutenen lanari buruzko azalpenak aurkeztuz 1.go zatian, eta, bestetik, hiria edo hiritartasunaren lurralde- eta mundu-mailako zabaltzea lantzen duten autoreen ekarpenak erakusten duen bigarren zatia. Hirugarren zatiak, hiriaren garapenean azaltzen den tarteko kontzeptu bat lantzen du, hurrengo atalarekin zubi lanak egiteko balio duena: hiri bazterra, hiri eta landa artea, edota hiriaren kanpoaldea lantzen duten autoreen ekarpenak aurkezten dira bertan.

Atalaren 2. partean, hots, Hiri-ertza izendatu den horretan, hiru zatiko eskema bat jarraitu da. Hemen ere, hasiera ematen zaio hiri-ertza edo hiri/landa artea adierazteko erabili diren kontzeptuen zerrenda batekin. Ondoren, adiera horien irakurketa diakroniko bat egiten da, eta amaierako zatian, hiri-ertzaren eredu edo modelizazioa eta praxiaren hurbilketak aurkezten dira.

Hiri-historiaren begiratu zabal honek (hiri)-ertza ulertzeko eta finkatzeko dauden zailtasunen arrazoiak topatzeko ere balioko duelakoan aurkezten da. Gaien antolaketakarako moldatu egin da Camila Eugenia Pinzón Doktore andrearen tesian erabilitako literatura berrikuspeneko egitura (2009). Bestalde, hiritik landarako begirada batekin aztertzen da bilakaera, eta ez alderantziz; izan ere, hiriaren eragin materialak landa-eremuan nagusiagoak izan dira hiriak nekazaritza-eremutik pairatu dituenak baino. Hiriaren azterketa zabal hau ere hura zenbat modu ezberdinetan aztertu, formulatu eta definitu den mapeatzeko modu bat da⁵.

5 Aniztasun honen bestelako erakusgarriak dira hurrengo web-orriak: <http://www.tributosurbanos.es/inicio/> edo <http://aporee.org/parole/>

3.1 Hirigunea

4 Taula Hiriaren kontzeptualizazioak dataren, eskalaren eta geografia erreferentearen arabera sailkatuak

URTEA	ESKALA		ERREF. GEOGRAFIKOA
	HIRIA	LURRALDEA	
1915			World City; Patrick Geddes
1943	Atenaseko Ituna, CIAM; Le Corbusier		
1960	Image of the city; Kevin Lynch		AEB: Boston
1961		Megalopolis; Gottman	AEB: Boston
1966	Architettura della Citta; Aldo Rossi		Italia
			World Cities; Peter Hall
1968	Droit à la Ville; Henri Lefebvre		Frantzia
1970	La Revolution Urbaine; Henri Lefebvre		Frantzia
1971	Los Angeles "4 ecologies"; transport palimpsest; Reyner Banham		AEB: Los Angeles
1972	Learning from Las Vegas; Venturi, Scott Brown, Izenour		AEB: Las Vegas
1974	New Babylon, Constant		Mundua
1978	Collage City; Colin Rowe, Fred Koetter		
1987		Technoburb; Robert Fishman	AEB
1989			Urbanisation Planetaire; Henri Lefebvre
		Tapijtmetroopol; Willem-Jan Neutelings	Herbeherak
1990	City of Quartz; Mike Davis		
		Citta Diffusa; Francesco Indovina	Italia
1991			Global City; Saskia Sassen
		Edge City; Joel Garreau	AEB
1992		Exopolis; Ed Soja	AEB: L.A.
1994	Generic City; Rem Koolhaas		
		post-urbain; Françoise Choay	
		Hyperville; André Corboz	Suitza
1995		Metapolis; François Ascher	
	Terrain Vague; Ignasi Solá-Morales		

1997	Zwischenstadt; Thomas Sieverts	Alemania
	The layered City; Peter Marcuse	New York
	Formas de crecimiento urbano; Manuel de Solá-Morales	Catalunya
2001	Global-City-Region; AJ Scott	Mundua
2003	Netzstadt; Oswald, Baccini et al.	Suitza
	Polyopolis, Polycentric Metropolis; Peter Hall and Kathy Pain	Mundua: hainbat eremu hiritartu
2004	Switzerland an urban portrait; Diener, Herzog, Meili, de Meuron, Schmid, Studio Basel ETH.	Suitza
2011	Planetary Urbanism; Brenner and Schmidt	Mundua

3.1.1 Hiri eraikuntza geruza-anitzak

Hiriaren historia aztertzerakoan, Lefebvrek (2003) ardatz batean denboran zehar “urbanizazioa” edo hiritartzearen graduazio bat osatu zuen hainbat hiri mota kokatuz: hiri politikoa, merkataritza hiria, hiri industrial eta fase kritikoa 100% urbanizazioa baino lehen gertatzen zena. Azken bi urratsen artean, hiriaren leherketa nahiz inplosioa gertatzen zela zioen, hots hiriaren zabalkunde izugarria, hiriaren kontzentrazio izugarriarekin batera (Lefebvre, 2003). Haren ustez, 1960ko hamarkadaren buruan, hiria azken fase horretara iristekotan zegoen. Bere aurrekariak eta ondorengoak diren arkitekto eta pentsalariak, hiriaren osotasuna, hots inplosioa eta explosioa/eztanda, nola kontzeptualizatzen eta zein helbururekin egiten duten ikusiko dugu. Horretarako, taulako 1.go zutabearen agertzen diren ereduak aztertuko dira.

Modernitateak eman duen arkitekto oparoenaren, Le Corbusierren ekarpen garrantzitsuenetakoa da Atenaseko Gutuna eta bertan biltzen ziren hiri funtzionalaren lau atalak: lana, etxea, aisia, eta garraioa. Lau funtzio horiek hiri perfektu edo ideala bermatzeko gai omen ziren. 20 urte beranduago, Rossiren (2004)eskutik etorriko zen arkitekto suitzarrak sortutako joera eta oihartzunari erantzuna; hots, hiria, historiaren poderioz eta arkitekturaren bitartez eraikitako arte lan gisa ulertzen zuenaren aldarria. Praktikan honek zuen eragina, historiarekiko zintzotasuna zen; hots hiri formaren garapen kateari hirigintzaren bitartez beste katebegi bat gehitzeak suposatzen zuen leialtasun historiko eta formala. Rossiren ekarpenak, Le Corbusier eta mugimendu modernoari aitortzen zaion historiarekiko jarrera

apurtzaileei kontra egin zien. Modu sinpleegian azalduta bada ere, 4 funtzio isolatu oinarri zituen osotasun urbano sistematikoaren orde, historiaren geruza eta forma arkitektoniko guztien onarpena eta hauekiko errespetua bermatzen zuen.

1960-1970 hamarkadetan, modernitatearen hiriari kritika eginez beste hainbat lan garrantzitsu egin ziren, egun egunerokotasuna dutenak eta errekueratze bidean direnak. Esaterako, Kevin Lynchek (1998) hiriaren irudia osatzen zuten elementu generiko edo zatiak identifikatu zituen: ibilbideak, ertzak, gurutze-bideak edo erdiguneak, auzoak eta toki ezagun edo erreferentzialak. Horiek konbinatuz, hiritarrek haien espazio urbanoaren irudikapen bat egiten zuten, nolabaiteko buru-mapa bat egunerokotasunean erabiltzeko, baita hiriaren ulermenerako baliagarria zena ere. Hala, eguneroko ibilerak eta mugimenduek gidatua, hiriarekin harreman espazial bat garatzen zela frogatu zuen Lynchek (1998). Lan honek biztanleen hiri espazioaren hautemateari garrantzia eman zion, eta honek diseinuan izan zezakeen eragina aldarrikatu zen.

Hamar urte beranduago Los Angelesi buruzko irakurketa kritiko eta arkitektonikoa egin zuen Reyner Banhamek, 1971.an hain zuzen ere, hura lau ekologiatan, hots, ekosisteman banatuz. Ekologia bakoitzak hiriko atal geografiko bat zuen oinarri (kostaldea, mendi magalak, lautada eta autopista sistema), harekin lotutako bizimodua eta arkitektura azaltzen zelarik (Banham, 2001a). Egunerokotasunaren aldarria egin zuela esan daiteke, urte bete beranduago, handik urrun ez zegoen Las Vegas hizpide harturik, beste arkitekto talde batek egin zuen bezala. Scott, Venturi, eta Izenourrek (1998) hiriko atal konkretu bat analizatu zuten arkitektura arruntaren tipologia bat sortzeko: ahatea eta txabola apaindua. Bi lan hauek nabarmenak dira arkitektura edo hiri arruntaren, ez monumentalaren inguruan egiten duten irakurketaren bidez ematen diote garrantzia dela eta. Hala, hiritarren nahien eta ikuspegi-jardunen garrantzia ere nabarmentzen delarik, plangintzak izan dezakeen ikuspegi, zenbaitetan utopikoaren, sistematikoaren aurrean. Beranduago, hiri collage bat zela ere aditzera emanez (C. Rowe, 1981), atal bakoitza bestearen alboan oinarritzko irizpide nagusirik gabe kokatzen zituen hirigintza bat balioetsiz idatzi zuten liburua Colin Rowe eta Fred Koeterr-ek (1981). Argi dago hiri mota horiek sortu dituzten eragile politiko, ideologiko eta ekonomikoak kanpo geratzen direla, eta horien eraginekiko kritikotasun maila bat faltan botatzen dela lanotan.

Berrikusten ari den beste autore baten lana da Henri Lefebvre (1901-1991) izan zen filosofo eta soziologoarena, hain zuzen ere. Arkitektoa, hirigilea edo geografoa izan gabe ere, hiriko formari, gizarteari, plangintzari, pentsamenduari, historiari etab. eskaini zion bere bizitzako lanik esanguratsuenak. Lefebvrek (1974; 1996) hiri bere osotasunean obra [oeuvre] bat zela zioen, gizarteak eraikitako artelan fisiko eta sinbolikoa. Ordea, hiri-artelan sozial hori egiteko gaitasuna galduta zegoela zioen. Izan ere, antzina erabilerak balioztatzen zuten hiri industrializazioaren eta kapitalismoaren ezarpenaren eraginez, produktu bilakatu zen;

hots, truke ekonomikorako produktua bilakatu zen hiri-espazioa (Lefebvre, 1974, 1996) . Era berean, Lefebvrek (2003) hiriaren atalak ere aztertu zituen, hango espazioa hiru mailatan banatuaz; Maila Globala edo espazio instituzionalarena (administrazioa ordezkaten zuten elementuek osatua), maila Mistoa edo eraiki gabeko espazioena (espazio publikoaren parekoa eta mediatzailea), eta Maila Pribatua edo egunerokotasunaren espazioa (etxebizitzak eta eguneroko bizitza) (Lefebvre, 2003). Maila bakoitzean eragile sozial konkretuek sortutako espazioak biltzen zituen, espazio urbanoaren eraikuntza sozialaren nozioa teorizatuz.

Osotasun hiritarra maila edo zati ezberdinek adierazi beharrean, Ignasi Solá de Moralesen (2009) aburuz, hiriko zenbait atalek irudikatzen zuten hobekien hiriaren izaera garaikidea, baita norbanakoaren eta hiriaren arteko harremana ere. Atal horiek dira *terrain vague*-ak (Solá-Morales, 2009); hitz elkartu horren bitartez hiriko zati abandonatuak, lehen jarduera izan zutenak, gerora hutsik azalduko zirenak irudikatzen zituen. Haien izaera iradokitzen du Solá-Moralesek (2009)*terrain* hitzak adierazten duen lurzoru urbanizagarria, mugaz zehatza edo lausoa; *vague*-n etimologia erabiltzen du izaera aldakor, lauso, hutsa iradokitzeko ere. *Terrain vague*ak dira hiriko “beste” espazioak, hiriko produkzio zirkuitutik at etorkizunaren zain daudenak , eremu kutsatuak, industria utziak, portuak, bizigune ez ziurrak eta abar. Historia luze baten trazez beteta (Solá-Morales, 2009), eta hiriaren bestelako garapenerako aukeraguneak (Berger, 2006).

90. hamarkadaren hastapenetan, Mike Davis (2006) historialari eta ekintzaile politikoak, Los Angelesen erretratu bat egin zuen, *City of Quartz* liburuan [kuartzozko hiria]. Kristalografia edo geologiarekin analogia bat eginez, hiria hainbat xafla tektonikoz osatua balego bezala irudikatzen du, batak bestearekin talka egiten duelarik. Xafla bakoitzak, auzo bat eta ideologia edo hiriaren ikuspegi intelektual ezberdin bat irudikatzen du: judutarrak, sozialistak, beltzak, protestanteak. *City of Quartz* liburuak “ekonomia-globalizazioak Los Angeleseko gizarte-segmentu ezberdinengan duen eraginen kontraesanak” aztertzen ditu (Davis, 2006:vi) 1992ko istiluen aurretik.

Antzeko ideia bat lantzen zuen, ikuspegi sozioekonomikoa erabiliz, Peter Marcusek “The Layered City” artikuluan [Geruzaz osatutako hiria] (2002). Hiria bi geruza motak osatzen dute: bizileku eremuek edo *quarter*-ek [auzoek], eta Negozio- eta lan-hiri anitzek. Marcusen (1997) ideia da auzo eta ekonomia jarduera eremu horien arteko gainjartzeek eta konbinazioek sortzen duten hiriaren baitako eta globalizazioak sortutako polarizazio eta ezberdintasun ekonomiko nahiz soziala salatzea. Haren ustez, hiria ez da zera homogeneo bat;ordea, geruza ezberdin eta isolatuek osatua da. Gainera, esaten zuenez, hiria izaki organiko eta autonomo batekin parekatzen duen metafora ere ez da erabilgarria, hiria ez delako bere kabuz aktorea, hainbat aktoreen arabera osatzen den espazio bat baizik (Marcuse, 2002).

Manuel de Solá-Moralesek (1997), Hiri Morfologiaren ildotik, eta Conzen alemaniar ingelestartuak⁶ ezarritako morfologiaren irizpideen ikuspegitik aztertu zuen hiriaren osotasuna. Haren ustez, hiria hiru prozesuen bitartez osatzen da; hiru forma mota denboran zehar une ezberdinetan konbinatuz joaten dira hiria eraikiaz (de Solà-Morales, 1997). Oinarrizko hiru formak dira partzelazioa edo lur zorua, hirigintza edo azpiegiturak, eta arkitektura edo eraikuntza tipologiak. Hiru hauek denborarekin konbinatuz gero, hiri hazkuntza forma ezberdinak sortzen dira. Atal bakoitzak bere denbora eta unea hartzen du, eta modu anitzetan konbinatzen dira. Esaterako, Bartzelonako zabalgunea edo *eixample*-an, hirigintza, partzelazioa eta eraikuntza sekuentzietan osatu zen (de Solà-Morales, 1997).

Arkitektura unitatea edo hiria elementu bakun edo isolagarri gisa aztertu duten autore hauek, analisi ildo orokor bat jarraitu dute: hiriaren osotasuna ataletan banatzen eta sintetizatzen duena, edota arkitektura atal ezberdinek osatzen duten osotasunaren sintesia. Orokorrean, nabari dena da, hiria zatikatua dela, ez dala elementu uniforme bat, eta barne tentsioak, talkak, egiturak, geruzak dituela. Hots, ez dela ez formalki ezta sozialki ere uniforme eta homogenea.

Hiriaren izaera eta eitearen baitan dagoen aniztasuna azaldu da, hiri formalaz gain, bestelako kontzeptualizazio batzuk ere aipatuz. Hots, plangintza edo arkitektura helburu ez duten bestelako irakurketa kritikoak ere azaldu egin dira, baita giza-faktorearen eraginez irudikatzen eta kontzeptualizatzen den hiria ere.

3.1.2 Lurralde eta Mundu eskalan hedatzen diren hiriak.

60. hamarkadan, megalopoli adiera ekarri zuen Gottmanek (1957), AEBko ipar-ekialdeko kostaldeko zenbait hiriek bata bestearen alboan jarrita osatzen zuten jarraitasun urbanoari izena emanez. Megalopolia, forma urbano fisiko bat soilik ez, harreman komertzial, ekonomiko eta teknologikoak ere adierazten ditu, fluxuen joan-etorrietan oinarritua. Gottmanek (1957), AEBko ekialdeko Boston, New York, Philadelphia eta Washingtonen metropoliek osatzen zuten katea aztertu zuen, baita bere arazoak eta etorkizuna aztertu ere. Megalopoliak hiriaren *extra-muro* [harresiez gaindiko] hazkuntzaren jarraipena suposatzen du, eta jatorria hiriaren gune anitzeko forman du (Gottmann, 1957).

Egun, megalopoli ezagunenak eta dinamikoenak, Asian topatu daitezke: Japonen Taiheiyō gerrikoa 1200km luze ditu eta tren lasterraren bidean kokatzen diren hiriak lotzen ditu iparraldeko Ibarakitik hasi, Tokyo gurutzatu eta hegoaldeko Fukuokaraino edota Txinako Perla ibaiaren delta zeinak, besteak beste, Hong Kong, Shenzhen eta Makao hirien metropoliekin 46 milioi eta erdiko populazioa barne hartzen duen. European dagoen megalopoli ezagunena, Banana Urdina edo Europako Bizkarrezurra da, eta Londresetik hasi, Herbehereak, Alemania

6 M.R.G. Conzen geógrafo alemaniar bat izan zen, ingeles-alemaniar hiri-morfologia eskolaren sortzailea.

mendebala eta Suitza gurutzatu ostean, Milaneraino zabaltzen den eremua adierazten duena da. Hainbat hiriez gain, 6 herrialdetan zehar zabaltzen da.

Megalopoliak, harreman komertzialek egituratuta eta abiadura handiko lurralde mailako azpiegiturek lotzen dituzte nolabaiteko osotasun fisiko bat osatuz. AEBko azpiegiturek hiriaz gaindi sortzen dituzten ardatzen inguruan kokatzen ziren asentamenduei, *technoburb* izena eman zien Fishmanek 1987an, nolabait metropoli baten babesean sortzen diren ekonomia eta lantegiak—Silicon Valley esaterako—baina modu autonomoan funtzionatzen duten hiri-kanpoko formazio berria definituz, eta suburbio tradizionalaren gainbehera suposatzen duena (Fishman, 2010).

Jarraitasun eta hedapen honen haritik, amaigabeak ziruditen azpiegitura edota megagitura (Banham, 2001b) hibridoek formak errepikatzen zituzten arkitekturen proposamenak etorri ziren 70.hamarkadan. Honekin lotuta, hainbat arkitektura eta hirigintza eredu sortu ziren garai hartan. Besteak beste, lurralde osoa kolonizatzeko ahalmenarekin, lurraldearekin loturarik ez zuen biztanleria jasotzen zuen Constantek 1974 argitaratu Babilonia Berriaren proiektuak (Constant, 2009). Antzeko irizpideak zituzten Archigram ingelesak *the walking City* (1964), Yona Friedman frantsesaren *villes spatiales* (1960-70), eta italiako Archizoom zein Superstudioren hainbat proiektu utopikoek, hiriaren jarraitasuna bakarrik ez, hiriaren eta landaren arteko hibridoak ziren arkitektura-hiri konplexu eraikiak proposatu zituztelarik.

Hiria nonahi aurkitzen zen 1990. hamarkadaren erdialdean, eta horren harira bi kontzeptu berri suspertu ziren. Batetik, 1995.an hiri generikoa [generic city] (Koolhaas, 2006), eta, bestetik, metapolia [metapolis] formulatu ziren. Lehenengoaren arabera, hiriaren nonahikotasuna [ubiquity] zela eta, ezin liteke hiririaren nozioa singularitatearekin eta identitatearekin lotu gehiago, ezta hirigunearekin ordezkatu soilik, horiek galdu egin baititu. Izaerarik gabe, hiria generikoa bilakatzen da, eta askatasun berri batez gozatzen du, historia-gabetasun batek hornitua. Hiri generikoari bi elementuek ematen diote *izaera*: aireportuek eta landaredun hondar-espazioek ematen diote identitatea (Koolhaas, 2006). Aireportuak, geroz eta autonomoagoa eta handiagoa den auzo baten modukoa izanagatik, bisitariak hiriaren lehen inpresioa jasotzen duen tokia baita. Hondar-begetazioak, hiri generikoaren inorganikotasuna dela eta, hiriaren organizitate gehiegizkoa eta antagonikoa irudikatzen duelako. Hiri generiko bakoitzak bere ur-ertzeko eremua [waterfront] dauka, hiria ez den beste egoera batekin topo egiten duen ertza, dela desertua dela basoa. Bertara joaten dira turistak. Hiri generikoa erreka batek zeharkatzen baldin badu, erreka horren presentzia aldarrikatuko da etengabe, poster, oroigarri, postal eta bertako izaera komunikatzen duen edozein mediotan; mantra bat bilakatzeraino (Koolhaas, 2006). Badirudi hiri generikoaren eta hedatuaren izaera berria historiak eta kulturak bainoago, komunikazio eremuek eta jatorrizko elementu geografikoek ematen diotela.

François Ascherrek 1995ean *metapolis* adiera proposatuko zuen, hiria baino gehiago edo hiriak gaindi dagoen polisa definitzeko. Azpiegitura handi eta bizkorrek elkarlotzen dituzten lekuek osatzen dute hura, baina denak daude jatorrizko metropolira begira. Metapolisa hiri-garapenaren historiako 3. Modernizazioaren emaitza da, non hirien eskala eta forma aldatzen den, hiri mugikortasun sistemak aldatzen diren, gizarte hiritarra berregituratzen den—denboraren eta espazioaren indibidualtasunaren bidez, eta espazio publiko tipologia berrien bidez eraginez—, komuniarearen, norbanakoaren eta interes komunen arteko harremanak berdefinitzen diren—interes motak anitzagoak eta demokrazia konplexuagoa bilakatzen da—, eta non hiri-arriskuaren hautematea handitu egiten den (Ascher, 2005). Bai Metapoliak eta hiri generikoak komunikazio-elementuei eta irisgarritasunari ematen diote garrantzia “hiriaren” formulazioa sostengatzeko.

1989an Herbehereetako kasuan, *tapijmetropool* izenaz ezagutzera eman zuen Neutelings arkitektoak (Pinzon Cortes, Bekkering, Meyer, TU Delft: Architecture: Urbanism, & TU Delft, 2009) hiriko zati ezberdinek osatzen zuten collagea, kultura eta izaera homogeneousko biztanleriaren bizitokia. *Cittá Diffusa* definitu zuen Indovinak Veneto eskualdeko su-urbanizazio edo lurraldearen hiritartzeko forma eta fenomeno difusoa edo logika ez hierarkiakoa analizatu ahal izateko (1990). Europako suburbanizazio edo *sprawl*-aren bi kasu dira hauek.

Suitzako kasua hartu zuen hizpide André Corbozek(2000) *hyperville* kontzeptua definitzerakoan. Alde batetik, Suitzako irudi idiliko hori (mendi paisaia, herritxo landatiar tipiko, baso eta lakuena) zalantzan jartzen zuen esanez gizartearen bizimoduak ez zuela zerikusirik lurralde horren itxura sortzeko behar zen lanbidearekin(2000). Bestetik, hiriaren forma hura testu batekin alderatzen zuen berriz ere (bera da lurraldea eta palimpsestoaren arteko loturaren lehen hurbilketa) baina testu digital batekin zeinak testutik at zeuden elementuekin lotura, nolabait errizomatikoak, sortzen zituen hiperloturen [hyperlink] bitartez. Lotura hauek ez zuten hiri espazio tradizionalaren egiturarekin zerikusirik, bestelakoak ziren, funtzionalak eta zorizkoak (Corboz, 2000). Hiper-hiria sortzen duten hiperlotura urbano bat ilustratzeko adibide gisa ematen zuen Zurichen bizi den sendiaren bizitza hiritarraren eta asteburuetan mendialdean duen txaletera egiten dituzten bidaiaren arteko lotura.

Kontzeptu honekin lotura du Suitzaren lurralde- eta paisaia-egoeraren berrikusketa lanak (Diener et al., 2005). Bertan Suitzako lurralde herrialde osoa urbanizazioaren menpe dagoela onartzen Lefebvreren urbanizazio totalaren hipotesiari jarraiki, zeinak gizarte hiritartu bat eta hiri-sare baten bidez hedatzen den hirtartasuna planteatzen dituen (Schmid, 2005), eta horren araberako eremuen tipologia berri bat proposatzen zen: metropoli eremuak, sare urbanoak, isiltasun guneak, alpeetako lugorriak, eta opor-guneak (Diener et al., 2005). Herrialde osoa hiriaren eskarien menpe dagoela onartzen zuen ikerketak, nahiz eraikin-gabeko eremuak

existitu alpeetako eremuen kasuan bezala, edo sareetatik at geratzen diren “isiluneak” existitu, herrialdearen irudi basati eta natural horren izaera kolokan jartzea lortu zuen liburuak, bisualizazio eta mapa zoragarriak eskaintzeaz gain.

Egitura hiritar barreiatuak edo sarekatuak ardatz hartuta beste bi lan gehiago; *Netzstadt* (Oswald & Baccini, 2003) delakoa eta *Polycentric Metropolis* edo *Polyopolis* (Hall & Pain, 2012). Bi lanek zentro esanguratsu, hots, zentro politiko eta urbano garrantzizkoak elkarlotzetik eratorritako hiri-formak lantzen dituzte. Lehenengoez egituraren alderdi ezberdinak geruza anitzak aztertu eta beraiekin lan egiteko tresna ia metodologiko bat eskaintzen baldin badute (Oswald & Baccini, 2003), bigarrenek, analisi ekonomiko, sozial eta politikoaren hariak jorratzen dituzte (Hall & Pain, 2012).

Eskala globalera, edo mundu mailara mugitzen baldin bagara, 20. Mende hasieran, 1905ean, Patrick Geddes (1854-1932) geografo eskoziarrak aurrenekoz erabili zituen Konurbazio [conurbation] eta *world city* adierak (Geddes, 1960). Geddes ezaguna da hiria bere inguruko eskualdearekin lotzen duen ikuspegiaren aitzindari gisa, harreman horrek plangintzan eta tokian tokiko eraikuntza, asentamenduen kultura ezagutzeko, mantentzeko eta kudeatzeko balio zuen ikuspegi esanguratsua (Fariña, 2011). Munduko hirien adierak, ordea, lurraldea edo eskualdeaz gaindiko harremanak zituen hiriari aplikatzen zitzaion, batik bat, komertzio izaerako harremanak izan zituen hiriari. Ia 50 urte beranduago, Peter Hallek (1966) berriz ere erabiliko zuen “world city” kontzeptua, hainbat eremutako zentro gisa funtzionatzen zuen hiria deskribatzeko. Eremu horiek ziren ekonomia, politika, manufaktura, kontsumoa, kultura, jarduera profesionalak, komunikazioa etab. (Hall, 1966; Hall & Pain, 2012).

Saskia Sassenek, 1991an berreskuratu zuen kontzeptua, baina aldaera batekin, hiriak orain globalak ziren, ez mundialak (2005). Hiri globalek lotura eta sareetan egiten dute lan beste hiri global batzuekin batera, eta normalean, entitate administratibo eta ekonomiko ezberdinak gisa funtzionatzen dute (Sassen, 2005). Eremu eksklusiboak dira maiz, ezberdintasun sozialak eragiten dituzte lan eremuan, eta ad-hoc sortutako subiranotasun egoerak eragiten dituzte herrialde baten barnean mundu mailan beraien parekoak diren beste hiri globalekin dituzten loturen zilegitasuna bermatzeko (Sassen, 2005). Adibide esanguratsuenetakoa da Londoneko *City*-a, zeinak alkate propioa eta berezko araudiak dituen London metropoliaren baitan. Esan nahi baita, hiri globalak ez direla zertan izaera kosmopolitarekin, kultura dibertsitatearekin parekatu behar

Horren harira, 2001ean jada: Hiri-eskualde Globala aipatzen da (A. J. Scott, 2001). Hots, eskualde bat hartzen duten eta era berean, dimentsio globalean eragina duten espazio hiritartuak aztertu zituen Scottek (2001), besteak beste, alderdi ekonomiko, sozial, agintaritza, demokrazia eta hiritartasunari dagokionez.

Lefebvrek (1989) aurreratutako *urbanisation planétaire* harri heltzen diote Brenner eta Schmidt-ek (2011) *Planetary Urbanisation* edo planeta mailako hirigintza egoerara nola iritsi garen azaltzen dutenean. Azken 30 urteetan hurrengo lau prozesuak gertatu dira: hiriaren eskala erraldoiak azaldu dira, esaterako ‘mega’ aurrikzia daramatena; hiriguneak berregituratu dira lurraldean zehar kokatzen diren zentro berrien bidez; hirien barrualdea edo eragin eremua, *hinterland* delakoa desagertze bidean da eta mundu osoa da hirien eragin esparrua; amaitzeko, natura basatiaren kontzeptua agortu egin da, munduko tokirik urrun eta isolatuenak (ozeanoak, artikoak, tundra, oihanak etab.) ere hiriek ezartzen dituzten erritmo eta eskarien eraginpean baitaude. Ondorioz, hiria ezin da eite isolatu eta analisi unitate gisa gehiago landu, hiri tipoak ere ez dira existitzen; hiritartasun egoera total baten nagusitasuna da aldarrikatzen dutena, eta egoera berri horren ondorio eta inplikazioak aztertzea da haien helburua (Brenner & Schmid, 2011). Baina, mundua erabat urbanoa dela onartzeak, urbanoa denaren esanahi uniboko edo adiera bakarreko bat zehaztea ere ezinezkoa da “urbano” gisa ulertzen diren hainbat egoera ezberdin baita kontrajarriak direla eta (Romera, 2012).

3.1.3 Tarteko hiriaren aurkezpena

Hiri geruza anitza, hedatua eta, azkenik, “artean” dagoen egoera hiritartua aipatuko da orain. Tarteko ez, baina ertzeko hiriak [edge city] izendatu zituen Joel Garreau (1992) kazetariak, hirigunetik harago sortzen ziren hiri edo asentamendu funtzionalki espezializatuei esateko, zeinak zerbitzu eta industria lantokiez osatuak diren batik bat. Metropolitik at ere Ed Soja-ren (2000) *Exopolis*-a kokatzen da. Los Angelesekin lau dituela zioen, esanguratsuen bere teoriaren arabera Orange Konderria, garai bateko suburbioa, 1992rako guztiz autonomo bilakatua zena (Soja, 2000).

Françoise Choayk (1994) hiria eta landaren ertza guztiz desagertua zegoela aldarrikatzen zuen, eta, bestetik, hiria osatzen duen *urbs* eta *civitas* delakoak banatu egin zirela, eta gainera, azken honek gainditu egin zuela aurrekoa. Hots, argumentu nagusia zen hiria hitzak jada ez zituela bere barne hartzen hiritartasun gizatiarra eta hiritartasun tekno-, morfologikoa. Hein batean, hemen Lefebvreren *tissue urbaine*-aren oihartzuna dago (1996), baita autore berdinen *urbanisation planétaire* haren zantzua ere. Hots, hiria formalki, era material eta fisikoan zabaltzen zela lurraldean zehar batetik, eta bestetik, hiriaren eragin sozialak ere zabaltzen zirela hiritarra ez zen komunitatean eraldaketak eraginez (Lefebvre, 1989, 1996; Merrifield, 2011; Schmid, 2005),

Egitura nagusiei kasu egin beharrean, tartean gelditzen diren hondarrei kasu egiten dien talde horretan kokatuko dugu Sievertsen (2003a) lana eta bere ekarpena *Zwischenstadt* terminoaren bidez adierazia; hots, “artean dagoen hiria” edo “tarteko hiria”. Hiri-forma hau difusoa da, eta hortaz, landa-lurra eta hiri-lurraren arteko interfaze edo kontaktu azalera izugarria du. Egilearen helburua, harekiko miresmena baino, desintegratzen edo desegiten

den hiriaren gizarte eta kultura arazoei aurre egitea zen. Zwischenstadtaren arazo nagusia, hura ulertzeko erabiltzen diren hiri eta landa kontzeptuen erreferentziak dira. Ondorioz, tarteko hiria beti galtzen ateratzen da ez duelako kontzeptu estandar horiekin zerikusirik (T. Sieverts, 2003a). Ageri denez, hiriaren tarteko eremua, hedatu den hiriaren eratorri gisa landu daiteke, baita kontzeptu isolatu gisa ere, ondoren ikusiko denez.

3.2 Hiri ertza

Lehen landa-lur eta hiri-lur kategorien arteko ertza horma zen bezala, hots lerro fisiko eta administratibo zehatz bat, denborarekin, lerro abstraktu bihurtu, eta fisikoki eremu bilakatu da, zabaldu eta loditu ere. Hots, hiri kontsolidatu eta diskretuaren ereduaz gain, beste hainbat eredu azaldu direnez gero—dispertsoak, geruza anitzak, mundu mailakoak, tartekoak—hiri-ertzaren kontzeptua anitzagoa da egun. Lerro administratiboak mantentzen baldin badira ere, materialtasunari, formari eta kontzeptuari dagokionez ere, hiriarekin batera ertza zabaldu eta konplexuagotu egin da.

3.2.1 Hiri ertza: ikuspegi diakroniko bat

Thomasen (1990) arabera, hiri-ertza betidanik existitu den fenomeno bat da, ez da kontzeptu berri bat. Hala ere, hura aztertu eta ikertzeko, bai eta haren problematika eta ezaugarri berezkoiei pragmatikoki aurre egiteko estrategiak garai batetik bestera aldatu egin dira. Garaikideak diren hurbilketen gainbegiratu bat egingo dugu 20. eta 21. mendean zehar.

5 Taula Hiri-ertzaren eta hiri-bazterren kontzeptualizazioak urtearen, kontzeptuaren, egilearen eta erreferente geografikoaren arabera

YEAR	CONCEPT-NOMINALIZATION	AUTHOR	GEOGRAPHICAL REFERENCE
1902	<i>Garden Cities of Tomorrow</i>	Ebenezer Howard	Erresuma Batua
1923	<i>commuter's zone</i>	Ernest Burgess	
1936	<i>Stadtrandzone [urban fringe]</i>	Herbert Louis	Berlin
1937	<i>Urban Fringe</i>	T.L. Smith	
1942	<i>urban fringe and rural-urban fringe</i>	Richard B. Andrews	Madison, Wisconsin, AEB
1930-1947	<i>Green Belt- Town and Country Planning Act</i>	Greater London Regional Planning Committee;	London, Erresuma Batua
1947	<i>Fingerplanen</i>	Egnsplankontoret (Kopenageko plangintza bulegoa)	Copenhage
1958	<i>Fringes and Suburbs</i>	R.A. Kurtz & J.B. Eicher	
1960	<i>urban fringe belt</i>	M.R.G. Conzen	Erresuma Batua
1968	<i>periurbanity, urban periphery</i>	Robin J. Pryor	Mendebaldeko herrialdeetako hiriak
1990	<i>Cittá difusa</i>	Francesco Indovina	Veneto
1991	<i>Edge cities</i>	Joel Garreau	AEB
1991	<i>Desakota</i>	McGee	Asia HE
1992	<i>Exopolis</i>	Ed Soja	Los Angeles
1990	<i>new urbanism</i>		sprawl AEB
1997	<i>Zwischenstadt</i>	Thomas Sieverts	Frankfurt, Ruhr
1997	<i>Landscape urbanism</i>	Charles Waldheim	
2004	<i>urbanización-paisaje banal</i>	Francesc Muñoz	Bartzelona
2008	<i>Semi-urban Landscape</i>	Meeus & Gulinck	
2010	<i>ecological urbanism</i>	Harvard GSD	

1930. hamarkadan, Alemanian eta Estatu Batuetan hiri-morfologiaren ikuspegitik eginiko ekarpenak aipatu ziren aurrenekoz: *Stadtrandzone* (Herbert Louis, 1936) eta *urban fringe* (T.L. Smits 1937) kontzeptuarekin. AEB eta Erresuma Batuan, ordurako dentsitate baxuko suburbanizazio prozesuetan nolabaiteko esperientzia aitzindaria bazuten, eta horrela garai hartan ikerketa hauen presentzia ulergarria da. Esaterako, 1923ko Burgessen eraztunen bidezko hiri eredia ezaguna zen ordurako, zeinak eraztun bakoitzean klase sozial jakineko jendea kokatzen zuen. Burgess ereduak hiri bazterrean kokatzen zuen *commuter's zone*-a edo

egunero lanera joateko garraio publikoa erabiltzen zutenen biziguneak. Stadrandzone-a edo urban fringe-a eragiten dute hiriaren hazkuntza garai bakoitzean osatu diren muga edo ertzen formek.

1940. eta 1950. hamarraldian, ertzeko eremuen azterketaren susperraldia eta hazkuntza gertatu zen, ziurrenik 2.Mundu Gerran suntsitutako hirien berreraikitze prozesuek bultzatuta. Ikuspegia orduan hiri-morfologiarena zen, zeinak ertza identifikatu, zehaztu, mugatu eta objektu isolatu baten gisan ikertzeko grina izugarria erakutsi zuen garai hartan. Horren lekuko dira orduan asmatu ziren izen nahiz ekarpen ugariak: *rurban* edo *rurarlurban* ertza nekazaritzan adituak diren geografoen ikuspegiaren ekarpena, hiri bazterra [*urban fringe*] eta hiri-landa bazterra [*rural-urban fringe*] ezberdintze zituen Andrewsek 1942an; Kurtz eta Eicherrek hiri bazterra eta suburbioa bereiztuko zuten 1958an (Adell, 1999; Thomas, 1990).

1960. hamarkadan hiri-morfologian aditua zen Conzen alemaniarrek lan ugari egin zuen hiri bazterreko morfologia aztertzen. Alemaniarra izateagatik, Erresuma Batuan garatu zuen bere lana. Conzenen arabera, hiriaren inguruan hiri bazterreko gerriko [*urban fringe belt*] ezberdinak identifikatzea posible da, garaian garai, hiri-forma eta arkitektura tipologia ezberdinez osatuak (Conzen & Conzen, 2004). Finean, gerriko batekin identifikatzen duen ikuspegi honek, hiri-ertza muga edo perimetro zehatz eta baldintzatzaile bat du oinarrian. Hiriaren hazkuntza erradiala eta kontzentrikoa suposatzen du gainera; hots, denboran zehar gradualki, gertakizun sozioekonomikoen arabera, hirigunetik kanporantz, planifikatuta edo planik gabe zabaltzen den hiri hazkuntza (Whitehand, 1988). Pryorrek (1968) eremu peri-urbanoa eta periferia rurbanoa ezberdindu zituen 1968an, bata zein bestean lurzoru erabileraren ezberdintasunak eta dentsitate eraikia aztertu eta nabarmenduz (Pryori aipamena Thomas, 1990).

6 Taula Hiri-ertza formulatzeko beste hainbat adiera (Adell, 1999; Thomas, 1990)

YEAR	CONCEPT-NOMINALIZATION	AUTHOR	GEOGRAPHICAL REFERENCE
-	fringe, suburb, pseudo-suburb, satellite, pseudo-satellite		
-	slurb= sloped over suburb		
-	inner and outer fringe		
-	rural fringe		
-	limited fringe & extended fringe		
-	suburban fringe zone and outlying adjacent zone		
-	inner and outer fringe		
-	true fringe and partial fringes and adjacent rural townships		
1962	pseudo suburbs and pseudo satellites	G.A. Wissink	AEB
1976	rurbanization	Bauer eta Roux	

Hiri ertza aztertze eta analizatzeko metodo nagusia hiri-morfologiaren azterketa metodoa baldin bada—Conzenek garatutako lan aitzindaria oinarri hartuta—bestea, plangintza eta pragmatismoaren ikuspegitik ertzari aurre egiteko estrategia nagusia litzateke (Thomas, 1990). Europako testuinguruan, batetik, Kopenhagen 1948an garatu zen “atzamarren” plana [finger plan] edo ingelesez *green wedge* [ziri berdeak] deritzon strategiarena. Bestetik, Erresuma Batuan gerraostean onartu zen Green Belt-en legepean [gerriko berdeak] osatutako plangintza tresnaren bidezko estrategia (Thomas, 1990).

60. Hamarkadatik aurrera, hiri ertzaren alderdi sozialari eta ekonomikoari arreta gehiago eskaintzen hasi zitzairen. Hots, formaz eta pragmatismo planifikatzaileaz beste, bertako biztanleen bizimoldearen berezitasuna aztertzen hasi ziren ikertzaileak, hiriaren formulazio isolatu eta diskretua baztertuaz (Adell, 1999). Hiria ikuspegi sozial eta konstruktibistatik ulertzeko joeren eraginez, baita eredu positibistaren aurka altxa zen pentsamendu joeraren eraginez ere.

Garai hartan, hiria eta landaren arteko mugaren desagerpenaz ohartarazten zuten zenbait autoreek. Esaterako, Lefebvrek 1968an 100% hiritartzetik gertu zegoen egoera bat iradokitzen zuen, eta gerora *urbanisation planétaire* kontzeptuarekin sareta urbanoaren [tissue urbain] mundu osoan zeharkako zabaltzea aurreikusten zuen. Sareta urbano hark, forma eraikien bidez bakarrik ez, eta balio eta bizimodu urbanoen elkartrukearen bitartez barreiatzen zuen hiria (Lefebvre, 1996). Era berean, hiri eta landa lurren arteko mugaren desagerpena ere iradokitzen zen, hain zuzen ere, oso txikia baitzen hiriaren periferietan sakabanatzen ziren hazkuntza suburbialetan zehar landa lanetan edo lehen sektorean lanean zebilen gizartearen proportzioa.

1980-1990 hamarkadetan, iparralde globalak petrolioaren eta industriaren krisiak pairatu zituen. Hainbat hirietan aldaketak ematen hasi ziren industriak hutsik utzi zituen espazioen berreskurapenera bidean, baita lan eta ekonomia eredu berrien suspertzearen ondorioz. Aipatu globalizazioaren eskutik sortu ziren hiri globalez (Sassen, 2005) gain, hirien polinuklearizazioa ere etorri zela esan daiteke azpiegituren eta komertzio-guneen garapenak ekarritako suspertze ekonomikoaren bidetik. Garai hartakoak dira lehenago aipatu den Zwischenstadt (T. Sieverts, 2003a), *Metapolis* (Ascher, 1995), *Citta Difusa* (Indovina, 2005), *Generic City* (Koolhaas, 2006), eta beste kontzeptuak.

Hiriaren kontzeptuaren aniztasunarekin batera, ikuspegi post-kolonialistek bultzatuta, eurozentrismo eta mendebaldearen ikuspegitik harago joatea bultzatzen duena (Robinson, 2006), hiri ertzaren bestelako tipologia zenbaitzuk ere azaldu dira; Esaterako, Asiako Hegoekialdean suspertu den *desakota* fenomenoak, ikuspegi sozioekonomiko batetik jorratzen du landatarra eta urbanoa den egoera hibrido bat. Hiriak landa-eremutik etorritako biztanleriarekin hazi badira normalean, kasu honetan, hiria landara joaten da. Horrek esan nahi du, nekazaritza-eremutik mugitu gabe hiritartzen direla eremu hauek. *Desakota* hitza McGeek proposatu zuen lehenekoz 1991an (McGee-ri aipamena Meeus & Gulinck, 2008; Adell, 1999)

3.2.2 Askotariko hurbilketak

Hurbilketa garaikideenak pentsaera aldaketa bat baita aniztasun bat ere aditzera ematen dute. Meeusek eta Gulinck-ek (2008) gaiaren inguruan egindako iruzkinean hiri-ertza ulertzeko bost hurbilketa desberdin aipatzen dituzte. Lehenengoa, kulturaliki ezarriena eta onartuen dagoena da, hots, mugaren existentzia funtsezko faktoretzat duena. Hiri eta landaren arteko muga da praktikaren oinarria eta muga horren arabera erabakitzen da nola planifikatu eta eraiki daitekeen mugaren alde batean edo bestean. Bigarren eredu bat, landa eta hiriaren arteko eremua erdi edo semi-urbanotzat duena da. Honek hiri-landa dualitatea gainditua ikusten du. Urbanismo Berria [new urbanism], lorategi hiriak [garden city], paisaia-hirigintza [landscape urbanism] bezalako irizipide pragmatikoen kasua litzateke hau (Meeus & Gulinck, 2008). Hurrengo hurbilketak, hiri ertza dinamikoa eta aldakorra den kontzeptua dela onartzen du. Ez dago ertz garbi bat, baizik eta fronte mugikor moduko bat, kanporantz poliki desplazatzen dena. Laugarrena, hiri ertza eta *sprawl*-a bat eta gauza bera direla uste dutenen irizpidea dugu. Bortitza eta proportziorik gabekoa den hazkuntza honek zerikusi handia du azpiegituren garapenarekin (Meeus & Gulinck, 2008). Irizpide honen arabera sortu diren zenbait kontzeptu aipatzen dira artikulu berdinean, lehenago ere aipatu direnak: *network city* (hiri sarea), *citta diffusa* (Indovina, 2005), Willem-Jan Neutelings arkitektoaren *tapijtmetropool* [alfonbra hiria] (Pinzon Cortes et al., 2009), *hyperville* (Corboz, 2000) etabar. Baita *konurbazio*, *superurb*, *grid city* eta *constellation region* bezalako kontzeptuak ere (Meeus & Gulinck, 2008).

Amaitzeko, bosgarren hurbilketa holistikoa aipatzen dute Meeusek eta lankideek (2008), erdi-hiri edo peri-hiri hau paisaia bezala tratatzen duen hurbilketa, alegia. Erdi-hiriko paisaia [semi urban landscape] deritzon kontzeptua sortzen da paisaiaren ikuspegitik eremu horien logikak aztertu eta ezagutzeko. Meeusen artikuluan (2008) paisaia izendatzeko erabiltzen den kontzeptuak ekologiaren kutsu nabarmena duela esan beharra dago, izan ere, ingurumeneko prozesu eta dinamiken arabera den egoera bat izendatzeko erabiltzen baitu paisaia hitza. Modu holistikoa beraz, eremu hiritartuek, edo tarteko hiriek sistema ekologiko natural baten prozesu antzekoak dituztela adierazten duen hurbilketa da.

Hortaz, kutsu urbano eta nekazaritzakoa duten eremu hauek paisaia izendapena lortu dute, hurbilketa hau oso maiz azaltzen ez baldin bada ere. Batzuek, *semi-urban landscape* esaten diote, paisaiaren ekologia ikuspegi batetik bada ere (Meeus & Gulinck, 2008). Hortaz, lan honetarako egokiagoa ikusten da Zwischenstadt bezalako terminoek (T. Sieverts, 2003a) adierazten duten eremu hibridoa edo *paisaia hiritartua* [urban landscape]⁷. Hiri ertzaren paisaia estatusaren onarpenak markatzen duen ibilbideari jarraituko zaio tesian, hots, muga eta ertz abstraktu bezala ulertu beharrean, nahaste eta elkartrukerako eremu heterogeneo eta zenbaitetan, hibrido, gisa onartuko da.

3.2.3 Modelizazioa eta Praxia

Hiri ertza gaitzat duten ikerketen helburuei dagokionez, gehienak saiatzen dira bai hiriaren inpaktu ekologikoak neurtzen, bai ertza bera detektatzen eta neurtzen, eta bai ertz iraunkorrako/jasangarriago bat lortzeko plangintza estrategiak bilatzen ere (Meeus & Gulinck, 2008)

Detekzioari dagokionez, Meeusek lau modu edo metodo nagusi aipatzen ditu: GISaren bidezko edo urruneko detekzioaren bitarteko kartografia, hazkuntza gradientearen teoriaren arabera —zeinak hiri eta landa muturren arteko graduazio bat zehazten duen, adierazle ekologikoen eta lurzoru estalkiaren arabera detekzioa, eta, azkenik, bizitegi eta eraikuntza joeren arabera azterketa.

Beste ikerketa batek, antzeko hiru irizpide aipatzen ditu hiri ertza zehazteko: kontsolidatua dagoen azaleraren zabalera marraztea, populazio dentsitate mailen arabera sailkapena egitea, eta, azkenik, hiri edo herriaren eremu funtzionala (eremu kontsolidatua nahiz asentamenduak landa-lurrean barne hartuta) marraztuta (A. Scott, Gilbert, Gelan, & Macaulay Institute, 2007).

Plangintzak hiriaren ertzari aurre egiteko ereduak ekarriko ditugu hona orain. Aitzindarienetan, lehen aipatu diren Green Belt britainiarra eta Kopenhagueko plana agertzen

⁷ Euskarazko termino honen erabileraren inguruan ikusi azalpena 5.1 atalean.

dira (Thomas, 1990). Biek ala biek hiria eta landa lurraren arteko muga edo trantsizio eremu bat sortzea dute helburu, baina forma aldetik guztiz ezberdinak dira. Lehenengoak esku baten forma hartzen du hiri eta berdegune/landagune zatiak tartekatuz, hirigunetik modu erradialean ateratzen diren behatzak bailiran. Ingelesek ostera, hiriaren hazkuntzari muga bat jartzen diote haren inguruan eraikiezina den eremu “berde” bat ezarriz, hots de facto hiritartu ezin daitekeen espazio bat sortuaz. Bata erradiala da eta bestea aldiz inguratzaila, bata berdeguneak hazkuntza azpiegiturek zehazten dituzten korridoreen inguruan kokatzen baldin baditu, besteak, hazkuntza zentrifugoari oztopo bat jartzen dio.

Esan beharra dago, gerriko berdea kritikatu izan dela, izan ere, hiri-hazkuntza gerrikoaren kanpoaldera lekualdatzen den heinean, hango landa lurrari presio ekonomiko eta ekologikoa eragiten diolako (Edwards, 2001; Gant et al., 2011). Gainera, gerrikoaren baitan, erregulazio berezirik ezartzen ez denez, bertan azpiegituren aldetik edozer garatzeko zirrikitu legala suertatzen da eta maiz, ez dago hango berdeguneak mantentzeko inolako planik ere (Edwards, 2001; Gallent et al., 2006; Thomas, 1990).

Lorategi Hiriaren [Garden City] eredua esanguratsua bilakatu da gaur egun, hiri eta landaren arteko nahasketa eremuaren planifikazio eredu gisa. Howarden proposamenak, hiri industrialaren osasun eta gizarte kalteei aurre egiteko, hiri utopiko bat planteatzen zuen, zeinak landa eta hiria modu orekatu eta arrazional batean nahasten zituen. Esaterako, Zurich kanpoaldean kokatzen den Limmattal bailaran zehar zabaldu den urbanizazioaren inguruko ikerketa egiterakoan lorategi-hiriaren eredua erabilgarria iritzi da (Schumacher, Koch, & Ruegg, 2004).

1990 hamarkada hasieran, *New Urbanism* edo hirigintza berria mugimendu bezela sortu zen izen bera izan zuen kongresua ospatu ondoren. Bertan onartu zen hitzarmenak biltzen ditu mugimendu honen irizpide eta helburu nagusiak, besteak beste, AEBko *sprawl* edo kontrolik gabeko suburbanizazioari aurre egitea (Congress for the NewUrbanism, 2013). *Sprawl*aren bitartez galdutako tokikotasuna [sense of place] komunitateak eraikiz eta hirigintzaren bitartez hiritartasun edo eremu zibila berreskuratzearen aldeko apustua egiten du New Urbanismak.

1997an Charles Waldheim-ek antolatu zuen *Landscape Urbanism* izeneko hitzaldi sorta eta erakusketaren ondoren hasi zen suspertzen joan diren 10 urteetan garatu den izen bereko diziplina-anitzeko praxirako ikuspegi berria. Formen bidezko irtenbideen eraginkortasuna gainditua zegoela eta New Urbanism bezalako ikuspegi ordezko bezala jaio omen zen *Landscape Urbanism* (LU) delakoa (Corner, 2006; Waldheim, 2010). Plangintza zentralizatuaren ordezko alternatiba bat osatzea zen helburua, hainbat diziplinak berea egin dezakeen ikuspegi hibrido baten bitartez (Corner, 2006). Funtsean, paisaia eta hirigintza nahastea zuen helburu, baina ez modu formalean. Cornerren ustez, *landscape urbanism*-aren aurrekariak dira azpiegiturazko paisaia [infrastructural landscape] bezalako sistema hibridoak; esaterako,

Stuttgarteko parke sistema zeinak hiriko airea berritzen laguntzen duen, edota Bostoneko Back Bay Fens sistema hidrológikoa zeinak euri ura erregulatzen laguntzen duena, besteak beste (Corner, 2006). New Yorken eraikitako Cornerren Fresh Kills (2003-2008) edo High Line (2009) proiektu entzutetsuek ikuspegi horiek lantzen dituzte nabarmenki.

Finean, sistema etiko eta estetiko berri honek, natura kulturizatuaren ideia bat onartzea dakar (Corner, 2006). LU-aren balio potentzialak hauek omen dira, eskala ezberdinetan jarduteko ahalmena, hiria bere eremu biotiko eta regionalaren baitan kokatzea, eta, hiri-forma eta ingurugiro-prozesu dinamikoaren arteko harremanak diseinatzea (Corner, 2006). Hots, kultura eta naturaren arteko ezberdintasunaren, edo hiri eta nekazaritza guneen arteko mugaren dikotomiek araututako bidetik jo beharrean (Corner, 2006), irizpide hibridoaren baliagarritasuna eta aukerarekin diseinatzea da irizpide nagusia.

1997tik ona, bestelako *urbanism* batzuk agertu dira *ecological urbanism* (Mostafavi, 2010) eta *landscape urbanism*-ek ere kritikak jaso ditu (Waldheim, 2010). Esaterako, nola jokatzeko du honek ondarearekin, paisaiaren babesarekin eta plangintza parte-hartzailerekin (Thompson, 2011)? Edo, nola egiten dio aurre hazkuntza adimentsuari [smart growth], hirigintza berdeari edota New Urbanism-ari egoera suburbanoen kasuetan (Weller, 2008)?

Amaitzeko, Milanen ospatuko den 2015eko Nazioarteko Erakusketaren gaiak adierazten duen bezala, nekazaritza eta elikaduraren subiranotasuna agertzen dira. Hirietan bizi den biztanleria nagusitzen doan bezala, gai kritikoak dira hauek. Aterabideak proposatzen dituzten Nekazaritza Urbano eta periurbanoak (Tacoli, 1998a, 2003), hiria zuzenean harremanetan jartzen dute nekazaritzarekin. Funtsean, elikadura jario eta elkartrukea sustatzen dira, ahal bezain distantzia urrienera hornituz hiria. Neo-ruralitatea, *transition towns* eta hazkuntza-adimentsua [smart growth] edo desazkundera bezalako ideiak ekartzen ditu honek gogora, hiriko biztanleen eskariei modu lokalean erantzuteko joerak hauek denak. Hots, hiri bazterrean nekazaritzaren papera eta presentzia indartzen duten estrategiak burutuz, eta landatik hirirako begirada aintzat hartzen duen praxirako aukerak proposatzen dira.

3.2.4 Ertzaren existentziaz hausnarketa

Hiri-ertzari ikuspegi anitzetik hurbildu ahal gatzaizkio: morfologiatik eta plangintzatik, baita ekonomiatik, soziologiatik, ekologiatik, edo kontzeptualki ere (Gandy, 2012; Tacoli, 1998b). Baina, *ertzaren* esanahi zehatza lausoa bilakatzen da hiriaren kasuan; postura positibisten perspektibatik, zeinak analisirako elementuak garbi bereizten eta isolatzen dituen, bi kontzeptu bereizten dituen ertzaren presentziarekin beti egingo dugu topo.

Hurbilketa morfologikoa da agian arkitektura eta hirigintzaren tokitik lehena azaldu zaiguna (Thomas, 1990); non bukatzen da hiria? Non hazi daiteke hiria? Non bukatzen dira hiriaren araudiak eta hasten dira ez-hiriarenak? Modu sozio-ekonomikoan aldiz, lan eta produkzio nekazaritzakoen eta urbanoen artean ezberdintzen ditu ertzak (Tacoli, 1998b). Baina egun, lurraldean zehar, hots *hiritik-at* hedatzen diren parke teknologiko eta industrialdeen garai honetan, non dago lanbide landatarraren edo hirikoaren arteko muga?

Ikuspegi ekologiko batetik, batik bat paisaiaren ekologiatik, bada hiri eta ez-hiriaren artean, edo bioma⁸ ezberdinen artean trantsizio eremu bat aipatzen da sarri, ekotonoa alegia. Hau nahasgune eta elkartruke gune bat da, hiriko eta ez-hiriko ezaugarri ekosistemikoak elkartrukatzen diren tokia.

Administrazioaren eta lurzoru politikaren ikuspegitik Estatu espainiarraren kasuan eta Euskal Autonomi Erkidegoarenean, lurzoru legeak ezartzen duen lurzoruaren klasifikazioen eraginez sortzen den ertz abstraktu bezain erabakigarria eta eraginkorraren kasua aipagarria da. Lurzorua urbano, urbanizagarri eta ez urbanizagarri bezala sailkatzerakoan (Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, 2006), zuzenean sortzen da hiria eta ez-hiriaren arteko muga. Hau hobekien islatzen duen esparrua jabego-katastroarena da, zeinak lursail jabego *rustikoak* edo “urbanoak” bereizten dituen. Muga honen eraginik nabarmenena lurzoruaren balioan topatuko dugu, alde banatara lursailen prezioak arras ezberdinak dira eta, Green Belt britainiarraren kasuan bezala (Edwards, 2001; Gallent et al., 2006)(Gallent et al., 2006). Prezio aldaketa horren funtsa alde-banako mozkin ekonomikoen inguruan egiten den espekulazioan datza. Hortaz, lurzoru salneurrien graduazio bat sortzen dela esan daiteke, urbanotik ez-urbanizagarrira doan tartean, urbanizagarria den eremua barne hartuz.

Azkenik, hiri morfologoan adituak direnen, eta orokorrean hirigileen ikuspegia aipatu daiteke. Honek, eragin zuzena izan dezake aurreko hiri-ertzaren sorkuntzaren funtsean: lurzoruaren klasifikazioan alegia. Eraikiak diren esparruei kasu eginez hiria eta ez-hiri denaren arteko bereizketa ezartzen da, hau da, hiria arkitektura forma zehatzen bidez definitzen dela adieraziz.

8

Biomak antzeko ezaugarri ekologikoak eta klimatikoak dituzten area geografiko handiak dira.

Ertzaren existentzia ezeztatzen dutenen aurrekari nagusia Lefebvre izango genuke, eta bere *urbanisation planétaire* kontzeptuarekin iragarritako hiriaren mundu-mailako barreiatzea, fisikoa soilik ez, eta gizarte balioen bidez ere, espazioaren garapen merkantilista bat sustatuz (Lefebvre, 1989, 1996). Honen harira, Brenner eta Schmidtek (2011) *Planetary urbanisation* egoeraren suspertzea landu dute berriki, Suitzako erretratu urbanoa proposatzen zuen ikerketaren hurrengo pausu gisa (Diener et al., 2005; Schmid, 2005), adierazteko nola planeta osoan zehar hiritarren eskariak ezarri diren, eta ondorioz, lurralde oro hiritartua dela, natura basatiaren kontzeptua ezabatzeraz ere iritsita.

Tesi horren inguruan, ekarpen nagusiak, aipatu egileek eginak dira, baita Andy Merrifield (2011) geografoarenak ere. Honek, Lefebvreren hariari heltzen dio, hiri-eskubidea [le droit à la cité] eta gizarte urbanizatuaren eta urbanitatearen formulazio garaikideak aztertzeke. Zein eskubide izan dezakegu hiriarekiko, hiria mundializatu egin baldin bada? Merrifieldek (2011, 2013), hiria gizarteak topo egiten duen tokietan kokatzen du eta ez ordea hiri-eskariak mundializatzen dituzten azpiegiturretan edo elementu fisikoak bereganatzen dituzten eremuetan soilik.

Beste modu batera formulatua, hiri globala edota sare-hiria kontzeptuek antzeko zerbaite diote. Biek ala biek finantza lege komun bezain eskusiboak dituzten territorioen arteko harremanak oinarri hartuta, eta beraien arteko komunikazio sareak direla medio, hiri bat eta bakarra osatzen dutela esan daiteke. Komunikazio eta garraiobide lasterren eta birtualen bidez, mugarik ez da existitzen, eta hiri globalak eremu jarrai baten baitakoak direla esan daiteke.

Hortaz existitzen al da sare planetariotik kanpo dagoen eremu hiritarturik? Urbanizazio Planetarioaren arabera ez, ordea, Merrifieldek aipatu bezala, ikuspegi sozialago batetik begiratuta bai.

Ikerketa berrien arabera, ertzaren edo landatar-hiritar dikotomia gaindituztat ematen dela esan daiteke. Adierazleak hainbat onartu daitezke; adibidez, manufaktura eta produkzio guneen kokapena Erresuma Batuan (Rizov & Walsh, 2010), edo hiri-plangintzaren dokumentu historikoetan ertzari egin zaion tratamendua anbigua ez-hiri eta ez-landa eremua dela onartu eta beste kategoria batean jorratuz (Qviström, 2013), edo eremu landatarraren birdefinizioa, nekazaritzaren bidezko hiri-landa loturak eta espazio hibridoaren existentzia aztertuta (Woods, 2009)

Mathew Gandy (2012) geografoaren saiakera batean Londreseko ertza identifikatzen saiatzen zen. Horretarako hainbat adierazle eta dokumentu aipatzen zituen, mapak, garraiobideak, azpiegitura urbanoak (uraren hornikuntza eta tratamendu sareak), azpiegitura bigunak edo komunikaziozkoak, hiri-morfologia, Londresek duen aztarna ekologikoa etab.

(Gandy, 2012). Balizko ondorio gisa aurkezten du hiriaren izatea adierazle bakar baten bidez isolatu eta definitzeko ezintasuna; izan ere, hiria modu askotan gorpuzten da. Hortaz, elementu materialak alboratu, eta hiriaren eragin ukiezinak—lotura kultural eta finantzakoak aztertuz, hiriaren definizioa geroz eta difusoagoa, ubikoagoa, eta haren presentzia hedatuagoaz ohartuko gara (Gandy, 2012).

Horrenbestez, eztabaidagai da hiri ertza existitzen den ala ez; ertza egon baldin badago, hura modu tautologikoan onartzen baita: hiri eta landaren arteko ertza existitzen da, landa lurra eta hiria ezberdinak direlako. Hainbat diziplina eta praxien oinarrian dagoenez muga hau, hainbat ezaugarri eta elementu konkretu eragiten ditu. Ostera, ertza garaitua dela onartzerakoan, hiriaren formalizazioaren eta hedapenaren garapena eta adierazle-anitzeko, baita egungo egoera sozioekonomiko eraldatua izan ohi dira erabiltzen diren argumentu nagusiak.

Ertzaren existentzia onartzeak ez du honen aldarrikapenik suposatzen, izan ere naturalizatua eta onartua dagoen kontzeptua da. Ordea, ertzaren desagerpena ikerketa eta proposamenen abiapuntu izateak, argumentazio maila altuagoa eta jarraitasun urbanoaren errebindikazioa eragiten dituela esan daiteke, horrek dakarren polemikarekin batera.

3.3 Ondorioak

Hiri bazterreko paisaiak lantzerakoan, funtsezkoa da egungo hirien egoera nolakoa den eta zein bilakaera izan duen jakitea, baita ezagutzea ere teoriaren ikuspegitik bilakaera eta egoera hori nola formulatu eta kontzeptualizatu den. Izan ere, esan daiteke, literatura eta lurraldea aztertu ondoren, hiria objektu konkretu eta isolatu bat izatetik, eraldaketa eta konbinaketa anitzen bidez, modu sakabanatu batean gorpuzten dela orain.

Ikusi denez, hiriaren garapena nabarmena izan da azken bi mendeetan zehar. Garapen hau bi atal nagusitan jorratu da hiriaren osotasun konposatua, eta hiriaren osotasun hedatua lantzen duten ekarpenak aztertuz. Lehenengo zatian, hiriko atalak arkitektonikoak, formalak, espazialak, sozialak, hautematezkoak, eta intelektualak direla adierazten dute. Esanguratsua da ikuspegi honen arabera, hiria arkitektura eta azpiegiturak baino gehiago dela, hots forma eraikiak baino elementu eta egoera gehiagok osatzen dutela. Bereziki interesgarriak dira Davisen (2006) Los Angeles osatzen duten hiri-idea intelektual ezberdinak hiritar talde ezberdinen arabera ezberdinak; ideia eta ideologiek hiria osatzen dutenaren adierazgarria da Davisen interpretazioa. Bigarren zatian, hiria lurraldean eta munduan nola hedatu den aztertzeke hainbat ikuspegi aztertu dira. Begirada hirigunetik, lurraldera, eta mundu mailara zuzendu da, denboran zehar ere aurrera eginez. Hiriaren hedapen mundialaren egoerak, hiri eta landa arteko ertzak deuseztatzen dituen, baita natura basatiaren kontzeptua ere ezabatzen duen bezalako planteamendu bortitz baina intelektualki probokatzaileen interesa

nabarmengarria da, *Planetary Urbanisation* adierak egin bezala (Brenner & Schmid, 2011). Hala ere, tarteko egoerak existitzen direla aldarrikatzen dutenen lana ere ekarri da ona, izan ere, lurraldea begiratzeko den adierazlearen arabera (Gandy, 2012) zenbait egoera ezberdindu badirela esatea ere garrantzitsua da, hots, guztiz hiria ez den eta guztiz nekazari edo ez-hiri ez den eremuaren presentzia egon badagoela (Merrifield, 2013). Baita eremu horiek mundu mailako sarearen eta tokian tokiko zehaztasunen lotura guneak ere direla esanez (T. Sieverts, 2003a).

Gai hau sakonago aztertu da hiri-ertzaren bigarren azpi atalean, ondorioztatuz nola lehenengo morfologiaren bidetik eta geroago adierazle sozioekonomikoei kasu eginez ere, hiri bazterren adiera adostu bat lortzen tematuta ibili direla ikerlariak. Bost eredu nagusi aurkeztu dira, bakoitzak hiri bazterren modu batean edo bestean begiratzeko diolarik (Meeus & Gulink, 2008). Muturretan, ertz garbi bat dagoela diotenak (oso barneratua dugun sinistea, hau) eta ertz baina paisaia ezberdindu bat nabarmentzen dutenen ulerkera beste aldean. Azken hau da ikuspeirik interesgarriena lan honentzako.

Praxiaren eremuan ere, hainbat eredu edo metafora erabiltzen dira hiri ertza kudeatzeko orduan, historian zehar errepikatzen direnak, batik bat lorategi hiriarena, edota gerriko berdeen kontzeptuak dira (Schumacher et al., 2004; Thomas, 1990). Berritzaileagoak eta erradikalagoak direnak ere badira, esaterako kontzientzia sozial eta ekologiko nabarmena duen nekazaritza peri-urbanoarena, edota *landscape urbanism* (Waldheim, 2010) programa etiko eta estetikoarena. Biek ala biek onartzen dute hiri bazterrerako, baita hirigunerako ere natura kulturizatu bat, edo gizakiak kudeatzen duen sistema ekologiko bat.

Hiri-Ertzaren detekziorako eta identifikazio formalerako deman edo tematzean ez da barneratuko tesi hau, izan ere, onartzen da hiria zein hiri-ertza hainbat adierazleez osatua dagoela eta hiria edo hiritartzearen hedapena eman dela. Kontsentsuari alde egiten dion definizio bat da hiri-ertzarena munduaren eta toki konkretuaren eskalen artean existitzen diren sare eta lotura materialen nahiz kulturalen eraginez. Aipatu diren adiera anitzen kasuistika zabalak, historian zehar aldatu den hiriaren erakusgarriak direnak, hiri-ertzaren aniztasuna adierazi baino ez du egiten. Hiria zein hiri-ertza modu bakarrean neurtzea ezinezkoa denez (Romera, 2012), hura non bukatzen den epaitzea ere zail egiten da (Gandy, 2012).

Atal osoan zehar, Henri LEfebvreren teoriak behin eta berriro azaldu dira. Hiria osatzen duten geruza anitzak azaltzeko, Globala, Mediatzailea eta Pribatua, baita hiriaren hedapena azaltzen duten hainbat ideia ere: %100 hiritartze ardatza, inplosio-explosio prozedura, *tissu urbain* [sareta urbanoa] edo *urbanisation planetaire*-aren ideia. Hiriaren izaera konkretuaren eta era berean, izarea barreiatu eta hedatuaren arteko dialektika azaltzeko paregabea den teoria erabilgarri gisa erabili dira berrikuspenean.

Tesi honetan, hiri ertzaren, hots nekazaritza-eremuaren eta eremu urbanoaren arteko ezberdintasuna gaindituztat emango da. Era berean, hiriaren lurralde eta mundu mailako hedapena ere, onartuztat emango da, ebidentzi gisa gizakiaren nonahiko eragina eta *jatorrizko* naturaren eraldaketa erabiliz. Ordea, paisaien arteko aldaketak eta trantsizio eremuak aldarrikatuko dira, kultura eta tokian tokiko baldintza geografikoen arteko harreman berezien eraginez sortzen direlako izaera bereziko tokiak, garapenak eta paisaiak; baita Hiri Bazterreko Paisaien kasu ezberdinak ere.

4.0 ATALA. Bazterraren aldirietako gaiak

Atal honetan, gai nagusiekin—paisaia, hiria eta hiri bazterreko paisaiarekin— zerikusia duten azpi-gaien inguruko eztabaida eta ikerketa lerro nagusiak aipatuko dira. Ikerketaren muina ez badira ere, beharrezkoak dira ikergaiaren mugak eta eragin eremuak zehazteko, baita tesiarekin egingo den ekarpenaren esparrua eta esanguratsutasunari neurria hartzeko ere. Azpi-gaiek jarraitzen dituzten ildo nagusiak, paisaiaren teoria eta praktikarekin zerikusia daukate, hots, paisaiaren kontzeptualizazioarekin eta horren arabera osatzen diren praktika eta interbentzioen arteko loturarekin. Beraz, paisaia kulturala, paisaiaren ekologia, paisaia eta natura, eta mendiko paisaia bezalako gaiak landuko dira.

4.1 Paisaia kulturalaren berrikuspena

Paisaia kulturala bi esparru nagusietan lantzen da; batetik kontserbazio kategoria bezala instituzio kultural eta nazioartekoetan, edota akademia giroan ikergai gisa (Jones, 2003). Akademian, *Kulturlandschaft* hitza lehenekoz Friedrich Ratzelek erabili zuen 1895-96an, eta oso erabilia izan zen geografo alemaniarren artean 20. mende hasieran (Jones, 2003; Sabaté, 2008).

1925ean, Carl O. Sauer geografo amerikarrak ingelesera itzuli zuen adiera alemaniarra (Jones, 2003), eta handik aurrera, Berkeleyko paisajismo eskolaren bitartez lan oparoa garatu zuten. Ekarpene nagusia kultura-paisaia modu inдукtiboa analizatzeko metodoa garatu izana da, datuak, mapa zaharrak, bidaiarien kontakizunak, lurzoru jabego tituluak, inkestak etab. jasoaz eta aztertuz. Metodoaren bidez, lurralde historiko konkretuen eta tokian tokiko paisaiaren ulermena eta balioztapena lortzea zen helburua (Jones, 2003). Tradizionala izendatzen den eskola honek garrantzia ematen zion azterketa morfologikoari eta kultura eta naturaren arteko harremanari (Aitchison, 1995). Esaterako, Kultura paisaia historiko batek honako elementuak izan ditzake: zelaia, iturria, dikea, trenbidea, drainatze-erretena edo ubidea, muga-zuhaitza, muga-horma, larrea, elizako zelaia, elizarako bidea, fruta arbolen basoa, baratza, parkea, posta-bidea, errepeidea, landare hesia, harrobia, erromeria zelaia, terrazak, belardiak etab.

Alemanian, Bavarian esaterako, Paisaia Kulturalaren elementuen eskuliburua ere argitaratua dauka Ingurumen Sailak. Labur esanda, elementuak hurrengo sailetan biltzen dira: asentamenduak eta eraikuntzak (herrixkak, kaleak, errotrak), nekazaritza eta basogintza, ekonomia jarduerak (meatzeak, errotrak), ohiturak, eta aisialdia.

Beste eskola garrantzitsu bat Frantziakoa da, Paul Vidal de la Blanche buru duena, eta

herri [Pays], lurralde [region] kontzeptuak erabiltzen ditu kulturaren sinonimo gisa (Aitchison, 1995) paisaia kultural baten mugak eta eragin eremuak izendatzeko. Esan daiteke, honekin lotura duela Augustine Berqueren (2011) lanak, aldaera txiki bat gehituaz. Bere *mesologies* teoria edo irizpide sortaren arabera, gizakia eta naturaren arteko harremana ezin da bereizitako bi elementu bailiran aztertu. Teoria japoniarrak oinarri hartuaz, Berquek (2011), gizakia eta ingurumenaren arteko harreman erreflexibo bat ezartzen du: bata besteari eragiten dionez, bereizi ezinak diren banakotasun bat osatzen dutela; *milieu* delakoa [erdigunea edo ingurunea] (Berque, 2011). Berqueren lan honek hainbat ondorio aurreratzen ditu: natura eta kulturaren arteko ezberdintasunaren garrantzi eza adibidez. *Milieu* bat, paisaia kultural zehatz baten berdintsua dela esan daiteke⁹.

Sauerrekin harreman handia izan zuen John Brinckerhoff Jacksonek, azken honek bere lana paisaia kulturalen, edota paisaia herrikoi/arrunt garaikideen inguruan jorratu zuelarik. Europakoaren hain ezberdina zen paisaia kultural amerikar herrikoia edo arruntaren [vernacular] aldarrikapena egitea zuen helburu. Nahiz europar paisaia-erreferentziekin zerikusirik ez izan, bertakoak ziren elementu bereizgarriez osatutako biziguneetako paisaiaren ezaugarriak aztertu eta bildu zituen; beste batzuen artean, larre eta zelai zabalak, baserri sakabanatuak, eraikin neoklasikodun udaletxe plaza zuten herriguneak, *main streetak* [kale nagusia] egituratzen zituen herriak (Jackson, 1997, 2010). Hiri edo herriko eskala txikiaz gain, *Public Land Survey System*—Jefferson presidente ilustratuaren proposamena, jatorrian—edo herrialdea antolatzen zuen sare erraldoi arrazional bezain ortogonalaren ere paisaia kultural bernakulo gisa onartu zuen Jacksonek (1997; 2010).

Paisaia ulertzeko erabiltzen zuen oinarrizko unitatea, arestian esan bezala, etxebizitza zen. Hala, baserriez gain, karabana etxe mugikorrez osatutako herri iragankorrak ere, ipar amerikar kultura-paisaia bernakulo eta benetakoak zirela esatera eraman zuen (Jackson, 2010) Eguneroko paisaietako, itxuraz arruntak eta generikoak diruditen herrietako eta auzoetako historiak, ohiturak, eta esperientzia sentsualak bilduz haien balioaz ohartarazteko ariketetan saiatu zen bere ikasleekin eta argitaratutako idatzietan. *Landscape* aldizkariaren zuzendaritzatik eta bertan argitaratutako lanen bidez zabaldu zuen bere pentsaera eta ikerketa Jacksonek

Jacksonen ekarpenaren karkoa honela labur daiteke: berezko historiari begiratzea, paisaia erreferentzia ustez kultuak alboratzea, eta garaikideak diren elementuez osatutako paisaiak onartzea. Horretarako, JB Jacksonek hiru paisaia mota sailkatu zituen, 1.goa, 2.a eta 3.a (Jackson, 2010). Lehengo paisaia da erdi arokoa, 2. Paisaia Berpizkundeko ideia arrazionalak eragindako estatu eta administrazioak antolatutako lurraldeetako. 3.a berriz, Ameriketako paisaia bernakulo garaikideari esaten zion. 1.go eta 2. Paisaia horiek dira kultura-paisaiaren izendapena lortzen dituztenak normalean, beste modu batera esanda, elitezko paisaiak

⁹ Berqueren testu hau ingelesezko bertsiotan ez dago jada eskuragarri bere web-orrian <http://ecoumene.blogspot.com.es/>

(Aitchison, 1995) edo paisaia arketipikoak (Nogué, 2010).

Sauer, eta Jacksonen lanak oinarri hartuaz, Sabaté (2008) definizio bat botatzen du: paisai kulturala gertakizun bati, jarduera bati edo pertsonaia historiko bati lotzen zaion eremu geografikoa da, balio estetiko eta kulturalak barne hartzen dituena. Edo bestela esanda, kultura-paisaia, lurraren gainean lanak eta langile ezezagunek uzten dituzten aztarna dela (Sabaté, 2008), edo “energia paisaiak”¹⁰.

1990. hamarkadan, paisaia kulturala, kontserbazio kategoria bezala onartu zen bi instituzioetan (Jones, 2003) Jackson eta Sauer /Berkeleyko eskolaren lanen ekarpenak jasoaz (Sabaté, 2008). Batetik UNESCOk 1992an paisaia kulturalak Munduko Ondare Hitzarmenaren arabera neurriekin babestea erabaki zuen. Bestetik, Europar Kontseiluak paisaia kulturalak modu barneratzailean mantentzeko akordioa hartu zuten, paisaia politikaren barnean hartuaz.

UNESCOk ezartzen duenez, paisaia kulturalak hiru motatan sailkatu daitezke: berariaz gizakiak sortu edo diseinatu, eta argi zehaztua den paisaia; hala nola, parkeak, lorategiak edota monumentuekin lotuta dauden eta estetika arrazoiak direla eta eraiki diren tokiak. Bigarren, modu organikoan garatu den paisaia aipatzen da; hots, baldintza sozial, ekonomiko, administratibo edo/eta erlijiosoak direla eta, ingurumenarekiko lotura dela eta garatu diren paisaiak. Hauek, bi azpisailtan banatu daitezke: batetik, erlikia edo fosila, zeinak garatzeari utzi zion, baina aztarna material nabarien bidez gorpuzten dena, eta, bestetik, jarraipena izan duen paisaia eta gainera gizartearen izaera aktiboaren bitartez bizimodu tradizionalari nolabait lotua eta garabidean den paisaia. Azken honek, denboraren eragina jasan du eta nabaria da forma eta materialetan. Hirugarren mota, kultura-paisaia asoziatiboa edo elkarkorra da; hots, aztarna material nabaririk ez duen, baina lotura erlijioso, kultural eta artistikoak dituelako paisaia kulturalaren izaera justifikatzen zaion tokia (Aitchison, 1995).

UNESCOren ondare izendapen irizpideen artean, agian betekizun garrantzitsuenetakoa edota oinarritzkoena, autentikotasuna, egiazkotasuna edo jatortasuna da. 1994an Nara-n (Japonia) ospatu zen konferentziaren ondorioz nazioarteko hainbat ordezkari sinatu zuten Autentikotasunaren Narako Dokumentua. Bertan, ondare kulturalaren izendapena lortzeko funtsezkoa den irizpide honen aldaera garrantzitsu batzuk onartu ziren, 1962ko Veneziako Karta aldatuko zuena. Azken honek ezartzen zuen ondarea jatorrizko elementuekin berreraiki daitekeela soilik. Japonian ordea, ohituraz, ondarea berreraiki egin izan da betidanik. Hortaz, Narako dokumentuak ezarri zuen, arrakasta handiz, benetakotasuna, tokian toki aldatzen den kontzeptua dela. Hortaz, ondarea elementuen jatortasuna irizpide unibertsalen bidez soilik ez, eta bertako kulturaren arabera irizpideen bidez ere neurtu beharra dagoela dio Narako Dokumentuak. Benetakotasuna neurtzeko ere, dokumentuak aintzat hartzen dira,

¹⁰ Antzeko formulazioa entzun zaio Sören Schöbel Katedradunari 2012-2013 artean TUM LAREGen egoitzan, Fresing-en (Alemania) egindako seminarioetan.

ondarearen historia eta jatorria zehazten lagun dezaketelako.

Europar esparruan, herrialde bakoitzak bere irizpide propioa izan du paisaiaren izaera ezberdinak sailkatu eta mapeatzeko, normalean, adierazle biofisikoak eta lurzoru erabilerak aintzat hartuta. Ezberdintasunak paisaia unitateen eta ikerketa eremuen tamaina eta xehetasun mailaren eskala dira. Europan saiakera egin da irizpide komunaren arabera egindako mapa eta sailkatze berri bat aurkeztu zen katalogo bateratu bat argitaratuaz (Wascher, 2005). Akademiara bueltatuz, 1960tik aurrera, paisaia kulturala, ingurumenaren arlotik landu izan da geroz eta gehiago (Jones, 2003). Horren adierazgarriak dira azken urteetan arkeobotanikaren eta paleobotanikaren esparru zehatzetik egin diren hainbat ekarpen ugariak; artikulu hauetan paisaia kulturala gizakiaren eraginpean eraldatu den edozein eremu izendatzeko erabiltzen da. Antzinaroko lurralde-aldaketak eta -eraldaketak neurtzen saiatzen dira, gehienak, polen fosilak erabiliz (Fletcher & Thomas, 2010; Mercuri et al., 2012; Overland & Hjelle, 2009; Sadori, Mercuri, & Mariotti Lippi, 2010). Beste ildo bat, industria ondarea eta paisaia kulturala lotzen dituen da, paisaia industrial (Trinder, 1982) edota postindustrial landuaz (Höfer, 1998; Kirkwood, 2003). Euskal Herriaren kasuan, izan duen iragan idustrial indartsu eta esanguratsuagatik, baita horrek lurraldean eragin dituen eraldaketengatik ere, paisaia industrialaren inguruan hainbat ikerketa eta hausnarketa eman dira eta elementu nahiz lurralde horien izaera paisajistikoaren aldarrikapena ere jorratu da (Juaristi, 2011, 2012; Puertas & Iruretagoiena, 2013; I. Uriarte, 2013).

Aipagarria den beste ideia bat, Michael Jonesek (2003) aurreratua da, alegia, paisaia kulturala kontzeptuaren erabilera okerra. Honen kausa hurrengo dela dio; nahiz balio komunak izan dituzten, akademia munduan modu berezian lan egiten zuten diskurtsoek bakarra bailiran bat egin dutelako politikaren esparruan. Hala, nekazarien, natura babesaren, ondare kulturalaren eta plangintzaren interesak diskurtso berdin batek ordezkatzeko dituzten paisaia kulturalaren politikaren esparruan, nahiz interesak oso ezberdinak izan (Jones, 2003)

4.2 Paisaia eta Natura

Paisaia eta natura elkarlotzen dituzten bi ikerketa lerro edo eztabaida eremu landuko dira ondoren; batetik, natura eta kulturaren arteko mugaren ezabatzea suposatzen duen Antropozenoaren paradigmapean barneratu daitezkeen hurbilketak. Bestetik, paisaia-ekologiaren esparru arrakastatsua, zeinak paisaiaren irakurketak hura sistema ekologiko batekin parekatzen duen.

Paisaia naturak ordezkatzeko du hainbat diziplinaren begietan; paisaiaren ekologian, edo geografian fisikoan, esaterako. Ezaugarri paisajistikoak, gizakiaren edo artifizialak ez diren elementuek osatzen dituztela esaten dutenen ikuspegia da zehazki adierazten dena. Paisaia naturaren parekidea baldin bada, baina era berean, paisaia gizakirik gabe ez bada existitzen,

kontraesana gertatzen da. Hots, abiapuntu horren arabera gizakiak eraldatu duen lurralde zati artifiziala “ez-paisaia” beharko luke izan. Ordea, natura eta artifizioa bereiztea zaila da, batik bat, gizakiaren eragin esparrua horren zabaldua dagoen garaiotan (Brenner & Schmid, 2011). Natura eta paisaia nahastearen ikuspegia, berriki ezarria den moda edo joera ekologisten ondorio erratu bat baino ez omen da (Roger, 2007). Zenbat eta hiri hedapena handiagoa izan, industriaren eragina nabarmenagoa izan, orduan eta miresmen handiagoa sorrarazten baitu izadiak (Lefebvre, 2003) eta hiriaren kontrakoa bilakatzen da, *bestea*.

4.2.1 Antropozenoaren paradigmaren eraginak

Egun, natura eta artifizioaren arteko mugaren desagertzea adierazten duen kontzeptua geologiaren esparrutik dator; Antropozenoa. Honek garai geologiko bat adierazten du, zeina gizakiaren eraginez sortutako eraldaketa klimatiko eta geologikoen frogak erabiliz hura definitzen den (Zalasiewicz et al., 2008). Oraindik orain, modu informalean erabiltzen bada ere, oso hedatua dago ez soilik geologia estratigrafikoan, baita arkitekturan edo artean ere (Ellsworth, Kruse, & Beatty, 2013) ikerketa eta espekulaziorako esparru intelektual zabal eta anitz bat eragiten duelarik. Paisaiagintzan ere, natura eta kulturaren arteko kontzeptu berrien formulaziorako paradigma teoriko gisa erabilgarria suertatu da (Prominski, 2014).

Antropozenoaren existentzia, eta hortaz, gizakiak eragindako edo gizakiaren parte-hartzea nabaria eta eraginkorra dela frogatzeko hainbat ebidentzia daude. Hala nola lurzoru erabileren, ozeanoen eta klimaren kimika aldaketa joera bizkorrak, ozeanoaren berotzea, maila igotzea eta azidifikazioa, ekosistemen baitako aldaketak (Ellis) edota hiri garapenen eragina estratigrafian, hots gizakiak litosferako maila mota berri bat sortzeko duen ahalmena aipatzen dira (Zalasiewicz, Williams, Haywood, & Ellis, 2011).¹¹

Geologia bakarrik ez, eta eragin nabarmena izan du gizakiak landarediaren garapen eta zabalpenean. Adibide zaharrenak izango lirateke kolonizazio prozesuekin batera etorri ziren merkataritza harremanen ondorioz Europan sartutako jaki berriak: tomatea, babarruna, patata, kakaoa, kafea, besteak beste. Edota, 18. eta 19. mendean botanikariek eta esploratzaile ilustratu ezagunen eraginez espezie exotikoekiko sortu zen erakarpena eta joera. Hauen jatorriko baldintza klimatologikoak errepikatuzko negutegiak eraiki ziren garai

11 Denak hemen: Zalasiewicz, Jan, Mark Williams, Alan Haywood, y Michael Ellis. 2011. «The Anthropocene: A New Epoch of Geological Time?» Philosophical Transactions of the Royal Society A: Mathematical, Physical and Engineering Sciences 369 (1938): 835-41. doi:10.1098/rsta.2010.0339.

victoriarrean, esaterako (D. E. Cosgrove, 1998). Horietako hainbat espezie jatorrizkoak ez diren eremuetan bertakotu egin ziren, bereziki etekin ekonomikoa sortzen zuten horiek—basogintza eta janari industriarekin lotura dutenak. Mozkinaz gain, bertakoratu ziren hainbat espezie estetika (lorategiak) eta aisialdiarekin (tabakoa) zuten lotura zela eta baimendu eta sustatu zen haien erabilera eta zabalera.

Landarediaren garapen prozesu antropikoez ari garela, David Gissenek (2009), arkitekturarekin zerikusia duten eta usu aipatzen ez diren azpi-naturak aztertu zituen. Egileak, emaitza negatiboak edo kulturalki desatseginak eragiten dituen harreman arkitektoniko bioklimatikoak jorratu zituen. Hots, erakinen eta naturaren arteko harremanaren alderdi ez hain abegikorra lantzea helburu zuen ikerketa burutu zuen. Konforta edota egunerokotasuna nolabait zapuzten duten prozesu eta fenomeno naturalen eta eraikitako espazioaren arteko interakzio-adibideak bildu zituen liburuan, besteak beste: etxe barneko umeltasuna, intsektuak, poluzioa, hautsa, putzuak, eraikin hondakinak etab. aipatuz. Arkitektura bioklimatikoak eta irizpide jasangarriek agintzen duten harreman harmoniko horri kritika egiten dioten eredu artistiko eta arkitektonikoen bilketa bat eginez, naturalak eta autonomoak, baina, aldi berean gizakiak ahalbidetzen dituen prozesuen existentziaz ohartarazten saiatzen da Gissen (2009). Aldi berean, natura horiek azpi-natura izendatuaz, natura kontzeptuaren izaera *eraikia* ere azpimarratzen du (Gissen, 2009) Tartean, ‘belar txarrei’ atal bat eskaini zien esanez balorazio hori etekin ekonomikoaren falta baten ondorio dela, hots, gizarte konstrukzio baten ondorioa. Alegia, belar txarrek mozkinik ematen ez dutenez, eta mozkina ematen duten landareekin lehiakorrak direnez, hauek arbuiatu egin izan dituela gizakiak (Gissen, 2009). ‘Belar txar’ kontzeptua ‘belar onaren’ aurkako kontzeptu kulturalki eraikia da. Alabaina, landare honek eragiten dituen kalteen balorazioa ikerketa honetatik kanpo geratzen da. Hala ere, interesgarria da oso nola naturalak eta bizidunak diren elementuen balorazio kultural ezberdinak osatzen diren denboran zehar.

Esaterako, EAEko kasuan hain ezagun bilakatu den *Cortaderia selloana* edo Panpako Luma espezie aloktono edo inbaditzaileen kasua dugu. Honen hedapena Euskal Herriko kostaldean Lapurditik hasi eta Kantabriaraino zabaltzen da, eta dirutza handia ari da hura desagerrarazteko ahaleginetan inbertitzen, edo xahutzen (Herrera Gallastegui, 2006). Hasierako estimua, egun, gorrotoak ordezkatu du pertzepzio eta irudikapen kultural baten eraldaketa dela medio¹². Kasu honen esanguratsutasuna hura zabaltzerakoan gizakiak izan duen eraginak indartua da: hasieran lorategietan apaingarri gisa, eta ondoren, lasterbideak egiteko moztutako eta eraldatutako lurzoruetan modu autonomoan kokatu zen, eta autoek sortzen zituzten haize zirimolen bidez hazia barreiatu eta garraiatu egin zen (Herrera Gallastegui, 2006) egun utzita dauden eta jorratzen ez diren hainbat lursail eta eremuetan ezarri arte. Apaingarri izatetik,

12 Hainbat berri daude horren inguruan; esaterako “Berandu izan daiteke” (Brea, 2009) eta “Coto al plumero de la pampa” (Sánchez, 2011).

arazo izatera nola iritsi den ulertzeko, estetika, paisaia eta lurralde-ulerkera moduen eraldaketa eta interakzioak aztertu beharko lirateke.

Berriki, Clementek (2007)³. Paisaia [tiers paysage] kontzeptualizatu du—ez du zerikusirik J.B. Jacksonen 3. Paisaiarekin—giza jardueren agorpenak dakarren naturaren birjabetze prozesuak adierazteko. Horren arabera, espazio ruderalak edo nekazaritza lur ohiak, aitzindariak diren landareen kolonizatzen dituzte aurrena, lurra nolabait onduz ondoren etorriko diren beste espezie ahulagoen ezartzea erraztuz (Clément, 2007). Prozesu natural hauek, lurzoru eraldatu eta artifizialetan gertatzen dira, giza-utzikeriaren eta naturalizazio autonomoaren arteko konbinazioaren eraginez “kulturala” ez den, eta “naturala” ez den paisaia hibrido bat osatuz.

Artifizialtasuna eta naturaren arteko loturaren jarraitasuna dudatan jartzea zaila egiten da gaur, gizakiaren izate naturala ere eraldatu delako. Teoria post-humanismoaren eta feminismoaren teoriak, izaki hibridoak kontsideratzen dituzte gizaki-zuri-mendebaldekoaren karira egindako mundu-ereduaren ordezkio ulerkera eta ontologia berriak osatu ahal izateko (Braidotti, 2006).

Horrenbestez, esan daiteke, naturaren kontzeptua historian zehar aldatu dela mendebaldean. Adibidez, naturaren kontzeptua “basatia” edo autonomoa izatearekin alderatu izan da. Alderaketa horren analisi kritiko bat egin ahal izateko, hainbat adiera eta eredu bildu eta tipologizazio prozesua biltzen duen ikerketaren arabera, natura basatiak ez ditu ezaugarri biofisikoak adierazten, kulturalki erabakitako esanahi batzuk baizik (Kirchhoff & Vicenzotti, 2014). Hortaz, natura adiera bakar eta homogeen batean laburbiltzeak ideologia konkretu eta ikuspegi hertsia baten eragina suposatzen du (Kirchhoff & Vicenzotti, 2014).

Europar eta mendebaldean, orokorrean, natura basatia edo modu autonomoan garatzen dena, kulturari kontrajartzen zaion kontzeptu edo ideia bat da. Batzuen ustez filosofia aristotelikoaren eraginez osatua da eta ikuspegi horren arabera, objektu bat, eta bere kontrakoa dena ezin dira kontzeptu bakar eta berberean barneratu (Berque, 2011; Prominski, 2014), Japonen ordea, naturaren eta gizartearen arteko ezberdintasuna non kokatzen den jakitea zaila da, biek bat egiten dutenaren sinismena oso errotua baitago. Hiru faktore nagusiren eragina aipatzen da hori azaltzeko (Prominski, 2014): animismo edo budismoaren Shinto aldaera (Kieninger & Holzner, 2011; Prominski, 2014), arte tradizionalaren ikuspegia eta adierazpideak (Prominski, 2014), eta *satoyama*¹³ kontzeptua edota paisaia kultural japoniarraren paradigma (Kieninger & Holzner, 2011; Prominski, 2014).

¹³ Paisaia kultural hau banbu basoek, baserriek eta arroz-zelaiek osatzen dute. Sinbisoi estu bat osatzen da gizaki eta naguraren artean, izan ere, gizakiak eskosistemari irauten laguntzen dio.

Europar, gizakiak eragiten dituen egoerak naturarengan okertzat jotzen dira, izan ere, natura pastoralismoz edota egoera basati ideal baten eraginez ulertzen baita; hots, gizakiaren eraginik ez duen toki bat bezala edo balio moral egokien eremu ideal gisa (Kieninger & Holzner, 2011).

Japoniar filosofo eta biologo garaikideen lanak bi kontzeptu eragin ditu natura eta kultura kontzeptu berean barne hartzen dituen (Prominski, 2014); batetik Imanishi biologoaren ikuspegian ingurumena eta gizakia harreman sistema barneratzaile batek egituratzen ditu, bizidun oro barne hartzen dituen osotasun orokor batean. Bestetik, Watsujiren *fudo* kontzeptua dago, Berquek *milieu* gisa itzultzen duena (Berque, 2011) eta izaki eta objektuen arteko elkarbizitza egituratu bat definitzen duena (Prominski, 2014). Gizakien, izakien eta natura objektuen arteko harreman sistema da ekarpen garrantzitsuena natura-kultura, A eta ez-A kontzeptu barneratzaile eta unitarioa adierazteko (Berque, 2011).

Prominskik (2014) ideia japoniarrak erabiliaz, Antropozenoaren paradigmarako erabilgarria izango den paisaiagintzarako adiera bat proposatzen du. Kandinskyren saiakera batzuetan inspirazio hartuaz, *Andscape*, edo “baita-paisaiak”, modu unitarioan izaki, gizaki, eta naturako beste elementu guztien arteko harremanak aintzat hartzen dituen paisaia eredu proposatzen du (Prominski, 2014). Natura eta kultura ezberdinu beharrean, ingelesez *either-or* [edo...edo...] izenaz ezagutzen den dialektikaren ordeztan, *and* edo *und* [eta] kontzeptu barneratzaile eta unitarioa dago oinarrian; hots, naturala eta artifiziala/kulturala barne hartzen duen kontzeptu nahasia.

Post-humanismoaren ikuspegitik begiratuta, esparru artifiziala eta natural isolagarrien ordeztan, tarteko egoera hibrido bat onartzera eramaten gaitu “and” edo “eta” printzipio barneratzailea erabiliz. Uste hau, lurraldean aplikatuz gero, zehazki paisaiaren esparruan, paisaia gizarteratuen onarpena bakarrik ez, eta eremu hauen izate natural eta kulturalaren nahasketa hibridoa kontsideratzera eramaten gaitu.

Antropozeno paradigman baitan, inoiz baino argiago egon daiteke, gizakiak naturari eragiten diola, hura modu kontzeptual eta fisikoan eraikiaz. Eta, era berean, gizakia naturaren parte dela onartzuz, hura eraldatzeak eta kaltetzeak guregan duen eragina ere onartu egiten da. Naturaren kontzeptualizazioarengan gizarteak eta konbentzio kulturek duten eraginaren korapiloa askatuz gero, espezie egokien eta ez-egokien arteko bereizketak azaleratuko dira, hots, natura produktibo eta ez-produktiboaren artekoak. Horrezaz gain, naturarengan, eta jarraian paisaiarengan ezartzen diren aldaera politiko-ideologikoak ere topatu daitezke; paisaia batzuen onurak onartzen eta besteenak alboratzen dituztenak.

4.2.2 Paisaia-ekologiaren ekarpenak

Natura kulturizatua, edo natura eta kultura elkarlotzen dituen paradigma teoriko eta ereduaren ondoren, naturaren ikuspegi objektiboago bat darabilen diziplina landuko da. Diziplina honek ekologiaren ikuspegitik analizatzen du paisaia, eta zerikusi zuzena du paisaia naturarekin identifikatzen duen joerarekin. Hartara, paisaia elementu, egitura, muga, hito, prozesu kuantifikagarri eta objektiboek osatzen dute; beste era batera esanda, paisaiaren metrika unitateak dira, hots, neurgai diren osagaiak. Ingurumena neurtzeko metodoen bilduma zabala bezain lagungarria egiten du Fariñak (1998).

Neurtzeko prozesu horretan, sistema ohikoena urrutitik egiten den, edo *remote-detection* delako GIS (Geografia Informazio Sistema) metodoen bidezko mapatzea da. Mapeatzea horretan, paisaiaren metrika elementuak identifikatzen dira hein batean elementu topografikoak direnak; hots kokapen geografikoaren eta izaerarekin zerikusia dutenak: paisaia fisikoaren unitateak edo elementu geografikoak (malda eta *aspektua* edo eguzkiarekiko kokapena) eta paisaiaren unitate ekologikoak (petatxuak, korridoreak eta matrizeak). Bi elementu horien nahasketa eta konbinaketak, paisaia egiturak sortzen dituzte: sareak, mosaikoak eta lurraldeak edo erregioak, alegia (Huggett & Cheesman, 2002).

Sareek bertize eta ertzak elkarlotzen dituzte, eta hasieran, amaieran nahiz tartean petatxu edo orbanak aurkitzen dira. Sareak korridore motakoak dira, edo arbola formakoak baita zirkuitu itxi erakoak ere. Mosaiko eta erregioak berriz, elementu geografikoen mosaikoak, elementu geografikoen karakterizatutako erregioak edota paisaia erregioak edo mosaiko motakoak izan daitezke. Azken hauek orban, korridore eta matrize ezberdinen konbinaketa berezituak dira. Paisaia mosaikoak handiak, txikiak, dendritikoak, lerrozuzenak, xake taula edo sartu-irteeradunak motakoak dira (Huggett & Cheesman, 2002).

Sare, mosaiko eta erregioen dentsitatea, maiztasuna, ordena, barneratze maila eta irisgarritasuna neurtu ohi dira paisaia bat ebaluatzeko. Horrez gain, elementu guztien arteko loturak ere kontuan hartzen dira maila lokalean, zein lurraldekoan edo mundu mailakoan ere. Lotura horien oinarrian energia, materia, haziak, espora eta pertsonen jarioak daude (Huggett & Cheesman, 2002).

Paisaia Ekologiaren analisisen praxi eta aplikazio eremu nagusia Lurralde Antolamendua da; hots, lurralde politikak garatzeko maiz erabiltzen dira Paisaia Ekologiaren bitartez ezarri daitezkeen toki estrategikoak, babesgarriak, zaurgarriak, eta orokorrean eremu baten harrera ahalmenaren ebaluazioak. Metodo honen aurrekaria izan zen Ian Mcharg (1920-2001) geografo ekologoa edo paisajista ekologoa, lurralde bat aztertzeko oinarritzakoak ziren lurralde eta ekologia elementu guztiak geruzatan sailkatuz eta mapeatuz. Mapok gainjarri egiten zituen eremu dentsuagoak edo arinagoak adierazteko. Horrela, jardueren arabera

harrera-ahalmena kalkulatu zen, tokian tokiko lurzoru erabilerak lektzeko metodoa doituaz (McHarg, 2000).

Egun, Paisaia Ekologiarekin lotura zuzena duten kontzeptu eta aplikazioak hurrengoak dira: Azpiegitura berdeak edo Paisaia azpiegiturak, Paisaia multifuntzionalak eta Ekosistema Zerbitzuak. Oinarrian, paisaia unitateak eta loturak aintzat hartzen dituzten plangintza tresna bihurtzeko asmoak dira, funtsean, sistema eta prozesu ekologikoak oinarri dituztenak. Beraien arteko lotura oso estua da ikusiko dugunez.

Hasteko, Azpiegitura berde edo paisaia azpiegiturei dagokionez, esan dezakegu hauek direla agian eredu zaharrenetakoak: eraztun berdeak, ziri [cuña] berdeak, parke sistema edo metropoli/lurralde mailako parkeak, parke nazionalak etab. (Corner, 2006).

Azpiegitura direnez gero, zerbitzu bat betetzen dute: airearen berriztapena, uraren iragazpena, bioaniztasunaren mantenua eta abar. Tokian tokiko ekosistemekin elkarlanean funtzionatzen duten eta diseinatuta dauden eremuak izan daitezke, edo horretarako berreskuratutako eremu “naturalak”.

Egun, paisaia-makina [landscape machine] (Roncken, Stremke, & Paulissen, 2011) edo energia-paisaia (Stremke & Dobbeltstein, 2012) bezalako adierak ere zabaldu egin dira, energia subiranotasunak suposatzen duen erronkari eta etorkizun jasangarrien plangintzarako eraginkorrak izan daitezkeen aterabideak proposatzeko.

Paisaia multifuntzionalari dagokionez, kontzeptu honek paisaia monofuntzionalen, edo plangintza modernoaren kontrako kontzeptua proposatzen du. *Multi-* izaerak, lursail berean, helburu bat baino gehiago, aldi berean eta denboran zehar aurreikusten ditu. Lurzoru ezberdinen arteko integrazioa edo barneratzea eta elkarlotura proposatzen du. Eta, azkenik, funtzio ezberdineko partzela ezberdinen arteko konbinazioa du helburu (Selman, 2009). Ikuspegi dialektiko baten arabera, honela kontrajarriko lirakeke plangintza monofuntzionala (plangintza modernoaren ondorioa) eta proposamen multifuntzionalak:

7 Taula Lurralde Multi eta Mono –funtzionalen arteko ezberdintasunak (Selman, 2009)

Multi	Mono
Integrazioa	Segregazioa
Konektatua	Isolatua
Ikuspegi sektorialaz har- ratago	Sektore boteret- suen nagusita- suna
Komunitatea	Jabetza pribatua
Gobernantza kooperatiboa	Interesdun boter- etsuak
Heterogeneitatea	Homogeneitatea
Sinergia: parteen batuketa baino gehiago	Zati ezberdinak
Iraunkorra*	Ez iraunkorra *
Dinamikoa	Estatikoa
Resilentzia	Zurruntasuna
Kontrolatu gabeko zoriaren eragineko funtzionamendua/ serendipia	Kategorizazio kontrolatua
Arriskua onargarria*	Arriskurik ez onartzea *

Dialektikak argi banatzen ditu bi aldeak, baina bien arteko konbinazioak ere eman daitezke, oinarrian funtzio aniztasuna, elkartzea eta konbinaketa ematen baldin badira (Selman, 2009).

Azkenik, kontzeptu berriena aipatuko da, Ekosistema-Zerbitzuena alegia, aurreko bien konbinaketa moduko bat bezala ere irudikatu daitekeena. Funtsean, eremu bateko ekosistemak gizakiari, baita ingurugiroari mesede egiteko duen ahalmena da ezaugarri nagusia. Kate baten moduan azaldu daiteke kontzeptua (Selman, 2009): ingurumena, egitura eta sistema ekologiko batzuek osatua da. Sistema horiek, funtzio batzuk betetzeko gaitasuna dute, eta hortaz zerbitzu bat eskaini diezaiokete gizakiari. Amaitzeko, zerbitzu horiei jendarteak balio kultural bat edo esanahi bat ematen die (Selman, 2009). Esaterako, demagun baso batek mendi malda baten lurzorua egonkortzeko betetzen duen funtzioa. Baso horrek gizakia materia organikoz hornitzeaz gain, herriak eta bideak luizietatik babesten ditu. Hortaz, gizakiak babes zerbitzu horri balio positibo bat atxikitzen dio eta basoa elementu preziatu gisa kontsideratuko du. Horrenbestez, Basoak babes eta aberastasuna sinbolizatzen ditu, ematen dituen zerbitzu horiek gizakiak baloratzen dituelako.

4.3 Mendi-Paisaiaren Eraikuntza

Geroago aurkeztuko den ikerketa kasuaren ezaugarri nagusienetako bat da mendia; Hiri-Bazterraren izaeraren eragile den euskarri geografikoa eta baldintzatzailea.. Horrexegatik hurrengo lerroetan mendi paisaiaren irakurketa historiko bat aurkeztuko da, ikuspegi sozio-kulturaletik tesiaren epistemologiarekin bat eginez.

Mendi paisaia, asmatutako beste paisaia bat da. Hots, kulturalki eraikia den beste paisaia bat gehiago da. Izan ere, industriaurreko gizarte feudal edo tradizioaletan, mendia toki antzu bezain beldurgarria zela esan daiteke, itsaso, basamortu edota glaziarrekin batera (Roger, 2007). Alegia, ez ziran lur emankorrak edota bizitzeko egokiak. Hori horrela, Rogerrek ezagututako baserritarrak esan bezala *mal pais*-ak ziren, eta ez landa, zelai eta larreak bezain *buen pais*. Honen adibide ezagunetako bat da Petrarca Mont Ventoux igotzen ari zela topatu zuen artzainaren erreakzioa. Hark Petrarca mendia arriskuez ohartarazi zion ez igotzeko gomendatuz. Petrarca kontsideratu dezakegu, mendia balioztatzeko, eta era berean, paisaia ikusmira atsegin gisa onartzeko lehen saiakeratakoa (Besse, 2010).

Espazio horri atxiki zitzaizkion gerora, mendizaleen bidetik baita moralista erromantikoen bitartez, paisaia izaera eta sinbolismo berezi bat: askatasuna, benetakotasuna, garbitasuna etab. Alpinismoaren zaletasunaren zabaltzarekin batera, 19. Mendeko gizarte industrializatuak mendia—Alpeak bereziki—menderatu zituzten, kartografiaren, zientziaren, artearen eta turismoaren laguntzarekin. Mendia paisaia bilakatzen da horrela, aisiaren bidez eta espazio hori ezagutzeko eta kontrolatzeko nahi baten ondorioz (Barthassat, 2012; D. E. Cosgrove, 1998; Roger, 2007)

19.mendeko industrializazio garaian, pentsamendu erromantikoa garatu zen, zeinak gizartearen funtsa baita naturaren izatearen eraldaketa bortitzak eta moral galerak salatzen zituzten. Erromantikoen ustez, gizartea industrializazioaren ondorioz artifizialdua zegoen, eta benetakotasuna naturan bilatu beharra zegoen galdutakoa berreskuratzeko (D. E. Cosgrove, 1998)Naturan, balio jainkotiarrek bilatzen zituzten; industriak natura eraldatu egiten zuen ekoizpen erabileren bidez, eta gizartearen ordena morala moldatu egin zen ordena ekonomiko berriaren bitartez. Hartara, ordena tradizional eta jainkotiarra gizakiak eraldatu gabeko inguruetan bilatzera ekin zioten. Hala, erromantikoek “ dibinitatea mendietan eta sermoiak harrietan bilatzen” zituzten (Cosgrove, 1998:232).

Cosgroven (1998) hitzetan pentsamendu horren eredu esanguratsua John Ruskin (1809-1900) artista eta pentsalari erromantiko ingelesa da. Gizakiak naturarekin, eta, paisiarekin kontaktuaren eta harremanaren baitan, “askatasun espirituala” lortzeko bidea ikusten zuen honek. Batik bat, natura basatiarekin kontaktuan jartzen baldin bazen. Txikitan Alpeetara eginiko bidaiek, betirako mendiekiko zirrara bat sorrarazi zioten, bertan Turnerren hasierako margolanen ereduak ezagutu egin ahal izan baitzituen. Ruskinen arabera, naturarekin lotura eta benetako kontaktua lortzeko, artearen hizkuntza subjektiboa eta zientziaren behaketa sakona konbinatu behar ziren; emozioak, baita forma eta egitateak, biak ala biak, nahastuta (Cosgrove, 1998). Naturarengan Ruskinek ikusten zuena, Cosgroven ustez, sinismen erlijiosoaren hizkuntzaren bitartez itzultzen zuen; natura behatuz, gizarte industrializatu alienatuak, egoki jarduten ikasiko zuen berriz (Cosgrove, 1998).

Erromantikoek 19. Mendeko interes kulturalen begiratokian kokatu zuten Paisaia, eta haietako bat izan ziren Suitzako Alpeak (Cosgrove,1998). Eredu horiek baina, asmatu egin ziren paisaia gisa, tradizioz toki madarikatu gisa ulertuak baitziren. Mendia, *pais horrible* edo *lurralde ikaragarria* zen, izua pizten zuen. Hainbat arrazoi existitzen omen ziren beldur eta nahigabe horren atzea: klima, antzutasuna, arriskua. Baina, baita erlijiozkoak ziren arrazoiak ere (Roger, 2007). Ilustrazio garairarte behintzat, oso gutxi barneratzen ziren mendietan plazer estetiko soilak bultzatuta. Aro horretatik aurrera, Henri de Saussure-n *Voyages dans les Alpes* (1779) liburuari, edota Alexander von Humboldt-ek Alpeetako geologiaren eta mineralogiaren inguruko idatziei esker, beldur erlijiosoak ezabatuz joan ziren, eta nolabait beldur kuantifikagarriak eta objektiboak soilik gaingitzea baino ez zegoen eta (Roger, 2007).

Beldurraren arrastoa jakin-minarekin nahasterakoan sublimea bezala ezagutzen den emozioa sortzen omen zen. Sublimearen nozioak hurrengo sentsazioak sortzen zituen: Natura basatira hurbildu eta gizakia hilkorra eta txikia zela sorkuntza jainkotiarren aurrean, beldur sakratua, goibeltasuna eta handitasuna, seriotasuna, infinituaren sentsazioa, asaldura (Cosgrove, 1998) edota higuinaren eta zirraren arteko nahasketa (Roger, 2007) modukoa sorrarazten ziren. Paisaia-arteak edo pintura paisajistik ezin zuen sentsazio hura irudikatu, tradizioz eszena arruntak eta egunerokoak irudikatzen baitzuten, eta gainera, sublimearen jatorri jainkotiaria zela eta, hau irudikatzea ezinezkoa zen (Cosgrove, 1998). Arteak, pinturak batik bat, porrot egin omen zuen sublimearen, batez ere mendietako paisaia sublimeen irudikapenean, eta ikusiko denez, grabatugintza eta gero, argazkigintza bilakatu zen mendiko irudikapenaren jaun eta jabe (Roger, 2007).

Natura basati eta hasarretuaren parean, txikitasuna eta beldurra sentitzen zen, mendi masa handien, itsaso zakarraren, edo ekaitzaren aurrean bezala. Sentsazio sublimeak, oinarrian izua zuen. Hori teorizatzen lan gehiena egin zuten ingelesek (Roger, 2007), Alpeetara egindako bidaietan: natura basati horiek deskubritzen eta ezagutzen hasi ziren, batik bat, indar geologikoen arrazoiak ikertu ahal izateko. Ekipo horietan, ingelesak bakarrik ez, eta suitzarrak ere baziren; normalean, kartografo, naturalista eta bertako mendi-gidari batek osatzen zuten espedizioa (Barthassat, 2012). Naturaren kontrola hartzen hasi ziren, geologiaren eta kartografiaren, hots zientziaren bitartez. Gainera, helburu zientifikoekin eta ez artistikoekin, grabatuak eta argazkiak ziren irudikapenak zabaltzeko medio nagusia. Alpinismoa jaio zen hortaz, mendiak deskubritu, esploratu, eta gero erakusteko (Barthassat, 2012). Zientziak eta mendizaletasunak, eskutik helduta konkistatu zituzten Alpeak (Roger, 2007).

Geologia jakintzak 19. Mendeko hainbat azpiegitura eta teknologia garapenei izugarritzko laguntza eskaini zion (Cosgrove, 1998). Kartografiak ere, lan hauei esker, aurrerapenak egin zituen: triangulazioa eta nibelazio teknika aurrerapenak suertatu zirelarik (Barthassat, 2012). Suitzako Talde Alpinoak 1863an gobernuari mendi mapa eguneratu eta hobeak egiteko eskatu zion, eta handik aurrera, mendi igoerak biderkatu egin omen ziren (Barthassat, 2012). Hortaz, Alpeak eta Pirinioak mapeatzeko hainbat saiakera egin ziren. Esaterako, Viollet-Le-Duc arkitekto frantziarrak Mont Blanc mapeatzeko egin zuen saiakera eta argitalpen zientifikoetan (1876), alpinismoaren bidez mendien inguruan jaso zuen ezagutza zabalaren adierazlea da, eta era berean, toki horien ezaugarriak modu arrazionalen komunikatzeko saiakera esanguratsuak dira. Honek, era berean, Pirinioetan barna egin zuen bidaiak 1833an, hango ikuspegi anitzen irudikapen piktorikoak ere eginez.

Mendia irisgarria, irudikagarria bilakatu zen, eta hortaz, paisaia bilakatu, Rogerren (2007) artealizazio bikoitzaren teoriari kasu egiten badiogu. Turismoak, ondoren, abagune horri heldu eta mendiari etekina ateratzeari ekin zion, hasieran osasuna hobetzen zuten bainuetxeen bidez; mendiko aire eta ur garbiak sendagai gisa salduz.

Hartara, mendietako irudiak turismoaren industriak bereganatuko zituen, eta turismoaren eskakizunei erantzuteko, azpiegitura egokiak ezarri egin behar ziren. Mendiarekin zerikusia zuten beste aisialdi jarduerak batzuk ere “asmatu” egin ziren, alpinismoaz beste, esaterako spa edo ur termalen aprobeixamendua eta osasun tratamendua, eskia, etab. Honi guztiari eusteko hotelak, termak eta garraio azpiegiturak eraiki egin behar izan ziren. Alpeak bakarrik ez, eta ezaugarri antzekoak zituzten mendi guztietara zabaltzen joan zen turismo mota hau (Laurent Tissot in (Zuelow, 2011).

Suitzako Alpe turismoak formulazio politiko berri bat ere ekarri zuen, hots, menditurismoaren bitartez Suitzak lortu zuela, askatasuna, bakea, demokrazia eta harmonia bezalako balioen sinbolo izatea. Poliki-poliki, lotura hori mendien bitartez irudikatzen zen nazio sentimendu bilakatu zen (Zuelow, 2011).

Mendiaren asmakuntzarekin eta ondoren etorri zen mendizaletasunaren garapenarekin eta zabaltzearekin, batzuen hitzetan, nahiko modu tremendistan edo kategorikoan esanda, eta gailurra jo ondoren, hots, “sublimearen ondoren, picnic-a” (Corboz, 2000). Hots, mendiak turismo eta erabilera masiboaren eraginez, banalizatu egin direla, eta *igandekarien* lurralde bilakatu, hain baitira irisgarriak eta prestatuak azpiegitura eta zerbitzu aldetik mendiok.

Mendi turismoak, hiritartasunaren zabalpenarekin zerikusia izan dezakeela esan daiteke, izan ere, hiri-ehuna eta balio hiritarrak, jatorrizko egoeran hiriarekin zerikusirik ez duen eremuetara garraiatzen dituzte *asteburulariek*, udatarrek edo, *negutiarrek* (eski garaia denean esaterako) (Corboz, 2000). Honekin lotuta, Suitza guztiz hiritartua irudikatzen duen

ikerlanean ere, mendialdeko hiritartasuna barne hartzen da, turismoaren menpe bizi diren eremuetan [Alpine Resorts] bakarrik ez, baita gainbeheran dauden mendi-eremuetan ere [Alpine Fallow lands] (Diener et al., 2005; Schmid, 2005). Tipologizazio horrek adierazten duen bezala mendialdearen hiritartasuna anitza da, baita beste eremu batzuekin alderatuta ere ezberdina (Schmid, 2005).

Mendi eremuak hiriaren barne edo hiritartuak kontsideratzen direnean, bi ideia nagusi topatzen dira: batetik, lurraldean zabaldu den hiri-sare edo eremu metropolitarraren parte bilakatzen denean, esaterako bigarren etxebizitzaren fenomeno eta aisialdirako espazio gisa komertzializatzen denean (Perlik, 2011). Bestetik, hiriaren hedapenak gertuko mendi maldetan lurzoru erabilerak eragiten dituenean, batik bat, nekazaritzaren kalterako. Jarduera landatzearen galera horiek, ekologikoki baliotsuagoak diren eremuak laborantzarako erabiliz kontsentsatzen dira, esaterako Perun (Haller, 2014). Bien oinarrian dago jatorrizko biztanle eta laborarien bizimoduaren eraldaketa bat, eta biztanle berrien eta jatorrizkoen arteko balio eta pertzepzio talka bat. Hots, mendi eremuaren balioen ulermen ezberdinen arteko lehia edo tentsioa. Lehenengoentzako lurzoruaren balioa biziraupenean datza, ordea, hiriko presioek mendiko lurra hiriaren zerbitzura jartzen du azpiegitura garapenean bidez (Haller, 2014) eta hiritarrak edo biztanle “multi lokalak” aisialdiaren bidez kontsumorako paisaiak sortzen ditu (Perlik, 2011). Talkak adierazten dituzten eredu hauez gain, zeintzuk izan daitezke mendi hiritartuak paisaia kulturalaren ikuspegitik analizatuz gero topatu daitezkeen formak? Eta paisaiaren irudikapenaren ikuspuntutik, zein geruza kontzeptual topatuko lirateke bertan?

Irakurketa etnografikoa aztertuz gero, jatorrizko komunitateen erabilera eta bizitza estiloak harreman ekologikoa zutela esango da mendiaren baldintzapean (Martínez, 1997). Era berean, bizimodu hark mendiarekiko eta orokorrean naturarekiko ulerkerak sinbolikoak ekarri zituen, zeinak eguneroko bizitzaren jardunarekin lotura zuzena zuten eta hau ere nolabait arautzen eta antolatzen zuten: animismoa, mitologia etab. Sineskera horiek, gerora maiz erlijioak bereganatu zituen.

Bestalde, mendi-paisaiaren inguruko ikerketak jorratzen duen gai nagusietako bat da mendi paisaiaren aldaketa. 21. Mendean jazo diren mendien baitako aldaketak klimatologikoak direla esatea ez omen da egokia, gizakiaren eraginez gertatzen direla esateko nahikoa ebidentzia badagoelako (Slaymaker, 2010). Adibidez, abeltzaintza jardueran eman diren aldaketek, zelaien biodibertsitatea eraldatu dute esnegintzarako teknikak industrializatzen diren heinean (Marini, Klimek, & Battisti, 2011), edota abeltzaintza larreen utzikeriak basotze naturalaren beretorrera eragin du, batik bat malda pikoetan (Cocca, Sturaro, Gallo, & Ramanzin, 2012). Basoaren birsorkuntza autonomo honek, paisaia mosaikoan eta heterogeneotasunean galerak eragiten ditu (Sitzia, Semenzato, & Trentanovi, 2010). Nolabait, gizakiak mendiak modu tradizionalen ustiatzeari uzten dion bezala, naturak espazioa berreskuratzen duen arren,

paisaia-ekologiaren ikuspegi eta adierazleen arabera, galerak sortzen omen dira. Hortaz, ondoriozta daiteke, gizakiak nekazaritza tekniken arabera kudeatzen duen mendi-paisaia hobe delako.

5.0 ATALA. Hiri-bazterreko Paisaia

Hiri-bazterreko Paisaia arestian landu diren bi kontzeptu horietatik eratorritako fenomeno da; hots, hiria eta paisaia uztartzen dituen kontzeptua da. Lehenengo bi ataletan adierazi dira modu orokorrean tesiak Paisaia, Hiria eta Hiri Bazterra nola formulatzen dituen eta tesiari baliagarriak zaizkion definizioak zehazten dira. Gainera, kontzeptu horiek egituratzen dituzten ideia eta elementu nagusiak ere ezarri egin dira. 4. Atal honetan, HBParinak diren berezko arazoak eta indarguneak landuko dira. Finean, paisaiaren definizio konstruktibista eta hiriaren zein hiri-ertzaren egiturek bat egiten dute ahal honetan. HBPa hobeto ezagutzeko hurrengo gaiak landuko dira: bere existentziaren onarpena testuinguru formal eta ofizialetan, ikerketan eta praxitik eratorriak diren hainbat adiera, paisaia mota honen izaera, hurbilketa eta irudikapen negatiboa, eta hurbilketa negatibo horien arrazoiak. Ikuspegi negatibo horren bidetik, paisaion nolakotasuna hobetzeko erabiltzen diren estrategiak jorratuko dira. Ondoren, hiri-bazterreko paisaien ikuspegi positiboagoak eta potentzialitateak lantzen dituzten ikerketak aipatuko dira. Azkenik, paisaiaren irudikapen krisiaz eta honek bazterreko paisaiei nola eragiten dien aztertuko da, irudikapen berrien beharraz ohartarazten duten lanak hona ekarriaz.

5.1 Onartutako Fenomenoa

Gaur egun Hiri Bazterreko Paisaiaren existentzia onartzen duen dokumentu ofiziala Europako Paisaiaren Hitzarmena (Europar Kontseilua, 2000) dela esan daiteke. Europako testuingururako baliagarria ez bakarrik, edozein tokitan aplikatu daitezke bertan modu lauso batean ezarrita dauden irizpide apurrak bezain esanguratsuak, tartean, paisaiaren definizioa. Lehenago ere aipatu den bezala, hau edozein lurraldeko eremua da, biztanleek haren elementuak hautematen dituzten moduaren arabera. Beraz, ondoriozta dezakegu hiri bazterrak baduela paisaiarik, lurralde bateko eremua denez gero, bere elementu propioak dituen gero, eta bertako biztanle eta erabiltzaileek ulertua eta pertzibitua delako. Hitzarmenak espresuki dio eremu arrunt eta degradatuak ere paisaia bezala kontzeptualizatu daitezkeela (Europar Kontseilua, 2000), eremu berezi eta esanguratsuak soilik kontutan hartzen dituen paisaiaren definizioari aurka eginez.

Ingeleseko literaturan, hainbat hitz erabiltzen dira HBParinari buruz jarduteko, eta bereziki hauek dira aipatuena: *urban fringe landscape* (Gallent et al., 2006), eta *urban landscape* (Ipsen & Weichler, 2005). Autoreen arabera, bestelako adierak azaltzen dira *hybrid landscape* (Qviström, 2013) *middle landscape* (P. G. Rowe, 1992), *generic middle landscape* (Lerup, 2000), *Zwischenstadt* (Sieverts, 2003), *paisaje banal* (Muñoz, 2005), *modular landscape* (Ipsen & Weichler, 2005) eta abar.

Ingeleseko *rural urban fringe* adiera maiz erabiltzen bada ere, *urban landscape* [paisaia urbanoa] delakoak agian hobeto hartzen du eremuaren izaera, nahiz eta anbiguetaterako tokia ere uzten duen. Esan daiteke, adiera hau testuinguru alemaniarrean sortua dela, eta eremu urbano eta nekazaritza eremuaren [*landschaft* edo *landscape*] arteko nahasketari esateko erabiltzen dela (Ipsen & Weichler, 2005; Schöbel et al., 2012; “Urbane Landschaft,” 2014). Europako hiri eredu polizentrikoaren testuinguruan, eremu suburbanoak *urban landscape* izendatzen dira, edo pasaia urbanizatuak beste hitz batzuekin adierazia. Forma eraikiak, kultura eta bizitza estiloak, batetik, eta, bestetik, sistema ekologikoen dinamikak nahasten dituen ikuspegi bat da. Eremu horien analisi eta plangintza hobeago bat lortzeko eraikuntza teoriko moduan erabiltzen da (Ipsen & Weichler, 2005).

Urban Landscape adieraren literatura aurrekari gisa aipatzen dira, bestalde, lehenago aipatu den eta Suitza eredu hartuaz garatu zen ikerketa jasotzen duen liburu sorta: *Switzerland. An urban Portrait* (2004). Ikerketaren helburua Suitzako irudi idealaren oinarri zuen lurraldearen eta paisaiaren aldetatik ohartaraztea eta lurraldearen antolamenduaren berrikuspina sustatzea izan zen (Diener et al., 2005). Aurrekoaren argitalpenaren urte berean, Veneziako Arkitektura Bienalean, Alemaniaren pabilioiak *Epizentren der Peripherie* erakusketa atondu zuen. Erakusketa hau ere *urban landscape* eremu hiritartuaren suspertzearen adierazle gisa aipatu izan da (Ipsen & Weichler, 2005, Schöbel et al., 2012). Izan ere, bertako prozesu eta ezaugarri berezien araberrako arkitektura ereduak erakusten dira, nolabait paisaia horien izaera berezia eta testuingurua hirigunetik edo landa eremutik banatuz.

Alabaina, *urban landscape* anbiguitasuna sortzen duen adiera da, izan ere, hiri-paisaiak, ez du prozesu bat (paisaia edo landa eremuaren hiritartzea) adierazten, baizik eta *hiriaren paisaia*, hots paisaia irudi gisa ulertuta. Horregatik, *hiriko* paisaiak ari garela pentsa dezakegu, paisaia (hiria ez den eremua) hiritartuaren orde. Lan honetan, hiri-bazterreko paisaia adieraren erabilera hobesten da, bazter adierak duen kutsuarengatik: batetik, gunea edo fokala ez dena adierazten duelako, eta bestetik, eremu edo zabalera konkretu bat adierazten duelako.

5.2 Bazterreko Paisaiaren izaera baztertua

Paisaia hauei buruz hitz-egiteko modurik ohikoena, arazoaren ikuspegia erabiliaz egiten dena da, edota paisaia izateko ezaugarrien gabezia, bestela (Meeus & Gulinck, 2008; Qviström, 2013). Esaterako, Sievertsek (2003) aipatzen ditu zenbait autore, zeinak hiriko periferia, hiriaren arazo nagusi bezala ulertzen duten, gaixotasuna balitz bezala (Campo in Sieverts). Edota periferia memoriarik ez duen organo batekin alderatzen da, hiriaren zati osatugabe bat balitz bezala (Portoghesi in Sieverts). Hiri-bazterreko Paisaien ikerketa eta plangintzarako lehenengo ikuspegi hauek darabiltzaten argumentuen funtsak ulertu behar dira, haien aurkako arrazoi indartsuak eraiki ahal izateko, eta eremuon berezko izaera aitortzea; hots, hiria neurtzeko, ulertzeko, ordenatzeko baliagarriak diren estandarren bitartez baloratu ezin daitekeena (T. Sieverts, 2003a).

Maiz ageri den beste hurbilketa batek HBPen izaera-gabekotasuna azpimarratzen du. Rem Koolhaasen *Generic City* (1995) idazkiko ideien hariari jarraituz, hiriek identitatearekin eta hirigunearekin duten obsesioaren aterabidea periferietan topatzea ezinezkoa dela esaten duen pentsamoldea errepikatzen da, toki horiek ere generikoak eta banalak direlako. Esaterako, Francesc Muñozek (2005) modu negatiboan hitz-egiten du hirietako periferiei buruz paisaiaren banalizazio eta *urbanizazioaren* argumentua eraiki ahal izateko. Hartara, hiri bazterrak ertz zehaztugabeak eta paisaia lausokoak direla, eta, ez-jarraitasunez osatua dauden eremu jarraituk direla dio (Muñoz, 2009). Paisaia banalak ubikuoak dira, edozein tokitan azaltzen diren paisaia errepikakorrak (Muñoz, 2009), zatikatuak, klonikoak etab. Paisaia hauek Urbanizazio prozesuak sortuak direla esaten du Muñozek, hots “a process of simplification of the city in which urban diversity and complexity are reduced to fit into a common visual order”(Muñoz, 2010, p. 77). Alegia, paisaia banalak hiria irudi sintetiko baten bidez sinplifikatuaz, eta zenbait elementu morfologiko etengabe erabiliz eraikitzen direla adierazten du (Muñoz, 2005).

Lars Lerupek berriz, hiriaren amaieraren adierazle gisa *middle landscape* kontzeptua darabil, Leo Marxek lehenengo aldiz erabilia (Lerup, 2000) 1964an¹⁴. Lerupen diskurtsoa kontraesanek artikulatzen dute, hots, bazterreko paisaia errepikakorra den eremu homogeneo gisa definitzen badu ere, bertatik etekina eta potentzial ateratzea ere balizkoa dela uste duela esan daiteke, hura *the last frontier* (Lerup, 2000) edo kultura amerikarrean etorkizuna eta berritasuna irudikatzen duen etengabeko aurrerabidearen irudiarekin alderatuz. Lerupek, erdiko paisaia *stim & dross* bikotearen bidez irudikatzen du; lehenak presioa, dentsitatea eta jarduera adierazten badu, bigarrenak, kontrakoarekin orekatzen du. Hau da, AEBko Houston eredu duen hausnarketak, bertako paisaia tarteko paisaia gisa irudikatzen du eta bi elementu nagusiez osatua kontzeptualizatzen du Lerupek(Lerup, 2000, 2011): dinamikoak eta estatikoak.

Suburbanizazioaren etorrera markatuko zuen trenbide lineen ugalketak nekazaritza paisaiak zeharkatzerakoan sortzen zuen ez hiri eta ez landa nahasi horri esateko erabiltzen da beranduago *middle landscape* adiera; hots, suburbanizazio prozesuek sortutako paisaia garaikideak deskribatzeko (P. G. Rowe, 1992). Lerupek (2000) 21.mendeko paisaia ohikoena izendatzeko erabiltzen du. Hots, generikoa eta edozein tokitan topatu daitekeen *generic middle landscape* hori, hiria osatzen duten beste hainbeste mikro-ekologietako bat gehiago da¹⁵, metropoli guztietan aurkitu daitekeena. Tarteko Paisaia Generikoa [generic middle landscape] definitu gabe dago, bukatu gabe; berezko historia dauka baina era berean toki-oro agertzen

14 Leo Marxek argitaratu zuen *The Machine in the Garden: Technology and the Pastoral Ideal in America* (1964) liburuan AEBko literaturan maiz azaltzen den pastoralismoa teknologiaren presentziak nola zapuzten duen aztertzen da.

15 Reyner Banham-en ekologi-en kontzeptuarekin lotzen du Lerupek bere generic middle landscape-a. Bere ustez, los Angelesen Banhamek ezarritako lau ekologia horiek zehatzak dira, baina mundu osoko edozein metropoliar aurki daitekeen beste ekologia generiko bat detektatzen du berak.

da. Hura irakurtzerakoan elementu ugari topatu daitezke, baina bere testuak irakurtzea eta idaztea lan aski zaila da (Lerup, 2000).

Diskurtso negatibo hauen arrazoi nagusiak zeintzuk dira hortaz? Zergatik ez dira bazterreko paisaiak bere horretan balioztatzen? Sievertsek (T. Sieverts, 2003a) hainbat arrazoi ematen ditu. Esaterako, aipatzen ditu haien anonimotasuna edo ezagutza eza, baita itxurazko homogeneotasuna ere. Lerupen (2000) arabera, itxurazko izaera gabetasuna behatzailearen itsutasunari egozten dio. Antzeko moduan, Lefebvrek (2003) proposatutako hiriaren eraikuntzaren 0-100% ardatzean, azken muturrari *fase kritikoa* [critical phase] izena eman zion. Egoera hori, hiriaren hedapen inplorsio eta leherkoraren ondoren azaltzen dena, kutxa beltz batekin alderatu zuen berak: nolabaiteko prozesu sortzaile kontrolaezin eta ikusezin batekin. Espazioa ulertzeko hiru esparru zehatz edo kono-bisual daude ezarrita; alegia, nekazaritzarena, industriarena eta urbanoaren. Horien inguruan, eremu itsutu bat [blind field] zabaltzen da (Lefebvre, 2003). Esan daiteke, hiri bazterra bertan kokatzen dela, eta, ikusten ez den esparrua denez, edo errekonozimendurik ez duenez, bertan interbenitzeko tresna eta erreferentzia egokien gabezia dagoela ondorioztatu daiteke.

Hiriguneak sortzen duen zirrarak, periferietako benetako egoera ikusten galarazten digu. Honi gainera, gehitu egin beharko genioke nekazaritza edo kultura paisaiarekiko fetitxismoa ere. Honek, eremu hauek lanlekuak ere badirela baztertzen du, postaletako argazkiak soilik baliran, edota eremu landatiarretako bizi baldintzetatik ihesi hirietara eman diren emigratio masiboak ahaztuz (T. Sieverts, 2003a).

Bestalde, hiritartasunaren gabeziak;hots, hiri-burgesarekin zerikusirik ez duten formen absentsia industria-aurreko forma tradizionalen gabeziaren nahasketak, hiri-bazterreko paisaiaren izaera ez onartzea dakar (T. Sieverts, 2003). Hots, paisaia hauek identifikatzen, komunikatzen, irudikatzen dituzten erreferentzia estetikoaren gabeziaren ondorioz, desegokiak diren erreferentzia paisajistikoetara garamatza okerra den lotura egiteko, eta finean, bazterreko paisaiaren izaera deuseztatzeko.

Beste arrazoi bat izan daiteke, hiri ertza, hedabideetan, filmetan, etab. egoera arriskutsu eta desatseginen eszenatoki gisa irudikatu izan dela. Shoardek aipatzen ditu *Reservoir Dogs*, *Pulp Fiction*, *Seven*, *Things to Do in Denver When You're Dead*, *Fargo*, eta *The Straight Story* (Shoard-i aipamena Gallent eta Andersson, 2007) hiri bazterren irudi oker bat ezarri eta zabaldu duten eredu gisa.

Erreferentzia estetikoaren eta irudizkoaren gabeziarekin batera, Gallentek (2007) funtzionalitatea, aldakortasuna eta lurzoru erabilera negatiboaren presentzia aipatzen ditu. Bazterreko espazioetan hainbat funtzio kaltegarri edo ezatsegin kokatu eta pilatu egin dira eta horrek hautemate negatibo bati ekarpena egin dio (Gallent & Andersson, 2007).

Funtzionalitateaz gain, aldakortasuna etengabea ere aipatzen du. Aldakortasunak, garapen motel eta gradual batek eragin dezakeen izaera egonkorraren ordeztu, etengabe berritzen eta eraldaketan dagoen izaera bat osatzen du eta irudi iraunkor eta egonkor batek sortzen duen familiaritatea edo tokiarekiko atxikimendua eragozten du (Gallent, 2007).

Hiri Baztertua adierazteko, Peter Marcusek (2002) *residual city* [hondakin hiria]. erabiltzen du. Hondakin hiria, metropoli handi bat osatzen duten beste ekonomia eta negozio jarduera geruzetako bat gehiago da: hiri kontrolatzailea, zerbitzu aurreratuen hiria, ekoizpen zuzenerako hiria eta kualifikazio gabeko lanaren hiriarekin batera (Marcuse, 1997). Ikuspegi sozioekonomiko batetik, hiri globalizatua osatzen duten hainbat jarduera banatu eta isolatuak identifikatzen ditu. Hondakin hirian, hots, bazterreko paisaiarekin identifikatuko genukeen eremuan, hirian tokirik ez duten jarduera, gizarte talde eta zerbitzu desatseginen hondakinak biltzen dira. Hiriaren funtzionamendu egokia bermatzen dute, baina begi-bistan nahi ez diren zerbitzuak dira gehienak: presondegiak, araztegiak, errauskailuak, autobus aparkalekuak, etxerik gabekoentzako egoitzak, gazteentzako babes aterpeak (Marcuse, 1997). Jarduera horiek normalean NIMBY (Not In My Backyard) jarrerak eragiten dituzte, eta biziguneetatik ahal bezain urruti kokatzen ditu lurralde politikak eta hirigintzak 19. Mendetik. Eremita horiek, heterotopia bezala izendatu daitezke, Foucaulten lanari kasu egiten badiogu: beste-lekuak edo leku baztertuak, hirigune burgesarekin bat ez datozten jarduerak, elementuak eta jendeak antolatzen dituztenak (Foucault, 1978).

Funtzionaltasun horrekin batera, ordenarik ezak ere laguntzen du hautemate negatibo honetan. Batzuentzat, hainbat funtzio eta elementuen justaposizio zorizkoa besterik ez da bazterreko paisaia, inolako plangintza irizpiderik gabe eraikitako eremua. Honen aurka Sievertsek zera dio, hiri bazterreko errepideak planifikatuak direla, hortaz ezin esan daiteke planik ez dela egon bertan (Sieverts, 2003). Plangintzari ere kritika egiten dio Gallentek (2006) esaten duenean hain ezaguna egin den Green Beltaren estrategia britainiarrak, ez duela helburu gerrikoaren barnean geratzen den eremua planifikatzea, hiri hazkuntza mugatzea eta nekazaritza eremuak babestea baizik. Ondorioz, hiri estu eta nekazaritza-gune babestuen artean, edozelan garatzen den bazterreko paisaia azaltzen da, zerbitzu eta garraio azpiegituren bazka-gunea, zoriz eraiki den zerbait balitz bezala (Gallent & Andersson, 2007). Eta, gainera, presioa sortzen duten ertz-eremuak eragin ditu Gerrikoaren alde banatan (Gant et al., 2011). Hiri Bazterra osatzen duten funtzio eta lurzoru espezializatu eta isolatuek modulu elkar-aldakorrak direla esan daiteke, eta, bata bestearen alboan jarrita paisaia modulatu bat [modular landscape] (Ipsen & Weichler, 2005) osatzen dute. Modulu bat erauzi eta beste bat sartzen baldin bada, ez da paisaiaren eraldaketarik sortzen, izaera eta itxura osorik ez baitauka (Ipsen & Weichler, 2005). Hiri ertzeko paisaiaren izaera-gabetasuna, funtzionaltasuna eta heterogeneitatea azpimarratzen da metafora horren bitartez.

Beste batzuentzako, plangintza gabeziarekin batera, arkitektura irizpideen gabezia ere aipagarria da eta hautemate negatiboa eragiten du horrek. Shoardek (2000) dio, esaterako, inork ez duela espero periferietako pabiloi industrialek eta komertzialek testuinguruarekiko inolako kontzesio estetikorik egiterik (Shoard, 2000). Kalitate urriko eta berritasunik gabeko eraikinen zabalkundeak sortu dituzte paisaia “aspergarri eta batera interes gabekoak” (Nogué, 2010, p. 128).

Aipatu arrazoi horiengatik (itsutasuna, izaera gabezia, erreferentzia kultural eta estetiko gabezia edo negatiboak, funtzionalitate gehiegizkoa, aldakortasuna eta arkitektura kalitate eskasa), paisaia hauen ulermena, irakurmena eta sinbolo zein esanahiak identifikatzea zaila egiten omen zaigu hiriko irakurketa semiologikoarekin egiten ikasi genuen ez bezala esanahi eta adierazleen arteko sistemarik ez dugulako (Nogué, 2010).

5.3 Ohiko Interbentzioak Ertzeko Paisaietan: kualifikazioa

Bazterreko Paisaiaren kualifikazioa edo hobekuntza eragiten dute haren ebaluzio negatiboek. Europako Paisaia Hitzarmenak (EPH) (Europar Kontseilua, 2000) berak ere antzeko zerbait iradokitzen du interbentziorako estrategien irizpideak aipatzen dituenean (Europar Kontseilua, 2000); ondo dagoena babestu eta mantendu, hobetu daitekeen kudeatu eta txarto dagoena eraldatu eta ordenatu behar dela irizten duela esan baitaiteke..

Batzuen ustez, hiri bazterreko paisaien hobekuntza politikek, hark berez duen egoera eta izaera kontutan hartu ez eta mespretxatzen egiten da (Qviström, 2013). Politikariek eta planifikatzaileek, eremu horrek etorkizunean izango duen irudia hobesten dute, eta unean-uneke egoerarekin batera zerikusirik ez duen beste batekin ordezkatzten dute. Etorkizuneko irudi utopikoa bilatzen delako, bazterrak dituen potentzial balizkoak arbuiatuta gelditzen dira. Interbentzio horiek izaera efimeroa ematen diete ertzeko bazterrei, beraien benetako egoerak gutxi irauten baitu. Hortaz, paisaia hauek fase iragankor bat bezala ulertu daitezke estrategia horien arabera, eta ez toki egonkor gisa. Iraganeko egoera landatiar eta etorkizuneko egoera hobetuaren arteko fase iragankor eta laburreko paisaia efimeroak dira (Qviström & Saltzman, 2007).

Bazterreko edo erdiko paisaiaren izaera edo estetika hori bildu eta islatuko zuen arkitektura koherentea proiektatu ahal izateko oinarri teoriko bat zehazten saiatu zen Peter G Rowe (1991). Hots, erdiko, ez-hiritarra eta ez-landatiarra den toki baterako, zehazki erdiko paisaiaren [middle landscape] arkitektura ezaugarri eta irizpide estetikoak ezartzen saiatu zen, alegia. Gabezia hori betetzeko, modernismo pastoralala [*modern pastoralism* (Rowe, 1991)] proposatu zuen, hots hiriko estetika moderno-teknologikoaren eta landako estetika tradizional eta pastoralaren nahasketatik eratorritako kontzeptu hibrido bat.

Beste estrategia ohiko bat hiriaren hazkuntza oztopatzen duen mugaren ezarpena

da. Hots, hain esanguratsua izan den Green Belt britainarra, zeina plangintzako tresna prestigiotsu bezain eztabaidagarria bilakatu den (Edwards, 2001; Gallent et al., 2006). Arestian aipatu bezala, honek nekazaritza eremuen babes eta hiriaren hazkuntzari muga jartzeko, tarteko eremu bat ezartzen du. Eremu horretan zer gertatzen den ordea, ez du arautzen. Hortaz, *no man's land* edo inorena ez den lur moduko eremu desjabetu bat sortzen da, desregularizazioaren zirrikituz baliatzeko gai diren jarduerentzako abagune ugari sortuz.. Hala bere izaera negatiboa indartuko duten erabilera funtzionalak eta zerbitzu azpiegiturak bertan kokatzen dira, baita sozialki onargarriak ez diren jokabideak ere—esaterako, zabortegi ilegalak (Gallent, 2006).

Honen haritik, eta kasu britainiarrarekin jarraituz, joera nagusiak ertzarekiko utzikeria nahiz gehiegikeria—esaterako, espekulazioa lurzoruen balioarekin edota neurri gabeko eraldaketen ezarpena—dira, baita bertako izaeraren “kastrazioa” edo errepresioa (Shoard, 2000). Bi autore hauek, era berean, beste estrategia salagarri bat aipatzen dute: ertzeko edozein eremu baso bihurtzea. Erresuma Batuan ugaldutako den estrategia honek kutsu *politikoki egoki* bat du, zeinak izaera ustez negatiboa baso orlegi apropos batekin ordezkatzeko duen (Gallent, 2006; Shoard, 2000).

Finean, ohiko estrategien hurbilketek ertzeko paisaiaren egoera hiriarekin edo nekazaritza eremuarekin alderatzen dute, eta hiri planifikatzeko, kudeatzeko eta garatzeko tresna bertsuekin hura hobetzea espero dute (Sieverts, 2003). Estrategia berriagoek ordea, ikusiko den bezala, oinarri ekologikoa duten estrategiak darabiltzate hiri-ertza hobetzeko: fauna eta flora komunitate “naturalak” presio urbanoarekin integratzeko estregiak edota paisaiaren ekologiak darabiltzan estrategia ohikoenen beste aplikazioak: funtzio aniztasuna, azpiegitura paisajistikoak, ekosistema zerbitzuak etab. Denetan ohikoena den estrategia hiri bazterren berdetzea dakar: hiri ertzeko berdeguneekin lotuaz, hiri-ertzeko natur-guneak isolatuz, edo ahal den heinean babestuz parke izaera emanez.

5.3.1 Hiri Bazterreko aspektu naturala

Esan bezala, Hiri Bazterreko Paisaiaren kalitatea hobetzeko estrategia ohikoena da bertan berdeguneak lekutzea, baita nekazaritza esparruak mantentzea. Parkeek eta baratzeek, ordea ez dituzte elementu natural berdintsuak, eta ez dira hiri bazterreko naturaren presentziaren adierazle bakarrak ere. Naturaren kontzeptualizazio anitz ematen da hortaz ertzean. Schöbele (2006), hainbat hiri-eredu teoriko eta errealetatik abiatuz, espazio-irekiaren bost formulazio edo diseinu irizpide eratorritakoak lortzen du: Berdegune Aire-librekoa edo Irekia, Zuzentzailea, Testurazkoa, Produktua edo Kontsumozkoa, eta Latentea edo Ezkutukoa (Schöbel, 2006). Naturaren eraldaketa eta hiriaren garapena ahalbidetzen duen arazoaren muinean natura kontzeptualizatzeko moduen aniztasuna dago. Kontzeptu nahasi hau hiri bazterra sortzen duten dentsitate baxuko espantsioetan nabarmena da. Izan ere, batetik, hiritik kanpo eta

“naturatik” gertu bizitzeko nahiak hiriaren zabalkuntzan parte hartzaile bihurtzen du hiritarra, eta bestetik, aldi berean, naturaren diskurtso lauso baten sortzaile, eragile eta pairatzaile egiten du (Cadieux & Taylor, 2013). *Exurbia*, edo hiritik kanpo sortzen den hiritartze prozesuen bitartez, natura ideia bat sortzen da oinarrian hedatze prozesu horietan: hots, hiria ez den eremua okupatzearen ondorioz sortzen den “naturaren” eraginez sustatzen da hiri eredu horrexen hedapena (Cadieux, 2011).

Beste batzuek hiri ertzeko naturaren gorpuzkera hondar-espazioetan eta interstizioetan topatzen dute, forma basati eta erregulatu gabeen. Hondar-espazioetako egoera ekologikoen natura-gizaki harremanak teorizatze eta paisaia hiritartuen plangintzarako eta diseinurako baliagarriak irizten dira (Jorgensen & Tylecote, 2007). Marion Shoardek zenbait kasutan bioaniztasun tasa altuagoak daudela baieztatzen du abandonatutako eta prozesu ekologikoen bidez berreskuratutako eremuetan, inguruko lursail ordenatuagoetan baino (Shoard, 2000). Florarekin soilik ez, eta faunarekin ere elkartrukeak suertatzen dira hiri bazterrean, esaterako, animalia basatiekin (Thornton & Quinn, 2009). Gainera, hainbat ugaztun txiki ere hiriko ekosistemara egokitu dira, hala nola, azkonarrak, azeriak, coyoteak, mapatxeak etab (Bateman & Fleming, 2012).

Fauna eta floragatik bakarrik ez, eta hiri bazterra eremu basati gisa irudikatzen da gaur egun ere, modu positibo zein negatiboan: kontrolpean ez dagoen eremuaren kutsu negatiboa adieraziz edota izaera basati edo landugabea miretsiaz beste bizimodu arautu gabeak onartzen dituelako edota espazioaren zatikatzeko ez ordenatuaren xarmak sortzen duen erakargarritasuna dela eta (Vicenzotti & Trepl, 2009).

5.4 Indarguneak eta Aukerak

Osterantzean, Bazterreko Paisaiarekiko interesa haren berezko izaerak erakarrita sortua dela esan daiteke. Hiriekin eta nekazaritza eremuekin zerikusirik ez duen eremu ulertezin eta ezberdin hori asimilatze eta onartzeko nahiak eraginda edo arazo ekologikoen ondorioek bultzatuta egiten zaie aurre modu baikor eta propositiboan. Motibazio hau, bertan bizi den populazio kopuru altuaren bizitza-kalitatearen hobekuntzak eragindakoa ere bada. Esaterako, Alemaniako Zwischenstadtean bizi da herrialdeko populazioaren gehiengoa, eta hala ere, izaera anonimoa eta kalitate bisual eskasa izaten jarraitzen dute paisaiok (Sieverts, 2003). EPH-ak esaten duen bezala, paisaiaren ezaugarriak eta egoerak hobetuz gero, biztanleriaren kalitate maila ere igoko dela frogatua omen dago (Nogué, 2010). Beraz, zeintzuk dira bizi kalitate hori hobe dezaketen ertzeko paisaien ezaugarriak, eta nola indartu daitezke? Are gehiago, nola lortu hori bazterreko paisaia-izaera galdu eta ordezkatu gabe? Ertzaren izaera aske eta ez planifikatua mantentzeko kapaza izango den ikuste berri bat beharra aldarrikatzen da (Gallent et al., 2006). Bazterreko paisaietako elementu eta erabilerak direla eta, gizarte eta bizimodu garaikidearen ispilu gisa funtzionatzeko ahalmena dute; hots, modu didaktikoan

erakusten dute hiri-bazterrek gure bizimodua eta gizartearengan sentsibilizazio etikoa eta ekologikoa pizteko baliagarriak dira (Shoard, 2000).

Esaterako, autoen inguruko kultura eta materialtasunak sortzen duen bizimoduaren kasuan: autoak produzitu eta saldu egiten dira hiri-bazterreko fabrika nahiz kontzesionarioetan. Autoen potentzial guztia, puntako abiadura edo maldan gora nahiz bide zailtan ibiltzeko ezaugarriak frogatzeko ibilbidez eta lasterbidez josita daude hiri-bazterrak. Estetika konkretu bat *tuneatzeko* eta erakusteko eremu informalak aurki daitezke hiri-bazter anitzetan gertatzen diren topaketetan. Autoaren mantenurako (garbiketa, konponketa, ITV), eta finean, makinaren azken hatsa iristen denean, lur emateko txatarratokiak ere, hiri-bazterretan kokatuak dira. Autoaren zikloa hasi eta bukatu egiten da hiri-bazterrean. Autoaren bizitza zikloak gainera, hiri-bazterrari forma ematen dio. Gauza bera esan daiteke edozein produkturen bizi zikloaz edo gizartearen kontsumo ohiturez ere, bazterrean kokatzen baitira energia, zabor eta produkzio, transformazio, garraiatze, baztertze eta botatze zentro nagusiak. Eta, gizarte ohitura eta bizimodu horiek ere osatzen dute fisikoki eta funtzionalki hiri-bazterra. Bertako lema izan daiteke “*buy and throw away*” (Picon, 2000, p. 75)[erosi eta bota zakarretara]. Naturaguneetako interpretazio eremuak existitzen diren bezala, bazterreko paisaiaren interpretazio guneek ere lema horren inplikazioekin irakaspenak egiteko baliagarritasuna dutela esan nahi da.

Baina, ahalmen kultural eta, nolabait, moral horretaz gain, gehien esplotatzen den ezaugarria hiriak *berdetzeko* duten potentziala da. Dela gerriko edo eraztun berdez dela ziri edo barneratzeen bidez (gogoratu Kopenhageko eredua), edo bien arteko konbinazioen bidez, duda izpirik gabe elementu begetala eta organikoa hiri barrura ekartzeko aukera paregabea dira hiri-bazterrak, lehenago esan bezala. Honekin batera, aisialdi guneak sortzeko aukera ere agerikoa da. Ez da harrizkoa hau izatea hiri inguruko espazio ireki gehienak kudeatzeko estrategia nagusia. Euskal Herriko testuinguruan estrategia honen adibideak hiri handi gehienetan topa ditzakegu: Bilboko Gerriko Berdea, Gasteizko Eraztun Berdea, Iruñako Ibaiertzeko Parkea, etab. Enric Batllek, kontzeptu honi metropoliaren lorategia [jardín de la metropoli] (Batlle, 2007, 2011) esaten dio. Hiriaren eraginpean dagoen naturagune kulturizatuari, finean, hiri dispartsoari ekosistema zerbitzuak eskaintzen dizkionari: hots, aisialdirako espazio diseinatua eta hiriko sistema ekologikoaren dinamikak eta zikloen hobetzea suposatzen duen espazioa (Batlle, 2011). James Cornerren (2006) *cultural landscape* kontzeptuaren, eta *landscape urbanism* idearioarengandik edaten duen adibidea dudarik gabe.

Hurrengo potentzialak elementu begetalekin ere zerikusia duela esan daiteke, baina kulturalki tradizio luzeagoa duen jarduera batez ari gara: nekazaritzarena, laborantzarena, abeltzaintzarena, alegia. Azken urteotan berpizkunde itzela izan dute hiri-laborantzak (Bakker, 2000), gerrilla ortuak (Tracey, 2013); auzo baratzak (<http://www.incredible-edible->

todmorden.co.uk), aisialdiko baratzak (Alberdi Collantes, 2001) eta bezalako ekimen formal zein informalek. Elikadura subiranotasun eta karbono-aztarna gutxitzearen ideiek bultzatuta suspertu dira horiek. Hiri ertzetan hainbat eta hainbat lurzoru hondakin dago, hots, lurzoru erabilera zehatzik gabe, edota besterik gabe, utzikeriagatik abandonatuta. Hiriaren elikagai eskaria eta landak duen emari fluxuen arteko gurutzaketarako eremu aparta kontsideratzen da helburu horiek lortzeko.

Funtzio-aniztasuna nekazaritzatik eratorritako ikuspegia da, hau turismoarekin, edo hezkuntzarekin edo labore aniztasunarekin txandakatzeko metodoa izendatzeko erabilia. Oinarrian, funtzio-aniztasunak espazio berdinean modu bateratuan, eta egituratuan lan egiteko modu bat adierazten du.

Hiri bazterreko funtzio aniztasuna baina, ez da egituratua edo bateratua. Areago, funtzioek modu independentean lan egiten dute bata bestearen alboan ia ukitu gabe. Ikuspegi funtzional honek, lagundu diezaguke ertzeko aspektu hori hobeto ulertzeko eta bere gabeziak ezagutzeko. Plangintza sektorialek eta zonifikazioek ezarritako lurzoru espezializatuaren ordez, erabilera eta funtzioen arteko hibridazioak, elkarrekikotasunak eta osagarritasunak bilatuko dituen ikuspegiari ari gara ertzeko espazioaren jabetza norgehiagokan (Gallent, 2006).

Ikergai diren paisaiok egoki kudeatuko duen plangintzaren ezaugarriak honela laburtu daitezke: bertako elementu eta lurzoru erabilerean alde dagoena, eremua xehe-xehe ezagutzen duena (hiriguneetan bezain beste) bere izaera autonomo eta inprobisatua babesteko gai dena, izaera publikoa bermatuko duena, fauna eta flora basatiaren presentzia korridore eta ziriaren [cuña] bidez indartuko duena, eta diseinuzko gaindosiak ekidingo dituen izango da (Shoard, 2000).

Elementu eraikiez gain, bazterreko paisaien osaera kulturala nolakoa izan den aztertzen duten ikerketak urriak dira. Ertzaren potentzialetako bat, haren historia dela eta hura sakonago ikertzea ere proposatzen dela esaten da (Gallent et al., 2006; Qviström, 2013; Qviström & Saltzman, 2007). Izan ere, denak berdinak direla esaten duten ahotsen aurka, tokian tokiko topografiaren, historia urbanoaren, kultura baldintzen eragina aipatzen dira paisaion izaera lokala zehatz eta ezberdindua nabarmentzeko (Qviström & Saltzman, 2007). Qviströmek (2013) bereziki plangintzaren historiari begiratzen dio, denboran zehar garatu diren plangintza diskurtsoetan hiri bazterra nola formulatu den aztertzeko, eta finean, eremu horiekiko joera anbiguo bat detektatzeko. Alegia, plangintzak landatiarra eta urbanoaren arteko muga formulatzeko duen ustezko diskurtso argia praktikan, eta denboran zehar, nahasiagoa eta aldakorragoa dela demostratzeko; hots, hiri-landaren jarraitasun praktikoa bat detektatzeko (Qviström, 2013).

Esandako guzti hau laburtuz, Gallentek (2006) zenbait aukera eta oportunitate ikusten

ditu hiri-bazterreko paisaiaren ezaugarrietan: historian, estetikari, ekonomian, gizartean eta kulturari, eta ekologian. Bere garapenaren historian eta honek ondareari bakarrik ez eta hezkuntzari egin diezaioketen ekarpena aipatzen ditu. Estetikari dagokionez, irudikapen berriek ekarri diezaioketen onurak aipatzen ditu. Ondoren bertako ekonomiak hiriaren eta gizartearen bizitza estiloan duen eraginak aipatzen ditu; hots, hiri bazterrean ekonomia jarduera produktiboak, erredundanteak eta kontsumozkoak ematen direlako. Sozio-kulturaren arloan, gizarteko erabiltzaile eta biztanle komunitate jakin bat adierazten delako. Eta, amaitzeko, bazterreko bioaniztasun-txoko eta basabizitzaren indartzean egin daitekeen lana aipatzen du (Gallent et al., 2006).

Thomas Sievertsek (2003, 2008), Zwischenstadt eta paisaia hiritartu zatikatuak [fragmented urban landscapes] hobetzeko ikerketa lan eskerga egin dauka; kualifikaziorako funtsezko irizpidea paisaia hauen ulermenean kokatzen duelarik. Ulermen honek onarpen maila bat eskatzen du, hots lurralde eskala duen eremu hiritartua hartzen duen plangintza prozesu baten barnean, eta horretarako, bertan parte hartu beharko lukete bai azpiegitura handiak garatzen dituzten botere sektorialeak, baita komunitateak eta biztanleek ere (T. Sieverts, 2008). Denen artean eztabaida bat sortu beharko litzateke bazterreko paisaia hauen berezko izaera oinarri hartuta, haren irudikapen berriak sortze aldera. Eremu hauek hobetzeko estrategia nagusia ulermen sakona, ideia berrien komunikazioa eta diseinua dira (T. Sieverts, 2008).

Clemmensen, Daugaard eta Nielsen-ek (2010), 1990 hamarkadan zenbait ikerlarik proposatu hiri ereduetan (Sievertsen Zwischenstadt edo *fragmented urban landscape*-ak, Ascheren *Metapolis*-a, eta Secchi & Viganoren forma eta funtzio berrituen hiria) paisaia hiritartuak [urban landscape] kualifikatuko litzatekeen helburuak topatu zituzten: apropiazioa edo bereganatzea, elkarbizitza, konektibitatea, dibertsitatea eta porositatea. Antzeko moduan, Schumacher eta Kochek (2004) Limattal bailara erabiliz proposatu zituzten nolakotasunen oso antzekoak, bide batez esanda; hauek proposatzen zituzten: iuxtaposizioa, zatikaketa harmonitsua, elkarbizitza eta anbibalentzia.

Hiri bazterreko paisaiak edo paisaia hiritartuen hurbilpen neutro edo analizatzaileen proposamen gabezia gainditzeko nahi bat adierazten da (Clemmensen et al., 2010), benetan toki horien izaera onartuaz bai, baina baita horiek eraldatzeko eta kualifikatzeko irizpide edo ekintza lerroak definituz. Helburu horiek lortzeko ahalmena izan dezaketen zortzi Kontzeptu edo Tresna definitu zituzten diseinuzko proiektuak proposatu beharrean, eta, hala, orokorragoak, kontzeptualagoak eta erabilgarriagoak diren tresna sortarekin ekarpena eginez (Clemmensen et al., 2010).

5.5 Irudikapen berrien beharra: Paisaia arketipoak eta irudikapenaren krisia

Paisaia arketipo edo estereotipatuak dira gehien komunikatzen direnak, gizarte iruditegian leku gehien okupatzen dutenak. Hortaz, hiri bazterreko paisaiak ez du lekurik imaginario sozialean (Sieverts, 2003, p. 12; Sieverts, 2008) eta beraz, hura apreziatzea benetako lan sortzailea dela esan daiteke. Ordea, gizartearen egunerokotasuna ez da paisaia arketipikoetan barrena ematen. Eguneroko paisaia hauek ikusezinak dira (Nogué, 2008), hiri bazterreko paisaiak, hondar izaera dutenak, arruntaren arruntaz balio aitorturik ez dutenak. Hainbat autoreek, paisaia arketipiko eta erreferentziatzkoen uholdeak eta fetitxismoak (Gallent et al., 2006; T. Sieverts, 2003a) sortzen duen nekearen edo indiferentziaren aurrean, paisaiaren irudikapenaren krisiaz ohartarazten gaituzte (Nogué, 2010).

Joan Nogué geografo kataluniarrak (2010) dio irudikapenaren krisi honen oinarrian dagoela paisaia arrunten, egunerokoen, eta arketipikoen arteko urruntasuna edo lubakia. Ametsarazten diguten edo lasaitasuna eta gozarazten gaituzten paisaien irudiek ez dute zerikusirik egunero ikusten ditugun horiekin (Nogué, 2010; Nogué, 2008). Arketipo horiek, garai batean, gizarte elite batek sortutako estetika eta balio batzuen ondorioak dira, horien iruditegia argazki eta margolanen bidez transmititu eta gizarteratu egin da (Nogué, 2010).

Antoine Piconen (2000) hitzetan, hirietako paisaiak itxitura sentimenduak sorrarazten dizkigu: mugen zehaztapen eza, natura elementuen gabezia eta ikuspegi zabalen eskasia dela eta. Hala ere, gure ikusteko ahalmena egun biziki zabaldu da, mikro eta makro eskaletan, nano egiturak eta argi-urteko distantziak neurtzeko eta bisualizatzeko ahalmen teknologikoa garatu baitugu (Picon, 2000). Ordea, bi muturretan (nano eta makro) azaltzen diren elementu eta formek ez dute zerikusirik ezagunak zaizkigunekin, eta errazago identifikatzen dira testurekin, beste zentzumenekin hauteman daitezkeen forma eta elementuekin (Picon, 2000). Badirudi ikusizko hautemateak muga jo duela, eta beste zentzumenen bidezko paisaia-hautemateak landu egin beharko lirakeela, aurrerago ikusiko den bezala.

Hautemateko modu berriez gain, irudikapen berrien aldeko aldarrikapenak ere maiz egin dira. Marion Shoard idazleak (2000) baita Gallent et al.-ek ere (2006) hiri bazterreko paisaiaren metafora eta irudi berriak egingo dituzten “heroiak” beharra aldarrikatzen du. Bestalde, Thomas Sievertsek (2003; 2008), paisaia hiritartuek duten berezko estetikaren baitako potentzialak bilatzeko aukera azaltzen du, estetika honi, *aestetika* esaten dio, edo estetikaren mugetan dagoenarekiko sentikortasunaren garapena (Sieverts, 2003). Izan ere, edertasun paisajistikorearen estandar tradizionalekin alderatuz gero, bazterreko paisaia beti aterako da galtzen. Sievertsek (2003; 2008) iradokitzen duen interpretazio joerak funtsezkoa du onarpen tolerante bat: hots, bazterreko paisaia osatu duten erabaki arrazional eta objektiboen emaitza eraikien estetikarekiko jarrera irekia, horien esanahi eta sinbologia berrien bila jolasean arituz.

Dagoeneko existitzen dira zenbait eredu hiri bazterreko estetikaren interpretazio berritzaile eta proaktibo gisa uler daitezkeenak, artearen, literaturaren, baita arkitektura nahiz paisajismoaren ildoetatik egindako ekarpenen baitan. Hasteko, esploratzeko nahi batekin egiten den bidaia edo txangoetatik eratorritako hautemate eta interpretazioak aipatu daitezke. Esaterako, Robert Smithsonen Pessaic izeneko eremura egindako txangoaren narrazioan agertzen da hango elementuen esanahi estetikoekin jolasteko joera bat (Smithson, 2006). Literaturaren eskutik berriz, Gallentek (2006; 2007) Iain Sinclair idazlearen *London Orbital* lana goraiatzen du, hiriko bazterrari buruz egiten duen irakurketa eta interpretazio berritzaile eta esanguratsu gisa. Bertan, Sinclairrek (2003) bidaia baten narrazioa egiten du; Londoneko eremu metropolitarrak inguratzen duen M25 lasterbide polemikoaren ibilbidea oinez jarraituz egin zuena. Urtebete iraun zuen irteeran, bidean topatu zituen elementuen eta egoera bitxien deskribapenak eta bizipenak biltzen ditu, begirada jostakor, ironiko eta historikoa erabiliz. “Errepide orbitalaren inguruan ibili nahi dut: inon-ez dagoen toki honetan, ertz honetan, kontakizun berriak azaleratuko dituen tokia dalakoan sinestuta.” (Sinclair, 2003). Bidaiaren kontzeptuarekin, eta oinez egiten den tokiko errekonozimenduarekin lotura du Psikogeografiak, edo artista situazionistek 1960-70 hamarkadetan garatu zuten deriba bidezko txango esperimentaletako esperientziak.

Boris Sievertsek (2008), bidaia gidatuak egiten ditu bazterretako paisaietan zehar, esaterako bere jaioterria den Kolonian (Alemania) 39 geralekuko tour bat egin zuen, bakoitzean ikusi eta hauteman daitekeena adieraziz, paisaiaren hito eraiki nagusiak erakutsiz, baita egoera horretara nola iritsi diren jakiteko kontakizun txikiak eginez. Bestalde, Hiriak bisitatzeko gida bat ere argitaratu zuen, non modu esperientziazko eta engaiatu batean leku bat sakonki ezagutu ahal izateko jarraitu beharreko pausuak zerrendatzen dituen. Tekniken artean argazki eta plano propioak sortzea, tokira behin eta berriro bueltatzea, jendearekin hitz-egitea, baita mozkortzea eta kalean bertan lo egitea bezalako ekintzak aipatzen dira (B. Sieverts, 2006), nolabaiteko egunerokotasunean barneratuz eta tokiarekin lotzen duen errutinak sortuz.

Egunerokotasunari erreparatzen dion begiradaren bidezko interpretazio berriak ere aipagarriak dira. Aipatu dugu dagoeneko Veneziako 2004ko Arkitektura Bienalean Alemaniak atondutako pabiloiaren ereduak, zeinak modu fenomenologiko batean, hots, balio juzkurik adierazi gabe, periferia alemaniarretako hainbat egitura, forma eta prozesuen erretratua egin zuten, orotara, egoera orokor bateko oinarrizko tipologizazio bat eginez (Ferguson, 2004)

Egunerokotasunaren erretratua egitea da, finean, analisi horien helburua. Honen aurrekari nabarmena dugu John Brinckerhoff Jackson estatubatuarra, lehenago aipatu den bezalaxe, amerikako eguneroko paisaia arruntak analizatu eta bereizteko egindako lanari esker. Paisaiaren erreferentzia europarrak albo batera utziz eta 3. Paisaia izendatu zuen pasaia bernakulo amerikarrari kasu eginez, AEBko paisaiaren ezaugarri bereziak apreziatzea lortu zuen, jarrera enpatiko baten bidez (Jackson, 2010). European ere existitzen diren hainbat

periferia klase eta tipo ezberdinak aztertu eta sailkatzeko erronkaren beharra ere adierazi izan da (Ipsen & Weichler, 2005) Brinckerhoffen bide beretik, paisaia generikotasunaren usteen kontra eginez; hots, ustez banalak eta errepikakorrak diren paisaien berezitasunak topatzeko.

Sublimearen bitartez, eta mendizaletasunaren eta turismoaren bitartez, mendiko, batik bat Alpeetako edo Pirinioetako paisaiak *asmatu* ziren bezala, hiri ertzeko paisaiak ere *asmatu* behar dira (Roger, 2007). Mendia, geroago ikusiko den bezala, toki ezezaguna eta beldurgarria izatetik, erakargarria izatera pasa zen 19. mendearen buruan. Rogerren (2007) artealizazio bikoitzaren bitartez azaltzen du zein den gaur egungo arazoa eta balizko aterabidea hiri bazterreko paisaien kasuan: hiri bazterrak *in situ* moldatu eta izorratu ditugu. Baina nola imajinatzen dira paisaia hauek *in visu*? Bada modu negatiboan, atsekabetuta hautematen ditugu. Ez daukagu hiri-ertza *ikusteko* gaitasunik, eredu bukoliko eta nostalgikoei itsutzen baikaituzte (Roger, 2007; T. Sieverts, 2003a). Pais [lurralde] horiek, paisaje bihurtzeko irudikapen, lotura emozional, eta ekintza berriak behar ditugu bertatik bertara, eta irudikapenaren bidez eraldatu ahal izateko.

Izan ere, paisaia hiritartuak gutxieneko emozio batekin hautematen ez badira, ahazturaren poderioz, haiekiko ardura eta erantzukizuna galdu egiten da (Sieverts, 2008). Horregatik funtsezkoa omen da ulermena, hura baita estrategiarik onena paisaia hauek hobeto gobernatzeko; analisi sakonaren bidez lortzen diren ulermen eta irudikapen berriak sortuaz (Sieverts, 2008).

Modu bat izan daiteke, ulertezinak suertatzen diren paisaia hauek zatika analizatzea, Lynchek (1998) hiriarren irudia osatzeko erabiltzen zuen strategiaren antza duen bideari jarraituz. Esaterako, Schumacherrek (2004) eta Kochek Zuricheko Limmattal bailara ulertzeko erabilitako metafora eta atalak proposatzen dituztenean bezala: ertzak, gune eta hondakinak, lazoak, klonak, OHE-ak (Objektu Hegalari Ezezaguna) eta puntuitsuak. Palinpsestoaren tresna ere erabilgarria izan daiteke, bazterreko geruza eta istorio anitzen denbora, elementuak, gertakizunak, sentsazioak, usaina eta bestelako dimentsioak ezagutzeko (Roger, 2007).

Lurraldea edo paisaia irudikatzen duten marrazki panoramiko zaharrek ezer gutxi laguntzen dute paisaia hiritartuak konprenitzeko (Ipsen & Weichler, 2005), paisaia ikusezinen kartografiek (Nogué, 2008)edo bideo bidezko hautemate eta irudikapenek (Picon, 2000). Ulermen eta ezagutza eraginkorragoa lortzen lagungarriagoak dira. Hots, teknologiaren aurrerakuntzak ahalbidetzen dituenak, irudia eta mugimendua, eskala anitzetan egindako argazkiak, espazioaren eta abisalaren konkistak ekarritako irudi erakargarriak, usaimenezko paisaiak, zarata-paisaiak, (Roger, 2007). Honek berriro eramaten gaitu Noguék definitutako paisaia ikusezin horietara, hots, begiez beste ditugun zentzumenek atzematen dituzten elementuez osatutako paisaietara. Baita Cornerrek aipatutako mapek eta planoek ezin irudika ditzaketan fenomenologiaren esperientzietara (Corner, 1999). Teknologia berriek hautemate

berriak eta irudikapen berriak ekarri izan ditu garai orotan, egungo teknologien ahalmenek paisaiaren bestelako hautemate eta adierazpen “magikoa eta misteriotsuak” (Picon, 2000) ahalbidetu ditzakete.

Era berean, paisaiaren irudikapen krisi hori denik esan gabe, dagoeneko hiri bazterraren estetika positibo nabarmentzen, eta paisaia izendapena ematen dela ere adierazi izan da. Izan ere, hiri bazterra, edo zehazki Zwischenstadta [tarteko hiria edo hiri-arte] paisaia bezala irudikatzeak, honekiko estimua eta tokiarekiko lotura, eta hortaz identitateak eraikitzeke prozesuetan baliagarria den espazio gisa ulertzea esan nahi baitu (Vicenzotti & Trepl, 2009).

5.6 Ondorioak: Hiri-Bazterreko Paisaien beharrak

Hiri-bazterreko paisaiaren inguruan existitzen diren eztabaida esanguratsuenak aipatu dira hemen. Hasteko, haren izendapena landu da, hiri ertzarekin bezalaxe, egoera berbera izendatzeko hainbat adiera erabiltzen dira, batik bat literatura erdalduneari ageri direnak. Ingeleseko *urban landscape* hobesten bada ere sortzen dituen anbiguetateak nabarmenak direnez gero, ez da erabiliko euskarazko *paisaia hiritartu* adiera. Ordea, hiri-bazterreko paisaia hobesten da. Izan ere, azken honek, bere izaera ahaztu eta ikusezina, baztertua alegia, azpimarratzeko ere balio duelako.

Bazterreko paisaiaren *bazterreko* izaera da gai garrantzitsuenetako bat ikerketa honentzat, izan ere bere izaera modu negatiboan begitatzera koan nabarmentzen dira nabarmen haren izaera-gabetasuna, banalitatea, arruntasuna, generikotasuna etab. Uste horiek sortzen dituen arrazoi nagusiak literaturaren arabera, berezko izaerarekiko itsutasuna omen da, baita erreferentzia estetiko gabetasuna ere. Bazterrean topatzen diren funtzio eta azpiegitura ugariak ere ez dute laguntzen ura estimuan hartzeko. Egoera hori hobetzea izaten da helburu nagusia, kualifikatzea, alegia; batik bat berdetze estrategien bitartez, edo hiriarri gerriko eta eraztunen bidez oztupoa jarriaz. Funtsean, bazterrak duen momentuko egoera heterogeneoa mespretxatuz eta etorkizun berdetu hobeago batekin amestuz.

Hala ere, bazterrak potentzialak eta alderdi onak dituela ere aipatzen dute autoreek. Bizitza estilo garaikideak azaltzeko ahalmena, nekazaritza potentziala eta funtzio-aniztasuna bezalako kontzeptuak aipatuaz. Gehien interesatzen dena ordea, bazterraren historia propioaren ezagutzaren eta ulermenaren indar potentziala da. Batik bat hirigintza tradizionalaren diskurtsoari kontra egiteko izan dezakeen indarragatik (hiria eta landa arteko mugan oinarri duen tradizio zonifikatzailea) (Qviström, 2013), edota plangintzara interpretazio eta esanahi tresna berriak ekartzeko duen ahalmenagatik. Honek ere lotura du Paisaia kulturalaren izendapenean benetakotasun historikoari ematen zaion balioarekin.

Azkenik, irudikapenaren gaia azaldu da, paisaiaren irudikapenaren krisiak eragiten duen bazterreko paisaiarekiko itsutasuna. Zentzumenean bidezko hautemate landuago bat izan

daiteke irtenbidea, ikusmenaz gain, entzumenaz, usaimenaz eta abar, beste alderdi batzuk deskubritzeko abagunea iradokitzen dute zenbaitzuek. Horrekin batera, esplorazio, txangoetan eta bidaietan lortzen den bertatik bertarako esperientzien bitartez egiten diren interpretazio berrien ekarpena da iradokitzen den beste aukera bat. Azkenik, hiri bazterreko paisaia garaikideen asmakuntza aldarrikatzen da, antzina mendiekin—itsasoarekin, basamortuarekin etab.—egin bezala; mendiak paisaia bilakatu ziren *sublime* irudiari esker, izua eragiten zuena, *izugarri* bilakatuaz.

Hurrengo lerroetan, literaturaren berrikusketak iradokitzen dituen bestelako gai batzuk aipatzen dira, baita zenbait ondorio ere. Jarraian, tesiak proposatzen duenaren beharra justifikatzen da. Amaieran, tesiaren metodologia eta osatzen den interpretazio tresnaren oinarri teoriko edo testuinguru teoriko orokorraren oinarrizko ildo eta baieztapenak biltzen dira.

5.7 Laburpena: literaturaren ekarpenak

5.7.1 Galderak eta beharrak

Gizarteak sortzen dituen Paisaia komunak.

Paisaiaren eraikuntzan alderdi gizatiarra eta kulturalaren esparruko gai garrantzitsuak landu dira batik bat. Ondorio nagusia paisaia gizakiaren ikuspegiaren arabera konstruktuko soziokultural geruza-anitz bat dela da. Horren arabera, zenbait autoreek, dialektikaren bidez gizakiaren eta lurraldearen arteko distantziaren arabera perfilek (barne/kanpo Cosgrove) eta paisaia motak (politikoa/bizitua Jackson) bereizten dituzte. Ordea, gaur egun, horrelako bereizketa garbiak eta zurrinak egitea zaila da, batik bat barneko eta kanpoko perfilei dagokienez, globalizazioari eta norbanakoen mugikortasunari begiratzen badiogu. Ezin baita ahaztu, mugikortasunak, lekualdaketek, turismoak, lanaldi murriztu eta ez aldakorrek, tokiekiko atxikipen maila aldakorrak ere sortzen dituela.

Honekin lotuta dago epistemologia subjektibo eta objektiboaren arteko dialektika ere; batak begirada zientifiko arrazionala darabil, besteak sentimenduen bidez paisaiaren estetikari begiratzen dio. Cosgroven (1998) arabera, biak dira gizarte kapitalistak paisaia ulertzeko eta ikusteko darabiltzan modalitateak, harekiko distantzia bat ezartzen duten mekanismo kulturalak (zientzia edo estetika) direla medio. Bereizketa hau, erdibideko jarrera subjektu artekoak konpondu dezake, zeinak pentsaera eta balorazio objektibo nahiz subjektiboak lotzeko abagunea eskaintzen duen. Erdibide honen aipamena eta potentzialitatea Simon Swaffielden eta Michael Jonesen lanetan topatu egin da, batek paisaiari buruzko jakintza eta teoriaren sorkuntzaren arloarekin lotuta (Swaffield, 2006), besteak paisaiarekiko jarrera diziplinaren ikuspegitik enfokatua (Jones, 1991). Tesian, inter-subjektibitatea, paisaiaren ulermenean proaktiborako estrategia nagusi gisa proposatzen da.

Hiritartasun eredu anitzak.

Geruza anitzekoa, hedatua eta tartekoa. Geruza anitzeko ikuspegiak, hiriaren irakurketarako eta definiziorako hainbat adierazleren existentzia eta garrantzia azpimarratzen du. Elementuok fisikoak zein kontzeptualak dira, eta hortaz, hiriko paisaiaren eraikuntza material zein diskurtsiboa adierazten dute. Hiriaren hedapena ere, maila diskurtsiboan zein materialean ematen dela onartzen da, hots, lurralde zein mundu mailan sare fisikoak eta kulturalak zabalduz. Honek ordea, hirien edo paisaien mugagabetasuna eta uniformetasuna iradokitzen badu ere, tesiak tokian tokiko zehaztasunetik joko du paisaiaren berezkotasunak geografiaren bitartez zehazteko. Honen harira, hiri-ertzaren existentziari buruz zenbait hitz: hiriaren hedapen mundialak hiri eta landaren mugaren desagertzea adierazten du, ordea, geografiaren existentziak fisikoki hiri mugatzen eta paisaia ezberdinak sortzen dituen eremuak gorpuzten ditu. Hiri-ertzaren izaera anbiguo hau da lan honetan aintzat hartzen dena: hots hiriaren hedapenak deuseztatzen duen egoera, eta, aldiz, geografiaren existentziak baieztatzen duen esparru ezberdindua onartuz.

Hiri eta ez-hiriaren arteko mugaren existentzia.

Urbanizazio Planetarioaren ereduaren arabera, planeta osoa dago hiriaren menpe, hortaz ezin da bereizi hiri edo ez hiri, ezta natura basatirik ere (Brenner & Schmid, 2011; Lefebvre, 2003; Schmid, 2005). Isolagarria den hiririk ez da existitzen, eta hortaz, hiriaren ezberdina den eremurik ere ez: dena dago jarraian elkarlotua eta mugak desagertu dira. Esan daiteke paisaia bakarra existitzen dela, mundu mira bakarraren eraginpean eraikia (Schmid, 2005). Ezetz esateko arrazoiak daude, eta tesiak hiri eredu anitzak existitzen diren bezala, hiri bazterreko paisaia anitzak ere existitzen direla proposatzen du. Berekitasunaren funts nagusia geografiak eragindakoa dela ezartzen da, eta ondorioz, gizakiak geografia hori ulertzeko izan dituen ikuspegi ezberdinek eragindako paisaiak existitzen dira.

Hiri Bazterreko Paisaien Asmakuntza

Paisaia hiritartu edo bazterreko paisaia europarrak modu konparatiboan mapeatu eta analizatzeko beharra omen dago, nahikoa ezberdinak baitira denak (Ipsen & Weichler, 2005). Gainera, hiri bazterreko paisaien kontzeptualizazio eta metafora berriak behar dira (Gallent et al., 2006; Nogué, 2010; Roger, 2007; Shoard, 2000; T. Sieverts, 2003a). Mendiakin egin bezala, Hiri Bazterreko Paisaiak egungo lurralde madarikatuak edo *pais horribilis*-ak dira: asmatu egin behar dira kontzeptualki zein materialki (Roger, 2007). Sievertsek (2003) ulermen sakon bat aldarrikatzen du, nolabaiteko harreman enpatiko bat, paisaia hauen bilakaera eta izaera ulertu ahal izateko. Zeintzuk izan dira HBPAk eraiki dituzten erabakien atzeko bizipen, ideologia boteretsu edota ideia intelektualak?

Bazterreko Paisaia Kulturalak.

Garaikideak diren paisaia zinez kulturalak apreziatzeko ildorik ez da topatu, uste denez, kultura eta benetakotasuna mugatzen duten eredu zurrunen eragina dela eta. HBPAk kulturalki balioetsuak onartzeak, haren historiaren balioa ezagutzea suposa dezake, eta hortaz, pairatzen duten aldakortasunaz ohartarazteko lana egiteke dagoela esan daiteke. Era berean, paisaia kulturaletan funtsezkoak izan ohi diren ekosistema orekatu eta jasangarriekin alderatuta, HBPEk horrelakorik ez dute normalean aurkezten, eta horrek haien balio kulturalaren murrizketa ere dakar.

Natura Antropogeniko edo Kulturalaren balioa

Antropozenoaren kontzeptualizazioaren baita post-humanismoaren ikuspegitik ere, nola egin aurre hiri bazterreko paisaia antropizatu kutsatuei? Nola kontzeptualizatzen da bertako natura kulturizatua eta era berean kaltegarria? Batzuek hiri ertzeko zenbait tokietako abandonuak sortzen dituen bioaniztasun egoerak goresten dituzte (Shoard, 2000); (Jorgensen & Tylecote, 2007). Zeintzuk izan daitezke natura antropogenizatu eta ekosistema eraldatu horien esanahi kultural berriak, espezie aniztasunaren eta baliabideen materialen etekin ekonomikoaz beste?

Paisaiaren ekologiaren ikuspegitik, hiria ekosistema berezia dela onartuko balitz, zeintzuk lirarteke bazterreko natura antropogeniko horren dinamika ekologikoen eskainiko lituzketen ekosistema zerbitzu kulturalak? Zein esanahi eta balio atxiki ahal zaio hiri bazterrari hura gizarteak apreziatu ahal izateko?

Mendiaren eta hiriaren arteko barreman estuak

Hiritik gertu dagoen mendi-paisaia, edo mendi magaletan kokatzen den hiri bazterreko paisaia ez da landuta edo ikertuta bilatu. Baldin eta ez bada aisialdiaren eta espazio irekien, edo paisaiaren ekologiaren ikuspegitik, bederen, mendi paisaia hiriarekin azpiegituren bidez lotura duen, baina hirigunetik nahiko urrun kokatzen den paisaia gisa ikertzen duten ereduak ikusi dira. Nola irudikatzen da hiriaren bazterrean kokatzen den mendia? Zeintzuk dira bertan nahasten diren ikuspegiak edo mundu-mirak? Zein esanahi dute mendiaren irudian bertako forma hiritartuek? Nola elkarlotzen dira bertan mendiaren iruditegia klasikoaren eta hiri-bazterreko paisaiaren geruza kulturalak eta sinbolikoak?

Horrelako galderak eta ondorioak bildu dira literaturaren berrikuspenaren eraginez. Hurrengo lerroetan, galdera eta erronka horiei ikerketa honek aurre egiteko duen ahalmena eta lan-ildoaren interesa aipatuko da.

5.7.2 Ikerketaren interesa

Bazterreko Paisaiaren kontzeptualizazioan ikuspegi objektibo eta subjektiboen arteko eztabaida dialektikoaren ordeztu, bien arteko begirada komun bat osatzeko elkarriketa inter-subjektibo bat proposatzen da. Honek, bazterreko paisaien inguruko jakintza osatzeaz gain (Jones, 2003; Swaffield, 2006), etorkizunerako baliagarriak diren ideiak biltzeko eraginkorra ere izan nahi du.

Tesiak, era berean, Bazterreko Paisaiaren bilakaeraren ulermen sakonaren eta irudikapen berriak bilatzeko eta sortzeko premiari erantzun dio, hainbat autoreek (Gallent et al., 2006; Nogué, 2010; Roger, 2007; Shoard, 2000; T. Sieverts, 2003a) nabarmendu duten bezala, paisaia hauekiko atxikimenduaren eta ahaleginen indarren bidez diseinu eta plangintza kontestualago bat lortu ahal izateko.

Hiriaren edota honen ertzaren edo mugaren konkrezio bakunaren ordeztu, hiri bazterreko geruza formal, material, sozial, ideologiko, hautematezko, arkitektoniko eta beste atal anitzeko osaera onartuko duen ikuspegi konplexu eta barneratzaile batekin abiatzen da tesia. Hots, alde batetik, diziplina administratibo eta urbanistikoa hiriaren ertz bat existitzen dela onartzen da, baina aldi berean, planeta osoaren gain hedatu den behar eta demanda “hiritarrek” suposatzen duten zabalpen urbanoa ere onartzen da.

Horren harira, hiri ertainen erduen ikerketak Bazterreko Paisaien ezagutza zabalagoari eta konkretuagoari egin diezaiokeen ekarpena aintzat hartu beharra dago, eta horretan lagunduko duen tesi bat osatu egin nahi da, tresna nagusi gisa interpretazioa eta tokian tokiko informazioa erabiliz. Alegia, paisaia urbano orokor eta unibertsala iradokitzen duen Urbanizazio Planetarioaren paradigman (Brenner & Schmid, 2011) aurrean, edo hiri eta natura, edo hiri eta nekazaritza eremua zorrotz banatzen dituen paradigma positibista eta teknikoaren aurrean, batetik konkretuagoak diren berezkotasunak landu nahi dira (Ipsen & Weichler, 2005; Schmid, 2005), eta bestetik, hibridoagoak eta heterogeneoagoak diren nahaste eta elkartruckerako bazter—eta ez mugak—ikertzen dira. Paisaia hiritartu homogeneoaren aurrean, geografiak eta topografia konkretuek sortzen dituzten etenen ezaugarri materialen, arkitektonikoen, kulturalen, ideologikoen ezagutza aldarrikatzen da. Geografiak suposa baitezake, hein batean, hirien eta kulturen arteko ezberdintasunaren kaxa. Tesi honek aukera horri heldu nahi dio.

Gainera, Bazterreko Paisaien izaera kulturalaren azterketa sakonagoaren premia, haren historiaren eta istorioen azterketaren bidez balioztatzea bilatzen da. Honekin lotuta, Natura

antropogenikoaren bilakaera aztertzen da, hark eskaini ditzakeen ekosistema zerbitzuak landu ahal izateko hasierako interpretazio bat eginez.

Hori guztia dela eta—bazterreko paisaien irudikapen berriak, hiri bazterren berezitasunen bilaketa, eremu baztertuen ikerketa, geografaren eraginez eraikitako izaerak, natura eraldatuen eta kulturizatu kaltetuen eraginak—Bazterreko Paisaia Menditsu baten berreraikuntza paisajistikoa egiteko lanaren beharra aldarrikatzen da. Bertan nahasten diren mendiaren, naturaren, nekazaritza munduaren baita hiriaren imaginario kulturalek paisaia hori nola eraiki duten jakiteko, eta paradigma ekonomiko eta ekologiko berrien egoeran etorkizuneko lanerako ikuspegi berriak diseinatu ahal izateko.

5.7.3 *Testuinguru teoriko orokorra*

Hori horrela, ikertutako gai bakoitzetik ateratako ideia esanguratsuenen bitartez, hurrengo lerroetan tesiaren oinarritzko baieztapenak zerrendatzen dira. Alegia, ondoren azalduko den ikerketa metodologiaren, eta tesiaren proposamenaren oinarri teorikoa osatzeko baliagarriak diren ideiak.

Paisaia eraikia

Paisaia kontzeptu soziokultural eraiki bat da (Cosgrove, 1998). Eraikuntza hau bi modutan ematen da, fisikoki eta kontzeptualki (Swaffield, 2006; Roger, 2007). Lurraldearen ulerkera eta ulerkera horren proiektzioaren araberrako eraldaketa elkarlotzen ditu paisaiak (Zube et al., 1982). Ulerkera horiek adierazi eta irudikatu egiten dira, hots, hainbat teknika eta adierazpideren bitartez komunikatzen dira (Corboz, 1983; Corner, 1999b); (Corner, 1999b). Gizartean komunak diren paisaiak existitzen dira, baita indibidualagoak direnak edo adituek soilik “ikusten” dituzten paisaiak (Zube, 1982; Jones, 2003; Swaffield, 2007). Ikuspegi inter-subjektiboak eta epistemologia konstruktibista batek, paisaia ulerkera anitzak elkarlotzeko balio dezake, etorkizun komun baten eraikuntza lortze aldera (Jones, 2003; Swaffield, 2006).

Paisaiaren *eraikuntza* izaerak, gizartearen aldaketen eraginpean jartzen du haren osaera, bai materialki zein kontzeptualki ere; hots, paisaiak dinamikoak eta aldakorrek dira, denborarekin “eraitsi” eta berriak eraikitzen direlako (Cosgrove, 1998).

Oinarri hauek ondorengo III. Zatian azalduko den tresna metodologiko nagusian islatzen dira, alegia, Paisaia Ikuspegi Tresnaren egituraketaren baitan. Gainera, Ikuspegi Inter-subjektiboa tesiaren epistemologia konstruktibista orokorrarekin bat dator, ikusiko den bezala.

Hiri hedatuaren eta geruza-anitzezkoaren bazter berezia.

Hiria lurraldean baita munduan zehar hedatu egin da sareen eta balio soziokulturalen hiritartzearen bitartez (Brenner & Schmid, 2011; Lefebvre, 2003; Merrifield, 2011; Schmid, 2005). Era berean, hiria kontzeptu heterogeneo eta geruza-anitzdun bat da, zati askok osatua eta aldagai bakar batekin neurtu eta definitu ezin dena (Gandy, 2012; Marcuse, 2002). Hedadura material zein kultural horren ondorioz, baita hiriaren moldaketa eta garapenaren eraginez, hiria eta bere kontrakoaren arteko muga edo ertza marraztea ezinezko da (Ascher, 2005; Brenner & Schmid, 2011; Choay, 1994; Lefebvre, 1989). Gainera, hiriaren osaera zatikatu eta anitz hori Hiri Bazterrean ere islatzen da hura hainbat adierazle eta ulerkerek osatu egin dutela baieztatu daitekeelako.

Mundializatu egin den hiri horrek ez du hiri eredu bakarraren existentzia adierazten, areago, hainbat hiri mota eta eredu berrien kontsiderazioaren beharra baizik (Robinson, 2006). Horren harira esan daiteke hiri bazterreko paisaien tipologizazio eta azterketa sakonagoa beharrezkoa dela, generiko eta errepikakortasun usteak kritikatzeko, eta tokian tokiko berezitasunak nabarmentzeko (Ipsen & Weichler, 2005; Schmid, 2005)

Hiri Aniztasunaren eta paisaia berezitasunaren oinarrian, elementu geografikoak (Upmeyer, 2014) eta geologikoak (Ellsworth et al., 2013) egon daitezkeela esan daiteke, eta beraz, tokian tokiko berezitasun urbanoak, geografiaren arabekoak direla ere esan daiteke.

Hiriaren eskala hedatua eta egitura geruza anitza, bazterreko paisaien ikerketa kasuan aztertzen diren elementuetan adierazten da; hots, lurralde mailako eta hiri mailako elementuak landuaz, baita gizarte eta kultura aspektu ezberdinetako ikuspegiak aintzat hartuaz. Gainera aukeratu den ikerketa kasuak, Bilboaldeko mendi magaletako paisaiak, oinarri geografikoak bazter gisa duen eragina eta sortzen dituen paisaia berezitasunak aztertzei aukera ematen du. Paisaia kultural berrituak eta Natura Antropogenikoaren Ekosistema Zerbitzu kulturalak.

Berezitasun geografiko horiek, paisaia kulturalen oinarritzko irizpideekin zerikusia dute, tokian tokiko ingurumenarekin garatu den harreman kulturalak eragindako benetakotasun eta ezberdintasunak islatzen dituzte. Baldintza hau hiri bazterreko paisaien kasuan ere bilatu nahi da, aipatu den geruza aniztasun eta geografiaren kontsiderazioaren bitartez.

Gainera, naturaren egoera eraldatua eta hibridoa onartzen da, baita honek, Paisaia Ekologiaren ikuspegitik, eskaini ditzakeen ekosistema zerbitzu kulturalak ere aintzat hartzen dira. Azken bi hari hauek ez dira zuzenki islatuta ikusten tesian, baina zeharka ageri dira. Izan ere, ikerketa kasua analizatzerakoan, aukeratzen diren natura-elementu baliotsu estandarrez gain, beste egoera kutsatu eta kaltegarriak ere aintzat hartzen dira, eraldatutako naturaren adibide gisa. Era berean, ekosistemen zerbitzuak zehazki landuko ez badira ere, horrela

kontsideratuak izateko gai edo onargarriak diren elementu, egitura eta balioak bilatzeko saiakera egin da, HBParen izaeraren osagarriak direla suposatzen baita.

Mendi Paisaia eraikia eta hiritartua

Premisa hau ikerketa kasuak islatzen du, baita bere izaera hiritartua ere. Izan ere, kasu honen berezitasuna da mendia hiritartua eta hiritik fisikoki oso gertu dagoela, nahiz maila kontzeptuarean distantzia hau modu askotan erlatibizatzen den. Bi eremu ustez bereizien arteko nahasteak sortzen dituen egoera ezberdinak aztertzen ditu tesiak.

6.0. ATALA. Testuinguru metodologikoa

Atal honetan aurreko kapituluak bildutako oinarri teorikoen arabera ikerketa proposamena osatzeko egitura metodologikoen oinarriak azaldu egingo dira. Horretarako, tesiaren estrategia eta epistemologia orokorra azaldu egingo dira lehenengo, ikerketaren bideorriaren testuinguru nagusi gisa emanak. Ondoren, tesi honetan jarraitu den eta proposatzen den metodologiaren atal bakoitzaren lan aurrekariaren ereduak aurkeztuz osatuko egingo da testuinguru metodologikoa.

Paisaiaren ikerketa konstruktibisten lan aurrekariak aurkeztuko dira, tesiak proposatzen duen tresna hermeneutiko edo interpretatzaile nagusia den Paisaia-Ikuspegi tresnaren aurrekari gisa. Bestalde, geruza anitzen, edo Ikuspegi anitzen bidez egindako paisaia baztertuen hiru azterketa eredu ere aurkeztuko dira.

Paisaiaren interpretazio eta analisi metodologikoa batzuk azalduko dira gero, kontestu teoriko, praktikoa eta akademikoan erabiltzen diren zenbait eredu azalduz, eta, hemen proposatzen den metodoarekin alderatuz. Erabili diren ikerketa tekniken bestelako ereduak ere aipatuko dira. Hots, Hiri Bazterreko Paisaia, edo Paisaiaren ulermenerako landa lana erabili duten ereduak aipatuko dira. Era berean, interpretazioa erabiltzen duten artxibo lanen ereduak aipatuko dira: diskurtso analisia, ikonologia, ikonografia eta historiografiaren bitartez egindako paisaiaren inguruko zenbait ikerketa adibide erabiliko dira horretarako.

6.1 Ikerketa Testuinguru Orokorra

Edozein ikerketak, estrategia orokor eta kontzeptual baten beharra dauka. Eta, estrategia nagusia, bi alderdik osatzen dute (Deming & Swaffield, 2011):

1-Postura epistemologikoa edo mundua/errealitatea ulertzeko modua, hots ikerketaren jakintza oinarrien izaera.

2-Ikerketaren norabidearen eta testuinguru teorikoen arteko harremana edo estrategia orokorra:

Epistemologia konstruktibistak metodologian duen eragin nagusia ikerlariaren eta ikergaiaren arteko loturaren onarpena da. Hots, ikertzen den fenomenoaren interpretazioan ikerlariaren ikuspegiak ere zeresana izan ohi duela (Deming & Swaffield, 2011). Hemen, harreman hau, ikerketa kasuarekin ikerlariak duen loturaren eta ezagutzaren bitartez gorpuzten da.

Bestelako inplikazio metodologikoez, teoriaren oinarrietan esan bezala, paisaiaren interpretazioa egiterakoan gizartearen eraikuntza prozesuek garrantzi berezia hartzen dute (Swaffield, 2006). Hots, ikerketak ezin du paisaia modu enpiriko eta urrunetik soilik aztertu, ezta norbanakoen esperientzia subjektiboen arabera soilik ulertu ere (Swaffield, 2006).

Bestalde, estrategia abduktiboaren arabera, tesiarekin ez da errealitate/paisaia bat deskribatu nahi irizpide teoriko batzuen arabera, ezta teoria bat osatu paisaia batetik abiatuta (Schöbel-i aipamena Deming eta Swaffield, 2011). Beste modu batean, teorian existitzen den eta praktikan ere nabaria den errealitatearen artean atzera aurreko joko batek gobernatzeko du ikerketa erreflexiboa den prozesu batean (Deming & Swaffield, 2011). Hots, teoria konstruktibistaren irizpideak, paisaia konkretu batekin konbinatzen ditu, praktikan balizkoa izan daitekeen interpretazio metodo bat osatzeko. Metodologikoki, ikerketa teknikak suspertu egiten dira lana aurrera doan bezala, helburuarekin hobekien bat egiten duen bidea doituz. Hau da, ikerketa arazoari edo helburuari egokien lerratzen zaion iretenbidea edota norabidearen aplikazioan datza estrategia abduktiboaren funtsa.

6.1.1 Epistemologia konstruktibista

“Not only is knowledge about landscapes socially constructed, but also is ‘landscape’ itself.” (Swaffield, 2006:23)

Lehenengo dimentsioari dagokionez, honek ikerketaren kokaleku epistemologikoa zehazten du. Hots, ikertzen den errealitatearekiko, fenomenoarekiko, egoerarekiko, objektuarekiko nolako lotura du ikerlariak? Paisaia “hor kanpoan” dagoen zerbait al da, objektiboki aztertzen dena? ikertzaileak zein lotura du harekin, estua ala distantziaduna? Hirugarren aukerak, konstruktibismoarenak, errealitate horren izaera soziala azpimarratzen du. Hots, teoria konstruktiboak aintzat hartzen duen errealitateaz ari gara, gizarteak eta kulturak moldatua eta *eraikia dena* (Sandywell, 2008) eta hortaz gizarte begirada anitzak onartzen dituen, eta ikerketa prozeduretan, ikerlariaren harremana eta jakintza aintzat hartzen duena. Paisairen jakintza sortzeko helburu duen joera honi, inter-subjektiboa esaten zaio (Jones, 1991; Swaffield, 2006). Atzenengo kasu honetan, ikerlaria errealitatearen parte ere bada, eta bere esperientzia nahiz jakintza pertsonalek gizarte eta kulturaren eraginak moldatuak direla onartzen da. Gainera, hauek ikerketarengan izan dezaketen eragina ere onargarria da (Deming & Swaffield, 2011).

Zerbait baieztapen egin daitezke konstruktibismoaren harira. Hasteko, epistemologia honek jakintza osatzeko metodologia konkretu bat aurreratzen du. Hots, hainbat ikuspegi ekarpenaren eta horrek suposatzen duen konplexutasuna onartzen du (Creswell, 2009). Izan ere, errealitatearen izaera eraikiaren onarpenak jakintza gizarteak sortzen duela adierazten du, eta horren arabera, errealitateak edo “naturak” gizarte prozesuak eta praktikak pairatzen ditu bere eraikuntzan (Sandywell, 2008). Beste modu batean esanda, eta paisaiaren kasu

konkretura ekarriz: Paisaia (errealitatea) gizarte interakzioen ondorio bat da, paisaia agente batzuen eraikuntza da eta gizarte produkzio jarduerak eraikitakoa da, eta, paisaiari buruzko sinisteak tokian tokiko zehaztapenak dituzte eta kulturaren arabera eraikiak dira (Sandywell, 2008). Hau literaturan adierazita ikusi dugu paisaia “ikusteko modu” gisa (D. E. Cosgrove, 1998), fisikoki eta kontzeptuarki artealizatua (Roger, 2007) eta joera inter-subjektiboaren bitartez hobeki kudeatua (Jones, 1991; Swaffield, 2006) dela esan denetan.

Hortaz, epistemologia konstruktibista edo subjektu-artekoa jakintzaren sorkuntza objektibistaren eta subjektibistaren artean kokatzen da (Swaffield, 2006). Esan daiteke epistemologia objektibistak mundua hor kanpoan ikusten duela eta ikerlariaren iritziak ez duela inplikaziorik ikerketan. Bestetik, epistemologia Subjektibista ikerlariaren papera aintzat hartzen da eta bere ikuspegi baliagarria da ikerketan. Ordea, epistemologia Subjektu-artekoak/Konstruktibistak mundua gizarte eta kultura kontsensuaren arabera osatua ulertzen du, gizarteak hartzen dituen erabaki materialen arabera, ikerlariak mediatzaile edo zubigile lanak egiten dituelarik (Swaffield, 2006).

8 Taula Ikerketa estrategiak (Deming & Swaffield, 2011, p. 9)

	Inductive (theory building)	Reflexive (theory/practice interactions)	Deductive (theory testing)
Objectivist strategies	Description	Modelling and correlation	Experimentation
Constructionist strategies	Classification	Interpretation	Evaluation and diagnosis
Subjectivist strategies	Engaged action	Projective design	Logical systems

Horren arabera, paisaiari buruzko jakituria (edo beste errealitate bati buruzkoa) ikerlariaren eta bere gizartearen, eta paisaiaren arteko interakzioak sortzen du. Hots, paisaia hor kanpoan dagoen errealitatea da, baina ikerlariak duen aurre-jakintzak ere beharrezkoak dira hura ezagutzeko. Ikerlariak beraz, postura epistemologiko, ontologiko eta metodologiko kontestuala eta eraikitzailea dauka paisaiari buruzko ikerketa konstruktibista batean.

Gizarte-konstruktibismoaren postura hainbat modutan erabiltzen da ikerketan:

- 1-Testuinguru teorikoak ezartzeko: paisaia gizartearen eta kulturaren konstrukzio bat dela baieztatuzko, eta eraikuntza horretan parte hartu duten hainbat ikuspegi aintzat hartzeko.
- 2-Ikerketa-estrategia eta ikerketa-proposamen gisa: paisaiaren interpretazioa eta balorazioak garatzeko tresna erabilgarri bezala, hots, Ikuspegi Tresna diseinatuzko.
- 3-Aukeratu den ikerketa kasuaren informazioa biltzeko eta bere interpretazioa egiteko, ikerlariaren ezagutza eta irizpideak eraginda.

4- Tesiaren helburua lortzeko, alegia, paisaia eraikuntza anitzen arteko etorkizuneko egoerak sustatzen dituen paisaiarekiko begirada subjektu-arteke bat garatzeko.

6.1.2 Estrategia abduktiboa

“Abduction, then, is the method of assembling methods [...] eventually forming a more-or-less coherent methodology that can be applied when working in situations with similar issues and landscape type” (B. Davis, 2014)¹⁶

Ikerketaren ibilbidea zuzentzen duen dimentsio estrategikoari dagokionez, bazterreko paisaiaren izaera kualitatiboa nola ezagutu eta ezarri daitekeen asmoz egin den ikerketa honek, ez du zentzu hertsia batean bide induktiborik edo deduktiborik jarraitu. Esan bezala, ikerketa induktibo batek, errealitatearen behaketa enpirikoaren bitartez egi bat, teoria bat sortzen du normalean. Ordea, izaera deduktiboko lan batek, normalean, teoria bat frogatzeko nahia izaten du (Deming & Swaffield, 2011), ondorio bezala teoriari kontraesana edota baieztapena eskainiz.

Aukeratutako bidea abduktiboa edo erreflexiboaren (Deming & Swaffield, 2011) bitartez, errealitatea (bazterreko paisaiaren kasu konkretua) eta teoria (paisaiaren eraikuntza soziokulturala) elkarlotzeko joera izan da nagusi. Beste modu batera esanda, ez da paisaia kasu zehatza bat erabiliaz egia edo teoria bat eraiki, bide induktiboak aginduko lukeen bezala. Ezta ere, ez da paisaiaren izaera ezagutzeko ezarria dagoen teoria bat frogatu nahi izan paisaia konkretu bat erabiliz joera deduktiboa jarraitu izan balitz bezala.

Tarteko bideak, errealitatearen datuak eta teoria konkretu batzuk abiapuntu hartuta, atzera-aurrerako bide erreflexibo batetik joan ohi da (Deming & Swaffield, 2011). Hots, abiapuntuko oinarri horiek bidean aurrera joan ahala frogatu, ezeztatu, baieztatu eta berreraiki egiten dira. Oinarrian, indukzioak datu enpirikoen bidez zer edo zer *izan behar dela* dio; dedukzioak, teoriaren bitartez zerbait *ezinbestean badela* esaten du. Ordea, abdukzioak, zerbait *izan daitekeela* hobesten duela argudiatzen da (Pierce-i aipamena Schöbel, 2006). Hein batean, bide hau sortzaileagoa da, izaera askeagokoa (Schöbel, 2006), baina ez horregatik errazagoa.

Esan daiteke, estrategia Deduktibo batek, HBPei buruzko teoriak eta baieztapenak oinarri hartuta Bilboko HBPen izaera teoria horien kontra frogatuko lituzkeela. Ordea, estrategia Induktibo batek, Bilboko HBPaik ikertuko lituzke eta deskribapen bat egingo luke, ezarrita dauden metodologia batzuk erabiliaz. Kasu honetan, estrategia abduktiboak, Bilboko HBPaik erabiltzen ditu HBPen berezko izaerak bilatzeko metodologia proposamen bat osatzeko froga-gune gisa. Hala, ikerketa egin ahala suspertu egin den metodologia bat aurkeztuko da,

¹⁶ “abdukzioa, hortaz, metodoak elkarlotzen dituen metodoa da...azkenean nolabaiteko metodologia koherente bat osatzen duena eta antzeko arazoak dituen egoera eta paisaia tipoetan aplikagarria dena”

ikerketa tresna konkretu baten proposamenaren—Ikuspegi Tresna—bitartez eta bi Eszena nagusitan gorpuzten dena.

Azken finean, estrategia abduktiboaren bitartez, metodo induktibo zein deduktiboak erabiltzen dira, esan bezala, arazoari (hiri bazterreko paisaien izaeraren ulermena) irtenbide hoberena ematen dion emaitza lortzen den arte. Horretarako, bidean hainbat hipotesi formulatu dira eta horien araberako metodoak aplikatu dira.

Inplikazio metodologikoei dagokionez, metodo interpretatzaileen eta hurbilketa espekulatzailearen erabilera dira hiri bazterreko paisaiaen izaera ulertzerakoan.

Honenbestez, Epistemologia eta Estrategia testuinguru nagusia zehaztuta gelditzen da. Inplikazio nagusiak, paisaiaen ulerkera konstruktibista, eta metodologiaren osaera konstruktibista eta erreflexiboa dira. Hots, metodoak teoria eta errealitatea enpirikoaren arteko zubia egingo du, eta era berean, errealitatea enpiriko horren ontologia eraikia onartzen du.

Literaturaren errebisioan jasotako oinarri teorikoek, ikergaiaren inguruko jakintzaren mugak ezartzen ditu. Horien arabera, eta konstruktibismoaren ikuspegitik beti ere, hura interpretatzeko hainbat teoria daudela frogatu da. Teoria horiek tesiak proposatzen duen interpretaziorako tresnaren aurrekariak dira aztertzen dituzten paisaia-adierazleei dagokionez. Hurrengo atalean aurreko lan horiek aztertutako adierazleak aipatuko dira.

6.2 Analisi eta interpretazio eredu konstruktibistak

Paisaiaen eraikuntzari buruz hainbat lan burutu dira, eta iturri gehienak geografia kulturalaren jakintza-esparruan topatu egin dira. Paisaia modu konstruktiboan ikertzeak, hura eraiki duen gizartea, eraikuntzaren irudikapena eta irudikapenaren eta gizartearen araberako eraldaketak aztertzea suposatzen du. Nolabait, Martin Zubek (1982) proposatutako eredian azaltzen diren hiru elementuak—paisaia, behatzailea, hautematea—dira behin eta berriz errepikatuta azaltzen direnak. Hona hemen zenbait eredu esanguratsuetako adierazle nagusiak.

Denis Cosgroven (1998) paisaia ideiaaren baitan funtsezko elementuak dira lurraldea, behatzailea, behatzailearen testuinguru sozioekonomikoa eta begiratzeko modua edo bitartekaritza teknologikoa. Hartara, berezitu egiten ditu bi behatzaile eta ikusteko modu nagusi testuinguru sozioekonomikoen araberakoak: barnekoa den nekazaria tradizio feudalaren arabera lurra lantzen duena eta kanpoko behatzailea zeinak lurraren jabe kapitalista eta *perspektiba* errenazentistaren arabera paisaia ikusten eta irudikatzen duena (Cosgrove, 1998). Era berean, paisaiaen ideia garapena adierazteko, ekonomia kapitalistari dagozkion beste bi begirada mota edo paisaia ideia bereizten ditu: objektibista zientifikoa eta subjektibista estetikoa. Azken hauek, biak dira kanpokoak beraien begirada iragazita dagoelako zientziaren

edota estetika artistikoaren eraikuntza epistemologikoen arabera. Gainera, paisaia hautemateko modu horiek gizarte garaikide kapitalistan guztiz banatuak daude, ezin baita lurraldea aldi berean barnetik eta kanpotik atzeman, ezta aldi berean modu subjektiboan eta objektiboan hauteman ere. Cosgroven (1998) lanak batez ere Berpizkundetik garai modernoak barne hartzen dituen denbora tarteko feudalismotik kapitalismorako trantsizioaren garapenean-- paisaia ideia eredu anitzak agentziarekin (herrialde ezberdinetako idazle, artista eta gizarteak) eta irudikapenekin (literatura, mapak, margoak) lotzen ditu, ideiak sortzen dituen elementu eraikiei arreta gehiegirik eskaini gabe.

Alain Rogerrek (2007) ere bi modu bereizten ditu paisaiaren ideia eraikitzeke, kasu honetan elkarlotuta daudenak. Hots, paisaia ideiarene eraikuntza bikoitza da, hots bi begirada motak osatzen dute paisaia: *in visu* begiradak, eta *in situ* ekintzak (Roger, 2007). Lehenengoak urrutiko edo eraikuntza abstraktu eta kontzeptuala adierazten du, diseinu, deskribapen, planifikazioarekin du zerikusia. Bigarrenak, paisaiaren alderdi fisikoarekin du zerikusia eta honen eraldaketa material eta konkretuekin. Horretarako, paisaiaren eraikuntza literaturaren bide eta artearen bidez aztertzen du batik bat. Rogerren *artealizazioaren* teoriak paisaia modu generiko eta orokorrean lantzen du, paisaia konkretu bakar bat sakonki landu beharrean.

Reyner Banhamek (2001) Los Angeles lau ekologietan oinarritutako interpretazioan ere ageri dira paisaiaren 4 ideia zehatz, egilearen Los Angelesko interpretazioen arabera zehaztua. Hots, *the Foothills* (Mendi-oinak), *Surfurbia*, *Plains of Id* (Id-aren Lautadak) eta *Autopia* izenekin adieraziak. Lau ideia bakoitzaren baitan subjektu edo perfil sozial konkretu bat ageri da, paisaia horiek (ekologiak Banhamen hitzetan) eraiki dituen komunitatea edo norbanakoa. Irudikapenaren alderdia kanpoan geratzen da Banhamen (2001a) diskurtsoan, eta eraikitako elementuen inguruan (arkitektura eta garraio azpiegiturak) osatzen du bere interpretazio historikoa.

9 Taula Rayner Banhamen Los Angeles hiriarren interpretazioa lau ekologien bidez.

Los Angeles	Surfurbia	Foothills	Planes of id	Autopia
Type of land and specific materialities and cultures	Coastline and beach culture	Hillside, landform building and architecture on slopes	Urban grid, uniformity, everyday architecture	Highways and car culture; highways as geomorphologic

Azkeneko ereduak ere, paisaia modu generikoan aztertzen du eta haren eraikuntza hiru oinarriko interakzio baten bidez ulertzen du. E.H. Zubek (1982) paisaiaren hautemate prozesua eta prozesuaren eragina gizakiaren, hautematearen—paisaia ideiarene—eta elementuen arabera egituratzen du. Ikerketa lan honetarako baliagarriak diren bi ideia nagusi topatu dira

Zuberenean: batetik hiru dimentsioz osatzen den paisaiaren definizioa, modu sistematikoan eta analitikoan banatuak, eta, bestetik, hiru atalen arteko interakzioa edo elkar eragina. Labur azalduta, paisaia sortu eta egiten da gizakiak lurraldea hautematen duen moduak sortzen dituen elementuen eraginez. Eta, berriz ere birsortzen da eraldatutako lurralde hori berriz ere gizakiak hautematen duenean eragiten dituen elementu eta ideia berriei esker (Zube, 1982).




Fig. 1. Model of landscape perception.

2. Irudia Zube, Sell & Taylor-en eredia paisaia hautemateko, hiru dimentsioen interakzioan oinarritua: Gizakia, Paisaia eta Emaizak

Adierazi nahi da hemen modu sistematikoan konbinatuta azaltzen diren aspektuak ez direla horrela bilduta beste lan batzuetan aurkitu. Agertzen direnean, ez dira banatuta analizatzen, nahastuta baizik, eta gainera, ez dira paisaia interpretatzeko tresna hermeneutiko gisa proposatzen, paisaia teoriak eraikitzeke baizik. 7. Atalean aurkeztuko den Ikuspegi tresnaren oinarritzko egiturak barne hartzen ditu lau atal nagusiak, ikusi den bezala paisaiaren teoriarik askotan azaltzen zaizkigunak. Hots, paisaiaren ideia edo Ikuspegia, Ideia horren atzean dagoen Agentzia edo bultzatzaile konkretua: norbanakoa edo subjektu taldea. Hirugarren adierazlea ideia zabaltzeko egiten den Irudikapenari dagokio, hots medio grafiko edo idatzien bidez egiten dena plano, mapa, edo testuari. Azkenik, lurraldea bera osatzen eta eraldatzen dituen Elementu eraikiak edo egoera planifikatuak analizatzen dira. Hauek paisaiaren ideien edo Ikuspegiaren arabera diseinatu eta pentsatuak daude.

6.3 Paisaia hiritartuen interpretazioak ikuspegi anitzen bidez

Hiriaren analisisian ikusi den bezala, hura munduan zehar hedatua egoteaz gain—horrek hiri-landa mugaren deuseztapenean dituen inplikazioekin—zatikatua, geruza anitza eta ezberdintasunez osatua dela esan daiteke (Marcuse, 2002), hainbat adierazleren bidez

definitua (Gandy, 2012). Palinpsestoaren ideiak ere ikuspegi hori onartzen du; lurraldearen gaineko eragin ugariaren parte hartzea jorratzen delako, baita parte-hartzaile bakoitzaren trazak interpretatzeko saiakera egiten delako ere (Corboz, 1983). Hortaz, Hiriaren eta Paisaiaren teoriak konstruktibista modura ulertu daitekeen—baita post-estrukturalista ere—den begirada anitz baten ereduak aurreratzen dituzte, konplexutasun eta geruza anitzeko osarearekin bat datozenak. Geruza anitzeko kontsiderazio hori, hiri bazterraren kontzeptualizaziorako ere erabilgarria dena. Interpretazio konplexu honek lurralde jakin bateko egitura materiala nahiz kontzeptualaren edo irudimenezkoaren geruza aniztasuna eta barneratzailea hobesten du paisaiaren inguruko egi unibertsalen eta idealizazioen ordez, baita errealitatearen ikuspegi hertsi eta unitarioaren ordez.

Ikerketa honetarako esanguratsua izan den eredu bat aipatuko da, Reyner Banhamek 1974an (2001) Los Angelesi buruz egin zuen interpretazio historikoa, alegia. Banhamek hain maite zuen hiria, orduraino inork egin ez bezala omendu zuen, bereziki *Angelinoak* ziren hiri-, arkitektura-, kultura- eta historia-berezitasunak azalduaz. Hau ordea, arkitektura historialaria izanagatik ere, ez zuen metodo tradizional bat jarraituaz aurrera eraman. Banhamek hiria geruza anitza abiapuntuko ideiatzat hartu zuen eta geruza horiek garraio sareak ezarritako trazak zirela onartu zuen, Garraioaren Palinpsesta adiera proposatuz [The Transport Palimpsest]. Ondoren, hiriaren osotasuna bertako geografia oinarri hartuaz banatu egin zuen lau “ekologia” edo ekosistema ezberdinetan: kostaldea, mendixkak edo mendimagalak, lautada eta autobide-sarea. “Ekologia” bakoitzeko arkitektura, bizitza estiloak, kultura bereizgarriak (surflariak, gidariak, artistak, egunerokotasuna etab.) eta bestelako elementuak deskribatu zituen, elementu arrunt bezain deigarriak barne hartuaz (Banham, 2001a). Interpretazio honen ekarpena hirukoitza dela esan daiteke: hasteko maitea ez zen hiri baten irudikapen berritzaile bat egin zuen arrunta zena bereizgarri bihurtuz: gainera, hiriaren objektu arkitektoniko eta eraikiak bakarrik ez eta elementu ukiezinak ere erabili zituen hura deskribatzeko eta ulertzeko. Azkenik autobideak elementu geografikoak bailiran erabili zituen hiriko beste espazio sinboliko bat adierazteko.

Banhamen (2001) ekologiak, paisaia batekin lotu daitekeen giro bat (Lerup, 2000) edota eraikuntza sozial bat direla esan daiteke: gizakiak moldatu duen lurralde baten atzeko oinarritzko ideia edo irudikapena. Los Angeleseko ekologistako bakoitza, gerora definituko diren Paisaia-Ikuspegiaren kontzeptuarekin zerikusia du, geografia berezi bat ulertzeko modu bat, eta elkarren artean, hiriaren edo paisaiaren interpretazio eta irudikapen berri bat egitea posible izan daiteke.

Bestelako eredu eguneratuagoek lurralde eta paisaia eredu geruza anitzak ere lantzen dituzte, eskala ezberdinetan lan egiten badute ere: hiri mailan (Berger, 2006), lurralde mailan (Bölling, 2005; T. Sieverts, 2003a) edota nazio mailan (Diener et al., 2005). Lehenengoak, hiri bazterreko paisaia mota baten tipologizazioa lantzen du; hots, paisaia utzien eta hondakin izaeradunen kasua. Tipo honi *drosscape* izena ematen dio, eta eraikitako elementu sailen—etxebizitza suburbanoa, garraio lotuneak, hondakindegia, komertziogune abandonatuak, eremu isolatu eta arriskutsuak—arabera tipo ezberdinak bereizten ditu Berger-ek (2006), funtsean handitasuna eta utzikeria konbinatzen dituen paisaia mota.

Zwischenstadtaren metodologiaren baitan, paisaiaren adierazle arruntak erabiltzen dira—garraio bideak, nukleo historikoak, lantoki eta bizitokiaren garapen estatistika, espazio publikoak—, baita bestelako elementu osatuak ere: toki eta bide historikoak eta hauen garapena, bizilekuen historia, biziguneetako eta lanerako tokien ingurumena, aldirietako espazio publikoak eta aisialdiguneak. Analisisako elementu horien ondoren, izaera zehazteko toki esanguratsuak, eraldaketa jasaten duten eremuak eta kalitate aldetik potentziala duten eremuak zehazten dituzte (Bölling, 2005).

Amaitzeko, nazio mailan geruza eta elementu anitzen bitartez azterketa egiten duen ikerketa eredu esanguratsuari aipamena, Suitza herrialde hiritartu gisa irudikatzen duen lurralde ereduarena. Ereduaren zati nagusiak bost paisaia edo eremuko tipologia da: eremu metropolitarrak, hiri-sareak, eremu isilak, resort alpinoak eta Alpeetako lugorriak. Tipo bakoitzean, Lefebvreren teorian oinarrituta, Sareak [Networks], Mugak [Borders] eta Diferentziak [Differentziak] jorratzen dituzte (Diener et al., 2005).

Daniel Zarzak (2008) Madril metropoliko paisaiak aztertzen ditu. Berak ere, paisaia konstrukto bat dela eta eremu metropolitarrak “itsusiak” ere paisaia direla esanez abiatzen da (Zarza, 2008). Bere ikerketa galderak lurraldeko historia eta memoriarekin begirunea eta errespetua izango duen etorkizuneko interbentzio planifikatzaileak sortzeko irizpideen existentzia bilatzen du. Abiapuntua, bere ustez, geografia naturalaren identifikazioa litzateke: mendialdea [sierra], basamortu eta landazabalak [páramos y campiñas], eta ibarrak [vegas] (Zarza, 2008:281). Hauek paisaia madrildar jatorrak edo jatorrizkoak lirateke. Horiez gain, historian zehar izan diren beste zazpi paisaia historiko aipatzen ditu egileak, gertakizun konkretuen ondorioz osatu diren paisaiak eta egungoen aurrekari gisa onartzen ditu, besteak beste: Erret-tokietako paisaiak, Autarkia frankista eta monumentalitate faxistaren paisaiak, Modernitate frankistaren paisaiak, Postmodernitatearen paisaiak azpiegitura sare indartsua oinarri duen dispersio suburbanoaren bidez (Zarza, 2008:283). Amaitzeko, hiri hazkuntza espekulatuaren eta hirigintza araudi kaxkarren ondorioz sortu diren hiru paisaia proposatzen ditu: paisaia *ekopastoralak*, paisaia *rurbanoak* eta paisaia *konurbanoak* (Zarza, 2008:285). Horietako bakoitza, hasierako jatorrizko paisaia madrildarrekin elkarrekikotza

dute, hurrenez hurren, mendialdea paisaia ekopastoralarekin, basamortu eta landazabalak paisaia rurbanoekin, eta ibarrak paisaia konurbanoekin (Zarza, 2008).

Lau ekologien bitartez eta geruza aniztasunaren bitartez azaldu eta interpretatu zuen Banhamek goraiamenik lortzen ez zuen hiria. AEBko egungo paisaia arrunten hondakin izaeraren handitasun tipoak lantzen ditu Bergerrek (2006). Europa mailan berriz, paisaia hiritartuaren pieza, elementu eta nolakotasun potentzialak aztertzen dituzte Sievertsen (2003) teoriak oinarri hartuta (Bölling, 2005). Suitzaren kasuan berriz, oinarritzko teoria gisa Lefebvreren urbanizazio totalaren paradigma darabilte herrialdearen eredu urbano bat modelizatzeke, eta hiru adierazle teorikoren bitartez bost paisaia hiritarren tipoak proposatzen dituzte (Diener et al., 2005; Schmid, 2005). Zarzak (2008) Madrileko oinarri geografiko fisikoaren arabeko paisaiak eta historiako une garrantzitsuak batzen ditu egungo paisaien irakurketa bat proposatzeko.

Tesi honetan, Paisaia-Ikuspegia tresnaren bitartez, aurreko lanetan egindako paisaiaren irakurketa geruza anitza egin nahi da. Horretarako, kasu konkretu bat aukeratu egin da, Bilboaldeko mendietako Bazterreko Paisaia. Bi arrazoi nagusik justifikatzen dute paisaia honen aukeraketa: geografiak Bazterreko Paisaiaren izaeraren berezitasunak zehazteko izan dezakeen balioa ikertzeko, eta Bilboaldeko mendiek eremuaren irudimen kulturalen eta iruditegia sinbolikoan duten kokapen *baztertua*.

6.4 Metodo aurrekariaren alderaketa

Hurrengo lerroetan, aurrekariak diren paisaiaren interpretazio eta analisisirako erabiltzen diren bost prozedura metodologikoeekin alderaketa bat aurkeztuko da. Metodoen aukeraketak praxi esparru ezberdinak aurkezten dituzte, teorikoa, plangintza esparru ofiziala, eta akademikoa. Horrela, tesi honetan erabili den metodologia, eta ondore proposatzen denaren parekidetasuna eta elkarkidetzaz aztertzea posible izango dela uste da.

Metodologia horiek Paisaiaren analisi semiologikoa, Paisaiaren analisi generikoa, Paisaiaren izaeraren ebaluazioa, Paisaiaren analisi akademikoa, eta Lurraldearen plangintza adibideak dira, eta beraien prozedurak, teknikak eta analisi datuak tesian erabili direnekin alderatzen dira.

Analisi Semiotikoa eta paisaiaren kudeaketa proiektua.

Paisaiaren analisi semiotikoan hautemateari ematen zaio garrantzia, bai eta paisaiaren irakurketa anitzen existentziari ere. Ingurumen teoriaren arabera gizakiok lurraldea hautematen dugun modura osatzen eta moldatzen dugula esaten da (Busquets, 2009). Hortaz, behatzaile bakoitzak lurraldeari esanahia propioak emateko ahalmena dauka, eta, hura irakurtzeko kode propio bat sortzeko kapazitatea ere bai. Pertzepzio prozesu hau Philippe eta Genevieve

Pinchemelek Eugenio Turrirekin batera osatutakoa hurrengo taulan laburtzen da, eta paisaiaren kudeaketa proiektu baten faseekin elkarkidetza zuzena du (Busquets, 2009).

10 Taula Pinchemel eta Turriren ereduaren, eta Busquetsek Paisaiaren Kudeaketa Proiektu bateko pausuen arteko elkarkidetza (Busquets, 2009).

PAISAIAREN HAUTEMATE PROZESUA [P. eta G Pinchemel eta Eugenio Turri (1998): <i>Il paesaggio come teatro. Dal territorio vissuto al territorio rappresentato</i> , Marsilio Editorio, Venezia, 170.or]		Paisaiaren kudeaketa prozesua (Busquets <i>El análisis semiótico del paisaje</i>)
Munduaren ikustea →	<i>Irudi landu-gabea</i>	Lurraldearen mugatzea
Munduaren ikuste aukeratua: hautematea eta identifikatzea →	<i>Irudi aukeratua</i>	Datuak Jasotzea
Birkonposaketa; hauteman denaren arabera Irudi-kapena →	<i>-Irudi netoa</i>	Irakurketa eta irudikapena
Bizitako esperientziaren eta balioen arabera Ideiak, balioztatzeak, hautematea baloratua →	<i>Irudi baloratua</i>	Balorazioa
Jarrerak eta jokabideak →	<i>Irudi proiektatua</i>	Proiektzioa
Erabakiak. Ekintzak (politikak) →	<i>Irudi prospektiboa</i>	Planifikatzea

Prozesu bi horien arabera, hasierako irudi konplexu eta heterogeneoaren pertzepzio eta analisi xehatuaren ordeztu, landuko diren elementuen aukeraketa bat egin ohi da, bai giza hautematearen prozeduran eta komeni denez, paisaia kudeaketa proiektu batean ere. Irudi edo ikuste aukeratu horren arabera, irudikapen garbiago bat sortzen da, hots azkenburuko lurraldearen interpretazio bat. Hurrengo pausuetan, balorazioak, proiektzioak eta prospektzioak edo planifikatzea Garatzen ohi dira Irudi Neto edo Interpretazioaren arabera.

Paisaiaren izaeraren Ebaluazioa

Paisaiaren izaeraren zehaztapena da teknika honen helburua eta Britainia Handiko Ingurumen Ministerioaren menpe dauden lau herrialdeetako Ingurumen Sailek erabiltzen dute beraien lurraldeko paisaia-izaera tipoak eta paisaia-izaera eremuak zehazteko. Teknika Ebaluatzaile honek bilatzen duena da plangintzarekin zerikusia duten erabakietarako erabilgarria den paisaia-irakurketa eta ebaluazioa da (Swanwick & Land Use Consultants, 2002).

Ebaluazio Teknika adituak direnek aurrera eramaten dituzten Sei Pausu nagusitan egituratua dago. Pausu bakoitzean baina, interesdunen [stakeholder] ekarpena egiteko abagunea proposatzen da, eta prozesua iteratiboa da; hots behin eta berriro errepikatu daiteke (Swanwick & Land Use Consultants, 2002) Hurrengo taulan Pausu bakoitzean aztertzen dena eta erabakitzen dena laburbiltzen da:

11 Taula Paisaia-Izaeraren Ebaluaziorako Metodologiaren jario diagrama (Swanwick & Land Use Consultants, 2002, p. 13) interpretatua.

Pausuak	Eginbeharrak	Emaitzak
1-Aztertuko den eremuaren eta arloen mugak ezartzea	Helburuak, eskala eta xehetasun maila, behar diren baliabide eta pertsonak, eta interesdunen ekarpenarako arloa zehazten dira	
2-Mahaigaineko Azterketa	Faktore naturalak (geologia, morfologia, drainatzea, lurzorua, landare estaldura) eta soziokulturalak (lurzoru erabilera, asentamenduak, partzelazioa, bilakaera)	Paisaia-izaera tipoen edo/eta eremuen zirriborroa
3-Landa lana edo landa azterketa	Aspektu estetiko eta pertzeptiboak, hautematen den izaera, egoera, sentsibilitate joerak.	
4-Sailkapena eta Deskribapena	Paisaia-izaera tipoak eta eremuak irudikatzeko mapa, paisaia-izaera tipoen eta eremuen deskribapena, oinarritzko ezaugarrien identifikatzea	
5-Iritziak edo epaiak egiteko irizpideen erabakia	Erabakien abiapuntua eta irizpideak, beste frogatik batzuen ikerketa, Landa-laneko oharrak.	
6-Epaiak edo Iritziak ematea		Paisaia hobetzeko proposamenak, plangintza politikarako informazioa, paisaien aintzatespen berezia, paisaia estrategia eta gidalerroak, hiri edo landa garapenaren baitako kokapen eta diseinu proposamenak.

Allgäu eskualdeko paisaiaren analisisa eta energia-paisaia berriaren diseinurako.

Allgäu eskualdeko (Bavaria eta Baden-Württemberg, Alemania) paisaia analisi baten ereduaren bitartez ilustratuko dugu LAREG¹⁷ unibertsitate departamentuko ikerlari eta ikasleek paisaia izaera zehazteko darabilen analisi eta ulermen metodoa. Kasu konkretu honen helburua, paisaia kultural baliotsu eta maitatu horretan parke eolikoaren ezarpenerako paisaia eta plangintza irizpideak bilatzea zen (Schöbel-Rutschmann, 2013). Izan ere, Alemaniak energia burujabetzaren bidean, energia sorkuntza teknika berriztagarrien aldeko apustu irmoaren aurrean, horrelako irizpideen metodo eta teknika berrien beharra azaleratu da. Analisi metodo honek, John Brinckerhoff Jacksonen paisaia bernakuluen ulermen teoriakin zerikusia duela esan daiteke, generikoak diren datu eta trazak biltzeaz gain, tokian tokiko elementuak ere biltzen dituelako, horien jatorri historikoki baliotsua den ala ez aintzat hartu gabe.

Hasteko lurraldearen eta paisaia osatzen duten Elementu Generikoen Analisisa egiten da [Entwerferische analyse]. Datu hauek mapetan biltzen dira, eta gainjarri egiten dira interpretazioak egin ahal izateko. Elementuak hurrengoak dira: ur sistemak, geomorfologia, natura eta eremu babestuak, nekazaritza eta abeltzaintza formak, energia, errepide eta bideak, panoramak eta oztopoak, azpiegitura handiak eta bestelako erabilerak, asentamenduak, turismoa, lurralde mailako eta tokian tokiko instituzioak baita izaeraren adierazleak: toki-izenak, hizkuntza eta dialektoak, lurralde ezaugarriak.

Bigarren pausuan paisaiaren irudikapen berriak sortzea du helburu, ikerketa teknika informal eta esperimentalen bitartez erdiesteko [Experimentelle Analyse]. Teknika horiek sukaldaritza, margolaritza, esku-lanak, analisi grafikoa, collagea, maketak etab dira. Norberak dituen abilezien arabera Allgäu eskualdeko paisaiaren elementuekin eta esanahiekin jolas sortzaile bat burutzen da, amaierako hausnarketa eta irudikapen berritzaileak sortu ahal izateko.

Ondoren, Allgäu eskualdeko Paisaia Elementu Berezien bilduma egiten da [Sammlung Allgäuer Landschaftselemente]. Dokumentazioa landa lanaren bidez eta argazki bidez egiten da. Emaiza elementuon tipologizazio edo sailkapen bat da. Berezoak kontsideratzen diren elementuak, hurrengoak dira: geruza eta materialitate estratifikazio eta trantsizioak, mugak eta hesiak, ukiulu, lastategi eta bestelako nekazaritza eraikin txikiak; auto aparkalekuak, lurraldeko eraikuntza tipikoak, baserri edo landetxe tipoak, herri- eta merkatu-plazak, begiratokiak eta ikusmirak, baso egiturak, larre eta belardiak, elementu geomorfologiko bereziak, bidexka sistema, dike eta errekatxoak, lerroak eta mastilak. Horiek guztiak Allgäu-ko paisaia kulturala irudikatze balio dute.

17 LAREG: LAndschaftsarchitektur Regionaler Freiräume katedra Municheko Unibertsitate Teknikoko [Technische Universität München] Arkitektura eskolako Paisaiagintza Sailaren baitan kokatzen da.

Azkeneko pausua haize errotak ezartzeko diseinu-irizpideen proposamena bera da, etorkizuneko egoeraren ideia sortzaile batzuen edo akaberako bestelako helburu ezberdinen arabera: hazkuntza, kontzentrazioa, energia-lerroak, dualitatea, energia eta gizarte loturak, etab.

Eredu honek hiru pausu nabarmen bereizten ditu analisia eta interpretazioa egiterakoan. Lurraldearen alderdi generikoen azterketa, paisaia elementuekin jolas interpretatzailea edo esperimentalta, eta amaitzeko landa landaren bitarteko analisia berezkoak diren elementuak biltzeko. Metodologia orokorraren oinarrian dago metodoen konbinaketa abduktiboa, eta norabide zuzen eta bakarraren ordez, hainbat erabiltzea. Dokumentazio teknikak, arruntak dira: GIS bidezko datu geografikoen mapagintza analisi generikoan eta argazki bidezkoa landa lanean. Analisi esperimentalaren atalean berriz, plastikaren eremutik datozen teknika ezohikoagoak jorratzen dira eta datu-bilketa subjektiboagoa da.

Bilboaldeko Lurralde Plan Partziala edo Lurralde Zatikako Plana

Plan honek zerikusi zuzena du tesi honek erabiltzen duen ikerketa kasuarekin, horregatik garrantzitsua da berau aipatzea eta aztertzea. Plan honen kritika egitea baino, tesi honen metodologiak antzeko egitasmoekin parekatzeko moduko teknikak proposatzen ditu; hots, prozedura hauen fase analitikoan barneratua edo paraleloan jorratzen den beste analisi metodo bat proposatuz.

Lurralde Plan Partzialak (LPP) EAEko Lurralde Antolamendurako legeak arautzen dituen plangintza instrumentuak dira, Lurralde Antolamendurako Artezpideekin/Gidalerroekin (LAG) eta Lurralde Plan Sektorialekin batera.

Bilboaldeko LPPak, hurrengo dokumentuak barne hartzen ditu: Plana azaltzen eta adierazten duen Memoria, Antolamendu-araudiak, Burutze-Programa eta Ekonomia eta Finantza Azterketa, Gaikako Dokumentuak (Gizarte Espazioa, Testuinguru ekonomikoa, Azpiegiturak, Ingurumena, Hiri-Marketinga, Metropoli mailako zuzkidura handiak, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Jardueren kokapena eta Ingurumen Ebaluazioa), Informazio Planoak, Antolamendu Planoak eta Afekzio-dokumentuak.

EAEko Lurralde Antolamendu Legearen arabera, LPPetan zenbait zehaztapen nahitaez jaso behar dira, eta horiek biltzen dituzte aipatu dokumentuek. Interesgarriena, baina, lurraldearen uneko egoeraren analisiaren, egoera sozioekonomikoaren eta garapenerako dituen aukeren arabeko antolamendu-helburuak zehazteko beharra da. Beste zehaztapenak hurrengoak dira: Azpiegituren kokapen tokiak, Zuzkiduren kokapenak, Hiri antolamenduaren irizpide eta arauak, Eraldaketa, birsortzea eta zaharberritze espazioen definizioa, Etxebizitza eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua kuantifikazioa, eta Lurralde antolamendu

gidalerroetako zehaztapenak garatzeko irizpide, oinarri eta arauak.

Bilboaldeko LPParen Memoriak hurrengo atalak biltzen ditu; Sarrera non planaren aurrekariak, Bilboaldearen egoera, Erreferentziarako Testuingurua eta Planaren Helburuak zehazten diren. Medio Fisikoaren Antolamendua, non LAGan zehazten diren lurzoru ez-urbanorako babes eta antolamendu kategoriak garatzen diren, baita medio Naturaraleko elementu interesgarriak zehazten ere. Ondoren datozen zortzi ataletan, Lurzoruaren kuantifikazioak, Antolamendurako Irizpideak, Azpiegitura eta Zuzkidurak eta Sare Berdearen antolamendu proposamenak azaltzen dira.

Plano sorta bi talde nagusitan banatzen da, Informazio Planoak (I.x) eta Antolamendu Planoak (O.x). Lehenengok, lurraldearen analisiaren emaitzak adierazten dituzte, eta Antolamendu planoek berriz, antolamendurako erabiltzen den Lurralde eredua eta sektoreka proposatzen den antolamendua: ingurumen fisikoa, azpiegiturak, zerbitzuak, sare berdea eta Itsasadar inguruan proposatzen diren Operazio Estrategikoak eta Egitura Ekintzak.

Tesiaren ikerketa metodologia: Paisaia-ikuspegi bidezko interpretazioa.	Lurraldearen Hautemate prozesua (G eta P Pinchemel, eta E Turri) [1]	Paisaia Kudeaketa proiektua (Busquets)	Paisaia izaeraren ebaluazioa (Countryside Agency eta Scottish Natural Heritage)	Gestaltete Energieland-schaft Allgäu (LAREG)	LPP BILBO METROPOLITARRA 2006	
Hiri Bazterreko Paisaiaren kontzeptualizazio teorikoa Literaturaren berrikuspeneren bidez; Paisaia-ikuspegi Tresnaren egituraketa	<i>Munduaren ikustea</i>	<i>Rough Image</i>	<i>Lurraldearen mugatzea</i>	<i>Aztertuko den eremuaren eta arloen mugak ezartzea</i>	<i>Eremuaren eta arazoaren planteamendua</i>	<i>Eremuaren muga (1.1 plano), Planaren aurrekariak</i>
1.Eszena: Datu Bilketa: Landa-lana esploratzailea	<i>Munduaren ikuste aukeratuak: hautematea eta identifikatzea</i>	<i>Selected Image</i>	<i>Datuak Jasotzea</i>	<i>Mahai-gaineko Azterketa</i>	<i>Elementu Generikoen analisia</i>	
Sei Paisaia-ikuspegi Interpretazio espekulatiboa eta Kartografia	<i>Birkonposatzea; hauteman denaren araberako Irudikapena</i>	<i>Net Image</i>	<i>Irakurketa eta irudikapena</i>	<i>Landa lana edo landa azterketa</i>	<i>eta kartografiatze</i>	<i>1.2-1.10 Informazio Planoak: Maldak, Plangintza Sektoriala, Mendi Publikoak, Udal planeamendua, Bizkaiko Errepide plana, Trenbideak, Portua eta aireportua, Zerbitzu azpiegiturak.</i>
	<i>Bizitako esperientziaren eta balioen araberako Ideiak, balioztatzeak, hautemate baloratutak</i>	<i>Valued Image</i>	<i>Balorazioa</i>	<i>Sailkapena eta Deskribapena</i>	<i>Pasaiaren egituraketa</i>	
2. Eszena: Datu Bilketa: Artxibo lana	<i>Jarrerak eta jokabideak</i>	<i>Projected Image</i>	<i>Proiekzioa</i>	<i>Iritziak edo epaiak egiteko irizpideen erabakitzea</i>	<i>Analisi esperimental</i>	<i>Memoriako atalak: 1.2.1 Bilbo gaur: metropoli potentzial bat; 1.2.2.3 Planaren helburuak</i>
Egitura ikusez-inak, joerak, Paisaia-ikuspegi alternati-boak	<i>Erabakiak. Ekintzak (politikoak)</i>	<i>Prospective Image</i>	<i>Planifikatzea</i>	<i>Epaiak edo Iritziak ematea</i>	<i>Irudikapen berriak</i>	<i>Ordenazioa eta Antolamendu planoak eta irizpideak, Lurralde Eredua; O.1-O.4.5. planoak; Memoriako 2-7 atalak</i>
	<i>Area delimitation</i>				<i>Landa lana</i>	<i>Plangintza: Operazio Estrategikoak eta Egitura Ekintzak; O.5 eta O.6 Planoak; Memoriako 3-6 atalak; Araudia; Ekintza-programazioa eta Ekonomia eta finantza Txostena.</i>
	<i>Documentation</i>				<i>eta Elementu bereizgarrien</i>	
	<i>Recomposition based on documents</i>				<i>bilduma tipologikoa</i>	
	<i>Assessment</i>					
	<i>Valuation and direction establishment</i>				<i>Garapen lerro ezberdinak</i>	
	<i>Design / Planning</i>				<i>Diseinua</i>	

Taularen bidez alderaketa bat aurkezten da tesian proposatzen den metodoa eta aztertutako beste bost analisi metodoen artekoa. Batik bat, metodologia bakoitzak jarraitzen dituen fase edo pausuen kodifikazio bat osatu da bertan. Pinchemel eta Turriren ereduiko pausuak oinarri hartuta aipa daitezke: azter-eremuaren mugatzea eta errealitatearen konplexutasunaz ohartzea (laranjaz Irudi landu gabea), errealitateak *behar diren* datuak jasotzea (orlegiz Irudi aukeratua), jasotako datu horren araberrako errealitatearen formulazioa edo irakurketa (morez Irudi Netoa), irakurketaren ebaluazioa eta balorazioa (urdinez Irudi baloratua), etorkizuneko egoeraren irudikapena (gorriz Irudi Proiektatua), eta plangintza edo diseinurako burutze prozedurak (marroiz Irudi Prospektiboa). Ondorengo lerroetan, taula deskribatuko da hiru aldagaien azterketa eginez: prozedurako pausuak, erabilitako teknikak eta bildutako datuak.

Osotasun ulertezinetik irudi aukeratu batetara.

Aztertutako metodo guztiek antzeko pausuak edo faseak erabiltzen dituzte lurraldea aztertzeko. Hala ere, Pinchemel eta Turriren ereduiko pausuen sekuentzia ez da beti betetzen metodologia guztietan; hots, pausuak ezberdin formulatzen dira, sekuentziaren ordena ezberdinak jarraitzen dira, edota pausu batzuk baztertu edo formulatu gabe uzten dira. Hala ere, denen hastapeneko helburua da lurraldearen analisi eta azterketa bat egitea, aukeratutako datuen araberrako interpretazio bat edo ulermen sintetiko bat osatzea, eta horren araberrako ekintzak arautzea edo ekintzarako irizpideak ezartzea.

Taulan ageri den bezala, tesi honetako metodologia bi pausu soilik zehazten dira: datuak jasotzea (orlegiz) eta interpretazioa (urdinez). Alegia, pausuen sekuentzian datuak jaso, interpretatu, 1.go ulermena aurkeztu, datuak jaso eta bigarren interpretazio bat egiten delako. Lehenengo datuak landa lanaren bidez jasotzen dira eta bigarren eszenan artxibo eta dokumentazio prozesuen bidez. Interpretazioak, bestalde, lehenengo datuekin egiten den lurraldearen Ikuspegi bidezko interpretazio espekulatiboa da, eta ondoren 1.goaren osagarria den Paisaia-Ikuspegietakoko dimentsioen Bigarren Interpretazioa egiten da, agiritako edukiaren analisiaren eta interpretazioaren bitartez, nolabait, begi-bistaz ikusten ez denaren interpretazioa burutzeko.

Teknikak

Erabiltzen diren teknikak ere antzekoak direla esan daiteke denetan. Datuak jasotzeko landa lana (argazkiak, fitxak bete, krokis komentatuak) edo agiritagietako dokumentazioa (ikonografia, historiografia, diskurtso analisisa, diseinua, esperimenduak, inkestak); lehen ulermenak egiteko zirriborroak kartografia, mapa egite eta sailkapen edo tipologizazioaren bidez edo analisi esperimentalaren bidez (lurraldeko sinbolo, esanahi eta irudiekin jolastuz) egiten dira; zirriborro horien konprobaketa landa-lan bidez (bereziki *Landscape Character*

Assessment teknikari dagokionez) burutua, eta azken irudi garbia osatzeko testu bidezko deskribapena edo interpretazioa osatzen da. Analisi eta balorazioen ondoren datorren irizpideen ezarpena, diseinua eta plangintza aztertzea ez dagokio lan honi.

Gure kasuan, teknikak generikoak badira ere, tresna nagusia Paisaia-Ikuspegia da. Hasierako datuak biltzeko, landa lana egiten da argazkien, bideoen eta ibilbide georreferentziatuen bidez. Kasu honetan, 1.go datu bilketan eragina du ikerketa kasukoa den ikerlariaren aurretiko jakintzak. Ondoren datorren pausua 1.go interpretazioa deritzona da; hemen azaltzen da Paisaia-Ikuspegi tresna lehengoz. Pausu honetan, ikerketa kasuko paisaia osatu duten Paisaia-Ikuspegi ezberdinak formulatzen dira lurraldearen ulermen espekulazio gisa. Ondoren, Paisaia-Ikuspegi horien araberako lurraldearen irudikapen bat egiten da landa lanean bildutako elementuak adierazten dituzten mapek ilustratuta.

Bigarren Eszenan, datuak biltzen dira berriz ere, baina kasu honetan, Ikuspegiaren araberako paisaia-elementu aukeratu batzuen dokumentuak bilatuz. Dokumentu horiek, Ikuspegi tresnaren dimentsioen arabera aztertzen dira. Hots, Ikuspegiaren Ideia, Agentzia, Irudikapena eta Elementuak aztertuz. Dokumentazio bilketa horren irakurketa bat egiten da joerak eta aldaerak identifikatuz.

Proposatzen den metodoa besteekin alderatuta, datu bilketa egiteaz gain, espekulaziorako aukera ematen duela esan daiteke; hots, paisaiaren interpretazio konkretu bat egiten da, haren izaera objektiboari erreparatu gabe. LAREGen metodo barneko Analisi Esperimentalarena antzeko izaera du lurraldea ulertzeko modu ezberdinen formulazioaren bitarteko interpretazio egiten baita. Espekulazioa eta asmakuntza ahalbidetzen da esanahiekin eta paisaia-elementuekin baita teknika esperimentalez osatua dagoen prozedura jostakorra edo esperimentalarekin. Tesiak, ikusiko den bezala, espekulazioa interpretazioaren bitartez burutzen du, geografian paisaia interpretazio ezberdinak proposatuz. Paisaia-Ikuspegi ezberdinen bidez osatzen den interpretazioak ere analisi kategoriala ezohikoa suposatzen du, objektiboa ez dena, baina bai oinarri sistematikoduna, eta horregatik errepikagarria.

Aztertutako Datuak

Paisaiaren kudeaketa proiektu bat egiteko erabiltzen den prozedurak, lurraldearen analisia eta diagnosis egiteko hurrengo osagaien inguruko datuak biltzea proposatzen du: kokapen osagaiak, geomorfologikoak, sozioekonomikoak, biofisikoak, bisualak, hautematezkoak, kulturalak, eta ekologiko/geografikoak (Busquets & Cortina, 2009). Analisi semiologiko bat egiterakoan, berriz, teknika ikonografikoak erabiltzea hobesten da: kartografiak, irudikapenak, museoetako ondarea, ondare etnografikoa, eguneroko historiak, leku-izenak, literatura eta arte-lanak aztertuz (Busquets, 2009).

Landscape Character Assessment teknikan, Mahaigaineko Azterketa fasean, paisaiaren elementu naturalak zein soziokulturalak biltzea hobesten da (Swanwick & Land Use Consultants, 2002). Ondoren, landa-lanaren bitartez, alderdi estetikoak, hautematezkoak eta sentsibilitate joerak biltzea proposatzen da. LAREG-en (*Energielandschaft Allgäu*, 2013) metodoan bi talde nagusitan banatzen da datu bilketa, eta aurreko metodoetako datu bilketari ere aplikatzea posible izango litzateke: 1.go datu generikoen bilketa bat kartografiaren bitartez analizatzen dena, eta 2. datu bilketa bat landa-lanaren bitartez egina eta tokian tokiko aldaera eta elementu formal bereizgarriak eraikiak zein kulturalak, biltzen dituen.

Bilboaldeko LPPak datu sorta eta sail generikoak biltzen ditu, aztertutako Informazio Planoetan bilduta azaltzen direnak, eta Dokumentu Tematikoetan egiten diren analisisetatik eratorriak direnak. Analisi honen arabera, planaren helburuak eta irizpideak ezartzen dira. Datuak, orokorrak dira, esan bezala, funtzio eta lurzoru erabilerei dagozkienak, baina baita Legezko eta Lurralde Antolamenduko Testuinguruek ezartzen dituzten muga eta aintza hartu beharreko nahitaezko datuak ere. Azken hauek batik bat Medio Fisikoari dagozkio eta honen zaurgarritasuna eta babesa dute helburu: erosioa, uraren kutsadura eta babesa, eremu naturalen babesa etab.

Aurrerago ikusiko den bezala, tesi honetan lurralde-elementu generikoak aztertzen dira baina modu aukeratuan; beste modu batera esanda, Hiri Bazterreko Paisaia bat osatzen duten elementu generikoak aztertzen dira, hots ikusten den ia guztia barne hartzen da: basoak, azpiegiturak, meatzeak, etxebizitzak, industriaguneak, hiri-azpiegiturak etab. Ez da elementu generikoen (LAREGen bezala) edo analisi kategoria (LPPan bezala) ezarri araberako mapa garapen bat egiten. Horren orde, lurraldeko formak eragin dituzten *mendiaren ulermenaren araberako geruzak mapetan antolatzen dira*, elementu generikoen sailen (Ura, Energia, Bideak, Geomorfologia, Nekazaritza etab.) araberako kartografia bat egin beharrean.

Gainera, froga edo materialtasun eraiki eta fisikoak garrantzia badute ere, haren inguruko eraikuntza soziokulturalak nabarmentzen dira tesi honetan. Horregatik erabiltzen da Paisaia Ikuspegi tresna egituratzen duten lau dimentsioen bidezko datu bilketa, batik bat dokumentazio fasean edo bigarren datu bilketan, paisaia osatu duten ideia, agentzia, irudikapena eta proiektatutako elementuak ezagutzeko.

Tesiak proposatzen duen metodologiaren laburpena eta aurrerapena.

Hasteko, Irudi Landugabearen parekidea den pausurako, Literaturaren berrikuspen bat egin da. Horren arabera, bi tresna nagusi definitzen dira: Paisaia-Ikuspegi tresna paisaiaren teoretan oinarri duena, eta Ikerketa Kasuaren zehaztapena, Hiria, Hiri-ertza eta Hiri Bazterreko Paisaien teoriak aintzat hartuta aukeratzen dena.

1.go Eszenak esplorazioa eta hasierako interpretazio bat du helburu. Kasu honetan, ikerlariaren rola garrantzitsua da, eta parte-hartze prozesu batean interesdunek edota bertakoek izan dezaketen iritzi eta jakintzaren parekide aurkezten da. Hots, esplorazioaren eta dagoeneko ezagunak diren datuen bitartez, paisaia hori moldatu duten ideia edo ikuspegi nagusiak definitzeko saiakera bat egiten da lehenengo fasean. Ikuspegiaren definizioan eragina du Paisaia Ikuspegiaren formulazioaren bilaketak, bereizgarriak diren lurralde elementu nagusien atzean egon den paisaia-ulerkera garbi eta erraz baten definizioa du helburu.

Bigarren Eszenan, Ikuspegi nagusi horien eraginez pentsatu diren planak eta eraiki diren elementuak dokumentatu eta interpretatu nahi dira. Dokumentazio horrek artxibategietako datuak aztertzea eta interpretatzea du helburu, Paisaia Ikuspegiaren lau dimentsioak osatzeko eta ulertzeko informazioa bilduz eta ulertuz. Gainera, paisaiaren egiturak, joerak eta ustekabeko perspektiba berriak sortzen direla topatu egin da. Azken emaitza hauen bidez, paisaiaren potentzialak definitzen dira.

6.5 Landa lan teknikak: txangoak

Azpiatal honetan, Lanada Lan teknika hiria eta hiri bazterra aztertzeko erabili duten zenbait lan eredugarri eta erreferentziakoak aipatuko dira, tesiak proposatzen duen lanarekin alderaketa egin. Atalean txango esperimentalak lantzen dira, tesian berriz, txangoa garraibide ezberdinak bitarte eta argazki bidezko dokumentazioa landu egin da, ikerlariaren irizpideak lagunduta.

Txango bidezko esplorazioaren eredia ezaguna da, betidanik zientzialari enpirikoen tresna nagusia izan baita. Paisaiaren azterketa egiterakoan funtsezkoa da landara irtetea, nahiz eta egun paisaia ebaluatzeko urrutiko-hautemate [remote sensing] teknikak geroz eta erabiliagoak diren. Gorago landu diren metodologia ereduez gain hiriko eta hiri bazterreko paisaien azterketa irteeren bidez egin duten hainbat autore eta artista aipa daitezke: Baudelaire eta hiri bahatzaiela edo *flaneur*-a, internazional situazionisten txangoak, *derivak* eta sortzen zituzten psikogeografiak, Robert Smithsonen Pessaic-en (New Jersey, AEB) egindako ibilbide turistikoa (Smithson, 2006), Boris Sievertsen txango teknikak toki bat ezagutu ahal izateko (aipatu teknika horiek agertzen diren artikulua) (B. Sieverts, 2008), Nanni Morettiren ibilbideak Erromako aldiriak Vespa bidez esploratzerakoan eta *Caro Diario* filmean jasoak (1993), *London Orbital*-en Sinclair-ek (2003) narratzen duen Londreseko ingurabidean barnako urtebeteko irteera, *Walkscapes*-en egile Francesco Carerik (2002) aurkezten duen oinezko ibilbideen estetika eta sorkuntza tresna, etab.

Aipatu autoreen lanetan hurrengo ildo komunak topatzen ditugu: hirian barna ibiltzearen plazer estetikoak (Baudelaire, Moretti), sinbolo espazialen dekonstrukzioa eta performancearen bidezko jakintza eraikitzea (internazional letrista eta situazionista, Careri), hondakin eta

industria elementuen monumentu bilakatzea (Smithson), tokiarekin engaiamendua (Sieverts), espazioaren ber-interpretazioa eta kritika (Sinclair), tokiaren eraikuntza bertako elementuak erabiliz (Careri).

Ikerketa honetan burututako landa lanaren kutsua esplorazioa izan da: hots, tokiaren ezagutza bertatik bertarakoa, baita lurralde-elementuen kokapena eta zabalera ezagutzea. Landa lanarengan ikerlariaren tokiarekiko loturak eta aurretiaz duen jakintzak eragina izan du, batik bat tokien aukeraketan eta orientazioan.

6.6 Artxibo lan teknikak: interpretazioa

Tesi honek proposatzen duen artxibo lanaren oinarrizko teknika interpretatzailea da, ikerketa testuinguru orokorrak hala mugatuta; hots epistemologia konstruktibistaren eta estrategia abduktiboaren konbinaketak eraginda. Teknika interpretatzaileak erabiltzen dituzten metodologiak izan ohi dira etnografia, historiografia, diskurtso analisia eta ikonologia edo ikonografia (Deming & Swaffield, 2011) Interpretazioak ikerlariaren enpatia eskatzen du ikergaiarekiko, engaiamendu bat fenomenoak ulertzen saiatzeko, eta datuen eta teorien artean alderaketa erreflexiboak egiten ditu.

Artxibo Lanaren bitartez aurrera eraman ohi diren metodologiak, diskurtso analisia, ikonografia eta ikonologia eta historiografia dira. Egitasmo honen kasuan, diskurtso analisia, nahiz ikonografia eta ikonologia erabili dira batik bat, nahiz historiografiaren zeharkako begiradak ere nabaritzea posible den. Bildu diren agirien testuinguru zabalagoa marrazten duen edukia aztertu egin da, horretarako diseinatu den tresna interpretatzailearen bitartez, hots, Paisaia Ikuspegi Tresnaren bitartez.

Ikonografia eta Ikonologiaren arteko ezberdintasuna analisisian teoriak duen paperaren araberakoa da, eta Panofskyren lanean nabarmentzen da hobekien bereizketa (Deming & Swaffield, 2011). Lehenengoan, analisiak irudien asmo aitortua modu sistematikoan aztertzen du eta, ikonologian, berriz, analisiari teoria batek laguntzen dio eta irudien testuinguru zabalagoa, baita esanahi sakonago eta esanguratsuagoak jorratzen dira.

Deming & Swaffielden (2011) liburuan teknika interpretatzaileak darabiltzaten hiru ikerketa eredu aipatuko dira erreferentzia gisa. Lehenengoak diskurtso analisia lantzen du, bigarrenak ikonografia eta hirugarrenak ikonologia. Hiru ereduak parekidetasunak tesi honetako ikerketarekin alderatuko dira edo elkarkidetzak aipatuko dira.

Diskurtso analisia jorratzen da bigarren mailako iturriak diren txostenak aztertuz “Which Nature? A case study of Whitetop Mountain” (Deming & Swaffield, 2011; Robertson & Hull, 2001) artikuluan. Ikerlariek, naturaren kontzeptualizazio ezberdinak nola egiten diren aztertzen dute hainbat txosten ikertuz, eremu naturalen kudeaketa kontrobertsia eta eztabaiden testuinguruak ezarritako arazoak jorratzeko.

“Postcards of Phoenix. Images of Desert Ambivalence and Homogeneity” (Deming & Swaffield, 2011; Larsen & Swanbrow, 2006) artikuluan, Phoenix hiriaren posta-txartelak aztertzen dituzte hiriaren irudikapena nola osatu den aztertzeko 2.Mundu gerraren aurretik eta ondoren postalen bidez. Postaletako edukia sailkatu eta kontabilizatu egiten da ondoren estatistikoki analizatzeko. Irudien edukia ikonografikoki aztertzen dela esan daiteke sistematikoki egiten delako eta hiriaren irudi bat adierazteko asmo aitortua dutelako ebidentziek/postalek (Deming eta Swaffield, 2011)

“Reading the Phone Book: Cultural Landscape Myths in Public Art”(Bowring, 2002; Deming & Swaffield, 2011). Hemen, Zelanda Berriko nazio irudiaren eta paisaia irudikapenaren arteko lotura kritika bat egiten da telefono aurkibideetako azalen iruditegiaren esanahian eta esanguratsutasuna jorratuz. Azal horiek lehiaketa publikoaren bitartez aukeratuak direlako, gizarteak nazioaren eta paisaiaren arteko loturen adierazle gisa ulertzen direla esan daiteke. Irudien edukia eta esanahia Rolande Barthesen teoria erabiliz aztertzen da, horren araberrako analisi kategoriak edo sailak osatuz (Deming and Swaffield, 2011). Ikerketa honek ikonologia lantzen du ebidentziak diren telefono aurkibideen azalen esanahi sakonago eta kontestualago bat bilatzen dutelako, eta bilaketa hori Barthesen teoriak egituratua delako.

Diskurtso analisiaren beste eredu bat izan daiteke, Matthias Qviströmek (2013) burututako plangintza historikoaren analisia. Analisi horren bitartez, iraganeko hirigintza-planetako diskurtsoen eraginak egungo paisaien izaeran gorpuztuta bilatzen ditu. Bere kasuan, paisaia periurbanoen izaera mendeetan indarrean egon den hiri eta nekazaritza eremuen irudi idealek eragindakoa dela esaten du (Qviström, 2013).

Ikonologikoak eta ikonografikoak diren hainbat lan eta ikerketa biltzen dira Cosgrove eta Danielsen *The Iconography of Landscape: Essays on the symbolic representation, design and use of past environments* (1988). Bertan, artelanak aztertzen dira batik bat, eta nazio identitateekin, herrialdeen deskribapenarekin edo promozioarekin, boterearekin eta naturaren esanahi eta erabilera kulturalarekin lotzen dira iruditegi konkretu batzuk. Esaterako, Kanadaren nazio izaera artearen bitartez nola garatu den aztertzen du Brian Osbornek (1988); Lewis (1988), AEBen deskribapen erakargarriak egiteko erabiltzen zen iruditegia lantzen du honek emigranteak erakartzeko zuen asmoa aintzat hartuta. Ordea, Harleyk (1988), ikonologiara

jotzen du mapen eta boterearen arteko loturak aztertzeko, mapek balio atxikiak dituzten beste iruditegi familia zabalago bateko kideak bailiran. Amaitzeko, Danielsek (1988), basoaren erabilera ikonografiko politikoa aztertzen du, Ingalaterra Georgianoaren garaian Basoak garai hartako gizarte-ordenaren eredu egokiak irudikatzeko erabilia izan zela erakutsi nahi zuen.

Hurrengo atalek adieraziko duten bezala, tesi honetan, irudiak modu ikonografikoan eta ikonologikoan aztertzen dira, beste dokumentu idatzien diskurtso analisiarekin batera. Ikonografia 2. Eszenako galdetegiaren bitartez burutzen da, eta ikonologia eta diskurtso analisia berriz, Literaturaren berrikuspenak ezarritako eta epistemologia konstruktibistaren oinarri teorikoen arabera, hots, Ikuspegi Tresna eta bere lau dimentsioak erabiliz. Ikonologia ere Bilboaldearen kasuko bazter izaera justifikatzeko egin den ikerketa grafikoan ere erabili izan da.

Tesiaren helburua Hiri Bazterreko Paisaien izaera ezagutzea eta ulertzea da, irudikapen berri bat sortuz ahal bada, eta haren garapena ezagutuz plangintza edo diseinu prozesu batean barneratu ahal izateko berezko potentzialak identifikatzeko moduan. Horretarako hurrengo pausuak burutu dira:

Literaturaren berrikuspena eta testuinguru teorikoaren ezarpena

Ikuspegi tresnaren definizioa: ikerketa interpretatzaile eta konstruktiboaren oinarritzko tresna

Ikerketa kasu konkretu bat esperimentazio gune bezala erabili: bazterreko paisaia konkretu gisa, eta horien izaera sakonago ulertzeko froga-gune gisa.

Ikuspegi Anitzeko Interpretazioaren eraikuntza Bi Eszenetan:

1.go E.: Landa Lan Esploratzailea: Paisaia-Ikuspegi nagusien definizioa eta kartografiatzea Landa Lan esploratzailearen eta sailkapenaren bitartez

2. E.: Artxiboa Lana: Ikuspegi osagai dimentsionalak dokumentatzea Paisaiaren joerak eta egiturak zehazteko.

III. ZATIA

Proposamena: Paisaia-Ikuspegien Metodologia

Paisaia kontzeptu kulturalki eraiki bat dela ontzat emanez eta hiri bazterreko eremuak ere paisaiak direla onartuaz, ikerketa honi aurre egin zaio. Ikerketaren ideia bultzatzaile garrantzitsua Bazterreko Paisaien berezitasunak eta bilakaera sakonki ulertzearen beharra da. Ulermenaz gain, literaturan ikusi den bezala, bazterreko paisaiek ere ikuspegi eta irudikapen berriak bezain propioak behar dituztelako ere, haien ikerketari modu abduktibo baten bidez aurre egin zaie; hots, Bazterreko Paisaien inguruko ikuspegi orijinalak eta inspiratzaileak eskaini ditzakeen ibilbide bat jorratuaz. Aldi berean, beste paisaia batzuen moduko arreta eta seriotasuna eskatzen dutela aintzat hartuaz, ikusiko den bezala, edozein paisaiari aurre egiteko gai izan daitekeen estrategia baten erabilera landu eta garatu egin da. Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuen interpretazioa Bi Eszenatan burutua, hain zuzen ere.

7.0 ATALA.

Metodo proposamena: Paisaia-Ikuspegi tresna

Hurrengo lerroetan, ikerketa honetan funtsezkoa den ikerketa tresna aurkeztuko da: Paisaia-Ikuspegia (PI). Paisaia-Ikuspegiaren, edo labur adierazita, Ikuspegiaren bitartez paisaiaren eraikuntza material zein kontzeptuala ezagutzeko lau dimentsio nagusi ezartzen dira, aurrerago ikusiko den bezala. Lehenengo, tresna honen oinarri teorikoak eta aurrekari metodologikoak aipatuko dira. Ondoren, tresna honekin bete nahi diren helburuak, balizko ekarpenak eta beste antzeko hurbilketekiko dituen berezitasunak azalduko dira. Amaitzeko, Ikuspegia tresnaren lau maila egituratzaileak azalduko dira, hauek paisaiaren ideia osatzeko duten garrantzia adieraziz.

7.1 Testuinguru teoretiko eta metodologikoa

Bazterreko Paisaiarekin zerikusia duen teoria ikertzerakoan, hainbat gai aztertu egin dira tesiaren II. Zatian, eta ondoren zenbait ideia eratorri egin dira ikerketaren oinarri teoriko gisa erabili ahal izateko. Oinarri teoriko hauek paisaia aztertzeko erabili daitezkeen tresna batean gorpuztea proposatzen da; tresna horri Paisaia Ikuspegia (PI) izena ematen zaio.

Paisaia kontzeptuaren testuinguru teorikotik eratorritako ideia nagusiak dira:

- paisaia baten ideia norbanako edo giza talde batek eraikitzen du hura behatuz eta harekin izandako esperientziak baliatuz, baita bere asmoak eta munduaren ulerkeraren proiektatuz (D. E. Cosgrove, 1998).

- paisaia-ideia hori adierazi egiten da hainbat teknika eta medioen bidez (Corner, 1992; D. E. Cosgrove, 1998; D. E. Cosgrove & Domosh, 1993).

- paisaia-ideia hori dela medio, lurraldea lantzen, eraldatzen eta moldatzen du subjektuak edo taldeak (Baker, 1992).

-lurralde zati bakoitzeko behatzaile eta subjektibitate anitz daude, eta hortaz, toki berdinen inguruko ideia, esperientzia, irudikapen eta eraldaketa desberdin bezain ugariak existitzen dira(Meinig, 1979).

-lurralde zati bakoitzeko, komunak diren paisaia-ideiak existitzen dira eta hauek paisaiei eragiten diete(Europar Kontseilua, 2000).

-paisaiaren inguruko eraikuntza soziokulturalak dinamikoak eta aldakorak dira:hots, paisaia ikuspegiak denboran zehar aldatzen dira, eta denborarekin *dekonstruitu* ere egin daitezke (D. E. Cosgrove & Domosh, 1993; Jackson, 2010).


Ikuspegi konstruktibista batetik, paisaia ikusteko modu bat da, lurraldearekin harreman bat adierazten duena eta gizartearen zati bat sortua edo eraikia (D. E. Cosgrove, 1998). Kontzeptu hau modu materialean zein kontzeptualean eraikia eta eraldatua izan ohi da (Baker, 1992; Nogué, 2010; Roger, 2007). Hainbat paisaia ikuspegi elkarlotuz gero, beste hainbeste perfil eta jatorri soziokulturaletatik eratorrita, ikuspegi-anitzeko paisaiaren ulerkera bat osatu daiteke (Meinig, 1979). Gainera, lurraldearen hainbat ulerkera identifikatu daitezke, zeinak lurraldearen antolamendua eta eraldaketa moldatzen duten gizarte maila eta botere politikoaren arabera (Baker, 1992; D. E. Cosgrove, 1998; Denecke, 1992; Mitchell, 2002). Bestalde, gizartearen eta lurraldearen arteko harremana garapen sozial, politiko eta ekonomikoen zein teknologikoen arabera eraldatzen denez, paisaiak hainbat eraldaketa onartzen ditu modu dinamikoan (Jackson, 2010), eta beraz, paisaien esanahiak eraldatu egin daitezke(D. E. Cosgrove & Domosh, 1993) pertsonen, lurraldearen eta hautematearen artean existitzen den harreman interaktiboaren eraginez (Zube et al., 1982). Beste modu batean esanda, konstruktibismotik begiratuta, paisaia gizakiek osatua da, hainbat modu fisiko eta kontzeptualetan, historian eta denboran zehar aldakorak direnak. Egungo hiri bazterren egoera aintzat hartzen badugu, hau hainbat lurralde ulerkera gorpuzten dituen geruzez osatua dago (Corboz, 1983; Roger, 2007), eta hortaz, esan daiteke egitura horren oinarriak hausnartuz paisaia horren osaera ulertzeko moduan gaudela, era berean, berezko izaera zehazteko erabilgarriak diren nolakotasunak topatzeko aukera dago.

Paisaia-Ikuspegi tresnaren kontzeptua eta diseinuaren oinarrian kontzeptu teoriko hauek topatu daitezke. Nolanahi ere, tresnaren erreferentzia teoriko nagusia Denis Cosgroven (1998) paisaiaren irakurketa da. Bertan, paisaiaren osaera zehazteko begi-bistaz hautematen diren elementuak baino gehiago behar direla argudiatzen zuen. Era berean, paisaia errealitatea hautemateko modu partikular batekin lotzen zuen, gizartearen zati batek une historiko konkretu batean garatua, eta berezko irudikapen tresnen bidez komunikatzen zena (D. E. Cosgrove, 1998). Aspektu ikusezin horiek, ikusgai direnak bezain garrantzitsuak dira paisaia ulertzeko.

Tesiaren baitan, lurraldea ikusteko modu eta buru-eraikuntza bakoitzak Paisaia Ikuspegi bat osatzen du. Paisaia Ikuspegi bakoitzak aspektu sozial, kultural, espazial eta irudikapenezkoak barne hartzen ditu. Paisaiaren izaera dinamikoa onartzerakoan, lurralde oro giza jarduera eta eraldaketa zehatzen menpe garatu egin direla suposatzen da. Hortaz, lurralde bakoitzak hura ulertzeko eta eraldatzeko hainbat ikuspegiren efektu eraldatzaileak pairaitu ditu unean uneko behar eta helburu sozioekonomiko zehatzen arabera (Baker, 1992; D. E. Cosgrove, 1998). Horta, Paisaia Ikuspegi bakoitzak, paisaia *mota* bat sortu duela esan daiteke; tesiaren

terminoetan adierazia: Paisaia Ikuspegi anitzek osatu dute egungo hiri bazterreko paisaiak adierazten duen egoera eta izaera.

Metodologikoa den lehenengo proposamen honek, tesiaren postura epistemologikoarekin zerikusia du. Izan ere, paisaiaren teorizazio konstruktibista batean du abiapuntua, eta horiek paisaiaren eraikuntza eta esanahi soziokulturala eta anitza kontutan hartu beharreko erabaki metodologikoa aurreikusten du. Tesiaren helburua den bazterreko paisaiaren ulermen eta izaeraren bilaketarekin ere zerikusi zuzena du, izan ere Ikuspegia *tresna* hermeneutiko gisa proposatzen da, hots, paisaiaren izaera interpretatzeko ahalmena duen tresna edo gailu gisa.



3. Irudia Paisaia-Ikuspegia metodo interpretatzailearen aplikazio-prozedura bi Eszenetan eta eratorri daitezkeen emaitzak.

Proposatzen den metodo honen bitartez, lurraldearen geruza anitzen interpretazioa egitea bilatzen da., bi eszenetan garatzen den paisaiaren analisia bitartek: Lehenengo Eszenako Landa Lanean eta Bigarren Eszenako Artxibo Lanean garatzen den prozedura, alegia. Lehenengo Eszenan, Paisaia-Ikuspegia tresna formulatzeko, interpretatzeko eta jeruza bakoitza ulertzeko erabiltzen da. Geruza hauek paisaia modu diskurtsiboan zein fisikoan paisaia eraiki dutela uste da. Jarraian, Bigarren Eszena garatzen da eta bertan Paisaia-Ikuspegia tresnaren lau dimentsio egituratzaileek ezarritako ikerketa/interpretazio lerroak jorratzen dira: lurraldearen ulermena edo Ideia (1.go dimentsioa), Irudikapena (2. Dimentsioa), promotoreak edo Agentzia (3. Dimentsioa) eta eragindako eraldaketa kontzeptual zein materialak, edo, Elementuak (4. Dimentsioa). Dimentsio hauen interpretazioa formulatu den Paisaia Ikuspegi bakoitzeko egiten da gorago aipatu den testuinguru teorikoko premisak eta hipotesiak erabiliz azken helburua den hiri bazterreko paisaiaren izaera ulertzeko baliagarriak diren egiturak eta joerak bilatuz.

7.2 Paisaia-Ikuspegi tresnaren erabileraren helburua

Laburrean esanda, Paisaia Ikuspegi tresnak bi helburu eta erabilera ditu: batetik, paisaiaren izaerarekin espekulatzeko tresna bat irudikatzen du, eraikitako elementuak oinarri hartuta eta horien arabera Paisaia Ikuspegiaren Ideak formulatuz; hots, Ideia formulatuz (1.go Dimentsioa) Lehenego Eszenan egiten den bezala. Bestetik, paisaiaren eraikuntza kontzeptualak hura eragin duten lau dimentsioen bitartez interpretatzeko erabilera du, Bigarren Eszenan egiten den bezala. Gainera, Paisaia Ikuspegi tresnak paisaiaren dimentsio-aniztasunaz gain, haren geruza anitzeko irakurketa egiteko ahalmena ere badu.

Honek guztiak tesiaren helburu eta motibazio orokorarekin bat egiten dezake. Hau da, bazterreko paisaien berezko izaera eta elementu baliotsuak topatzeko nahiarekin, eta diseinu eta plangintza prozesu kontestualak garatu eta osatu ahal izateko asmoarekin. Izaera berezi hori zehazteko, paisaiak ulertu egin behar dira, bertatik bertara nola burutu eta garatu diren ezagutzeko. Teoria sozialen arabera, ulermenak interpretazio maila bat eskatzen du, bai eta paisaiarekiko postura enpatiko bat ere (Deming & Swaffield, 2011). Bazterreko paisaien izaeraren eraikuntza eta bilakaera ulertzeko haren hainbat alderdi aztertu egiten dira Paisaia Ikuspegi tresnaren bitartez.

Era berean, bazterreko paisaiaren inguruko ikerketek, hauen irudikapen eta metafora berriak eskatzen dituzte (Nogué, 2010; Gallent et al., 2006; Sieverts, 2003). Hortaz, paisaiaren izaera ezartzeko erabiltzen diren metodo arautuetako metrika objektiboen ordez, esanahiekin eta elementuekin joko edo asmakuntza suposatzen duen ikerketa estrategia erabiltzea hobesten da (Sieverts, 2003), paisaiari begiratzeko modu ezberdinak bilatuz.

Beste autore batzuek lau dimentsiook erabili baldin badituzte ere paisaiaren interpretazioak egiterako orduan, hemen proposatzen den Paisaia-Ikuspegiak *tresna* izan nahi du, ez soilik interpretaziorako, baizik eta kudeaketarako eta diseinu zein plangintza prozesuetarako baliagarria den kontzeptua. Horregatik, diskurtso teorikoari garrantzia ematen baldin bazaio ere, helburua tresna erabilgarri eta argi bat egitean datza, eta hala, irizpide teorikoak modu sistematikoan batzeko saiakera egin da lau dimentsio edo aspektuek zehazten dituzten interpretazio lerroetan.

Hauek izan daitezke Paisaia Ikuspegi tresnaren balizko ekarpenak:

- Paisaiaren eraikuntza eta garapenarekin ikuspegi konstruktibista batetik azalpen onargarriak proposatzea
- Paisaiaren eraikuntza sozialaren elementuak ezagutzeko bere lau dimentsioen erabilera

-Plangintzarako tresna bilakatzea paisaiaren historia modu sakonean ezagutzeko, eta haren berezitasunak bilatzeko.

-Paisaia-Ikuspegi ideiarene inguruan egituratzen den tokian tokiko informazio eta ezagutza kualitatiboaren lorpena

-Ikuspegi anitzen bidez irakurketa historiografikoa edo berreraikuntza historiko bat osatzea, beraien baitako elementu eta ideia baliotsuak zehazteko, ezartzeko eta komunikatzeko balio dezakeen moduan. Toki bati buruzko jarraitasun historiko edo narratibo bat izateak balioa sortzeko duen ahalmenez baliatzeko asmoz.

7.3 Paisaia-Ikuspegiaren eta ikerketa-estrategiaren ezaugarriak

Ikuspegi tresnari dagokionez:

-Paisaiaren lau dimentsio zehazten eta aztertzen ditu elkarren artean lotuta: Ideia, Agentzia, Irudikapena eta Elementuak.

-Formulatzen diren Paisaia Ikuspegiak ez dira kategoriatan ezarriena isla; hots, ez datoz bat interes esparru sektorialekin edota lurralde mailako plangintza bat egiteko erabiltzen diren ohiko metrika eta elementuekin ere ez. Paisaia Ikuspegi bakoitzak oinarrian lurraldearen ezaugarri geografikoak ditu, ikusiko den bezala. Hartara, Paisaia Ikuspegi bakoitzak lurraldea ulertzeko modu bat ordezkaturiko du, tokian toki bereziak diren beste hainbat Paisaia Ikuspegirekin konbinatuta lurraldearen irakurketa palimpsestiko bat garatuz.

-Paisaia Ikuspegiak lurraldea egituratzen eta osatzen duten elementu ezberdinak barne hartzen dituzte Lehen Eszenan ikusiko den bezala.

-Paisaiaren kategoriatan ezarriak ez direnez gero, paisaiaren ideiarene barne azaltzen dira bazterreko paisaietako elementu guztiak, ustez negatiboak edo kaltegarriak direnak ere, edota paisaia historiko edo kulturalen baitakoak kontsideratzen ez direnak ere.

Ikerketa strategiari dagokionez:

-Paisaia Ikuspegi zehatzen formulazioa ikerketa estrategia bikoitz bateko lehen Eszenaren ondoren ematen da.

-Paisaia Ikuspegiak ikerketa estrategia bikoitzeko bigarren Eszenan edukiz eta esanahiez betetzen dira lurralde konkretuaren irudi geruza anitza osatzeko.

7.4 Tresnaren lau dimentsio elkarlotuak

Paisaia Ikuspegi tresnaren bidez onartu egiten da beraz paisaia eraikuntza soziokulturala dela. Horrexegatik gorago beste autore konstruktibista batzuen lanetatik eratorritako lau dimentsioak barne hartzen ditu. Hemen, ordea, ikerketa eta interpretazio sistematiko bat osatze aldera, banatuta, baina, era berean, elkarlotuak azaltzen dira.




4. Irudia Paisaia Ikuspegiaren lau dimentsiotako egitura

Funtsean, Paisaia-Ikuspegia (PI) tresna, lurraldea ulertzeko modu bat da. Hots, helburu eta interes konkretu batzuk betetzeko egiten den lurraldearen deskribapen edo interpretazio kulturala eta soziala formulatzeko balio du. Horregatik garrantzitsua da testuinguru soziala ezagutzea, baita haren errepresentazio edo adierazpenak biltzea eta interpretatzea ere. Ordea, paisaiaren alderdi fisikorik gabe, argazkia osatze ezinezkoa da. Horrek esan nahi du, paisaia ideiak irakurtzen eta sortzen dituen artefaktuak nolakoak diren jakitea ere beharrezkoa dela. Iksuiko den bezala, oinarri eraiki horren behaketatik eta azterketatik abiatzen da paisaiaren itnerpretazio prozedura, analisi artixibistikoak jarraituta.

Aurrena, baina, PI tresnaren baitako lau dimentsioak deskribatuko dira, baita haien iturri teorikoa aipatu ere, nahiz sortzen duen interpretazio lerroaren aiderazleak ere aurreratuz..

PAISAIA-IKUSPEGI TRESNAREN 4 DIMENTSION arteko ELKARERAGINA



5. Irudia Paisaia-Ikuspegi tresnaren Lau Dimentsioen arteko interakzioa

1. Dimentsioa: Ideia

Ideia bitartez lurralde batekiko jarrera eta jardura bat definitzen da. Hots, gizatalde batek edo norbanako batek toki batekiko izan dezakeen helburu eta interesen eta toki horrek helburu horri eskaini diezaiokkeenaren arabera ulermena adierazteko balio du dimentsio honek. Teorian Denis Cosgrovek (1998) paisaiaren definiziotzat proposatutako “ikusteko modua”-tik eratorria dago Ideia dimentsioa. Horren arabera, Paisaia-Ikuspegiaren atzean, gizatalde zehatz bat kokatzen da. Hartara, hainbat Ideiek zedarrizten dituzten hainbat Paisaia-Ikuspegiaren arabera ulermena ere justifikatzen da Meinigek (1979) aurreratutako teoriaren bidez; hots, paisaia bat ulertzeko existitzen direla 11 modu (edo hamar, bere kasuan).

Ideia osatzeko, lurraldea edo tokia irakurri eta aztertu egiten da, haren ezaugarri nabarmenenak ezagutu eta aukeratzeko edo baztertzeko. Irakurketa instrumental baten ondorioz lurralde batek abantaila batzuk dituela eta zenbait jardueratarako—nekazaritza, abeltzaintza, industria, asentamendua eta abar—abagunea edo aukerak eskaintze dituela. Alderantzizko egoera ere suertatu daiteke, alegia, lurraldeak giza jardura bati oztopoak ezartzen dizkionean.

Beste irakurketa batek ezagutza edo irudikapen soila izan dezake helburu gisa, esaterako, ikerketa zientifiko batek; kasu honetan diziplinaren arabera ezaugarri batzuk izango dira

esanguratsuak eta besteak ez. Edo bestela, lurraldearen behaketak haren balorazio estetiko bat izan dezake helburu, eta hartara estetika ezberdinen irizpideen arabera, paisaia modu batera edo bestera nabarmenduko zaio behatzaileari.

Ikusi denez, funtsean, lurraldearen hautematea da oinarria. Hautematea, literaturaren azterketan adierazi bezala, objektiboa, subjektibo edo inter-subjektiboa izan daiteke. Hots, epistemologia jakin baten arabera egindako lurraldearen azterketa edo interpretazio bat da Ideiaren oinarrian dagoena. Historian zehar gizakion eta lurraldearen arteko harremanak arautu egin dituzte hainbat mundu ulerkerek, biziraupenerako, azalpen metafisikoak bilatzeko edota plazer estetikoa zein jakin mina asetzeko.

Interpretazio eta analisisien bidez lurraldearen ideia osatu egiten da, eta hortaz, Ideia horrek, Agentzia eta Irudikapen batzuk izango dituela esan daiteke. Hala ere, Ideia da Ikuspegi tresnaren oinarritzko dimentsioa, izan ere, kasu bakoitzean egon daitekeen lurraldeari buruzko ulermena eta kontzeptua zehazteko balio baitu. Funtsean, Ideia lurraldearen adjektibazio baten bidez zehazten da, hots, haren ezaugarri interesgarriena nabarmentzen duen formulazio garbi baten bidez.

Dimentsio honek ez du adierazle berezirik aztertuko, batik bat denboran zehar ematen diren joerak eta aldaketak aztertuko ditu, Paisaia Ikuspegiaren bilakaera historikoa ezagutzeko asmoz.

2. Dimentsioa: Irudikapena

Autoreek edo agenteek duten lurralde-ulermenaren edo Paisaia-Ikuspegiaren Ideia irudikatu egiten dute egitasmo bat aurrera eramateko, edo estetika nahiz komunikazio eta zabaltzen helburuak direla eta. Paisaia bat eraikia dela esaten denean, inplizituki haren irudikapenaren bidez ere gertatzen dela esaten da, Rogerrek (2007) honi *in-visu artealizazioa* esatendio. Cosgroven (1998, 1999, 2008) teoretan, irudikapenak ere rol garrantziatsua du, batik bat, perspektiba optikoaren eraginari ematen dion garrantzian “benetako mundua” irudikatzerakoan. Mundua ikusteko modu baten eskema bezala ulertzen da paisaiaren irudikapena (Corner, 1992, p. 243), izan daitekeen errealitate bat adierazteko egiten den lurraldeko elementuen aukeraketa baten eraginez (Corboz, 1983; Corner, 1999b)

17. Mendean Flandrian garatu zen kartografia lanek, munduaren esplorazioa erraztu zuten. Aldi berean, kartografiaren zehaztasun zientifiko eta errealista berdinarekin eguneroko bizitza eta tokiak irudikatzen ziren margolanetan (D. E. Cosgrove, 1998). Alpeetako mendietako parajeak esploratzen zituzten mendizale eta zientzialariek ere, ikusitakoa grabatuen bidez hasieran, eta gerora, argazki bidez zabaltzeari ekin zioten (Roger, 2007), Humboldt bezalako esploratzaileek lurralde urrunetako bidaietako irudikapenen bidea jarraituz. Gizakiak ikusten zuen lurraldea irudien bidez komunikatzearekin batera paisaia zehatzak sortu egin dira

historian zehar. Irudikapen grafiko horiek, bai mapa zein margolan errealistak, eta gerora argazkiak, egiaren parekoak bilakatu ziren (D. E. Cosgrove, 2008).

Cosgroven (1998) aburuz, industrializazioaren ezarpenarekin batera, paisaia zientzia objektibista eta arte subjektibistaren esparrua bilakatu zen. Biek ala biek bakoitzak bere teknika eta irudikapen medioen bitartez eta engaiamendurik gabe, urrutitik analizatzen dute paisaia. Honen izate garaikidearen oinarrian kokatzen da irudikapena eta harekiko behatzailearen epistemologia objektibista, eta funtsean kanpotarra da ikuspegia (D. E. Cosgrove, 1998). Paisaia irudikapenaren historia berrikusiz gero, perspektiba optikoaren arauk eragindako paisaiaren irudikapen errealista 19. Menderaino nagusi izan zen. Begiratzeko modu hau, geometriaren garapenarekin bat, baita esparru militarreko, nabigazioko, lur-neurtze eta topografiaren diziplinak sortu dituen irudikapenekin batera garatu zen (D. E. Cosgrove, 2008). Perspektibaren arauk neurtzen duten lurraren irudiak distantzia ezartzen du, lurra kontrolatzeko helburua du eta ez du zerikusirik lurraldea barnetik bizitzeko eta harekin engaiatuta bizitzeko moduarekin. Barneko biztanleak ez duenez distantziarik hartzen, paisaiaren kontzientziarik ez dauka, eta ez du haren irudikapen “errealik” sortzen. Hortaz, paisaia irudikatua denean, agentea kanpotarra dela esan daiteke. Kontzeptu hauek 3. Dimentsioan sakonduko dira.

Irudikapenak, grafikoak ez ezik, testu bidezkoak ere izan daitezke; paisaiaren deskribapenak edota metaforak tradizio luzea baitu literaturan esaterako, giro bat adierazteko, esanahiak iradokitzeke, eta abar. Testuak tokien ezaugarri naturalak deskribatzeko usu erabiltzen dira, direla geologikoak, floristikoak, faunistikoak, etab. Maiz, testu hauek mapa eta planoekin batera osatu egiten dira. Gauza bera gertatzen da lurralde mailako edo hiri mailako plan batean: testua, mapak eta planoak elkarrekin azaltzen dira, batetik lurraldea deskribatzeko eta irudikatzeke, eta bestetik egitasmoa adierazteke ere. Azpiegitura edo arkitektura proiektuetan ere, berdin konbinatzen dira irudizko eta idatzizko adierazpenak.

Cornerren (1999) ustez, lurraldearen analisia eta ulermena adierazten duten planoek badute dagoeneko analisisiaz gain propositiboa den alderdirik. Izan ere, planari edo proiektuari interesgarria zaion hori irudikatzeke joera dago. Horregatik, mapa eta planoak ez dira inoiz errealitatearekin bat etortzen atzean aukeraketa subjektibo bat existitzen delako (Corner, 1999). Hala ere, badirudi, mapa eta plano bidezko lurraldearen adierazpenaren nagusitasuna dela eta, irudikapen horiek lurraldearen egitatea ordezkatzeko dutela (Corboz, 1983). Hots, irudiek egiaren ordezkari izateko lortu duten estatusa dela eta, lurraldearen konplexutasuna eta geruza aniztasuna bainoago, mapek diote benetan nolakoa den hura.

Hortaz, lurraldearen irudikapenek, testu bidezkoek, eta bereziki grafikoek, lurraldea ulertzeko moduaren dimentsio garrantzitsuak dira. Hots, Paisaia-Ikuspegi bat ordezkatzeko dute, zeinak egitasmo eta helburu batzuek zuzenduta lurraldearen elementu batzuk aukeratzen

ditu haren ulermen partikular eta eraikia egin ahal izateko. Irudikapen horiek diotena bezain garrantzitsua da ezkutatzen edo arbuizatzen dutena paisaiaren Ikuspegia zein den ezagutzeko, baita oinarrian dagoen ideologia zehazteko ere.

Dimentsio honek aztertuko dituen adierazleak dira lurraldea zein elementuren bidez irudikatzen den, metaforaren bat erabiltzen den lurraldea adierazteko, eta zer hutsune edo gabezia nabaritzen diren irudikapenean.

3. Dimentsioa: Agentzia

Lurraldearen eraldaketak eta balioak naturalizatu beharrean, Paisaia-Ikuspegiaren bitartez horiek testuinguru sozial, ekonomiko, kultural eta politikoan jartzeko modua dago. Horregatik, Agentziaren dimentsioa garrantzitsua da Ikuspegiaren egituraren baitan. Atal honek Paisaia Ideia konkretu bat jendarte, komunitate edo norbanako konkretuekin lotuko du. Baita horietako bakoitzaren testuinguru zehatzagoarekin ere.

Lehenago adierazi den bezala, Agentziak lurraldearekin lotura estua edo urrunagoa izan dezake; Cosgroven (1998) hitzetan, barnekoa edo kanpoko izan daiteke lurraldearekiko behatzaileak edo erabiltzaileak duen harremana. Bata eta bestea dialektikoki kontrajarriak dira lurraldearen interpretazioari dagokionez eta paisaia-ideiaren sortzeari dagokionez.

Paisaiaren teorian sarri azaldu da autore edo egiletza kontzeptua, esaterako, Marwyn Samuels-en lanean. Cosgrovek (1998) egiten dion kritikan, Samuelsek paisaiaren egiletza hauek utzi dituzten traza material eta ez-materialetan bilatu beharra dago. Are gehiago dio, Samuelsen lanak paisaiaren oinarrian dauden anbiguetateak saihesten dituela dio. Hots, Cosgroven lanean hain esanguratsuak diren paisaiaren hautemate objektiboa eta subjektiboa, nahiz barneko eta kanpoko begiradek osatzen duten anbiguetate bikoitza ez du aintzat hartzen. Samuelsek paisaia modu materialean edo idealistan eraiki dela esaten duenean, ustez kanpoko eta barneko begiradak hautemate objektibo eta subjektiboarekin lotzen baldin baditu ere, Cosgrove (1998) ez dago ados honekin. Izan ere, barnekoek ez dute paisaia egiten dutenaren kontzientziarik, konbentzio paisajistikorik ezagutzen ez duen harremana dutelako lurrarekin.. Barnekoek agentzia kudeatzailerik ez izateaz gain, hautemate fenomenologikoaren antzeko ulermena dutela esan daiteke. Hots, barnekoek konbentzio estetikorik ez dutenez lurraldea modu hertsian eta analogoan ulertzen dute, modu aurre-kognitiboan (Cosgrove, 1998). Kanpokoak berriz, paisaiaren “eszenatik” urrundu daitezke, begiratoki turistiko batetik urruntzen garen bezala. Cosgroven aburuz, kanpotarrek paisaia bezala ulertzen dute lurraldea, eta hura kontrolatzeko indarra dute, irudikapenaren bidez, baita hura nola edo hala kudeatuz ere. Gizakiaren eta paisaiaren arteko harremana kanpotarrarena da, batik bat, ikusmenaren bidez sortzen den hautematea.

Egun ordea, dikotomia horiekin lan egitea arras zaila egiten dela esan daiteke. Cosgroven (1998) teoriekin jarraitzen baldin badugu, gizarte kapitalistan paisaiaren agentzia kanpotarra da. Arrazoi nagusia da hura paisaia bezala ulertzen delako eraikuntza eta irudikapen adostuen arabera.

Teoria ez-errepresentazionalen arabera, norbanakoak eta komunitateak, bitartekaritza-rik gabeko eta konbentziorik gabeko esperientzia gorputz-bidezkoen bidez espazioen eta tokien eraikuntza subjektiboak egiteko ahalmena dute (Waterton, 2013). Hots, teoria ez-errepresentazionalak jakituria aurre-kognitiboa, fenomenologikoarekin zerikusia du. Honen arabera, jendearen eta tokiaren arteko eguneroko praktika subjektiboen bidez esanahia politikoa, eragilea eta agentzia duen eraikuntza paisajistikoak osatu daitezke. Honen harira, espekulatu daiteke, era berean, ez ote garen hiritar arruntak garai feudaleko nekazarien pareko barneko biztanle botere-gabeak; ez ote den eguneroko espazio hiritartua lurralde arruntena, eta ez ote dugun nahikoa distantziarik hartzen ez ditugulako eguneroko tokiak paisaia bilakatzeko beharrezkoak diren konbentzio estetikoak. Baina, jarrai dezagun dimentsioaren funts nagusiekin.

Agentzia dimentsioaren bitartez, lurraldearen forma eta eraikuntza gainartzaileen oinarrian dagoen ideologia eta klase sozial nagusia ezagutzea ere posible da. Izan ere paisaia kontzeptu ideologiko bat da giza talde indartsuenek beraien burua eta beraien mundu-mira adierazteko erabili izan dena, baita beste batzuek munduarekiko duten rola adierazteko ere (D. E. Cosgrove, 1998)

Hortaz, paisaia ideiarene egiletza edo agentziaren bitartez mundu-mira bat eta jendarte edo norbanakoak lotuko ditugu beraiek utzitako trazak edo irudikapenak erabiliz. Baina, aintzat hartuaz egiletza hauen baitan funtsezkoak diren ezberdintasunak eta anbiguetateak existitzen direla lurraldearekiko eta tokiarekiko duten harreman estu edo lasaiagoaren, baita eraikuntza eta konbentzio soziokulturalen arabera bereizten direla Agentzia ezberdinak.

Dimentsio honek aztertuko dituen adierazleak izango dira: agentziaren izate Publiko edo Pribatua, postura Kanpotar ala Barnekoa ote duen—lurraldearekiko engaiamendu aktiboaren araberakoa—eta agentearen epistemologia Objektibo edo Subjektiboa.

4. Dimentsioa: Elementuak

Paisaia ideiak helburu ezberdinen arabera, elementu batzuk proposatuko eta diseinatuko ditu, lurraldearen analisiaren arabera aukeratutako tokian kokatzeko. Paisaia Ideiaren azken helburua dira Elementuak, eraikiak ala planifikatutako egoerak izan daitezkeenak. Beste kasu batzuetan, lurraldearen Irudikapenarekin soilik beteko da Paisaia Ideiaren helburua.

Elementuen arabera eta hauen testuinguru soziopolitikoaren arabera, kasuan kasu, sortzen den paisaia Politikoa ala Bizitua izan daiteke (Jackson, 2010). Oinarrian, gizakion izaera bikoitza dago, soziala batetik eta bestetik lurrari atxikia. Paisaia Politikoeak, gizarteko harremanak eta arauak ezartzeko balio dute, paisaia bizituek lurraren baliabideekin bizirauteko helburua dute. Ezberdintasun kontzeptuala ezarria baldin badago ere, Jacksonen (2010) hitzetan paisaia politikoak eta bizituak elkarlotua daude ezinbestean eta banatzea aski zaila da. Egileak zerrendatutako paisaia politiko eta bizituen artean lehenak politikoak agertzen dira, mugak eta tokien mugatzea, plaza edo foroa, bideak, autobide sistemak, ikusgaitasuna edo hitoak bezalako elementuek gizarte baten funtzionamendua arautzen eta antolatzen dute. Zerrendan aurrera doala, hasieran ezarritako dikotomia nahasiaz doa, paisaia elementuak sailkatzea zailagoa egiten baita: espazio sakratuak eta profanoak, espazio naturalak, basoa, natura etab. Jacksonen (2010) arabera, bi alderdi hauek ezinbestean beti agertuko dira paisaia orotan.

Paisaiaren eraikuntzari buruz ere, Alain Rogerrek (2007) bi bereizketa egiten ditu, eraikuntza-prozeduraren izaeran bereizketa bat eginez. Haren hitzetan, paisaiak bi modutan eraikitzen edo *artealizatzen* dira: *in-visu* eta *in-situ*. Lehenengo moduak, paisaiaren eraikuntza irudikatua edo imajinatua, proiektio bidez edota diskurtso bidez adierazten du. Bigarrenak berriz, bertatik bertarako, hots, modu material eta fisikoan moldatzen eta osatzen den paisaia adierazten da. Hala, elementu kontzeptualak eta fisikoak edo *eraikiak* bereizten dira.

Hortaz, Paisaia-Ikuspegi tresnaren Elementuen dimentsioak, hurrengo adierazleak aztertuko ditu, elementuen izaera Politiko edo eguneroko biziraupenekoak ote diren, eta, ea paisaiaren eraikuntza *in-visu* edota *in-situ* egin ote den ere. Horrezaz gain, Paisaia konkretuaren izaeran elementuak, eta beste dimentsioek ere, nolako eragina duten ere interpretatu egingo da.

Labur esanda, Paisaia-Ikuspegi tresnak paisaiaren eraikuntza soziokulturalaren lau alderdi nagusi biltzen ditu interpretatzeko baliagarria den tresna bakarrean. Ikuspegi konstruktibistatik egin diren paisaiaren inguruko beste ikerketa batzuen ekarpenak oinarri hartuta, hemen paisaiaren egiletza, ideologia, irudikapena eta eraikuntza fisikoa elkarren artean lotuta aztertzen dira hemen. Oinarri teorikoa ezarritako irizpideak tresna interpretatzaile bilakatzen dira proaktiboak diren prozeduretan barneratu ahal izateko.

Esan bezala, tresnak, bi helburu betetzen ditu: Paisaia Ikuspegiaren formulazioaren bitartez paisaiaren izaerarekin inguruan espekulatzea, eta bestetik, interpretazioa garatzea lau dimentsio erabiliz: Ideia, Irudikapena, Agentzia eta Elementuak. Lau Dimentsio hauek formulatzen den Paisaia Ikuspegi espekulatibo bakoitza osatzen dute. Ikuspegi bat baino gehiago dagolea onartzen denez gero, geruza anitzeko irakurketaren bidetik jotzen da, epistemologia konstruktibistak ezarri dezakeen moduan.

Honenbestez, Hiri Bazterreko Paisaia interpretatzeko tresna hermeneutikoaren egituraketa eta aztertu beharreko dimentsioak ezarrita daude Paisaia-Ikuspegi tresnaren baitan. Hurrengo pausua, ikerketa kasuan aplikazioa burutzea izango da. Horren aurretik baina, aztertuko den leku konketuaren aurkezpena egingo da, haren interesa eta izaerari buruzko zenbait ezaugarri berezi aipatuaz.

8.0 ATALA.

Ikerketa kasua eta oinarri enpirikoa: Bilboaldeako bazterreko paisaia menditsuak

8.1 Aurkezpena¹⁸

Atal honen helburua Bilboaldeak Hiri Bazterreko Paisaiaren azterketarako kasu apropos bezala duen interesa azaltzea da, baita Bilboaldeko mendialdearen bazterreko paisaia izaera azaltzea ere. Bi arrazoi nagusik justifikatzen dute kasu honen aukeraketa; batetik, geografikoki baldintzaturik izan den hiri ertain baten kasu aproposa dela; hiri handi eta hedatu bateko bazterreko paisaiari lotzen zaizkion generikotasun, dispersio, ubikuitate eta gainontzeko aurreiritziak Bilboaldean agian ez dira horren aplikagarriak geografia menditsuarekin batera eratorri den hiri forma eta hedapen mugatuagoa izan duelako. Bestetik, eta geografia fisikoaren bidearekin jarraituz, Bilboaldeko paisaia menditsuek iruditegi kulturean eta artistikoan paisaia gisa duten sinbolismo gabezia; hots, mendialdearen paisaia izaera esanguratsua Bilboko izaeraren irudikapen *baztertua* izan dela.

Ikerketa-kasuak erabiltzerakoan estrategia induktibo bat erabiltzen dela esan ohi da (Deming & Swaffield, 2011), izan ere, deskribapen bat izaten dutelako emaitza nagusi gisa. Hots, ikertu den kasu zehatzaren inguruko ezagutzari egiten diotelako ekarpen nagusia. Ordea, tesi hau ez da Bilbori buruzkoa; hots, ez du helburu nagusitzat Bilboko bazterreko paisaien ezagutza eta deskribapenak egitea. Areago, Bilboko mendietako hiri-bazterra erabiltzen da zabalagoa den jakintza-eremu bati—paisaia eta plangintza praktikari eta teoriari—ekarpena egiteko. Tesian Bilboren kasuak helburu instrumentala du, eta ez ordea deskribatzailea (Stake, 1995). Ikerketa kasuak lagundu egiten du ikerketaren testuinguru estrategiko orokor bat ezartzeko. Kasua oinarri hartuta geruza-anitza den paisaia interpretazio eta irudikapen espekulatibo bat lortzeko asmoa duen metodo bat proposatzen du tesiak. Metodo honek paisaiaren konplexutasunak ulertzen eta interpretatzen lagungarria den tresna izan nahi du.

Hiriaren hedapenean, morfologia urbanoan eta paisaiarengan elementu geografiko bik izan dute eragina. Itsasadar zein mendi, biek Bilboaldearen garapen ekonomiko eta urbanoa baldintzatu dute baliabide materialen eta komunikabide nahiz ekonomia azpiegitura gisa. Bilboren garapen ekonomikoak bi horien potentzialak ustiatuz aurrera egin du historian

18 Atal honetan azaltzen den ikerketa eta ondorioen zati bat MONU Magazine on Urbanism aldizkariarekin Geographical Urbanism 20. Alean argiratuak izan dira “Urban Fringe Landscapes on Mountains” artikuluan (M. Uriarte, 2014). Atal honek bertsiio egokitu bat jasotzen du, hau da ez du hitzez hitz aldizkarian azaldutakoa itzultzen.

zehar. Baina, era berean, hazkunde urbanoaren ertz edo muga gisa ulertu egin dira biak. Mendian basoak, harrobiak eta meatzeak lekutzen ziren, eta itsasadarrak nabigazioa, merkataritza harremanak eta komunikabidea ahalbidetzen zuen. Bi esparruetako jarduerak konbinatuta eta elkarlotuta jardun zuten aurreindustriako garaian ontzigintza, ikazkintza, burdinolak eta nekazaritza jardueren bidez, mendiko meatzeak agortu eta itsasadarra jarduera ekonomikoaren eremu nagusi bilakatu zen arte. Harrezkero, esan daiteke elementu geografiko bakoitza, modu ezberdinean ulertu eta irudikatu egin direla.

Ondorioz, Bilboaldeko geografia banatu eta bi paisaia bereizi sortu zirela argumentatzen da: mendi landatarra eta itsasadar hiritartu eta industrial. Azken honek Bilbo eta Bilboaldea irudikatzen badu, lehenengoa hiritik at kokatzen den eremu ideal batekin lotzen dela esan daiteke. Bilboaldeko mendietako paisaien balizko balio identifikatzailea edo erakusgarria baztertu egiten da, nekazaritza paisaia idilikoarekin edo hiriguneko paisaia industrialarekin zerikusirik ez duelako. Atal honetan ondorioztatzen da, Bilboaldeko mendialdeak paisaia tipologia berezi bat gorpuzten duela, bazterreko paisaia bat, alegia.

8.1.1 Bilboaldeko hiri-garapena eta plangintza

Atal honen helburuetatik kanpo geratzen da Bilboren hazkuntzaren deskribapen bat egitea. Hemen Bilboaldeko Bazterreko Paisaia menditsuaren aukeraketa justifikatu nahi baita. Hiriaren garapena, goraldia, gainbehera, berpizkundea aztertzen dituen makina bat lan egina dago honez gero. Erabilgarriak suertatu dira, nolana ere, eta, besteak beste, hurrengo lanak:

-*Los orígenes de una metrópoli industrial: la ría de Bilbao* Manuel Gonzalez Portillak editatutako bi bolumeneko sorta (Fundación BBVA, 2001). Industriaren suspertzetik 1936ko Gerra Zibilera doan denbora tartean, lehenengo liburuak gizarte aldaketak azaltzen ditu, eta, bigarrenak hiriaren garapen fisikoa azaltzen du, plangintza eta azpiegituren garapenaren aldetik.

-*Hirigintzaren kartografia Bizkaian (1857-1956)* liburua (Bizkaia, 1999) non hainbat garapen eta plangintza-mapa biltzen diren. Bertatik interpretatu da itsasadarraren kanalizatze lanen nagusitasuna eta esangura, eta hala sortzen den itsasadarreko portuak ondorengo urteetako planetan duen nagusitasuna ere.

-Elías Mas-en “Soporte territorial e identidad urbana: el caso de la Ría de Bilbao” artikuluan Bilboaldeko itsasadarra Bilboko paisaia nagusi bezala ezarri zuen hiri garapenari buruz, eta meatzaritza trenbide azpiegiturek aurreratutako eremu metropolitarraren etorkizuneko egiturari buruz eztabaidatzen da (Mas, 2012).

-Javier Martínez Callejo-ren *Bilbao. Desarrollos Urbano. 1960-2000*. Liburuan benetan xehatuta azaltzen da Bilboko garapen urbanoa etxebizitza sustapen eredu ezberdinen bidez, garai batetik besterako arkitektura estilo eta etxebizitza tipologiaren aldaerak adieraziz, baita lurraldea nola hiriritartzen joan zen ere azalduz (Martínez Callejo, País Vasco, País Vasco, Bilbao, & Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, 2009)

- *Conferencia, El problema urbanístico de Bilbao, 1923* 1991ean argitaratutako liburuxkan ageri den Eduardo Leira eta Damian Queroren saiakera (Bastida, 1991). Bertan, Bilboaldearen modelizazioa proposatzen da eskualde mailako eredu bat proposatuz; Sistemek-azpiegiturek eta Piezek-azpiegituren tarte negatiboek osatutakoa. Bastidak egindako proposamenaren eskala *metropolizatuta* berreskuratzen dute eta itsasadarren ardatzaren inguruko egituraketa berri bat proposatzen dute, LZPren aurrerapenean urte pare batzuk geroago gorpuztuko zena. Itsasadarra lurralde elementu adierazkorrena dela aipatzen da, “metropoli-gunearen irudiak garatzeko ahalmen handiena duena” (Leira eta Quero in Bastida, 1991).

-*Bilbao Metropolitano. La Propuesta*(Leira & Argüeso, 1994) Lurralde Zatikako Planaren aurrerapena biltzen duen liburua, Leirak zuzendutako eraldaketa metropolitarraren oinarriak ezartzen ditu: udaletxez gaindiko antolamenduaren beharra, ekonomiaren birbideratzea, eskala lokalaren eta globalaren artikulatzea, hirigintza hiriaren hedapenerako eta garapenerako funtsezko tresna bihurtzea, portu-, trenbide-, eta industria-erabileren lekualdatzea, eta itsasadarra ardatz “genetiko” gisa garapenerako bizkarrezur eta enblema hiritar izateko duen potentzialaren ustiaketa.

-Jesus Maria Erquiciaren (2003) *Hirigintza-plangintzatik lurraldearen antolamendura* liburuan, EAEko bi eskalatako plangintzaren azterketa egiteaz gain—lurralde antolamenduaren eta hiri plangintzaren arteko bereizketa ezarri—, ikerketa historiko bat egiten da plangintzaren eta antolamenduaren garapena lau fase nagusitan banatuaz. Bilboaldeari dagokionez, lau fase horiek, bost bilakatzen dira, eta hurrengo taulan biltzen dira planik esanguratsuenak:


13 Taula Bilboaldeko garapenaren lau plangintza fase nagusi (Erquicia & País Vasco, 2003)

Garaia	Argitaratutako plan nagusiak
Aurrekariak	Bastidaren proposamena Ikuspegi metropolitarraren aurrekaria Errepide Azpiegiturak lurraldearen egituratzaileak.
Autarkiako plangintza	1943. Bilbo eta Eskualdeko Plan Orokorra Egilea: PedroBidagor Lasarte.
Desarrollismo-ko Plangintza	1964. Bilbo eta eskualdeko Plan Orokorra
Demokraziako Hirigintza Plangintza	-1993. Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra -1994 Bilbo Metropolitarraren baterako Proposamena. Lurralde Zatiakoko Planaren aurrerapena.
Lurraldea Antolamenduaren ezarpena	-1990 EAEko Lurralde Antolamenduaren Lege onarpena: -1997 Lurralde Antolamendurako Artezpideen onarpena. -2005 Bilboaldeko Lurralde Zatikako Plana.

Egun ezagutzen dugun paisaia urbanoaren egoera 1950-60 hamarkadetan jazotako kontrolik gabeko etxebizitza hazkunderari, eta, 1980tik aurrera garatu diren garraio azpiegiturei zor zaie. Batak lurzoru eraikigarriaren mugak ia agortu bazituen, bigarren fasean, azpiegitura eta zuzkiduren bidez lurralde eraiki eta hiritartuaren egituraketa ekarri egin zuela esan daiteke. Demokraziarekin batera, plangintzaren normalizazioa eman bazen ere, (ibaiaren portu izaeratik eta 1923an Ricardo Bastidak egindako garraio antolamendurako proposamenetik) izan du bere muinean itsasadarra ardatz edo bizkarrezur kontzeptual eta formal gisa ageri da dokumentuetan.


Ibaiak plangintzan duen nagusitasunarekin alderatzeko, Erquiciak (Erquicia & País Vasco, 2003) aipatzen dituen lau fase horietako plan nagusiak aztertu egin dira, bertan mendiari nolako aipamena egiten zaion jorratuz. Hots, plan horien oinarrian dagoen itsasadarrarekin alderatuz, mendiari nolako garrantzia, balioa eta esanguratsutasuna eskaintzen zaion jakitea izan da helburua ataleko lehen zati honetan.

Bastidaren proposamenean, mendiak ez du ia garrantzirik bertan aurreratzen diren azpiegiturei dagokionez. Aipamen bakarra agian, Artxanda tunel bidez zeharkatzeak ekarriko lukeen onura da, baita bere magaletan kokatzen diren etxebizitza eremuak ere. Hurrengo dokumentu esanguratsua, 1943ko lurralde plana da, Pedro Bidagor Lasarte arkitektoaren gidaritzapean Francoren Gobernazio Ministerioak Bilboko Udalarentzat egindakoa. Mendiak plan honetan duen trataera berdegunearena da; hiriguneak mendi zerrek inguratzen dituztenez, bertan espazio horiek kokatzea proposatzen da, nolabaiteko eraztun berde bat osatuz. Bestalde, Planaren dokumentazioan, mendien altzaera ilustrazio batzuk erabiltzen dira planoetako kajetinetako dekorazio gisa.



6. Irudia 1946ko planeko planoetan ageri den mendien altxaera azaltzen duen ilustrazio dekoratiboa


Gainera, plan honek dokumentu gogoangarri bat zekarren: oilarraren eredu organikoa. Hots, Bilboaldea oilar batekin alderatzen zuen marrazkia. Oilarraren organo bakoitza, Bilboaldeko eremu batekin identifikatzen du eremu horri ematen zaion izaera deskribatzeko. Mendien kasuan: meatzaldekoak oilarraren atzaparrak dira edo oinarri sendoaren metafora, Artxandako Lorategi Hiria, oilarraren gangar ikusgarria da, eta Miribilla-Malmasin inguruko meatzeak, arma moduko mokoa (Bilbao, 1943).



7. Irudia Oilarraren deskribapen organikoa edo metafora urbano zoomorfikoa.

Hurrengo dokumentu esanguratsuak, aurrekoaren oso proposamen antzekoak egiten ditu. 1964.ko Bilbo eta Eskualdeko plan orokorrak (*Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao y su comarca*, 1964), portua itsasadarreko ertzetan nasen bidez zabaltzea, edota Deustuko kanala eraikitzea, esaterako. Errepide sarearen zabalpenari dagokionez, Hegoaldeko saihesbidea proposatzen zen, ezkerrealde eta eskuinaldeko bideen garapena, eskuinaldearen eta Bilboaldearen arteko loturen hobetzea, Rontegiko zubia eta Asuako garapena proposatzen ditu, besteak beste.

1964ko Bilboaldeko planak, mendiak “landu gabeko diamanteak” zirela adierazten zuen, hiriko parkeetarako eta aisialdi guneetarako esparru “naturala”, berez emandakoa. Zonifikazioaren arabera, mendiak Libreak edo Kultura guneak bezala garatuko dira orokorrean. Horrezaz gain, Garapen kontrolatutako Guneen zona, Tipo Ertaineko Bizileku zona, Landa-eremu zona, *Reserva Absoluta* izeneko zona ere azaltzen dira mendietan. Baina orokorrean, mendiak parke sistemaren oinarri gisa azaltzen dira. Zona librearen 1961eko ordenantzak dioenez, eremu horiek babestu egin behar ziren hazkuntza anarkiko eta indibidualistarengandik. Nekazaritza ustiaketa eta garapena soilik baimenduko da bertan. Alabaina, Bilbo Handiko Korporazioak hala baimenduta, bizitokietatik urruti kokatu behar diren industria arriskutsuak onartu daitezke. Lurzoruaren Kalifikazioaren planoetan berriz, mendiak Basogintza eremu gisa azaltzen dira, eta magaletako oinak Erreserbarako Lurzoru gisa kalifikatzen dira.



8. Irudia 1964ko Planeko eremu landatarren eta parkeen analisi plano.



9. Irudia 1964ko Planeko Zonifikazio plano.

Planak mendialdea eremu berde eta libre naturaltzat aintzat hartzen bazuen ere, haren

garapena ekiditeko nahikoa baldintza ez zituen indarrean jarri, eta espekulazioak gain hartu zion asmoa baino ez zen babes nahiari.

Demokrazia garaian lurralde mailako plan bakarra 2005eko Lurralde Zatikako Plana (LZP) da 1994ko aurrerapen dokumentuarekin batera. 1994ko Bilboaldeko antolamendurako lurralde planaren proposamenak, mendiaren hainbat tratamendu egiten ditu, baina funtsean, itsasadarra du ardatz nagusia, industria krisialdiaren ondorenak eta arazoak bertan kontzentratzen baitziren modu ikusgarrienean eta. Agiriak egoera horri aurre egitea zuen helburu nagusia eta etorkizun oparoago baten eredia proposatzen zuen azpiegitura garapenean oinarritzen zen metropolitartze prozedura hipotesi nagusia gisa aurkeztuz. Era beran, plan aurrerapen honek, metropoli mailako parke sistema proposatzen zuen, eremu landatarrek edo nekazaritza jarduerako eremuek osatzen zuten “hutsunearekin” eta izaera sinbolikoarekin batera konbinatuz.

2005eko azken LZParen baitan egiten den mendiaren trataera, plano batetik bestera aldatzen dala esan daiteke. Baina funtsean, egiturazalea den elementu geografiko nagusia, itsasadarra da, bere inguruan biltzen baitira Ekintza Estrategikoak eta Egiturazko Operazio¹⁹ gehienak kokatzen diren eremua. Hots, planaren proposamen nagusiak. Hasierako analisisian, Bilboaldearen indargune nagusiak aipatzen dira; hala nola, Portua, eremuaren tamaina demografikoa, itsasadarra eta *Guggenheim Efectua* (País Vasco, Bizkaia, & País Vasco, 2008). Ordea, mendialdean, espazio irekien Sare Berdea proposatzen da, baita lurralde antolamenduaren artezpideek zoru ez urbanizagarriko edo “eremu fisikorako” ezartzen dituzten baldintzatzaileekin bat datozen antolaketa kategoriak ere: Babes Berezia, Basogintza, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landa kategoriak. Gainera, plan honetan beren beregi zehazten den Paisaia Onurako Landa-Aldeen kategoria ere sarri azaltzen da mendi eremuetan aplikatua. Magalen oinetan, mendiaren erreferentziarik egin gabe, hainbat bizitegi, ekonomia jarduera, industrialde eta azpiegitura kokatzen dira, nolnahi ere. Hegoaldeko mendi eremu nagusia, trenbide lerro berri batek eta tunelean doan errepide batek zeharkatzen dute. Hegoaldeko Saihesbidea 2010ean zabaldu egin zen Larraskitutik Trapagarako zatian.

14 Taula Bilboaldeko eta Euskal Herriko garapen historiaren kronologiako zenbait gertakari eta elementu, eta haien datak.

DATA	GERTAKARIA	ELEMENTUEN ERAIKUNTZA
1825 eta 1827	Estatuko eta Bizkaiko meatzaritza legeek jarduera liberalizatzen dute	
1856	Bessemer aldagailua	
1855		Barakaldoko El Carmen lantegia
1863		Bilbo-Tutera trenbidea

19 Ekintza Estrategikoak eta Egiturazko Operazioak 2005eko Bilboaldeko LZPak proposatzen dituen transformazio estrategiko eta egiturazkoak dira.

1865		Trianoko Trenbidea Foru Aldundiak eraiki
1872		<i>Sociedad Española de la Dinamita, Pedro Telesforo Errazkin</i>
1873-76	Hirugarren karlistada. Bilbao karlistek inguratua.	
1876	Foruen indargabetzea	
1876	Trianoko meatzeen ustiaketa masiboaren hasiera	
1876	Bilboko <i>Zabalgunearen</i> plana Abandon	
1877		Itsasadarraren ubideratze lanak eta kanpo portuaren proiektua Evaristo Txurruka ingeniariaren esku
1887-1893		Bilbo-Las Arenas, -Santander,-La Robla, -Lezama-Mungia,-Durango,-Plentzia trenbidea
1887		Bilbo-Portugalete trenbidea
1890	Abando Bilbok beretu	
1880-90		Burdin meatzeen ustiaketa une gorena
1891		Bilboko Hilerria Derion
1891		Bilboko Burtsa
1912		<i>Club Deportivo Bilbao sortu; Gorbeiala lehen irteera irekia</i>
1914		<i>Bizkaiko Foru Aldundiaren Basozain Zerbitzua</i>
1913-15		<i>Artxandako Funikularra</i>
1923		<i>Ricardo Bastidaren hitzaldia Bilboko sARBIDEEI buruz</i>
1923-1925		<i>Ciudad Jardín de Bilbao (Loruri)</i>
1925	Begoña eta Deusto Bilbok beretzen ditu	
1933		<i>Ordunteko urtegiaren inaugurazioa</i>
1936	Gerra Zibilaren hasiera	
1937	Bilbo altxatutakoek hartzen dute	
1939	Gerra Zibilaren amaiera eta Francoren diktaduraren hasiera	
1940	Erandio Bilbok beretu	
1943-46		<i>Plan General de Ordenación de Bilbao y su Comarca</i>
1945	Gran Bilbao Korporazioa sortzen du Francoren "Ministerio de Gobernación"-ek	
1945		<i>AHV-k Zadorrako urtegiak erosten ditu</i>
1948		Sondikako aireportuko lehen hegaldi komertziala
1950-57	Migrazio olatua Bilbora	
1955+/-		Bilboko Erakustazoka San Mamesen
1960+	Hiri hazkuntza anarkikoaren hasiera eta hiri-zerbitzuen eskarien hazkuntza	
1960		Merca-Bilbao (Basauri)
1960		Asua Bailarako nazioarteko leihaketa
1960		<i>Zadorrako urtegietatik ura ekartzen hasi</i>
1959-1961		<i>Otxarkoaga auzoa</i>
1964	<i>Plan Comarcal de Ordenación</i>	

1966	Sondika, Derio, Zamudio eta Loiu Bilbok beretu zituen
1967	<i>Bilboko Ur Partzuergoa sortu</i>
1968	<i>Agrupacion Minera SA (Agruminsa) sortu</i>
1968	ETAren sorrera
1970	<i>Santurtziko Iberdrola zentral termikoa</i>
1960-1970	<i>Gallarta herriaren eraistea</i>
1970-74	<i>A8 Behobia-Bilbao eta Bilbaoko Hegoaldeko Saihesbidea</i>
1975	Franco Hil
1971	<i>Urak Zadorrako urtegietatik ekarri Arrigorriagako Benta-Altara</i>
1972	Lemoizen eraikuntza
1973	Petrolioaren lehenengo krisia
1974	Industria krisiaren hasiera
1977	<i>Rontegi zubiaren eraikuntza</i>
1976	<i>Artigaseko zabortegia</i>
1979	Petrolioaren bigarren krisia
1979	EAEko Estatutua
1983	Uholdeak
1985	Euskalduna ontziola itxi
1989	Azkenengo meatze lanak
1990	EAEko Lurralde Antolamendurako legea
1992	Bilbao Ria 2000 sortu
1992	Max Center komertzioarena
1994	AHV itxi eta eraitsi
1994	<i>Bilboko HAPO</i>
1994	<i>Bilbo Metropoliko planaren proposamena</i>
1995	Bilboko Metroa
1997	EAEko Lurralde Antolamendurako Artezpideen onarpena
1997	Guggenheim museoa
1998	<i>ARTEA komertzioarena (Leioa)</i>
2000	Europako Paisaiaren Hitzarmena
2002	<i>Artxandako tunela</i>
2002	<i>Argalarioko lindane gordailua</i>
1994-2003	<i>Txorierriko Lasterbidea</i>
2004-05	<i>Zabalgarbi errauskailua</i>
2005	<i>Bilboaldeko Lurralde Zatikako Plana</i>
1992-2008	<i>Kadagauako igarobidea</i>
2008	Finantza Krisia
2009	<i>Bilboko Eratzun Berdea</i>
2011	<i>Metropoliko Hegoaldeko Ingurabidea</i>
2011	<i>Bilbo Metropoliko Eratzun Berdearen txostena</i>

2012	Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Aldaketaren Hasierako Onespena, berrazterketaren ondorioz
2014	EAEko Paisaia-Dekretuaren onarpena

Labur esanda, hiri hazkuntzak beti itsasadarra ardatz nagusi gisa izan duela baieztatu daiteke, inguruko lurzoru lauei esker, baita nabigazioaren inguruan garatutako jarduera industrial eta ekonomikoa zela eta. Ardatz hori izan da plangintza eta antolakuntza urbanoa, baita berreskuraketa operazioetan ere sustatu eta indartu egin dena, gailur unetan, zein gainbehera ekonomikotik ateratzeko momentuetan ere. Mendialdea berriz, meatzeek hasieran eta ondoren harrobiek zein basogintzak eman dio balioa. Plangintzaren bitartez, apaingarri eta aisialdi izaera sustatu da, paisaia-fondo gisa duten presentzia zinez ederra aldarrikatuz, baita hirigunetik gertu dagoen eremu natural eta aske gisa duten potentziala ere aldarrikatuz. Bi balio horiek baina, ez dute mendialdearen osotasuna adierazteko eta Bilboaldearen iruditegia osatzeko duten garrantzia ezbaian jartzen da hemen. Hurrengo lerroetan, mendiaren bazterreko izaeraren eraikuntza eragin duten arrazoiak eztabaidatuko dira, paisaia iruditegiaren azterketa baten bitartez.

8.2 Bilboaldeko mendien bazterketa

Tesi hau zedarritzen duten paisaiaren oinarri teorikoak eta helburua horrela laburbildu daitezke: paisaia lurraldearekin sortzen den harreman fisikoa zein kontzeptuala denez gero, hiri-bazterreko paisaia osatu duten diskurtso eta ikuspegi anitzak aintzat hartu behar dira hura ulertzeko. Harreman horiek paisaia irudikapenek eta lurraldearen proiektzioek artikulatzen dituzte, hots, Paisaia Ikuspegiak.

Hori horrela, ikuspegi horien arabera Bazterreko Paisaien azterketa eta ulermen bat aurrera eraman egin da ikerketa kasu konkretu bat erabiliaz: Bilboaldeko mendietako bazterreko paisaiean, hain zuzen ere. 9. Ataletik aurrera azalduko den ikerketan eremu zehatz horren aukeraketa landa lana egin bezala suspertu egin dela azalduko da. Hala ere, aukeraketa justifikatzen duen beste arrazoi batzuk azaldu egin nahi dira atal honetan. Arrazoi horiek batik batik lurraldearen irudikapenekin eta ulermenekin dute zerikusia, hots, Bilboaldeko geografia ulertzeko egon eta eraldatzeko existitu diren jarreraren eraginekin. Bilboaldeko hiri-bazterreko paisaia menditsuen kasuaren baliagarritasuna nabarmentzeko hipotesi bat egiten da atal honetan. Hain zuzen ere, paisaia arketipoen, hiriaren irudikapenaren eta herrialde baten identitatea bezalako gaiak elkarlotzen dituen hipotesia.

Horren arabera, Euskal paisaia arketipikoaren eta Bilbo itsasadarrarekin identifikatzen duen irudikapenaren ondorioz, Bilboaldeko mendialdea diskurtsiboki lehenengo, eta fisikoki geroago, baztertua geratu den paisaia bat dela esan daiteke. Hots, izaera konkreturik gabe; nekazaritza eta natura-eremu idealen, eta periferia funtzionalegi edo transformatuegi

baten negatibotasunaren muturreko irudiek baldintzatu. Mendialdearen izaera modu barneratzailean—eragin material eta ideologiko guztiak aintzat hartzen dituen—irudikatze ariketa beharrezkoa dela esan daiteke, Euskal Herri atlantikoan hain arrunta eta egunerokoa den hiri-bazterreko paisaia heterogeneo honen osotasuna martzatzeko. Bilboaldea eredu horren paradigma bezala jorratu egin da tesi honetan.

Akaberako helburua Bazterreko Paisaiantzako lurralde plangintza trataera berezi baten eraikuntzaren osaketak beharko luke izan; hots, hiritarren edo landatarren erreferentzien arabera ordenatu beharrean, bazterreko ezaugarri berezien arabeko irizpideak ezarriko lituzkeen ulermenetik eratorritako antolamendu, planifikazio, eta, diseinu behar eta programak ezarri. Alabaina, asmo horren burutzeak tesi honen lorpenetatik urruti dagoenez, aldarrikapen eta etorkizunerako helburu gisa aipamen soila egiten zaio oraingoz.

Atal honen argumentura itzulita, hemen, hiri-bazterreko paisaia menditsuaren arazoan jatorria paisaia irudikapen konkretuetan kokatzen dira. Hauek kulturaren, gizartearen, eta, gutxika hirigintzan era ezartzen diren irizpide estetikoetan, eta gerora, materialetan eragina izan dute. Kultura irudikapenen eta hirigintza politiken arteko elkarri eragiteak zenbait autoreek aipatu dituzte. Esaterako, Ingalaterrako hiri bazterreko paisaien kasuan; zinema sorkuntzako deskribapenak eta Erresuma Batuko plangintza irizpide ofizialekoak bazterreko paisaiaren zabarkeria eta zerbitzu desatseginen presentzia azpimarratzen dute (Gallent 2007:11).

Bi paisaia irudikapen arketipikoen eraginaren hipotesia frogatu ahal izateko Bilboaldea, Euskal Herria eta mendia irudikatzen duten artelanak eta material grafikoa aztertu eta sailkatu egin da. Ondorio gisa, bi baieztapen aipatu daitezke: Bilboaldearen irudikapen geografikoen itsasadarra eta mendia batera irudikatzen zutela, eta Iraultza Industrialetik aurrera, mendiak eta itsasadarra esanahi ezberdinak hartu zituztela—euskal paisaia ideala eta Bilboko paisaia, hurrenez hurren—eta, hortaz, banatu egin zela Bilboaldeko espazio geografikoa maila irudikatuan. Banaketa horren ondorioz, Bilboaldeko mendiak paisaia gisa *baztertuak* daudela baieztatu daiteke: izaera eta berezko esanahi kultural osaturik gabe, baina erabilera eta funtzionaltasun ugariaren eraginpean.

8.2.1 Bazterreko paisaiek irudikapen gutxi dituzte

Literaturaren berrikuspenean esan bezala, HBPe arazo nagusia irudikapen gabezia edo kutsu negatiboko adierazpenak dira. Paisaia arketipikoen duten zabalpen mediatikoarekin alderatzen baldin badugu, behinik behin, nabarmen ageri da zeinen gutxi ezagutarazten diren hiri-bazterreko paisaiak berezko izaera onargarria eta baliotsua duten espazio gisa. Gabezia honek gizartearen hautemate eta baliotzapen negatiboak eragiten dituztela argudiatzen ohi da. Gallentek (2006), Noguék (2010) eta Sievertsek (2003) bazter-paisaiekiko jarrera negatiboak paisaia arketipikoen erreferentzia izaerarekin eta bazter paisaieko indarguneen

irudikapen gabeziarekin lotu egin dituzte. Aldarrikapen nagusi bat egiten dute autore hauek, alegia, paisaia tipo hauen izaeraren ulermen sakonagoak eta irudikapen berrien ekoizpena eta komunikazioaren sustapena (Gallent & Andersson, 2007; Gallent et al., 2006; Nogué, 2010) paisaia hauekiko atxikimena eta ardura gizarteratzeko (Sieverts, 2003); finean, tokiarekiko identifikazio loturak sortu ahal izateko (Vicenzotti & Trepl, 2009). Irudikapen gabezia honen inplikazio bat da HBPen berezko eta unean-uneko izaeraren mespretxua eta ordezkapena (Qviström & Saltzman, 2007). Horrezaz gain, bertako ezaugarri potentzialek eta nolakotasunek bizitza kalitateari ekarri diezazkiokeen onurak ez onartzea eragiten du paisaion irudikapen gabeziak (Sieverts, 2003). Irudikapen kulturelek eragiten duen diskurtso hau gizarteak eta politikariek birsortzen eta errepikatzen dute (Gallent & Andersson, 2007; Gallent et al., 2006) eta lurraldearen toki batzuk bultzatzen dituen bezala, estigmatizatzen du beste batzuen promozioa (Nogué & Vicente, 2004). Hala, paisaia arketipikoen eta idealen promozioak eta balioak iraun egiten du, paisaiaren irudizko ulermen eta ideia mugatu bati jarraitasuna emanez.

8.2.2 Lehen arketipoa: nekazaritza giroko euskal paisaia

Paisaia arketipiko euskaldunaren kasua erabiliko da lehen arazo horretako eragileetako bat ilustratzeko. Eredu hau 19.mende aldaketan oligarkia euskaldunak sortu eta sustatu zuen, eta ondoren ideologia nazionalista eta kontserbatzailedun burgesek berea egin zuten (Guasch, 1985; Viar, 2000) artearen esparruan, bederen. Irudikapen nagusiak margolan eta literatura arloetan ematen ziren, eta bertan, isuri Atlantiarreko mendi eta nekazaritza giroko elementuak erabiltzen ziren: mendia, baserria, laboraria, artzaina, idiak etab. Nahiz eta jatorrian, ideologia nazionalistak artearekiko eta paisaiarekiko programa berezirik ezarri ez (Guasch, 1985), iruditegi konkretu bat ezarri zela esan daiteke benetako paisaia euskaldunaren ordezkari gisa.

Eremu landatar eta menditsu horiek euskalduntasunaren biltegi bezala ulertzen ziren, herri baten esentziaren erakusgarriak eta ordezkariak (Askasibar, 1999; Viar, 2000). Eremu landatarrak eta mendikoak industrializazioak eragindako balio eta gizatasun galera berreskuratzeko aldarrikatzen ziren, Ruskinen Ingalaterra victoriarraren kasuan esan bezala (Cosgrove, 1998). Euskal herriko literatura lanak ere horren isla dira; esaterako, Txomin Agirrenren *Garoa* (1907-1912). Paisaia eredu horrek, arkitektura estilo konkretuak eragiteaz gain—*Neo-Basque* iparraldean edo *Neo-Vasco*-a hegoaldean, plangintza eta ordenantza zehatzak ere eragin ditu hainbat urte geroago. Horrelako paisaia arketipikoarekiko gizarteak duen aprezioa EAeko paisaiei buruzko hainbat ikerketa proiektuetan berretsi egin da (IKT & PAISAIA, 2005; Universidad Politécnica de Madrid, 1990). Horrezaz gain, datu garbirik ez badugu ere, azken hamarkadan EAEn zehar arkitektura estilo neo-neo-euskaldunean eraiki diren neo-baserrien²⁰ ugalketak ere, ideal horrek duen onarpen zabala ere erakusten du.

20 Neo-baserria, baserri ereduaren elementu formal batzuk erabiliz eraikitzen den familiabakarreko edo biko arkitektura pieza pastichea da. Azken 20 urtetan Euskal Herrian izugarri ugaltu den arkitektura estiloa da.

Madriilen 2013an ospatu zen Turismo Azokan, EAEko ordezkariak baserri giroko paisaia ikonografiaren arketipikoaren irakurketa berritu bat erabili egin zuen Elkargoko turismoa sustatze aldera; adibide honek aipatu Euskal paisaia erreferentziazkoaren iraunkortasuna eta turismoa bezalako politikek egiten duten eredu horren erabileraren erakusgarri garbiak dira²¹. Lurralde antolamenduaren eta hiri-plangintza politikek Katalunian bezala ideal horrekin bat ez datozen paisaiak funtzionalizatu, instrumentalizatu eta estigmatizatzen (Garcia-Ramon & Nogue-Font, 1994) dituen ala ez esatea gehiegi izan daiteke, baina arketipoekin bat ez datozen paisaiaen—tartean, hiri bazterreko paisaiak— izaeraren onarpenean zaildu egiten dute erreferentzia hertsia eta mugatu bat ezartzen dutelako.

8.2.3 *Bigarren Arketipoa: Bilbo = Itsasadarra*

Bilboaldeko hiri-bazterreko paisaiak mendian kokatzen dituen beste argumentua hurrengoa da: Bilboaldea eta bere izaera irudikatzeko modu nabarmenean itsasadarraren erabilpenaren bidez egiten dela. Itsasadarraren ertzetan historian zehar garatu eta osatu den espazio kultural, ekonomiko, soziala eta komertzialak bere aurkakoa topatzen du mendietan; itsasadarrekoa bezain esanguratsua baina ez hain onartua den mendian. Biak ala biak dira Bilboaldearen garapenaren ertz-mugak, baina batak besteak baino pisu handiagoa du Bilboren ideia eta paisaia adierazterakoan. Ikusiko den bezala, hainbat irudikapen kultural grafiko aztertu ondoren atera daitekeen ondorio bat da hau.

Bilboaldea geografiaren ikuspegitik modu errealista batean irudikatzen denean, ezaugarri geologiko nahiz hidrológicoak aipatzen dira, baita geomorfologia orokorra ere: hots, mendi zein itsasadar, biek osatzen dute Bilboaldearen oinarri fisikoa. Ordea, esan daiteke, industrializazioaren eta hiri garapenaren bizkortzetik, hots 19.mende amaieratik, bereziki itsasadarraren bueltan zeuden jarduerak, eraikinek eta eraldaketek irudikatzen zutela Bilboaldea. Diskurtso honek gaur arte irauten du, izan ere, itsasadarreko zati eta atal isolatu zenbaitzuek, eta bereziki bertako arkitektura berriek ordezkatzeko dute bai Bilbo hiria bera, zein Bilboaldeko eskualdea ere. Honen eredugarri, Shanghaien 2010ean Bilboko udaletxeak eraman zuen “Bilbao Guggenheim ++” erakusketa da. Bertan hiriaren garapena eta krisiak gainditzeko ahalmena arkitektura eta azpiegitura piezen bidez adierazten zen maketa ikusgarri batean. Guztiz ezaguna den Bilboko hiri garapena azaltzen zen bertan: hots, itsasadarra industriaren, azpiegituraren suspertze eta garapenaren eremu pribilegiatu bezala, eta, ondoren, eremu berbera berreskuratuz biziberritu dela hiria: hiri-soluzioen [urban solutions²²] arrakastan oinarritutako Bilbao marka sortuaz.

Horrekin batera, Shanghaien bi bideok Bilboko garapena itsasadarraren eta mendien

21 Azokako standean erabilitako Igotz Ziarreta artistaren argazkiek 20.mende hasierako baserri giroko artelanen iruditeriaren interpretazio gaurkotu bat adierazten dute.

22 Urban Solutions Bilbao <http://urbansolutionsbilbao.com/>

ikuspegitik azaltzen zuten; mendi bideoaren esanguratsutasuna itsasadarrekoarekin alderatuta lausoa zela esatea zilegi da. Pagasarriko eta orohar Bilbokoak ez diren beste mendi batzuk erakusten zituen bideoak, Bilboren garapenean meatzeek eta basoek izan duten garrantziari, edota abeltzaintzari aipamenik ere egin gabe. Itsasadarrak berriz, industria eta arkitektura, hots, hiria esanahi dute bideoen arabera. Mendiek ordea “Euskal Herria” eta “berdea” adierazten dute²³. Mendiak Bilboko atzealde bat dira, hiritik alde egiteko eremu gisa duten balioa da bideoan aitortzen zaien hiri garapenaren esangura bakarra. Orokorrean, Bilboaldearen garapena eta izaera azaltzeko bitan banatua den geografia baten erabilpena egiten da, batari besteari baino nabarmen garrantzi handiagoa emanaz.

Atal honen asmoa ez da itsasadarrak hiri-garapenaren bizkarrezur gisa izan eta duen esanguratsutasuna eztabaidatzea. Esan nahi baita, hiria bi elementu geografikoren eraginez eta beren baliabideei esker gartu baldin bada ere, trataera paisajistiko eta sinboliko ezberdinak jasotzen dituztela batak edo besteak. Diskurtso asimetriko hau mendiek Bilbori buruzko margolaritza eta mota askotako adierazpen grafiko garaikidetan izan duten ikusgarritasun urria eta motibo pikturiko bezala erabilgarritasun eskasarekin ere badute lotura, ondoren ikusiko den bezala.

8.2.4 Euskal Artearen historiari gainbegiratu labur bat

Artista euskaldunen lana, baita Bilbo eta Euskal Herriari buruzko arteak ere ez dute esangurarik lortuko industrializazioa heldu arte (Barañano, 1990; Viar, 2000; Zabala, Zugaza, & Fernandez, 1993). Aurretiaz egindako lanak gehien bat kartografikoak dira, edota irudi panoramikoak (Zabala et al., 1993) margolari apur batzuen lan akademizistak edo zenbait bidaiariren kronikak izango dira Bilbo agertzen den aurre-industriako irudikapen bakarrak (Viar, 2000).

Mendiaren adierazpenak ezinbestean nekazaritza motiboekin lotu egin ziren eta ideologia nazionalistak bereganatu zuen ikuspegi hori 19. mende amaieratik 1930arte (Viar, 2000). Hasieran Bilboko oligarkiak eskatzen zituen margolanak baziren ere, gerora burges nazionalisten gustuko lanak bilakatu ziren. Aurrerago baina, 20. mendearen hastapenetan suspertu zen euskal arteak industriaren eskutan galdutakoa eta ekonomia hazkuntzak kendutakoa adierazten zuen. Gerra Zibilaren ondoren, galera hori, galdutako paradisu gisa ulertuko zen (Manterola in Guasch, 1985). Mendiaren irudikapen grafikoak, baina, argazkilaritzari eta mendizaletasunaren bidez, beste maila bateko balioa lotuko zaie gerora: askatasuna, espiritualitatea eta higienismoa.

23 Bideo hauek eskuragarri daude web-atari honetan <http://www.bilbaointernational.com/eu/bilbao-guggenheim-shanghai-world-expo-2010/3/>

Paisaia motibo garrantzitsu gisa diktadura garaian folklorismoan eta margolan atzerakoietan galduko zen, bestelako aldarrikapenak zentsuratzen zituen errepresioaren eraginez. 1950etik aurrera, Oteizaren lanek euskal estetikaren berezko izaera bilatuko zuen hizkuntza abstraktu eta lengoia informalaren bitartez. Oteizaren jarraitzaileek egin aldarrikapenak suspertzen ari zen ezkerreko abertzaletasunarekin bat egin zuen (Guasch, 1985).

Mende aldaketako Bilboko burgesiak ere industriaren, ontzigintzaren, itsasadarraren eta bestelako motibo hiritarrak irudikatzen lanak eskatzen zituen: botere ekonomiko eta aurrerapen teknologikoa adierazten zuten margolanak, alegia. Linea hau, beranduago, langilearen aldarrikapenak eta langilea goستن zuen ikuspegiko lanekin osatuko zen. Aurrekari gisa Aurelio Artetaren lanak aipatu daitezke (Viar, 2000), non arrantzaleak, fabrika langileak, meatzariak eta zirgariak azaltzen ziren, esaterako Madrileko *Banco de Bilbao* [egungo BBVA] eraikerako egindako freskoetan bezala. Euskal arte modernoaren suspertze garaietan, Agustin Ibarrolak helduko zion sozialista gisa izendatu den arteari (Viar, 2000).

Hortaz, bi ikuspegi nagusi sortu ziren Bilbon 20. mende hasieran; mendi landatarrarena eta itsasadar industrialarena, ideologia nazionalistarekin eta sozialistarekin lotuta, hurrenez hurren (Guasch, 1984:287). Nolanahi ere, burgesiak ala eskatuta tradizio landatarrarekin zerikusia zuten irudi gehiago sortu ziren, hiria irudikatzen zutenak baino (Guasch, 1985; Viar, 2000).

Gerra Zibilaren aurretik sortutako artea euskal artearen garai gorenetakoa bat bezala ulertu ohi da (Barañano, 1990), eta, era berean, 1950-60.hamarkadatik aurrera lengoia abstraktuaren eta Oteiza bezalako artista ideologo bidetik sortu zena, euskal artearen benetako izaera modernoaren sorkuntza garaia kontsideratzen da. Bigarren zati honetan, lengoia errealistaren eta paisaiaren erabilera euskal estetika modernoaren adierazpenerako tresna nagusia izateari uzten diola esan daiteke.

Alabaina, lengoia horiek berriz agertuko dira Franco hil ostean, 1980etik aurrera, petrolioaren eta industria-krisiarekin bat eginez. Bilbo bereziki, gainbehera industrial sakonaren eraginez sortutako paisaietako dekadentzia eta malenkoniaren bidez irudikatuko da, esaterako Cesar Luengo eta Agustin Recheren lanetan; hurrenez hurren, “Euskalduna en Ruinas” (1993) eta “Atardecer desde el monte Archanda” (1998). Desagertze zegoen paisaia industrialaren dokumentazio eta imaginario sortze bat eman zen Jesus Angel Miranda argazkilaria eta Iñaki Bilbao margolariaren lanen bidez, era berean.

Guggenheim efektuaren eragina eta industria-berrantolaketa prozesuaren garaietan, 1990 hamarkadatik aurrera arkitektura eta hiri eraldaketak bilakatu ziren hiriaren itxura berreskuratzeko medio nagusia. Horien adierazpen piktorikoak Bilbo arkitektura pieza berri horien bidez irudikatzen zuten; erreka inguruan biltzen ziren zubi eta eraikin berriak margotuz.

Paisaiaren eta naturaren erabilera eta irudikapen errealista lengoia sinbolikoaz egituratua, Vicente Ameztoyren lanean topatu daiteke; esaterako, izenbururik ez duen 1979ko margolan batean non Muskizeko findegia, pinu landaketa eta bi poxpolinekin konposatutako irudia agertzen den, hainbat sinbolo eta elementu eraiki zein industrialen gainjartzen dituen paisaiaren irudikapena. Berriki beste artista kontzeptualen lanak aipa daitezke, paisaiaren beste erabilera bat eginez, metropoliaren berpiztearen prozeduraren atzealdea erakusten dutenak: Mikel Escauriaren “Enekuri P-L Sign”(2008) eta Morquillas-en “Bilbao Style” collage (2001) sorta, esaterako. Euskal Herri mailan ere, paisaia, izaera eta kultura tentsioak adierazteko paisaia modu kritikoan erabili izan dute zenbait artistek, esaterako Asier Mendizabalek “Auñamendi” (2005) lanean, edo Ibon Aranberrik “Nature Reduced to Cultivation” (1998) lanean. Honek Vicente Ameztoy-k 1977an egindako pinu *intsigniaren* eta industrializazioa kritikatzeko margolanaren haria jarraitzen duela esan daiteke.

Postalek, argazkilaritzak eta kazetaritzak historia bide paraleloak jarraitu zituzten. Euskal Herriaren hastapeneko kazetaritza agerietako batzuk aldizkari ilustratuetan ageri ziren, hirugarren Karlistadaren (1873-76) inguruko kronikak eginez edota meatzaritza jardun biziari buruz idazten. Horietan ageri ziren iruditako xilografia eta litografia teknika azkar ordezkatu zuen dagerrotipoak, eta gerora argazkilaritza arruntak.

20. mende hasierako Bilboko turismo postatxarteak iruditegi tipikoa azaltzen dute, batik bat ibaiertz, hiri eta industria inguruetan, baita nekazaritza giroko egoeren bidez ere. Nekazaritza esparrua irudikatu zuten argazkilarik ezagun batzuk dira Felipe Manterola Zeanuritarra (1885-1977), edo Eulalia Abaitua Begoñaztarra (1853-1943). Mendizaletasunarekin lotura zuzena zuena—batik bat euskal herriko federazioarekin zuen lotura estua zela eta, baina baita Bilboaldeko Burdinazko Gerrikoaren argazki ezagunen egile gisa ere, Indalecio Ojanguren eibartarra dugu (1887-1972). Bestetik, Bilboko irudi ederrak ere egin zituen Pedro Telesforo Errazkin bilbotar enpresa-gizon garrantzitsuak (1834-1898).

Hiria garatu zen heinean eta denborak aurrera egin ahala, motibo eta teknika berriez osatzen joan ziren postalak. Txuri beltzetik Kodachrome koloretarako saltoan, teknika aldaketak horrek ere gizarte eta ekonomiaren aldaketak, baita, politikoak ere islatzen ditu.

Bilbo eta Euskal Herrian sortutako artearen eta historiaren azterketa sakon bat egitea helburua ez bada izan, ezinbestean egin da artearen motibo, ikonografia eta teknikaren garapenarekiko paraleloa den aldaketa ekonomikoen eta politikoen garapenaren interpretazio historiko bat. Paralelismo horren bitartez, artearengan gertakari historikoek duten eragina eta isla nabaritu dira, edota paisaia kritikaren eta aldarrikapenaren motibo gisa nola erabili den ere bai. Ezinezkoa da hemen paisaiaren erabilera piktorkoaren istorio linealik aurkeztea, ezta adierazpide berrien suspertzeak errealismoa komunikazio eta irudikapen tresna gisa nola alboratu duen adieraztea ere. Hala ere, hari orokor bat topatu egin da, zeinak izaera, nazio,

erregio, ezberdintze, ingurumen eta mendi gaiak elkarlotzen dituena, eta denboran zehar atzera eta aurrera mugitzen dena. Hari honek, mendiko espazioa, industria eta teknologia aurrerabide nahiz gainbehera, baita nekazaritza paisaia ere erreklamatzeko, ezeztatzen eta aurrez aurre ipintzen ditu, hizkuntza nostalgikoa, kritikoa eta ospakizuneko erabiliz. Ana Maria Guaschen (1985) hitzetan, euskal artea eta ideologia aztertzea gizarte batek bere izaera bilatzeko egiten dituen eginahalak eta aldarrikapenak arakatzea esan nahi du. Gainera, artearen bidez gizarte arazoak bakarrik ez, eta ingurumen, lurralde eta paisaia baten garapena eta suntsiketa ere ikertu daitezke (Viar, 2000; Zabala et al., 1993).

8.3 Paisaia iruditegi grafikoaren interpretazio lana

8.3.1 Bilboren bi irudi 19. Mende hasieran

1900 urtearen inguruan, Bilbok bi irudi nagusi zituen, bertara iristeko erabiltzen zen ibilbidearen arabekoak. Batetik, barrualdetik etorritz gero, mendiak zeharkatuaz, gainbehera eta tristezia sentitzen omen zen. Bestetik, itsasadarrean gora etorrira, askoz alaiagoa, biziagoa eta ikasiagoa zen irudia azaltzen zuen Bilbok (Zabala et al., 1993).

Idea oso interesgarria da atal honetan adierazi nahi dena irudikatze, hots Bilboaldeko mendiek paisaia gisa duten bazter izaera justifikatzeko. Irudi horren arabera, itsasadarra mundura irekitzeko aterabidea da, elkartrukea eta harreman komertzialentzako, esperientzia berriak eta botere ekonomikorako azpiegitura. Mendiak eta barrualdea, ordea, gabezien, miseriaren, lan gogorraren, atzerapenaren eta kultur gabetasunaren ordezkariak ziren. Jakina denez, Euskal Herri atlantikoaren garapen ekonomiko eta teknologikoaren eremu nagusia itsasoari lotu izan zaio, lurraldearen lantzeko zailtasunak eta lurzorua kalitate edafologikoak eraginda. Mendien bazter irudikapena historikoa izan dela esan daiteke bi irudi hauen arabera.

Bilboren izaera, bere fundaziotik, itsasoko kultura komertzialarekin lotu izan da, eta ondoren horrek ahalbidetu zuen industriarekin. Mendietako baliabide materialek eta beraien bidezko komunikazio bideek ere Bilboren izaera eta garapena ahalbidetu zutela diskutitzerik ez dago, itsasadarrarekin konbinatuta ekosistema eta garapen teknologiko interesgarria sortu zen. Alabaina, mendiak eta bertako jarduerak, hiriarren izaeraren eta paisaiaren atzealdea izan dira fisikoki nahiz kontzeptualki.

8.3.2 Material grafikoaren azterketa

Nolabaiteko hipotesi horiek justifikatzeko egin den ikerketaren metodologia azalduko da ondoren. Funtsean, Bilboren irudikapenen edukiaren azterketa egin da, bereziki mendien eta itsasadarraren presentzia nola ematen den begiraturuz: atzean edo aurrealdean kokatzen al dira? Irudiko pertsonak mendiko ala ibaiko jardunean al daude? Toki konkretu bat irudikatzen al da?

15 Taula Bilboaldeko eta Euskal Herriko paisaia irudikapenen edukiaren analisirako taula. Ikusi A Gehiagarria aztertu diren irudietako batzuk ezagutzeko.

RURAL MOUNTAIN LANDSCAPE	TYPE AND TITLE	AUTHOR/EDITOR	YEAR /PERIOD	Background object	Foreground object	Focaliser	Perspective	Position of	View taken from	Mountain as location
Arche-type						People/ characters, Artifact, Natural element, Rural element	Vertical, Horizontal, Upwards,	High-vantage point, Low-		
PAINTING										
<i>Back from work</i>	La vuelta del trabajo	Guiard, T	1889	mountains against sky, smoke and	a man and a boy	woman with oxen in center, two men on right	horizontal	ground level		
<i>The reaping/ mowing</i>	La siega	Guiard, T	1890	sky, field with several men and oxen car-	"sega", a man picking cut grass;	man picking grass on left, pair of oxen in center	horizontal	ground level		
<i>Popular festival</i>	Fiesta popular	Arrue, J	1926	the sea and coast of Bermeo surrounded by fields	a group of men and women celebrating near a farmhouse	a woman cooking on right, a couple on horse left, two urban ladies center, bowlers left mid, two men staring out of the picture, the trees, the sea, the building, etc	panoramic	ground level and vantage point towards the sea	could be Sollube where the Canon restaurant is located	yes
PHOTOGRAPHS										
POSTCARDS										
FILM STILLS										
MILK ADVERTISEMENTS										

Helburu nagusia Bilboaldearen irudia margolan eta agiri grafikoetan nola eraldatu den aztertzea izan da, geografiak bertan izan duen presentzia bereziki jarraituz. Ondorioztatzen da, hiria eta industria itsasadarrekin eta ez mendiarekin lotzen da, eta, ordea, mendia, nekazaritza giroko euskal paisiarekin lotzen da, eta ez hiriarekin. Paisaiaren irudikapen

landatar zein urbano horiek, biek ala biek 19. Mende aldaketako burgesia Bilbotarrak sortutako iruditegiak dituzte oinarrian, izan ere, artelanen enkarguak egiteko ohitura eta kultura artistiko industrializazio garaian garatu zen batik bat kapital pilaketari esker eta hiri-kultura modernoaren garapenaren eraginez (Viar, 2000).

Dokumentu eta agirien ikerketa bat egin da, bigarren mailako iturriak diren material grafikoak aztertuz: margolanak, postalak, argazkiak eta aldizkari ilustratuak. Testu bidezko materiala literatura, turismo txostenak edo bidai kronikak izan dira, baina informazio osagarri bezala erabili dira kasu apur batzuetan baino ez. Mapa eta proiektuak bezalako dokumentu garrantzitsuak azterketatik kanpo geratu dira, tesiaren ikerketa atal nagusian duten garrantzia dela eta. Hala ere, ikusiko den bezala, Bilbo azaltzen duten agiri zaharrenen kasuan bereziki, artelanaren eta agiri kartografikoaren arteko muga zehaztea zaila gertatzen da. Javier Viarek (2000) egiten du baieztapen hau zenbait mapa eta ikusmira panoramiko zaharren kasuak analizatzerakoan.

Aztertutako irudi sortari dagokionez, Gillian Rose-n (2007) arabera, aztertu beharreko irudiak aukeratzekoan, ikerlariaren helburuekin eta ideiekin bat datozenak erabiltzea gomendatzen du. Kasu honetan, lehenengo aukeraketa Javier Viaren *Bilbao en el arte* hiru bolumeneko liburu sortan azaltzen direnek osatzen dute. Hortik aurrera, bilaketa doitu egin da Bilbo azaltzen zuten edo euskal nekazaritza iruditegia azaltzen zuten lanak aukeratuz. Irudi gehienak figuratiboak eta errealistak dira, hots, objektuak errez bereizten diren lanak, alegia. Horrek ez du esan nahi, ordea, adierazten den tokia, egoera ezta pertsonak ere benetan existitzen direnik ere, eta maiz eszenategi eta konposizio irudikatuak, edo toki-izenik gabekoak agertzen dira margoetan eta argazkietan.

Denbora tarte nahiko zabala aztertu egin da, adierazpidearen arabera dena; argazkilaritzaren tradizioa laburragoa da margolanarekin alderatuta, adibidez. Hainbat egileek baieztatzen dute Bilbo ez zela nahikoa erakargarria bihurtu artista kanpotarrentzako 19. menderarte eta 20. Mende hasieraraino (Viar, 2000; Zabala et al., 1993). Hortik aurrera sortu ziren paisaia irudikapenak landu dira. Beste garai interesgarri bat 1980eko industri krisialditik eta 1990ean hasitako biziberritzerako eraldaketa hartzen duena.

Irudiak bi kategoria nagusien arabera sailkatu eta arakatu egin dira; hots, euskal paisaiaren arketipoaren motako irudiak eta Bilboko itsasadar industrial adierazten duten motako irudiak. Sailkapena egiteko konposizioaren interpretazio bidezko metodoa erabili da analisia. Ikerketa teknika honekin, Rosen (2007) hitzetan, irudiak azaltzen duenaren arabera egiten da eta modu fenomenologikoan egiten da interpretazioa. Teknika hau irudiaren testuingurua ezaguna duten ikerlariak erabiltzen dute, eta hortaz, semiologiarik ez da erabili hemen. Izan ere, bildutako irudiek dagoeneko esanahia ezarria dute beste interpretazio semiologiko batzuen arabera (Rose, 2007) eta ikerlaria esanahi hauen jabe dela suposatzen da.

Sailak teknika horren aplikaziotik eratorri dira, eta bat datoz hasieran planteatzen diren bi arazo edo hipotesien paisaiekin: nekazaritza eta mendi giroko euskal paisaiarekin eta Bilboko itsasadar industrialarekin. Alabaina, zenbait irudik ez dute bi sail horietan lekurik topatzen, eta hortaz, hirugarren batean bildu egin dira. Sail horretan Bilboaldea mendiaren eta itsasadarraren bitartez irudikatzen da grafikoki, eta industriaurrekoak dira gehienak, baita Frankoren diktaduraren amaieratik aurrera egindako lan kritikoak ere. Sail horretako irudiek arketipoen sorrera eta eragina adierazten dute, baita beste paisai iruditegia bat sortzeko ataka ere.

Ondoren, bi ideia horiek, Bilbon sortu ziren bi paisai piktoriko idealekin (Guasch, 1985) lotura dutenak, irudikatzen dituzten materialak deskribatuko dira, zenbait joera nagusi adieraziz.

8.3.3 Euskal paisaia arketipoaren osatzea: Nekazaritza paisaiaren irudikapenak

1898tik 1920 bitarterako aztertu diren margolarien lanek mendia paisaiaren atzealdean dagoela irudikatzen dute : Guiard, Jose eta Ramiro Arrue, Aurelio Arteta, eta Ramon Zubiaurre. Zeru zati bat eta mendia horren kontra;azpialdean herrixka, baserria eta zelaiak agertzen dira normalean. Motibo zentralak pertsonak bakarka edo taldeka izan ohi dira jarduera zehatz batean daudela, euskal nekazarien egunerokotasuna adieraziz: erromeriak, segalariak, idiazainak, karta jokoak, bertsolariak, merkatura bidean, erromeriatik etxera bidean, goldatzen etab. Arte lanetako izenburuetan toki izenik ez da ageri, bai ordea “basques”, “arratiana”, “vasco”, “tierra vasca”, “aldea” bezalako izenondoak eta izenak. Aztertutako 22 argazkietatik, 16-k dute mendia irudiaren atzealdean zeruaren kontra kokatua. Hemen ere aurrealdeko elementuak eta fokuak jendea, jendearen jarduna eta baserriak dira.

Ordea, argazkien lasuan tarte zabalago bat aztertu egin da, 1904-1936ra bitarteko Felipe Manterolaren, Ojangurenen gerraurreko irudiak eta Siefgrido Kochen 80.hamarkadako zenbait argazki. Margoekiko aldaketa bakarra aurkitu da: toki izenen erabilera izenburuan; honek dokumentazio nahi bat adierazi dezake. Herri izenak, baserrienak eta mendienak erabiltzen dira, Bilboko Pagasarri eta Ganekogortaren kasuan bezala. Kochen lanetan hau ez da ageri, Irudiek estetika eta giroa lantzen dutela testura lainotsu eta hezeak direla medio.

Postaletan, denbora tarte zabala aztertu da era berean, 20.mende hasieratik 1970era. 16 irudietatik 10ek dute mendia atzealdean. Postaletan suspertzen den irudi nagusia euskalduntasuna eta baserria lotzen dituena da, izenburuei kasu egiten badiegu: “Caserio vasco” eta “Caserio típico vasco” dira erabilienak. Mende hasieran egunerokotasunaren bidez azaltzen dira bai baserria eta baserriarrak. 70.ean ordea, baserriari, “euskal” eta “típico” izenondoak gehitzen zaizkio. Gainera, egunerokotasunaren orde, antzezpena,

argazki-muntaia eta folklore asmatuaren ezaugarriak azaltzen dira postaletan: poxpolinez eta dantzariz jantzitako neska-mutilak, *attrezxo*aren parte diren goldea, gurdia, idia, pitxarra eta beste hainbeste elementu landatar *tipiko*ekin batera. Iruditegi hau, egungo esne marka ezagunek berreskuratu dute, beraien logo eta ontzietan behiak, mendia, baserria eta tokiko izaera elementuak “euskal” edo “Bizkaia” hitzen erabilerarekin nabarmenduta.

8.3.4 Bilboko itsasadar industrialaren arketipoaren osatzea

Aztertutako 69 margolan, postal, argazki, poster eta film-zatietatik 22etan ageri da mendia, atzealdean; itsasadarra eta ontziak berriz 31 aldiz aurreko planoan. Gainera, erreka giroa eta barkuak ere atzealde eszeniko gisa agertzen dira irudi osoaren motibo gisa 12 aldiz, atzeko zein aurreko planoetan, irudiaren giroa eta atmosfera orokorra osatzen dutelarik.

Postalekin hasiz gero, aurrealdean beti ageri dira elementu eraikiak: kaiak, zubiak, barkuak, eraikinak, monumentuak eta abar. Horiek izan ohi dira elementu fokalak ere bai. Atzealdean, mendia zenbait kasuetan—Arxanda Bilbo erdiguneko postaletan, eta Serantes itsasadarrari buruzkoak direnean. Baina, batik bat, 1950arteko irudietan, itsasadarra, tximiniak, labe garaiak, eta kea dira eszenaren izaera ezartzen duten elementuak. Hortik aurrera, eraikin ezagunak eta monumentuak, edota Bizkaiko Zubia bezalako ikono eraikia ageri dira atzealdean edo fokalizatzaile gisa. Postal hauetan ere, 1960tik aurrera pertsonaia folklorikoekin antzezpenak eta foto-muntaiak biderkatzen dira. 2000etik aurrera, Bizkaiko Zubiarekin batera, Guggenheim museoak hartzen du protagonismo nagusia Bilboaldearen irudi-postaletan. Toki izenak apenas agertzen dira, soilik Bilbao edo Bizkaia, nahiz irudikatutako tokia itsasadarreko beste edozein herri edo auzo izan.

Margolaritzari dagokionez, Bilboko elementuak agertzen diren margolan errealista garaikideak aztertu egin dira: Carmelo Ortiz de Elguearen Bilbo II eta Bilbo VII (1993-95) eta Lazkanoren lanak (1980-2010 tartean) batik bat, baina baita Clara Ganguitaren “Puente de Deusto” (1997), Agustin Recheren “Euskalduna en Ruinas” (1993) edo Raul Urrutikoetxearen “Realidad Diferida” (1998) lanak ere. Margolan hauetan mendia ez da ageri apenas: 14tik lau kasuetan baino ez atzealdean, aurrealdearen ezinbesteko fondo geografiko gisa. Aurrealdeetan, azpiegitura, industria elementuak, labe garai abandonatuak, edota arkitektura pieza bilbotar ezagunak ageri dira; azken hau bereziki nabarmengarria da Lazkanoren hasierako lanetan modu imajinarioan osatutako konposizio eta paisaietan, eta modu esplizituagoan Shangai 2010 erakusketara eramandako “Bilbo MMX” lanean. Margolanek, itsasadarreko industriaren gainbehera eta hiriaren berpizkunde arkitektonikoa irudikatzen dute, modu errealista zein abstraktuan, elementu eraikiak batik bat irudikatuz.

1990 hamarkadan ezker aldeak jasan zuen gainbehera argazki bidez dokumentatu zuen Jesus Angel Mirandak. Argazkiotako motibo nagusiak jendea eta elementu industrialak dira,

eta irudietako fokua ere badira: eguneroko egoera arruntak (arraunlariak, eguzkia hartzen espigoiean, boteroa, arrantzalea etab.) erabiliz itsasadar industrialaren desagertzearen paisaia deskribatzen da.

Bilbao eta itsasadarraren gainbehera lotzen dituen film bateko zenbait fotograma aukeratu dira bertan Bilbo eta mendia nola adierazten diren interpretatzeko, Eloy de la Iglesiaren “El Pico”, hain zuzen ere. Filmean Bilbo 1980ko heroinaren erabilera eta tentsio politikoen nahasketaren espazio bezala irudikatzen da. Filmaren irekiera-irudia Artxandatik ateratako ezkerretik eskuinera doan ikuspegi panoramiko hodeitsu eta giro iluneko bat da, “Bilbao” hitza irudiari gainjartzen zaiola. Ondoren, panoramikak itsasadarrean behera jarraitzen du eta Salbe zubia agertzen denean “El Pico” izenburua gainjartzen zaio irudiari. Hemen Artxanda, hiriaren edo toki gatazkatsu eta triste baten testigu eta begirale gisa ageri dela esan daiteke, itsasadarra berriz, Bilboren uneko egoera gaiztotua adierazten duela interpretatu daiteke.

8.3.5 *Begirada hibridoa: hirugarren saila*

Irudi sorta biltzen eta azterketaren prozesuan, hainbat agirik ez dute bat egiten bi sailtako batekin ere ez; alegia, ezta euskal nekazaritza paisaiarekin ezta itsasadar industrialeko Bilboren irudiarekin ere. Hortaz, beste sail bat osatu da material horrekin. Lan hauek industriaurrekoak dira, eta egungo bi arketipo horien orde, izaera geografikoaren osotasuna aintzat hartzen duten irudikapenak dira. Beste batzuek berriz, irudikapen berrienen kasuan, arketipo eta dualitate antzu horretatik ihes egiten dute paisaia beste modu batean adieraziz eta erabiliz. Bi kasuetan ez da mendia eta itsasadarraren paisaia bereizketarik egiten, eta, hortaz, elementu geografiko bakoitzari ez zaio esanahi zehatzik edo hertsirik lotzen.

Beste hari batzuk jarraitzen dituzten irudiak ere bildu dira sail honetan, eta hauek Mendiaren beste ikuspegi batzuk iradokitzen dituzte; Bilboaldeko mendia espazio konkretu gisa azaltzen da hauetan, hots, ez da irudimenezko toki ideal baten paisaia. Hala, mendia guda-zelai gisa (Somorrostroko batailako ilustrazioetan edo Burdinazko Gerrikoko bunkerretan), meatze gisa, baita komunikaziorako plataforma gisa ageri da (Artxandako funikular geltokiaren postal batean, iragarki panelak ageri dira mahastien artean). Gainera, Bilboko mendiak egunerokotasun landatar batekin lotzen duten postalak ere ageri dira, txakolindegiak, erromeriak eta zelaiak azaltzen direnetan bezala. Beste postal batzuek ere, Bilbo eta mendia lotuta azaltzen dute, hiria mendiaren goialdetik irudikatzen den postaletan

bezala. Amaitzeko, arte garaikidean, Bilboaldeko paisaien beste irakurketa bat azaltzen da, mendien izaera artifiziale eta komunikatiboa azaleratzen duena. Adibide nabarmengarria da Mikel Escauriaren “Enekuri P-L Sign” (2008) lana. Era berean, lan garaikideagoek, begirada kritikoaren bidez, lurraldearen egoera materialak adierazten eta kritikatzeko dituzte, arketipoekiko distantziamendu bat eta irakurketa berriak azalduaz.

Begirada Hibridoa bezala izendatu dugun hirugarren sail honek Bilboaldeko geografiaren banaketa sinbolikoa eta paisaia arketipikoen oinarri kultural eta ekonomikoa azaleratzen ditu. Industrializaziotik aurrera mendia eta estuarioa banatu egin zirela esan daiteke, eta banatze horren eraginez aipatu bi paisaia arketipoak sortu zirela. Industria aurretik, baita 90. hamarkadik aurrera ere, geografiaren eta paisaiaren begirada hibridoak eta garapenarekiko begirada kritikoak, hurrenez hurren, ageri dira.

8.4 Itsasadarraren eta Mendiaren banaketa

Mendiak, oro har, euskal artean eta material grafikoan *bi eratan irudikatu* egin direla esan daiteke: batetik kultura izaera batekin lotura duen paisaia arketipiko ideal gisa, eta bestetik, absentsia edo hiriarekiko bigarren mailakoak diren eremu gisa. Bi irudi tipo hauen eraginez, Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia mendian kokatzen da.

Zergatik dira baztertuak mendiak Bilbon? Bada ez dutelako zerikusirik erreferentziazko euskal paisiarekin—hiritik nahiz industrietatik gertuegi baitaude, eta, gainera, Bilboaldea irudikatzeko papera ere ez dute betetzen itsasadarrak egiten baitu hori. Bilboaldea itsasadarra da eta ez mendia; era berean, Euskal izaera mendi eta baserri giro ideal kasik imajinarioak dira, eta ez Bilbo inguruko mendiak. Zein da beraz Bilbo bazterreko mendietako paisaiaren izaera?

Aurkeztu dezagun bigarren interpretazio bat. Mendiak hiriarekiko duten loturaren irudikapen gabezia dela eta *bi egoera pairatu* dituztela esan daiteke: batetik, gehiegizko funtzionalizazioa, eta, bestetik, idealizazioa. Bi jarrera horien jatorria, euskal paisaia arketipikoaren irudikapenetan egon daiteke, zeinak eremu hori Bilboaldetik at, zehaztu gabeko mendialde imajinatu batean kokatzen zuen. Gogoan izan dezagun irudi hori duten material grafikoetan ia beti “euskal” izenondoa ageri dela, eta ia inoiz ez Bilbo izena. Hartara, Bilboaldeko inguruko mendiak, meatzaritzak eta abeltzaintzak eragindako eraldaketen eraginez ere, balio estetikorik izango ez balute bezala ulertzen dira, hiriarentzako zerbitzaria den espazio gisa, eta, ez, ordea, euskal paisaia ideal horren ordezkari gisa. Denborak aurrera egin ahala, berriz, Bilboaldeko mendialdearen eraldaketa eta kalteekiko erreakzio gisa, bertako espazioen balio naturala eta aisialdikoarekiko estimua nagusitu zela esan daiteke. Balio sinboliko eskaseko eremua, gehiegizko funtzionalizazioa eta natura-guneen idealizazioa, hirurak dira hiri bazterreko paisaia generiko baten ezaugarriak.

Bilboaldeko Bazterreko Paisaia, hortaz, mendietan kokatzen da irudikapen idealen eraginez, baita hiri garapenak sortutako eraldaketen eraginez ere. Irudikapena, zein eraldaketa fisikoa, elkarren eskutik helduta doazela esan daiteke bata bestea elikatzen duelako. Martin Zubek (1982) eraikitako paisaiaren eredu interaktiboa erabilgarria suertatzen da, berriz ere, hau azaltzeko: gizakiak lurraldea modu batean ulertzen du eta horren arabera eraldatu egiten du paisaia bat sortuaz, eta lurralde berri horren ulermen berri batek beste paisaia bat sortuko du etenik ez duen segida batean.

Kulturatik hirigintzara egiten den lurralde eredu utopiko edo hipotetikoen transferentzia existitzen da, esaterako, lurraldea antolamendu politikak bere egin duen Euskal Hiria ereduaren kasuan. Bernardo Atxagak sortutako Euskal Hiria ereduaren onarpena lurralde politikak beretu duen moduan, autoreak osatutakoaren interpretazio oso eztabaidatua izan da; honek, etorkizun utopiko baten irudikapen kultural baten instituzionalizazioa ilustratzen du. Euskal Paisaia arketipikoaren kasua antzekoa da, honen arabera osatutako hiri eskalako planak existitzen ez badira ere; esan bezala, eraikuntza ordenantzetan edota lurzoru urbanizaezinen antolamenduan topatu daitezke bere eraginak holako edo halako arkitektura “tipiko” baten ezaugarriak arau bilakatzeko.

Honenbestez, ondorioz, esan daiteke, hiri bazterreko paisaiaren izaera eta ereduak behar direla, Bilboko mendiko kasuan berezkotasunak bilatzeko ahalmena dutenak, eta eredu hiritarra edo paisaia idealak imitatu behar ez dituen jatorrizko irudikapenak direnak, alegia. Mendialdeko hiri bazterreko paisaien izaera hibridoa eta egoera erreala onartuaz hasi gintezke eredu edo irudikapen hori osatzeko baliagarriak diren indarguneak bilatuz eta identifikatuz (Qviström & Saltzman, 2007; T. Sieverts, 2003a).

Zein da beraz, hiri bazterreko paisaien izaera, eta nola irudikatu daiteke hau? Honek tesiaren helburura bueltatzen gaitu, zeinak paisaia tipo honen berezko izaera eta irudikapen berriak aldarrikatzen eta bilatzen dituen, iruditegi kolektiboan ezarrita dagoen irudikapen generiko eta negatibo hori gainditu ahal izateko hura nola osatu den aztertuz. Berezko izaera horren indarguneak bilatu ahal izateko Paisaia-Ikuspegi anitzeko eraikuntza soziokulturala interpretatzen da. Horretarako kasu aproposa dela uste da Bilboaldea eta bere mendialdeko hiri-bazterreko Paisaiak, edo, paisaia *baztertuak*.

9.0 ATALA. Lehen Eszena: Landa Lana

[Tresnaren lehen aplikazioa]

9.1 Sarrera

Honezkero, bi tresna edo ikerketa gailu nagusi finkatu dira: interpretaziorako tresna edo Paisaia-Ikuspegi tresna, eta ikerketa kasua, hots, Bilboaldeko Bazterreko Paisaia menditsuen kasua. Bi elementu hauek dira, interpretazio tresna eta ikerketa kasua hurrengo atalaren abiapuntua. Bertan, garatu den landa lan esploratzailearen eta lurraldearen lehen interpretazioa azalduko dira.

Paisaiari egiten zaion lehen hurbilketak haren egitura eta izaera konplexua landa lanaren eta interpretazioaren bitartez ordenatzea du helburu. Hala, hura moldatu duten Paisaia-Ikuspegi (PI) nagusiak bilatzen dira lurraldean nabarmen bereizten diren elementuak aztertuz. PI-ak ezartzen direnean, Bilboaldeko bazterreko paisaia menditsuak eragin dituzten ideia nabarmenenak definitu ahal izango dira. Nolabait, bazterreko paisaia horien egungo izaera nola osatu den ulertzeko narrazio eta berreraikuntza bat egiteko asmoz ekiten zaio lehenengo Eszena den esplorazioari.

Epistemologikoki, paisaiaren begirada konstruktibistarekin lotura bermatua dago Paisaia Ikuspegi Tresnaren erabilerarekin. Gainera, tesiaren helburuak duen izaera subjektu-artekoa ere indartua gelditzen da arrazoi berberarengatik; hots, Paisaia Ikuspegi Tresnak, hainbat agentziek dituzten lurralde-ulerkera ezberdinak formulatzeko eta aztertzeke tresna izan nahi duelako, subjektu-artekotasunaren irizpideak gidatzen dute metodoaren osatzea.

Hurrengo lerroetan, landa lana, datuen sailkapena, eta lehenengo interpretazioa azalduko dira. Landa lanaren deskribapena egingo da, prozedura honetan ikerlariak duen rola azalduz.. Bildutako datuen sailkapena azalduko da ondoren, eta amaitzeko, datu edo lurralde elementu horien Ikuspegi bidezko lehen interpretazioa edo sailkapen doitua aurkeztuko da.

9.2 Landa Lana eta dokumentazioa

Bilboaldeko mendietako paisaiak bi modutara behatu eta dokumentatu dira: Landa-lana esploratzailearen bitartez eta ikerlaria bertakoa izanagatik aurretiaz dagoen ezagutzaren bidez. Bi alderdi horien konbinaketa erabakigarria da, izan ere, guztiz ezezaguna den toki bat esploratzeak duen ezusteko faktorearen orde, hemen dagoeneko jakintzat dugunak nola edo hala ezagunak diren eta interesgarriak diren tokiak bisitatzera eta aztertzerara bultzatu du ikerketa. Beste modu batera esanda, aurretiaz badakigu gutxi gora behera zer topatuko

den irteeran zehar eta horrek txangoak zuzentzen ditu nola edo hala. Era berean, aurretiaz dugun ezagutza horrek ere, interpretazioari laguntzen dio lurraldea nabarmen eraldatu duten indarrak ezagun direlako esplorazioaren hasieratik, eta interesguneak zehazteko erabilgarria delako informazio hori.

Landa- lanaren metodologiak eremu interesgarri bat zeharkatzen duen edota helmuga duen ibilbide baten osaeran du oinarria. Esan bezala, interesgarriak iritzi diren tokiak, aurretiaz dagoen jakintzaren arabera aukeratzen dira. Jakintza hau, tokian tokikoa eta subjektiboa kontsideratu daiteke, ikerlariari dagokiona. Ikerketaren izaera konstruktibistak onartzen duen irizpidea da hau, eta aukeraketa irizpidea izendatu da.

Interes hori bazterreko paisaia generikoak zein mendiko paisaiak osatzen dituzten elementu esanguratsuek baldintzatzen dutela esan daiteke. Nola azpiegitura handiak, nola basogintza eremuak edo etxebizitza auzo dentsuak, horiek dira Bilboaldeako elementu esanguratsuak eta begi-bistan nagusi azaltzen direnak. Hartara, ikerlariaren rola landa laneko dokumentazio fasea gidatzera mugatzen da, hots, interesgarriak diren tokien eta elementuen aukeraketara.

Hasierako ibilbideetan Bilboaldea osatzen duen eremu osoa zeharkatzea izan zen helburua. Eremu hau EAEko Lurralde Plangintza legeak ezartzen dituen Eremu Funtzionalen mugen arabera definitua da, hots 35 udalerrri barne hartzen dituen eremua: Plentziatik Orozkora, Muskizetik Larrabetzura, eta Galdakaotik Zierbenara. Ezkerraldea, Uribe Kosta, Txorierri, Nerbioi behea eta garaia eremuetako udalerrriak barne hartzen ditu nahiko eremu zabal honek. Hura zeharkatzeko 23 txango egin ziren autoz, autobusez, trenez, metroz, bizikletaz zein oinez.

Lehenengo 23 txango horiek, aztergai zen lurraldearen osaera orokorra eta elementu nagusiak atzemateko balio izan bazuten ere, bazterreko paisaia generikoen estetikak eta elementuek mugak ezarri dizkiote behatzeari. Izan ere, irizpide generiko horien arabera, bazterreko paisaiak komertzio-gune handiek, autobideek, hiri-zerbitzu azpiegiturek, hondar espazio abandonatuek, zabortegeiek, aisialdi guneek (zaldi eskolak, parkeak, kart-guneak etab.), aireportuek, energia transformazio eta sortze guneek eta abar osatzen dituzte. Horiek denak ageri dira Bilboaldeako bazterretan, baina baita beste zenbait elementu bereizgarriagoak ere.

Zenbat eta txango gehiago egin orduan eta ñabardura eta berezitasun gehiago lortu ziren, harik eta Bilboaldeko hiri-bazterreko berezitasunak nabarmentzen hasi ziren arte. Esan nahi baita, literaturan azaltzen diren hiri-ertzeko paisaiaren edo hiri bazterren ikerketa kasu ohikoenen arabera bazterreko paisaien izaera generiko bat ezarria dagoela, eta eredu orokor horrekin alderatuta, Bilboaldeak berezitasun batzuk aurkezten dituela. Esan bezala, batik bat mendialdean gertatzen den hiri eta ez-hiriaren arteko nahasketa da bertako bazterreko paisaiaren bereizgarri nagusia.

Aipatu hiri bazter eremuetako elementu generikoak ere bertan aurkitzen dira; hots, bazter-paisaion ubikuitatea eta banalitatea zehazteko hain erabiliak diren ezaugarriak: berdeguneak, hondakin eremuak, hiri-zerbitzuak, azpiegiturak eta abar. Baina,aldi berean, hiri bazterra bereizgarria egiten duten mendietakoak diren beste elementu batzuekin nahastuta ageri dira: basoak, landa guneko baserriak eta ortuak, meatzeak, mendi bideak, pistak, urtegiak etab. Gainera, hain errepikagarriak eta “ez-leku” izendatzen diren eremu eta elementuak mendiaren baldintza fisikoak direla eta, bariazioak

pairatzen dituzte mendiarekiko egokitzapenaren bitartez. Hala, azaltzen dira autobideen biaduktuak eta tunelak, industriaguneak zein bizilekuak ezartzeko ezpondak eta lubetak, irisgarritasuna bermatzeko arrapalak, funikularrak, mendi magalak estaltzen dituzten baso masa ilunak, tentsio altuko kableen ibilbideak mendian gora eta behera, begiratoki panoramikoak etab.

Bilboaldean, mendiaren eta hiriaren arteko nahasketaren ondorioz sortzen dira bazterreko paisaia bereziak. Horien ezaugarriak aztertzea eta potentzialak bilatzea esanguratsuagoa dela irizten da, nonahi aurki daitezkeen elementu generikoez osatutako bazter-guneen izaera negatibo eta ezaugarri-gabekoak nabarmentzea eta beraiekin tematzea baino. Izan ere, lehen aipatu den bezala, Bilboaldekoak bakarrik ez, eta Euskal Herriko Atlantiko isurialdean arrunt ezaguna den paisaia da mendiaren eta hiri bazterren arteko nahasketak eragindakoa. Bilboaldeko ereduaren azterketak, hortaz, ekarpenak egin liezazkioke, antzeko beste egoera geografiko eta hiritartuei ere.

Hortaz, Bilboaldeko esplorazioa egin ahala bertako elementu bereizgarriak topatu ziren: basoak, meatzeak, harrobiak, urtegiak, zabortegiak, zabortegi toxikoak, funikularrak eta meatzeetako azpiegituren aztarnak, saroiak, landa-auzo txikiak, ermitak, erromeria tokiak, mendi bideak, antenak, tentsio altuko lerroen ibilbideak, uraren garraiorako hodiak, tunelak, biaduktuak, mendi pistak, baratza txiki informalak, txabola auzo ohiak, maldan kokatutako auzo dentso isolatuak, hezkuntza gunek, parkeak, industriaguneak, saltoki handiak, ur deposituak etab. Esan bezala, hiri baten inguruan maiz topatzen diren elementuak direlako kutsu generiko bat dutela onartzen da. Hala ere, paisaia berezia osatzen dute mendiaren baldintzetara egokitzen direlako, edo, bestela, mendietako baldintza konkretuez baliatzen direlako.

Txangoetan ateratako argazkiak, ibilbideak eta mapa digitalak (Google Earth edo Maps tresnen bidez²⁴) konbinatu egin dira elementuen eta aldaketen kokapena eta joerak identifikatzeko. Paisaiaren osaera zehazki ezagutzen ez bada ere, mapa bat osatzen denean

24 Txango bakoitzeko fitxa bat eratu egin da, B eranskinan kontsultatu daitezkeen bezala. Mapak eta argazki dokumentazioa blog honetan bildu egin ziren: <http://ertzafinge.wordpress.com/>.

bezalako aukeraketa egin da, aipatu aukeraketa irizpidearen araberako elementu esanguratsuak soilik dokumentatuz.

Txango bidezko esplorazio honek, lurraldeko elementu eta ezaugarri esanguratsuenak identifikatzea eta analizatzea izan dute helburu. Esanguratsutasun hori begi-bistaz antzemateak markatzen du, baita ikerlariak aldezturik duen jakintzaren eraginak ere. Baina, besteak beste, horrelako elementuak bildu dira: masa bejetalak, azpiegiturak, asentamenduak, geomorfologia, ur azalerak eta abar. Hau da, landa lanaren bitartez, lurraldeko elementu tipikoen kategorietako datuak eta kokapena bildu egin da; elementu generikoen dokumentazio bat egin da, alegia. Landa lan honen zenbait eredu B Eranskinan azaltzen diren fitxetan aurkitu daiteke.

Esan bezala, aukeraketa ikuskortasunak eta presentzia nabarmenak baldintzatzen dute, horrelako elementuetan bereziki: industriaguneak, hezkuntza eta kultura ekipamenduak, espazio libreak, urtegiak, azpiestazio elektrikoak, zabortegeak eta hondakinen kudeaketa guneak, baita tokian tokiko jakintzaren arabera paisaiaren ezaugarri kontsideratzen diren beste hainbat elementu ere—begibistako presentzia nabarmenekoak hauek ere—; hala nola, basoak, baratz informalak, bizlekuak, errepide azpiegiturak, argindar-garraiorako azpiegiturak, meataritzaren aztarna geologikoak. Gainera, hain ikusgai ez diren baina izaerazkoak diren beste ezaugarri batzuk ere barne hartu dira, bereziki ekonomia rural tradizionalarekin eta bizimoduarekin zerikusia duten eraikuntzak, zelaia eta abar. Hainbat elementuen egoera tamalgarrria da utzikeriak eraginda, baina honek antzina existitzen ziren beste forma batzuen aurkikuntza eragin du: meataritza azpiegiturak eta eraikinak, eta bizigune informalak, esaterako. Nahiz eta elementu hauek ikusmenaren eremutik at egon, aztertzen den paisaiaren izaera interpretatzeko erabili egin dira. Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia menditsuaren izaeraren eraikuntzaren eta garapenaren, baita lurraldea eraldatu duten hainbat Paisaia Ikuspegiaren adierazleak direlako.

Beste txango esperimentalagoekin alderatuta Bilboaldean burutu direnek helburu espazial bat dute. Elementuen kokapena, elementuen arteko egituraketa fisiko zein bisuala, funtzioen deskubrimendua, bideak eta irisgarritasuna, ikusmirak ezagutzeko helburua, alegia. Landa laneko esplorazioak tokiaren nondik norakoekin jakin-minak bultzatuta abiatzen dira. Ez da plazer estetikorik bilatzen, ez tokiarekin engaiamendurik, ez sinboloekin jolasik, ez monumentalizaziorik, ez kritika esanguratsurik ere. Zeharkatzen diren eremuak begirada fenomenologikoaren bitartez ulertuz, argazki kamera bidez dokumentatuz, ibilbideak mapan kokatuz, interpretazio berri bat osatzen da: Bilboaldeko bazter paisaien berreraikuntza den mapa geruza-anitz bat Paisaia Ikuspegia tresnaren bitartez egituratua.

Fase Esploratzaileko landa-lana sistematikoagoa eta profesionalagoa kontsideratu

daitekeen metodo batekin ere alderatu daiteke. Esaterako, *Landscape Character Assessment*²⁵-aren landa-lanerako metodoarekin. Esan bezala, teknika horren baitako landa lanak, mahai-azterketaren [desk study] balorazioak konprobatu eta osatzeko balio du. Metodo hau osatzen duten pausu batzuk bete dira, beste batzuk berri ez. Hasteko ikerketa esparru osoa bisitatzeko saiakera egin da, bikote baten laguntza erabili (autoz edo bizikletan egin den zenbait kasuetan esaterako, segurtasun kontuak direla eta, edota gidatze eta dokumentazio lana elkarbanatzeko ere), ibilbideak aurretiaz planifikatu, ikuspegi panoramikoak lortzeko puntuetara joan da. Gainera, landa lana dokumentatzerakoan argazkiak erabili dira toki batetik bestera ematen diren izaera aldaketak, izaera osatzen duten elementu tipikoak eta hauen xehetasunak jasoaz. Gainera, balorazio estetikoak kanpoan utzi dira landa lanean, uste izan baita horretarako inkesta publikoagoak egin beharko liratekeela. Ikerlariaren hautemate eta juzku estetikoak soilik baliatzea ez da nahikotzat jo ikerketaren helbururako. Hots, paisaion bilakaera eta osaera kulturala interpretatu nahi izan da elementuen presentzia nabarmenei eta horiek mendiarekin duten harremanari garrantzi handiagoa emanez.

9.3 Paisaia Elementuen bilketa eta sailkapena

Esplorazioetan behatu eta aukeratu diren paisaia elementuak biltzen dira hurrengo taulan. Ikusten den bezala, hauek oso arruntak dira eta normalean interes eta plangintza sektoreen arabera taldekatuta egoten dira. Hots, elementuak bestelako geografia generiko batean topatzen diren jarduera hiritar eta industrial normalak dira. Ordea, hemen, mendiarekin duten harreman kontzeptualaren (mendiaren ezaugarriekiko loturak) eta fisikoaren (forma aldetik nola egokitzen diren) arabera sailkatu dira. Uste baita, edo espekulatzen delako, mendiarekiko harreman horiek ematen dietela paisaiari berezkotasuna. Nahiz eta funtzio gehienak hiri inguruetan topatzen direnak izan, geografia eta topografia baldintzen arabera sortzen diren berezko aldaerei eman zaie garrantzia. Lehen aipatu bezala, funtzioaren araberrako azterketak ezaguna den hiri generikoaren kontzeptua gogora ekarri dezake, izaera bereziak ezeztatzen dituen hiri globalaren erretratua osatuz. Geografia zehatzen ikuspegitik ordea, aldaerak nabarmenak direla esan daiteke, bai formalki zein kontzeptualki ere definitu daitezkeenak.

25 Landscape Character Assessment paisaia izaera ebaluatzeko erabiltzen den teknika eredu garri bat da paisaiaren izaera modu zabal eta koherentea batean nola osatu den ulertu ahal izateko. Teknika hau Erresuma Batuan erabiltzen dute Natural England, Ipar Irlandako Department of Environment edo Scottish Natural Heritage bezalako agentzia publikoek.

16 Taula Lurraldeko elementuak eta jarduerak sail generikoetan bilduta.

Elementuak eta Jarduerak	Elementu Tipiak
Formazio megalitikoak, baselizak eta gurutzeak, gurutze bideak, erromeria zelaiak ...	1. Ohiturak, iragana, erlijioa, aisialdia
Nekazaritza eta Abeltzaintza jarduerak, baserriak, baratzeak, zelaiak, bideak, hesiak, hormak, belartegiak, mahastiak etab.	2. Landa lurra, ohitura, paisaia kulturala
Basoak, Pistak, suhesiak, mugarriak, txabolak, biltegiak, artasoroak edo kortak, zerrategiak, lehortegiak	3. Basogintza
Meatzeak, kobak, putzuak, plano inklinatuak, erai-kinak, asentamendu informalak, trenbideak, garbitzeko tokiak, labeak, aztarnak	4. Meatzaritza
Autopistak, errepideak, Tunelak, igogailu eta eskailera mekanikoak, funikularrak, tentsio altuko dorreak eta kable lerroak, ur hoditeria, Trenbideak eta AHT, eraikuntza elementu osagarriak	5. Azpiegiturak: Garraioa eta komunikazioa
Errauskailuak, araztegiak, zakartegiak, konpost plantak, hondakin toxikoen biltegiak, txakurtegiak, Garbiguneak, autobus biltegiak, "Merkabilbao", ur biltegiak eta urtegiak, argindar azpi-estazioak, zentral termikoak, olio findegiak, aireportua, zentral eolikoak, saltokiak, industriaguneak	6. Ekonomia jarduerak eta azpiegiturak: hiri-zerbitzuak.
Landaredia eta fauna, altzariak, seinalektika, pistak, bideak, sarrera hesiak, aparkalekuak, atsedene guneak, behatokiak, harrera guneak, taberna, kanpin-lekuak, golfak, tontorretako gutunontziak, aterpeak, parkeak, lorategiak	7. Aisialdirako Espazio irekiak eta naturaguneak.
Etxebizitza auzoak, eskolak eta hezkuntza zentroak, kirol-guneak.	8. Espazio domestikoa eta egunerokoa
Txabolak, baratzeak, zabortegi ilegalak, jarduera sozioekonomiko informalak	9. Espazio domestikoa eta egunerokoa, aisialdia, espazio informalak.

9.4 Paisaia Ikuspegiaren formulazioa eta kartografia

Paisaia Ikuspegiaren bidezko interpretazioak lurraldea ikusteko eta ulertzeko modu baten formulazioa bilatzen du. Interpretazio hau atzera-begikoa edo retro-aktiboa da; alegia, egun existitzen diren elementuetatik abiatzen da beraiek sortu dituzten lurraldearen ulermen partzialaren ideia formulatzeko. Bilboaldeko hiri bazter menditsuak moldatu dituzten ideia sorta eta ondorioz eraiki diren elementuen ideia sortzailearen inguruan espekulatuz, espazioak ulertzeko moduak formulatzen dira. Ikuspegi bakoitzak lurraldeko hainbat elementu taldekatzen ditu ideia sortzaile baten inguruan. Ideia Sortzaile hori da Ikuspegiaren oinarria eta mendia ulertzeko modu baten inguruko espekulazio interpretatzaile batean du jatorria. Esaterako, baso landatu baten atzean mendiko baliabideen ustiaketaren ideia dago, hots mendia baliabide gisa ulertzen da. Ikuspegi horren ondorioz, mendi magalak baso landaketaz betetzen dira.


Lehenago aipatu den Losa Angelesi buruz Reyner Banhamek (2001b) egindako

interpretazioko “ekologien” formulazioarekin zerikusia daukate ikerketa honetako Paisaia Ikuspegiaren izendapenek; hots, geografiarekin gizarteak eta kulturak sortzen dituen harreman material eta kontzeptualak interpretatzen dituzten formulazioak bilatzen dira. Horrela, sei Paisaia Ikuspegi ezartzen dira Bilboaldearen kasuan: 0. Mendi Tradizionala, 1.Mendi Baliabidea, 2.Mendi Oztopoa, 3.Mendi Erabilgarria, 4.Mendi Berdea, eta 5.Mendi Bizilekua.

Atzerabegira eraikitzen den Sei Ikuspegiko interpretazioa espekulazio bat da; hots Bilboaldeko bazterreko paisaia menditsuen bilakaera eta egungo egoera ulertzeko eta irudikatze balio duen iraganaren interpretazio bat da. Egun paisaiak duen egoera azaltzen duen hipotesi ez demostragarri bat bezala proposatzen da, espekulazio bat da. Interpretazioaren osaera formala, bestalde, geruza-anitza da, esan bezala. Hortaz, Paisaia Ikuspegi bakoitzak lurralde-palimpsestoaren geruza bat ordezkatzeko du, eta, PI/Geruza bakoitzaren osagaiak mapa batean irudikatzen dira grafikoki²⁶.

Paisaia-Ikuspegiaren bidezko interpretazio hau, atzekoz aurrera eraiki egin da. Alegia, aurrena lurraldeko elementuak bildu dira, ondoren elementuak sailetan banatu dira, eta bukatzeko sail bakoitzarentzako ideia sortzaile bat edo Ikuspegi bat formulatu egin da; guztira sei ideia/geruza/sail zehaztuz. Hurrengo eskemak grafikoki azaltzen ditu Bilboaldeko lehen interpretazio bidezko berreraikuntzaren egitura, baita egituraketa horren atzeko-aurrerako eraikuntza prozesua ere.

17 Taula Bilboaldeko Bazterreko Paisaien berreraikuntza espekulatiboa osatzeko prozedura eta egituraketa.



26 Mapak egiteko erabili den metodologia C Eranskinan kontsultatu daiteke, D Eranskinan berriz, osatu diren mapak.

BILBOALDEKO HIRI BAZTER MENDITSUKO SEI PAISAIA IKUSPEGIAK

0. mendi tradizionala



1. mendia baliabide



2. mendia oztopo



3. mendia erabilgarri




4. mendi berdea



5. mendia bizi' ku



10. Irudia Bilboalderako formulatu diren 6+2 Paisaia Ikuspegiak.



11. Irudia Sei Ikuspegi bidezko interpretazioa irudikatzeko geruza anitzeko mapa.


9.5 Sei Ikuspegiaren formulazioa eta esanahia.

Gorago azaldu den taulako elementuen 9 sailen ordez sei Paisaia-Ikuspegi nagusi zehaztu dira mendia eta hiriaren arteko loturaren ondorioz sortzen den paisaia interpretatzeko. Aldaketa nagusiak hurrengoak dira: Lehenengo bi sailak (Ohiturena eta Landa-lurrarekin zerikusia dutenak) orokorrean paisaia kultural bezala ulertzen diren elementu horiek biltzen dituztenez gero, tradizio historiko eta aurre-industriarekin lotu egin dira Paisaia Ikuspegi berean. Azkeneko hiru sailak (Basogintza, Meatzeak eta Harrobiak) mendiaren ulermen instrumentalista eta baliabideen ustiaketarekin lotzen den Ikuspegiaren bildu dira. Bestalde, 7. eta 8. Sailak, bizilekuarekin eta esparru domestikoarekin lotura duten elementuak biltzen dituztenez nagusiki, ideia horiek biltzen dituen Bizilekuaren ikuspegiaren batu dira, formalak eta informalak diren garapenak bereiztuz. Gainontzeko beste hiru sailak (4., 5. eta 6.) mantendu egin dira bere horretan. Hortaz, sei sail edo Paisaia Ikuspegi nagusi zehaztu egin dira. Esan bezala, sail bakoitzak atzean du ideia sortzaile bat, eta horren formulazioa azalduko da atal honetan.

18 Taula Esplorazioan osatu den lurralde elementuen sailkapenaren doiketa: Ikuspegi mugatzea.

Elementu Tipok	Paisaia Ikuspegia	Izendapena zenbakiz
1. Ohiturak, iragana, erlijioa, aisi-aldia	Mendiko Paisaia Kulturala edo tradizionala: MENDI TRADIZIONALA	0
2. Landa lurra, ohitura, paisaia kulturala		
3. Basogintza	Mendiko baliabideen ustiaketa edo MENDIA BALIABIDE.	1.1
4. Meatzaritza		1.2
5. Azpiegiturak: Garraioa eta komunikazioa	Mendia oztopo gisa gainditzen duten elementuena edo MENDI OZTOPOA.	2
6. Ekonomia jarduerak eta azpiegiturak: hiri-zerbitzuak.	Mendiko espazioa erabiltzen duten jarduerak edo MENDI ERABILGARRIA.	3
7. Aisialdirako Espazio irekiak eta natura-guneak.	Mendian espazio ireki eta naturala bilatzen duten jarduerak edo MENDI BERDEA.	4
8. Espazio domestikoa eta egunerokoa	Egunerokotasuna eta bizilekua mendian topatzen dutenena edo MENDI BIZILEKUA.	5.1
9. Espazio domestikoa eta egunerokoa, aisialdia, espazio informalak.		5.2

Ondoren, Bilboalderako formulatu diren Sei Paisaia-Ikuspegiak eta horien osatu dituzten ideia sortzaileak azalduko dira. Ideia horiek, elementu eraikien eta aurretiaz zegoen jakintzaren ebidentzien laguntzaz formulatzen dira. Gainera, Paisaia-Ikuspegi bakoitza irudikatzen duen kartografiaren adierazpenarekin ilustratzen dira.



12. Irudia Mendi Tradizionalaren barneko elementuen kartografia.

0. Mendi Tradizionala

Ikuspegi honen barne daude tokian tokiko paisaia kulturala osatzen duten elementuak. Mendiaren ulermen honek medioarekiko edo ingurumenarekiko lotura estuagoa suposatzen du, bertatik bertara lortu daitezkeen baliabideekin eta industria aurreko teknologiaren bidez bizirauten baita. Ondorioz, sortzen diren elementuak, bereziak eta aldakorrak izan ohi dira geografia eta klimaren arabera.

Kasu honetan, Bilboaldeko elementu tradizionalak, esan bezala, dira: baserriak, auzoak, bideak, errepideak, baselizak, hormak, heskaiak, zelaiak, baratzak, basoak, sarioiak, lur sailak mugatzen dituzten elementuak, izoztegiak, txakolindegia, iturriak etab.


Ikuspegi hau oinarri oinarrizko geruza da, hots, toki orotan topatzen dena, eta lurra kudeatzeko logika lokalen aztarnek osatzen dutena. Jacksonek (2010) definitutako paisaia bizituak zein politikoak izan daitezke, eta, normalean, barnetik sortutakoak eta kanpotik kudeatuak edo irudikatuak izan ohi dira Cosgroven (1998) irizpideen arabera.

1. Mendi Baliabide: Basogintza eta Meatzaritza

Ikuspegi honek mendietako baliabideen esplotazio industrialak sustatzen du. Ikuspegi hau ez da guztiz berria, izan ere, jatorri tradizionala duen ustiaketa aurre-industria baten jarraipena eta moldaketa dela esan daiteke. Hala, magaletako espazioa, logika industrialen arabera,

baita kapitalismoak ezarritako lurzoruaren gaineko balio ekonomikoen arabera antolatzen, kudeatzen eta moldatzen da. Antzinako jardueren aurrerabideranzko pausua irudikatzen du Paisaia-Ikuspegi honek, efizientzia ekonomikoaren eta ideia modernoen arabera garatzen ditu mendi jarduerak: hots, bai basogintzak zein meatzaritzak, mozkin ekonomikoen sorrera dute helburu, eta horiek lortzeko behar diren eraldaketa, azpiegitura, lekualdatze eta esku-hartzeak egiten dira. Egun lurraldean begi bistan topatzen diren elementuak egoera eta jarduera maila ezberdinetan topatuko dira, basoen edo meatzeen kasuan, batzuen jarraipena eta besteen iraungipena eman delako.

Bizkaiko Foru legeen jarraipena eginez, Bizkaiko egungo basogintza Mendiko Foru Arauaren arabera kudeatua dago. Bertan, mendia eta baso kontzeptua bata bestearekin nahastuta datoz, ezberdintzea ezinezkoa delarik. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Basogintza Plan Sektorialaren aurrerapen dokumentuari (*Aprobación provisional del Plan Territorial Sectorial Agroforestal*, 2010) kasu egiten bazaio, Bilboaldeko mendietan existitzen den erabilera nagusia basogintza dela konprobatu daiteke, “Estrategia Balio Altua” eta “Trantsizio-Landa paisaia” kategoriarekin batera. Basogintza horren barnean espezie nagusia, radiata motako pinua da, eukalptoarekin batera. Espezie hau Kaliforniako Monterreytik ekarritakoa da. Bizkaia zein Gipuzkoako baldintza klimatiko eta topografikoei egokitzeko ahalmena zela eta, baita zuen hazkuntza bizkorragatik ere, 20. Mende hasierako mendien egoera tamalgarria baita egoera ekonomikoa salbatzeko ere sartu eta bultzatu zuten diputazioek (Michel, 2011). Bilboaldean, baso orbanak mendien gehiengoa hartzen duela esan daiteke, eta begi-bistan presentzia handia ez badute ere—eremu dentsoenetatik ez baitira ikusten—mendian gora egin ahala, baita bailaraz aldatuz gero (Txoerierri, Uribe Kosta, Nerbioi edo Ibaizabalen ibarretan), basoa da jaun eta jabe magaletan.



13. Iruña Mendia Baliabidearen Ikuspegi barneko elementuen kartografia.

Meatzaritza kasuan mendiak dituen baliabideen ulermen antzeko bat ematen da. Hemen ordea, bestelako egoera batean daude jarduerak, baita honi lotzen zaizkion elementu eraikien aztarnak ere: hots, etenda, desagertuta, ezkatututa, birnaturalizatuak eta abar. Meatzaritza jarduerak Bilboaldeko mendietan topatzen den materialaren ugaritasunaren ustiatetaren sistematizazio masiboa ekarri zuen 19. Mende amaieran. Burdin mineral hau, basoen kasuan bezala, ohituraz ustiatutako eta kudeatutako baliabidea zen ordurako. Jakina denez, industrializazioarekin, burdinaren erazpena izugarri handituko zen ustiapen tradizionalaren mugak izugarri gaituz. Gainera, minerala garraiatzeko moduak ere eraldatu ziren, animalia bidezko trakzioa eta bideen ordez bestelako azpiegiturak eraikiaz ere: aire bidezko tranbiak, plano inklinatuak eta trenbideak, besteak beste (Pérez Goikoetxea, 2003).

Lurraldeari horrela begiratzek ekarri zuen ondorioak hainbat modutan adierazita azaltzen dira. Ez soilik traza fisikoetan, geologiaren moldaketan edo eraikitako elementuen baitan soilik, baita bestelako dokumentazioetan ere. Dokumentu horiek administrazio ezberdinen arteko istilu eta ezadostasunak irudikatzen dituzten planoetan azaltzen dira, jabetza eta muga arazoei dagozkienak. Edota geomorfologia eta mineralogia konposizioari dagozkionak baita meatze enpresen lurzoru jabetzak azaltzen dituzten kontzesio planoen bidez ere. 19. mende amaieran, industrializazio garapenaren gailurrean, jabetza sistemaren aldaketa eta ekonomia kapitalistarako trantsizioaren unean, Triano, Galdames, Barakaldo eta Bilboko hainbat

mendi baliabide aberats baten ustiaketarako eremu gisa soilik ulertu zirela esan daiteke. Ikuspegi honek eraginda, lurraldea eraldatzeaz gain, sistema ekonomikoa, lurzorua kudeaketa baita egoera soziala ere guztiz eraldatu egin ziren.

2. Mendi Oztopoa


Ikuspegi honen oinarrian mendiek hiri garapenari, mugikortasunari, garraioari, komunikazioari eragiten dioten muga izaera dago. Muga edo oztopo fisiko hori gainditzeko eraiki egiten dira azpiegiturak mendiak gainetik, azpitik, alboetatik, barnetik zeharkatzen dituztelarik. Errepide, ur, argindar eta bestelako azpiegitura linealen diseinu eta eraikuntza logikarekin lotzen da Paisaia Ikuspegi hau.

Bilboaldean, 1923ko Bastidaren garraiorako planaren helburuak Artxanda mendiaren zeharkatzea proposatzen zuen Bilboaldea errepide bidez hobeto komunikatuko eta hiri industriarekin hobeto egituratuko zuen egitasmoan (Bastida, 1991). 1946 eta 1964 urteetako Lurralde Planetan [Plan Comarcal] Bilboaldea (hainbat udalerrik osatua, oraingo Bilboaldearen antzekoa baina ezberdina) ordenatzeko saiakerak izan ziren, eta bertan Bilboko geografia fisikoak hiri hazkuntzarako suposatzen duen oztopoa aipatzen zen (Bilbao, 1943; *Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao y su comarca*, 1964). Mendiek, plangintza eta garapenerako abiapuntu zailagoa osatzen dute geografia lauago batek baino (Bilbao, 1943). Tonu literarioago batean, Bilboaldeko mendiak landu gabeko diamante baten gisa ulertzen dira frankismoaren garaiko bigarren lurralde planean (*Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao y su comarca*, 1964).

Berriki, Bilboaldeko Zatikako Lurralde Planak (País Vasco & Bizkaia, 2008) zonaldeko izaera menditsuak eta malda handiko magalek garapen urbanoa nolatan baldintzatu duten aipatzen da, eta nola eragin horiek gaurdaino irauten duen. Lurzoru eskasia behin eta berriro aipatzen da, kudeaketa oker baten ondorioz jazo den xahuketa zabarraren ondorio. Espazio eraikigarri gabeziak etxebizitzarako eta jarduera ekonomikorako garapen berriak kokatzeko zailtasunak paratzen omen ditu.

Modu honetan, mendiak, lurzoru urbanizagarri eta erabilgarriaren eskasiaren arrazoi nagusitzat kokatzen dira, oztopo edo arazo gisa. Badirudi, agiriok benetako nahi bat ezkututzen dutela: hots, eremua lauagoa balitz, kudeaketa eta hazkuntza prozesuak ordenatuagoak eta arazoak txikiagoak izango liratekeenaren desioa.

Mendi Oztupoak, politikoki eta ekonomikoki boteretsua den agentzia baten sustapena iradokitzen du, etorkizun eta proiektu idealen indarraren bitartez mendi-presentzia fisikoak ezartzen duen oztopoari aurre egiteko gai dena.



14. Irudia Mendia Oztopo Ikuspegiaren barneko elementuen kartografia.

3. Mendi Erabilgarria

Ikuspegi honek mendiko maldetan espazio erabilgarria topatzen du. Bertan hiri barnean enbarazu egiten duten zerbitzuak eta jarduerak kokatzeko aukera dago hiriarekiko distantzia erlatiboa dela eta (gertu eta urrun, aldi berean) edota mendi malden morfologia dela eta. Transformaziorako edo biltegirako hiri-zerbitzu azpiegiturak edota jarduera ekonomiko nahiz industrialak biltzen dira hemen.

Hein batean, ikuspegi hau aurrekoaren alderantzizkoa da, eta era berean osagarria. 1960-70 hamarkadetak Bilboaldeko eremu hiritartuen hazkuntza demasekoak eta ordena-gabeak hainbat beharizan ekarri zituen berarekin eta hala, bestelako azpiegitura zerbitzuen beharra ere.

Esan daiteke, hiriguneetan kalte egiten edo tokirik ez duten zerbitzu asko eta asko (zabortegeiak, urtegiak, errauskailuak etab.), Bilboaldeko kasuan bederen, mendi magaletako lurzoruan kokatzen direla. Errebisatutako arautegi eta planetan ez da elementu hauen kokapena eremu horietan kokatzera behartzen edo gomendatzen duen erreferentzia edo aipurik topatu.

Hiritik kanpo egoteaz gain, mendietako morfologia ezaugarriek onurak ekarri izan dizkiete hainbat jarduerari, batik bat biltegia oinarri zuten urtegi edo zabortegei. Hiri zerbitzuez gain,

1980ko krisi industrialaren ondoren lanpostu berriak sortzeko eta kontsumoa eragiteko egitasmoen eraginez sortutako industriagune zein komertzio-guneek ere, hiritik kanpoko tokiak bilatu zituzten jarduerak lekutzeko; biltegirako edo ezartzeko beharrezko tokiak magaletan topatu zuten hainbat kasuetan.

Mendiko espazioan abagunea topatzea da Mendi Erabilgarriaren oinarritzko ideia. Hiritik ahal bezain gertu eta urrun kokatu beharreko elementuentzako baliagarria den espazio bezala ulertzen da mendia hemen.



15. Irudia Mendi Erabilgarria Ikuspegiaren barneko elementuen kartografia.

4. Mendi Berdea


Bilboko mendilerroak parke gisa ulertu dira aspalditik, Artxandako funikularra, parkea eta kasinoa eraiki zirenetik, bederen²⁷. Era berean, 1943 eta 1964ko Lurralde Egitasmoetan, mendiak berezko espazio berde gisa irudikatu ziren (Bilbao, 1943; *Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao y su comarca*, 1964). Ikuspegi hau 19. Mende amaieran suspertu zen mendizaletasunak ere indartu egin zuen mendiak aisialdirako natura-gune bezala erabiliz eta aldarrikatuz. Mendi Berdea Ikuspegiak Bilboaldeko hiru mendilerro nagusietan topa daitezke eremuko parke eta espazio ireki berde “naturalak”. Berezkoa duten naturaltasun eta berdetasuna dela eta, apenas antolamendu edo plangintzarik eskatzen ez duten Mendi Berdeak dira.

²⁷ Pedro Guimónen proiektua 1913koa da.

Planik garaikideenek ordea, antolamendu eta diseinu minimo batzuk iradokitzen dituzte. Esaterako, 2006ko PTPak metropoli mailako Sare Berde delakoa 3. Ordenazio planoak (País Vasco et al., 2008) ezartzen du, eta nolabait plan zaharragoek iradokitako gerriko berde edo eremu berdeen sistemaren jarraipenak dira. Hala, mendietako espazio “naturalak” periferietako nahiz hiri parkeekin lotzeko asmoa adierazten dute.

Bestalde, Bilboaldeko Gerriko Berdearen txostena ere aipagarria da (Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua, 2011). Aipatutako sare berdearen egitura oso antzekoa duena eta mendiek osatzen duten eremuak elkarlotuaz definitzen dena. Txosten horrek paisaiaren hainbat elementu aintzat hartzen ditu paisaia kulturalai zein ondare industrialari eta Guda Zibileko ondareari ere erreparatuz.

Esan bezala, Mendi Berdea Ikuspegia mendi espazioekin lotzen den ideia paisajistiko arruntena da, mendiarekin zerikusia duten balio natural eta higienismoarekin lotutako kirol eta aisi jarduerak eragindakoa.



16. Irudia Mendi Berdea Ikuspegiaren barneko elementuen kartografia.

5. Mendia Bizilekua


Batetik bizileku formala dago: azpi-ikuspegi honen bidez mendian bizitza eta ekipamendu guneak ezartzeko aproposa den esparrua topatzen da. Hiritik aparte nolabait, gertu era berean, eta giro naturalago batez inguratuta egongo direlakoan planifikatzen eta proiektatzen diren

elementuek osatzen dute ikuspegi hau. Bestetik, ikuspegi informala dago: honen bitartez, bizileku eta ekipamendu edo aisialdi gune informalak, proiektu eta planik gabekoak eraikitzen dira, batik bat irisgarritasun eskaseko hondar espazioetan.

Bizileku formal hauen aurrekariak lorategi-hiri estiloan eraikitako etxebizitza merkeen [casas baratas] auzoak dira. Beranduago, presio demografikoek eraginda eta espekulazioak lagunduta eraiki ziren etxebizitza bloke eta auzo dentsuak etorriko ziren 1950.etik aurrera. 1970-80 hamarkadetan poligono eta plan partzialen bidez modu sistematikoagoan egikaritu ziren bestelako bizigune auzoak. Etxebizitza blokeez gain haien inguruan artikulatzen diren espazio publiko eta eraiki gabeak ere barne hartzen ditu Ikuspegi honek. Etxebizitzen eredia nabarmena den bezala, hezkuntza zentroena eta kirol-guneena aipagarria da, Bilboaldeko mendi magaletan hainbat eta hainbat eredu topa baitaitezke.

Bizileku Informalen Ikuspegiak berriz, plangintzaren, espekulazio ekonomikoaren, diseinuaren ordez inprobisazioa eta bizirautea dute helburu. Horretarako leku aproposak topatzen dituzte mendi magaleko toki zailetan, edota lanlekuetatik gertu dauden eremuetan txabolak eraiki zituzten biztanleek esaterako. Beranduago, etxebizitza eremu dentsuetatik nahiko hurbil kasu gehienetan, baratzetxoak agertzen hasi ziren, hauek ere bizirauteko bezala aisialdirako esparruen bilaketan eraikiak. Erregulatu gabeko espazio hauek brikolaje, inprobisazio, birziklatze teknikak erabiltzen dituzte. Dagoenarekin ahal bezala eraikitzea. Era berean, sormenetik dutena zerbitzuetan gabezi gisa ageri da, higieñaren eta antolamendu orokorraren kasuetan bezala.

Elementu formal gehienak irauten duten bezala, informalak ahulagoak dira hiriaren garapen eta erregulazio prozesuen aurrean. Hala, azken hauetako adibide ugari desagertu egin ziren aspaldi, beste batzuk irauten badute ere (Masustegi auzoa, esaterako). Baratzekin ere berdin, hainbat kasutan eraitsi egin dira haien inpaktu estetiko negatiboak direla eta, edo lurzoru publikoaren erabilera ilegala dela eta. Esan beharra dago, espazio informalek bezain besteko arazoak eragin dituztela formalek: urteekin sortu diren eta konpondu egin behar izan diren irisgarritasun eta mugikortasun arazoak kasu.



17. Irudia Mendia Bizilekuaren barneko elementuen kartografia.

9.6 Ondorioak

Atal honetan, Hiri Bazterreko Paisaiak ulertzeko garatu den proposamenaren Lehengo Eszena aurkeztu egin da burutu diren ekintzak deskribatuz eta topatu diren emaitzak azalduz. Ekintza nagusiak Txango Esploratzaileak izan dira, non landa lan bidezko datu bilketa egin den. Landa lan hau ikerlariaren berezko jakintzarekin konbinatu egin da. Doiketa prozesu bat eman dela azaldu da, hasieran lurralde osoko bazterra aztertu nahi bazen ere, gerora, zehaztasunera jo egin bita mendialdean helburua jarriaz. Esplorazioaren emaitzetako bat da Hiriko Bazterra Bilboaldeko mendietan kokatzea. Kokapen honen aukeraketaren justifikazioa eta hobespena aurreko 7. Atalean azaldu da modu sakonago batean, paisaiaren eta mendiaren irudikapenaren ikuspegitik. Bildutako datuak, lurraldeko elementu eraikiak dira batik bat, eta hauek sailkatu egin dira Sei Paisaia-Ikuspegietan. Hots, elementuek mendiarekin duten harremanaren arabera, oinarritzko ideia sortzaile edo Paisaia-Ikuspegiak formulatu dira. Guztira Sei PI zehaztu dira Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuen interpretazioa osatzeko. Interpretazio horretara iristeko pausuak sakonago aztertu dira atal honetan, nabarmenduz, atzera begiko berreraikuntza bat dela, baita paisaion interpretazio espekulatibo bat ere dela adieraziz. Amaitzeko, Sei Ikuspegietako bakoitzaren esanahiarekin eta deskribapenarekin, baita kartografiaren emaitzekin ere osatu egin da atala.

Horrenbestez, ikerketaren ekarpen gisa onartu daitezkeen helburuak partzialki lortzen dira emaitza hauen bitartez. Bilboaldeko Hiri Bazterreko Paisaiak mendian kokatzen direla

ezartzen da, batetik, eta, bestetik, Sei Paisaia-Ikuspegien bidez osatzen da Paisaia hauen Interpretazio Espekulatiboa edo Atzera begiko Berreraikuntza. Lehen Eszenako emaitza den Interpretazio hau *espekulatiboa*, hots, demostraziorik behar ez duen *hipotesi* gisa aurkezten bada ere, ikerketaren helburuari dagokionez, gabezia batzuk sumatzen zaizkio. Batik bat, ezarri den PI tresnaren dimentsio guztiak ez direlako ikertu 1.go eszena honetan, eta horrek esan nahi du ikuspegi konstruktibistatik motz geratzen dela interpretazioa, paisaiaren Agenteen eta Irudikapenen inguruko informaziorik ez delako bildu. Paisaia-Ikuspegien egitatea frogatzeko asmorik ez dago eta hauei paisaiaren eraikuntza ulertzeko duten erabilera hermeneutikoa onartzen zaie. Alabaina, informazio errearen bitartez Paisaia-Ikuspegi tresnaren baitako dimentsioei buruzko datu bilketa bat proposatzen da Ikuspegi Anitzeko Interpretazioa osatu ahal izateko.

Tesiaren helburua, Bazterreko Paisaien ulermen eta irudikapen berriak ikuspegi inter-subjektibo batetik lortzea da, eta, Lehen Eszenan irudikapen interpretatu bat egitea lortu da soilik. Paisaiaren osaera inter-subjektiboari dagokionez, Lehen Eszenan osatu den ikuspegi anitzeko interpretazioak hori bera iradokitzen badu ere, ez du frogarik eskaintzen. Izan ere, begi bistako elementuak, eta ikerlariaren jakintza dira erabili diren datu bakarrak. Horien bidez, ezin jakin daiteke paisaiaren eraikuntzan eragin duten alderdi sozialaren eta kulturalaren inplikazioa zehazki zein izan den. Hala ere, Sei Ikuspegi bidezko interpretazioa sormenezko eta proposamenezko ariketa gisa duen balioa onartu daiteke, eta hurrengo eszenarako eta datu bilketarako testuinguru hermeneutikoa ezartzeko ere balio du. Hortaz, Bigarren Eszenan, Ikuspegi dimentsio soziokulturala, baita irudikapenezkoa ere osatzeko datu bilketa eta interpretazio bat aurrera eramango da.

Bi eszenatan garatzen den Ikuspegi Tresnaren aplikazioa azalduko da ondoren, Bilboaldeko Bazterreko Paisaia menditsuen kasua erabilita. Bi eszenatako sekuentziak ikerketaren estrategia abduktibo edo erreflexiboa adierazten dute. Hots, froga eta errorearen bitartez, edota egin ahala suspertzen den metodoa da hemen erabili dena. Nahiz suspertzen doan metodologiaren bitartez gorpuztu den proposamena, horrek ez du haren errepikagarritasuna baldintzatzen. Ordea, doiketa gehiago eskatzen duen proposamen baliagarri baten aurrerapena bat erdietsi dela baizik.

Paisaia Ikuspegiaren oinarritzko dimentsioa formulatu ondoren, Ideia, alegia, eta gainera, Sei Paisaia-Ikuspegien araberako Bilboaldeko bazterreko paisaia menditsuen interpretazioa egin eta irudikatu ondoren, hurrengo atalean PI tresnaren dimentsioen inguruko datu bilketa eta interpretazioa jorratuko da. Alegia, tesiak proposatzen duen paisaia ulermen tresna eta metodoaren Bigarren Eszena deskribatu egingo da.

10. ATALA. Bigarren Eszena:

Artxibo lana

[Tresnaren 2. aplikazioa]

10.1 Sarrera

Lehenengo fasean Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuen interpretazio bat lortu da, Sei Paisaia-Ikuspegiez osatua. PI bakoitzaren atzean lurraldearen, hots, mendialdearen oinarritzko ideia edo ulerkera bat dagoela ebatzi da landa-lana eta paisaia-elementuen sailkapen eta interpretazioaren bitartez. Sei Ikuspegi bidezko Interpretazio Espekulatiboa mapa indibidualetan eta konbinatuan irudikatu egin dira. Emaitza nagusia, Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuen Sei Ikuspegiko Atzera begirako Berreraikuntza bat da, izaera espekulatiboa duen interpretazioa, alegia.

Tesi honen helburua, hiri-bazterreko paisaien osaera eta eraikuntza interpretazioaren bidez ezagutzea eta ulertzea da. Horretarako, metodo bat proposatzen da, oinarrian interpretazi tresna bat duena: Paisaia-Ikuspegia aurreko 7. Atalean adierazi den bezalaxe. Honen egitura lau dimentsiok osatzen dutela ere esan da lehenago: oinarritzko Ideia, Agentzia, Irudikapena eta Elementuak. Lehenago Eszenan 6 Paisaia-Ikuspegiak Ideiak formulatu baldin badira—hots, Mendi Tradizionala, Baliabidea, Oztopoa eta abar—Bigarren Eszena honetan, landanaren bitartez ezagutu eta interpretatu ezin daitezkeen gainontzeko dimentsio ez hain materiala arakatu nahi dira.

Horretarako, artxibo-ikerketaren bidezko ikerketa estrategia burutu da; hots, 1.go Eszenan sailkatu, kartografiatu eta interpretatu diren jatorri gizatiarreko elementuen aspektu ukiezinak ezagutzeko, baita lurraldearen eraikuntza kontzeptualak eta diskurtsiboak ulertzeko ere. Horrela, lehenago formulatu diren Sei Paisaia-Ikuspegi bakoitzeko 4 dimentsioen inguruko informazioa osatu nahi da. Nolabait, dokumentuen analisi eta interpretazioaren bidez, formulatu egin den Paisaia Ikuspegi bakoitzak Bilboaldeko mendi magaletako hiri bazterreko paisaiaren eraikuntzan izan duen eragina ulertzeko.

Lehenengo Eszenan lurralde materialaren indar eragileak interpretatu badira begi-bistako ebidentziak datu gisa erabiliaz, Bigarren Eszena honetan, indar eragile horien testuinguru zabalagoak ikertuko dira artxibatu eta irudikatutako datuen bidez.

Bigarren Eszenan bilatzen diren emaitzak joerak eta korrelazioak dira; hots, paisaiaren osaera eta bilakarea ulertzeko moduko Paisaia Ikuspegi bakoitzaren baitako Dimentsioen araberako irakurketak bilatzen dira. Joerek, paisaiaren eraikuntza fisiko zein diskurtsibo anitzak erakutsiko dituztelakoan gaude, agente eragileen, lurraldearen ulermenaren eta irudikapenaren ikuspegi ezberdinak adieraziz.

Bildu diren agirietako informazioaren interpretazioa bi fase nagusitan burutu da: 1.go edukizko interpretazioa eta 2. Interpretazio teorizatua. Edukiaren interpretazioa, Paisaia Ikuspegi araberako sailkapenak egituratua da, eta teknika hauek erabili dira: ikonografia eta eduki analisia. Dokumentuen interpretazio teorikorako teknikak berriz, ikonologia eta diskurtso analisia izan dira. Erabilitako teoriak Agentziaren eta Elementuen inguruko teoriak ezarritako adierazleen arabera interpretatu egin dira. Emaitza bezala, dimentsioen barneko, dimentsioen arteko eta Paisaia-Ikuspegi arteko joerak eta loturak bildu dira. Horiek denak HBParen egiturak eta izaera ezagutzeko baliagarriak diren emaitza bezala aurreratzen dira. Gainera, HBParen eraikuntzan Paisaia Ikuspegi ezberdinek izan duten eragina eta intentzioa ere aztertu egin da, zorizko eraikuntzaren hipotesia frogatuz (Gallent et al., 2006).

Ikerlariaren rolari dagokionez, Bigarren Eszenan zehar, dokumentazio fasera mugatzen da. Hau da, esanguratsuenak diren dokumentuen aukeraketara, baita bildutako agiri nahikotasuna—kopuruan eta zabalera—erabakitzerara ere. Nahikotasun horrek, formulatutako Sei Paisaia Ikuspegi barneko elementuen aniztasuna irudikatzeko haina den ala ez adierazten du.

19 Taula Bigarren Eszenako ikerketa prozedura: faseak, teknikak, irizpideak.

Fasea	Dokumentazioa	1. fasea: Edukiaren Analisia	2. fasea: Interpretazio Teorizatua
Ikerketa Teknika	Dokumentuen bilaketa eta aukeraketa	Galdetegia, Ikono- grafia, eta Edukiaren analisia	Galdetegia, Ikonologia, eta Diskurtso Analisia
Irizpideak	Ikerlariaren aukeraketa irizpidea: Agirien nahikotasuna eta esanguratsutasuna	Oinarritzko in- formazioa: data, agiri mota Lau Dimentsioetako edukiarekin kor- relazioa: 1D.Ideia-helburua; 2D.Irudikapena-adier- azpidea; 3D.Agentzia-sustat- zaileak eta egileak; pribatuak ala pub- likoak; 4.D-Elementuak- proiektuak, planak, kontzeptualizazioak, proposamenak eta abar	Lau Dimentsioetako oin- arri teorikoak: 1D. Ideia: helburuaren garapena lurralde-uler- keraren arabera 2D. Irudikapena: ageri dena eta ez dena 3D. Agentzia: Kanpokoak/ Barnekoa, Subjektibista/ Objektibista 4D. Elementuak: pai- saiaren eraikuntza Poli- tikoa/Bizitua, <i>in-visu/</i> <i>in-situ</i> Hiri Bazterreko Paisai- aren eraikuntzan eragina eta asmoak

10.1.1 Dokumentazio prozedura

Aztertu beharreko agirien aukeraketa egin ahal izateko, zerrenda bat egin da Lehenengo Eszenako landa lanean dokumentatutako elementuak adieraziz. Elementu hauek, Paisaia Ikuspegika sailkatu egin dira esan bezala, eta ahal dela paisaia-izaera ulertu ahal izateko ikuspegi zabalena eta elementu sorta esanguratsuen osatzen dute.

Zerrenda hau erabiliz, hainbat datu basetara jo egin da. Lehen mailako iturriak artxibategietan topatu dira: udaletxeetan (Bilbo, Leioa, Basauri, Abanto-Zierbena, Barakaldo), Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan (BHAF), eta Euskal Herriko Meatzaritza Museoko Artxibategian. Beste lehen mailako iturriak, digitalak izan dira eta hainbat datu base ofizial eta formaletan (Eusko Jaurlaritzako Lurralde eta Hirigintza Saila, Bizkaiko Hirigintza Saila,

Bilboaldeko hainbat udalerritako Hirigintza sailak: Abanto-Zierbena, Trapagaran, Ortuella, Leioa, Bilbo) atzitu dira. Bigarren mailako iturriak berriz, liburutegietan zein interneteko blog, elkartean web-atari edo informazio iturri informalekoetan topatu dira.

Lehen mailako iturriak dira hurrengo motako dokumentuak: arkitektura proiektuak, azpiegitura proiektuak, hirigintza planak, lurraldea antolamendu planak, plan partzialak, plan bereziak, kartografia eta gaikako mapa monografikoak (errepideak, geologia, meatzaritza kontzesioak), inbentarioak, lege eta araudiak, postalak, argazkiak, dokumentalak, bideoak eta txosten publikoak. Bigarren mailako dokumentuak esan bezala, gaikako liburu monografikoak, ikerketa argitalpenak, kazetaritza artikulua espezializatuak, eleberriak, berriak, blog sarrerak, web-atariak dira, txosten korporatiboak, dibulгатiboak eta propaganda edo iragarkiak dira.

Bilboaldeko paisaiaren egungo egoeraren bilakaeraren abiapuntua industrializazioarako trantsizio garaian koka dezakegu, eta hortik aurrera eragin ziren eraldaketa guztien ondorio dela esan daiteke. Lehenengo interpretazioaren emaitza diren Sei Paisaia-Ikuspegiak irakurketa historiografikoaren arabera, Mendi Tradizionala, Mendi Baliabidea, Mendi Oztopoa, Mendi Erabilgarria eta Mendi Bizilekua segida horretan gertatu zirela esan daiteke—nahiz eta Ikuspegiak arteko gainjartzeak ematen diren, batik bat Mendi Tradizionala, Mendi Berdea eta Mendi Bizilekua etengabe garatzen eta bilakatzen diren ikuspegiak dira. Denbora tarte zabal horren erakusgarri, 19. Mendeko erdialdetik 2012rako tartean sortutako hainbat dokumentu analizatu dira, guztira ia 100 grafiko, idatzi eta ikus-entzunezko dokumentu aztertu eta interpretatu dira.

Dokumentuen bilaketa eta sailkapena, 1.º Eszenan formulatu diren Ikuspegiak arabera egin da. Hots, ikuspegi bakoitzean biltzen diren elementu esanguratsuenen inguruan informazioa bilatu egin da. Nahi bezain beste dokumentazio esanguratsu edo lehen mailakoa bildu ez denetan, bigarren mailako iturrietara jo da.

Agiri bakoitza arrazoi ezberdinak direla medio topatu eta aukeratu egin da, baina finean, helburu nagusia paisaia-elementuen eraikuntza, bilakaera, azalpenak biltzea zen. Honen inguruko informazio gehiago biltzen dute gehigarriak. Zehazki, E Eranskinak, aztertutako elementuak eta dagokion agiria zein Paisaia Ikuspegia adierazten ditu, eta F Eranskinak, agiritako zenbait irudi, deskribapen labur batzuk eta aukeraketarako irizpidea adierazten ditu.

20 Taula Egokiro bildu nahi ziren elementuen inguruko informazioa, eta haren balizko kokapen agiritegia/datu basea.

Landscape Perspective	Element	Possible location	Landscape Perspective	Element	Possible location
0_TRADITIONAL MT			4_GREEN MT		
*	Jabego planoak Partzelarioak Udal-muga planoak Katastroa		*	Artxanda Meatzaldea Anillo Verde Bilbo Montefuerte Bilbo Unbe-Akarlanda Pagasarri	txostenak
2010koa daukat					
1.2 FORESTRY RESOURCE MT			5.1_FORMALLY SETTLED MT		
* AFB, amb 2010 BFA	repoblaciones baso inbentarioak				
	basozainen gastuen justifikazio txostenak				
1.1 MINING RESOURCE MT				Ciudad Jardin	
2010ekoa	meatze kontsezioak topografikoak	AGRUMIN- SAREN fon- doan, Lucha- na Mining, Orconera Iron Ore eta Franco- Belgaren ehundaka plano		Buena Vista Firestone	
Adan de Yarzarenak	mapa geologikoak Azpiegituren pla- noak, galeria, grada eta tuenelen planoak			Otxarkoaga	
2_OBSTACLE MT				altamira Uribarri San Juan Rompeolas	
Errepideak	Planak errepide mapa za- harrak Sto Domingo			Caserio Monte San Pablo	
	Enekuri Rontegi EHU-rako errepidea Artxandako tunelak Solución Sur	Diputazio- aren txoste- netan		Unbe-Mendi Santurtzi-A8 Sarriena	
	solución Centro			Miribilla	Plan Partzi- ala
	Solución Ugalde- bieta Accesos Puerto Santurtzi Txonierriko laster- bidea	Diputazio- aren txoste- netan		EHU-UPV	
	Super Sur	Diputazio- aren txoste- netan		Coelgio Aleman	
	Olabeagako sarrera berriak	Diputazio- aren txoste- netan		Askartza	
	Artxandako Funiku- larra			Aintzindariak:colegios al aire libre 1920+/-	
	Orduntetik ura ek- artzea Zadorratik ura ek- artzea			Santa Marina Quirón	
	Alta tension Irauregui-Barakaldo Irauregui-Trapaga- Zierbena			Parque Atracciones	

3. AVAILABLE MT	Finaga-Alonsotegi		5.2 INFORMALLY SETTLED MT	Peñascal	
	Argalarío	informazioa		Monte Banderas	hemeroteca?
	Artigas hondakin-degia	EVE AMB		Artxanda Uretamendi	
	Leioa Getxo Kurkudi			Masustegi Caramelo	
	Erandio Monte Cabras	propaganda		Poblados Mineros	
	Zabalgarbi	propaganda		Baratzak	argazkiak
	Artigas compostage				
	Barakaldoko urtegiak-ahv				
	Venta-Alta consorcio	propaganda			
	Partzuergoaren ur biltegiak	propaganda			
	Gallarta El Campillo				
	Galdakao Explosivos				
	Bilbondo Basauri				
	Artea Leioa-Getxo				
	Santurtziko termikoa				
	Erandioko subestazioa				
	Finaga Basauri				
	Zierbanako kontenedore biltegia				

16. Taulan zerrendatutako elementu guztien inguruko agiriak ez dira topatu, eta hortaz, dokumentazioa Sei Paisaia Ikuspegiatako bakoitza modu adierazgarrian irudikatzeko hainako agiri kopurua bildu danean eten da. Kopuru honek, PI bakoitzean sailkatu diren elementu sorta anitzak erakusten ditu (ikus 16 Taula Lurraldeko elementuak eta jarduerak sail generikoetan bilduta.). Ondorioz, ia 100 agiri aztertu egin dira, idatzizko zein marrazkizko adierazpenak landuz. Gehienak eraikuntza proiektuak eta planak dira.

Hurrengo lerroetan Paisaia-Ikuspegika antolatuta azalpen batzuk ematen dira aztertutako agiri motak, kopurua eta datak azalduz.

Paisaia Kulturalarekin identifikatzen den 0. Mendi Tradizionalaren (MT) Paisaia-Ikuspegiaren dokumentazioa batik bat bigarren mailako iturriekin egin da. Idatzizko dokumentazioa erabili da bereziki, txosten historiografikoak, etnografikoak, geografikoak erabiliz. Argazkiak eta Postalak dira lehen mailako dokumentazio urri apurra.

Mendiak hain sakonki moldatu dituen 1.1 Meatzaritzaren Ikuspegia (MMB) biziki dokumentatu dago. Modu berezian adierazi nahi da jarduera honen inguruan existitzen den agiri kopuru altua, Bizkaiko Artxibategi Historikoan eta Euskal Herriko Meatzaritza Museoa banatua. Ikuspegi honen gainontzeko dimentsioak, agentzia, irudikapena eta elementuak aztertu eta interpretatzeko, artxibategiotako lehen mailako dokumentazio grafiko ugarietako gutxi batzuk aztertu dira

1.2 Basogintzaren Mendi Baliabidearen (MBB) inguruko 2. mailako dokumentazio ugari dago, interpretazio historiografikoak bereziki, eta zenbait agiri zahar basoen proiektuak adierazten dituztenak, Foru Aldunditik pinu-basoak sustatzeko eta jardueraren ezaugarriak eta teknikak azaltzeko. Egun, araudi eta plan publikoetako 1.mailakok iturrietan topa daiteke ikuspegi honen testigantza. Bestalde, basogintzako elkartearen aldizkarietan hainbat artikulua espezializatu topa daitezke jarduera honen balio eta ideiei buruz. Bigarren mailako iturri gisa ere modu ofizialean egiten diren inbentarioetara jo da.

2. Mendia Oztopo (MO)bezala irudikatzen duten egitasmoen dokumentazio ugari dago, baina oso barreiatua. Esaterako, erregimen politikoen arabera, errepide azpiegituren gaineko kompetentziak aldatu egin zirenez—Foru Aldunditik Estatu Zentralera eta atzera—horren araberrako artxibategietan gordetzen da informazioa. Beste elementu batzuen dokumentazioa—argindarra, ura—topatu egin da BAHFan, enpresen funtsetan. Hala ere, nahikoa ez delakoan gaude. 2. Mailako dokumentaziora jo egin da era berean, txostenetara edo dokumentu dibulгатiboetara, batik bat proiektu berriagoak dokumentatzeko.

4. Mendi Berdea Ikuspegiari (MBe) buruzko dokumentazioa ugariagoa da 1980. etik aurrera. Ordea, aurreko garaietako dokumentuak urriak dira, eta beste dokumentu

zabalago batzuetatik atera egin behar izan da, hala nola frankismoaren garaiko plangintza dokumentuetatik. Bereizgarri gisa, Bilboaldeko Artxanda mendiko parkearen dokumentazioa da agiri zaharrenetakoa.

5. Mendia Bizilekuaren (MBi) kasuan, bi alderdi aztertu dira: ikuspegi formala eta ikuspegi informala. Lehenengoari, formalari (MBiF) dagokionez, dokumentazioa ugaria da, arkitektura proiektuek 20. Mende hasieratik dokumentatu dituztelako elementu hauek. Informalaren (MBiI) kasuan, 2. Mailako iturrietara jo egin behar izan da batik bat. Mendia Bizileku Informal gisa espresuki ulertzen duen dokumentaziorik ez dago, bai ordea errealitate hori biltzen eta irudikatzen dutenak.

Hurrengo lerroetan Bigarren Eszenako ikerketa prozedura eta bildutako informazioa azalduko dira; lehenengo Agirietako edukiaren analisia adieraziko da, eta ondoren Edukiaren interpretazio teorizatua erakutsiko da.

21 Taula Dokumentuen analisirako galdetegi generikoa.

PAISAIA IKUSPEGIA:

Dokumentuaren Izena:

Iturria:

Mota:

Data:

Idea (1.D):

Sailkatuta dagoen Paisaia Ikuspegiarekin bat al dator agiriaren helburua edo lurralde ulerkera/ paisaia ikuspegia?

Zein da agiriak duen helburu eta Paisaia – Ikuspegi aitortua?

Interpretatu diren ze beste Irudikapenekin dator bat agiria?

Irudikapen grafikoaren analisi bisuala (2.D):

Planoa, Mapa, Marrazkia:

Nola irudikatzen dira grafikoki mendia eta kokapena?

Zein da Eskala?

...Perspektiba grafikoa?

...Sinbologia eta legenda?

...Iparraldearen kokapena?

Informazio ezberdineko geruzak gainjarriak al daude?

Argazkia, Fotograma, postala, etab.:

Nola irudikatzen dira grafikoki mendia eta kokapena?

Zein da Perspektiba optikoa?

...Testua?

...Irudiaren fokua?

Aurreko, erdiko, atzeko planoetako elementuak

Irudikapen idatziaren eduki analisisia (2.D):

Mendiari aipamenik egiten dion erreferentziarik al dago kokapena deskribatzerakoan?

Aurretiaz dauden elementuei aipamenik egiten al zaie? Nola aipatzen dira tokian toki aurretiaz dauden elementuak?

Nola irudikatzen da mendi-malda kontzeptualki? Zein ezaugarri aipatzen dira?

Nola deskribatzen eta irudikatzen da kokapena? Zein elementu aipatzen dira?

Agentzia (3.D):

Zeintzuk dira agiriaren sustatzailea eta egilea?

Elementuak (4.D):

Paisaia Ikuspegiaren proiektzioaren ondorioz sortu diren Elementuak adierazten al ditu dokumentuak?

Nola lotzen dira berriak izango diren elementuak eta kokapena?

10.2 Agirietako edukien dokumentazioa eta analisisia

Agiriek lan egiteko, zenbait galderen bidez fitxa bat osatu egin da, eta aztertu den dokumentu bakoitzeko bete egin da. Galderek hurrengo informazioa biltzeko balio dute: tokiaren eta mendiaren irudikapen grafikoa (irudikapen teknikak, eskala, orientazioa, informazio geruzak, simbologia, legenda, Ikuspegi, etab.), tokiko testuingurua eta mendia irudikatzeko erabiltzen diren elementuak: zeintzuk dira egilearen ustez tokia hobekien adierazten duten ezaugarri eta elementuak tokiaren eta mendiaren kontzeptualizazioa: ba al dago tokia edo lurraldea irudikatzen duen metaforarik edo irudirik? dokumentuak proposatzen dituen elementu eraikiak edo planifikatutako egoerak, egilea, sustatzailea eta data.

Galdetegiaren helburua lau dimentsioen inguruko informazioa biltzea eta sailkatzea da, Paisaia Ikuspegiaren metodoak ezartzen duen jerarkia erabiliz. Horretarako, agiri bakoitzeko informazioa lau dimentsioetako batekin elkarkidetzeko saiakera egin da. Hots, agiriak duen helburu aitortua—errepide bat eraikitzea, meatzaritza indusketak egitea edo baso baten egoera ezagutzea— 1D. Ideiarekin lotu da; mendia eta kokapena/lekua adierazteko erabiltzen diren idatzizko edo marrazki bidezko teknikak 2D. Irudikapenarekin lotu dira; agiriaren sustatzaileak eta egileak 3D. Agentziarekin lotu dira; eta, amaitzeko, diseinatzen, proposatzen eta eraikitzen den egoera eta elementuak 4D. Elementuekin lotu dira. Fase honek, anilisiaren bitartez bai idatziz zein marrazki bidez adierazten den agirietako informazioaren helburu eta esanahi aitortua jorratzen ditu.

Hasteko, agiria identifikatu eta sailkatzeko oinarrizko datuak biltzen dira: Zein Ikuspegitan dagoen barneratua, zein den dokumentuaren izenburua edo izena, zein motatakoa den (proiektua, txostena, artikulua, plana, plano, mapa etab.) eta zein urtetakoa den. Ondoren, esan bezala, eduki bisuala edo grafikoa (dagokionean), eta eduki orokorra aztertzen dira. Azken hau galdera irekien eta itxien bitartez egiten da.

Lehenengo Paisaia-Ikuspegiaren lehen dimentsioari buruz galdetzen da, hots, oinarrizkoa den lurraldearen eta kokapenaren ulermen Ideiari buruz. Sei Paisaia-Ikuspegiak interpretazio bat direla aintzat hartzen denez, dokumentuak jatorrian duen helburu aitortua dagokion Paisaia-Ikuspegiaren ideiarekin bat datorren ala ez.

Bigarren galdera blokeak, Irudikapenaren 2. Dimentsioa lantzen du. Eduki bisualari buruzko datuek irudi marraztuak eta fotografiak bereizten ditu. Lehenengoetan, konbentzio teknikoak aztertzen dira batik bat: eskala, perspektiba grafikoa, iparraldea, simbologia. Bigarren kasuan, argazkien edukiaren egituraketa, planoka, ikuspegiaren arabera eta testu idatziaren laguntza aztertzen da. Bi kasuetan, kokapenaren irudikapenaren ezaugarriak bilatzen dira, batik bat, tokian tokiko elementuen aukeraketa eta erabilpena. Segidan datozen

galderek, eduki bisualak bezalaxe, tokiaren (mendiaren edota kokapenaren) irudikapenerako erabili diren elementuak eta metaforak bilatzen dituzte, baita aztertzen ere ia zein elementu erabili ote diren kokapena irudikatzeko, interpretatzeko edota deskribatzeko.

Ondoren, Agentzia eta Elementuak dimentsioa aztertzen dira. Agiriaren sustatzailearen eta egilezaren oharra egiten da. Agiriak proposatzen dituen elementuen edo egoeren oharra egiten da, eta horiek kokapenarekin duten harremana aztertzen da.

Ondorengo lerroetan, ikonografiaren eta eduki-analisiaren ikerketa tekniken bidez Paisaia-Ikuspegi bakoitzeko aztertu diren paisaia-elementuak eta dokumentuak azalduko dira. Analiaren emaitzak, Paisaia-Ikuspegika antolatu egin dira, eta PI bakoitzaren lau dimentsioei dagokion informazioa bildu egin da hemen: Ideiari, Irudikapenari, Agentziari eta Elementuei dagokiena, alegia. Hau da, ondoren datorren edukiaren egitura Sei Paisaia Ikuspegiek eta ikuspegi bakoitzeko lau Dimentsioek ezarritako da, hots, tesiak proposatzen duen metodoaren egitura edota jerarkiaren arberakoa. Agirietako informazioa, horren arabera taldekatuta azaltzen da, beraz.

0. Mendi Tradizionala

MT.1- Argazki eta Postale bildumak:

MT.1.a- Joseba Egiraun eta Javier del Vigo (2001), *Rekaldeberri en imagenes*, Bizkaiko Gaiak bilduma, Bilbao Bizkaia Kutxa.

MT.1.b- Luis Amann eta Román Alonso (1990), *Bilbo eta bere itsasadarreko herriak postatxartelan = Bilbao y los pueblos de su ría en la tarjeta postal*.

MT.2- Luis Mari Zaldúa (2006), *Saroiak eta Kortak. Mendialdeko antzinako gizartearen oinordeak*.

MT.3- Mendiko lexikoa:

Joan Mogel (1881), *Peru Abarka*.

Txomin Agirre (1907-1912), *Garoa*.

Carmen Isasi Martínez eta beste (2005), *Léxico vizcaíno (siglos XIV.XVI)*, Oihenart, 20, 2005, 73-201 or.

MT.4- Gurutzi Arregi (1990), *Las Ermitas de Bizkaia. Ensayo de Tipología*, Munibe (Antropología eta Arkeología), 42, 473-477.

MT.5- Arantza Gogeoascoechea (1996), *Montes y usos forestales en los fueros vizcainos*, Vasconia. 24, 1996, 101-114.

MT.6- Euskal etnografia eta paisaia kulturala:

Julio Caro Baroja (1998), *Ser o no ser Vasco*, Espasa. Hainbat atal:

3. Almadieros, Pastores, Leñadores y Carboneros [extraído de *Los Vascos* (1949) 2ªed. (Madrid Minotauro, 1958), cap XI.]

1-La tradición técnica del pueblo vasco o una interpretación de su historia [extracto de *Vasconiana (De historia y Etnología)* (Madrid: Minotauro, 1957) ,pp103-177]

2. La crisis del caserío [de *Cuadernos Residenciak* (Valencia, 1964), pp3-7

Joan Mogel (1881), *Peru Abarka*.

Bizkaiko Foru Aldundia (2011), *Cinturón Verde Metropolitano=Bilboaldeko Ingruune Berdea*

Ezez., 2000. Ganadería y pastoreo en Vasconia, Bilbao: Etniker Euskalerrria.

MT.7- Julio Caro Baroja (1957), *La Tradición Técnica del Pueblo Vasco, o una Interpretación Ecológica de su Historia*, in *Vasconiana*, 103-177.

MT.8- Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako Bilboaldeko udalerrien bilakaera aztertzen duen liburu bilduma:

Barturen, J. & Bizkaia, (1993). *Larrabetzu: historia eta arte ondarea*

Bilbao, A., (1997). *Derio, Zamudio y Lezama: estudio histórico-artístico*

Torrubia Elias, N. (2004). *Loiu y Sondika: estudio histórico-artístico*

Iturbe Mach, A. (1993). *Historia de Erandio*

Ibañez, M. (1994). *Barakaldo elizatearen monografía historiko-artistikoa*

Pérez Goikoetxea, E. (1995) *Valle de Trápaga y Ortuella: estudio histórico-artístico*

MT.9- Bilbao, (2007). *Bilbao y sus barrios: una mirada desde la historia*, Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao, Área de Cultura y Euskera.

“Los ensanches de Begoña: Santutxu y Txurdinaga. Siglos XIX-XXI” Eduardo J Olea.

“Txurdinaga: ejemplo de lo que pudo ser Bilbao. Siglos XVIII-XXI” Eduardo J Olea “

“La Peña en la memoria histórica del Bilbao Contemporáneo” Susana Serrano Abad.

“Apuntes sobre la historia de Zorroza” Iñaki Pereda García 167-205.

“El barrio de Arangoiti y la Asociación de Vecinos en la transición democrática”

Francisco Javier Urritia, Jose Antonio Pérez, pp207-239

“Uretamendi-Betolaza: del suburbio a la ciudad” Joseba Egiraun, p279

“El Peñascal, con nombres propios: un barrio al sur, sobre un barranco” Javier del Vigo.

“El nuevo Bilbao Vertical. Matiko, Uribarri y la sociedad Vasca desde el tardofranquismo” Raúl López Romo

“El barrio de Zabala” Arantza Pareja Alonso.

“San Adrián, del monte a la ciudad” Susana Serrano Abad.

MT.10- Miren Askasibar (1999), *Baserría eta Bere Ingurua = El Caserío y Paisaje Rural*, Bizkaiko Foru Aldundia.

1.D. Ideia: Nekazaritza mundua.

Agiri guztiek iradokitzen dute mendia eremu eta jarduera tradizionalen toki gisa, eta zenbaitetan Mendi Baliabidearekin ere azaltzen da nahastuta: Mendiko Lexikoaren bilduman (MT.3) ; Bizkaiko Foruak eta mendi-basoak aztertzen dituen artikuluan (MT.5); Euskal Paisaia tradizionalaren elementuen inguruko agiri bilduman (MT.6); Bilboko auzoen bilakaerari buruzko liburuan (MT.9) baita Bilboaldeko herrien bilakaera bilduman (MT.8) ere. Berezko helburu edo ideiak: ikerketa etnografikoa etab, dibulgazioa, dokumentazioa dira agiri guztienak.

Agiriok duten helburua dibulgatzailea eta dokumentatzailea da. Ikerketek begirada soziala, etnografikoa, historiografikoa, arkeologikoa, geografikoa eta ekonomikoa erabiltzen dute normalean, baita etnolinguistikoa ere. Postalen kasuan, helburua produktu baten salmenta da, eta sailean bildu den dokumentu berrienak, baserriaren ingurumena eta itxura zaintzea eta aldarrikatzea du helburu (MT.10).

2.D. Irudikapena: Mendi funtzioanitz; medio kulturala.

Mendi Tradizionalaren Ikuspegiko Agentzia, Irudikapen eta Elementuak dimentsioen osaera lortzeko informazioa agiri grafikoetan, baina batik bat idatzietan topatu egin da.

Lurraldea modu grafikoan irudikatzeke, argazkietan eta postaletan, batik bat, ageri dira pertsonak jardun ezberdinetan: esne banatzaileak, laborariak, belarra segatzen, erromerian dantzan, txakolina edaten etab. Bestela, lurraldea irudikatzen da paisaia elementuak erabiliz: baserría, bideak, hesiak, basoak etab. Argazkietan, mendia normalean atzealdean, beste kasu

batzuetan , motibo nagusi gisa, gertuko eta urrutiko planoetan, edo ez da azaltzen motibo gisa.

Marrazki bakarra aztertu da, Julio Caro Barojak Patrick Geddesen ‘Valley Section’ esanguratsuaren interpretazioa, alegia. Bertan, Geddesen determinismo ekologikoak ezarritako lurralde eta gizaki harreman kategoriak Euskal Herriko kasura itzultzen ditu. Geddesen mendiko meatzaria, aizkolaria, ehiztaria, eta artzaina, bailarako laboraria, hiriko lorazaina eta kostaldeko arrantzalea, Caro Barojaren eremuan Mendi gaineko meatzari-hargin, aizkolari eta ikazkin, eta artzainak dira, Goierriko eta Beterriko baserritarra, eta Kostaldeko arrantzalea dira. Gainera, sardinerak, errotaria, olagizona, ehulea eta artotza-ontzigilea gehitzen ditu. Caro Barojarentzat, mendia, basoa eta burdinak ordezkatzeko dute, denboran zehar esanahi diferenteak hartzen badituzte ere.

Ikuspegi Tradizionalarekin lotzen dira, era berean, mendietako saroiak eta kortak. Horien kokapena tokian tokiko toponimiaren bidez eta altitudearen bidez deskribatzen ohi dira, erdiko gortarria eta tamaina aipatzeaz gain. Saroiak, ingurune megalitikoaren inguruan kokatzen dituen Barandiaranen teoria ezaguna azaltzen da maiz.

Saroiak eta beste elementu batzuk ageri dira mendiarekin harremana duten lexikoaren bilduman. Mendi generikoa izan ohi da, eta hango toki desberdinetako ezaugarrien arabera izen ezberdinak erabiltzen dira hura izendatzeko: morfologia (malda, mendi-mazela, lepoa, egia, bizkarra, zuloa, zokoa), baliabideak eta erabilerak (egurbidea, elguera-elgero, burullo, baso, belaza, larrina, soroa-soloa, arrobia, artiga), atmosfera, (ospela), jabetzak eta mugak (saila, borto, txartel, saroiak, korta, austarria, mugarria, seber), uraren eragina (karkaba, regato-errekaxo, itur-buru), bideak (estarta, bide-zidor, zeharbide) eta abar.

Bizkaiko ermiten analisi tipologikoa egiterakoan, kokapena funtsezkoa da tipoak zehazteko. Mendiarekin zerikusi zuzena dute isolatutako baselizek, santutegi baselizek, eta, kasuan kasu, auzoko baseliza tipoak.

Bizkaiko Foru zaharren eta mendien arteko loturak mendien eta mendi-jabegoen sailkapena egiten du, funtsean mendiko espazioa araututako aprobetxamendu gisa ulertzen direlarik.

Modu orokorrean, Euskal Herriko isuri atlantikoko paisaia eta lurraldearen ezaugarriak deskribatzen dituzten txostenetan kokapena eta mendia irudikatzeko maiz agertzen diren elementuak hurrengoak dira: baserria eta eraikin osagarriak (errotak eta izoztegiak), laboreak eta arbolak (sagarra, ardoa, mahatsa, intxaurra, gaztaina, arana, madaria, lihoa, azak, babak, artoa, indaba), basoak (baserri inguruan, mendian: pagoa eta haritza; bide-ertzean; haltza, lizarra, urkia, zumarra, urkitza, astigarra, lertxuna, zumalakarra), hazienda eta ganadua

(ardiak, behiak, zaldiak; mendikoa edo ukuilukoa, urtaroak eta ganaduaren lekualdatzeak, larreen kalitatea, laboreekin eta fruta-arbolekin lotura), mendialdeko baliabideak: basoa-zura eta meatzeak-burdina (teknologia eta jakintza zehatzen garapena), larreen kudeaketa (belardia, bazka, segatzea, belar metak), mendien luberritzea eta laien bidezko jorratzea, Saroiak, kaperak eta erromeriak, txakolindegia eta parrak.

Bilboaldearen kasuan, mendiak bertan jorratzen diren jardueren arabera irudikatzen dira, nahiz udalerrri batzuen kasuan berezitasun zehatz batzuk ageri. Orokorrean, mendialdea baliabidea da eta honela ustiatzen da: karea ongarritarako eginez, teilerien bidez, uraren indarra errotetan, fanderietan eta oletan, basoetako zura eraikuntzan eta ikatzetan, bazkatzeko, fruituen bilketaz (gaztainak, urrak) eta ganaduaren oheentzako edo ongarritarako otea, garoa eta orbela bilduz. Mendietan, basoak dira elementu nagusia, eta aipatu erabilerez gain, zuhaitzen trasmotxoek eta foruaren araberrako jabetzen bidez irudikatzen da, baita arbola mintegi publikoen bidez ere, Santa Marina-Ganguren mendiaren kasuan bezala.

Mendiekin lotuta ageri dira harrobiak eta meatzeak. Meatzaldea izeneko eremuan, antolatu gabeko ustiaketa bat eman ohi zen, laborantzarekin konbinatzen zen jarduera berau: udaran nekazaritza eta neguan meatze lana ustiaketa edo garraioa animalia bidez meatzeetatik Galindo eta Ugarteko portuetara eramanez.

Labore motei dagokionez aipatzen dira: Errioxatik ekarritako ardoak Txakolinari egiten zion konpetentzia zela eta, izurriteak ere medio zirela, mahastien desagerpena, eta txakolindegien inguruko aisialdiaren desagerpena ere ekarri zuela. Laborantza, maiz, ikatzaren, harlantzaren eta abeltzaintzaren parean bigarren mailako jardura gisa azaltzen dira. Abeltzaintzari dagokionez, Bilboaldean ahuntzak, ardiak, behiak, zaldiak eta txerriak ziren abere ohikoenak, tradizionalki larreetan bazkatzen zutenak. Larreak bazka-landareen zelai bilakatzerakoan 19-20 mende-artean, animaliak ukuilura lekualdatu egin omen ziren.

Mendien irudikapenak bertako lurren jabetza eta kudeaketak ere adierazten du, lurzoru komunalak ziren batzuk, esaterako, Trianoko mendien kasuan Portugaleteko, Hiru Kontzejuetako (Santurtzi, Sestao eta Trapagaran) eta Lau Kontzejuetako (egungo Muskiz, Zierbena, eta Abanto-Zierbena) biztanleek erabiltzeko. Beste batzuk, lurzoru pribatuak elizarenak, jauntxoena eta monasterioena ziren, normalean ikatzetarako produkzio errentableenak zituzten bertan.

Mendia hainbat bidez osatuta bezala irudikatzen da, gurdi bideak, errege bideak (Gernika eta Bilboren arteko Zin egiteko bidea edo Via juradera), zaldi bideak. Bertatik zehar mugitzen zen merkataritza, Artxanda igoaz esaterako Txorierriko bailarako herrietatik etorritako laborariak egiten zuten bidea. Bilboko hiribildua inguruko elizateekin lotzen zen mendiak igo eta jaisten zituzten bideen bidez. Era berean, Bilbo beste gune garrantzitsu (Gernika, Gaztela,

Santander, Santiago) batzuekin lotzen zituzten bideek, Bilboko zenbait auzoetatik igarotzen ziren: Pankorbora joateko La Peñatik igo beharra zegoen, Balmasedara eta Burgosera joateko, Kaxtresanako gaina igo beharra zegoen, handik ere errege bidea pasatzen zen Burtzeñarantz, baita Santiago bidea ere.

Bilbon bertan, orain auzo diren, eta lehen hiribildua inguratzen zuten Abanto, Begoña eta Deustu elizateetan eta beste auzoetako magaletako elementu arruntak ziren: txakolindegia (Begoña/Mahats-herri, Artxanda eta Deustuan) , baserriak (Begoña, Abando, Arangoiti, Txurdinagan), mendi baliabideen ustiaketa (La Peñako meatzeak, errotak, olak, basoak eta harrobiak; Abando-Kastrexanako meatzeak), Kastrexana gaineko zelaiak, Uretamenditik igarotzen zen Pagasarriko meatzera bidea, Peñascalen lur-azpian dagoen Elgera erreka mendietako ura jasotzen zuena, Abanto-Errekaldeberriko Iturrigorria edo ur ferrikoa isurtzen zuen iturria, Zabalatik San Rokeko ermitara igotzen zen bidea eta bidean, Bentaberriko zelaietan izaten ziren erromeriak, Pagasarriko izoztegiak etab.

Gaur egun, Bizkaiko paisaia kultural hau irudikatzeko aipatzen diren elementuak dira: Baserria, Harresiak, Landare hesiak ezpondak, zuhaitz ilara soilak, hesiak eta langak, bide eta bidezidorrak, errekek eta ibarrak, zuhaitz bakarrak eta parrak, bestelako elementu bereziak (garbilekua, askak eta iturriak, metak, tokian tokiko paisaia elementuak: errotak, labeak, baselizak, larreak, ondare monumentala, horreoak, labore tradizionalak).

Baina finean, Mendi Tradizionalaren Ikuspegiaren Irudikapenak esaten digute:

-Mendia dela euskal kulturaren funts nagusi bat; zurez eta burdinez hornitzen zuelako eta bere etorkizuna baldintzatu duelako.

-Baserria dela paisaiaren elementu nagusi bat.

-Mendia, Abeltzaintzaren eremu nagusia izan zela era berean.

-Pasarako eta bideentzako eremua ere izan zela

-Mendiak bestelako baliabide begetalak ere ematen zituela: giza elikadura zein abereen zaintzarako.

-Mendian aisiadirako zein kulturako eremuak ere bazirela: ermitak eta erromeriak, txakolindegia.

3.D. Agentzia:Paisaia Kulturalaren babeserako aldarri zientifikoa.

Ikuspegi tradizionala dokumentatzen duten agirien egiletza eta sustapena batez ere ikerketa pribatuaren bidez sortua da, nahiz publikoak (Bilboaldeko herriei buruzko, Bilboko

auzoei buruzko liburu sortak, eta Baserriko paisaia kulturalaren kasuan bezala) ere badiren zenbait dokumentu. Agiri, ikerketa eta publikazio hauetan parte hartzen dute: argazkilariek (argazkiak eta postalak), ikerlariak, etnografoak, antropologoak, geografoak, ekonomialariak, historialariak, paisajistek (Miren Askasibar) eta idazleak (Mogel eta Agirre).

4.D. Elementuak: Paisaia Kulturalaren Berreraikuntza.

Mendi Tradizionalaren atalean, dokumentu guztiak dira azterketak edo irudikapen soilak, eta proiektu bat edo plan bat proposatzen duen agiri propositiborik ez da bildu. Horrelako intentzioa izan dezakeen dokumentu bakarra, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako *Baserría eta bere ingurua* dokumentua da (MT.10). Bertan iradokitzen den egoera ideala edo prospektiboak hiriarengandik bereizten den baserri ingurumenaren babesa eta zaintza da. Horretarako materialen aukeraketa proposatzen du, hirian eta baserri inguruan egokiak diren elementuen jatorri materiala (sintetikoa edo naturala), koloreak (primarioak edo arreberdeak), formak (erregularrak eta irregularrak) ezberdinduz. Horrezaz gain, baserri inguruko elementuen (baserría bera, harrizko hormak, ezkaia, ezpondak, zuhaitz taldeak, hesiak, bidezidorrak, parrak, etab) erabilera eta funtzioak deskribatzen dira, eta elementu horiek mantentzearen onurez hitz egiten da, paisaiaren itxura zein funtzionamendu ekologikoaren babesa zein mantentzea bermatzeko erabakigarriak direnak.

1.1. Mendi Meatzaritza Baliabidea

Meatzaritza Museoan eta Bizkaiko Agiritegi Historikoan dagoen material kantitate izugarriaren barna ibili eta gero, batik bat hurrengo elementuak irudikatzen dituzten dokumentuak bildu nahi izan dira: meatzeen jabetza demarkazio planoak, azpiegituren proiektuak (plano inklinatuak, aireko tranbiak), eta azterketa geologikoak. Bidean topatu egin dira Gallarta herriaren lekualdatzea eragin zuten Concha 2.a meatzearen zabaltze-proiektuaren agiriak eta beste meatze *laboreen* egoera eta garapena irudikatzen duten agiriak:

MMB.1- Bosquejo geológico y topográfico de la zona minera mas importante de la provincia de vizcaya (1878)

MMB.2- Apuntes geológicos acerca del criadero de hierro de Somorrostro en la provincia de Vizcaya (1891)

MMB.3- Descripción Física y Geológica de la Provincia de Vizcaya (1892)

MMB.4- Proyecto de Tranvía Aéreo de la mina "Vigilante" (1914)

MMB.5- Plano nº 4464 Minas de Somorrostro. Trabajos de Investigación (1923)

MMB.6- Mapa XIV CONGRESO GEOLOGICO INTERNACIONAL. EXCURSION A LAS MINAS DE BILBAO (1926)

MMB.7- Plano nº4414 Mina Concha 2ª Labores subterranas (1945)

MMB.8- nº4433 Plano de las labores subterranas y sondeos. Traza acotada de la cresta actual de la descubierta, Idem del pie y cresta de la descubierta conforme el estudio de Febrero de 1946 (1948?)

MMB.9- Plano nº4453 PERFIL B (1946 ?)

MMB.10- Plano Inclinado Ascendente de la Mina Barga. Linea Eléctrica Proyectada (1946)

MMB.11- Mina Concha 7. Proyecto de Plano inclinado entre la grada 222 y la via a la cota 209 de la O.I.O.CºLº (1943)

MMB.12- M 500. ORCONERA IRON ORE CºLº MINAS EN LA ARBOLEDA (1961)

MMB.13- Planos de demarcación de diferentes minas (?)

MMB.14- Izenbururik gabeko planoak non Calizas (Abanto-Zierbena) auzoko errepide berri baten proiektua ageri den (?).

MMB.15- Chemin de fer aérien. Système Bleichert servant au Transport de Minerais pur la Sociedad Anonima Franco Belga de las Minas de Somorrostro. Ligne Concha 2-Cadegal. Perfil Longitudinal. (?)

MMB.16- Plano General de las minas de Vizcaya (?)

1.D. Ideia: Mea.

Sailkapenak ezartzen dien Ikuspegiak beste, agiriok berezko helburu edo ideiak adieraziak dituzte: Meatzaritza jarduera, lurzorua kudeaketa eta jabetzaren adierazpena, meatzaritza industria jardueraren kartografiatzea, kongresu baterako egindako mapa, eta deskribapen geologikoaren bidez meatzaritzari informazioa ematea,

Horrezaz gain, beste Ikuspegi batzuk ere gainjartzen zaizkie, esaterako Mendi Oztopoarena, azpiegiturak irudikatzen dituzten agerietan batik bat (MMB.4, MMB.10 eta MMB.15).

2.D. Irudikapena: Mendia da lur-azpiko materiala, eta honen lur-gaineko kudeaketa.

Mendi Baliabidearen interpretazioa osatzeko beharrezkoa den informazioa batik bat grafikoa da, eta meatzeen proiektuekin eta kudeaketarekin du zerikusia. 9 Plano, 3 mapa eta idatzi bat aztertu dira horretarako, adierazten den espazioaren kokapena eta mendi izaera irudikatzeko erabiltzen diren elementuak eta teknika grafikoak bilduz eta ikertuz.

Planoek elementu arruntak darabiltzate kokapena adierazteko, konbentzio kartografikoetan ohi den bezala ageri dira toki-izenak, eraikinak, azpiegiturak (bideak, errepideak, trenbideak, meatzee azpiegitura), iparraldearen norabidea (gehienetan gezi edo orratz bidez adierazia, orientazio konbentzioei kasu egin gabe), elementu geografiko esanguratsuak (ibaiek, itsasadarra eta kostaldea, batik bat), mendi gailurren izenak etab. Baina bereziki esanguratsua da agiri hauetan, ohiko erreferentzia horiez gain meatzearen ezaugarrien (izenak, demarkazioak, laboreak, proiektuak, galeriak etab) bidez adierazten direla espazioa, tokiaren ezaugarriak, eta mendiaren izaera.

Orokorrean mendia espresuki ez da ageri, garrantzia lurra edo topografiaren eraldaketak,

eta meatzeek landutako eremu baten adierazpenak dutelako. Horrela gorago aipatutako elementu arruntez gain, meatzaritzarekin zerikusia duten informazio geruza gainjarriak ageri dira. MMB.5 (1923) planoan, Somorrostro ingurua hartzen duen eremua lurrazaleko kudeaketa erreferentziak, lurrazpiko ezaugarri geologikoekin konbinatuta adierazten da. Concha 2.aren zabaltze proiektua irudikatzen duten planoek berriz (MMB.7, MMB.8, eta MMB.9). Gallarta herriko eraikinak, meatzearen demarkazio mugekin, meatzea zabaltzeko beharrezko lur-mugimenduen lerroekin, lurrazpiko galeriekin eta proiektatutako eraispeneekin adierazten da lurzorua.

Beste kasu batzuetan, mendiaren presentzia fisikorik ere ez da ageri, eta meatzeen demarkazio mugek eta izenek hartzen dute espazioaren identifikazioaren papera, beste ezer adierazi gabe (MMB.13), edo, bestela, toki-izen eta azpiegiturekin batera (MMB.16).

Bereziki interesgarria da MMB.12 agiria non hainbat informazio kapa gainjartzen diren Zugaztieta ingurua irudikatzeko eskala txikian (1:5000). Planoa izugarri handia da eta bertan ageri dira topografiaren hainbat forma modu oso zehatzean marraztuak, meatzeen demarkazio eta izenekin batera, baita beste elementu topografiko arrunt (toki-izenak, eraikinak, azpiegiturak, bideak) eta bitxiagoekin (baratzak eta laboreak) konbinatuta. Topografiaren forma bihurri guztiak irudikatzen dira, lubeta, ezponda, plataforma, betelan, trintxera eta abar., naturalak zein eraldatuak ageri dira. Gainean, Orconera meatzeen demarkazioen muga erregularrak ageri dira gainjarrita.

Proiektuek bi aire bidezko balde lerroen (MMB.4 eta MMB.15) eta plano inklinatu (MMB.11) baten ezaugarriak eta kokapena irudikatzen dituzte. Azpiegitura mota hauek mendiaren desnibelak salbatuaz meatzearen garraiorako balio dute, hala, haien kokapena beti da malda baten gainean. Proiektuok, oinplanoz eta ebaketaz irudikatzen dira. Batean zein bestean, toki-izenak, ibilbidean zeharka gurutzatzen diren beste azpiegiturak, lurzoruen jabeak eta meatzeen demarkazioak ageri dira tokiaren erreferentzia gisa. Mendi magalaren formak bisualki ulergarriena den ebaketaren bitartez irudikatzen da: azpiegitura mendia adierazten duen marra lodi baten gainean kokatua ageri delarik. Oinplanoan ere, magalaren ezaugarri morfologikoak lubakien, hustu-lanen, betelanen eta ezponden bidez adierazten dira.

Mapetan (MMB.1, MMB.2 eta MMB.6) ere antzeko konbentzio grafikoak topatzen dira kokapena adierazteko: toki-izenak, azpiegiturak, itsasadarrak, gailur- eta mendi-multzo izenak. Hemen ageri diren berezitasunak mendia adierazteko ordea, geologiaren ikuspegitik eginak direnez gero, ezaugarri geomorfologikoak dira, batik bat jatorri geologikoari (burdinazko arroka eruptiboak bereziki kolore gorritz adieraziak) dagozkio. Ezaugarri geomorfologiko eta geologikoak, horien ustiaketa iradokitzen duten elementuekin konbinatzen dira: meatzeen izen eta demarkazioak, baita trenbide azpiegiturak ere.

Yarzaren testuan (MMB.3) Bizkaiko geografia fisikoa deskribatzen da, toki izenak aipatuz, eta bertako baliabide mineralak nahiz energetikoak ere adieraziz. Bilboaldeko mendietako geomorfologia orokorraren eta haren forma oinarri hartuta modu estetiko edo poetikoan deskribatzen ditu zenbait mendi: Ganekogorta “gran montaña”, Eretza “empinado monte”, Artxanda “ofrece carácter de sierra: sus cumbres se orientan siguiendo una línea recta bien definida”; Serantes “presenta por un efecto de perspectiva la forma de un cono” eta sumendia zelakoaren mitoa ezeztatzen du; Luzero eta Serantes “se sumergen en el Abra”

3.D. Agentzia: Konpainia pribatu ustiatzaileak.

Agiri hauen Agentzia pribatua da kasu gehienetan, meatzaritza konpainiek sustatu baitzituzten, eta beraientzat lan egiten duten teknikariek marratu zituzten. Dokumentuok, bi konpainia izen nagusien artean banatzen dira: Compañía Franco Belga de Minas de Somorrostro (CFBMS) eta Orconera Iron Ore Company Limited (OIOCL) dira. Hauekin lotuta daude agiriak, hurrenez hurren: MMB.5, MMB.7, MMB.8, MMB.9, MMB.12, MMB.15, eta MMB.10, MMB, 11 dira. Gehienak plano proiektiboak dira, baina kasu batzuetan, deskribapena egiten da. Esaterako, MMB.5-ean, mea topatzeko eta lur-azpiaren egoera ezagutzeko indusketa lanen kokapena irudikatzea dute helburu.

Beste agentzia mota bat, helburu deskribatzaileekin lotua dago (MMB.16) eta ez zuzenki lerratua konpainia baten interesekin, baina bai meatzeen ustiaketarako informatze zerbitzura emana. Aipagarriak dira Ramon Adán de Yarza geologo entzutetsuak egindako hiru dokumentuak (MMB.1, MMB.2, MMB.3) non Bizkaiko meatzeen krokis geologikoak, mapa topografikoa, eta deskribapen geologiko eta fisikoak egiten dituen. Beste kasu bat, Bizkaiko Meatzeen ikuspegi orokorra irudikatzen duen planoarena da (MMB.16), Dirección General de Minas, Metalurgia e Industrias Navales-ek argitaratuta. Bertan, Bilboaldeko meatze demarkazio guztien mugak eta izenak marraztuta ageri dira, ustiaketa dutenak nahiz ez dutenak.

Agiri apur batzuen egiletza zehazki jakitea ezinezkoa bada ere, argi dago konpainia edo lurjabe batekin lotura duela irudikatzen diren demarkazio (MMB.14) eta mea garraiatzeko aire-trenbidea baten proiektua direnez gero (MMB.4).

4.D. Elementuak: Mendiaren dekonstrukzioa.

Aztertutako 16 dokumentuetatik, zortzik soilik egiten dute eraldaketa proposamenik. Beste zortziek Agentzia dimentsioan aztertu den bezala, deskribapen bat egiten baitute. Propositiboak diren agiritan, atari zabaleko meatze bilakatzeko proposamena baita horrek eragingo duen Gallarta herriaren eraldaketa edo suntsiketa (MMB.7, MMB.8 eta MMB.9), errepide berri bat (MMB.14) eta geografiaren ustiaketa adierazten dute (MMB.3).

Proiektuak diren agiriak berriz, esan bezala, garraio azpiegiturak proposatzen dituzte. ‘Vigilante’ meatzeko meza airez garraiatzeko tranbiaren diseinua (MMB.4), eta Leipzigeke Adolf Bleichert konpainiaren Bleichert Sistema deritzon aire-trenbidearen erabilera proposatzen da Concha 2.a-Cadegal lerroan zehar (MMB.15). Plano inklinatuak, Concha 7.eko mearen garraiorako proposatzen da (MMB.10).

1.2. Mendia Basogintza Baliabidea

- MBB.1- Bizkaiko Foru aldundiaren zirkularra udaletxeei bidalia (1908)
- MBB.2- Bilboko ingeniari agronomoaren proposamen gutuna (1915)
- MBB.3- Bilboko Arraiz mendia birpopulatzeko planoak (1915-16)
- MBB.4- Bilboko Arnotegi mendia birpopulatzeko planoak (1915-16)
- MBB.5- AHV eta Yarzatarren arteko harremanen agiriak (1951)
- MBB.6- Pinua landatzeko gomendioak MUNIBE-Aranzadi (1952)
- MBB.7- Bizkaiko Mendi Eta Natura-Eremuen Babes Eta Administrazioarako Foru Araua (1994)
- MBB.8-EAE-ko Baso Plangintza 1994-2030 (1994)
- MBB.9- Basoko Teknika Bilkuraren kronika artikulua (2009)
- MBB.10- Selvicultura del Pino Insigne (Pinus radiata) Manual Básico (2006?)
- MBB.11- 2010ko Baso inbentarioa: Bilboaldeko datuak (2010)
- MBB.12- “Mecanización forestal en Euskadi” artikulua (2012)
- MBB.13- EAEko 2010-2011ko Baso Inbentarioaren analisi artikulua (2013)
- MBB.14- Mario Adan de Yarzaren erretratua-Aurelio Arteta (?)

1.D. Ideia: Mendia=Zura.

Bildu diren agiri guztiek egiten dute bat ikuspegiaren ideiarekin, hots, basoa eta mendia baliabide gisa ulertzen duen irudipenarekin. Baina, ideia horrezaz gain, mendi Tradizionalaren Ikuspegia ere ageri da; hots, mendia landa-lur erabilera eta elementu tradizionalarekin lotzen duen ideiarekin (MBB.7 eta MBB.8). Hala, mendia defintzeko, basoa soilik ez eta artzaintza, abeltzaintza, fruta-arbola erabilera dituzten lurzoruak ere kontsideratzen ditu, esaterako Bizkaiko Mendien Foru Arauak (MBB.7). Mendi Baliabideari gainjartzen zaion beste ideia bat Mendi Oztopoarena da, batik bat basogintzaren ustiaketa teknikak eta mendi magalek ezartzen dituzten oztopoak azaltzen direnengan (MBB.12).

2.D. Irudikapena: basoa da mendia da basoa

Ikuspegi honen arabera, mendia baso baliabide bat da, eta horrela irudikatzen da adierazpide grafiko, baina batik bat idatzietan.

Hasteko, Aurelio Artetak Mario Adan de Yarza-ri egindako erretratua aipatuko da (MBB.14). Bertan, pinu basoaren bultzatzaile eta berritzaile nagusia pinudi batean ageri da, mendian, atzean beste muino bat duela intsigne pinuz beteta.

Baso landaketen planoak topatzeko zailtasuna aipatu beharra dago: aurkitutako apurrak aski zaharrak diren agiritakoak dira. Bilboren jabetza ziren Arraiz (MBB.3) eta Arnotegi (MBB.4) mendietako lursail batzuen pinu bidezko landaketa proposatu zuen udal mendizainak 1915ean (MBB.2), eta asmo hori irudikatzen duten bi plano topatu dira. Bertan kokapena oso modu eskematikoan adierazia dago, bide, erreka, azpiegitura apurrak eta beraien izenak marratuaz. Mendi morfologia lerro kurboen bidez adierazia dago, eta pinu-saila kokatuko den eremua marra batez inguratua.

Basogintza eta mendia ageri dira elkarlotuta hainbat dokumentu idatzitan. MMB.1-n Bizkaiko mendi komunalak nahiz pribatuak abeltzaintzaren ondorioz duten egoera konpontzeko etorkizuneko baso gisa irudikatzen ditu. 1952an insigne-pinu baso bat osatzeko mendi-lursail aproposa, haren ezaugarri topografikoen (300m arteko altitudea eta iparralderako orientazioa) bidez adierazten da (MBB.6). Egun (MBB.10) basogintzarako aproposa den mendi-sail egokiaren ezaugarriak ez dira gehiegi aldatu, eta altitudearen (700m arte), lurzoru motaren (sakona eta zatikatzen den arrokazkoa), drainatzea (drainatze onekoa), haizearekiko zaurgarritasuna (gutxi) eta orientazioaren (iparraldea) bidez deskribatzen da.

Berriki egin den EAeko baso inbentarioan lurzoru erabileren bidez aztertzen dituzte Ereku Funtzionalak. Bilboaldeko lurzoru erabilera ugariena Landatutako Basoa adierazten da, mendietan kokatua (MBB.11).

Planen (MBB.7) eta araudien (MBB.8) esparruan mendia eta basoa kontzeptu berdina balira bezala ageri dira. EAeko Basogintza Planean (MMB.7), oro har, mendia basoz estalia dagoen toki oro da. Hala, mendiaren irudikapen funtzionala egiten da bertan, hark eskaintzen dituen kultura, aisi, ustiaketa, lan eta baliabide natural eta basatien babeserako euskarri gisako zerbitzuak aipatuz. Mendia jabego eta kudeaketa administratibo ezberdineko lursailen osatua dago: EAekoak-mankomunatuak, Probintzietakoak-Patrimonialak, Lokalak-Erabilera Publikoak eta partikularrak, eta kudeaketa administratibo publikodunak zein pribatudunak dira mendiak. Mendia, eta bereziki planaren ekintza, bost helburuen bidez irudikatzen da, bere alderdi anitzak eta jarduerak adieraziz: paisaia eta ekologiaren babesa, ingurumenarekiko adeitsua den eta zerbitzuak hornitzeko gai den baso-kudeaketa, basogintzaren sustapena, basogintza sektorearen kohesioa eta basogintzarekiko sentsibilitate kulturala gizarteratzea.

Bizkaiko Mendien Foru Arauean (MBB.8) ere, mendia basoaren presentziaren bidez definitzen da, baita osagarriak diren lurzoru “rustikoen”, eta bestelako landare-estaldura (sastraka, zuhaixkak, belardiak) duten eremuen bidez ere. Erabilera hauek dituzten lurzoruak ere, mendiak dira: artzaintza, larreak, fruitu-arbolak, meatzeak eta energia ustiaketa eremuak.

Eskala zehatzagora etorrira, basogintza aldizkarietako artikuluetan (MBB.9 eta MBB.12), mendia basoa da, baina batik bat, mendia, basogintzari ezartzen dizkion zailtasunak erabiliz definitzen da, teknikari eta kudeaketari eragiten dieten baldintzak. Mendia, maldatsua da eta irisgarritasun eskasekoa (MBB.9). Malda hauek batuz beste %30-50ekoak dira, oso partzela txiki eta barreiatuetako jabegoz osatuak, eta gainera, curi-erauntsi luze eta handiak jasaten dituztenak dira (MBB.12).

3.D. Agentzia: Basogintza publikoa eta Pribatuaren artean.

Mendia Baso Baliabidearen kasuan, agentzia nahiko banatua dago publikoaren (9/14) eta pribatuaren (5/14) artean. Hemen ere, Meatzaritzaren kasuan bezala, teknikoen egiletza eta esku-hartzea da nagusi mendiaren irudikapen hau garatzeko: Ingeniari agronomoak eta Basozainak batik bat.

Agentzia pribatuen kasuan, lehenengo eta behin agertzen da itzal handiko pertsonaia bat eta bere familia: Mario Adan de Yarza (Ramon Adan de Yarza geologoaren anaia) Aurelio Arteta margolari entzutetsuak egindako erretratuan. Erretratu hau Bizkaiko Foru Aldundiko bizkaitar nabarmenen gelan erakusten da (MBB.14). Adan de Yarzatarak, beranduagoko agiri batean ageri dira; hots, Altos Hornos de Vizcaya konpainiarekin izandako fruiturik gabeko negozio baten txostenetan. Bertan, Gernikan eta Lekeition zeuden mendi-basoak salerosteko AHV eta familiaren arteko elkarrizketa azaltzen da (MBB.5).

Beste agiri pribatuetan, Aranzadi Zientzia Elkarte, Bizkaiko Forestalistak, eta Espainiako Baso Ingeniari Teknikoen Elkargoa azaltzen dira, basogintzaren sustapenerako eta jarduerarentzako gomendioak eta ikerketak eginez.

Elkarte publikoen kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Saila (MBB.1 eta MBB.8), Bilboko Udala eta bertako basozaina (MBB. 2, MBB.3 eta MBB.4), eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila (MBB.7) zein Ekonomiaren eta Lehiakortasun sailak (MBB.11) ageri dira pinu bidezko birpopulaketa eta basogintza sustatuz, baso eta mendi planak eta araudiak osatuz, eta horien monitorizazioa eginez.

4.D. Elementuak: Basoak eta pinuak.

Ikuspegi honen bidez egiten diren proposamenek basoaren landaketa dute helburu. Mendien egoera kaskarraren, baita probintziaren egoera ekonomikoaren hobekuntza ere,

pinus radiata basoen birpopulaketek konponduko zutela zabaldu zen duela mende bat (MBB.1).

Basogintzak beharrezkoak dituen elementu osagarriak (pistak) baita arriskuak (suarena esaterako) ere aintzat hartu behar dira, eta hauek nola ezartzen eta garatzen diren arautu (MBB.8) egiten da. Baso maldatsu hauen mekanizazioa hobetzeko teknikak ere proposatzen dira, esaterako kable bidezko garraioa eta mozketa hobetsiz eta pista gutxiago eraikitzeke gomendatuz (MBB.12.).

Amaitzeko, basogintzak ingurumenean duen eragin negatiboaren (erosioa, espezien babesa, korridore ekologikoak, “paisaia”-eraginak) aurkako neurriak, baita mendiko beste jarduerekin oreka bilaketa eta basogintza sektorearen kohesioa eta sentsibilizazioa handitzea eta zehaztea bilatzen dute planek (MBB.7).

2. Mendi Oztopoa

MO.1- *Plano de las vías de comunicación* (1909)

MO.2- *Carreteras de Vizcaya* (1923-37)

MO.3- *Plano de Enlaces de Bilbao y los Pueblos Colindantes* (1923)

MO.4- *Servicio De Obras Públicas De Vizcaya* (1935)

MO.5- *Carreteras, caminos vecinales de Vizcaya* (1941)

MO.6- *Plano de Carreteras* (1962)

MO.7- *Primitiva Harrobirainoko errepide proiektua* (1957)

MO.8- *Memoria Anteproyecto del Ferrocarril Aéreo. “Telesirga Pagasarri”* (1960)

MO.9- *Posibilidades de una Actuación Urbanística en el Valle de Asua* (1961)

MO.10- *Anteproyecto de Conducción de Aguas de Lemona a la Iberia (Sestao)* (1961)

MO.11- *Sans Gironella-ren artikulua- Revista Vizcaya* (1963)

MO.12- *Historia de una Autopista Bilbao-Behovia, 1967-1976*, (1976)

MO.13- *La Salve zubiaren postala* (1972?)

MO.14- *Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenak*

MO.14.a- *Carreteras 1985-1990. Bizkaia* (1990)

MO.14.b- *Carreteras de Bizkaia [1990-2000]* (2000)

MO.15- *Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea*

MO.15.a *Laburpen Txostena* (2005)

MO.15.b *VSM-MHS Montaje Irudia* (2006)

MO.16. *Archanda. Camino del Funicular Postala*(?)

1-Ideia: Hiri-ehunaren oztopo?

Paisaia-Ikuspegi honi dagokionez batik bati errepideekin lotura duten dokumentuak bildu dira, eta neurri txikiagoan beste zerbitzu azpiegitura batzuk dokumentatzen dituzten agiriak.

Zergatik azpiegiturak? Bada mendi oztopoak hiriaren hazkuntzari muga ezartzen dionean, eta gehiago eraikitzea ezinezkoa denean, espazioa beste nonbait bilatzen delako. Espazio horren garapenak jatorrizko hirigunearekin lotura ezarri ahal izateko, azpiegiturak garatzen dira. Azken hauek dira hortaz, Mendi Oztopoa gainditzen duten elementuak, egoera hiritartuaren bizirauterako behar diren hainbat jario eta garraio bermatuz. Beste kasu batzuetan, hiriaren garapena beste hirigune batzuekin dituen loturei esker ematen dela jakina da. Lotura horiek bermatzeko azpiegituren burutzeak Bilboaldea inguratzen duen mendi multzoen oztopoa gainditu beharra dauka. Eremua xamurragoa eta lauagoa balitz, agian zailtasun horiek ez lirateke hain nabarmenak izango.

Idea hau baina, zaila da bildutako dokumentuetan topatzea, izan ere helburu aitortuak—zerbitzu bat eskaintzea, aurrerabide teknologikoari heltzea, etab.—adireazten dira, ez mendia *gainditzea*. Gainera, hainbat proiekturen dokumentazioa eskuratzea zaila izan denez—agiriaren egoera barreiatua dela eta—Bilboaldean existitzen diren hainbat elementu nabarmenen proiektuak ezin izan dira aztertu. Horregatik, bigarren mailako hainbat iturri aztertu egin dira: A8ari buruzko liburuaren (MO.12) eta Bizkaiko hainbat errepideri buruzko txostenen kasuan (MO.14) bezala. Errepide mapak ere aztertu egin dira, bertan mendiaren presentzia nola irudikatzen den aztertzeke (MO.1,2,4,5,6).

Bestalde, zenbait agiritan Mendi Berdea Ikuspegiarekin lotua ageri da Mendi Oztopoa: Bastidaren egitasmoan (MO.3), Telesirgaren proiektuan (MO.8), Funikularraren postalean (MO.16), A8aren liburuan (MO.12), edo VSMren txostenean (MO.15.a).

2.D. Irudikapena: Proiektuen adierazpena.

Mendiaren irudikapena bi modu nagusietan egiten da. Grafikoki, plano topografiko arruntaren adierazpidearekin edota irudiaren atzealdean kokatuta, edo bestela, mendiaren irudikapenik egin gabe, hots bere presentziarik gabe. Plano topografikoa errepide mapetan (MO.1, MO.4, MO.6) eta egitasmo (MO.7 eta MO.9) edo proposamenetan (MO.3) azaltzen da.

Mapetan, ohiko elementuez gain (hiri eta herriak, trenbideak, mugak, toki-izenak) Bizkaiko errepide sarearen maila ezberdinak azaltzen dira: estatuko, probintziako eta auzoko errepideak bereziz 1909koan, 1-mailako, 2. Mailako, 3. Mailako eta probintziako errepideak, eta auzoko bide eta errepideak 1935.an. Azken honetan, errepideen xehetasunez gain, itsas nabigaziorako azpiegiturak ere bereziki nabarmentzen dira: itsasargiak, buiak, sirenak, irrati-faroak, portuetako argiak eta balizak. Lurraldearen oinarri geografikoa berriz, itsaso, itsadar eta erreken marra urdinek ordezkatzeko dute ia beti, eta mendiak tontorren, mendizerren eta mendi-portuen izenek baita sestra kurbek ere irudikatzen dituzte. Era berean, egitasmo eta proposamenetako oinplanoetan, mendia irudikatzeke sestra kurbak erabiltzen dira. Bastidak

Bilboaldearen Galdakaotik Abrarainoko zabalera hartzen duen irudia erabiltzen badu, Artxandako tunelaren (MO.3) eta Primitibarako errepidearen proiektuan (MO.7), ikuspegia zatikakoa da, hots, eskala handiagoan egina.

Kasu horietan, mendia oinarri gisa azaltzen da, hurrengo oinplanoetan berriz, mendiaren eragina eta presentzia ez da azaltzen, lurraldea laua balitz ere berdin adieraziko litzatekeela esan daiteke eta. Egoera hau bi mapa, egitasmo eta txosten biren kasuetan topatu egin da. Lehenengo bi mapetan 1932-37koan (MO.2) eta 1941ekoan (MO.5), lurraldea toki-izenek, mugek eta errepideek adierazten dute. Altos Hornos de Vizcaya edo Bizkaiko Labegaraien egitasmoak ur-garraio sistema baten hoditeria ibilbidea irudikatzen du, Zadorratik Sestaorainoko ibilbidea, hain zuzen ere (MO.10). Proiektu honen oinplanoak ibilbide hori irudikatzen du oso modu eskematikoan hodiak bidean zehar topatzen dituen errepide, trenbide, erreka eta ibaia adieraziz. Hodiaren marrak terrenoaren formak jarraitzen dituela esan daiteke, eta batzuetan lerro zuzen batek adierazten du, lur-azpitik eta maldan gora/behera doala adierazteko, suposa dezakegunez. Horrela adierazten da mendia oinplanoan. Salbuespena ebaketak ematen digu; eskala deformazioaren eraginez, mendiaren eta zeharkatzen duen lurralde gorabeheratsuen neurritz gaineko profila irudikatzen da. Hor azaltzen da hodiaren mendi oztopoa.

Azkenez, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako errepideen txostenean (MO.14) erakunde publikoak sustatu, eraiki eta proiektuan dituen errepideen laburpena egiten da plano eskematiko edo krokis batzuek lagunduta. Horietan, mendia ez da ageri, ezta errepidearen formek iradokita ere.

Beste irudikapen esanguratsu bat mendien marrazkiak edo ilustrazioak erabiltzea da, atzealde gisa edo erreferentzia geografikoak emateko modu bezala. Adibidez, Telesirgaren proiektuan (MO.8) Arnotegi eta Pagasarri mendien perfil bat marrazten da tramankuluaren ibilbidea adierazteko. Sans Gironellaren artikuluko marrazkietan (MO.11) mendiaren presentzia erreferentzia eta atzealdea da aldi berean: Asua eta Rontegiko zubiak irudikatzen dituen marrazkiak, Serantes altxatzen da atzealdean, baita “Arboleda” ere, erdiko planoan Arriaga-Erandio eta Rontegi muinoak ere izendatzen dira. Postaletan ere atzealde gisa azaltzen da, eta Hegoaldeko Saihesbidearen argazki-muntaian, honek zeharkatzen duen eremu bezala (MO.15.b).

Saihesbidearen txostenean (MO.15.a), berriz, idatziz, mendialdearen geruza anitzak aipatzen dira: Geologia, Ekologia, Landaredia, eremu interesgarriak, ondareak, ekonomia jarduerak, zerbitzua azpiegiturak, garraio azpiegiturak, erabilera kutsatzaileak, zarata iturriak eta balio estetiko eta paisajistikoko espazioak ere. Zaharragoa den A8 autopistaren liburuan (MO.12), geografia fisikoari egiten zaion erreferentziak bi ezaugarri nabarmentzen ditu: lur mugimendu ugari eragiten dituen orografiaren zailtasuna eta geologiaren konplikazioa, batetik, eta, bestetik, paisaiaren edertasuna eta isolamendua. Azkenik, Telesirgaren proiektuko

txostenak mendia gailurreko aire garbiaren metaforarekin irudikatzen du.

3.D. Agentzia: Enpresa handiak eta entitate publikoak.

Mendia Oztopo gisa ikusten duten agentziak publikoak bezain pribatuak dira. 16 agirietatik 7 entitate publikoenak dira, Bizkaiko Foru Aldundia eta Estatuarenak; beste bost agiri enpresa pribatuek sustatuak dira. Gainontzeko lauetatik bat mistoa da, eta besteetan ezin da zehaztu. Parte hartzen duten egileak kartografoak, ingeniariak, errepide sail publikoak, enpresa pribatu ertainak eta handiak, argazkilariak, eta arkitektoak dira.

Agiri publikoak, Rikardo Bastida arkitektoaren proposamena da Foru Aldundiak sortutako Errepideen Komisioaren bidez egina; Aldundiarena da 1935ko errepide mapa ere. Sans Gironellak diputazioaren VIZCAYA aldizkarian aurreratu zituen proposamenak, lehenago argitaratu zituen bera buru zuen Gran Bilbao komisioak egindako txosten teknikoan (MO.9). 1985-1990 eta 1990-2000 urte bitarteko proiektu eta eraikuntza lanak biltzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenetan. Entitate honek ere aurrera eramane du Hegoaldeko Saihesbidearen proiektua eta eraikuntza (MO.15).

Agentzia pribatuari dagokionez, postalak bezalako agiri xumeak aipa daitezke. Horrezaz gain, Bizkaiko bi enpresa garrantzitsuren proiektuak ere agertu dira: Cementos Lemonak eraikitako errepidea, Primitiba meatzerainokoa (MO.7) eta Bizkaiko Labe Garaiek sustatutako uren garraiorako hoditeria (baita urtegiak ere) (MO.10). Bitxietan bitxiena, garraioa aisialdiarekin nahasten duen Telesirga proiektua da, Emilio Moreno Zaldivar ingeniariarena (MO.8). A8 autobidearen sustapena, publikoa eta pribatua izan zen. Espainiako Ministerio de Obras Publicasek antolatu zuen lehiaketa bidez, hiru enpresek (Ferrovial, John Laing Construction eta Compagnie d'Enterprises CFE) jaso zuten 35 urteko kontzesioa hura eraiki, mantendu eta ustiatzeko. Agentzia ezezaguna duten azken agiriak, mapak dira, 1909 eta 1941ekoan argi, eta 1932koa ziurrenik Foru Aldundiarena da. Bitxia da mapa horrek azaltzen duen arkatx gorritz idatzitako oharra 1937ko Uztailaren 7ko datatz“ indicación de los puentes destruidos o averiados por los rojos” (MO.2).

4.D. Elementuak: Azpiegitura linealak lurraldea ehuntzen.

Bastidaren planoak, Bilboaldeko errepide bidezko egituratzea eta zerbitzua hobetzea du helburu eta horretarako proposatzen ditu errepide berriak, tartean Artxanda tunel bidez zeharkatzeko proposamena. Gainera, mendi magaletan ere bestelako lorategi eta bizitza proposamenak ere ageri dira (MO.3).

Telesirgaren proiektu bitxia nahiko ezezaguna da (MO.8). Honen bidez, Zabalburu eta Pagasarri tontorra tele-aulki edo telesirga baten bidez elkarlotzen ziren, emakume eta adinduen gozamenerako eta mendiak igotzea gogoko ez duen edozeinentzako aproposa. Pagasarriko

tontorrean ere aisialdi gune konplexu bat proposatzen zuen, gurutze-faro elementu hibrido erraldoi bat eta guzti.

Asua bailaran kokatu behar zen Bilboko auzo berria Bilborekin eta ezkeraldeko lantegiekin egokiro lotuko zituen bi azpiegitura garrantzitsuen egitasmoen hurbilketak egiten dira dokumentu honetan: Artxandako tunela eta Rontegiko zubia (MO.9). Bi urte beranduago, Sans Gironella arkitektoak Vizcaya aldizkariak argitaratutako artikuluan, Bilboaldeko errepideen arazoentzako hainbat aterabide proposatzen ditu, tartean aipatu diren bi egitasmoak. Artxanda Cabras muino azpitik zeharkatzen duen tunel bat eta Asua ibaia zeharkatzen duen zubi eskegia, baita Rontegiko zubientzako diseinuak aurreratzen ditu. Gainera, Portugalete eta Getxo lotzen dituen Bizkaiko zubiaren ahalmena handituko duen beste zubi bat proposatzen du, kiribildun arrapala eta guzti (MO.11).

Bizkaiko Labe-garaien ur eskakizunak asetzeko, hainbat balizko aterabide aztertu ondoren, kostu ekonomiko eta emari eskakizunen arteko oreka onena azaltzen duena aukeraren proiektua azaltzen da agirian (MO.10). Honek, Zadorrako urak urtegitan biltzea suposatzen zuen, eta gero Arratiatik barrena Sestaoraino hodi bidez garraiatzea. Beste enpresa garrantzitsu batek, bere errepide bidezko garraio eta irisgarritasun arazoak konpontzeko errepidearen proiektua ere biltzen du MO.7 agiriak.

Bizkaiko Foru Aldundiak errepideen kompetentzia berreskuratu zuen urteen ondorengo lanak eta egitasmoak biltzen dira MO.14 Txostenetan: Uribe-Kosta Soluzioa, Ugaldebieta soluzioa, Kukularra eta Avanzadaren arteko loturak, Kadaguako korridorea, Bilbo ekialdeko bariantea, Txorierriko korridorea eta abar., Mendiak bete betean gurutzatzen dituen Bilbo Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen proiektua txosten batean jasotzen da diseinurako hainbat irizpide bertan bilduta, baita ibilbideak zeharkatuko duen eremuaren ikuspegi panoramiko irudi-muntaia batean, MO.15.a eta MO.15.b agirietan, hain zuzen ere.

3. Mendi Erabilgarria

ME.1- Zuhatzuko Lehergailuen Fabrikari buruzko informazioa

ME.1.a-Argazkia. Pedro Telesforo Errazkin (1860-95)

ME.1.b-Berriak El País (1998)

ME.2- Subestación de Dos Caminos (1954-57)

ME.2.a- Proiektua

ME.2.b-Txostena

ME.3- Pantano Artiba-Liquidacion Obras (1961)

ME.4- Plan parcial del Poligono industrial de El Campillo (1986)

ME.5- Proyecto de Urbanización Centro Comercial Leioa-Vizcaya(1996)

ME.6- “Celda de seguridad del Argalario” www.ihobe.net (1999-2002)

ME.7- Ur Partzuergoaren Txosten triptikoa (2007?)

ME.8- Plan Especial Arraiz Artigas(2008)

1.D. Ideia: Mendian tokia dago.

Agiriek adierazten dituzten azpiegitura eta industria jarduera guztiek topatzen dute toki erabilgarria Bilboaldeko magaletan barrena. Ordea, oportunistak gisa uler daitekeen ideia hau zehazki ez da jasotzen aztertutako agirietan.

Beste Ikuspegi batzuk ere azaltzen dira gainjarrita: Mendi Oztopoa eta Mendi Berdea. Lehenengo bi kasutan agertzen da, Artibako urtegiaren kasuan (ME.3) eta Ur Partzuergoaren triptikoa ere (ME.7). Urtegiak dira bi kasuetan mendietako espazioaren erabilera oportunistak egiten dutenak, eta hornidura sare batekin duten lotura dela eta, sare horiek mendi-oztopoarekiko egokitzapen teknikoak eskatzen dituzte. Mendi Berdearen Ikuspegia, Artigas eta Zabalgarbi Plan Berezia gainjartzen zaio Erabilgarritasunari. Beste hitz batzuetan esanda, espazioaren izaera erabilgarriak ahalbidetzen dituen jarduera kutsakorren irakurketa ekologiko bat egiten da hondakinen kudeaketa ekologikoa gai duen parke espazio bat ere proiektatuz.

2.D. Irudikapena: Egitasmoaren azalpena.

Mendiko espazioaren erabilgarritasunaren irudikapena batez ere agiri grafikoetan (argazki, plan eta proiektuetan) topatu egin da, baita txostenetan edo kazetaritza artikuluetan ere.

Hasteko, egun Galdakaoko Zuatzun dagon lehergailu lantegiaren kasua aztertu egin da, fabrikaren aurrekaria izan zen Santa Marina mendiko argazki baten bidez (ME.1.a), hain zuzen ere. Argazkian, magala ageri da, sastrakaz garbitua, zenbait eraikin txuri magalaren kontra jarriak eta euren artean trenbide bidez eta bidexken bidez elkarlotuak. Egun, ordea, Galdakaoko Zuatzu auzoan kokatzen da hasierako egitura haren ondorengoa, mendian

ezkutatuta (ME.1.b)

Beste magal bateko erabilera azaltzen da Barakaldoko Argalario Biltegi Toxikoari buruz IHOBEk duen web-atarian (ME.6). Kasu honetan, baina, erabakigarria da egun biltegiaren kokapenean dagoen tokia aurretik zegoen kontrol gabeko zabortegiaren aipamenak. Mendiaren ezaugarriek baino, aurreko erabilerek irudikatzen dute.

Plan, proiektu eta mapei dagokionez, normalean mapa topografikoen bidez adierazten da mendia edo kokapena den magala. Proiektu zaharrenean (ME.2.a), kokapen plano txikia erabiltzen da inguruan dauden baserriak, eraikinak (Finaga auzoa, Basauri) eta bide azpiegiturak (Burgoserako errepidea) adierazteko. Argindar azpi-estazioren tokia izango den mendi magalaren zati bat sestra-kurben bidez adierazten da agiri berean. Beste kasu ezberdin bat da Barakaldoko Artiba urtegiarena (ME.3) non mendi-magalaren forma urtegiaren kokapenarekin bakarrik ez, eta Gurutzeta gainean dagoen ur-depositua hornitzeko hoditeriaren, eta urtegia bera argindarrez hornitzen duen linearen ibilbidearen kokapenak ere adierazten duten. Urtegiak hartzen duen ibarraren forma ebaketan irudikatzen da hobekien, eta hodi eta kable lerroek zeharkatzen duten eremua kokapen planoan.

Garaikideagoak diren dokumentuek, kokapena eta mendia irudikatzeko plano topografiko estandarizatuak erabiltzen dituzte (toki-izenak, eraikinak, azpiegiturak, sestra-kurbak, mailak etab.), bakoitzak bere berezitasunak adieraziz. Abanto-Zierbanako El Campillo industriagunearen kokapena irudikatzerakoan (ME.4) meatze azpiegiturak eta meatze demarkazioak bezalako elementu bereziak ageri dira. Proiektuaren memoriaren aipatu egiten da lursailaren izaera artifiziala eta kutsadura, ezaugarri topografiko tipikoez gain (haize norabide nagusia, prezipitazioa, orientazioa). Gainera, lursailak duen begiratoki izaera eta bertatik dagoen ikusmira ederrak, gain batean dagoela adierazten du. Irisgarritasuna ere kokapenaren ezaugarri bat bezala adierazita da.

Leioako Kurkudi mendian kokatzen den ARTEA komertzio-gunearen proiektua eta lursailaren hiritartze proiektuetan (ME.5) kokapen planoak ez da adierazgarria. Baina elementu aipagarri bat azaltzen da nolana ere “las Canteras” leku-izena alegia. Mendi magalaren irudikapen zabalagoa egiten da hirigintza proiektuaren txostenean. Lurzoruaren kalitatea da eremuaren ezaugarri nagusia, izan ere, kutsadura eta ezegonkortasuna ziren nagusi bertan. Bestalde, proiektuan, komertzio-guneak errepide berriei esker izango duen irisgarritasun ona aipatzen da.

Plano topografiko estandarizatuaren beste eredu bat da Artigas eta Zabalgarbiren Plan Berezia (ME.8). Bertan, kokapenaren ezaugarri nagusiak dira, noski Artigas zabortegia eta Zabalgarbi errauskailua. Baina oro har, mendi magal hori osatu duten etengabeko jarduerak dira aipagarri, Primitiba harrobitik hasi eta Zabalgarbi errauskailuaren eraikuntza burutu

zen arte. Ezaugarri geomorfologikoak maldei, tektonikari eta estratigrafia natural eta antropogenikoari aipamenak eginez adierazten dira. Zuhaitz landaredia ezberdina aipatzen da era berean, hemen ere ezaugarri antropogenikoak aipatzen direlarik landaredi ruderalaren kasuan bezala.

Kasu bitxi bezala aurkezten da Bilboko Ur Partzuergoaren triptiko batean irudikatzen den Bilboaldeko ur horniketa sarea (ME.7). Bertan, lurraldearen zein mendien marrazki sinplifikatuak egiten dira sistema osoaren kokapena adierazteko toki-izenez lagunduta, baita zenbait muinoen gainetan kokatzen diren ur-deposituren lekutzea irudikatzeko ere.

3.D. Agentzia: Lotura publiko-pribatuak.

Ikuspegi honetako agirien gehiengoa publikoki sustatua dago eta gainontzekoak sektore pribatuarekin zerikusia dute. Bi kasutan, sustamen eta egikaritza publiko eta pribatua ematen da, El Campilloko Plan Partzialaren kasuan eta ARTEA komertzio guneko hiritartze planak udalek sustatuak badira ere, ondoren ematen den lurzoruaren aprobetxamendua pribatua da.

Iniziatiba pribatuetan, Pedro Telesforo Errazkin enpresari entzutetsua dugu, Bizkaiko merkataritza eta lurjabe familia garrantzitsukoa, zeinak Nobel-en dinamita patentea erabiltzeko eskumenak lortu zituen 19.mende amaiera aldera. Berea da ezarri zuen lehen lehegailu fabrikako argazkiak (ME.1.a) eta ondoren etorri zen hainbat izenez ezagutua izan den Zuatuko lehegailu lantegia (ME.1.b). Beste agentzia pribatudun agiria, Finagako Argindar Azpi-estazioaren proiektua da (ME.2.a). Proiektua Iberduero izan zenak sustatu eta eraiki zuen, antza denez, orduan lurraldearen garapena arautzen eta kontrolatzen zuen Gran Bilbao Batzordearen baimenik gabe (ME.2.b) libre moduan zonifikatua zegoen eremuan.

Publikoak diren agiriak, Barakaldoko Udalak eraikitako Artiba urtegia (ME.3), Abanto-Zierbenako Udalak sustatuko El Campillo industriagunearen Plan Partziala (ME.4), baita ARTEA komertzio-gunearen hiritartze proiektuaren aurretik Leioako Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren artean egindako garbiketa lanak eta esleipen bidezko hiritartze proiektua ere (ME.5). Argalarioko hondakin toxikoen gordailua aurrera eraman zuen IHOBE Elkarte Publikoa (ME.6), Artigas-Arraiz Plan Bereziaren sustatzaile izan den Bizkaiko Foru Aldundia (ME.8) eta Ur Partzuergoa (ME.7) dira agiritan azaltzen diren beste agente publiko batzuk.

4.D. Elementuak: Zerbitzuak eta lantegi berriak.

Ikuspegi honen barnean sailkatu diren agiriak proiektu konkretuen eraikuntzarekin eta jarduerekin lotuta daude; hiri-zerbitzuekin, komertzio-guneekin, eta industriaguneekin hain

zuzen ere: Artiba urtegia (ME.1), Finagako argindar azpiestazioa (ME.2), Artigas zabortegia eta Zabargarbi errauskailua (ME.8), Argalarioko hondakin toxikoen gordailua (ME.6), Lehergailu lantegia (ME.1), ARTEA komertzio-gunea (ME.5), eta El Campillo industriagunea (ME.4).

4. Mendi Berdea

MBe.1- Funikular eta Artxandako parkearen proiektua (1913-15)

MBe.2- PYRENAICA aldizkariko artikulua

MBe.2.a- Lehen Editoriala (1926)

MBe.2.b- "Montañismo Bilbaino, sin federar" (1959)

MBe.3- Triano eta Ganekogortako mendien mapak (1985)

MBe.4- Bilboaldeko PTPko sare berdearen mapa (Antolaketa 3. planoa) (2006)

MBe.5- Pagasarriko Plan Berezia (2008)

MBe.6- Bilboko Eratzun Berdeko Ibilbide Luzea (2009?)

MBe.7- Bilboaldeko Eratzun berdea web aplikazioa eta txostena (2011)

MBe.8- *Pagasarri*-Juanjo San Sebastian (2011)

MBe.9- Bizkaiko Gailurren Katalogoa (?)

1.D. Ideia: Mendia natura eta aisialdia.

Mendi Berdearen ikuspegiaren ideiarekin bat datoz agiri guztiak, izan ere, denetan deskribatzen da mendia parke eta aisialdirako espazio berde eta natural bat balitz bezala. Era berean, agirietan, Mendi Tradizionalaren Ikuspegia ere gainjarrita azaltzen da, nekazaritza eremuak aisialdi gune berdeekin lotzen diren kasuetan, ondarearen bitartez (MBe.7) edo nekazaritza jarduna oraino irauten duen lekuekin sarea osatuz (MBe.4)

2.D. Irudikapena: Sestra kurbak eta elementuak.

Mendi Berdearen irudikapena planoetan kokapen plano arruntaren bidez ematen da. Agiri zaharrenean (MBe.1) ohikoa den bezala, proiektuak eragiten duen eremua soilik irudikatzen da. Hala, hemen, Castaños kaletik, Artxanda mendian dagoen Roke Deunaren ermitarainoko mendi magala irudikatzen da, sestra kurbak erabiliz, baita bestelako elementu eraikiak adieraziz.

Agiri berriagoetan, kokapen plano topografiko estandarra da, sestra kurbaren bidez adierazten delarik mendi magala (MBe.5). Beste batzuetan, orto-argazkiak erabiltzen dira ikono eta zeinuekin konbinatuta (MBe.6), edota internet atari batean Google Maps tresnaren Satelite bidezko adierazpidea ikono eta zeinuekin nahastua (MBe.7). Azken bi agiriotako ikono eta zeinuek orientazioa eta informazioa dute helburu, mendian aurki daitezkeen zerbitzu, ondare, eta erreferentzien adierazpidea. Azkenik, mendia bereziki adierazia ageri ez bada ere, mendi aisialdi eremuak adierazten dituzten orban berdeek eta ibilbideen lerroek

karakterizatuta ageri da, oinarrizko sestra kurben bidez adierazia. Mendiko espazio berde horiek, bailaretako nekazaritza eremuekin batera, baita izaera metropolitarra edo urbanoa duten parkeekin batera ageri dira Bilboaldeko sare berdea osatuz (MBe.4).

Mapa izaera duten beste agirietan, mendiaren morfologiaren bestelako abstrakzio bat erabiltzen da (MBe.3 eta MBe.9). Goiko kasuetan sestra kurbak aipatu dira; hemen, modu eskematikoagoan, baina, era berean, adierazgarriagoan, toki izenak baita mendiaren gailurrak, bizkarrak, ibarrak, lautadak adierazten dira marra eta puntuen bidez. MBe.3 agirian, morfologiaz gain, plano topografiko bateko elementu arruntak erabiltzen dira, herriak, azpiegiturak, eraikinak, meatzeak, elizak, bideak, bidexkak etab. Gainera ilustrazioak erabiltzen dira toki ezagunak adierazteko. Mapa hauek, irudikatzen diren mendi multzoen altxaera moduko ilustrazio batekin ere konbinatzen dira. Bertan, izenak, bideak eta bestelako erreferentziak ageri dira.

Aldiz, testuetan, mendia hainbat ikuspegietatik aztergai da, baina batez ere, mendizaleen ikuspegia nabari da (MBe.2). Mendiko espazioa Bilbo inguruan kokatzen da, eta alderdi kualitatiboak nabarmentzen dira: naturala, garbia, moralki aberasgarria etab. Era berean, hiriaren presentziarekin ere irudikatzen da, etxebizitzak daudelako, kable sortak ageri direlako edota industriaren kedarra nabari delako (MBe.2.b).

Kasu berriago batean, Pagasarriko Plan Bereziaren memorian, mendiaren irudikapena haren ezaugarri kuantifikagarriak eta objektiboak erabiliz adierazten da, hots, formalak eta neurgarriak diren ezaugarri geologiko, geografiko, hidrografiko, geomorfologiko, biologiko eta abarrak erabiliz. Kuantifikazioaren ordean, nolakotasunak erabiltzen direnean, ezaugarri negatiboak aipatzen dira, batik bat estetikari dagozkionak, edo paisaiaren kalte bisualei dagozkionak: baratz ilegalen, argindar kableen, meatzeen eta zarataren presentziak egiten duen aipatuz.

3.D. Agentzia: Mendiaren lagunak.

Agiri hauten ere, gehiengoa publikoa da (6/9) eta heren bat pribatua (3/9). Agiri pribatuak arkitekto eta sustatzaile baten eskutik (MBe.1), Euskal Herriko Mendi Federaziotik eta ustez bi mendizale diren kartografioen eskutik (MBe.3) datoz. Agiri publikoak berriz, mendizale eta Bilbao Bizkaia Kutxaren eskutik (MBe.8), Bilboko Udaletik (MBe.5 eta MBe.6), eta Bizkaiko Foru Aldunditik datoz (MBe.4, MBe.7 eta MBe.9).

Agiri pribatuek, parke baten proiektua, mendizaleen sustapena eta egituraketa, eta mendian orientazioa ahalbidetzea dute helburu. Juanjo San Sebastian mendizale ezagunaren liburuak Pagasarri mendi Bilbotarraren historia zabaltzea du helburu (MBe.8), eta Bilboko Udalak sustatzen duen Pagasarriko Plan Bereziak (MBe.5), espazio hori parke bezala

ordenatzea eta hobetzea. Era berean, Bilboko Eraztun Berdearen sarea irudikatzen duen agiriak (MBe.6), Bilbo inguratzen duten mendietako ibilbide eta zuzkidurak, baita ondarearen zabalkundea eta hiritarraren zerbitzura jartzea du helburu. Antzeko helburua du, Bilboaldeko Gerriko Berdearen egitasmoak (MBe.7). Azken hau, Bilboaldeko Lurralde Antolamendu Zatikako Planean ageri den sare berdearekin lotura zuzena duela esan daiteke (MBe.4). Amaitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako gailurren mapak, mendizaleentzako orientazioa eskuragarri jartzen du.

Egiletza, hortaz, anitza da, hainbat tekniko eta aditu ageri dira plan, plano, proiektu eta argitalpenetan Bilboaldeko mendien eta espazio berdeen ezaugarriak adierazi, zabaldu eta babesteko asmoz.

4.D. Elementuak: Asmoak.

Aztertutako agerietatik, oso gutxi dira propositiboak: 1913-15eko Artxandako Funikularra eta parkearen proiektua (MBe.1) eta ia ehun urte beranduago egindako Hirigintza eta Lurraldea Antolamenduko planak (MBe.4. eta MBe.5). Azken bi hauetan, mendiaren egoera kaltegarriak, hobetu beharrekoak, zaurgarriak eta babesgarriak zehazten dira (MBe.5) eta Bilboaldeko eskala duen espazio berdeen sare bat (MBe.4). Agiri zaharrenak, Artxandako parkea eta Funikularra proposatzen ditu, kasinoaren eta jatetxearen eraikinekin batera. Parkea bera, parterre eta ibilbideez osatutako lorategia, begiralekuak eta irristatze-pistak osatzen dute.

Pagasarriko plan bereziak (MBe.5), mendi parkea osatzeko seinalektika, aisia-guneak, interpretazio eraikinak eta guneak, zuhaitz landaketak, ibilbideak, langak eta abar proposatzen ditu. MBe.4 planoak berriz, ibilbidez, parkez, lorategiz, eremu berdez eta nekazaritza eremuz osatutako Sare Berde bat.

5.1 Mendia Bizileku Formala

MBiF.1- Proyecto de Barrio Jardín en las faldas de Archanda (1923)

MBiF.2- Cooperativa de Casas Baratas “Buena Vista” (1925)

MBiF.3- Escuela Aire Libre Artxanda (1922-26)

MBiF.4- Anteproyecto Urbanización y Ordenación Viviendas Altamira (1959-)

MBiF.5- Nuevo Colegio Alemán (1959)

MBiF.6- 353 viviendas de Renta Limitada y Locales Comerciales en el Barrio de Uribarri (1966)

MBiF.7- Proyecto Colegio “Askartza” (1973)

MBiF.8- Grupo Mirador Etxebizitzak eta iristeko bide berria (1975).

1.D. Ideia: Bizitzeko tokia.

Ikuspegi honen funtsezko ideia mendialdean bizileku apropos baterako ezaugarriak topatzea da. Bizilekuaren ideiak eremu lasai, osasuntsu eta hirikoaren kontrakoa den giro natural bat eskatzen du, etxebizitzak, hezkuntza eremuak eta bestelako osasun, kirol edo kultura zuzkidura lekutzeko.

Idea horrekin bat datoz agiri gehienak, eta beste batzuen kasuen oinarrian ideia topatzen ez bada ere, maldan egoteak ematen dio izaera proiektuari (MBiF.4 eta MBiF.6).

Gainera, beste Ikuspegi batzuetako ideiak ere ageri dira gainjarrita. Esaterako Mendi Berdearen P1a Artxandako eskolaren izaera irekia definitzerakoan (MBiF.3), Mendi Oztopoarena promozioaren gain-kostea eta aprobetxamendu arazoak planteatzen direnean (MBiF.4) eta Mendi Tradizionalarena proiektuak lorategi hiri proiektuaren arkitektura estiloa aukeratzekoan (MBiF.1 eta MBiF.2), edota aurrekarien erreferentziak kontutan hartzen dituztenean izena (MBiF.7) eta auzo egitura eta dentsitatea aukeratzekoan (MBiF.9).

2.D. Irudikapena: Proiektuen kokapena da mendia.

Aztertutako agiri guztiak dira arkitektura proiektuak, eta beraz, irudikapen nagusia, grafikoa bada ere, memorietako testuetan kokapenaren deskribapenak ere aintzat hartu egin dira.

Normalean, kokapen plano arrunta erabiltzen da eta bertan, ohi denez, mendi magala sestra kurbek adierazten dute, eta toki-izenak, eraikinak, bideak eta bestelako azpiegiturak azaltzen dira. MBiF.1-en MBiF.3-n eta MBiF.8-n Artxandako funikularra agertzen da tokiko erreferentzia nagusi bezala. Azpiegiturak erabiltzen dira kokapena eta mendia adierazteko, Altamirako etxebizitzaren proiektuko kokapen planoan (MBiF.4) “Camino de Cobetas” eta “Carretera Bilbao-Balmaseda”.

Mendiaren presentzia, sestra kurbek bakarrik ez, eta bereziki eraikitzen diren elementuen bidez adierazia agertzen da. Esaterako, Buena Vista etxetaldara iristeko (MBiF.2), Deusturaino jaisten den eskailera eta pasabidea proiektatzen dira. Edo Mirador etxe-taldearen irisgarritasuna bihurka doan errepideak magalean gora doala adierazten du (MBiF.8). Gainera, hainbat proiektuetako eraikinen antolamenduak magalaren presentzia ere adierazten dute (MBiF.4, 5, 6 eta 7), non eraikinak egitura barreiatuan antolatzen diren maldan zehar. Era berean, mendiko lursailen erabilerak adierazten dituzten ezpona eta bidexken marrazkiek ere irudikatzen dute magalaren forma eta egoera (MBiF.1 eta MBiF.2)

Mendiaren ezaugarri klimatikoak aipatzen dira hainbat kasuetan, haizearengandiko babesa eta eguzkitzapen egokia (MBiF.3, MBiF.4, MBiF.5 eta MBiF.7). Aipatzen den beste ezaugarri

kualitatibo bat, magaletik dagoen ikusmira edo ikuspegia da, hainbat kasuetan proiektuaren izenean ere adierazia geratzen delarik: Buena Vista, Altamira, eta Grupo Mirador kasuetan. Ciudad Jardin kooperatibak ere mendi magala kontzeptu horrekin lotzen du.

Ebaketetan ere adierazten da mendiaren magala, lerro lodi batez eta kotak adieraziz, baita lur mugimenduen bolumenak kalkulatzeko ere. Bestela, eraikinen kokapena adierazteko ere erabiltzen da.

Azkenik, kokapena marrazki artistikoen edo infografia bezala funtzionatzen duten akuarela eta hiru dimentsioko bistak ere erabiltzen dira kasu bakarrean, Artxandako Aire Libreko (MBiF.3) eskolaren aurreproiektuan bezala. Kasu honetan, kokapena ez da zehazki adierazten beste kasuetan bezala, eta Artxanda magaleko toki generiko bat irudikatzen da, funikularretik gertu dagoena umeen irisgarritasuna bermatzeko.

3.D. Agentzia: Sustapen Pribatuak eta Arkitektoak.

Etxebizitza eta eskola eraikinen sustapena, Pribatua da kasu orotan. Hala ere, etxebizitzaren kasuan batik bat, “Ley de Casas Baratas” edo frankismo garaiko Ministerio de Viviendak zituen ekintza sozialen bidez lortutako finantzabideak ere lagunduta eraiki ziten—kasu hauetan kooperatibek sustatuko proiektuak dira. Egiletzan eta sustapenean arkitekto entzutetsuak eta ez hain ezagunak, eliza lagunarteak, jabe kooperatibak, enpresa eraikitzaile eta promotoreak, eta mediku higienista bat ageri dira.

“El Barrio Jardin” proiektua (MBiF1) Ciudad Jardin Bilbaina talde sustatzaileak eta Emiliano Amann eta Pedro Ispizua arkitektoen diseinua da. Buena Vista (MBiF2) kooperatiba batek sustatzen du, goikoaren atzera, Tomas Bilbao arkitektoaren diseinuaz.

Artxandako eskola proposamena, hirian bizi diren haur gaixotuentzako aire librean eta naturaz inguratutako egoteko pentsatu zen, eskola eta filosofia eredu higienistetan oinarrituz. Proiektua Pedro Ispizuarena da, eta ideia berriz, Lamberto Benito del Valle medikuarena.

Grupo Mirador izeneko etxetaldea, Construcciones GAY SAK sustatzen du Artxandako magalean. Pareko Kobetamendiko magalean, Inmobiliaria AltamiraSA-aren 1000 etxebizitzako sustapena egin nahi izan zuen. Aztertutako agiria proiektu horretako zati bat da Ramon de Basterra y Larrea eta Francisco Sada de Quinto arkitektoek sinatua. Aldamiz Mendia etxetaldea erdi publikoa zen Inmobiliaria Viviendas de Vizcaya SArena da, Emiliano Amann eta Valentino Martinez arkitektoen proiektua. Amann Arkitekto berberak sinatzen du kolegio Aleman berria Begoñan eraikitzeko proiektua, Alemaniako Essen hiriko Graf Prashma arkitektoaren aurreproiektuan oinarritua eta Berlineko “Bundesbaudirektion”-ek hala eskatuta. Mariaren Bihotza Lagunarteak, Bilboko San Frantziskoko Mariaren Bihotzaren

plazatik eskola lekualdatzen du Leioara, Dionisio Barainca eta Carlos Goiarrola arkitektoen proiektuaren arabera eraikiko zen Askartza Claret eskolara.

4.D. Elementuak: Etxadiak eta Eskolak.

Bildu diren agiriekin etxebizitzak eta eskolak eraikitzeko proiektuak dira, horien inguruan bestelako espazioak ere antolatzen badira ere.

Esaterako, Loruri (Ciudad Jardin) proiektuan, baserri tradizionalaren estiloaren irakurketa bat estilo ingelesago batekin nahastuta, bi familientzako etxebizitza lorategidunak proposatzen dira, bere zuzkidura propioak dituen auzo batean bilduta. Antzeko proiektua da, Buena Vista etxetaldearena, hemen euskal baserriaren itxura nabariagoa bada ere. Bi auzoak dira etxebizitza merkeen eredu gogoangarriak, eta lorategi hiriarren [garden city] tankerako auzoak proposatzen dituzte.

Artxandako Eskola Librerako proposamenean, eskola denda eta ohial bidezko arkitekturak proposatuz diseinatzen da. Eskola Alemanaren proiektuan, garaiko (1959) arkitekturaren ereduak jarraituz, magalean zehar barreiatuta dauden eraikin sorta bat proposatzen da, haien artean bide estaliez eta eskailerez lotuta. Askartza eskolaren proposamena, antzekoa da, baina bolumen handiagoko eraikinek osatzen dute proiektua. Beraien artean ere hainbat pasabide eta eskailera estalik osatzen dute komunikazioa. Eraikinen bolumenak bi isuriko baserriaren forma errepikatzen duela esan daiteke, Madariaga arkitektoak ezarritako joeraren antzekoa. Bolumenen ekialde-mendebalde kokapenak ere inguruetako baserrien norabide orokorra, Abrako ipar-mendebaldeko haizearengandik babesteko, errepikatzen duela esan daiteke. Askartza izena, bertan zegoen baserriatik oinordetzan jasotzen du eskolak.

Etxebizitza proiektu garaikideagoek, egitura barreiatua jarraitzen dute, eta kasuan kasu, dorrearen tipologiak abaniko, izar edo errenkadan kokatutako bloke forma hartzen du (MBiF.8). Altamirako etxeen kasuan (MBiF.4), agiriak dioenez, auzora iristeko eraiki beharreko errepidearen gain-kostua dela eta, ezarria dagoen zonakatzearen aprobeitxamendua handitzea eskatu zuen promotoreak. Gran Bilbao Batzordearen erantzuna izan zen baiezkoa, baina Bilboko gunetik hain nabarmen ikusten den magala izaki, etxe-blokeen arteko distantziak zaintzeko gomendioa eman zien.

5.2 Mendia Bizileku Informala

MBil.1- Uretamendirako Etxebizitza Proiektuak (1960)eta (1960-71)

MBil.2- Uretamendiko txabolen argazkiak-Errekaldeko begiak (1950-60?)

MBil.3- Ocharcoaga-Jorge Grau (1961)

MBil.4- Otxarkoaga. El nacimiento de un nuevo Bilbao (2011)

MBil.5- Pagasarriko Plan Berezia (2006-2011)

MBil.6- Masustegiri buruzko berriak (2010-11)

MBil.7- HAPO Abanto-Zierbena, behin betiko onarpena (2012)

MBil.8- HAPO Ortuella, aurrerapen dokumentua (2008)

MBil.9- HAPO Trapagaran, hasierako onarpena (2010)

MBil.10- Bilbao y la evolución de sus barrios

1.D. Ideia: Informalitatearen izendapena.

Mendia Bizileku informala Ikuspegirekin aurrera eraldatu den inolako proiekturen dokumentaziorik ez da topatu, espero zitekeen bezala. Hots, paisaiaren eraldaketa informala suposatzen duen elementuen dokumentaziorik ez da inon ageri. Aztertutako agiriekin, beste ikuspegi bat dute, batik bat informala dena dokumentatzea edota egoera negatibo bat konpontzea. Hala ere, agiriekin azaltzen duten informazioa aztertu eta interpretatzea erabaki da, izan ere, paisaia horren eraikuntzari buruzko informazioa datu gabezien bidez ere lortu daitekeelako.

Bestalde, Mendi Berdearen Ikuspegia (Pagasarriko Plan Berezia,PGOU AZ), Mendi Baliabidearena (PGOU AZ) eta Mendi Tradizionalarena (PGOU AZ) gainjarrita ageri dira aztertu diren dokumentuetan.

2.D. Irudikapena: Mendi kaltetua, egoera kaltegarriak.

Bildu den dokumentazioa anitza da, esan bezala, gabezia dagoelako. Horregatik, hainbat iturri kontsultatu dira Ikuspegi Informal honi buruzko informazioa zeharka lortzeko asmoz. Hala, proiektu bi, argazki bilduma bat, bideo bi, 3 plan, zenbait berri eta liburu bat kontsultatu egin dira.

Uretamendi auzoko etxebizitza Proiektuetan (MBiI.1), mendiaren irudikapenak ez du garrantzia handiegirik hartzen. Tamaina txikiko kokapen plano sinple bat erabiltzen da, sestra kurba batzuk eta ezponda bat adieraziz, baita inguruko eliza, eraikinak, kale izenak eta errepedea adieraziz.

Argazkiek (MBiI.2) ere Uretamendiko inguruak irudikatzen dituzte, mendiak txabolaz beteta ageri direlarik, kaleak lokaztuta, eskailera eta eraikuntza xume eta inprobisatuz inguratuta. Mendia baino, giza egoera kaskarra erakusten dute argazkiek.

Era berean, Grauk zuzendutako “Ocharcoaga” dokumental laburrean, mendiak hiru modutan adierazten dira: 1.go zatian, txabolez beteta eta bizi baldintza eskasia adieraziz, bigarren zatian Otxarkoaga bizigune berria eta baldintza egokiekin, azkeneko zatian hasierako mendien plano berberak egiten dira, orain txabola gabe eta egoera naturala berreskuratuta (MBiI.3).

50 urte beranduago egindako Otxarkoaga dokumental laburrean (MBiI.4), Bilboko mendietako txabola biziguneak, maitasunez oroitzen dituzte bertan bizi izan ziren gizon batzuek: baserri giroarekin alderatzen baitute orduko bizimodua (Koldo Urrutikoetxea 5:30 minutua).

Aztertu diren planetan, ohikoa denez, plano topografiko estandarizaturia erabiltzen da. Hirigintza planetan, mendia lurzoru urbanizaezin bezala klasifikaturia azaltzen da. Gainera, Pagasarriko Plan Berezian, mendiaren alderdi onuragarriak eta kaltegarriak bereizten dira: baratz txikiak bigarren taldean sartzen baitira.

Bilboko Masustegi auzoari buruzko zenbait berrietan, mendi magala Bilbon bertan dagoen, baina aldi berean, maldan egoteagatik, egoera pribilegiatuago batean dagoen eremu gisa irudikatzen da.

Amaitzeko, Bilboko auzoen bilakaera aztertzen duen liburuan, txabolei aipamena egiten zaie eta mendiak irudikatzeko “cinturón de hojalata” adieraren erabilera aipatzen da. Bilbok “denok lotsarazten gintuen arantzazko koroa bat zuen erakusgarri, inguruko mendi magal guztietan ageri zena” dio Jose Luis Martín Vigil-ek, 1960ko “Una chabola en Bilbao” idazkiaren egileak. Bilboko HAPOak ere “chabolismo ilustrado” delako arkitektura “estiloa” aipatzen zuen. Bizileku informal bilakatutako mendiak, “paisaia-paradisua zahar degradatuak” direla dio egileetako batek, gizartearen infernu solidarioak zirela esateraino (Vigo, 2010).

3.D. Agentzia: Konpontzaileak.

Agirietako egitasmo gehienak publikoak dira, hamarretik sei. Eragiten duten agentziak dira frankismo garaiko Ministerio de Vivienda (MBiI.3), Bilbo (MBiI.5 eta MBiI.10), Ortuella (MBiI.7), Abanto-Zierbena (MBiI.8) eta Trapagarango (MBiI.9) udalak. Lau agiri pribatuak berriz, parrokia bat (MBiI.1), argazkilariak (MBiI.2), bizilagun elkarte bat (MBiI.4) eta komunikabideak (MBiI.9) inplikatuak dituzte.

Egitasmo pribatuek, Uretamendiko txabola egoera dokumentatzea (MBiI.1) eta etxebizitzak eraikiz (MBiI.2) konpontzea dute helburua. Era berean, gizarte egoera konpondu nahi zuen auzo baten 50 urteurrena ospatzea eta aldaketa horiek gogoratzea du helburu (MBiI.4), bizilagunen testigantzak bilduz. Antzeko asmoa dute kazetarien dokumentuek, Masustegi auzoaren kasuan (MBiI.6), hura Bilboren lurzoru ofizial bihurtu zenean, aldaketa horren emateaz gain, auzoaren sorrera eta biztanleen begirada islatzea.

Beste dokumentu publikoek, dagokien lurraldearen antolamendua eta arazoek konponketa dute helburu: paisaiari kaltegarriak zaizkion elementuak kentzea eta onuragarriak direnak indartzea (MBiI.5), eta planarekin bateragarriak diren etxebizitza eta eraikuntza egoerak erregularizatzea (MBiI, 7, 8, eta 9). Bestalde, Bilboko auzoen bilakaeraren ikerketa eta narrazioa egiten da MBiI10 liburuan.

4.D: Informalitatea Formalizatu.

Propositiboak diren agiri bakarrak Uretamendiko etxebizitzaren proiektuak eta udaletxeetako Plan Berezi zein Hiri Antolamendu Plan Orokorak dira. Azken hauetan, lurzoru urbanizaezinen kudeaketa da interesgarriena eta bertan proposatzen diren erauzketa eta eraikuntza erregulazio neurriak; Trapagarango etxebizitza informalen edo ordenaziotik kanpo dauden etxeentzako egiten diren erregulazio-irizpide zehatzak dira nabarmengarriak.

10.2.1 Dokumentazioaren eta Analiaren Ondorioa

Azpiatal honetan, Bigarren Eszenaren dokumentazioa eta zati analitikoak aurkeztu egin dira. Hurrenez hurren, Dokumentuen bilketa, Anali irizpideak eta bildutako datuak Ikuspegika antolatu dira. Dokumentuen bilketari dagokionez, iturri motak, kontsultatuko agiritegiak eta agirien eskuragarritasuna eta mota, eta bilketa irizpidea azaldu dira. Ondoren, agiri bakoitza aztertzeke osatu den galdetegiaren xehetasunak azaldu dira. Galdetegiak Ikuspegia osatzen duten lau Dimentsioen inguruko informazioa biltzea izan du helburu; hots, Ideia, Agentzia, Irudikapena eta Elementuen inguruko datu artxibatuak edo errealak bildu dira. Emaitza horiek, Ikuspegika antolatu egin dira. Alegia, Paisaia-Ikuspegi bakoitzarekin lotu diren agirien analisi laburtu bat aztertu da, datuen Deskribapen antolatu bat eginez.

Bigarren Eszenako fase analitiko honetan aurkitu dena batik bat agirien edukiarekin zerikusia du, hots, agiriak duen helburu aitortuarekin bat egiten duen informazioaren eta datuen bilketa eta sailkapena egin da Paisaia Ikuspegiak ezartzen dituen lau dimentsioen arabera. Informazio horren aukeraketa eta ordena ematea, esan bezala, galdetegiaren bitartez egin da.

Ondorengo azpiatalean, bildutako datu horien interpretazioari buruzko xehetasuna eta irizpideak azalduko dira. Antzeko egitura jarraituz egiten da atalaren osaketa. Kasu honetan

ordea, Dimentsio bakoitzean detektatu diren joeren arabera egiten da Paisaia-Ikuspegiaren azalpena. Joera horiek izango dira benetan Ikuspegi Tresnaren eta Ikuspegi Anitzen bidezko Interpretazio metodoaren ekarpena balioztatzen duten emaitzak.

10.3 Agirien irakurketa teorizatua

Lurraldearen eraikuntza kontzeptualengan edo Agirien gainean egiten den 2. Interpretazio honen helburua, bildutako dokumentazioen irakurketa teorizatu bat egitea da. Irakurketa horrek, agirien bilketa eta deskribapenean egin bezala, Paisaia-Ikuspegi bakoitzean sailkatu diren agiri bakoitzeko lau dimentsioak lantzen ditu; alegia, Ideia, Agentzia, Irudikapena eta Elementuak. Dimentsio horien interpretazioa egiteko, tesiaren testuinguru teorikotik eratorritako ideietara jotzen da. Horrela, Dimentsio bakoitzean identifikatu eta sumatu diren joerak baloratzen dira teoriak ezartzen dituen adierazle eta irizpideen arabera. Hots, agirietao edukiaren testuinguruan interpretazioa egin da, adierazten denaren eta ez denaren arabera esanahien irakurketa eginez.

Agiriak oinarri enpiriko dituen bigarren fase interpretatzaile honetan teoriak du zeresana, lau dimentsioetako bakoitza zedarrizten duen teoria, hain zuzen ere. Hala, ikerketa metodologia ikonologikoak—irudien kasuan—eta diskurtsoaren analisia jorratzen dutenak dira—testuen kasuan. Hemen ere, agirietao informazioa, galdetegiaren bitartez, Paisaia Ikuspegi metodoal ezartzen duen egitura edo jerarkiaren arabera antolatua eta sailkatua dago.

Interpretazio teorizatua edo diskurtso analisia batik bat Agentziaren eta Elementu dimentsioekin zerikusia duen informazioaren kasuan erabili da. Agentzia Dimentsioaren kasuan, Denis Cosgrove-k (1998) ezarritako paisaia anbiguetate dialektikoak erabiliz: barneko/kanpoko eta objektibista/subjektibista kategorien arabera. Elementuen Dimentsioari dagokionez, agiriak proiektatzen duen eta eraikitzen duen etorkizunari dagokionez, bi irizpide aplikatu dira: Jacksonen (2010) paisaiaren irakurketa dualaren arabera egin da, politikoa eta bizituak diren elementuak berizten dituenak, alegia; eta Rogerren (2007) paisaiaren artealizazio edo eraikuntza bikoitzaren prozedurak ere bereiztu dira, in-visu eta in-situ paisaia produkzioak, alegia.

Irudikapen Dimentsioari dagokionez, interpretazio ikonologikoak batik bat agiriak erakusten eta adierazten ez dutenaren esanahiak izan ditu aztergai. Amaitzeko, Ideia Dimentsioa, formulatu den ideiare garapenaren arabera aztertu da, baita agiriaren helburu aitortuarekin konbinatzen den moduaren arabera ere.

22 Taula Paisaia Ikuspegiko Lau Dimentsioak interpretatzeko irizpideak.

Dimentsioa	Interpretazio irizpidea	
1D Ideia	Agirien helburua; helburuen garapena lurralde ulerkeraren arabera; Paisaia Ikuspegi bakoitzeko Ideiaren garapenaren jarraipena	
2D Irudikapena	Erabilitako tekniken eta sinboloen esanahiak	Irudikapenaren Mendiaren presentziak eta ausentziak duen esanahia
3D Agentzia	Subjektibista/Objektibista (Cosgrove, 1998) Barneko/Kanpoko (Cosgrove, 1998)	
4D Elementuak	Politikoa/Bizitua (Jackson, 2010)	In-situ/in-visu (Roger, 2007)

Hurrengo zerrendan, Paisaia Ikuspegi bakoitzeko Dimentsioak interpretatzeko erabili diren irizpideak zehazten dira:

- 1.Dimentsioa-Ideia: Sailkatutako agirietan azaltzen diren lurraldearen ulermenen joerak, eta helburu orokorrak irakurri dira, Paisaia-Ikuspegiarekiko duten harremana landuaz.
- 2.Dimentsioa-Irudikapena: garaiaren eta eskalaren arabeko, mendiaren eta kokapenaren arabeko, baita adierazpide tekniken arabeko interpretazioa egin da. Gainera, agiriak adierazten ez dutenaren bidez ere interpretazioa egingo da zenbait kasuetan.
- 3.-Dimentsioa-Agentzia: Dimentsio hau interpretatzeko Cosgrovek (1998) ezarritako paisaiaren bi anbiguotasun dialektikoak erabili dira: agentearen Kanpotikako/Barrutiko harremana lurrarekiko, eta agenteak duen paisaiarekiko begirada objektiboa/subjektiboa.
- 4.Dimentsioa-Elementuak: kasu honetan, agiriak eraikitzen duten paisaiaren izaera Politiko edo Bizitua (Jackson, 2010) baita eraikuntzaren prozesuaren *in-Situ* edo *in-Visu* (Roger, 2007) izaera erabiliko dira. Era berean, ikuspegi bakoitzeko proiektuek bazterreko paisaiaren, zein hiriaren garapenean izan duten eragina ere aztertzen da.

Laburpen gisa, Paisaia Ikuspegi bakoitzeko taula batean agiri guztiak elkartuta ageri dira, lau Dimentsioetako aldagaiak elkarren alboan jarrita hauen arteko konbinaketak eta elkarloturak adieraziz.

Azkenik, interpretazioaren hirugarren lerro batek Paisaia Ikuspegi bakoitzak, eta bere Idieiek, Agenteek, Irudikapenek eta Elementuek, hiri bazterreko paisaiaren eraikuntzan eta

bilakaeran izan duten efektua eta eragina aztertzen du. Honen helburua, agirien barnean paisaiok eraikitzekeko intentzionalitate eta asmo bereziak topatzea izan da, hauen zorizko paisaia emaitza izaera adierazten duen hipotesia ardatz harturik.

Bigarren Eszenaren emaitza esanguratsuenak Paisaia-Ikuspegi bakoitzaren izaera ezartzeko baliagarriak diren Dimentsioen barneko joerak dira. Horrezaz gain Paisaia-Ikuspegien arteko Konbinaketak eta formulatu gabe geratu diren beste hainbat Paisaia Ikuspegiak dira topatu diren beste emaitzak. Hauek hurrengo atalean eztabaidatuko dira, tesiak proposatzen duen Paisaiaren Interpretazio Metodoaren ekarpenak eta mugak aztertzen dituen 11. atalean, hain zuzen ere.

0. Mendi Tradizionala

1.D. Ideia: Mendi-kultura galzorian.

Ikuspegi honekin lotu diren agiri gehienek delako paisaia kulturalaren dokumentazioa eta ikerketa dute helburu. Agirien hurbiletak batez ere interpretazio historiografikoak, etnografikoak, lexikologiakoak, geografikoak eta paisajistikoak edo eko-etnografikoak direla esan daiteke.

Berez, Mendi Tradizionalaren Ikuspegiaren barneko agiriek antzinako, galtzen ari edo eraldatzen ari den paisaia baten traza fisiko zein soziokulturalak biltzen dituzte, atzera begirako ikuspegi nagusi baten bidez. Askasibarren (MT.11) agiriak salbu, besteek ez dute paisaiaren eraikuntza *in-Situan* apenas eragin zuzenik. Adibide honek, eraldatzen ari eta galtzen ari den paisaiaren mantenua baitu ikuspegi eta indar eragile nagusia.

2.D. Irudikapena: Mendi funtzio-anitza

Mendia irudikatzerakoan, agiri ezberdinen eta tipoen araberako irudikapena (etnografikoa, historiografikoa, geografikoa, eskuliburuarena etab.) elementu ezberdin eta zehatzen bidez egiten da: ermitak, saroiak, baserria, mendi komunalak etab. erabiliz.

Gehienetan aipatzen den mendi irudikapena, hura basoarekin, jabego komunalarekin edo bestela, jabego eta kudeaketa mota batekin, meatzeekin, harrobiekin, eta urak eragindako aurre-industriekin lotzen duena da. Hots, mendiko baliabideen ustiaketarekin. Era berean, beste joera bat da, mendiaren “berezko” baliabide ustiaketaren eta abeltzaintzarako larreen arteko konpetentzia ere.

Orokorrean, mendia funtzio-anitza den sistema trinko eta orekatu gisa irudikatzen da: mendi-basoak ematen zuen zura ikatzetarako erabiltzen zen oletan, edo nekazarien eraikuntzetarako, edota basoaren beste produktuak baserriko jardunerako erabiltzen ziren.

Mendiko meatzetako mea oletan lantzen zen eta harrobietako harria eraikuntzarako edo karea egiteko erabiltzen zen. Mendietan barrena komunikazioak ematen ziren Bilbo eta gertuko, nahiz urrutiagoko herriekin. Era berean, mendia abeltzaintzarako larrez osatua zegoen, eta basoekin batera, jabego sistema itxuraz orekatu batek gobernatua zen foruetako irizpideen arabera.

Esan bezala, dokumentu gehienak atzera begirako bat egiten dute, iraganera edo desagertze bidean diren egoeren irakurketa bat eginez. Argazkiek soilik irudikatzen dute unean uneko egoeraren forma fisikoak eta jardunak (MT.1).

Caro Barojak industrializazio gogorra ematen ari zen garaian, begirada orokor batekin landu zuen etnografia eta ekologia, desagertzen zen paisaiaren osotasuna dokumentazio bidez salbatzeko asmo bat nabaritu da haietan(MT.8). Gerora, ikerketa profesionalizatuagoa bihurtzen denean, eskalak mugatuagoak dira, lokalagoak eta objektuak modu isolatuagoan aztertzen dira: baserriak, sarioiak, elizak, mendi komunalak, udalerriak, auzoak etab. Paisaia kulturalaren osotasunari diziplina eta foku anitzetik eta isolatuetatik heltzen zaio.

Aipagarria da, amaitzeko, Caro Barojak egiten duen identifikazioa kultur komunitate baten eta baliabide material batzuen artean. Hots, euskaldunen esentzia mendiko basoetan eta meatzetan, (eta kostaldeko portuetan) topatzen dela. Gaurdaino irauten duen izaera kulturalaren definizio bat dela esan daiteke identifikazioa hau.

3.D.Agentzia: Mendi paisaia irudikatua.

Agiri hauen Agentziaren interpretazioan nabarmen dira begirada Kanpotarrak eta Objektiboak. Lurrarekiko eta haren eraldaketarekiko duten harremanaren arabera, denak diren Kanpotarrak egiletzari (ikerlariak, argazkilariak) eta sustapenari (fundazio pribatuak eta entitate publikoak) kasu eginez gero. Hala ere, zenbait kasuetan ezin da jakin egilearen harremana zein den zehatz-mehatz, izan ere, posible da Bilboko auzoen, Bilboaldeko herrien deskribapenen egileek espazio horien eraldaketa fisikoan parte hartu izana edo komunitateetako kidea izana.

Paisaia begiratzeko eta ulertzeko moduaren arabera, begirada Objektiboa da nagusi. Hots, lurraldearen behaketaren eta datu bilketa “objektiboen” arabera egiten diren irakurketa deduktiboak eta induktiboak dira agiri gehienak. Begirada Subjektiboa azaltzen da hala ere, kasu hauetan: argazki eta postaletan (MT.1) eta literatura agirietan, bereziki Txomin Agirrerren *Garoa* eleberrian (MT.8). Hauetan, lurraldearen irudikapen arautu bat egiten da, estetikoki

erakargarria eta baliotsuak bilakatzeko teknika piktoriko eta literarioak erabiliaz. Postaletan, lurraldea adierazteko enkuadreak, motiboak, jarduerak aukeratuak dira. Eleberrian, mendiaren irudikapena balio moral kristau eta identitate gaiekin lotzen da.

23 Taula Dimentsioen arteko korrelazioak ²⁸

	Dok. Mota	Adierazpena	Agentzia					Elementuak					
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V	In-S	
MT.1	Argazki/Postalak	grafikoa		X	X				X	-	-	X	-
MT.2	Ikerketa liburua	testua		X	X		X		-	-	X	-	
MT.3	Hainbat agiri-lexikoa	Testua	x	X	X		X		-	-	X	-	
MT.4	Artikulua	Testua		X	X		X		-	-	X	-	
MT.5	Artikulua	Testua		X	X		X		-	-	X	-	
MT.6	hainbat agiri-euskal etnografia	Testua	x	X	X	x	X	x	-	-	X	-	
MT.7	Caro Barojaren grafikoa	Grafikoa		X	X		X		-	-	X	-	
MT.8	Liburua	Testua	X		X		X		-	-	X	-	
MT.9	Liburua	Testua	X		X		X		-	-	X	-	
MT.10	Eskuliburua	Testua	X		X		X		X		X	X	

4.D-Elementuak: Galzorian diren elementuen dokumentazioa.

Orokorrean, Ikuspegi honekin lotura duten agiriak, paisaiaren eraikuntza *in-Visu* egiten dute, eta gainera, atzera begirakoa. Izan ere, agiriak ez dute proposamen zehatzik egiten eta ez da diseinu eratorririk sortzen, ezta paisaia-elementurik eraikitzen ere. MT.13 agiriaren kasuan izan ezik: baserriaren ingurumena edo paisaia kulturalaren mantenua eta zaintza sustatzen ditu eskuliburu honek. Nahiz eta irizpideen burutzea lur-jabeen eta baserritarren esku utzi, irizpideak Politikoki ezarriak dira, eta, paisaia estetikari dagokionez irudi konkretu baten arabera osatuak daude. Hortaz, agiri horren interpretazioa izan daiteke paisaia Politiko bat osatzen duela, paisaia Bizituaren zaintza helburu badu ere.

Agiri horren izaera propositiboaren paisaia eraldaketa fisikoak estetikari bakarrik ez, eta nekazaritzari eta ingurumenari eragiten diote, baserri-giroko elementuen ezaugarri ekologikoak aintzat hartuz: haizetik babestea, lurrazalaren erregulazioa, produktu osagarriak eskaintzea, uraren arazketa, ubideen erregulazioa, higaduraren aurkako neurriak hartzea eta korridore ekologikoak sortzea. Baserri-paisaiaren elementuen arteko egituraketa eta elkarreraginaren zainketa sustatzen da, elementu berrien barneratze orekatu batentzako oinarria ere osatuz,

28 Dok.mota: Dokumentu mota; Pu: Publikoa; Pr: Pribatua; K: Kanpotarra; B: Barrukoa; O: Objektiboa; S: Subjektiboa; Po: Politikoa; Bi: Bizitua; In-V: in-Visu; In-S: in-Situ.

paisaia kultural horren biziraupenaren alde eginez.

Mendi Tradizionalaren Ikuspegiarekin duen lotura baserriaren ingurunearen biziraupenaren bidez ematen da. Mendiaren ikuspegia baino garrantzitsuagoa da adierazle a azterketa objektu aldagai nagusi gisa, eta paisaiaren elementu sortzaile eta eraginkor nagusi gisa. Jacksonen teorietara jotzen baldin bada, etxea oinarri hartuaz ulertuko da hobekien paisaia baten egituraketa, funtzionamendua eta izaera (Jackson, 1997).

Mendi Tradizionala eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren eraikuntza.

Bestalde, agiriok Bilboko hiri bazterreko paisaiaren eraikuntzan duten esku-hartzea, ziuraski, ideologikoa da. Izan ere, hiriaren eta industriaren garapenek eremu landatarrean eragindako eraldaketa kaltegarrien aurkako aldarrikapen gisa ulertu daitezke. Era berean, landa eremuaren aldarrikapenak, hiriarekiko ezberdintasunaren indartzea dakarrenez, hiri eta landa arteko ertz horren indartzea eragiten dela esan daiteke. Hau nabaria da MT.13 agirian, non hiriko eta baserri inguruko estetika eta materialtasunaren arteko ezberdintasunak argi ezartzen diren. Eraikuntza fisikoari dagokionez, agirien arabera ezer gutxi esan daiteke Bilboren kasuari buruz. Hiri bazterreko geruza tradizional horrek ahal izan duenean biziraun du hiriaren garapenarekin, ekonomia industrialaren eta kapitalistaren gora beherekin, parez pare jarrita. Horren erakusgarri dira, Rekaldeberriko zenbait irudi.

1.1. Mendi Meatzaritza Baliabidea

1.D. Ideia: Meatzaritzaren sustapena.

Agiri hauetako Ikuspegi nagusia Mendi Baliabidea dela eztabaidaezina da, haren materialitate mineralaren ustiaketa baita agiri guzti hauek sortzearen indar eragile nagusia. Dokumentuen analisiaren ondoren, Mendi Baliabidea Ikuspegiaren ideiek lurraldearen balorazioa honek duen emankortasun mineralaren araberakoa dela esan daiteke. Hortaz, lurralde edo mendiak irudikatzeo, haien mineral ugaritasuna/eskasia, jatorri geologikoa, mineral mota etab dokumentatzen eta adierazten da agiriotan.

Lur-azpi horren kudeaketa eta jabetzak ere isla berezia izaten dute lurrazalean, edo hobe esanda lurrazalaren adierazpenean. Hartara, lur-azpi materialaren kudeaketa lurrazalean fisikoki adieraziak ez diren muga abstraktuen bitartez gauzatzen da, hots demarkazioen bidez.

Baliabidearen ustiaketa eta garraiorako azpiegiturek ere garrantzi berezia hartzen dute hemen, orografiari modu berezian egokitzen diren elementuak: airetik, edota lurralari itsatsita doazen balde-lerroak edo airetiko tranbien bidez, edota plano inklinatuaren trenbideen bidez. Topografiaren aldaketak ere dokumentatzen dira, geografia aldakor baten jarraipen grafikoa eginez.

2.D. Irudikapena: Lur-azpiko eta Lur-gaineko mendia: balioa eta kudeaketa.

Mendirik ez da ageri normalean, meatzaritza jarduerak du garrantzia.eta jarduera horren erabilerarako sortu dira dokumentuok, ez beste ezertarako. Mendinga espresuki adierazten den toki bakarra, Yarzaren deskribapena da, hauen formak eta izenak adierazten direlako. Beste kasuetan, mendi magalen irudikapena meatzeen presentziak baldintzatzen du. Gehienetan mendi magaletan edo gailurretan ageri direnez gero, mendinga meatzeen presentziaren bidez irudikatzen dela esan daiteke agiri sail honetan.

Ikuspegi geologikoa adierazten duten agiriek jakintza arloa meatzeen ustiaketa arrazional eta optimizatuaren zerbitzura jarriak daudela esan daiteke. Adan de Yarza jaunaren lanek esanguratsutasun aitortua dute euskal herriko geologiaren deskribapen moduan, baina, baita topografia goitik behera moldatu duen jardueraren informazio iturri garrantzitsu gisa ere.

Hortaz, mendinga baino burdina ustiatzeko potentziala duen edo ustiaketa jorratzen den eremu zehatz bat da adierazten dena. Bi alderdi ageri dira beti, lurrazala eta lur-azpia. Lehenengoa, tokiko erreferentzien bidez adierazita (izenak, eraikinak, bideak, elementu geografikoak ...) eta meatzeen kontzesioen muga eta izenen bidez ere. Bigarrena, laboreen eta galerien bidez adierazten da, oinplano zein ebaketetan ere. Maiz, Iparraldearen konbentziorik ez da betetzen, eta meatzearen irakurketa errazagoa egingo duen orientazioa erabiltzen da.

Esan bezala, Mendinga espazio oso gisa ez da ageri ia inon. Beti irudikatzen dira magalak zatika, meatzeen demarkazioen arabera, edo azpiegituren ibilbideen bidez. Dokumentuak, helburu pragmatiko bat zuten, hots jarduerari laguntzea. Deskribapen geologikoetan (MMB.1, MMB.2, MMB.3 eta MMB.6) eta demarkazio mapa orokorrean (MMB.16) ageri da lurralde eskalako irudikapen bat. Eta hauetan, nahiz mendinga agertu ala ez, lur-azpiko meak eta lur-azaleko kudeaketak dute garrantzia, eta horrexek ematen dio izaera tokiari. Meatzaritzaren jarduerarako hain garrantzitsuak diren bi dimentsio horien arteko lotura irudikatzen dute agiriok, eta bi dimentsio horiek dira Ikuspegi honetako irudikapenaren ezaugarri nagusia.

Zentzu horretan, MMB.12 agiria oso interesgarria da lur-azpia, topografia eraldatua eta meatzeen demarkazioak konbinatuta sortzen den informazio aberastasunagatik. Fisikoki ulergaitza den lurralde zatia, demarkazioen bidez osotasun irregular bat ematen zaiola irudi luke. Ordea, fisikoak ez diren muga horien bidez egin zen lur kudeaketak sortzen du era berean topografia ulertezin eta nahasi hori. Tokian bertatik bertara nekez nabari daiteke erregularutasun arrazional hori, planoaren gainean soilik suertatzen da erabilgarria lerro elkarzut horien adierazpidea. Baina, planoak duen xehetasun maila handi horrek, bizitasun eta ukigarritasun handia ematen dio, langileak eta azpiegiturak martxan irudikatzea ez da zaila egiten.

Azkenik, Proiektuetan (MMB.4, MMB.10 eta MMB.15) egiten diren irudikapenak partzialak izaten dira eta azpiegituraren ibilbideari dagokion zatia soilik erakutsi ohi dute. Era berean, interesgarriak dira oso inguruan zeuden jarduera anitzen testigantza gisa, azpiegituron ibilbideetan zehar agertzen diren beste hainbeste azpiegitura eta meatze-laboreek erakusten duten bezala.

3.D. Agentzia: Kanpoko begirada Objektiboa.

Agiri guztiak daude Kanpotarraren begiradatik eginak, eta denetan erabiltzen da postura Objektibista. Hots, mea ustiatzen zuten konpainia atzerritarrek ez bakarrik ez, bertako teknikoek ere lurraldearekiko harreman kanpotarra zuten ez zutelako lurraldearen eraldaketan parte hartzen bertatik bertara, langileek egiten zuten bezala. Gainera, kapitalismorako trantsizioan bete betean ematen diren eraldaketa hauek, ekonomia sistema horren adierazgarriak diren lurraldea kudeaketa kanpotarra dute oinarri Cosgrovek adierazi bezala.

Bestalde, begirada objektibista da, irudikapenek adierazten duten bezala. Lurraldearen eraikuntza zientifikoak direla medio eraikitzen dute bere irudi eta ideia, hots Mendi Baliabide Ikuspegia. Tresna eta adierazpide arrazionalak, zientifikoak eta enpirikoak dira lurraldearen ulermena egiteko baliabide nagusiak. Horregatik da Ikuspegi nagusiki objektibista bat. Subjektibismoaren zantzu bakarra izan daiteke, Adan de Yartzak Bilboaldeko mendiei eskaintzen dizkien ohar poetikoak (MMB.3) tropo literarioak erabiliz.

24 Taula MMB Dimentsioen korrelazio taula

	Dok. Mota	Adierazpena	Agentzia					Elementuak				
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V	In-S
MMB.1	Mapa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	-
MMB.2	Mapa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	-
MMB.3	Liburua	Grafikoa/Testua		X	X		X	x	X	X	X	-
MMB.4	Proiektua	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.5	Planoa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.6	Mapa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	-
MMB.7	Planoa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.8	Planoa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.9	Planoa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.10	Planoa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.11	Proiektua	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.12	Planoa	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.13	Planoa	Grafikoa	?	?	x		X	X		X	X	X
MMB.14	Planoa	Grafikoa			X		X	X		X	X	X
MMB.15	Proiektua	Grafikoa		X	X		X	X		X	X	X
MMB.16	Planoa	Grafikoa	X		X		X	X		X	X	X

4.D. Elementuak: Eskuz eraikitako lurralde proiektatua.

Agiriak aztertu ondoren, esan daiteke Ikuspegi honek eraiki duen paisaiaren izaera, Politikoa dela, eta *in-Situ* nahiz *in-Visu* eraiki dela. Politikoa da, izan ere, tokiko kulturari arrotzak zitzaizkion tekniken bidez moldatzen eta jorratzen zelako. Meatzaritza lehendik existitzen zen jarduera bat gehiago zen, teknikoki eta kudeaketa aldetik, berezko ohiturak eta foru-legeak jarraitzen zituena, eta laborantzarekin konbinatzen zena. Hura, ohiturazko paisaia Bizitu bat zela esan daiteke, guztiz *in-Situ* eraikia; hots, bertatik bertara, dokumentuetan ia oinarritu gabe. Ordea, 19. Mendean ezarri zen meatzaritzak, erauzketa lanak bezain beharrezkoak zituen lurraldearen irudikapenak. Hots, paisaia teknikariek, konpainiek eta lur-jabeek *in-Visu* eraikitzen zuten bezala, gerora, langileek eta nagusiek, *in-Situ* eraldatzen eta moldatzen zuten. Bi eraikuntza hauen arteko elkarlotura oso estua da agiri kopuru handiak adierazten duen bezala. Hots, eraldaketa fisikoak egiten ziren heinean, agiri berriak sortzen ziren eraldaketaren jarraipen gisa, baita ondorengo aldaketak planifikatzeko ere.

Orokorrean, halaber, Meatzaritza Mendi Baliabidea Ikuspegiak paisaiaren eraldaketa sakonak eragin dituela esatea arrazoizkoa da. Agentzia boteretsu bati esker, ustiaketa egitura indartsu bat sortu zen, eta hura zerbitzatzeko eraiki ziren azpiegiturek ere, paisaia ikusgarria eraiki zuten, fisikoki zein kontzeptualki. Egun, azpiegitura horien trazak desagertu dira; esan nahi baita, lurraldea zeharkatzen zuen kableteri eta trenbide sare trinkoa ez dela dagoeneko nabari. Era berean, ustiaketa guneak bereiztea ere beti ez da begi bistan lortzen den zerbait. Arrazoi nagusia, utzikeria eta birnaturalizazioa izan daitezke. Topa daitezkeen trazak, topografikoak dira, geomorfologia antropogeniko bat osatzen duten estratuetan eta formetan. Aztertu diren hiru proiektuen aztarna garbirik dagoen ezin esan daiteke (MMB.4, MMB.10 eta MMB.15).

Hala ere, hain indartsua izan zen industria haren seinale garbiena Gallartan topatu daiteke, eta aztertutako duten agiritako batzuen eragina da: Concha 2.a meatzearen zuloa. Ezaguna den bezala, lurrazpikoa zen meatzearen handitzeak eta zeru irekiko meatzea bilakatzeak, Gallarta herriko kasko zaharraren eraisketa behartu zuen. Handitze hori noski, aipatu den agentzia boteretsu baten lorpena izan zen.

Mendi Baliabidea Ikuspegiarekin bete betean lotua da, mendia, edo mendi magaletako lur-azpian kokatzen ziren mineral biltegiak baitziren geografia hauek ulertzeko modua eta eraldatzeko arrazoiak. Mearik ez zuen mendi magala edo eremua, antzua eta interesik gabea zen logika berberaren ondorioz.

Mendia Meatzaritza-Baliabidea eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren eraikuntza.

Hiri ertzaren kontzeptuarekin ez dago inolako lotura zuzenik, alegia, meatzaritzaren garapena ez zen eman hiri-bazterrean zuen kokapena zela eta. Honen adibide garbia da Bilbo

“erdialdean” kokatzen ziren Miribilla, Morro eta Ollargan meatze eremua—nahiz Abandoko errepublika izan, hortaz Bilboko hiribildutik at egon.

Aldiz hainbat arrazoi direla eta, meatzaldea hiri ertz paradigmaticoa dela esan daiteke, batik bat Ortuella-Trapaga-Abanto Zierbena eremuei dagokienez. Hasteko, Bilboko hiri gunearrekiko zuten distantziagatik. Bigarren, bertan gauzatu zelako eskualdeko lehen krisi industrial eta ekonomikoa (Fundación BBVA, 2001), gizarte mailako bazterketa eremu bat sortuaz.. Krisien ondorioz eta bertako baliabideak ustiatzeko erabiltzen ziren teknologien ondorioz, paisaia nahiz eremuarekiko lotura edota zaintza hirigintza edota antolamendu terminoetan, alboratua eta ahaztua izan dela esan daiteke, Bilboko itsasadarreko beste krisi eta eremu kaskartuekin alderatzen baldin badugu. Fisikoki, geografikoki, ekonomikoki eta sozialki, meatzaldea beti izan da hiri bazterreko paisaia, baita gorago aipatu den Bilbo erdialdeko meatzaldea ere. Esan bezala, arrazoi posible bat eremu horietako baldintza sozio-ekonomikoak zaintzeko eta berreskuratzeko eskaini zaien atentzio urria izan daiteke. Egun, Gallartan Concha Bigarrenaren alboan Bizkaiko meatzaritza museoa kokatzen da, eta museoaren eraikin berria izan behar zuena ere zuloaren ertzean ere eraikitzen hasi zen. Bodovalle izeneko “corta” edo mozketak, egun babestutako elementua da Eusko Jaurlaritzaren ondare irizpideen arabera. Ordea, bazterreko paisaiaren izaera berresten duen adibidea da museo berriaren eraikuntza lanak bertan behera gelditu izana.

1.2. *Mendia Basogintza Baliabidea*

1.D.Idea: Mono-kultibo eraginkorra

Ikuspegi honetan mendia baso gisa irudikatzen da, eta baso hori mozkin ekonomikoa sortzeko baliabide gisa ulertzen da. Hasieran, 19.mende amaieran, Bizkaiko mendien eta ekonomiaren salbazio estrategia bezala planteatu baldin bazen (MBB.1), gerora baserritarren beste jarduera bat gehiago bihurtu eta egun, lurjabe ez baserritarren beste lan bat gehiago da *pinus radiata* landatuko basoa. Esan daiteke, araudi (MBB.7) eta plan (MBB.8) agiriak aztertuta, sektore honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babes nahikoa duela. Alegia, mendiaren kudeaketa eredu ez dela asko aldatu azken gizaldian, foruekin alderatuz gero

Paisaia-Ikuspegia, basogintza tradizionalaren jarraipen bat dela esan daiteke, askoz ere mugatuagoa eta baliabide dibertsitate urrikoa harekin alderatuz gero. Lehenago baso-mendiak ematen zituen hainbat fruitu eta lehengai organiko biltzen baziren, orain zura baino ez da aprobetxatzen. Hortaz, baso-mendiaren ikuspegia askoz urriagoa dela esan daiteke, eraginkorragoa bere ustiaketan agian, baina urriagoa natur baliabideen aldetik.

Paisaia-Ikuspegiaren helburuak, tradiziozkoa izan zen mendiaren aprobetxamenduarekin lotuak direla esan daiteke, mendia basoarekin identifikatu izan duen tradizioarekin. Alabaina,

mono-kultibora jo egin da egun, tradizioz askoz ere dibertsoagoa eta funtzio-anitzagoa zen baso-mendia galduz.

2.D.Irudikapena: Basoa=mendia

Agiriotan irudikatzen den kokapena, beti mendia da, mendi-basoa. Eredu hori, normalean ezaugarri generikoak erabiliz irudikatzen da, toki-izen zehatzik apenas aipatu gabe: gomendio (MBB.6), eskuliburu (MBB.10), arau (MBB.7) eta planetan (MBB.8) egiten den bezala. Ezaugarri konkretuagoak edo kualitatiboagoak aipatzen direnean, EAEko mendien maldak, edo partzela txikiak, euri jasen eraginez lokazten eta arriskutsu bihurtzen direnak (MBB.12), edota udalerrri konkretu bateko mendi konkretu bateko magalak (MBB.2, MBB.3, MBB.4) aipatzen dira. Baina oro har, mendia beti da basoa, eta basoa beti da mendia informazio kuantitatiboaren bidez irudikatua.

Pinu landaketaren propaganda egiten hasi zen garaian ordea, hots 20.mendearen hastapenean, mendia larre edo belaze antzuak ziren, basorik gabeak, ekonomikoki batere eraginkorrek ez ziren eremuak (MBB.1) eta, Bizkaiko ekonomiaren gainbeheraren arrazoiak, antza. Egoera tamalgarri horrek bultzatu zuen administrazioa eta zenbait pentsalari ilustratu (MBB.14) arbola espezie berriekin esperimenduak egitera ekonomia berreskuratzeko.

Basogintzaren praktikak zabaldu zirenetik, mendia baso gisa irudikatu da, pinu-baso gisa batik bat. Hala ere, esan bezala, asoziazio hau ez da berria, beti izan baita nahasketa hori, mendi eta basoaren artekoa, arau foral zaharretan ageri den bezala.

Bestalde, mendi paisaia mono-kultibatu hau ez da antzinako kontzeptuen oso ezberdina ere. Izan ere, industria aurreko basoetan ikatzetarako egokiena zen zuhaitzez birpopulatzen ziren mendiak (haritza eta gaztaina) (Gogeochea, 1996). Hortaz, orduan ere, aprobetxamendu ekonomiko eraginkorrena eta ugariena sortzen zuten zuhaitzez estaliak zeuden mendiak.

Ez da topatu plantazio baten proiekturik, hots, aurretiaz toki konkretu batean pinuak modu zehatzean nola landatuko diren adierazten duen plan edo proiekturik. Eskuliburuetan (MBB.10), baldintza topografiko generiko eta katalogokoak kontutan hartuz soilik, landatze egitura sortzeko distantzia irizpide orokor batzuk azaltzen dira, tokian tokiko aurrekari formalak klimatikoak/topografikoak eta jabetza-mugak soilik direlarik. *Pinus radiata* baso guztiak berdinak bilakatzen dira horrela.

3.D. Agentzia: Esperimentatzaileak eta lur-jabeak.

Ikusi den bezala, Mendi basoaren agentzia publikoa da agirien kasu gehienetan, eta neurri handi batean ere, pribatua. Cosgrovek ezarritako barne/kanpo dikotomiaren arabera interpretatzen badugu agiriotako Agentzia, hauen begirada kanpotarra dela esan daiteke

lurrarekin, hots, baso-mendiarekin duten urruneko harremana dela eta. Barneko ikuspegia duen agiri bakarra, baso-jabeen ikuspuntua adierazten duen aldizkariko artikulua izan daiteke (MBB.9). Gainera, egoera misto pare bat ere interpretatu dira, aldi berean barnekoa eta kanpokoa den begiradaren nahasketa; bide batez esanda, Cosgroven ustez ezinezkoa zitekeen egoera (D. E. Cosgrove, 1998). Lehenengo kasu nahastua, Mario Adan de Yarza lur jabe eta baso ingeniariarena da. Hark, basoaren ezagutza tekniko eta barnekoa izateaz gain, lurjabearen eta basozainaren begirada ere bazuen. Horregatik, aldi berean da kanpotarra eta barnekoa. Bigarren kasua, Bilboko basozainaren begirada da (MBB.2, MBB.3, eta MBB.4): honek ere ezagutza tekniko izateaz gain, baso lurrarekin barneko harremana duela esan daiteke tokiaren ezagutza materiala eta sakona dutela suposatzen delako.

Nahaste hauek, nola nahi ere, Cosgroven teoria zorrotz aztertuz gero, ez dira oso zuzenak. Izan ere, barnekoaren harremana lurraren ulermen analogiko batean oinarritzen da, eta ez du irudikapen abstraktu bideraturik (kontzeptu zientifiko eta objektiboak, teknika arrazionalak eta asmo ekonomikoak) erabiltzen hura kudeatzeko. Kasu honetan, basogintzan dabilen lurjabeak (MBB.14) eta teknikoak den agenteak (MBB.2,3,4), baita udal basozainak ere, biek begirada teknikoaren bitartekaritza darabilte mendiko lurzorua kudeatu eta eraldatzeko. Hortaz, biak begirada kanpotarra dutela esan daiteke, behin betiko interpretazioan. Ondorioz, agiri guztietako agentzia kanpotarra dela interpretatuko dugu, kasu gehienetan publikoa, baina baita pribatua ere (basoetako jabeen kasuan bezala).

Hala ere, agian baso lurren jabeek basoaren bertatik-bertarako kudeaketa eta zaintzaren eskarmentuaren bidez, dagoeneko barnekoaren parekoa litzakeen intuizio eta jakintza ez arrazionala garatzera iritsi dira. Posible ote da lurrarekiko harreman analogikoaren moduko bat garatzera iristea, ustez industrial eta arrazional den basogintzan? Hau, agirien bidez jakitea ez da posible, hortaz, espekulazio gisa erantzun gabe utziko da galdera.

Bestalde, begirada hauek mendia ulertzeko darabilten begirada Objektiboa dela ere interpretatu daiteke, denek ulertzen baitute mendi-basoa ezaugarri arrazional eta generiko batzuen arabera, basogintzaren zientziaren oinarri direnak. Basoaren edertasuna aipatzen eta adierazten duen agente bakarra, Aurelio Arteta da, Mario Adan de Yarzaren erretratuko “eszena” irudikatzerakoan erabiltzen duelako (MBB.14).

25 Taula MBB Dimentsioen arteko korrelazio taula

	Dok. Mota	Adieraz- pena	Agentzia					Elementuak				
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V	In-S
MBB.1	Zirkularra	Testua	X	X	X	X	X	X				X
MBB.2	Gutuna	Testua	X	X	x	X	X	X				X
MBB.3	Planoa	Grafikoa	X	X	x	X	X	X				X
MBB.4	Planoa	Grafikoa	X	X	x	X	X	X				X
MBB.5	Txostena	Testua		X	X	X	X	X				X
MBB.6	Artikulua	Testua		X	X	X	X	X				X
MBB.7	Araua	Testua	X	X	X	X	X	X				X
MBB.8	Plana	Testua	X	X	X	X	X	X				X
MBB.9	Artikula	Testua		X	X	X	X	X				X
MBB.10	Eskulibu- rua	Testua	X	X	X	X	X	X				X
MBB.11	Inbentar- ioa	Testua	X	X	X	X	X	X				X
MBB.12	Artikulua	Testua		X	X	X	X	X				X
MBB.13	Artikulua	Testua		X	X	X	X	X				X
MBB.14	Erretratua	Grafikoa		X	X		x	X				X

4.D.Elementuak: Paisaia homogeneoa.

JB Jacksonek aipatzen dituen paisaia Politiko generikoetako bat, baso monokultibatua da (Jackson, 2010). Hortaz, mendiaren kudeaketa arrazional eta eraginkor bat da agiri guztien bidez eraikitzen eta garatzen dena, eta horrek mozkin ekonomikoak sortzera emana dagoen paisaia Politiko bat sortzen duela esan daiteke.

Eraikuntza bikoitzari dagokionez, *in-Visu* eta *in-Situ* ekintzen artean desoreka bat interpretatzen da. Izan ere, baso proiektuak paperean grafikoki edo aurretiazko diseinu edo planifikazio agiriak gutxi dira. Basoa orokorrean, egoera generiko gisa eraikitzen da, basoa garatzeko unibertsalak diren topografia ezaugarriak aipatuz. Ordea, partzela bati dagokion proiekturik ez da topatu, irizpide orokorrez gain. Hots, esan daiteke, basogintza gehiago eraikitzen dela *in-Situ*, bertatik bertara, *in-Visu*, paper-gainean baino.

Mendia Basogintza-Baliabidea eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren eraikuntza.

Pinu radiataren erabilerak sortu duen paisaiaren eraldaketa fisikoak nabariak eta ezagunak dira Bizkaian bezala, Gipuzkoan ere. Hori horrela, aztertu diren agiriak bat egiten dute historiaren garapenarekin eta baso landatuaren zabalpenarekin. Egun indarrean dagoen EAEko baso planaren arabera (MBB.8), beste ikuspegi ez hain produktibista, indartu nahi da:

mendiaren funtzio hirukoitza onartzen duena: aisia eta kulturaren, etekina eta enpleguaren baita naturaren babesaren funtzioak bultzatuz eta babestuz. Era berean, basogintzaren sustapen eta babesa aitortzen ditu. Ezin dugu esan zein izan den zehazki plan honen eragina 1994tik honaino.

Michelen aburuz (2011), 90.hamarkadatik aurrera, basogintzari esker, pinu-baso/mendiaren balore ekonomikoa zuraren merkatuan aitortu egin zen, 10 urtetan zehar Bizkaiko nekazaritza sektorearen %15eko handitzea eraginez. Planifikazioaren ondorioz, pinuari beste estatus bat eman zaio, basogintzaren diskurtso berrituari esker (Foucault, 1978). Gainera, pinuaren pertzepzioa aldatu egin dela esan daiteke, UNESCO Etxearen Bilboaldeko ekosistemen zerbitzuen ikerketetan ageri denez (Casado-Arzuaga, Onaindia, Madariaga, & Verburg, 2014) natura-gune baliotsu batekin alderatzen dira pinu-basoak arestian egiten ez zen bezala (Universidad Politécnica de Madrid, 1990). Planak, bestalde, eragina izan dezake (hau bere alderdi fuertea ez bada ere), basogintza mendiko bestelako nekazaritza erabilerekin bateragarritasuna sustatzeko. Baita jabe ezberdinen arteko kolaborazioa, eta azpiegituren erabilera anitza sustatzeko, eta, hortaz, inpaktu bisual nahiz ekologikoa murriztagoa eraginez.

Bestetik, baso baliabidearen ikuspegiarekin zerikusia duten agiriak zerikusirik ez dute hiri bazterraren garapenarekin. Nolanahi ere basogintzaren garapena hiriaren eta industriaren garapenak eragindakoa dela esan daiteke, hiriranzko lan eta bizitza joerek eraginda. Baso landatua hiriaren garapenarekin lotura duela esan daiteke beraz, baina inon ez da ageri hiriaren bazter gisa edo hiriari lotua zaion espazio gisa. Mendiek espazio urbanoarekiko duten gertutasuna dela eta, araudiak, Bizkaikoak bereziki (MBB.7) mendiaren babesa eta hiri-garapenean galarazpen neurriak arintzeko neurriak hartzen ditu. Hain zuzen ere, interes publikoaren onurarako azpiegitura handiak eraiki behar direnean. Honek, bazterreko paisaia osatzen duten azpiegitura handi horiek eragindako izaera funtzionalaren garapena dakarte. Era berean, zenbait autoreek aipatu bezala (Gallent et al., 2006; Shoard, 2000), basogintzaren sustapenak, hiri bazterretan beharrezkoak diren natura-gune Politikoki zuzen bezain homogeneoak eta izaera gabekoak garatzeko estrategia erraz bezala ere balio duela esan daiteke.

2. Mendi Oztopoa

1.D.Ideia: Mendi Gaingitua

Esan bezala, bildutako agirietan Mendi Oztupoaren ikuspegia ez da guztiz agerian azaltzen. Agirien helburuak proiektuak, eraikuntza txostenak, proposamenak eta abar. errepide azpiegituren informazioa eta ezaugarriak adieraziz. Ez da inon formulatzen mendiaren presentzia oztopo gisa, ez behintzat modu zuzenean. Mendiak suposatzen duena, beste modu batean adierazten da Irudikapenaren atalean ikusiko den bezala.

Hala ere, esan daiteke, agiri zaharretan azpiegituren garapena aurrerabidearen eta antolamendu zibilizatu baten adierazle gisa modu naturalean aurkezten dela. Ideia hau aldatu egiten da agiri berrienarekin, hots Bilboaldeko Hegoaldekoko Saihesbidearen txostenean. Bertan, errepideak eragiten dituen ingurumen kalteen aurrean hobesten diren neurri eta aterabideak ere aztertzen eta aurkezten baitira, kontzientzia aldaketa baten seinale.

2.D. Irudikapena: Ez dagoen mendia.

Agiritan mendia hainbat modutan irudikatzen da, baina oso gutxitan ageri da oztopo gisa. Grafikoki, esaterako, mendia marraztu gabe ageri da mapa-planoetan, atzealdeko planoan argazki eta marrazkietan, eta modu arruntean sestra kurben bidez soilik mapa eta planoetan. Ebaketek eta bestelako elementuen formek iradokita azaltzen da mendia.

Testuetan, ordea, mendiari buruz adierazten direnak garapen bat erakusten du, lehenago esan den bezala, ingurumenarekiko erantzukizuna nagusitzen den bezala. Esan daiteke, garai batean azpiegitura/errepidea artelantzat saltzen zela, bidean eraman zituen etxeak eta mendi zatiak, aurrerabidearen aldeko beharrezko sakrifizio txikiak bailiran. Aldiz, egungo garaietara etorrira, errepidearen teknologiaren ekarpenaren aldarrikapen hau askoz ere modu zehatzagoan justifikatu beharra dago, motibazioak kuantifikazio zehatzen bidez adieraziz --trafiko eskakizunak, edukierak, saturazioa, portuaren beharrak eta abar. Gainera, errepidearen txertaketa neurri handiagoan justifikatu beharra dago, haren eragin negatiboa ahalik eta txikiena izan dadin. Esan daiteke, historian zehar eta teknologiaren garapenarekin batera, baita ingurumenarekiko sentikortasuna indartzen den bezala, gizarte teknofiliko batetik teknofobiko batera igaro dela²⁹.

Irudikapenek erakusten ez dutena interpretatuz gero, aipatu den bezala, konturatuko gara mendiaren presentzia dela falta den elementua. Horrek zer esanahi izan dezake? Bi aukera nagusi interpretatzen dira. Bada, mendiak baldintza gehiegi ezartzen dituenek, azpiegiturak eragingo dituen eraldaketak oso handiak izango dituela eta, hortaz, mendiaren irudikapenak kalte egiten diola errepidearen onarpen sozialari. Edo bestela, mendiak oztopo gisa batere baldintzarik ezartzen ez duenez, errepidearen irudikapen argi bat egitea hobe dela. Baina, oinarri sendoena duena azken interpretazio hau dela esan daiteke: hots, mendiaren irudikapen gabezia errepidearen marrazki garbiago baten alde egiten den errepresentazio galera mespretxagarria dela.

29 Hau horrela da azpiegituren kasuan batez ere, eta jarrera teknofobikotzat ulertu daiteke Bilboko Hegoaldeko Saihesbidearen lur-azpiko ibilbidea, esaterako. Ikusezina dena existituko ez balitz bezala jokatzeko da, mendi-azpitik nola igarotzen den irudikatuta. Mendialdeak eta inguruneak lur-azalean soilik pairatu dezake kaltea, ez lur-azpian. Beste modu batean esanda, lur-azpitik errepide igarota, ingurumen kalteak konpondutzat ematen dira, hain zuzen ere, errepidea ez delako ikusten. Adiera hauek Robert Thayer definitu zituen gizakiak paisaiaren hautemana "neurtzeko" dimentsio gisa, oinarrian naturaren eta teknologiaren arteko harremanaren balorazio bat dagoelarik: teknofobiak teknologiarekiko gaitzezpena dakar, eta teknofiliak aldiz teknologiaren gorespina (Thayer, 2002).

3.D. Agentzia: Interes Publikoaren aldeko agentzia.

Agentziak berez, Kanpotarraren begiradarekin eraikitzen ditu paisaiak, izan ere, lurraldearen eraldaketarekin batere harremanik ez duelako, eta, eskala handikoa erabaki politikoen menpe daudelako. Hala ere, beste Ikuspegi batzuen kasuan bezala, Kanpo eta Barnekoaren arteko muga ezartzea zaila da. Kapitalismoaren garaian, Cosgrovek kanpo-barne anbiguetatea, begirada subjektibo-objektiboarekin ordezkatzeko du; bi kasuetan kanpotarra dena. Hala ere, dikotomia horrekin interpretatzea interesgarria da, izan ere, garbi baldin badago hasiera batean kanpotik egindako irudikapenak eta jarduerak direla, barneko begiradaren eragin bat atzeman daiteke. Nola izan liteke? Bada, proiektuen eta proposamenen kasuan, egileek eta sustatzaileak helburu publiko eta orokor bat dutelako buruan, eta horrexegatik lurraldeak dituen beharrak ezagutzen dituztelako – hein batean, bederen. Hertsiki Cosgroven irizpideak jarraituz gero, ordea, kanpotarra da agentzia orobat.

Begirada Subjektibo eta Objektiboaren bereizketa egiterakoan ere, gehiengoak arrazionalizazioaren eta kuantifikazioaren bidetik jotzen du paisaia eraikitzeko. Postalen kasuan – eta agian A8 liburuko zenbait atalen kasuan — erabiltzen dira irizpide subjektibistak Mendi Oztupoaren paisaia eraikitzeko.

26 Taula MO Dimentsioen arteko korrelazio taula.

	Dok. Mota	Adierazpena	Agentzia					Elementuak			
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V
MO.1	Mapa	Grafikoa	X	X	X	X	X	-	X	-	
MO.2	Mapa	Grafikoa	X	X	X	X	X	-	X	-	
MO.3	Mapa	Grafikoa	X	X	X	X	X	-	X	x	
MO.4	Planoa	Grafikoa	X	X	X	X	X	-	X	x	
MO.5	Mapa	Grafikoa	?	X	X	X	X	-	X	-	
MO.6	Mapa	Grafikoa	X	X	X	X	X	-	X	-	
MO.7	Proiektua	Grafikoa		X	X	x	X	X	x	X	x
MO.8	Proiektua	Grafikoa/Testua		X	X	x	X	X	x	X	x
MO.9	Txosten teknikoa	Grafikoa	X		X	x	X	X	-	X	x
MO.10	Proiektua	Grafikoa/Testua		X	X	x	X	X	x	X	x
MO.11	Artikulua	Grafikoa/Testua	X		X	x	X	X	-	X	
MO.12	Liburua	Testua	X	X	X		X	X	x	X	x
MO.13	Postala	Grafikoa		X	X			x		x	X
MO.14	Txostenak	Grafikoa/Testua	X		X	x	X	X	x	X	
MO.15	Proiektu txostena	Grafikoa/Testua	X		X	x	X	X	x	X	x
MO.16	Postalea	Grafikoa		X	X			x		x	X

4.D. Elementuak: Azpiegiturak eta beraien inguruak.

Agiriok osatzen duten paisaia guztiz Politikoa dela esan daiteke, proiektuen azpiegitura izaera dela eta. Hots lurraldearen beharrak eta eskariak egoki antolatzeko eta egituratzeko asmoen erantzun eraikiak dira batez ere errepide eta bestelako garraio azpiegiturak. Hala ere, paisaia Bizituen eguneroko izaerarekin zerikusia dutela esan daiteke. Hortaz, paisaia Politikoen eta Bizituena arteko ezberdintasuna ezartzea, Mendi Erabilgarrian ikusiko den bezala, zaila da, izan ere elementu anbibalenteak dira: egunerokotasunetik at pentsatuak eta eraikiak, ordea, egunerokotasuna modu sakonean eraldatzen dutenak, aldi berean. Beraien izaera Politikoa beste faktore batek ere markatzen du: administrazio eremu bat baino gehiagori eragiten dioten sareak osatzen dituztenez, eta ondorioz, kudeaketa zorrotza eta negoziazio leunen eskakizunak dituzte elementuok.

Paisaiok, mendi Oztopoaren ikuspegitik, *in-Visu* zein *in-Situ* eraikiak dira. Hots, diseinuaren eta planaren distantziatik dokumentuen bidez eraikitzen dira, eta, bertatik bertara lurraldea eraldatuz eta mugituz material eta fisikoki eraikitzen dira. *In-Visu* eraikuntzetan, hots agirietan, kokapenak eta mendiak baino garrantzi handiagoa du txertatu behar den elementuak-azpiegiturak. Ordea, *in-Situ* egiten den eraikuntzan, lurraldearen eraldaketan eragin handia dute eta hortaz, *in-Situ* eraikuntzak berebiziko garrantzia duela esan beharra dago. *In-Situ* eraikuntzaren ondorioz tokiek jatorrizko egoera guztiz galdu arte eraldatzen dira.

Aztertu diren azpiegitura guztiak eraiki egin dira, Telesirga izan ezik. Eraikuntza garaia, ordea, proiektu eta planetan ageri dena baino berantiarra goa izan da, batik bat 20.mende hasieran eta Francoren diktatura garaian proiektatutako kasuan. Garai horretan proiektatu eta eraiki ziren bi kasu dira sustapen pribatua izan zutenak, AHVren ur ekarrera eta Cementos Lemonak eraikitako errepidea, hain zuzen ere. 1970.hamarkadatik aurrera, diktaduran oraindik, baita eskumena Foru Aldundiak berreskuratu zuenean ere, errepideen ugaltzea ekarri egin du (MO.14 eta MO.15 agiriek adierazten duten bezala), Bilboaldean bakarrik ez, eta probintzia zein Autonomi Erkidegoan ere. Lurraldearen egituraketa azpiegitura hauen bitartez egin dela jakina da, batik bat, industriak trenbideari emandako nagusitasunak eta hazkuntza kontrolik gabeak eragindako gabezien konponbide gisa. Egituraketa eredu metropolitarraren horren aurrekari Ricardo Bastida arkitektoa aipatzen da iturri orotan. Esan daiteke, Bilboaldean eraldaketa nabariak sorrarazi dituztela aztertu diren proiektu guzti hauek.

Mendi Oztopoa eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren eraikuntza.

Agiriotako azpiegitura eta proposamenek Hiri bazterreko Paisaiarengan duten eragina tamainakoa da Bilboaldean. Izan ere, gune ezberdinak lotu ahal izateko, mendi-ertza-oztopoa gainditu egin beharra dute eta hainbat gorpuzkera fisiko hartzen dituzte, errepideek zein argindar lerro edo ur garraio sareek ere. Gehien aztertu den azpiegitura mota errepidea izan

da, eta agiriak ugariak baldin badira ere, eskuragarritasun zailekoak dira. Egoera berbera da beste motako azpiegitura sareetan ere: apenas ez da lortu argindar eta ur ekarreraren inguruko agiririk.

Esan bezala, Bilboaldeko HBPan errepideak maiz azaltzen dira, hiriguneetara eta lantegietara iritsi ahal izateko mendia gainditu egin behar dutelako. Bilborako errepide bidezko sarbide gehienak mendia zeharkatzen dute, goitik behera, lur azpitik edota magalean zeharka. A8 autobidearen Bilboko zatia, Solucion Sur delakoak, hiri bazterrean presentzia handia dauka magaletan zehar doanean. Aztertu gabe geratu dira beste hainbat azpiegitura mendietan zehar luzatzen direnak: Enekuriko sarrera edota Egirletakoa; baita beste lasterbide batzuk ere, Kadagoakoa edo Txorierrikoa bezala. Elementuek berek eta eragiten dituzten egokitzapen eta eraldaketa fisikoak ere aintzat hartu beharko lirateke: eustormak, zubiak, lur mugimendu ugariak, harrobi irekierak baita mendi hustuketek eragindako lur mugimenduentzako eskonbrerak eta zaborteziak ere. Era berean, eragin bisual kaltegarri horiek kamuflatzeko neurriak ere Mendi Oztopoaren Ikuspegiaren barne hartzen diren elementuak lirateke. Horiek denak Hiri Bazterreko Paisaiaren parte dira.

Presentzia fisikoaz gain, hiri bazterreko paisaiaren eraikuntza kontzeptualari dagokionez, hiri ertzaren ezabatzea, eta hiriaren jarraitasuna helburu dutela esan daiteke, sortzen duten zerbitzu eta azpiegitura hiritarraren ehuna dela eta. Hau nabarmen aipatzen da literaturan aztertu diren hirien zabaltze eredu askotan. Lefebvrek berak, *tissue urban* esaten zion sare fisiko honi, baita hiriko kulturaren zabalpena ahalbidetzen zuen balio sareari ere.

Amaitzeko, Bilboaldeko Hegoaldeko Saihesbide berriaren kasua aipatuko da. Autobideak hirigunea saihestea du helburu, puntu batzuetan honekin loturak sortuz. Saihesbide eraikitzeko, hiri bazterretik eraikitzen da, ohikoa denez. Bilboaldean baina, eremu egokiena hegoaldea izanik, mendiak zeharkatzera behartuta dago proiektua, eta oztopo hau lur-azpitik gainditzen du, batik bat.

3. Mendi Erabilgarria

1.D. Ideia: Mendian, bide batez.

Agiriotan azaltzen diren paisaia elementuen atzeko ideiak mendi-espazioaren erabilgarritasunean oinarrituta daude. Hala ere, helburu nagusi eta esplizituak hiriaren nahiz gizartearen arazoei eta zerbitzu eskariei aurre egingo dieten jarduerak diseinatu, eraiki eta eskaintzea da. Ahal dala, toki isolatuak eta gordeak aukeratzen dira, bestela edukiontzi forma egokia dutenak, edota hiritik eta garraiobideetatik distantzia egokira kokatzen diren eremuak dira erabilgarrienak. Beste irizipide garrantzitsu bat, tokiaren aurreko egoera artifizialtua da.

2.D. Irudikapena: Mendi Isolatua eta aurrez-eraldatua.

Orokorrean mendia ez da inolaz ere aipatzen, eta espazio zati konkretu bat baino ez da irudikatzen. Nahiz eta magalen morfologia proiektuentzako guztiz lagungarriak suertatu, batez ere biltegiak (ME.3, ME.6, ME.7, eta ME.8), komunikazio tokiak (ME.2.a Finagako Azpi-estazioa) edo jarduera arriskutsuak urruti edo modu isolatuan (ME.1, ME.2.a, ME.6, eta ME.7) kokatzeko, mendiaren ezaugarri horiei aipamenik ez zaie egiten modu argian.

Bestalde, aurretiaz eremuak duen ezaugarri edo izaera antropogenikoa maiz azaltzen da aurre-baldintza esanguratsu gisa beste jarduera desatseginak kokatzeko: Argalarioko zeldaren (ME.6), El Campillo (ME.4) industriagunearen edota ARTEA komertzio gunearen (ME.5) kasuetan bezala. Denetan dago aurreko jardunak eragindako kalte eta kutsadura ez kontrolatu batek sortutako egoera. Zabalgarbi errauskailuaren kasuan ere, Primitiva meatzeak eta harrobiak eraldatutako Arraiz mendi-magaleko zuloa erabiltzen da.

Garaien arabera ez da aldaketa nabarmenik nabari, ez bada aspektu grafikoan, beste kasuetan bezala. Plano topografiko osoak edo estandarrak erabiltzen dira zenbat eta proiektua edo dokumentua modernoagoa izan. Kokapen planoak, alegia, estandarizatuagoak dira datu base publikoak eta CAD bidezko irudikapenak geroz eta eskuragarriagoak bihurtu ahala.

Kontzeptualizazioari dagokionez, denborak aurrera egin ahala, sumatzen da industrializazioaren garai ezberdinen arrastoak lurraldean ageri direla geruza edo estratu bat gehituz. Gainera, ekonomia-jardueren bilakaerari nahiz hiri-funtzionamenduaren bilakaerari dagokionez hiritarren eta hiritartuak diren eremuen eskariak, zerbitzuak eta beharrak konplexuago bilakatzen dira, sistematizatuagoak. Ondorioz, jarduera berriak kokatzeko tokien aurreko erabilerari garrantzia ematen zaio. Hots, eremu bat aurretik antropizatua izan bada, hobe hura berrerabiltzea. Hala, lurra kutsatua eta transformatua baldin badago, beste lursail bat eraldatu baino nahiago da bertan kokatzea hondakindegia, industrialdea edo komertzio gunea.

Hala ere, baldintza morfologiko eta lurzoruaren berrerabilpen joerak ez dira tokiaren ezaugarri gisa zuzenean aipatzen proiektuetan. Kasu bakarra topatu da non kokapenaren aukeraketa justifikatzen den, Argalarioko zeldarena, hain zuzen ere (ME.6). IHOBEn web atariak dioenez, bertan lehendik zegoen kontrolik-gabeko zaborteziak, eta Barakaldon lekutuak ziren hondakin toxiko kopuru altuak ere, toki aproposa bihurtzen zuen Argalario mendiko ibar txiki hori biltegia eraikitzeko. Beste kasu batean, Zuatzoko lehergailu lantegiaren kasuan hain zuzen ere, mendian barrena ezkututzen den fabrika deskribatzen du kazetariak (ME.1.b). Agirien bidez konprobatzea ezinezkoa izan bada ere, lehergailuekin frogak egiteko mendietako magalen erabilera aproposa irudikatzen da Pedro Telesforo Errazkinen argazkian (ME.1.a). Fabrika honen egungo kokapena Upo mendiaren oinetako ibarretan zabaltzen da,

eta baso hostozabal batek estaltzen du. Baldintza honek leherketen soinua murrizten duela ezaugarri nabarmen bat da kokapena aukeratu ahal izateko. Azken hau frogatzeko iturririk ez badugu ere, interesgarria da aipatzea.

Bestalde, mendiaren osotasuna ez da aipatzen inon. Hots, mendi eremua sistema ekologiko eta berezko zikloak dituen osotasun bat bezala irudikatzen duen aipamenik ez da topatu agiriotan. Elementuak bertan kokatu izan ohi dira, magalaren zati isolatu horri bakarrik eragingo balitzaio bezala eta kasuan kasuko eskakizunei erantzutea helburu nagusia eta bakarra balitz bezala. Horretarako, proiektua eraikitzeke beharrezkoa den irudikapen zehatz eta objektiboa da soilik beharrezkoa. Edo eraikuntza horrek sortzen dituen onurak eta konpontzen dituen arazoak dibulгатzea, bestela.

3.D.Agentzia: Mendia hiritarren zerbitzura.

Mendiko erabilgarritasuna bilatzen duten egitasmoen garapena pribatua dela pentsa badaiteke ere, bildutako agiriak bestelako egoera bat erakusten dute. Esan bezala gehienak publikoak dira, pribatu apur batzuekin eta nahasketak kontsideratu daitezkeen garapen bi ere ageri dira.

Kanpoko eta Barneko ikuspegiaren interpretazioa egiten baldin badugu, banaketa guztiz garbia ezin da egin. Begirada kanpotar garbia dute, ME.1 agiriko Telesforo Errazkinen enpresa egitasmoek, baita ondoren etorri zen fabrikek garatutako jarduera eta kokapenaren aukeraketa. Iberduerok Basauriko Finaga auzo txikian, garaiko Zona Libre-an baimenik gabe eraikitako argindar azpi-estazioaren atzean ere kanpotarraren begirada oportunistak identifikatu daiteke. Bi egitasmo hauek sustapen pribatuak izan baziren ere, publikoki bultzatutako egitasmoek ere izaera kanpotarra dutela esan daiteke, Artigas Arraiz Plan Bereziaren kasuan bezala.

Barneko begirada duen proiekturik ez baldin badago ere, kanpotarrarekin batera nahasten begirada hibrido moduko batekin lotu dira ME.4, ME.5, ME.6 eta ME.7 agiriak. Barnekoaren begirada, sustapen publikoak definitzen du, hots, lurraldeak duen egoeraren ezagutzak eta gizartearen eskakizun eta beharrei erantzuteko asmoak. Kanpotarra berriz, lurrekiko harreman Politikoak edo administratiboak. El Campilloko industria-gunea, industria-krisiak baino lehenago meatze-krisiak kalte zuen komunitate eta eremu baten ekonomia eta lan egoerak berreskuratzeko egitasmo publiko bezala interpretatu daiteke. ARTEA komertzio-gunearen ezarpenak ere, era berean, enplegua eta kontsumoa sustatzeko asmoa izan zuen. Argalarrio mendiko hondakin toxikoen biltegiak, industria krisiak agerrarazi zuen lindane hondakinek sortu zuten ingurumen arazo larriari konponbide bat emateko saiakera publiko bat izan zen. Ur Partzuergoak egiten duen lurralde okupazioak, finean, ur horniketa eta saneamendu beharrak asetzeko helburua du. Hirurek, gainera, lurzoru kutsatuak berrerabiltzen dituzte jarduerak ezartzeko, baita hondakinak berriz biltzeko. Ordea, Cosgroven arabera,

barnekoak ez ditu abstrakzio teknikoen bidez lurraren eraldaketak kudeatzen, planifikatzen edo aurreikusten, eta garai kapitalistan barnekoen begirada desagertu egiten da. Eta hortaz, aipatu diren azken agiriez ez lukete barneko ikuspegiarekin loturarik izan behar.

Horrezaz gain, Cosgrovek, kapitalismoari pasaiaren hautematerako bi begirada aitortzen dizkio: Objektiboa eta Subjektiboa. Agiri guzti hauetan begirada Objektiboa da nagusi, lurraldea modu kuantifikatuan bakarrik ez eta elementu arrazional eta zientifikoak soilik erabiliaz irudikatzen delako.

27 Taula ME Dimentsioen arteko korrelazio taula.

	Dok. Mota	Adierazpena	Agentzia					Elementuak				
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V	In-S
ME.1.a	Argazkia	Grafikoa		X	X		X		X		X	
ME.1.b	Berriak	Testua		X	X		X		X		X	
ME.2.a	Proiektua	Grafikoa		X	X		X		X	x	X	X
ME.2.b	Hainbat agiri	Testua	X		X		X		X		X	
ME.3	Proiektua	Grafikoa	X		X		X		X	x	X	X
ME.4	Plan Partziala	Grafikoa/Testua	X	x	X	x	X		X	x	X	X
ME.5	Hiritartze Proiektua	Testua	X	x	X	x	X		X	x	X	X
ME.6	Txostena	Web-ataria	X		X	x	X		X	x	X	X
ME.7	Triptikoa	Grafikoa	X		X	x	X		X	x	X	X
ME.8	Plan Berezia	Grafikoa/Testua	X		X		X		X	x	x	X

4.D. Elementuak: Egunerokotasunaren paisaia politikoa.

Begirada Objektibistarekin batera lotzen da paisaia Politiko baten eraikuntza, lurraldearen eta gizartearen kudeaketa eta zerbitzu antolatu eta sistematiko orokor bat proposatzen delako. Egunerokotasuneko paisaia Bizituaren eraikuntzan zerikusi txikia dute uraren, enpleguaren, kontsumoaren, produktu industrialen, hondakinen eta argindarraren produkzioa eta eskariak asetzeko asmoa duten egitasmoek. Hala ere, esan beharra dago, egunerokotasun horren partaideak ere badirela, egungo bizitza garaikide eta hiritartuaren oinarritzko beharrak hornitzen dituztelako –eta zenbait kasutan, enpleguaren eta kontsumoaren bidez, egunerokotasunean txertatzen dira. Hortaz, inkontzientea bada ere, esan daiteke harreman zuzena dugula elementu horiekin, eta beraz paisaia Bizitua osa dezaketela. Horretarako baina, Jacksonek banatutako paisaia Bizitu eta Politikoen irizpideak aldatu beharko lirateke.

Ikuspegi honen bitartez eraikitzen den paisaiaren artealizazioa, M. Oztupoaren kasuan bezalaxe, bikoitza da. Aztertu diren agiri guztiek dute distantziatik *in-Visu* eraikitzen den egitasmo agiria, eta ondoren, bertatik bertara *in-Situ* gorpuzten den transformazio fisiko eta materiala.

Mendi Erabilgarria eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren eraikuntza.

Egitasmo guzti hauek, paisaiaren osaceran, baita hiri bazterreko egituraketan eta izaeran izugarritzko eragina dute hurrengo lerroetan adieraziko den bezala. Lehenik eta behin, Zuhatzuko lehergailu Fabrika aipa daiteke. Pedro Telesforo Errazkin izan zen fabrikaren lehen sustatzailea, Nobel-en dinamita patentea erosi eta gero. Dinamita garatzeko.1.go kokapean Santa Marina mendiaren magaletan izan bazen ere, gerora Zuatzura lekualdatu zen lantegia. Zuatzuko egungo kokapena hainbat pabiloik eta bideek osatzen dute, mendiko ibarretan eta basoetan antolatuak. Eragin nabarmena izan du bertako landarediaren mantenuan, izan ere, hostozabalen basoa nabari da fabrikaren lurretan, inguruko lurzoru pribatuetako pinuaren oso paisaia ezberdina osatuz.

Alonsotegiko (lehen Barakaldo) Artiba urtegiaren erabilera nolabait ezkutuan baldin badago ere, Gurutzeta gaineko magaltxoan urtegiarekin batera eraiki zen depositua nabarmen ikusten da hainbat tokietatik.

Zabalgardi errauskailuaren eta Artigas zabortegearen kokapenek hiri-bazterreko garapen paradigmaticoak dira, kasu honetan, mendi morfologiak hiritik ezkutua egoten lagunduta. Artigasen kasuan, urtegieta bezala mendiaren ibarrak biltegia osatzeko baldintza egokiak dituztelako. Zabalgardiaren kasuan, lursail horretan utzita zegoen harrobi bat eta meatze bat zeudelako, hots, aurretiaz hondatua zegoen eremua zelako. Bestetik, biak ala biak daude hiritik (Bilbotik) nahikoa gertu eta urruti. Gainera, mendi magalak Bilboaldera ematen ez duenez, kokapena are egokiagoa (isolatuagoa, ezkutatuagoa) suertatzen da. Baina, Alonsotegirekin sortzen den harremana guztiz bestelakoa da, izan ere herri honetan izugarritzko presentzia dute biek ala biek. Hortaz, hiri-bazterren kontzeptuarekin lotura dute, nahiko zuzena, bazterrean kokatu egin direlako bi azpiegiturak, bertako (Alonsotegiko) kulturak eta biztanleak aintzat hartu gabe.

Artea Komertzio Guneak 1997an ireki zituen bere ateak aurretik ezaguna zen bertako zabortegearen alboan. Egun hura itxita dago eta lehenago kaioak bertan ibiltzen zirenean ez bezala, bere presentzia dagoeneko ez da apenas nabari. Artea komertzio-guneak arrakasta handia izan duela esan daiteke, irisgarritasuna bermatua izan duelako hasieratik, Uribe-Kostako ingurabideari esker eta inguruan garatu ziren etxebizitza ugarietako kontsumoari esker. Errepidearen eraikitzea komertzio gunearen eraikitzearekin bat etorri zen. Bestalde, inguruko nekazaritza jarduera edota etxebizitza auzoetatik irisgarritasuna, lehenago auzo bideetatik egin daiteke. Bide hauek ia ez dira ezagutzen, hain dira eta estuak.

Finagako Subestazioak martxan jarraitzen du. Eraiki zenean, eremua “Zona Libre” gisa kalifikatua zegoen eta Iberduerok, baimenik gabe eraiki zuen bertan. Hala ere, bere arriskua zela eta, herritik edo biztanleriarengandik isolatuta eraiki zenez gero, Gran Bilbao

Korporazioak (eskualde planaren burutzea kudeatzen zuen elkarteak) baimena berrestu zion Iberduerori. Isolatuta egote horrek baina, ez zuen haintzat hartu Finaga auzoko etxebizitza/baserriak ezta bertan dagoen ermitaren garrantzia ere.

80. Hamarkadako krisialdiaren eraginari aurre egiteko, SPRI Lurrek eremu bat erosi zuen industria sektorearen suspertzea indartzeko. Eremu hau aurretiaz erabilia edo eraldatua zegoen jada meatzaritza jardueren eraginez. Hots, bertako topografia guztiz antropogenikoa zen. Gainera, 1961eko planean ikusten den bezala, eremua “Zona de Reserva” gisa kalifikatua zegoen, garapen berezia izango zuelakoan babestua, nolabait. Aurrebaldintza honek industriagunearen garapena ekarri bazuen ezin da esan. Egungo egoran El Campillo industriagunea, beste bi fasetako zabalpenek handitua da. Bere presentzia fisiko eta bisuala nahiko indartsua da, gain batean kokatua baita. Urbanizazio maila eskasak eta errepideen malda gogorrek haren pertzepzioa negatiboa egiten dute eta batera barneratua ez dagoen eremua dela esan dezakegu. Planak zituen asmoak, bisten probetxua edota altueren zainketa etabar, tokitan geratu direla esan daiteke.

Lindane hondakinen aferak oihartzun handia izan zuen, kontrolatu gabe jaurtitzen zirelako edonon. Honen aurrean Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen Argalarion zelda hau eraikitzea. Urrutitik nabarmentzen da zabortegia estaltzen duen berdeguneko parterrek duten ‘ikurrin’ forma dela eta. Proiektuak bestelako asmoak zituen integrazio paisajistikorako, zuhaitzak landatuz etabar; hauek ez zirela aurrera eraman esan daiteke. 2013ko bisita azkar btean berdegune izaera baldin badu ere, ez du ematen oso toki irisgarria ezta erakargarria denik.

Agiriotan biltzen diren elementuak tipikoak dira hiri-bazterreko edozein paisaiean, eta hiriarekiko distantzia erlatiboa izaten dute normalean kokapenaren aukeraketa irizpide nagusia; hots hirigunetik urruti bezain gertu egotea da helburua, ahal bezain kalte txikiena eragiteko, edota zerbitzua ahal bezain eraginkorra izateko. Beste ezaugarri bat, hiri bazterrean ematen diren elkartruke jarioak dira, energiaren, salgaien, baliabideen sartu-irtena hiri bazterrean gertatzen den prozesu karakteristiko bat da, azpiegitura eta zerbitzu sareek bermatzen duten irisgarritasunari esker.

4. Mendi Berdea

1.D.Idea: Berdearen babesa aisialdiaren bidez.

Postura ekologikotik, baita gizarte ongizateraenetik ere, mendiaren alderdi ekologikoak eta aisialdizkoak mantendu, babestu eta sustatzen ditu ikuspegi honek. Batik bat, gizakiaren onerako diren helburuak, naturaren onerako ere badirenak, dira Mendi Berdea Ikuspegiarenak; esaterako, mendietako berdeguneak hiriguneeekin lotzea eta eremu horietara sarbidea erraztea eta hobetzea (MBe.4, MBe.5, MBe.6, MBe7). Alabaina, aisialdia eta ekologiararen arteko kontraesanak eta bateraezintasunak ez dira gehiegi azaltzen, eta orokorrean, eremu

berdeen irabaziak eta onurak baino ez dira aldarrikatzen nahiko modu lausoan, planaren edo dokumentuaren argitaratzeak berak helburu hori beteko balu bezala, edota ezaugarri “naturalen” babesaren bidez edo inpaktu bisualak gaitzetsiz.

Horrezaz gain, mendiari eragin liezazkiokeen kalteen inguruko aipua kontzeptualki traketsak direla esan daiteke, nahiz ikuspegi ekologistatik egiten diren. Adibide gisa, paisaiaren kontzeptualizazio bisual hutsalak daude; baratza txikiek edo kableleriak sortzen dituen inpaktu bisualak aintzat hartuta. Bi argumentu horiek Pagasarriko Plan Berezian (MBe.5) jasotako adibideak dira. Bilboko Eraztun Berdeak (MBe.6) berriz, hiriak irabazi dituen espazio berdeen hazkundean nabarmentzen du, berdeguneren garrantzia modu kuantitatibo baten bidez adierazia, eta ezaugarri kualitatiboak batere landu gabe.

Bilboaldeko Gerriko Berdean (MBe.7) , hainbat geruza aipatzen dira, baina beraien artean inolako kohesiorik edo loturarik gabe. Egitura falta bat sumatzen da paisaiaren irakurketan; hots, hainbat funtzio eta formen arteko harremanak oinarri dituen paisaia osatua . Horrezaz gain, aspektu batzuk soilik aintzat hartzen dira, berdeguneekin eta kulturarekin zerikusia dutenak, alegia. Bilboaldeko Gerriko Berdea, ez da horren berdea bertan kokatzen diren azpiegitura eta eraikinak erreparatuz gero. Gainera, berdetasun hori baso landatuei eta zelai abandonatuei zor zaiela esan daiteke. Hortaz, elementu eraikien eta bestelako naturen hautu partziala egiten da Gerrikoa definitzerakoan. “Berdea” hitzaren erabilerak ere, gaindosi metaforikoa eragiten du, zehazki zer esan nahi duen argi ez baitago.

Mendiazletasun goiztiarrak bestalde (MBe.2), mendiaren eta kirolarien irakurketa morala egiten du, Pyrenaicako artikuluetan ageri den bezala; mendia eta mendizaleatasuna, espiritualtasun eta gizatasunarekin, baita balore etiko egokiekin eta gizatasunarekin lotzen dira. Gainera, hiriaren aurkako gune gisa adierazten da hura, bere egoerarik baliotsuenenak, nahiz gero hiritartua den mendia edo ertzaren zantzu bat ere aipatzen den. Egungo mendizaleatasunak, ekologiak eta moralak natura-mendia ikuspegiaren arteko nahaste bati eusten dila esan daiteke Mendizaleatasunaren tresnak diren mapak ere ageri dira; mendiaren formak eta zerbitzuak, eta informazio praktikoa ematea oinarri duten dokumentuak . Orientaziorako sortuak diren dokumentuok, batzuek besteek baino gehiago, oinarri dute mendiaren izaera heterogeneoa, nahiz geomorfologikoa, erreferentzia orientatibo gisa hainbat elementu natural zein antropogeniko erabiliz.

2.D.Irudikapena: Dena ez da mendia.

Mendi Berdea hainbat modutan adierazia ageri da, eta garapen bat nabari da historian zehar, teknofiliatik teknofobiara daramana. Artxandako Proiektuak, elementuak gehitzen dizkio mendiari. Horrela, eraikinak eta garraibide bat, parke berri baten diseinuari lotzen zaizkio ezinbestean. Hainbat funtzioaren konbinazioa azaltzen da hemen inolako lotsarik gabe

hiri bazterreko mendi paisaia bat osatuaz. Agian garai hartan ez zegoen orain dagoen bezalako teknofobiarik? Esan beharra dago, 1910eko garaian, Bilboaldeak oraingoaren bestelako itxura zuela eta hain garatua ere ez zegoela. Nolanahi ere, mendia, hiriaren aurkako eremu gisa ulertzen zela esan daiteke, gaur egun bezalaxe, hurrengo agirietan ikusiko den bezala.

Planek proposamenak egiten dituzte analisi baten ondoren, eta analisi horrek normalean kaltegarritzat jotzen ditu gauza batzuk (baratzak, landare espezie kanpotarrak, azpiegiturak, zerbitzuak etab.) bisualki talka handia dutelako, edota potentzialki onuragarriak edo interesgarriak direlako (bioaniztasun aberatsa, begetazio klase bat, uraren presentzia, nekazaritza eremuak, zelaiak, parkeak). Elementu guzti horien bidez irudikatzen da mendia.

Beste dokumentu batzuek, berriz, mendizaletasunarekin eta honen praktikarekin zerikusi zuzena dute: mapek (MBe.3 eta MBe.9) esaterako. Hauetan orientaziorako eta paraje horietan ibiltzeko informazio praktikoa eta zehatza biltzen da, txangoari lagunduko diona. Mendiaren morfologia aipatzen da batik bat. Bilboko Eratzunaren Berdearen (MBe.6) kasuan berriz, erabilgarritasunaz gain (hau zalantzarria bada ere), modu kuantitatiboan aldarrikatzen da Bilboren eremu berdeen azalera, ugaritasuna adierazteko nahia izan dezakeen moduan, berdeguneen ezaugarriak erreparatu gabe.

Kuantifikazioaren bidetik, Bilboaldeko Gerriko Berdearen mapak ere hori egiten du, identifikatu eta kokatu. Bestalde, esan beharra dago, ikuspegi zabalagoa duen dokumentu horretan, mendian kokatuak dauden hainbat eta hainbat elementu ez direla aipatu ere egiten, paisaiaren irudikapen mugatu eta berdezale batek eraginda, agian.

Egun aipatzen ez eta arbuiatzen diren elementuak, antzina ere arbuiatzen zirela esan beharra dago. Pyrenaicako bigarren artikulua azaltzen duen bezalaxe, Bilbo inguruko mendietan gora joaterakoan, bidean hainbat elementu hiritar eta mendikoak ez direnak topatuko dira bertan: azpiegiturak, kableak, kedarra, eraikinak baita gizartetik 'kanpo' daudenak ere. Horiek ez dira mendi-mendiaren ideia osatzen duten elementuak (naturala, garbia, espirituala eta hiriaren bestelakoa), baina hala ere, Bilboko mendietako egoera dela onartzen du egileak.

Dokumentu hauetan, kokapena beti da mendia bera, nahiz Bilboko edo Bilboaldekoa, espresuki adierazia agertzen da. Esan bezala, dokumentuaren helburu zehatzen arabera, elementu batzuk aukeratzen dira adierazpen lanetarako.

Maiz (kasu guztietan ez, MBe.1, MBe.3 eta MBe.8-n izan ezik), Ikuspegi Berdearen ondorioz, berdeak, naturalak eta kulturalki interesgarriak EZ diren elementuak ez dira azaltzen mendia irudikatzerakoan. Hortaz, Mendi Berdearen Ikuspegia berresten da, mendialdea berdea eta naturala soilik bailitzan adierazten, planifikatzen eta antolatzen delako.

3.D.Agentzia: Mendizaleak eta Administrazioa.

Mendi Berdearen Ikuspegia ilustratzen duten agiritatik gehienak dira Kanpoko begiradaren bidez eraikitako irudikapenak eta egitasmoak. Barnekoak kontsideratu direnak, mendizaleen eskarmentu eta tokiaren ezagutzarekin dute zerikusia. Juanjo San Sebastian mendizaleak idatzitako liburuak (MBe.8) Pagasarri mendiaren ezagutza sakona eta dimentsio anitzekoa erakusten duela esan daiteke, mendiaren inguruan izan diren historiako hainbat pasarterekin narrazio bat eraikiaz: pinu landaketak, Gerra Zibila edo Telesirga proiektua (Mendia Oztopo Ikuspegiaren baitan sailkatua) aipatzen ditu mendiaren balio anitzak adierazteko. Bestalde, Trianoko mendien eta Ganekogorta mendi multzoaren mapen (MBe.3) egileek, antzeko ikuspegi eskarmentuduna adierazten dutela mendiota hainbat balio eta elementu aipatuz. Hala ere, Barneko begiradaren jatorrizko definizioarekin guztiz bat datozela ezin daiteke esan, lurraldearekiko harremanaren oinarrian ‘analogikoa’ dena baino ikuspegi jasoago bat dagoelako.

Ordea, gainontzeko dokumentuetan, mendiaren Kanpoko ulermen abstraktu eta mediatua nabariagoa dela esan daiteke, instituzioek aurrera eramandako egitasmo eta argitarapenak direlako (MBe.4, MBe.5, MBe.6, MBe.7 eta MBe.8), edota mendiaren ikuspegi erromantikoa nabaria delako (MBe.2). Artxandako proiektuaren kasuan (MBe.1) ere, mendi magala egitasmo bat garatzeko oinarri fisikoa besterik ez da.

Epistemologiari dagokionez, bi motatako begiradak nabarmentzen dira. Argi eta garbi da Subjektiboa Pyrenaicak egiten duen mendiaren irudikapena, mendizaletasuna eta mendia bera, ideario erromantiko bezain higienista eta moralistaren bidez deskribatzen eta goraiatzen baitu.

“En la cumbre de la montaña es donde el hombre se siente a la par y plenamente, su pequeñez y grandeza: su pequeñez insignificante, la medirse en la inmensidad armónica de la naturaleza, y su grandeza, al ver en libertad el alma que le emancipa de la animalidad y le acerca a Dios.”(MBe.1.a)

“...este montañismo aviva el amor a la Naturaleza, educa, forma, da conocimiento del País, toma contacto con “las gentes del agro, despierta ambiciones por ver otros lugares... desde el mirador natural e incomparable de la cumbre.” (MBe.1.b)

Objektiboak dira gainontzeko planak eta proiektuak, baita mapak ere mendiaren elementu zientifikoki neurgarriak eta gertakizun historiko errealak nabarmentzen dituztelako.

28 Taula MBe Dimentsioen arteko korrelazio taula

	Dok. Mota	Adierazpena	Agentzia			Elementuak						
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V	In-S
MBe.1	Proiektua	Grafikoa/Tes- tua		X	X	X			X		X	X
MBe.2	Artikulua	Testua		X	X			X	X		X	
MBe.3	Mapa	Grafikoa		X		X	X			X	X	
MBe.4	Lurralde Zatikako Plana	Grafikoa	X		X	X		X		X	X	X
MBe.5	Plan Berezia	Grafikoa/Tes- tua	X		X	X		X		X	X	X
MBe.6	Egitasmoa	Grafikoa	X		X	X		X		X	X	X
MBe.7	Web aplikazioa eta Txostena	Grafikoa/Tes- tua	X		X	X		X		X		
MBe.8	Liburua	Testua	X			X	X			X	X	
MBe.9	Mapak	Grafikoa	X		X	X		X		X		

4.D. Elementuak: Burutzen ez den mendia

Paisaiaren eraikuntza mota interpretatzerakoan, mendizaleek sortutako agiriak paisaia Bizitu bat eraikitzen dutela argi dago. Nahiz propositiboak ez izan, beraien deskribapen eta metaforek, mendiarekin duten harreman estua eta egunerokoa nabaria da. Tokiarekiko azaltzen den identifikazioa eta loturak ere eragiten du mendi Bizituen eraikuntza (MBe.3 eta MBe.8).

Paisaia Politikoak dira aldiz, Lurraldea Antolamenduak proposatzen duen sare berdea, horren oinordekoa izan daitekeen Bilboaldeko Gerriko Berdearen txostena, Bilboko Eratzun Berdea eta Pagasarriko Plan Berezia eta BFAren Gailurren mapa sorta bezalaxe.

In visu da Mendi Berdearen paisaia, batik bat, irudikapenak eta planifikazioak direlako nagusi agirien artean. Mendia espazio berde gisa bertatik bertara garatzen duten agiriak urriak dira. Bilboaldeko mendien irudikapen berde naturala fisikoki garatu duten egitasmo eta planak urriak izan dira. Hau deigarria da, izan ere, lurralde antolamendu zaharrenek formulatu duten zonifikazio, klasifikazio eta egitasmoen arabera mendiko espazioari parke eta aisialdi kutsua ezarri izan diote.

Mendi Berdea eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren eraikuntza.

Agiri bilduman jaso egin dira Paisaiaren eraldaketan eskuartze zuzena izan duten hiru egitasmo: Artxandako parkea (MBe.1), Bilboaldeko Sare Berdea Zatikako Planean jaso den bezala (MBe.4) eta Pagasarriko Plan Berezia (MBe.5). Hala ere, ez dira Mendi Berdearen

irudikapena eragin duten eta mendiak horren arabera eraldatu dituzten dokumentu bakarrak, ezta gutxiago ere. Bilboaldeko mendiak espazio ireki berdea eta natural kontsideratu baitira 1923ko Bastidaren proposamentik eta ondoren etorri ziren frankismo garaiko lurralde planetan ere. Hala ere, nabarmengarria da zeinen gutxi proiektatu eta garatu diren espazio berdeak eta beraien kalitatearen eta diseinuaren egitasmoak ez du bideen markatzea, merienda mahaien eta jolasguneen kokatzea gainditu. Hemen aztertu diren hiru dokumentuek Bilboko lehen mendi-parkearen sorrera (Artxanda), eta Bilboko beste mendi ezagunenaren parke izaera garatzea ekarri dute, hala moduzko diseinu eta eraikuntza irizpide kaskarrekin (Pagasarri). Artxandako parkeak kasinoa galdu egin zion Gerra Zibilari, baina oraindik orain toki maitatua da eta funtzionatzen du; aurrekari nabarmengarria da Bilboaldeak mendiekiko izan dezakeen harreman hibridoan. Izan ere, proiektuan mendia aisialdiarekin eta hiritik alde egiteko nahiarekin lotzen bazen ere, hiriaren presentzia ez zuen ezeztatzen bertako zuzkidurek, jatetxeek eta azpiegitura ezagunak erakusten duten bezala. Faktoreen eta elementuen nahaste horrek, espazio esanguratsua eraiki du denboraren poderioz, hiri bazterreko lehen parke eredugarria bihurtuz.

Pagasarriko plan bereziak berriz, hiritik isolatuta dagoen eremu berde eta natural bat eraikitzeke nahia du. Baina aldi berean, kaltegarria eta onargarria denaren arteko bereizketa irizpide nahasia darabil. Izan ere, hainbat azpiegitura eta erabilera sozialen kaltean nabarmentzen dituen bezala, mendia zeharkatzen duen Hegoaldeko Saihesbidea, edota pista sare zabala oharkabea onartzen dira.

Mendietako espazioa ikuspegi Berdearen bidez eraldatu duen beste egitasmo bat da Bilboko Eratzun Berdearena. Honek hainbat ibilbideren bidez hiriko parkeak mendietan propio garatu diren aisialdi espazio berdeekin lotzen ditu. Gainera, Bilbo osoa inguratzen duen Grande Randonnée (GR) bat ere bultzatu da mendietatik igarotzen dena hein handi batean. Ondorioz, eta Pagasarriko Plan Bereziarekin batera, hainbat bide ireki eta ahalbidetu, seinalez adierazi, atsedene gune, umeentzako jolas gune eta 18.500 zuhaitz landaketa egin dira³⁰. Bilboko udalaren esanetan, egitasmo honi esker hiriko biztanleen eta espazio berdeen arteko indizea izugarri handitu da, baina kuantifika daitekeenaz gain, esan daiteke hiri bazterreko espazio horien izaera berdea asmo lauso bat besterik ez dela, kontzeptu paisajistiko eskasetan oinarritua. Ikuspegi honek eraikitzen duen mendia oso partziala dela esan daiteke, fisikoki zatikatua eta kontzeptualki zalantzarria.

Lurralde mailako parkeak hiri bazterreko paisaietako ohiko elementuak dira (Gallent et al., 2006). Bilboaldean mendiak hiriaren ertz eta muga baita berdegune emanak bezala ulertu egin dira plangintzan (Bilbao, 1943; País Vasco et al., 2008; *Plan General de Ordenación*

30 Datuak zehatz mehatz Bilboko udalaren web-atari honetan konprobatu daitezke: http://www.bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&cid=3000064827&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_contenidoFinal

Urbana de Bilbao y su comarca, 1964). Berriki egin diren proposamenek berdeguneen sistemak sare (País Vasco et al., 2008) edota gerriko forman (Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua, 2011) aurreikusten dituzte, nolabaiteko hiriaren eta naturguneen arteko lotura indartzeko asmoz. Gerrikoen kasuan bereziki, ertzaren kontzeptua indartzen da, hiria inguratzen duen (eta mugatzen) duen espazio berdea aldarrikatuz.

5.1 Mendia Bizileku Formala

1.D.Ideia: Bilboko magalen onurak.

Lorategi-hiri ereduko bi proiektuek (Ciudad Jardin eta Buena Vista) garaiko Europako beste herrialde industrializatueta eraikitzen zen hiri-ereduaren bertsio bat egitea zuten helburu, hiritik kanpo baina landatik gertu egoteak (komunikazioa, lana, aisia, zerbitzuak) ematen zituen onurak (kedarrik gabeko airea, landarediaz inguratuta egoteko eta baratza edo lorategia etxearekin lotuta izateko aukera...) izateko modu baten hautatuz: 20. Mende hasierako Bilbon hegoaldera begira zegoen Artxandako magala zen toki aproposetako bat.

Etxebizitza auzoetako Ikuspegi higienistari jarraiki, hiritik kanpo, baina gertu, hezkuntza eredu moderno honen erreplika edo bertsioa egitea zen helburua. Mende hasieran, ziur aski, industrializazio ilustratuaren hiri-ereduak eta hezkuntza teoriak aplikatzea izan zen joera. Horretarako, etxebizitzaren kasuan bezala, mendi magalek ziren toki aproposak eskola eredu horiekin esperimentatzeko.

Bilboko populazioak eztanda egin zuenean eraikitako etxebizitza ereduak (MBiF.4 eta MBiF.6), bata bestea baino zainduagoan, eskari horri aurre egiteko eraiki egin ziren, baina baita negozioa egiteko ere, beste hainbat kasu bezala. Monte Aldamiz-MBiF.6 promozioak mendiari kasu gehiago egiten dio arkitekturaren eta diseinuaren ikuspegitik; besteak aldiz, Altamirakoak, izenaz egiten du lotura eta maldan egoteak sortzen dituen eraikuntza arazoak promotoreen onurarako izango zen aprobeitxamenduaren handitzearekin konpondu zituen.

Hezkuntza eta mendia lotzen dituen hainbat eredu eraikitzeko beste bi dira hauek, Eskola Alemaniarrak eta Askartza Claret Ikastetxea. Bata Bilboko hiri erdian, bestea Bilboaldeko mendi magaletan. Bi ereduak adibide ugariarekin irudikatu daitezke. Bilboaldean zehar kokatuak dauden hezkuntza zentru gehienak hegoaldera begiratzen duten magaletan kokatuak baitira: unibertsitate kanpusak nahiz eskola pribatu erlijioitsuak, ikastolak edo eskola publikoak. Eta, zehazki Bilbon, Artxandako magalean aurkitzen dira eredu asko eta asko, publikoak nahiz pribatuak: Eskola Frantsesa, Vizcaya eskola, Kirikiño ikastola, Begoñazpi Ikastola etab.

MBiF.8 Mirador promozio berantiarra, arkitektura aldetik modu abegikorragoan egina dago, diru gehiagorekin alegia. Kontzeptuak argiago daudela esan daiteke, eta gizarteko perfil konkretu bati begira eraikitakoak dira, bezeroak sustatzaileak beraiek ez baldin badira.

Hemen ere aprobetxamendua handia dela esan daiteke, eta hortaz, espekulazioa ere handia.

Etxebizitzek hasieran zuten ingurumenarekiko lotura zuzena, baratzek eta lorategiek ahalbidetua, urteak aurrera doazela galdu egiten dela esan daiteke. Hala ere, Bilboaldean 1990 inguruan eraiki ziren dentsitate baxuko promozioek, espazio komunen alde baino, lorategi pribatuen alde egin zuten hasierako lorategi hiriekin antzekotasun batzuk gordez. Etxebizitza eredia eta estiloa aldatu egin bada ere, mendiek edo landa-eremuek bizilekurako duten erakargarritasuna ez da agortu. Ikuspegi ekonomikotik etxebizitza eskari batek motibatu baditzake ere, esan beharra dago, promozio berri gehienek naturarekin, askatasunarekin, eta aldi bereko hiriarekiko irisgarritasun eta komunikazio eskaintzarekin erakartzen dituztela erosleak.

2.D.Irudikapena: Plano topografiko estandarreko mendia.

Mendiaren irudikapen grafikoak ez dira batere bereziak, denek darabiltelako plano topografikoa, garaiko tekniken arabera marraztua. Maiz partzelazioak edota jabeen izenak azaltzen dira kokapenaren irudikapenean. Mendiaren irudikapen denetan bereziena agiri hauen artean, teknikaren aldetik, bederen, Artxandako Aire-Libreko eskolaren akuarela eta pastelak dira. Irudikapenetan zehatzena edo teknikoena berriz, Askartzako plano takimetricoa. Bestalde, ebaketak ugariak dira, eraikinak beraien artean dituzten oinezko edo errepidezko loturak eta zimentazioak adierazteko, Buena Vistako eredian azaltzen den pasealeku interesgarria, kasu, auzo berria Deusturekin lotzeko balio zuena (MBiF.2). Eskola Alemaniarrereko eraikinen arteko loturak ere garaiko arkitektura joeren adierazgarriak dira, eta maldari egokitzeko tresna interesgarriak dira (MBiF.5). Zentzu berean, Askartza eskolako pasabideak ere malda eta arkitekturaren arteko lotura gogoangarri baten adibideak dira (MBiF.7)

Askotan aipatzen den beste irudikapenak mendian egoteagatik lortzen den bista ederra, eguzkitzapen osasuntsua eta Bilboaldeko haize nagusiengandiko babesa dira. Hala, mendi magala ederra, osasuntsua eta babestu bezala irudikatzen da.

3.D. Agentzia: Pribatua, Kanpotarra eta Objektiboa.

Tokiarekin harremana Kanpoko distantziaren bidez egiten dute gehienek. Nahiz eta estilo baserritarra erabili arkitekturari dagokionez edota baratza moduko bat proposatu proiektuetan, ez dute sustatzaileek lurrarekin harreman berezirik, hura erosi egin baitute. Artxandako eskolan ingurumen baldintza idealak bilatzen dira proiektuaren egitasmoaren onerako. Beste etxebizitza promozioetan, maldako lurzoruarekin etekin ekonomikoa lortzea bilatzen da etxebizitza aprobetxamendua handituz. Beste bi eskolen kasuan ere, lurzoru salerosketa batek ahalbidetzen du kokapena bertan, landa-lur merkea ziur aski.

Epistemologiari dagokionez, denak dira Objektiboak, izan ere lurraldearen ezaugarri objektiboen bitartez ulertzen dute proiektua ezarri behar den lurzorua: arkitektura proiektuaren alderdi teknikoaren eskakizunek beharrezkoa duten ikuspegi objektiboa.

Ordea, zenbait proiektuetan alderdi Subjektiboak pisua hartzen du. Izan ere, lurzorua ulermena eta irudikapena egiterakoan, artifizio estetikoaren bitartez, erabiltzailearen/biztanlearen gozamenerako izango diren ezaugarriak identifikatzen dituzte: eguzkitzapena, haizetik babesa, ikuspegi-bistak, landaredia, lorategia eukitzeko aukera, airearen garbitasuna eta abar.

29 Taula MBiF Dimentsioen arteko korrelazio taula.

	Dok. Mota	Adierazpena	Agentzia					Elementuak				
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V	In-S
MBiF.1	Proiektua	Grafikoa	x	X	X	X	x	X	X	X	X	X
MBiF.2	Proiektua	Grafikoa	x	X	X	X	x	X	X	X	X	X
MBiF.3	Ptoiektua	Grafikoa/Tes- tua		X	X	X	x	X		X		
MBiF.4	Proiektua eta Txoste- na	Grafikoa/Tes- tua	x	X	X	X		X	X	X	X	X
MBiF.5	Proiektua	Grafikoa/Tes- tua		X	X	X		X	X			X
MBiF.6	Proiektua	Grafikoa/Tes- tua	x	X	X	X	x	X	X	X	X	X
MBiF.7	Proiektua	Grafikoa/Tes- tua		X	X	X		X	X	X	X	X
MBiF.8	Proiektua	Grafikoa/Tes- tua		X	X	X		X	X	X	X	X

4.D. Elementuak: Bizileku Antolatuenak.

Eraikitzen den paisaiaren izaera, Jacksonen irizpideen arabera, batik bat Politikoa da. Izan ere, etxebizitza sustapenak dira, etekin ekonomikoak lortzeko aterabideak, edota gizartearek mesede egiteko egitasmo paternalistak. Halaber, esan daiteke, paisaia Bizituak ere eraikitzen direla, batik bat etxebizitza promozioen kasuan, eta bereziki espazio publiko komunak eta landuak dituztenen kasuan: Lorategi hiriak, Altamira eta Monte Aldamiz. Eskoletako kasuak ere pasiaia Bizituak eraikitzen dituzte, egunerokotasunean eta umeenenean bereziki, hain garrantzitsuak direnak.

Aztertutako eredu hauetan, paisaiaren eraikuntza bikoitza edo Artealizazio bikoitzaren eredu garbiak dira: paisaiaren eraikuntza egiten baita *in-Visu* edo agiritan, eta ondoren, bertatik bertara *in-Situ* eraikitzen dira.

Ikuspegi honek eragin dituen eraldaketak nabariak dira eta Bilboaldeko mendietako paisaiaren ezaugarri nagusia dira. Ciudad Jardín promozioa egun hiriak barneratu egin du, nahiz eta ekosistema txiki baten tankera duela esan daitekeen. Buena Vistak ordea, muino baten gainean egoteagatik, hiritik aparte egotea lortu du aurreko auzoak ez bezala. Bi auzo hauen tankerako eredu ugari dago Bilboaldean, gehienak hiri ehunak eta inguruan gerora eraiki ziren dentsitate altuagoko etxebitza bloke auzoek irentsi edo barneratu dituzte, hasieran zuten kutsu isolatua desagerraraziz.

Altamirako etxe sustapenak arazoak izan zituen nahi beste etxe egiteko, izan ere errepedea garestiegia atera omen eta aprobetxamendua igo nahi izan zuten promotoreek. Alabaina, udaletxetik, estetika arazoak argudiatuz, dorreak hobeto antolatzeke eskatu zieten. Monte Aldamizeko dorreak oso irisgarritasun maila eskasa dute gaur egun, nahiz eta maldarekin lotura interesgarrien arabera diseinatuak izan hainbat eskilara, arrapal, zubixka erabiliz. Mirador etxetaldea, eraikin talde garbi eta interesgarria dela esango nuke, ondo txertatua, baina dentsitate altuegikoa agian.

Artxandako eskola esperimentalak porrot egin bazuen ere, magal horretako eskolen ezarpena ugaritu egin zela esatea zilegi da, Alemaniako eskola bezala edo beste kasu askotan bezala. Askartzaren kasuak ere antzeko irizpideak jarraitu zituen eta Bilboaldeko mendi magaletan esixtitzen diren garai berean eraikitako hainbat eskoletako bat gehiago da.

Mendi Erabilgarria eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren Eraikuntza.

Zein da proiektu guzti hauek hiri bazterren kontzeptuarekin eta eraikuntzarekin duten harremana?

Bada kasu batzuetan, kontzeptu aldetik lotura zuzena da, Lorateg Hirien edo auzoen kasuan bezala.: hiritik aparte eta ahal bezain gertu egoteak ematen zien baldintzek bultzatuta eraiki ziren, hots, hiri bazterren ezaugarri nagusi batek bultzatuta. Arkitektura aldetik ere, estiloa eta apaingarriek baserri giroa gogorarazten dute, hiri bazterrean maiz suertatzen den aukeraketa berau: landa lurreko izaera da indartzen dena itxura aldetik, funtzionamendu aldetik mistoagoa edo hiritarragoa den auzo bat eraikitzeke.

Hiri bazterrak hiriaren fatxada eta apaingarria izateko bokazioa nabarmentzen da Altamirako etxeen kasuan, udaletxeak emandako gomendioak gogoan hartzen baldin badira: kasu honetan ordea hiri kanpotik egiten den hautemateari baino, barnetik egiten denarekin du zerikusia. Hau mendialdeko bazterreko paisaiaren ezaugarri berezia dela esan daiteke.

Beste kasuetan, hiri bazterren kontzeptuek ez dute eraginik proiektuan: MBiF.5, MBi. F6, MBiF.7 eta MBiF.8 kasuetan bezala. Baina Bilboaldeko hiri bazterren eraikuntzaren parte hartzaile fisikoak direla argi dago.

5.2 Mendia Bizileku Informala

1.D-Idea: Egunerokotasun kaltegarria.

Lurraldearen garapen informala burutzearekin lotura duten dokumenturik ez dugu topatu. Esan bezala, aztertutako agirien, lurraldearen izaera informal hori dokumentatzeko (MBiI.2, MBiI.30, eta MBiI.10), eta batez ere, formalizatzeko joera dute. Formalizazio hori erazupenaren eta ordezkapenaren bitartez aurrera eramaten da: Uretamendiko etxebizitzek (MBiI.1) eta Otxarkoagoek (MBiI.3) txaboletako biztanleria hartu zuten. Garaikideagoak diren ereductan, informalizazio horren erazupena baratz alegalen identifikazio eta eraispenak irudikatzen dute (MBiI.5) edota HAPO ezberdinetan ordenaziotik kanpo dauden eraikinak erregularizatzeko legalizazio prozeduren bitartez (MBiI.7, MBiI.8, eta MBiI.9).

Esan daiteke, ondorioz, Mendia Bizileku Informala dokumentatu gabeko Ikuspegia dela; elementu eraikiek irudikatzen dute Ikuspegia, eta ez beste Ikuspegiak kasuetan bezala irudikapen edo errepresentazio idatzi edo grafikoek. Hala ere, mendiaren eraldaketa informalaren jatorrizko ideiak nolabait biltzen dituzten lehen eskuko testigantzak jasotzen dituzten agiri apur batzuk badira, Otxarkoagako biztanleak txaboletan bizi zireneko oroitzapenen bidez (MBiI.4), eta Masustegi auzoko biztanleen adierazpenen (MBiI.6) bidez.

2.D.Irudikapena: Agiririk gabeko mendia.

Aztertutako agirietan egiten den mendiaren irudikapena beti da bizi baldintza eskasen edota begibistako hautematearen ikuspegitik: eskasa, itsusia, gizatasunik gabekoa. Bilboren irudia kaskartzen dute eta gizatiarrak ez diren moduan bizi diren horien irudikapena. Kasu horietan, mendia kokapen gisa edukitzeak ez du inoiz garrantzirik, ez bada, irisgarritasun gabeziak aipatzeko: lokaztutako bidea etab. Baratzei buruz hitz egiten denean, mendiko paisaiarengan duen eragin negatiboa da ardura nagusia (MBiI.5).

Irudikapen joerak garaika aztertuz gero, txabolen kasuan aldaketa bat eman dela antzematen da; hots, hasierako garaietan oso modu negatiboan irudikatzen baldin baziren eta haien desagerpena bazen helburu nagusia, egun, Masustegiren kasuan bezala edota Otxarkoagako testigantzak biltzen dituen dokumentalean bezala, txabola auzo horiekiko nostalgia zantzu bat adierazten da. Masustegiren kasuan bereziki, honen xarma, bizikidetz, baserri giroa, kokapen pribilegiatua aipatzen dira. Izan ere, auzo hau Bilboko gunetik gertu dago, baina beste giro lasaiago bat izateko bezain urruti, eta maldan egoteagatik ikusmira ederra dago bertatik. Beste aipamen garrantzitsu eta positibo bat da Masustegikoek auzoa antolatu eta eraikitzeke antolamenduaren, auzolanaren eta bizikidetzaren eredua.

Orokorrean, ez dago agiririk bizileku informala garatzeko asmoarekin lotura duenik. Hots, espazio errepresentatibo edo Bizitu hauek, emaitza eraikien dokumentazio bidez irau

dute. Ez dago jakiterik nolakoa zen txabola eraiki zuten haien espazioaren kontzepzioa edota pertzeptzioa.

Espazio Bizitu informal hauen dokumentazio eza, haien garapen autonomo eta inprobisatuari zor zaio. Tekniko, Politiko eta administrazio gabeziaren eraginez, dokumentatu gabeko asmo sortak dira, materialtasun eraikiaren bidez iraun dutenak.

Baratzen kasuan, hauek ere suntsitu eta desagerrarazteko objektuak dira. Honetarako joera, berriagoa da, Pagasarriko Plan Berezian ageri den bezala. Norberaren bizirautearekin eta aisialdiarekin lotura izan dute betidanik, baina oraintsu hasi dira haien izatea kritikatzeko, batik batik, administrazioaren paisaia-ideia eta garapen ekimenei bidean azaltzen direlako, eta batik batik Mendi Berdearen ideiarekin talka egiten duelako.

3.D. Agentzia: Kanpotarraren paternalismoa eta egokiera.

Dokumentatu gabe dagoen Ikuspegi hau aztertzeko erabili ditugun agirien Agentzia Kanpokoa da kasu guztietan, bitan izan ezik. Kanpotarra da izan ere, esan bezala, mendiaren eraldaketa informalean egitasmoak – txabola baten eraikuntza edo baratza baten proiektua — egileak ez diren beste agente batzuek dokumentatu eta salatzen dituztelako. Agente hauek, garapen informal horien ekintzan zerikusirik ez dute, ez baitaude inplikaturik ‘informalitatearen eraikuntzan’ eta sozialki beste maila batean egon daitezkeelako. Kasu nabariena da txabolena: txabolak beren biztanleek eraiki zituzten, baina administrazioak edota erlijio elkarteek identifikatu eta eraitsi zituzten bizi baldintza egokiagoak bermatzeko. Kasu horietan, kanpoko begirada Objektiboa da, izan ere, bizi baldintza eskasak hobekuntza higienikoa dakartzan egitasmoaz ordezkatzeko da txabolako bizitegia. Beste eredu batzuetan txikiena da; hemen ere administrazioak horiek eraistea hobesten du kanpoko begirada dela medio. Hemen ere, paisaia begirada subjektiboa ageri da, haren irudi estetiko ideal batek eragiten diolarik baratzen erauzpen irizpideari.

Subjektiboa, eta barnekoak kontsideratu daitezkeen beste agiri bi daude: Otxarkoagako familiek egindako dokumentala, eta Masustegiko biztanleen adierazpenak. Horietan, txabola bizitegi-tako giroaren nostalgia eta oroi-minaren modukoak nabari dira, baserri giroko paisaiaren idealizazioak kutsatutakoa Otxarkoagako eta Masustegiko begirada subjektiboaren oinarri da. Masustegikoek gainera, barnetik ezagutzen eta kontatzen dute magal hura nola eraiki zuten elkarlanean, eta egun batetik bestera.

30 Taula MBil Dimentsioen arteko korrelazio taula

	Dok. Mota	Adierazpena	Agentzia								°Elementuak			
			Pu	Pr	K	B	O	S	Po	Bi	In-V	In-S		
MBil.1	Proiektua	Grafikoa		X	X		X		X		X		X	
MBil.2	Argazkiak	grafikoa		X	X		X		X		X		X	-
MBil.3	Film laburra	Bideoa	X		X		X		X		X		X	-
MBil.4	Film laburra	Bideoa	X			X		X		X		X	X	-
MBil.5	Plan Berezia	Grafikoa/Idatzia	X		X		X		X		X		X	X
MBil.6	Berriak	Idatzia/audioa		X	X	x	X	x	X	x	X	x	X	-
MBil.7	HAPO	Grafiko/Idatzia	X		X		X		X		X		X	X
MBil.8	HAPO	Grafikoa/Idatzia	X		X		X		X		X		X	X
MBil.9	HAPO	Grafikoa/Idatzia	X		X		X		X		X		X	X
MBil.10	Liburua	Idatzia	X		X		X		X		X		X	-

4.D. Elementuak: Paisaia Bizituen politizazioa.

Esan bezala, Mendia Bizileku Informalaren Ikuspegia ez dago dokumentatua beren-beregi. Agriotan azaltzen dena, informalitatearen erregulazio ikuspegi bat da, eta hortaz, eraikitzen diren paisaiak Politikoak dira guztiz.

Politikoa izan ohi da Kanpotarraren begiradarekin harremana izaten duen paisaia . Kasu honetan, Masustegiko biztanleen adierazpenak Barneko begiaradaren ordezkari bihurtu ditugu. Hala ere, testigantza horiek jaso ziren berri baten hariari jarraituz (hots, Masustegiko lurzorua Bilboko udalak 2011an erosi zueneko notizia) jakin da Masustegi auzoaren erregularizazio prozesu bat eman dela, hots, Politikoa (zentzu antolatu ofizialean eta formalean) bilakatu dela, jatorrian guztiz Bizitua zena. Berdina gertatzen da, Meatzaldeko herrietako HAPOek ordenaziotik kanpo dauden eraikinrentzako ezartzen dituzten irizpidei tekniko erregulatzailerekin, paisaia informala, Bizitua, Politikoa bilakatzen dute. Noski, hau praktika estandarra da edozein udaletxetan.

Mendi Erabilgarria eta Hiri-Bazterreko Paisaiaren eraikuntza.

Bildutako agiriekin eragin duten paisaiari buruz, hitz batzuk bildu dira hurrengo lerroetan. Uretamendiko Etxebizitzak eraiki egin ziren, eta egun Errekaldeko auzo bat gehiago dira, atzetik etorri baitziren beste hainbeste etxebizitza bloke. Beste plan eta egitasmoei buruz, ezer gutxi esan daiteke, berriegiak direlako, eta ez delako konprobaketarik egin zenbateraino burutu diren planen asmoak ordenaziotik kanpo dauden eraikinen legalizazio prozedurei dagokionez.

Ikuspegi Informalaren oinarrian dagoen paisaia, dokumentatu gabea denez gero, *in-Situ* eraikia dela esan daiteke batez ere. Paisaia informalaren eraikuntza fisikoaren aurreko *in-Visu* eraikuntzarik existitu denik ezin daiteke esan, agente horien asmo, ideia eta diseinu sorta dokumentaturik ez dagoelako.

Dena dela, agiriok eta ikuspegiak Hiri Bazterreko paisaiaren kontzeptuarekin zein zerikusi dute? Egoera informalek, hiri bazterren esentzia direla esan ohi da, batik bat gizartearen ekintza inprobisatu eta irregularrei dagokienez. Hots, garapen arautugabeek paisaia informal bezain bizitua osatzen dutela. Eta bizitiasun hori ere bazterren parte dela, onartugabea edo dokumentatugabea den heinean. Bildutako agirik, informalitate hori deuseztatzea dute helburu. Esan daiteke beraz informalitatearen formalizazioak, hiriaren gobernuaren hedapena dakarrela, hirigintzaren zein hiriaren zabalpenak hain zuzen ere.

10.4 Ondorioa

Atal honetan, Bigarren Eszenako lehen ekintzan egin den Artxibo lanaren eta agirien analisiaren emaitzak interpretatu egin dira. Interpretazio hori 10.3 azpiatalaren hasieran emandako dimentsio bakoitzeko irizpideen arabera buruta da. Hots, literatuaren berrikuspenean jasotako paisaiaren kontzeptualizazioa jasotzen duen Paisaia-Ikuspegi tresnaren dimentsioak osatzen dituzten oinarri teorikoak erabiliz. Horien arabera, 2., 3. eta 4. dimentsioen ezaugarriak interpretatu dira, agiri bakoitzeko eta Paisaia-Ikuspegika sailkatuta.

Lehenengo Dimentsioaren garapenaren gainbegiratu bat ere egin da, PI bakoitza nola garatu den azaltzeko. Gainera, 4.D Elementuen kasuan, PI konkretu horretako aztertutako elementuek Bilboaldeko HBParí nola eragin dioten ere aztertu egin da.

Atalaren hasieran, dimentsio bakoitzaren interpretaziorako irizpideak aurkeztu egin dira. Hurrena, Ikuspegi bakoitzeko, dimentsio bakoitzaren irakurketa aztertu egin da. Ekarpenen aurrerapen modura, Dimentsioen artean ematen diren elkar-loturak aurkeztu egin dira Ikuspegi bakoitzaren atalean txertatutako taulatan.

Orotara hurrengo loturak eta joerak antzeman egin dira Bigarren Eszenan zehar: Dimentsioen barnekoak, baina baita Dimentsio artekoak, eta Ikuspegi artekoak ere. Gainera, ekarpen gehigarri gisa, agirien analisi eta interpretazioaren bidez identifikatu diren beste paisaia ideia edo Perspektiba eranskinak ere identifikatu egin dira.

Interpretazio atalean topatu diren emaitzen laburpen modura, hurrengoak aipatuko dira. Hasteko, Ideia Dimentsioari dagokionez, gehienetan agiriak bat egiten dute Ikuspegiaren ideia orokorrarekin. Hala ere, hiru Ikuspegiaren kasuetan, aldaera batzuk ematen dira. Mendi Tradizionala eta Mendia Bizileku Informalaren kasuan, eta Mendi Oztopoaren kasuetan espekulazio bidez tesiak proposatu duen oinarritzko Ideiak ez dira agiritan islatzen. Bestalde,

Ikuspegi ezberdinen arteko Ideien arteko loturak ere topatu dira. Gainera, Ikuspegiaren oinarritzko Ideiaz gain, ustekabeen, beste batzuk ere topatu egin dira. Azken bi aurkikuntza hauek, hurrengo atalean azalduko dira modu xehetuagoan.

Irudikapen Dimentsioaren kasuan, joera nagusia irudikapenen eta agiriaren helburuaren arteko lotura da. Hots, mendiaren edo kokapenaren irudikapena egin beharrean proposatzen den elementuaren edo egoeraren ilustrazioa lanak egiten dituzte irudiek. Bestalde, Irudikapene adierazten ez dutena aintzat hartuaz, PI-aren indartzea ematen dela esan daiteke, hots mendiaren ulerkera ertsi eta partzialen indartzea.

Agentzia Dimentsioaren izaerari dagokionez, joerek begirada Kanpotarraren eta Objektiboaren lehentasuna adierazten dute. Amaitzeko, Elementuen Dimentsioaren kasuan, agiri gehienek, *In-Visu* eta *in-Situ* prozeduren arteko konbinazio bidezko eraikuntza adierazten dituzte. Gainera, elementuek adierazten dute, paisaia Politikoak direla gehien eraiki direnak.

Aztertutako agiritako elementuek garrantzi maila ezberdina dute Bilboaldeko Hiri Bazterreko Paisaiaren eraldaketan. Fisikoki duten presentzia batzuen bestea baino nabariagoa baldin bada ere, ia ez da Hiri Bazterrearen kontzeptuarekin lotura duen asmorik topatu agiritan. Hiri Bazterrearen kontzeptua beren diseinuan barneratzen duten kasu nabarmenenak lorategi-hirien etxebizitza garapenak dira. Hala ere, Elementu guztiak dira Bazterreko Paisaiaren osagaiak, eta bere izaera osatzeko baliagarriak. Hots, aztertutako elementu guztiak dira HBPararen eraikinean piezak, materialak zein kontzeptualak.

Orain arte metodologiaren aplikazioaren jarraipen komentatu bat egin da, hots Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuen kasuan Ikuspegi Tresnaren bidezko interpretazioaren kasua azalduz. Ondorengo atalean, aplikazio kasu honen ekarpenak eta gabeziak eztabaidatuko dira.

11.0 ATALA. Emaitzak eta Eztabaida

Ikerketa honen bidez bazterreko paisaien ulermenerako tresna interpretatzaile bat egituratu eta landu egin da. Horretarako, hermeneutika eta interpretazioaren bidea jorratzen duen ikerketa aplikatu bat burutu da, eta, Paisaia-Ikuspegi tresna izenekoa diseinatu eta erabili da bazterreko paisaia konkretu baten—Bilboaldearen—kasuan. Paisaia-Ikuspegi tresna bi Eszena nagusitan aplikatu egin da, 1.go Eszenan Landa lanak eta 2. Eszenan Artxibo lanak burutuz. Lehenego Eszenan Paisaia Ikuspegi tresnaren interpretaziorako alderdi espekulatiboa jorratu da begi-bistako datuak oinarri hartuz, paisaia elementu ukigarriak, alegia. Jarraian, 2. Eszenak, agiriak erabiltzen ditu datu gisa; hots, paisairen eraikuntza ukiezinak. Agirietako informazioa Paisaia Ikuspegi-tako Lau Dimentsioen bitartez interpretatu da.

Interpretazio eta ulermena dira proposatu den metodoaren helburuak, hiri bazterreko paisaiaren izaera osatzen duten elementu eta ezaugarri berezitzaileak identifikatzeko. Horretarako, atentzio berezia eskaini zaio paisaiaren testuinguru soziokulturalari. Ikerketaren abiapuntua da paisaia eraikuntza soziokultural gisa definitzea, maila fisiko eta kontzeptualean eraikitzen den kontzeptua, eta hortaz fisikoki eraikiak dauden elementuez gain, horiek eragin dituzten irudikapenak—edo eraikuntza diskurtsiboak ere aintzat hartzen dira.

Ikerketa honen arrakasta eta ahuleziak, proposatutako tresnaren aplikazioan lortu diren emaitzen irakurketaren bidez antzeman daitezke. Hots, Paisaia Ikuspegiaren Tresna eta bere Bi Eszenatako aplikazioaren emaitzen arteko harremanak, loturak eta sortzen diren egiturak aztertuz. Tesi honen ekarpenik garrantzitsuenak Paisaia Ikuspegi tresna eta bi Eszenatan zehar egindako bere aplikazioa da. Bidean topatu diren arazoei kasu egiteak, proposatutako metodologiaren gabeziak eta behar dituen konponketak edo indartzeak identifikatzeko balio dezake, desiragarria den interpretazio metodo operatibo hori osatze aldera.


Atal honek II eta III Zatiaren egitura jarraitzen du modu orokorrean, eta ikerketaren bidean sortu diren ideiak eta ondorioak jorratzen ditu. Testuinguru teoriko eta metodologikoarekin hasten da, jarraian Paisaia Ikuspegi tresnaren originaltasuna eta balizko aplikazioak eztabaidatzen dira. Ondoren, ikerketa kasuaren egokitasuna aztertzen da, eta amaieran Paisaia Ikuspegi tresnaren aplikazioa, mugak eta lortutako emaitzak azaltzen dira.

11.1 Testuinguru teorikoa eta metodologikoa

11.1.1 Testuinguru teorikoa

2. eta 6. Bitarteko atalen helburua tesiaren testuinguru teorikoa nahiz metodologikoa ezartzean izan da ikergaiaren beharrak, genealogia, praxia eta metodologiak egokiro ulertzeko erabilgarriak diren hainbat gairen bibliografia-berrikuspena eginez.

Tesiaren II Zatia 2. Atalarekin hasi da eta bertan Paisaiaren teoriaren berrikuspena landu egin da bere egitura, definizioa, hautematea eta irudikapena landuz. Jarraian etorri den 3. Atalk Hiria eta Hiri-Ertza gaiak landu ditu modu diakronikoan haiek nominalizatzeko hainbat kontzeptu aztertuz.



18. Irudia Ikergaiaren testuinguru teoriko nagusia

2. Atalean Paisaiaren teorizazioak landu egin dira haren osaera, definizioa, hautematea eta irudikapen aztertuz. Paisaia gizarte eraikuntza gisa aurkeztu da (D. E. Cosgrove, 1998), agente anitzen (Meinig, 1979) bidez maila materialean zein diskurtsiboak moldatua historian zehar (Baker, 1992; Nogué, 2010; Roger, 2007), eta geruza anitzetan gorpuztua lurraldean (Corboz, 1983). Gizarte eraikuntzak bi postura nagusitan biltzen direla baieztatu da, subjektiboak eta objektiboak direnak (D. E. Cosgrove, 1998); bi postura horiek lotzeko ahalmena izan dezakeen inter-subjektibitatearen bidea aipatu egin da (Jones, 1991; Swaffield, 2006); tesi honek berresten duen postura, bide batez esanda. Horrezaz gain, paisaia irudikapenen bidez

komunikatua eta instrumentalizatua izan dela ere esan da, historia-unean uneko ideologia indartsuenaren eraginak pairatuz. Paisaiari eraikuntza soziokulturala, eta beraz, anitza eta aldakorra dela onartzen da eta ondoren proposatu den Paisaia Ikuspegi tresnaren egituraketa osatzeko baliagarria da ulerkeria hau.

3. Atalak, Hiria eta Hiri Ertzaren gaiak landu ditu horiek izendatzeko eta teorizatzeko hainbat adiera modu diakronikoan aztertuz. Hiri tradizionala eta modernoa nola eraldatu diren egungo egoera urbanora iristeko adierazi nahi izan da; batetik, hainbat geruzatan egituratua—morfologikoak (de Solà-Morales, 1997), pertzepziozkoak (Lynch, 1998), gizarte ezberdintasunezkoak (Marcuse, 2002), geografia eta kulturaren arteko interakziozkoak (Banham, 2001a), diskurtsiboak (M. Davis, 2006) edo funtziozkoak—, eta bestetik, lurralde zein mundu mailan ere zabaldua (Ascher, 2005; Brenner & Schmid, 2011; Gottmann, 1957; Hall, 1966; Hall & Pain, 2012; Koolhaas, 2006; Sassen, 2005). Hiri ertza, hiriaren eraldaketa horri lotuta ere garatu egin dela adierazi nahi izan da, eta garapen hori zehaztu eta mugatzeko hainbat hurbilketa aipatu egin dira (Adell, 1999; Meeus & Gulinck, 2008; Pryor, 1968; Thomas, 1990).

Bestetik, urbanizatze planetarioaren paradigmaren (Brenner & Schmid, 2011; Schmid, 2005) baitan paisaia guztiak berdinak ez direla planteatzen du literaturak, eta, hortaz, hiri eredu guztiak berdinak ez diren bezala, hiri bazterreko paisaia eredu ezberdinen existentzia iradokitzen da. Ezberdintasun horren funtsa, geografikoa da, hots tokian tokiko jatorrizko elementu topografikoek ezarritakoa

Mundu mailako hiritartzeak hiritarra-landatarra mugaren desagertzea konfirmatzen dute, baita paisaiaren homogeneizazioa ere. Horrelako ideien arabera, hiri bazterreko paisaiaren azterketa zentzugabea izan daiteke. Alabaina, hiritartasunaren kontzeptualizazio anitzek (Gandy, 2012; Robinson, 2006; Romera, 2012), mendebaldeko hiriaren ideia tradizioa kolokan jartzen dute, eta bestelako hiritartze prozeduretara bideratzen dute atentzioa, baita horiek osatzen dituzten baldintza sozioekonomiko eta geografikoetara ere. Nozio horien arabera, tokikotasuna da indartzen dena eta hortaz, egoera urbano horiek hiritartze planetarioaren ereagin homogeneizazioa eten egiten dute. Tesiak, bi ikuspegi horiek onartzen ditu; hots, ertz rural-urbanoaren desagertzea, baita hiriaren osaera geruzanitzea eta adierazle ezberdinetako, eta baita tokian tokiko baldintzen araberako hiriaren produkzioa ere. Beste hitz batzuetan, hiri bazterreko paisaiaren existentzia onartzen da, geografikoki eta kulturaliki zehatza eta berezia den eremuarena, eta izaera multi-dimentsionala duena bai izaeran zein egitura formalean ere.

4. Atalean ikergaiaren periferian aurkitzen diren hiru gai azatertu dira: Paisaia Kulturala, Natura eta Paisairen arteko loturak, eta Mendi Paisaiaren eraikuntza. Paisaia kulturalaren oinarri den *benetakotasun* (Droste zu Hülshoff, Plachter, & Rössler, 1995) irizpidea kultura batetik bestera nola aldatzen den ekarri da ondorio nagusi gisa, politika unibertsalen eraginkortasun

mugatuaren eta zehaztasun beharraren adierazle bat izan daitekeen bariazioa da. Gainera *kulturala* izendapen jaso dezakeen paisaia motak ugariagoak izan daitezkeela ere iradokitzen da horrela, izendapen horrek dakarren balioztapenarekin batera. Bestalde, naturaren bi ikuspegi aztertu egin dira. Hasteko, natura Antropozenoaren (Prominski, 2014) paradigma berriaren barne, baita Post-humanismoaren (Braidotti, 2006) begietatik ere naturaren kontzeptualizazio ezberdinak aipatu dira hibridaziora doan joera bat nabarmenduz. Gainera, natura kontzeptuaren eraikuntza soziokulturala ere aipatu egin da, kultura-balio sistemaren arabera egituratzen dena, eta onuragarriak edo kaltegarriak diren natura-elementuak bereizten dituen (Gissen, 2009). Kulturak natura eta egoera basatiak kontzeptualizatzeko dituen modu ezberdinak aipatu egin dira (Vicenzotti & Trepl, 2009), Japoneko adibide barneratzailea eta Mendebaleko tradizio humanista eta ilustratuaren ereduak aipatuaz (Kieninger & Holzner, 2011; Prominski, 2014). Ondoren, Paisaiaren Ekologia diziplinaren baitan naturak duen ulerkera neurtua landu da. Hots, paisaiaren elementuak sistema baten barneko pieza neurgarri gisa duten rola lantzen dituzten analisi eta praxi kontzeptuak aipatu egin dira. Esaterako, Azpiegitura Berdeak, Paisaia Funtzio-anitzak, Ekosistema Zerbitzuak, edota *paisaia makinak* (Roncken et al., 2011) egiten duten naturaren kontzeptualizazio instrumentalizatua landuda. Amaitzeko, 4 Atalean Mendi-Paisaiaren eraikuntza historikoki nola garatu den aztertu egin da; hots, izua sortzen zuen paraje bat izatetik, paisaia erakargarri eta eder bat izatera (Barthassat, 2012; D. E. Cosgrove, 1998; Roger, 2007) nola bihurtu zen azaltzeko, bestelako balio kultural batzuk atxiki zitzaizkiolarik: garbitasuna, purutasuna, interes zientifikoa, osasuntsua eta abar (Corboz, 1983; Roger, 2007; Zuelow, 2011).

5. Kapituluari, Hiri Bazterreko Paisaiak landu dira, paisaiaren eta hiriaren zein hiriertzaren eratorri gisa. Hortaz, HBPen eraikuntza eta irudikapenak aztertu egin dira, baita hauen izaera kualifikatzeko asmoz aurrera eramanez diren ekintzak ere (Gallent et al., 2006; Qviström, 2013; Shoard, 2000), maiz berdetze estrategien bidez emana. Natura bazterreko balio bat da, nahiz hondakin egoeran gorpuztua (Jorgensen & Tylecote, 2007), nahi modu autonomoan garatu (Clément, 2007), izaera basati hori bazterreko biztanleen tokikotasun nortasuna indartzeko ere baliagarria suertatzen da. Hiri Bazterreko Paisaiek beharrezkoa duten *enpatia* (T. Sieverts, 2003a), irudikapen berriak sortzeko beharra azpimarratu da. HBPen adierazle anitzeko egitura eta heterogeneitatea onartzea dakar horrek (Gallent & Andersson, 2007; Gallent et al., 2006; Roger, 2007; Shoard, 2000; T. Sieverts, 2003a), hura zati isolatuak soilik erabilia aztertu beharrean (Qviström & Saltzman, 2007; T. Sieverts, 2003a). Bosgarren Atalaren amaieran tesiaren ekarpen ildoak eta oinarri teorikoak zehaztu egin dira, tesiaren abiapuntu den Hiri Bazterreko Paisaiaren ulermenerako helburua indartzen duten irizpideak, alegia. Oinarri teoriko guzti hauek Paisaia Ikuspegi tresnaren eta ikerketa kasuaren egitura eta kontestua ezartzeko eta osatzeko baliagarriak izan dira.

11.1.2 Testuinguru metodologikoa

6. Ataleko metodologia-testuinguruaren ezarpenak aurreratu duen bezala, Paisaia-Ikuspegi Tresnak oinarri teoriko jakin bat du, gizarte konstruktibismoarena, alegia. Epistemologia konstruktibistaren eta estrategia abduktiboaren aukerek tesian dituzten inplikazioak hurrengoak dira; hots, ikergaiaren izaera eraiki eta metodologiaren postura inter-subjektiboaren onarpena, eta ikerketa metodologikoaren suspertzea prozedura erreflexibo bat dela medio. Ondoren, tesiak proposatu duen paisaiaren analisirako metodoen alderaketa bat egin da metodo guztiek dituzten antzeko alderdiak alderatuz; teknika, prozedura, eta datuak. Metodo guztiak, gainera, esan da amaieran irudi sintetiko eta instrumental bat lortu arteko lurraldearen osotasun konplexutik abiatzen dira. Ondoko bi zatietan, Landa Lan ereduak eta Artxibo lanen ikerketa ereduak jorratu dira, paisaiaren analisi eta interpretazioan txangoek, ikonografiak, ikonologiak, eduki eta diskurtso analisi tekniken ereduaren erabilgarritasuna justifikatuaz.

Deming eta Swaffieldek (2011:9) ezarritako Ikerketa Estrategien matrizea erabiliz, bi aspektu nagusi azaldu egin dira, ikerketaren estrategia orokorra —abduktiboa eta erreflexiboa— eta epistemologia—konstruktibista— zehaztuz, eta horien araberrako ikerketa tekniken berrikuspen bat eginez.

Ikuspegi konstruktibista bat aukeratu da ikerketaren helburua—hiri bazterreko paisaien izaeraren eta bilakaeraren ulermena—lortzeko ildo egokien bezala paisaiaren definizio konstruktibistarekin bate datorrelako, baita paisaia deskubritzen den elementu bat baino, modu aktiboan gizarteak eraikitzen duen kontzeptu bat dela (Deming & Swaffield, 2011, p. 9) ere onartzen duelako. Epistemologia horrek ikerketa metodoan bi eragin nagusi izan ditu: ikerlariak ikertzen den kasuarekiko duen ikuspegiaren onarpena (Swaffield, 2006), baita paisaia-jakintzaren inguruko kontsiderazio objektiboaren zein subjektiboaren onarpena ere (Deming & Swaffield, 2011; Swaffield, 2006).

Ikerketa estrategia abduktiboari eta erreflexiboari dagokionez, eraginak jakintzaren sormenean eta metodologian topatzen dira. Hau ez da soilik deduktiboa edo induktiboa, baizik eta hipotesien eta metodoen formulazio progresibo batean du oinarria (Deming & Swaffield, 2011). Hartara, eragina interpretazio tekniken eta espekulazioaren erabileran nabari da, hiri bazterreko paisaia-izaeraren inguruko hipotesiak eta formulazio onargarriak osatzera eramanez du ikerketa.

Paisaia analizatzeko, ikertzeko eta lurraldea antolatzekeo analisi metodoen arteko alderaketaren helburua hurrengoa da, tesiak proposatzen duen metodoaren helburua eta funtzionalitatea, bere teknikak eta datu bilketa metodoak lantzea da. Bestelako landa lan eta interpretazio tekniken deskribapenak Paisaia Ikuspegi metodoaren osaketarako erreferentzia izan diren prozedurak, pausuak eta sistemak azaltzen ditu.

11.2 Paisaia-Ikuspegi tresna eta bere lau dimentsioak

11.2.1 Tresnaren oinarri teorikoak

Postura konstruktibistatik, paisaia gizarteko zati konkretu batek lurraldea ikusteko eta harekin harreman bat sortzeko modua da (D. E. Cosgrove, 1998), materiala zein kontzeptuala (Baker, 1992; Nogué, 2010; Roger, 2007). Gizarteko hainbat sektoreen paisaia ikuspegiak gehituta, lurraldearen ulermen anitzak bildu daitezke (Meinig, 1979), eta gainera lurraldearen antolamenduari eragiten diotengizarteko sektore ezberdinen boterearen arabera lurraldearen ulermen erabilerak ere identifikatu daitezke (Baker, 1992; D. E. Cosgrove, 1998; Denecke, 1992). Horrezaz gain, gizarteak lurrarekin duen harremana ekonomia-, teknologia-, kultura-egoeren arabera ezberdina delako, eta aldagai horiek denboran zehar garatzen direlako, paisaia bera ere etengabe eraldatzen (D. E. Cosgrove & Domosh, 1993; Jackson, 2010) den kontzeptu interaktibo bat dela onartu da; hots, jendearen, lurraldearen eta pertzepzioaren arteko elkar-eragite baten emaitza (Zube et al., 1982). Hau da, konstruktibismoaren arabera, paisaia gizarteak eraikitzen du, fisikoki eta kontzeptualki denboran eta historian zehar aldakorrek diren modu anitzetan. Gaur egungo Hiri Bazterren egoera lurraldea ulertzeko eta ikusteko geruza anitzen emaitza denez, etorkizunera begira, hiri bazterreko izaera osatu ahal izateko horiek nola eraiki diren ulertzea eta lurraldeak dituen berezkotasunak topatzea izan da helburua. Paisaia Ikuspegi tresnaren kontzeptua eta diseinua aipatu diren teorien konposaketa bat da. Ordea, tresnaren erreferentzia nagusia, Denis Cosgroven (1998) paisaia teoria soziokonstruktibista da.

Paisaia eraikitzeke modu anitz horietako bakoitzari Paisaia-Ikuspegia esan zaio ikerketan. Bakoitzak aldagai sozialak, kulturalak, espazialak, eta irudikapenezkoak hartu ditu aintzat. Edozein lurraldek jasan dituen eraldaketek eta ekintzek sozioekonomikoki zehatzak dira, eta hortaz, Lurraldea ulertu/ikusi eta eraldatzeko modu ezberdinek ondorioak paisatzen dituzte lurraldeek (Baker, 1992; D. E. Cosgrove, 1998) paisai ezaugarrietan aldakortasuna eta berezkotasuna eraginez. Hortaz, posible da esatea, ikuspegietako bakoitzak paisaia bat eragiten duela. Beste hitz batzuetan esanda, tesiak proposatzen duen interpretazio metodoaren arabera, hainbat Paisaia-Ikuspegiak eraldatu dute lurraldea egungo hiri bazterreko paisaiaren egoerara iritsi ahal izateko.

Bestalde, tresnaren lurraldea mailako aplikazio erabileraren bi erreferentzia nagusiak, Banham (2001) eta Zube (1982) dira. Lehenengoak, ekologia ezberdinen bidezko hiriaren irakurketarekin, lurraldea eskalako geografie ezberdinen eta bizimodu ezberdinen arteko interakzioaren eraginak jorratzen ditu. Bigarrenak berriz, paisaiaren osaeran eragina duten hiru elementuen arteko elkareragina nabarmentzen du. Hala ere Paisaia Ikuspegia tresnaren diseinuak beste teoria batzuk ere izan ditu inspirazio-iturri:

Henri Lefebvre (2003) eta hiru mailatako hiriaren produkzioa, lurraldea palimpsestoarekin alderatzen duen ideia (Corboz, 1983), abaita lurraldea hautemateko dauden hamaika aukeren onarpena (Meinig, 1979) ere.

Geruzen bidezko interpretazio bat da tesiak proposatzen duena. Hortaz, hainbat Paisaia Ikuspegi bidezko irakurketak lurraldea paisaia bihurtu duten hamaika prozesu diskurtsibo eta fisikoak formulatzeko, interpretatzeko eta ulertzeko erabiltzen da. Baina horrezaz gain, tresnak lau dimentsio nagusi lantzen eta aztertzen ditu, eta era berean lau interpretazio-lerro zehazten dituzte: lurraldearen ulermena, irudikapena, giza eragilea edo agentea eta eragiten den eraldaketa (kontzeptuala nahiz fisikoa) formulatzen den Paisaia-Ikuspegi bakoitzeko. Lau dimentsio hauek Ideia, Irudikapena, Agentzia eta Elementuak izenekin adierazi dira. Lau Dimentsiok modu independentean garai ezberdinetan garatu diren paisaia teoretatik eratorri dira:

1. Dimentsioa. Ideia: lurraldearen ulerkerera (D. E. Cosgrove, 1998; Meinig, 1979)
2. Dimentsioa. Irudikapena: lurralde ulerkeraren irudikapena, in-visu egina (Roger, 2007) eta errealitatearen ikuspegi filtratu bat (Corner, 1992, 1999b) eta ideologizatua (Corboz, 1983)
3. Dimentsioa Agentzia: Ideiaren eta Irudikapena eragiten duen gizarteko zati bat objektiboa/subjektiboa edota barnekoa/kanpokoa izan daitekena (D. E. Cosgrove, 1998), paisaiaren egiletza (Samuels, 1979) anitza (Meinig, 1979) adierazteko.
4. Dimentsioa, Elementuak: Ideiak eragiten duen paisaiaren eraldaketa (Baker, 1992; D. E. Cosgrove, 1998), modu kontzeptualean eta fisikoan eraikitzen dena (Roger, 2007), paisaia politikoak eta bizituak osatuz (Jackson, 2010).

Labur esanda, Paisaia Ikuspegi tresna paisaiaren izaeraren ebaluazioarekin espekulatzen duen baliabide bat da. Interpretazioaren oinarria paisaiaren elementu eraikiak dira, eta hainbat Paisaia Ikuspegietako Ideiak (1D) formulatuz adierazten da—Lehenengo Eszenan egin bezala. Interpretazioak, gainera, paisaia elementu kontzeptualak ere jorratzen ditu, Paisaia Ikuspegietako Lau Dimentsioak erabiliz—Bigarren Eszenan egin den bezalaxe.

11.2.2 Paisaia Ikuspegi Tresnaren ekarpen onargarriak

Paisaia-Ikuspegi Tresnaren oinarritzko abantaila lurraldearen eraldaketan eta honi buruzko ideien sorketan gizakiaren eragina onartzean datza. Hiri Bazterreko Paisaien ulermena egiterakoan, bereziki interesgarria suertatzen da alderdi hau, hainbat ideien eta balorazioen egitate onartua kolokan jartzeko balio duelako.

Adibidez, paisaia eta natura bat direla onartzen duen ideia zabalduaren kasuan, landareak eta animaliak, baita elementu bizigabeak ere, gizakiak bere biziraupenerako eta interesen ekonomikoen arabera nola erabili dituen aztertze balio du, eta hortaz gizakiak natura nola eraldatu eta etengabe definitu duen ikasi daiteke. Edo Paisaia irudi-argazki batekin parekatzen duen ustearen kasuan, irudi hori diseinatu eta erabili duen agentearekin lotuaz, irudiak betetzen dituen helburu konkretuak azaleratzen dira. Paisaia baten esanahi kulturalaren eta identitarioaren naturalizazioaren mugak eta gabeziak identifikatu daitezke modu berean, paisaia irudiak toki bat ordezkatzeko erabilpenaren jatorri ekonomiko edota politikoa aztertuz, edo gizarte botere batek paisaia egokien eta estetikoaren irizpideak sortzeko duen ahalmena ikertuz. Gainera, botererik ez duten gizarte esparruen paisaia iruditegiaren ez-ezagutza ere nabarmentzen da Ikuspegi Tresnaren bidez, dokumentatu gabe dauden eta komunikabideetan zabaltzen ez diren paisaiak ere existitzen direla ohartaraziz. Eta, Hiri Bazterreko Paisaien kasuan bereziki, irudikapen kulturelek, mediatikoeak eta ekonomikoeak (zinea, literatura, kazetaritza, turismoa etab), eta horien interesek, paisaia horien izaera negatiboa eta irudi baztertua osatzerakoan duten eragina azalarazteko ere balio du Paisaia-Ikuspegi Tresnaren bidezko interpretazioak.

Alabaina, ekarpen horiek ez dira PI Tresnarenak modu eksklusiboan, noski. Izan ere, paisaiaren ikerketa esparruan konstruktibismotik lan asko eginga da dagoeneko, esaterako, paisaia eta boterea (Mitchell, 2002), paisaia eta ideologia (Baker, 1992; Denecke, 1992), paisaia eta egiletza (Samuels, 1979), paisaia eta ikusmena (D. E. Cosgrove, 1998, 2008), paisaia eta irudikapena (Corner, 1999b; D. Cosgrove & Daniels, 1988; D. E. Cosgrove, 2008)lotuaz. Eta zer esanik ez, paisaia kulturalaren esparrutik paisaia-elementuak eta historia analizatu dutenen lanetan ere, gizakia, gizarte eta kulturak zeresan berezia izan dute hainbat ikerketetan ((Banham, 2001a; Berque, 2011; Jackson, 2010; Zarza, 2008).

Kasu horietan, dimentsioak modu isolatuan aztertzen direla esan daiteke. Hots, dimentsio bakarra lantzen da nagusiki, edota dimentsio bat beste batekin lotzen da, bigarren mailako inplikazio gisa. Paisaiaren teoria konstruktibistek ezarritako adierazle eta egiturak bildu egiten ditu tesiak proposatzen duen Paisaia IkuspegiI tresnak, aurretiaz, II Zatian bildu eta landu egin direnak

Proposatzen den Paisaia-Ikuspegi Tresnaren bitartez lau dimentsioak argi bereizteko saikera eginez interpretazio sistematiko bat proposatzen da. Tresna izaerak edozein lurralde egoeraren interpretazioan erabiltzeko ahalmena emateaz gain, diseinu eta plangintza prozesu baterako erabilgarritasuna dauka. Prozesu horiek eskatzen duten fasekako analisi eta prozedura planifikatu batean barneratua izateko asmoarekin, PI Tresnaren aplikazio metodo proposamen bat aurkezten da tesi honetan, Bilboaldeko Bazterreko Paisaia menditsuen kasua erabiliz.

Metodo honen bilaketak ere tesiaren helburu nagusia betetzen laguntzen du, hau da, hiri bazterreko paisaien izaeraren ulermena. Alabaina, Proposamenaren aplikazioa lantzen zuten 9. eta 10. Ataletan ikusi denez, oraindik orain hainbat doiketa eskatzen dituen balizko metodo bati egiten zaion hurbilketa bat da lan hau.

11.3 Ikerketa kasua: Bilboaldeko paisaia menditsuaren bazterreko izaera osatuz

Ikerketa kasua aurkezten duen 8. Atalean paisaiaren ikuspegi konstruktibistak, eta Hiri Bazterreko Paisaiaren behar konkrituak bildu egin dira, Bilboaldeko kasura ekarrita. HBParen behar bereziak bere izaeraren ezezagutuarekin eta irudikapen gabeziarekin dute zerikusia, hots, haien bazterketarekin.

Funtsean adierazten da Bilboko mendialdearen *bazterketa* kultural eta ekonomikoa dagoela hauen izaera baztertuaren oinarrian. Hots, batetik, plangintzak meatzeez, parkeaz eta basoaz beste inolako izaerarik ez diela onartu mendiei, eta jarduera hauek ez direla behar bezala ordenatu. Eta, bestetik, Euskal Herriko eta Bilboko paisaiaren irudikapenetan mendiak hartzen duen rol bikoitzaren eraginez ere baztertua izan dela. Batetik, mendiek ez dutelako Bilboaldea ordezkatzeko itsasadarrak egiten duen bezala, eta bestetik, Euskal Herriko paisaia idealaren paradigma ere ez direlako, duten eraldaketa eta urbanizazio maila altua dela eta.

Esan bezala, kasuaren ikerketa eta mendietako paisaiaren aukeraketa justifikatzeko baliagarria da atal hau, izan ere Bilboaldeko mendien bazterketa irudikatua demostratu egin da ikerketa ikonografiko eta ikonologiko baten bitartez. Ikerketa horren ondorio nagusiaren arabera Bilboaldean bi paisaia arketipo nagusi existitzen dira, bakoitza elementu geografiko konkritu bati lotua. Batak hiria eta itsasadarra lotzen ditu, besteak identitate kultural euskalduna eta mendia elkartzen ditu. Banaketa paisajistiko honen jatorria industrializazio garaian kokatzen da. Gainera, hirugarren irudi bilduma bat osatu da zeinak Bilboaldea, hura osatzen duten bi elementu geografiko orijinalekin lotzen duen. Hirugarren ikuspegi honek, ondoren datorren ikerketarako beste leiho bat irekitzen du, hots, mendialdearen interpretazio ezarriak baino gehiago daudela iradokitzen duen abagunearena.

Ikerketa kasua teorikoa eta praktikoa den interpretaziorako metodo bat osatzeko baliagarria izan den beste tresna bat da. Ikerketa kasuak, datu-base enpirikoa ordezkatzeko du, eta Paisaia Ikuspegi tresnarekin batera, hiri bazterreko paisaien interpretazio teoriko eta aplikatu bat osatzeko baliagarria izan da.

11.4 Lehen Eszena

11.4.1 Lehenengo eszenaren helburua eta diseinua

Paisaia Ikuspegi tresnaren aplikazioa Bilboaldeko bazterreko paisaia menditsuen kasuan, esan bezala, bi eszenatan zehar garatu da. Ikerketaren beste ekarpen garrantzitsua, proposamen metodologiko gisa egiten den aplikazio hori da.

Lehenengo Eszenaren baitan, hiru ekintza nagusi ematen dira: dokumentazioa edo landa lan esploratzailea, elementuen aukeraketa eta sailkapena, eta Paisaia-Ikuspegiaren formulatzea edo interpretazioa.

Esplorazioak, beste metodo batzuekin konparatuta, ez du ezaugarri berezirik izan. Hasieran lurralde osoa aztertzeko nahi batek toki orotara iristeko asmo bat ezarri du, baina gutxika, interes eremu konkretuak eta joerak nabaritzen joan diren moduan, azter-eremu konkretuak doitzen eta zehazten joan dira. Hori izan da kasu honetan gertatu dena, izan ere, Bilboaldeko bazterreko paisaiaren osotasuna esploratzen zen heinean, mendien bazterreko paisaien berezitasunaz ohartu eta bertara zuzendu eta ikerketaren atentzioa osorik.

Bestalde, dokumentazio teknikei dagokionez, landa lanean argazki, bideo eta georeferentziatutako ibilbideen bidez egin da datu-bilketa lurraldearen egitura garrantzitsuenak identifikatzen dituen irakurketa bat egiteko helburuarekin. Ezaugarri horiek begi bistakoak izan dira; hots, lurraldeko elementu karakteristikoak eta erraz identifikatzen direnak bildu egiten dira: landare masa handiak, azpiegiturak, ur azalerak, geomorfologia, asentamenduak etab. Ohiko lurralde edo paisaia analisi batean azalduko liratekeen elementuen kategoriak eta beraien kokapena da esplorazioan identifikatzen diren datu nagusiak.

Lehen Eszena honetan, ikerlariaren rola eraginda, txangoen ibilbideak, tokiak eta elementuak aukeratu egin dira, aukeraketa irizpidearen arabera, hots, lurraldearen eraldapenean esangura edo pisua izan duten elementuak eta tokiak bisitatuz. Bidean, beste hainbat toki topatu egin dira.

Prozesuaren emaitza nagusia hurrengoia izan da: aztertzen den lurralde konkretuaren Paisaia-Ikuspegi anitzeko Berreraikuntza edo Interpretazio Espekulatiboa Sei Paisaia Ikuspegitan formulatua eta kartografiaren bidez grafikoki adierazia.

Sei Paisaia Ikuspegiak, hiri bazterreko paisaiaren eraikuntzaren hipotesi onargarriak dira. Formulaziorako, paisaiaren elementu eraiki ukigarriak erabili dira, eta horiek eragin dituzten Ideien inguruko interpretazio espekulatzaile bat burutu egin da. Interpretazio hau, irekia da, eta hortaz beste hainbat Paisaia Ikuspegi onartzen ditu. Gainera, ez du demostraziorik eskatzen.

Osatutako mapa bakoitzak, lurraldeko elementuak Paisaia Ikuspegi baten barnean sailkatuta adierazten ditu, eta gainera, lurraldea osatu duten ikuskera eta materialtasuna batera ordezkatzeko modu grafikoan.

Aztertzen diren elementuak, arruntak direla esan da, hortaz ikerketaren berezitasuna Paisaia-Ikuspegi arabeko sailkapenak zehazten du. Hots, PIen oinarrian, elementuek geografiarekiko eta ingurumenarekiko duten lotura eta harremana dagoenez, elementuek mendiarekiko duten harremanaren arabera egiten den sailkapena da kategoria. Gainera, geografia horrekiko loturaren funtsa gizakiak eraikitakoa dela amaitzen da premisa nagusi bezala. Alegia, Paisaia-Ikuspegi bakoitzak, gizakiak eraikitako elementuen eta jatorrizko geografiaren arteko lotura bat formulatzea duela. Beste hitz batzuetan esanda, ekintza esploratzailean identifikatutako ezaugarri nagusiek lurraldeko elementu geografikoekin duten loturaren logikaren arabera sailkatzen dira, eta sail horiek dira Paisaia-Ikuspegien abiapuntua. Bilboaldearen kasuan mendiarekiko gizakiak garatu dituen ulermenen eta harremanen bitartez aztertu egin da Bazterreko Paisaiaren izaera eta garapena.

Ikusi den bezala, Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuen kasuan, Sei Paisaia-Ikuspegi formulatu dira. Oinarrian, lurraldeko elementu esanguratsuek mendiarekin duten lotura interpretatzen duen definizio bat dakar PI bakoitzak. Honezkero hainbat aldiz errepikatu diren Bilboaldeko kasuaren Paisaia-Ikuspegiak dira Mendi Tradizionala, Mendia Basogintza Baliabidea eta Mendia Meatzaritza Baliabidea, Mendi Oztopoa, Mendi Erabilgarria, Mendi Berdea, eta Mendia Bizileku Formala nahiz Informala. Sei Ikuspegi horiek osatzen dute Bilboaldeko Bazterreko Paisaia Menditsuen Interpretazio espekulatiboa edo atzera begiko berreraikuntza paisajistikoa.

Mendi Tradizionalak, baserri giroarekin eta iraganeko mendi paisaiarekin zerikusia duten elementuak barne hartzen ditu. Mendi Baliabideak berriz, izenak dioen bezala, mendiaren ustiaketa bat du oinarrian, basogintzaren edo meatzaritza bitartez burutua. Mendi Oztopoaren Ikuspegiak, azpiegiturentzako eta hiriarren garapenerako desabantaila ikusten du mendian. Ordea, Mendi Erabilgarriak, aukera eta espazio erabilgarria topatzen du bertan hainbat zerbitzu eta jarduera kokatzeko. Mendi Berdeak, hura espazio natural eta aisialdirako proposa den eremu gisa ulertzen du. Amaitzeko, Mendia Bizileku gisa ulertzen duen 6. Ikuspegiak, bertan biziguneak eta egunerokotasuna garatzeko toki eta baldintza proposak bilatzen ditu, bai modu formal zein informalean ere.

11.4.2 *Paisaia Ikuspegi tresnaren zenbait muga metodologiko*

Irudi luke gizakiak eraikitako elementuak soilik direla Paisai Ikuspegietan sailkatzen eta aztertzen direnak, izan ere, kasu honetan horrela izan da elementu tradizionalak, baliabideen ustiaketa, azpiegiturak, zerbitzuak, aisialdi eremuak eta asentamenduak aztertu direlako. Horiek identifikatu dira Bilboaldeko Bazterreko Paisaia menditsua osatzen duten elementu nagusiak gisa.

PI tresnaren aplikazioa bestelako paisaien kasuan aplikagarria dela esaten bada, nola formulatiko lirateke Paisaia-Ikuspegiak indar antropikoek hainbeste eraldatu ez duten lurralde baten kasuan ? Bada, aintzat hartzen baldin bada Paisaia-Ikuspegi bakoitzak oinarrian gizakiak lurraldea ulertzeko, kudeatzeko, eraikitzeko uste eta balio konkretu batzuk ordezkatzeko dituela, egoera “naturalago” batean, zenbait eremu Paisaia Berreraikuntzatik at geratuko liratekeela aurreratu daiteke. Izan ere, gizakiaren eraikuntza da tresna honek aintzat hartzen duena, eta ez baldin badago eraldaketa fisikorik ez kontzeptualik, ezin aztertu daiteke elementurik. Egoera hori topatzea, baina, Antropozenoaren eta Urbanizazio Planetarioaren garaian, geroz eta zailagoa dela esan beharra dago. Onar dezagun arazo hau proposamenaren aplikazio-estrapolazioaren mugetako bat bezala .

Ikerketako Lehenengo Eszenako beste ezaugarri bat izan da ikerlaria, ikerketa kasuko hiritarra dela. Horrek esplorazioan eta Paisaia-Ikuspegien formulatzean berebiziko eragina izan duela onartu beharra dago. Egoera horrek bere mugak eta onurak dakartza. Muga izan daiteke, lurraldearen ulermen partziala, kritikoa, edota subjektiboa bihurtu daitekeela. Onura, berriz, esplorazioak hein batean duen noraeza zuzentzeko erabilgarritasunean topatu da. Hots, landa lanaren interes guneak identifikatzeko lurraldearen bilakaerari eta aldaketei buruz ikerlariak duen informazioa baliagarria suertatu dela esan nahi da. Hala, lurraldeko elementu nagusi eta esanguratsuak modu eraginkorragoan identifikatzeko baliagarriak da ikerlariak duen *barneko* begirada.

11.4.3 *Paisaiaren Interpretazio Ikuspegi anitza eta Bigarren Eszenaren beharra*

Behin Ikuspegiak formulatuta, banaka mapa sorta batean eta elkarrekin gainjarrita beste mapa baten bidez irudikatu egin dira. Honela, elementu ukigarriak, kategoria ukiezinekin batera irudikatzea lortzen da. Hots, lurraldearen eraldaketa eta kudeaketa asmoak eta logika sozioekonomikoak, horiek eragin dituzten elementu eraikiekin batera marraztu egiten dira; izan ere, mapa bakoitzak Paisaia ulertzeko Ikuspegi bat ordezkatzeko duelako . Mapa hauek ez dira errealitate guztiz objektibo baten irudikapena, baizik eta paisaiaren atzera begirako interpretazio bat; hots, lurraldea nola eraldatu eta eraiki den ulertzeko moduaren irudikapenak dira. Mapok irakurketa bat marrazten dute, beraz.

Lehenengo Eszena honen emaitza beraz, Sei Paisaia Ikuspegiko Berreraikuntza Espekulatiboa da, 6 geruza kartografikoetan irudikatuta. Interpretazio honek, paisaiaren bilakaeraren hipotesi gisa funtziona dezake, frogarik behar ez duen interpretazio bailitzan, alegia. Ordea, ikerketaren bidean emaitza horietara iritsi eta gero, hasierako ikerketa galderi erantzuteko nahikoa ez zela ohartu gara, bati bat, paisaiari eragin diote indarrei buruzko galdera.

Batik bat, paisaia interpretazioak soilik ikusmenaren bidez antzematen dena aintzat hartzen duelako, ikerlariak aurretiaz duen informazioaren ekarpen batzuekin. Gainera, Ikuspegi Tresnaren potentzialitatea garatu gabe gelditzen dela sumatzen da, izan ere, landa lan esploratzailearen bitartez, paisaiaren eraikuntzan eragina izan duten hainbat aspektu oharkabean geratzen direlako. Landa Lanaren bitartez eta lurraldeko Elementuak oinarri hartuta, Paisaia-Ikuspegi hainbat Ideia formulatu ahal izan dira. Baina, paisaiaren interpretazio sozio-konstruktibo batek, elementu fisikoen ulermenaz gain, beste adierazle batzuen beharra ere badu. Zeintzuk dira adierazleok? Bada, Ikuspegi Tresna osatzen duten Agentzia eta Irudikapen dimentsioen baitan sailkatu ahalko zitekeena, batik bat, baina, era berean, Ideia eta Elementu dimentsioak eragiten dituztenak ere bai. Hein batean, ikerlariak Agentziari eta Irudikapenari buruzko informazioa izan badezake ere, beste ekintza batzuen bidez datu dokumentatuen oinarri enpirikoari garrantzi handiagoa eman zaie. Honela, ikusten diren Elementuen dimentsio ikusezinak jorratzea lortu daiteke.

Labur esanda, Lehen Eszena, paisaiaren ulermenerako garatu den lehen ekintza sortzailea eta asmatzailea izan da ikuspegi konstruktibista batetik abiatuta eta estrategia abduktibo eta erreflexibo bati jarraiki, eta lurraldearen eraldaketa kulturalaren interpretazio sinesgarri bat formulatuz bukatu egin dena. Bigarren Eszenak, interpretazio esploratzailea eta sortzaileak, informazio dokumentatuarekin osatu du Lehenegoa: hots, Bilboaldeko mendialdea eraldatu duten gizarte agenteekin eta beraien egitasmoen adierazpenekin osatuko da Lehenengo Interpretazio Espekulatiboa.

11.5 Bigarren Eszena

11.5.1 Bigarren Eszenaren helburua eta diseinua

Esan bezala, Bigarren Eszenaren funtsa, Lehenegoan formulatu dena dokumentatzea, eta osatzea da. Horretarako, ekintza nagusi bat burutzen da, hots, ikerketa dokumentala edo agiritegietakoa. Paisaia-Ikuspegi bakoitzeko elementu eraikien zerikusia duten agiriak bildu egin dira, bereziki Agentzia eta Irudikapen dimentsioei buruzko informazioa bilatu ahal izateko. Hala ere, Ideia eta Elementu dimentsioen interpretazioan ere sakondu egin da, beste bien eragin zuzena dela eta. Honela, Sei Paisaia-Ikuspegiko interpretazioa guztiz osatzen da, eta, emaitza bezala, paisaiaren baitako egiturak eta ustekabeko lurralde ulerkerak bildu egin dira, ikusiko den bezala.

Bigarren Eszenaren oinarrian Paisaia-Ikuspegi bakoitzean sailkatuta zeuden elementuen burutzearekin eta eraikuntzarekin zerikusia izan duten agiriak bilketa dago. Agiri horietako informazioa dimentsioka sailkatu egin da honela; agiriaren oinarritzko helburua Ideiarekin lotu da, kokapenaren eta tokiaren ulermena Irudikapenarekin, sustatzailea eta egilea Agentziarekin, eta proposatzen zen elementua edo egoera Elementuak dimentsioarekin.

Agirien aukeraketarako irizpidea anitza izan da, orokorrean, helburu nagusia paisaia-elementuen eraikuntzaren inguruko azalpenak ematen dituzten agiriak bilatzea izan da. Zerrenda ideal (7.Taulan) batean bildutako elementu guztiak topatu ez badira ere, Sei Paisaia Ikuspegien ordezkapen nahikoa lortu denean eten da dokumentazio prozedura. Kopuru hau Paisaia Ikuspegi bakoitzeko elementu aniztasunaren adierazgarria da.

Sei Ikuspegi bakoitzeko 4 Dimentsioen bitartez aztertu dira hainbat artxibotan bildutako mota anitzeko agiriak, grafikoak zein idatziak. Galdetegi baten bidez analizatu egin dira, eta ondoren, 4 dimentsioetako bakoitzarekin zerikusia duten paisaia teorizazioen bitartez interpretatu dira, beti ere, Ikuspegika, eta Ikuspegi bakoitzeko bigarren maila analitikoak diren 4 dimentsioak kontutan hartuta; alegia, Ideia, Agentzia, Irudikapena eta Elementuak. Galdetegiaren Aurkikuntzak lehenengo deskribatu egin dira, eta ondoren, interpretazioa teorizatuari ekin zaio. Interpretazio teorizatu horrek ikonografiaren eta diskurtso-analisiaren teknikak islatzen ditu. Bi pausu hauek Sei Ikuspegietako bakoitzarekin egin da, informazioa Dimentsioka antolatuz Ikuspegiaren barnean.

Horrezaz gain, hirugarren ikerketa lerro bat ere zabaldu egin da Paisaia Ikuspegietako bakoitzak hiri bazterreko paisaiaren eraikuntzan izan duen inplikazioa eta eragina aztertzeko. Helburua, Agentzian, Irudikapenetan eta Elementuetan HBPa intenzionalitate edo asmo aitorturen bat topatzea izan da.

Orokorren, Bigarren Eszenak egiten duen ekarpena paisaiaren ulermen sakonago bat egiteko beharrezkoak liratekeen zenbait alderdien azalaraztean, eta hurrengo atalean aipatuko diren paisaiaren potentzialak edo ahalerak biltzean datza.

Bigarren Eszenako ekarpen nagusia ez da Lehen Eszenako Ikuspegia ea benetakoa den ala ez frogatzea agiritegiko ikerketa baten bidez. Burutu den Paisaia-Ikuspegien formulazioak testuinguru heuristiko eta hermeneutiko bat ezartzen duten bezala, 2. Eszenako Paisaia-Ikuspegien dokumentatzeak, begi bistakoak ez diren egiletza, ideologia, botere eta asmoen irudikapenek lurraldearen eraikuntzan duten eragina biltzen du. Hala, agirien analisi eta interpretazioaren ondoren, zenbait joera eta lotura identifikatu egin dira ezarritako interpretazio sailen artean, baita analisi eta interpretazio adierazleen artean ere; hots, Paisaia Ikuspegien artean, eta beraien baitako dimentsioen artean ere. Joera forman topatu diren emaitzek Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia menditsuen osaketa eta bilakaera islatzen

dute, eta Paisaia Ikuspegia tresna eta metodoaren erabilgarritasuna eta analisi ahalmena demostratzeko baliagarriak direla esan daiteke.

Bigarren Eszenaren ekarpen orokorra honela adierazi daiteke: hiri bazterreko paisaiaren eraikuntza gizarte konstruktibismoaren ikuspegitik ulertu ahal izateko hainbat aspektuen azaleratzean datza. Horrezaz gain, Bigarren Eszena ikerketa kasua izan den paisaiaren baitako indarguneak bilatzeko baliagarria izan da, baita Paisaia Ikuspegi tresnaren espero ez ziren ahalmen batzuen bilaketarako.

11.5.2 Hiri Bazterreko Paisaiaren osaketan joerak: Dimentsio barneko joerak

Gogora dezagun Paisaia-Ikuspegia barneko lau dimentsioak; Ideia, Irudikapena, Agentzia eta Elementuak. Ideiak oinarri geografikoaren ulermena adierazten du; Irudikapenak ulermen hori adierazten du; Agentziak Irudikapenaren eta Ideiaren alderdi soziala, egileak eta sustatzaileak identifikatzen ditu, eta Elementuek paisaiaren eraikuntza elementuak aztertzen ditu.

Idea (1D) eta Paisaia-Ikuspegiaren arteko korrelazioa.

Agirietan detektatu diren Ideiak normalean bat datoz dagokien Ikuspegiko ideiarekin kasu gehienetan hirutan izan ezik. Paisaia Ikuspegiaren eta Ideiaren arteko kontzidentzia agerikoa da Mendia Baliabidea (MB) PI-an, non burdin mea eta basoak ustiagarriak diren mendi baliabide gisa ulertzen diren. Era beran, Mendi Erabilgarria (ME) ikuspegian, mendiko espazioa kualitatiboki eta kuantitatiboki abagune gisa ulertzen dira agiri guztietan. Amaitzeko, Mendia Bizileku Formalaren (MBiF) ulerkeran, agirietan adierazten da mendiko espazioaren ezaugarri egokiek bultzatuta eraiki eta garatu egin direla.

Ordea, Mendi Tradizionala (MT) eta Mendia Bizileku Informalaren (MBiI) kasuan agirien ideiak eta Ikuspegiaren ideiak antzekoak badira ere, agirietako, ideia sortzaileek, orokorrean, ez dituzte aukeratu diren elementuak eragiten. Alegia, paisaia-elementu tradizionalak lantzen dituzten agirien eraginez ez dira horiek eraiki. Era berean, txabolak eta baratzak aztertzen dituzten dokumentuen ondorioz, bestelako interbentzio batzuk sortu dira, normalean informalak direnak ordezkatzeko dituztenak. Hots, Mendi Tradizionalarekin lotutako agiriek ez dituzte ikuspegi horretan sailkatutako elementuak eragiten, areago, haien babes sustatzen dute; Mendia Bizileku Informalaren baitan sailkatu diren agiriek ere ez dituzte txabola eta baratzak bezalako elementu informalak eragin, eta aldiz, beraien deuzestapena edota formalizazioa sustatzen dute. Bestalde, Mendi Oztopoaren (MO) kasuan, magala gainditu beharreko eragozpen gisa ez da inon zehazki formulatuta bilatu. Are gehiago, agirietan mendiari gain hartzeko egitasmorik ez da topatu ere egin, nahiz eta elementu guztiak horretarako diseinatuak izan diren.

Irudikapen (2D) estandarizatua.

Irudikapenari dagokionez, aztertutako agirietan mendiari preseski ez zaio garrantzia berezirik eskaintzen dela proiektua, dela plana edo bestela. Eta ez da ia inoiz bere osotasunean adierazita azaltzen, zatiak bakarrik irudikatzen dira eta. Tokiaren irudikapena egiteko estandarizazioaren eta ekoitzi duen diziplina edo jakintza eta praxi esparru bakoitzaren irudikapen konbentzioak erabiltzen dela aurkitu da; hots, ohiko sinbologia grafikoa, tokiko ezaugarri erabilgarriak eta nabarmenak erabiliz. Bildu diren irudikapenak, agiriak duen helburu aitortuaren adierazpen garbiena egiteko baliabideak dira soilik. Hau nabaria da plano topografikoetan edo planen zein proiektuen kokapenaren deskribapenetan. Hala, planaren edo proiektuaren eraginpean dagoen esparru horri eragiten dioten plangintza kalifikazioak, klasifikazioak, ordenazio arauak eta bestelako ekosistema-ezaugarri neurgarriak aipatzen eta marratzen dira. Informazio objektibo eta estandar honek, baina, mendiaren ulermen eta kontsiderazio maila ezberdinak topatzen laguntzen du, izan ere, irudikapen hori garatu eta aurrera eraman duen agentziaren paisaia ulermen konkretua baloratzeko baliagarriak suertatzen dira.

Ezaugarri aipatuenak dira aurrebaldintza eraikiak, geologikoak, hirigintzakoak edota ekosistemari eta topografiari dagozkionak: eraikinak, jarduerak, jatorri geologikoak, altitudea, lurzoru mota, haizeen norabidea, iparraldearen kokapena, landaredia, eragin paisajistikoak, kutsadura, bizi-baldintzak, ondarea, azpiegiturak etab.

Paisaia-Ikuspegiaren araberako irakurketan, Mendi Tradizionalaren Ikuspegian, orokorrean, mendiko esparrua euskal kulturaren izaerarekin lotzen dela, esaterako. Mendia Meatzaritza Baliabidea Ikuspegian berriz, mendia lur-azpiko eta lur-azaleko geruzen formen eta kudeaketak definitzen dute, mendia bere osotasunean sistema oso gisa adierazi gabe. Honen salbuespena, Ramon Adan de Yarzaren deskribapen geologikoak dira, non mendiak Bilboaldeko eskala baino handiagoa den sistema Pirenaiko orokorraren zati direla ulertzen den. Mendi Baso Baliabide Ikuspegian berriz, mendia basoa da eta nahastuta ageri dira bi adiera hauek. Ez da topatu, tamalez, baso sail baten ezarpenerako edo baso baten egitura eta azpiegiturak zehazki adierazten duen agiri garaikiderik. Tamalez esaten da, izan ere, horrelako proiektu batek agian mendiaren bestelako ulermen bat erakutsiko zukeelako proiektuak plangintza araudiekin eta aurretiaz existitzen diren elementuekin konbinatzen diren moduak erakutsiz.

Mendi Oztopoaren kasuan, mendia ez apenas marratzen eta deskribatzen. Egoera hau deigarria egiten da PI honetan azpiegituren diseinu eta eraikuntzarako duen pisua oso handia delako. Normalean, sestra kurben bidezko plano topografikoek edota ezaugarrien deskribapen kuantitatibo lausoez adierazten dute mendia, ageri denetan. Hurrengo PI-an, Mendi Erabilgarriarenean, mendia ere ez da aipagai, nahiz haren ezaugarriak nabarmen egokiak diren garatzen diren helburuetarako. Gainera, zatika adierazten da hura, hots

egitasmoaren eragin-eremua adieraziz soilik. Aurre baldintza errepikatu bat da magalaren lehenagoko erabilerak sortutako kutsadura edo egoera antropogenikoa. Ezaugarri hau, hala ere, ez da egitasmoaren kokapena aukeratzeko irizpide gisa aipatzen, Argalarioko hondakin toxikoen biltegian izan ezik.

Mendi atsegingarriagoen kasuan, Berdean, esaterako, elementu onuragarriak eta kaltegarriak bereizten dira. Gainera, mendiaren irudikapena egituratzeko balio moralak, gizatiarrak eta higienistak atxikitzen zaizkio, batik bat, mendizaletasunarekin zerikusia duten dokumentu zaharretan. Hemen ere, mendia ez da osorik ageri; hots, ideia Berdearekin bat ez datozen ezaugarriak ez dira Mendi gisa ulertzen, aipatzen direnetan, eta normalean irudikapenetik at gelditzen dira; hala nola, industria, azpiegiturak, bizilekuak etab.

Azkenik, Mendia Bizileku Ikuspegian bi irudikapen joera topatu dira: Formalaren kasuan, mendiak ebaketen bidez adierazten dira, eraikinak magalean kokatzeko duten moduaren adierazgarri, eta gainera, ikusmira edota eguzkitzapena bezalako ezaugarriak aipatzen dira kokapena adierazteko. Informalaren kasuan, magaletako auzoetako bizi baldintza eskasak aipatzen dira, eta magalaren ikusgarritasuna dela eta, eragiten duten inpaktu bisual kaltegarria ere nabarmentzen da. Irudikapen berrietan, iraganeko txaboletako bizimodua baserri giro batekin alderatzen dute.

Agentzia (3D) boteretsuak, Kanpotarrak, eta Objektiboak.

Agentzia Dimentsioaren analisi eta interpretazio teorizatuak, Bilboaldean eragina izan duten hainbat perfil sozial eta agente konkretuen eragin nabaria identifikatzera eraman gaitu. Hauxe da proposatzen den paisaia interpretazio metodoak ekarri dezakeen emaitza esanguratsuenetako bat, ikuspegi konstruktibistatik batez ere. Izan ere, azterketak adierazten du lurraldeari perfil batzuek eragin diotela, publikoak eta pribatuak, zein baino zein eraginkorragoa Paisaia-Ikuspegiaren arabera.

Aipa genezake, ikerketa kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat Ikuspegi esparruan duen eragin nabarmena: MBB, MO, ME eta MBe-n bereziki. Sektore pribatuak ere eragin nabarmena izan du (MMB, MBB, ME, MBiF) eta izen konkretuak azaltzen dira sail ezberdinetan zehar, besteak beste: Altos Hornos de Vizcaya (MBB, MO), Ramon (MMB) eta Mario Adan de Yarza (MBB), Iberduero (ME), Orconera Iron Ore eta Compañía Franco Belga de Minas de Somorrostro (MMB), edo Cementos Lemona (MO) eta beste Eraikuntza eta Sustapen enpresa Viviendas de Vizcaya bezala (MBiF.6). Arkitektoen izenak ere errepikatu egiten dira, esaterako Pedro Ispizua (MBiF. 1 eta MBiF.3) edo Emiliano Amann (MBiF.1, MBiF.5 eta MBiF.6) agerietan.

Agentziaren izaera interpretatzerakoan, begirada Objektiboa nagusitzen da Subjektiboaren

gainetik. Honek, paisaiaren ezaugarri neurgarrien bidezko ulermenak eta irudikapenekin zerikusia du, edo lehen aipatu den diziplinakako irudikapen konbentzioekin. Hots, ezaugarri subjektiboak edo adierazpen estetikoak, ezta gorputz bidezko hautemate fenomenologikoak ez dira apenas ageri kokapena irudikatzerakoan. Agenteak lurraldearekin duen harremana Kanpotarra edo Barnekoa ote den aztertzerakoan ere emaitzek nabarmen adierazten dute Kanpotarraren nagusitasuna, eta Barnekoaren gabezia. Alegia, adierazten da dokumentu gehienetan, paisaia eragin duten sustatzaileek lurraldearekin harreman distantziatu bat dutela eta ez daudela fisikoki lurraren eraldaketarekin lotuak.

Kanpotarra eta Barnekoaren bereizketa aski zaila egiten da, Cosgrovek (1998) definitu zituen terminoen arabera, bederen. Haren aburuz, dikotomia honen berezitasuna agenteak lurraldearekin duen harremanean datza. Hots, harremana analogikoa eta ohiturazkoa baldin bada, eta batik bat, laborarien kasuan bezala, Barneko begirada da nagusi. Ostera, harremana ekonomikoa baldin bada, eta lurzorua salerosketa elementu gisa ikusten bada, eta bere balioarekin espekulatzen baldin bada, lurjabe kapitalistaren kasuan bezala, Kanpotarra da begirada. Dikotomia hau, noski, eratorritakoa da kapitalismorako trantsizioaren egoera ezberdinen azterketaren ondoren. Hemen, ordea, guztiz kapitalista den garaietako agiriak aztertu egin direnez, Barne-Kanpo begirada horren esanahiak zorrozki ezin dira aplikatu. Cosgrovek (1998) kapitalismoaren garaian paisaia agente edo behatzaile guztiak kanpotarrak direla baieztatu zuen, eta anbiguetatearen oinarriak kutsu epistemologikoa eman zion; hots, begirada Objektiboa edo Subjektiboa bereizten ditu kanpotarrak diren agente kapitalistek paisaiarekiko duten jarrera definitzeko.

Hala ere, gaur egun, parte hartzearen aldarrikapenetan nabarmen identifikatzen da dikotomia honen existentzia, *bottom-up* edo *top-down* erabaki hartze prozesuak ezberdinduz, esaterako. Paralelismo zabar bat eginez, goikoak [top] erabakia hartzeko boterea duen administrazioa edo ekonomikoki boteretsuak diren sektoreak Kanpotarrak lirateke, eta behekoak [bottom] biztanleria arrunta edota lurjabe txikiak, berriz Barnekoak izango lirateke.

Paralelismo hori gogoan hartuta Barneko eta Kanpoko begiraden bereizketa egitea ariketa interesgarria dela frogatu da. Izan ere, bereizketa horren marra anbigua da oso, Paisaia-Ikuspegiaren kasu konkretu bakoitzean Barneko eta Kanpoko agenteak lurraldearekin izan dezaketen harreman aintzat hartzen baldin bada.

Adibidez, Mendi Meatzaritza Baliabidean, argi eta garbi, agiri guztietako Agentzia Kanpotarra da. Cosgrovek (1998) ezarritako irizpideak zehatz-mehatz betetzen baitituzte—lurrarekiko harreman espekulatibo eta ekonomizista dute—eta gainera, kapitala atzerrikoa da. Gatozen Mendia Basogintza Baliabide Ikuspegira; hemen ere, lurraldearekin harremana salerosketa eta balio ekonomikoek definitzen dute: basoa da lurzorua baliotsua egiten duena. Baina, zenbait kasuetan, MBB.4,5 eta 6 agirietan esaterako, Bilboaldeko basozainak

mendiarekiko harreman estua eta analogikoa duela esan daiteke. Mendiaren erabilzailea da, sakonki ezagutzen duela sumatzen da, ez dago urrutitik begira eta ez da lurjabea. Baina era berean, lurjabea den Udaletxearen langilea denez gero, haren interes ekonomikoen zerbitzura dagoela esan daiteke. Horratx lehen nahastea.

Beste anbiguetatea, Mendi Oztopo eta Mendi Erabilgarri Ikuspegietan azaltzen da. Hemen ere, agirien agentzia gehiengoa kanpotarra dela interpretatzen baldin bada ere, zenbait ñabardurek irakurketa horren sendotasuna kolokan jartzen dute. Zein kasuetan ematen dira ñabardurak? Bada agentzia publikoa den kasuetan. Horietan, esan daiteke, agiriak dokumentatzen dituzten egitasmoek interes publiko baten alde egiten dutela, eta horregatik, lurraldearen barneko harreman batek eman dezakeen ezagutza dutela kanpoko agente publikoek. Ordea, jakintza hori normalean estatistikek ematen duten gizartearen irakurketa batean oinarritua da, hortaz, oraindik ere arrazoizkoa da agentzia publiko honen izaera distantziatik begira dagoen kanpotarrarena dela.

Kanpoko Agentziaren beste kutsu bat, lurraldearekiko harreman distantziatu batek definitzen du, Mendi Tradizionala eta, Berdea kasuetan bezala. Hemen, mendia ez da mozkin ekonomikoekin lotzen, baizik eta eraikuntza kontzeptual batekin. Mendiari esanahi konkretu batzuk ematen zaizkio, eta nolabait mezua subjektiboa bada ere, datu objektiboekin justifikatzen saiatzen dira mendiaren ulermen hori datu historiko-antropologikoen bidez, edo paisaia eta ingurumen metriken bidez.

Ikusi denez, Kanpoko eta Barneko agentziak, begirada Objektibo eta Subjektiboarekin nahasten direla ematen du. Nolanahi ere, dikotomia honen bidezko interpretazioa aski errazagoa da. Izan ere, Biak dira araututako begiradak, abstrakzio eta konbentzio batzuen bitarteko paisaiari kanpotik egindako ulermenak. Agiri gehienetan begirada Objektiboa da nagusi aipatutako irudikapen estandarizatuak sortzen dituenak. Hala ere, begirada Subjektiboa ere nabari da kasu bakan batzuetan, batik bat agiriak grafikoak direnean: MBB.14 Mario Adan de Yarzaren erretratuan, MO.13 eta MO.16 postaletan, baina baita idatzietan MT.6ko *Garoa* eleberrian edo MBe.2 *Pyrenaica*-ko iritzi artikuluetan, edo testigantza pertsonaletan ere MBiL.4 Otxarkoagako dokumentalean eta MBiL.6 Masustegiko auzoen testigantzetan. Agiri horietan, paisaia bat balioesteko konbentzio sozial eta estetiko onartuen araberrako irudikapenak egiten dira enkoadraketak, metaforak, sinboloak etab. balorazio estetiko, moral eta oroimenezkoak egiteko erabiliz..

Elementuak (4D): Paisaiaren eraikuntza bikoitzak.

Laugarren Dimentsioak Paisaia Ikuspegiaren eraginez sortzen diren elementu eraikiak interpretatzen ditu, baita horien bidez sortzen den paisaiaren izaera ere. Hots, agiri bakoitzak egiten duen paisaia eraikuntza kontzeptual zein fisikoaren izaera interpretatu da. Horretarako,

bi dikotomia erabili dira, *in-Situ* eta *in-Visu artealizazio* bikoitza (Roger, 2007), eta Politiko/Bizitu bikotea (Jackson, 2010)

Hasteko, ikuspegi gehienetan agiri propositiboen eta deskribatzaileen arteko bereizketa egin daiteke. Proposatzaileak diren agiri guztiek eraikitzen dituzte paisaiak *in-Visu* eta *in-Situ* eran, agirietako irudikapenaren eta lurraldearen eraldaketa fisikoaren bitartez. Deskribapenek ordea, idatzizkoek gehienetan, edo burutu gabeko egitasmoetan, *in-Visu* eraikuntza soilik ematen dira; hots, paisaiaren irudikapena soilik egiten da.

Ikuspegi konkretu batzuen kasuetan, alabaina, prozedura bat bestea baino nabariagoa da. Esaterako, nabarmena da *in-Visu* eraikuntzaren nagusitasuna Mendi Tradizionalaren eta Mendi Berdearen kasuetan. Arrazoi nagusiak, proiektu eta planen izaera idealistaren eraginez, eta proiektu horiek duten mozkin ekonomiko eskasa dela eta. Lehenengo arrazoiari dagokionez, begirada ideal batek, paisaiaren eraikuntza bat egiten du, hiritik kanpo dagoena, monumentala, babestu beharrekoa, tea mantendu beharrekoa. Irizpide horiek baino haratago ez da joaten modu xehatu eta konkretuan proposamenak eta diseinuak proposatzen. Xehetasun faltari, mozkin ekonomiko eskasa gehitzen baldin bazaio, proiektu Berde eta landa-eremuaren mantenua gehien bat asmoetan geratzen dela esan daiteke, hots, *in-visu* eraikuntzak dira gehien bat.. Ez dira fisikoki garatzen diren Paisaia-Ikuspegiak, eta, beste modu kritikoago nahi bada, plangintza eta diseinu eskaseko garapenak aurrera eramaten dira PI Tradizionalaren eta Berdearen izenean.

Ordea, *in-Situ* eraikuntza prozedura nagusitzen dela esan daiteke Mendi Basogintza Baliabide Ikuspegian. Izan ere, hemen idealizazio eta proiektzioak agertzen dituzten dokumentuak baino, eginda eta existitzen diren egitate fisikoak soilik lantzen dituzte. Esan nahi baita, basoa berez eraikitzen eta garatzen den elementu bat balitz bezala azaltzen dela, planik eta proiekturik gabe, tokiko datu topografiko generikoak erabiliz, eta bertatik bertara edo *in-Situ*. Baieztapen irmo hau, agian, urrutiegi doa basogintzarekin lotura duen eta propositiboa den dokumentazioaren gabeziarekin lan egin behar izan delako.

Paisaiaren eraikuntza bikoitzaz gain, eraikuntzaren izaera Politikoa edota Bizitua ere interpretatu da. John Brinckerhoff Jacksonek (2010), AEBko paisaia herrikoiak edo jatorrizkoak aztertu zituenean, bi izaera horien arteko bereizketa ezartzeko saiakera ezaguna da. Paisaia Bizituak egunerokotasuneko jarduerekin lotzen ditu, eta batik bat elementu domestikoak eta ohiturazkoak barneratzen ditu bertan. Politikoez berriz, lurraldea eremu handiago baten kontzientziarekin haren antolamendua eta egituraketa orokor baten arabera, edota biztanleen ohiturarekiko eta lurraldearen ezaugarriekiko mesprezuaren eraginez osatzen direla esan daiteke . Paisaia Politikoen eta Bizituen arteko bereizketa egitea ariketa zaila iritzi egin da, baina anbiguetate horiek, lurraldearen kudeaketa eta eraldaketa prozesuen ñabardurak ezagutzeko baliagarria suertatzen delako, saiakera egin da.

Hemen aztertu diren paisaia eraikuntza gehienak Politikoak dira. Biztanleen ohiturekiko eta lurraldearen berezko egiturekiko atxikimendurik azaltzen ez dutenak, eta batik bat, mozkin ekonomikoa helburu duten paisaiak eraikitzen dira Mendia Baliabidearen Ikuspegi bietan; Basogintzaren eta Meatzaritza bitartez, alegia.. Antzeko modu batean, biztanleen behar eta nahiak albo batera uzten ditu Bizileku Informalaren Ikuspegiarekin lotu diren agiriek, Politikoki eraginkorrak diren paisaia formalak eraiki ahal izateko.

Mendi Erabilgarria eta Mendi Oztopoaren barne dauden azpiegitura elementuak Lurraldearen eskala handia eta haren antolamendu orokorra helburu dituzte. Mendi Oztopoak, jatorrizko ezaugarri fisikoak alboratzen ditu, eta Mendi Erabilgarriaren kasuan, mendiaren geomorfologia naturala zein eraldatua bere onerako erabiltzen dituen paisaia eraikuntza Politikoak dira.. Hala ere, bi hauek, Paisaia Bizituak sortzen dituzte nolabait, zeharka bada ere, egunerokotasunaren funtzionamenduan duten eragin nabarmena dela eta. Azpiegitura eta hiri zerbitzuek bizimodu garaikidearen jardueraren oinarri ia ikusezinak baitira. Mendia Bizileku Formalaren eraikuntzek ere paisaia Bizituak eraikitzen dituztela esan daiteke, egunerokotasunaren oinarri diren espazio domestiko edo hezkuntzakoak sortzen dituztelako

11.5.3 Hiri Bazterreko Paisaiaren osaketan joerak: Dimentsioen arteko gainjartzeak

Atal honetan, Ikuspegiko dimentsioen artean topatu diren gainjartze joerak landuko dira. Esan bezala, Paisaia-Ikuspegiak lurraldearen ulermen bat ordezkatzeko du, paisaia osatzen duten lau dimentsioak bereizteko saiakera eginez. Lau dimentsioen artean funtsezkoena Agentziarena Dimentsioa da, eta bere eragina nabarmena da paisaiaren eraikuntzan.. Hala ere, dimentsio-arteko gainjartze nabarmenenak hauek dira: Ideia eta Irudikapenaren artekoak, Agentzia eta Ideiaren artekoak, Agentzia mota batzuen eta Irudikapenaren artekoak, eta, Ideiaren, Irudikapen gabeziaren, Agentzia Kanpotarraren eta paisaia bizituetako Elementuen artekoak.

Idea eta Irudikapenaren artean gainjartzea nabaria da, izan ere, esan den bezala, aztertutako agirietako batzuek Paisaia-Ikuspegiaren ideia baino gehiago, agiriak duen helburu aitortua irudikatzen dutelako. Dela proiektua, dela mapa, del plana, dela artikulua, dela txostena, horien helburuak betetzeko beharrezkoa den irudikapen instrumentala, deskriptiboa, objektiboa edo subjektiboa egiten du normalean agiri bakoitzak. Hots, ulerkera horren arabera mendia helburua lortzeko bigarren mailako medio bat baino ez da, oinarri fisiko bat.

Agentziaren eta Ideiaren arteko loturen inguruan, ezberdintasuna agentziaren izaera Publiko edo Pribatuak ezartzen du.. Batetik, mendia ulertzeko zenbait moduetan nabaria da entitate publikoek ideia horien burutzearekin eta garatzearekin duten zerikusia. Publikoa da

nagusi, esaterako, M. Basogintza Baliabidean, M. Oztupoan, M. Erabilgarrian, M. Berdean eta M. Bizileku Informalean. Ideia horiek dira mendia= basoa, mendia= oztopoa eta azpiegituren eraikuntza, mendian tokia dago zerbitzuak kokatzeko, mendia berdegune bat da, eta mendi itsustua konpondu egin behar da, hurrenez hurren. Entitate Publiko indartsuena, Bizkaiko Foru Aldundia dela esan daiteke, agiriak hainbat alditan hala adierazita (MT.10, MBB.1, MBB.7, MO.4, MO.14, M0.15, MBe.4, MBe.7, MBe.9).

Bestetik, Mendi Tradizionalean, M. Meatzaritza Baliabidean edota M. Bizileku Formalean, agentziak nabarmen Pribatuak edota lurjabeak dira. Azken bi kasuetan, ulergarria da, izan ere mozkin ekonomikoak sortzen dituzten egitasmoak dira batik bat Ikuspegi bakoitzarekin lotzen direnak, eta Ideiak dira mendiaren mea ustiatzeak dirua dakar, eta mendietako lurzorua balioa izugarri handitu daiteke bertako eguzkiaz eta ikuspegiak gozatzeko duten etxebizitzak eraikitzen badira. Hala, horietan enpresa pribatuak dira batik bat eragile nagusiak, meatzaritza enpresak, eta eraikuntza edo sustapen enpresak eta elkarteak. Mendi Tradizionalaren kasuan ordea, aztertutako agiri gehienak agentzia Pribatua badute ere, fundazioak eta bestelako ikerketa taldeak dira agiriaren egileak eta PI-en eragileak. Hortaz, ideia nagusia mendiaren balio kulturala eta ondarekoa da.

Agentzia eta Ideien arteko gainjartzearekin zerikusia duen beste joera bat denboran zehar ematen den aldakortasuna da. Hots, aztertutako agiriak erakusten dute aldaketa ematen dela Agentzia tipoa (pribatua ala publikoa) historiako unearen arabera. Mendi Tradizionalean eta Erabilgarrian aztertutako agiri berrienak publikoak dira, eta zaharrenak pribatuak. Mendi Berdean ere, agiri gehienak publikoak izateaz gain, berrienak ere badira. Hau da, Mendi Tradizionalaren babesa, Mendi Erabilgarria edo hiri-zerbitzuen gaineko esku-hartzeak, eta Mendi Berdeko espazio irekien eta parkeen kudeaketaren izaera gizarteratzen da, horien onurak eta zerbitzuak instituzioek bere gain hartzen dituztelarik. Honek denboran zehar agentzia publikoak lurraldea antolatzeko hartzen duen indar nagusitasuna adierazten du.

Bestalde, Agentzia Subjektiboaren eta Irudikapen grafikoaren arteko lotura nabarmen bat identifikatu da; aipatu egin den bezala, nahiz eta agiri oso gutxi diren horrelakoak. Hala ere, hona ekarri nahi da estetikaren eta paisaia irudikapenaren arau onartuek agindu bezala postaletan, bista panoramikoetan, edo infografietan mendiaren irudikapena egiteko moduak: mendia atzeko planoan ageri da, azaltzen den jardunaren eszenategi bezala, oinarri fisiko bezala. Ez da jardueraren parte aktibo edo eragilea gisa irudikatzen, testuinguru pasibo bat bezala baizik.

Irudikapen eta Agentzia Objektiboaren arteko harremanak gorago ere agertu dira, alegia, mendiaren eta kokapenaren irudikapenak normalean begirada Objektiboa erabiliz egiten direla. Horretarako, normalean datu eta ezaugarri estandar kuantifikagarri edo neurgarriak erabiltzen dira, hala plano topografikoetan nola deskribapen txostenetan, baita zein nahi Paisaia-Ikuspegietan ere.

Azkenik, zenbait Ideien, Irudikapenen, Agentziaren eta Elementuen artean gertatzen den gainjartzea dugu. Bi egoera paralelo ilustratzen dira agirien bitartez, eta batik bat Mendi Tradizionalaren eta Mendia Bizileku Informalaren kasuetan ematen dira. Nabaritu den gainjartzeak zera erakusten du, mendi tradizional edo informalaren ideia, normalean Kanpotar bezala definitu den Agenteak bultzatzen duela, eta honen eskutik sustatzen direla informalak diren elementuak ordezkatzeko dituzten elementuak, edota bultzatzen dela tradiziozko elementuak babestea. Egoera paraleloak, ordea, alderantzizkoa adierazten du; hots, Barnekoa kontsideratu daitekeen Agente baten biziraute edo aisialdi ideiak eta asmoak, dokumentatu gabeak direla, eta in-situ eraikitako elementu bizituak, agiritan proposatzen direnek ordezkatzeko dituztela.

Zehazki, Mendia Bizileku Informalaren kasuan, txabola eta baratzak mendia hobetzeko asmoz kanpoko agenteek sustatzen dituzten etxebizitza eta parkeen ideiek eta elementuek ordezkatzeko dituztela esan nahi da. Eta, horrek era berean esan nahi du, barneko agenteek elementu horiek eraikitzeke izan zituzten ideia eta asmoak ez daudela dokumentatuta. Mendi Tradizionalaren kasuan berriz, agiriek, gehien bat ikerketa etnografiko, historiko eta geografikoak direnak, paisaiaren balio kulturalaz hitz egiten dute kanpotarraren begiradarekin, hots lurra landu eta eraiki ez duenaren ikuspegitik, edota elementu tradizional bizitu horiek in-situ eraiki zituztenen izenean.

Hortaz, Mendi Tradizionalaren eta Mendia Bizileku Informalaren ikuspegiari lotu zaizkion agiriek ez mendi tradizionalaren eta informalaren bilakaera zati batean soilik dokumentatzen dute. Areago, paisaia bat nola zaindu eta mantendu behar den adierazten dute (MT), edota, nola hobetu beharra dagoen (MBiI). Dokumentu hauek osoagoak izango liratekeela esan daiteke baldin eta barnekoa lurrarekiko duen harreman mediatu gabearen esperientzia islatuko balute, edota baratzak eta txabolak eraikitzeke balio eta esperientziak islatuko balituzte. Benetan paisaia tradizional eta informalak direnak, dokumentatu gabe daude, eta hortaz, babesik gabe eta aldaketa eta baliogabetze mehatxuaren menpe.

Barne-Kanpo Agentzia dikotomiak islatzen dituen parte hartze arazo garaikideak hizpide hartuta, Mendi Tradizionalaren edota Mendi Informalaren kasuan egoera kontrajarri eta tentsio hau errepikatua ikusten dela. Izan ere, bi ikuspegi horien araberrako *in-Situ* eraikuntza aurrera eramane zuten Barneko agenteen Irudikapenen gabezia berbera azaltzen dela esan daiteke. Zergatik? Bada dokumentazio gabeziak zaugarriagoak egiten dituelako, esaterako,

legearekin bat ez datozen egungo baratzak, edota bestelako paisaia eraikuntza ukiezinak edo espazio erabilerak, plangintza politikak babestuta datozen egitasmo eta proiektuen aurrean. Dokumentatzeko modu bat izan daiteke espazio informalei izenak ematea, edota mapak egitea (T. Sieverts, 2003a).

Halaber, egungo Barneko agenteak, garai bateko laborariak (Cosgrove, 1998), hirietako biztanleak direla esan daiteke. Laborariak lurraldea barnetik ezagutzen zuten, inongo irudikapen mediatuak egin gabe. Egungo hiritarrek ere beren lurraldea barnetik ezagutzen dute, eta beren egunerokotasunean ematen diren irudikapen ez dokumentatuen gabezia du Ikerketa honek. Balio beza Agentzia eta Irudikapen dimentsioen arteko loturak egunerokotasunaren Paisaia-Ikuspegi gabezia hori detektatzeko.

31 Taula Lau Dimentsioen artean topatu diren gainjartzeen laburpena

**OVERLAPPED DIMENSION
TRENDS**

IDEA + REPRESENTATION	The Idea is serviced by the Representation	The representation pictures the objective of the document
AGENCY+IDEA	Mostly Public Agency in FRM, OM, AM, GM, ISM	Mostly Private Agency in MRM, FSM, TM
AGENCY+REPRESENTATION	Objectivist and Standard in most documents	Subjectivist just in Post-cards, Novels, Paintings
IDEA+REPRESENTATION+AGENCY+ELEMENTS		
Documented Representation + Outsider Agency + Traditional mountain Idea → Protection of Elements		
<i>Traditional Elements + Insider Agency → Un-represented Idea</i>		
Documented Representation + Outsider Agency + Informal mountain Idea → Replacement of Elements		
<i>Informal Elements + Insider Agency → Un-represented Idea</i>		

11.5.4 Berariazkoa ez den paisaia eraikuntza

Bigarren Eszenako interpretazio prozeduraren amaieran, Paisaia Ikuspegi bakoitzaren amaieran galdera bat egin da: nola eragin diote Ikuspegi honek eta elementu zein ideia hauek Hiri Bazterreko Paisaiari? Asmorik egon ote da HBPa eraikitzeke? Erantzun nagusia ezezkoa izan da.

Noski, aztertutako paisaia-elementu gehienek hiri bazterreko paisaia tipiko baten osagaiak dira: errepideak, eraikuntza informalak, hiri zerbitzuak, espazio irekiak, nekazal eremuko

elementuak, baso esplotazioak, meatzeak eta abar. Ordea, agirietatik interpretatzenda, meatze konpainiek, baso jabeek, azpiegitura antolatzaileek, hiri zerbitzu eraikitzaileek, sustatzaileek eta bestelako inplikaturak agentziek sekula ez dutela izan egun ezagutzen dugun Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia menditsua eraikitzeko asmorik. Hortaz, esan daiteke, paisaiok hainbat erabaki independenteen ondorio direla.

Alabaina, inoiz horretarako asmorik egon baldin bada, zenbait Paisaia Ikuspegietako kasuetan topa daiteke. Kasu horietan, hiri ertzeko edo bazterreko kondizioa hainbat Agentziek beraien idiea eta interesetarako baliagarria izan dute. Esaterako, Mendi Erabilgarriaren kasuan, agiri guztietan azaltzen den bezala, elementu guztientzako onuragarria da hiri bazterrean topatzen duten kokapena bizigune *nagusietan* eragozpenik ez sortzeko moduan, behar haina espazio erabiltzeko eta maila funtzionalean hirigunetik baita garraio azpiegituretatik gertu egoteko.

Mendi Berdearen baitan sailkatutako agiriek ere, espazio ireki berdetuak garatzeko, mendietako tarteko espazio horren baldintzetaz profitatzen dute. Bestetik, Mandia Bizigune Formala ikuspegiaren sailkatu iren Lorategi Hirietako bizitoki garapenak (MBiF.1 eta 2) hiri ertzaren inguruan egotearen eraginez, bizigunearen kontzeptua garatzeko aukera baita baserri estiloko arkitektura diseinuak sortzen dira. Hots, hiri bazterrean eraikitzen ari zirenen kontzientzia baten adierazleak dira. Beste Paisaia Ikuspegietako elementuek, landa eta hiri eremuaren arteko mugaren indartzea eragin dute, eta aztertutako element gehienek ezinbeteen hiri bazterreko paisaiaren ezaugarrien eta izaeraren eraikuntza eragin dute.

Hortaz, Paisaia Ikuspegiteako elementuen analisi indibidualek adierazten dute ez dela egon Bilboaldeko hiri bazterreko paisaiaren eraikuntza sustatu duen elkarlanik Agentzia ezberdinen artean, eta honek, paisia hau eraiki duen erabaki independenteen metaketaren ideia indartzen du. Albaina, 11.6 azpiatalean ikusiko den bezala, existitzen dira Sei Paisaia Ikuspegiaren arteko elkarlanak eta konbinazioak. Lehenengo, ordea, Bigarren Eszenaren zenbait muga aipatuko dira.

11.5.5 Bigarren Eszenaren mugak: agiri kopurua eta teoria anbiguoak

Bigarren Eszenako Artxibo lana aurrera eramateko mugak dokumentazio gabeziarekin eta interpretazio teorien anbiguotasunarekin dute zerikusia. Dokumentazioa biltzerakoan, informazioaren eskuragarritasuna zenbait Paisaia Ikuspegiaren kasuan batik bat, zaila egin da, esaterako Mendi Oztopoaren, Mendi Tradizionalaren, Mendia Bizileku Informalaren kasuetan. Honek lortutako emaitzen egitatea ezbaian jarriko luke baldin eta Bilboaldearen eraikuntza frogatu nahi izan balitz, bildutako agirien bidez soilik egiteak interpretazio osatugabe bat eragingo lukeelako. Alabaina, tesiak hiri bazterreko paisaiaren bilakaera interpretatzeko metodo bat proposatzen duenez, eta ez Bilboaldeko paisaiaren kasu zehatzaren deskribapen

bat, informazioa lortzeko zailtasuna metodoa hobetzeko muga gisa ulertu beharko litzateke. Bestetik, Artxibo Lanean burututako prozedura analitiko eta interpretatiboa, uste baino gehiago luzatu da, agiri kopuru eta aniztasuna dela eta, baita bilatzen den informazioa nahi bezain ongi formulatua ez dagoelako. Honek beste oztopo bat suposatzen du plangintza eta diseinu prozeduretan integratu nahiko lukeen interpretazio tresnaren diseinurako, prozedura horrek dituen arintasun eskakizunak aintzat hartuz gero.

Honen aterabide bat aurreratu daiteke proposamenaren aplikagarritasuna arintzeko eta doitzeko: aztertuko den dokumentazio kopurua eta mota mugatzea. Honek eragin negatibo bat izan dezakeela ere aurreikusi daiteke, izan ere, dokumentazio aniztasuna mugatzen baldin bada, paisaiaren ikuspegi aniztasuna ere mugatu egin daiteke. Horrek proposatzen den metodoaren helburua aldatzea ekar dezake, hots, aurrera eraman nahi den aniztasun soziokulturalaren bidezko paisaia-erakuntzaren ulermenari mugak jartzea ekarri dezake.

Bestalde, lehenago azaldu den bezala, Agentzia eta Elementuak Dimentsioen interpretazioa egiteko erabili diren paisaia teoria dialektikoen anbiguetateak aipatu egin dira. Agentziaren (3.D) Barneko edo Kanpoko izaera bereiztea zaila da, eta Elementuei (4.D) dagokienez, paisaia baten eraikuntza Politikoa edo Bizituaren arteko gainjartzeak azaltzen dira. Batetik, teoria horiek ezartzen dituzten bereizketak (Barneko-Kanpoko edo Politiko-Bizitua) gaindituak daudela esateko balio dezake. Hasteko, Barne-Kanpo dialektikaren kasuan beste egoera sozioekonomikoetako paisaiak interpretatuz eratorri egin zelako: feudalismotik kapitalismorako trantsizio garai zabal batekoak (D. E. Cosgrove, 1998), hain zuzen ere. Egungo egoera sozioekonomikoei begiratuz gero, barne-kanpo harremana lurrarekiko askoz konplexuagoa dela esan daiteke, iraganeko lurjabe eta laborari figura pururik topatzea ezinezkoa delako, eta lekuekiko harremanak aldakorragoak eta iragankorragoak direlako mugikortasunak, lan baldintza iragankorrek eta globalizazioak eraginda. Gainera, Paisaia Politiko eta Bizituen kasuari dagokionez esan daiteke, paisaia bizituetako egunerokotasuna eta bizimodu arrunta politikoki eraikitako paisaiak eragindakoak direla hein handi batean, eta paisaia politikoak dituztela bizimodurako oinarri espazial gisa.

Barne-Kanpo dikotomiaren erabilerak, bestalde, gizartearen perfil aniztasunaren taldekatzeko kategorikoegia eta anbigua egitera behartzen du. Izan ere, gaur egun, lurralde bateko biztanle eta erabiltzaileen izaerarengan mugikortasun faktoreak, tokiekiko behin-behinekoak diren hainbat lotura eta atxikimendu eragiten ditu. Industria turistikoaren kasua izan daiteke kasu nabarmenena, eragiten dituen eraldaketak (zerbitzuak eta azpiegiturak), irudikapenak (postalak, oroigarriak, iragarkiak etab.) eta agenteenak (turistak) direla eta. Turistaren begiradak [the tourist gaze] (Urry, 2011) . Beste kasu bat aipatzearen, hiriaren hedatzeak, azpiegituren bidezko lurralde-sarekatzeak, eta enplegu guneen barreiatzeak eragindako desplazamenduen menpe bizi den biztanlearen edo *lurraldekariaren* [territoriantel]

(Muñoz, 2005) paisaia genuke; lanera egunero bidaiatzeko erabiltzen duen garraioidea, honen sarea, eta zeharkatzen dituen lurraldeak, baita herrialdeetako eremuek osatzen dute paisaia hau. Aipatzekoa da ere migrazio eta gizarte larrialdei egoerek eragiten dituzten lekualdatzeen eraginez sortzen diren egoeretako norbanakoen eta taldeen paisaien kasuaren berezitasuna. Nola neurtu daiteke barnekotasuna eta kanpokotasuna kasu horietan?

Eraikitako paisaien izaera Politiko edota Bizituaren kasuan, anbiguetateak topatu egin dira zenbait eredutan. Zehazki, MBB-aren kasuan, hasieran behar ekonomiko publikoa politikoki eta instituzionalki sustatzen den jardueraren bitartez konpontzea proposatzen zen, eta denborarekin eguneroko jardura pribatua bilakatu zen basogintza eta mendiaren kudeaketa. Mendi Oztupoaren kasuan, lurralde eskalako egitasmo politikoek, administrazio eta instituzioek kudeatzen eta burutzen dituzte, baina eguneroko funtzionamenduan bete betean barneratzen diren ohiturak eta beharrak sortzen dira garraio azpiegituren eta zerbitzu azpiegituren bidez. MBiFaren kasuan, etxebizitzak eta eskolak, egitasmo kolektibo, politiko eta pribatuak ziren hasieran, baina, hauek ere egunerokotasuneko paisaia bizituak dira oinarrian.

Beraz, atal honetan, ikerketako lehen fasean formulatutako Sei Paisaia-Ikuspegietako bakoitza luze zabalean aztertu egin da agirien sailkapenaren, analisiaren eta irakurketaren bitartez. Bazterreko Pasaia Menditsuaren eraikuntzaren alderdi eta hurbilketa bildu dira, Lehenengo Faseko Berreraikuntza Espekulatibotik abiatuta. Paisaia Ikuspegi bakoitzeko lau dimentsioak agirietako informazioarekin osatuaz, hiri bazterreko paisaiaren eraikuntza fisikoko zenbait elementuren eta egitasmoren oinarri ideologikoaren eta kontzeptualaren nondik norakoak ezagutu dira, eta paisaia-teoria sozio-konstruktiboen arabera aztertu egin dira. Emaitez irudikapen, agentzia, eta elementuen arteko loturak adierazten dituzte, dimentsioen arteko konbinaketa konkretuen eragin paisajistikoak argitara emanez.

11.6 Ikuspegien arteko konbinazioak eta beste mendi mota batzuk

Ikerlan hermeneutikoa izaki, honek helburu nagusia izan du paisaiak formaz adierazten duenaren atzealdea begiratzea beste irakurketa eta ekarpenak bilatzeko asmoz. Interpretazioak agiri bakoitza Paisaia-Ikuspegi konkretu batekin zuen harremana aztertzerantz behartu du, eta bilatzen zen informazio dimentsionalaz gain (Agentzia, Irudikapena eta Elementuak dimentsioak), Ideia dimentsioaren baitan bi norabide berri topatu dira: bata, Paisaia-Ikuspegien arteko konbinaketa, eta bestea, agiriek berek duten mendiaren ulerkera propioen adierazpena. Hots, sailkapenean agiriri edo elementuari dagokion Paisaia-Ikuspegiak gain, beste bost PIetako batekin edo gehiagorekin gainjartzea ematen dela. Eta, gainera, agiriek bidean galtzen diren berezkoak dituzten mendien irakurketa eta ulermenek Bazterreko Paisaia Menditsuaren Perspektiba ezustekoak dakartzatela.

Ekarpen konkretu bat gehitzen diote bi ondorio horiek tesiari, eta, hortaz, aintzat

hartu egin dira. Ikerketa honen izaera erreflexiboa da; hots, teoria eta ebidentziaren arteko interakzioek sortzen dituzten aldaeren bidez norabide egokitzapenak onartzen ditu. Hortaz, espero ez ziren bi ondorio hauek paisaiaren interpretazio konstruktiboa aberatsagoa eta anitzagoa sortzen dutela ametitzen da.


Azkeneko zati honek praxiarekin zerikusia duen beste erabilgarritasun zehatz bat izan dezake hurrengo arrazoiarengatik: Konbinaketek, eta Perspektiba berriek, paisaia konkretu baten funtzionamendua eta aukerak irudikatzeko balio dute. Proiektatzerakoan eta Planifikatzerakoan, dagoeneko lurraldeak jasan dituen proiektzio historikoen aukerak egungo Hiri Bazterren irudikapena aberasteko balio dezakete etorkizunari begira. Hots, etorkizuneko lurraldearen egoerak proposatzeko aukerazko egoera gehiago, edo saihestu daitezkeen iraganeke hanka-sartzeak ezagutzeko balio dute.

Hurrengo lerroetan, hasteko ikerketako Bigarren fasean topatu diren PIen arteko Konbinaketak, eta ondoren, Paisaia-Ikuspegi berriak aipatuko dira. Konbinaketen kasuan, maizen konbinatzen diren Paisaia-Ikuspegiak abiapuntu hartuta aurkezten dira gainontzekoekin dituzten loturak. Perspektiba berrietako ideiak berriz, taldekatuta azaltzen dira tauletan, dagokien Paisaia-Ikuspegian.

Hari hau, tesiaren ekarpen nagusia den Paisaia Ikuspegi tresnaren eta honen aplikazio-kasuaren emaitza bat gehiago bezala aurkezten da. Asmo nagusia da Paisaia Ikuspegi Tresnaren erabilgarritasuna argitara ematea, horregatik zerrendatu baino ez dira egiten Perspektiba berriak, eta Ikuspegiarteko Konbinaketen komentario laburra baino ez da aurkezten. Izan ere, tesi honek paisaiaren baloraziorik eta diseinu proposamenik ez du bilatzen, azken atal honetan aurkezten diren aukera sorta horretarako aurre-irizpide bat bezala ulertu beharko litzateke.

11.6.1 Konbinaketak

Irudian ageri den bezala, lotura gehien dituzten Paisaia-Ikuspegiak dira Mendi Tradizionala, Mendi Oztopoa eta Mendi Berdea. Horiek ote dira Bilboaldeako mendietako Bazterreko Paisaiari gehien eragin dioten Paisaia-Ikuspegiak? Oraingoz aurreratu daitekeena zera da, hiru PI horiek direla besteekin interakzio gehien eragiten dituztenak. Hiri bazterren eraikuntza, 6 Ikuspegian bidez eraiki dela interpretatu eta proposatu da lan honetako 1.go Eszenan paisaiaren osaera geruza-anitza abiapuntutzat hartuta. Hortaz, hiru horiek (MT, MO, MBe) garrantzitsuak baldin badira ere, beste lau Paisaia-Ikuspegiekin batera (MBB, MMB, ME, MBiF, MBiI) osatzen duten sare elkar-eragilea da benetan ikertu den Hiri Bazterreko Paisaiaren ezaugarri nabarmengarria.



19. Irudia Ikuspegien arteko Konbinaketak. Urdinez ageri dira maizen konbinatzen diren Ikuspegiak.

Mendi Tradizionala

Mendi tradizionala, Mendi Baliabidearekin nahastuta ageri da hainbat aldiz aztertutako agirietan. Jakina denez, mendia zurarekin eta burdinarekin lotzen duen ideia etnografia (Caro Baroja, 1957), historia eta ekonomia—ikus, besteak beste (Gogeochea, 1999; R. Uriarte, 2010)--lanetan usu agertzen den Euskal Herriaren kontzeptualizazioa da. Mendi Tradizionalaren PIa informatzeko bildu diren agirien gehiengoa klase horretako idazkiak direnez gero, ez da harrigarria lotura hau azaltzea.

Mendi Tradizionala, baserri giroarekin lotuta ulertzen baldin bada ere, ondoren etorri zen basogintza industrialaren eta meatzeen zein altzairu industriaren zabalkundearen proto-industria aurrekaria dela eztaba daezina da. Baieztapen hau jakintzat eman badezakegu ere, antzinako egoeren idealizazioa kolokan jartzeko balio dezake. Izan ere, mendiko baliabideen ustiaketa industria aurretik ere existitzen zen, eta ondoren etorri zena haren jarraipen bat baino ez da. Ordea, gizakiaren historia markatzen duen aldaketa markatuenetako izaki, eten eta balio-galera gisa ulertu izan da industria aurretik industria garairako, edo feudalismotik kapitalismorako jauzia.

Idealizazioak alde batera uzteko baliagarria izan daiteke Mendi Funtzio-anitzaren kontzeptua, tradizioz egin den mendi-baliabideen kudeaketa eta horrek markatu duen

bizimodu eta kultura zaharra aipatzeko erabilgarriagoa. Aztertu diren agiritan, Mendi Tradizional eta Mendi Baliabidea lotzen dira basoetan ustiatzen ziren ikatza eta eraikuntza-zura aipatzen direnean—bestelako fruitu, belar, orbel, garo, ote, txilar eta abarrak ahaztu gabe; edota mendietako meatze eta harrobiak laborarien bizimodu osagarri gisa aurkezten direnean—karea, harlandua, teilak ere aintzat hartuaz. Mendia basoarekin identifikatzen da foru arau zaharrak eta baso-mendi erabilerak alderatzen direnean (MT.7), Julio Caro Barojaren ekologia eta etnografia lanetan euskal herriko kultura teknologikoa mendiko zura eta burdinarekin lotzen da (MT.8); Bilboaldeko herrien eta Bilboko auzoen garapen historiko eta geografikoetan mendiaren kudeaketa, ustiaketa eta baliabide anitzak maiz azaltzen dira (MT.9 eta MT.10). Era berean, Mendi Basogintza Baliabide Ikuspegiaren agiritan, mendia eta bestelako nekazaritza jarduera edo rustikoak, elkarlotuta ageri dira; esaterako, Foru Arauan (MBB.7) edo Basogintza Planean (MBB.8). Basogintza, baserri ekonomiaren osagarri bilakatu zen moduan, baserri jarduerak, egun basogintzaren eta mendi kontzeptuaren osagarri bilakatu dira, alderantzizko moduan. Era berean, Basogintza arauetan, meatzaritza eta harrobi jarduerak, mendi-baso horren parteak dira. Esatea posible da, beraz, Mendia Baso Baliabidearen Ikuspegi nagusitasunak arautzen duela mendietako espazioa nahiz mendiaren kontzeptua bera ere, bai Bizkaian, zein Bilboaldean ere.

Bestalde, agirien interpretaziotik jaso bezala, Mendi Tradizionalak lotura dauka Mendia Bizileku Ikuspegiarekin. Hau bizitoki Formal zein Informaletan gertatzen dela esan daiteke. Formalaren kasuan, batik bat, 20. Mende hasierako etxebizitza proiektuetan (MBiF.1 eta .2), arkitektura estilo konkretu batek gorpuzten du Tradizioaren ideia hori. Hots, mendia (edo hirigunetik kanpo egoteak) baserri giroarekin lotzen duena eta hortaz, arkitektura estilo egokitasuna ezartzeko balio duena. Informalaren kasuan, txaboletan bizi ziren biztanleen ohien testigantzen arabera, baita garai bateko auzo informal erregulatuetako biztanleen ahoetan (MBiI.4), eremu horietan bizitzea baserri giroan bizitzearen parekoa da (MBiI.6).

Mendi Oztopoa

Mendia oztopo fisiko gisa gainditzeak eskatzen dituen egokitzapen teknologikoak dira beste Ikuspegiekin lotura egiteko balio duen soka. Mendi Oztopo Ikuspegian bildu diren azpiegiturez gain, beste kasu batzuetan ere asmo bat aurrera eramateko edo jarduera bat gauzatzeko beharrezkoak izan dira teknologia eta eraikuntza bereziak mendi morfologiaren zailtasunak salbatu ahal izateko.

Mendia Meatzaritza Baliabide Ikuspegian (MMB) hiru agirirekin ilustratu dugu kasua; hots, mea garraiatzeko azpiegiturena. Agiritegietan egindako azterketek, ordea, argi adierazten dute Bilboaldeko mendi meatzarrietan horrelako hainbat eta hainbat azpiegiturek sare trinko eta konplexua osatzen zutela. Plano Inklinatuak eta aire bidezko tranbiak dira eredu nabarmenenak. Bi horien adibide oso esanguratsuen traza eraiki eskasak aurki daitezke egun.

Arnabaleko plano inklinatua nabari da Argalarioko magaletan Retuertora beheratzen, eta Orconeratik Pobeñaraino luzatzen zen aire-bidezko tranbiaren oinarri bakan batzuk aurkitu daitezke Barbadun itsasadarraren bokalean. La Reinetara igotzen den funikularra ere, plano inklinatu gisa erabili zen garai bateko aztarna erabilgarriaren eredia da. Hemen azaldu diren Concha 7.meatzeko plano inklinatuaren proiektua (MMB.11), Vigilante meatzeko aire-tranbia (MMB.4) eta Bleichert sistemaren bitartez eraikitakoa (MMB.15) azpiegitura ikusgarri horien dokumentuen adibide bakan batzuk dira.

Oztopo teknologikoez gain, mendiak oztopo ekonomikoak ere eragiten dituela esan daiteke. Horren adibide xumea, baina paisaia eraldatzailea, Bilboko Kobetamendiren magalean eraikitako Altamira auzoa da (MBiF.4). Bertan burutu nahi ziren 1000 etxebizitzetarako irisgarritasuna bermatzeko, errepidea eraiki beharra zegoen, noski. Promotoreek baina, eraikuntza gain-kostu horri aurre ezin eginean geratuko ziren zona horretako hirigintza aprobetxamendu txikiaren eraginez. Hortaz, mendiaren morfologiak eragindako oztopo ekonomikoa salbatzeko, etxebizitza gehiago eraikitzeko eskaera egin zioten Gran Bilbao Batzordeari.

Oztopo hori baina, abantaila bihurtu daiteke, Mendi Berdearekin konbinatuz gero, Telesirgaren (MO.8) edo Artxandako Funikularraren (MBe.1) kasuan bezala—baita La Reinetakoan ere, Meatzaldeko parkea aintzat hartzen badugu. Paisaia-Ikuspegi Berdeak mendian ikusten duen aisialdi eremuak etxebizitzaren eraikuntzak bezalako irisgarritasun arazo berbera duenez, hura gainditzeko moduak pentsatzea eragiten du. Nola eraman hiritarra mendian gora espazio garbia gozatzerako nekagarria suertatuko ez den moduan eta negozio bat sortzeko moduan? Bada 20. mendean Bilbon bi aterabide teknologiko proposatu ziren, bakarra eraiki egin bazen ere: Artxandako Funikularra, parkearekin batera garatu zena, eta Telesirga, bitxikeri zoro gisa paperean geratu zena.

Mendi Berdea

Mendi Berdea beste Paisaia-Ikuspegi batzuekin lotuta azaltzea egoera desiragarria da. Zergatik? Bada mendia parke eta naturgune gisa soilik ulertzeak, oinarrian arazo kontzeptual bat dauka zenbait ebidentzia fisikoekiko itsutasunak, berdeegia eta naturalegia den paisaia irudi hertsia eta ideal bat eraikitzen duelako. Horiei aurre egiteko, Mendi Berdearekin lotura azaltzen duten bestelako proposamenen presentzia emaitza interesgarria da.

Lehenengo adibidea, Mendi Berdea, Mendia Baso Baliabidearekin lotzen duen ideia ahul baina nabaria da. Kasu honetan, Bilboko Gerriko Berdean aipatzen diren “baso parkeek” [parque forestal] ematen dute pista hori. Hots, publikoa den baso ustiaketa baten eta aisialdi gune ireki baten artean sor daitezkeen harremanek garatu gabe dauden plangintza eta diseinu aukerak iradokitzen dituzte.

Bigarren kasuan, Mendi Berdea, Mendi Tradizionalaren ikuspegiarekin lotuta ageri da. Hau nabaria da batik bat Bilboaldeko Lurralde Plan Partzialari (LPP) dagokion Sare Berdearen Ordenazio planoan (MBe.4). Sare berde hori osatzen duten elementuetako batzuk dira nekazaritza eremuak, hiri barneko eta metropoli mailako parkeekin batera. Nekazaritza eremu hauek “paisaia onurako landa-aldeak” izendatzen ditu LPPak, eta gehienak mendietan kokatzen dira. Hemen ere, aisialdi eremu tradizionalen, hots, parkeen, eta esparru tradizional horien arteko harremanak sortzeko aukerak topa daitezke.

Amaitzeko, Mendi Berdearen eta Mendi Erabilgarriaren konbinaketa kasua aipatuko da. Hau Arraiz eta Artigaseko Plan Berezia zeharka aipatzen den aukera baten hariari tiraka topatu den irakurketa bat da. Hots, Bizkaiko zabor kudeaketa gune garrantzitsuenaren berdegune, edo aisialdi gune izateko duen balizko bokazioan. Agirian nolabaiteko “zaborraren ekoparke” baten proposamena iradokitzen da (ME.8). Oraindik orain, eremua Bilboko Gerriko Berdearen ibilbide batzuek zeharkatzen dute, eta posible da Artigas ingurutik ibiltzea, baina zaintza eta mantenu maila eskasaren egoerak nahi baino desegokiagoa egiten du parke-aisialdi eremua. Zaborraren gaiarekin aisialdi edo hezkuntza proposamenak egiteko aukerez gain, eremu osoak duen geologia berrerabilgarriaren izaerak ere plangintza eta diseinu sortzailea eta integratzaile baterako aukerak ematen ditu. Esaterako, lurraldearen berrerabilgarritasuna eta berreskurapenaren kontzeptuak landuz, edota natura artifiziai edo kulturalaren adieran sakontzea, natura-artifizio muga gaindituko lukeen kultura bat sortzea posible litzateke. Garai batean, naturaren eta nekazaritza paisaiaren irakurketa moralista bat egiten zen, bertatik industrializazioan bete betean bizi zen gizarteak galdutako balioak berreskuratu zitzaizkion. Agian orain paisaia eraldatu horiek erabili daitezke bestelako balio sortzaile etiko eta estetikoak eratorri ahal izateko.

11.6.2 Beste mendi mota batzuk

Esan bezala, agirien helburu aitortuak eta kokapen deskribapenak aintzat hartuta, mendiaren ustekabeko, edo formulatu gabeko ulermen eta adierazpenak topatu egin dira. Hurrengo lerro eta tauletan bildu eta azaltzen dira.

Mendi Tradizionalarekin zerikusia duten Formulatu gabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Irudiaren atzealdea	Argazki eta postaletan
Misteriotsua, Zaharra,	Saroi inguruak
Gotortua eta Babeslea guda garaian	hainbat tontorretan ageri dira gotorlekuak: Montaña, Luzero, Artxanda, Miribilla, Ganguren eta abar
Uraren eraginpekoa	Olak, ubideak,
Isolatua	Ermitak

Ekologikoa	Gizakien eta medioaren arteko harremana
Paisaia	Paisaia Kulturala edo Baserri ingurua
Hiriaren kontrakoa	Paisaia Kulturala edo Baserri ingurua
Pasoa	Gernika eta Txorierritik Bilbora. Artxanda, Ganguren; La Peñatik Gipuzkoara, Arabara, Gaztelara; Kastrexanatik Burgozera, Kantabriara eta Santiagora.
Jabeduna eta Kudeatua	Saroiak, lurzoru komunak, abeltzaintza, basoak, meatzaldea, foruak, mendi motak

Formulatu gabeko Ideia hauen bidez, industria aurreko mendi paisaiaren irudikapen osoago bat egitea posible da, baserriaren irudi estatiko eta ideala baino aberatsagoa, eta forma naiz izaerari dagokionez didaktikoagoa izan daitekeena. Finean Atlantiko isurialdeko paisaia kultural gisa onartu dezakegun honen ezagutza sakonago eta xehatuago batek, irudi idealaren erlatibizatzea ekar dezake. Honek, iraganaren errebindikazioak teorikoki eta materialki indartsuagoak egiten laguntzeaz gain, haren kudeaketa eta elementu garaikideekiko harremanetarako irizpide zorrotzago eta arkitektonikoki sendoagoak eraikitzeke medio bat suposatzen du.

Mendia Meatzaritza Baliabidearekin zerikusia duten Formulaturgabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Lur-azpi Baliotsua	Meatzaritza jardunarekin zerikusia duten agiri guztiak
Lur-azal mespretxagarria	Concha 2.aren zabaltze proiektua-Gallartaren eraispena.
Lur-azaleko jabetza	Kontzesio eta demarkazio planoak
Generodun Mendia: Emakumezkoa	Meatze demarkazioen izen asko eta asko emakume izenak dira: Concha, Carmen, Pepita, Luisa, Clotilde, Camelia, Celestina, Sofia, Mame, Pilar, Pura, Conchita etab.
Mendi Landua eta Bizitua: humanoa, eskala gizatiarrekoa	Orconerakoa meatzeen plano topografikoan ageri diren baratzeek, bidexkek, etxebizitzek, eta orokorrean duen xehetasun maila handiak bizirik dagoen eremu bat irudikatzen du.
Mendi Eraldatua-Topografia artifizia	Meatzaritzaren eraginez osatua
Antzua	Mea ez duena
Ederra	Adan de Yarzaren deskribapenetan
sistema handiago baten zatia	Adan de Yarzak azaltzen duen bezala, Bilboaldeko geomorfologia Pirinioetako sistema orokorraren parte da.

Meatzaritzak dakartzan formulatu-gabeko Perspektiba hauen bidez, argiago ulertzen da jarduera honek mendialdea ikusteko eta kudeatzeko zerabiltzan baliabide metaforikoak eta pragmatikoak. Lur-azalaren eta lur-azpiaren bi zatien bereizketa, batetik jabetza, ustiaketa eta kudeaketa, bestetik mea, balioa, lana. Jardueraren alderdi lirikoak, meatzeen izenek adierazten dute, nolabait, maiz erabiltzen ziren emakumeen izenak direla medio. Lur-azal eta lur-azpi geruzen arteko interakzioek eta sartu-irtenek egoera eta izendapen berriak eragiten dituzte:mendi eraldatua edo topografia artifizialaren paisaia, edota mendi antzua eta baliogabea, beste erabilera baterako aproposagoa.

Mendia Basogintzarako Baliabidearekin zerikusia duten Formulatu-gabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Abandonatua	Basogintzaren aurreko mendiaren egoera, abeltzaintza-zelaiak zabaltzeak eragindakoa.
Basoa guztiz ez	Baso inguruko eremuak
Basoa eta Yarza = Yarzaren eredu Mestia	Mario Adan de Yarza basogileak <i>pinus radiata</i> bere lursailetan egindako esperimentuak.
Mestia Salgai	Adan de Yarza-tarren lursailen salerosketa harremana Bizkaiko industria enpresa handienarekin
Publikoa	Jabetza publikoko mendiak edota erabilera publikoko mestia
Pribatua	Pinu-basoaren ustiaketa pribatiboa, forestalisten sektorea; lursail txiki eta barreiatuak
Lantegia	Basogintza eta sektore forestalista
Azpiegitureadun mestia	Pistak, biltegiak, zerrategiak: basogintza
Maldatsua	Baso mekanizazio teknologia
Antzua	Ezer ekoizten ez duen mendiko lursaila
Babeslea: Funtzionala eta zerbitzaria	Mendi Babeslea; Zerbitzu ekologikoak ematen dituena eta kultura zerbitzuak eskaintzen dituena: Ekosistema Zerbitzuen teoriaren arabera: airearen garbiketa, erosioren kontrako babesla, bioaniztasunaren babesla eta sustapena; aisialdia; enplegua.
Ekosistema	Mendiko baldintza topografiko berezien arabeko ekosistema: altitua, litologia, landaredia, prezipitazioa, hidrologia, fauna, gizakia barne hartzen dituena.
Geologikoki aldakorra	
Paisajistikoki Hobegarria	Monolaborantzaren eraginez paisaia homogeneoa sortu da: itxura homogeneoko mestia
Mehatxatua	Sua eta erosiola
Baliabide Energetikoa	Zura
Landatarra [Rustico]	Urbanizazina den lurzorua, hots Mestia lurzoru urbano edo urbanizagarriaren kontrako
2.mailakoa	Mendi Publikoen eta Babesleen gaineko irizpide babesleak, indargabetu egiten dira interes publikoaren aldeko eraldaketa baten eraginez. Bizkaiko Foru Araua 9. artikulua

Basogintzaren ikuspegitik mendiak hainbat ulerkera onartzen ditu bi taldetan banatuak: bere ustiaketa eta baliabideak kudeatzearekin zerikusia duten ulerkerak, eta ikuspegi ekologikoak azalarazten dituen ezaugarrien arabekoak. Lehengo taldean, mendiaren izaera negatiboa hura utzita egoteak edo antzua izateak iradokitzen dute. Mendiaren jabetze pribatua edo publikoa izan daiteke, eta salgai bilakatzen da produkzioak sortzen dituen mozkinak beste bati interesgarriak izan liezazkiolako. Eredu honen aurrekaria, Mario Adan de Yarza izan zen, mendi abandonatua, mendi lantegia eta ekoizlea bihurtzea lortu zuena kanpotik ekarritako hazkuntza bizkorreko espezien bitartez. Lantegi horrek, azpiegiturak eta teknika bereziak behar ditu, mendian egoteak bere baldintza bereziak sortzen baititu.

Baldintza berezi horiek, mendia ekosistema berezia bilakatzen dute. Ikuspegi ekologikoak, mendi lantegia mendi ekosistemarekin orekatzeko irizpideak ezartzen saiatu egin da. Horretarako, mendiak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk nabarmentzen dira, eta basogintzak sortzen dituen mehatxuez ohartarazten da. Hala ere, mendia babesteko eta mantentzeko neurriak indargabetu egiten dira azpiegitura handi bat eraiki behar denean, publikoarentzako zerbitzu handiagoa eman diezaike eta.

Mendia Oꞗtopoarekin zerikusia duten Formulaturagabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Mendia Komunikabide.	Antenak, nabigaziorako telegrafo eta argiteria. Begoñako Basilika, Telesirgako proiektuan, Gurutze erraldoi bat proiektatu omen zen eta faro bat, harekin itsasadarra argiztatzeko asmoa zegoen; portua eta pasoa.
Zulagarria, eta, igo eta jaitsi daitekeena	Urak ekartzekoan, mendia horrela tratatzen da, hoditeriak zulatu, igo eta jaitsi egiten du mendia, uraren garraioa bermatzeko.
Ez dagoena edo ikusezina,	Errepide irudikapenetan agertzen ez dena; orban zuri baten presentziak adierazten duena
Fondoa	Irudietan agertoki gisa agertzen denean, atzeko planoan.
Baldintzatzailea	Errepide baten proiektuari eta eraikuntzari eragiten diona
Tunel gainekoa	Mapa batean tunel baten lerro etenek adierazten dutena.
Geografikoa	Topografia plano baten bidez adierazten den mendi morfologikoa
Urbanizagarria eta Urbanizaezina	Hirigintzaren irizpideak
Geruza-anitza	Azpiegitura baten ezarketa aztertzerakoan aintzat hartu beharreko mendiaren geruza anitzak: geologia, geomorfologia, landaredia, animaliak, paisaia, eraginak, azpiegiturak, jarduerak, estetikoa, interesgarria, hirigintza kalifikazio eta klasifikazioa geruzak, ondare, zaurgarritasuna, kutsadura
Lur-azala	Lur-azpia ez da mendia
Landareztatua	Bertako landaredia
Ondareduna	Historikoa, meatzaritza

Mendi Oztupoaren inguruko agirien interpretazioaren arabera, ideia nagusia mendiaren gaintzea baldin bada ere, beste ideia batzuk ere zeharka ageri dira. Horietako bat, historikoki mendiarekin lotua dagoen Komunikabide azpiegitura izaera da: dela errepidez, dela seinale edo komunikatzeko “gailu” gisa, mendiak beti izan du oztopoaren aurkakoa den lotzeko ahalmena adar-bidezko deiek (Bizkaiko deiadar mendiak batzarrera deitzeko erabiliak), edo mendiko bideen portuek irudikatzen duten bezala. Gaur egun, komunikabide ideia hori telekomunikazio errepikagailu eta antenek gorpuzten dute. Muga izaera duenetan ere, mendiko portuak edo gainak, elkargune soziokultural eta administratiboak izan daitezke, Piriniotan ospatzen den Hiru Behien³¹ zergaren kasuan bezala.

Alderantziz, Mendi Oztopo ikuspegiaren eraginez, batzuetan, mendia mespretxatua ageri da, egongo ez balitz bezala jokatzeko delarik, eta teknologiaren bitartez gaintu daitekeen elementu fisiko soila balitz bezala. Hala, irudikapenetan desagertu egiten da, edo beste elementu baten irudiak adierazten du haren presentzia, edo kuantifikazioaren eta elementu objektiboen bitartez irudikatzen da.

Denborak aurrera egin ahala, eta Ekologiaren ikuspegia nagusitzen joan den heinean, Mendi Oztopoa beste ezaugarri batzuek osatu egin dute. Mendiaren izaera osoago bat irudikatzen balio duten geruza anitz erabiltzen dira horretarako, ekosistemaren izaera adieraziz. Garatuko den azpiegiturak eragin ditzakeen kalteak hobeto neurtzeko eta saihesteko metodoen eraginez zerrendatzen dira horiek. Ordea, hauek lur-azala baino ez dute kontsideratzen, eta lur-azpia espazio neutro gisa edo ez-mendi gisa azaltzen da kasu horietan.

Mendi Erabilgarriarekin zerikusia duten Formulaturagabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Hutsa	Aurrebaldintzarik suposatzen ez zaion mendia, espazio abstraktua edozer bertan ezarri ahal izateko
Isolatua, bizkarra emanez, ezkutatua	Populazio handi baten bizileku baten begi-bistatik kanpo,
Segurua	Larrialdirik eragin ezin dezakeena populazio handi baten bizilekuarekiko distantzia erlatiboa dela eta.
Trastelekua	Inork nahi ez dituen funtzioak eta elementuak gordezten dituen begi-bistatik kanpo.
Kutsatua	Aurretiko jarduera batek eragindakoa
Artifiziala	Jarduera baten bidez eraldatutako mendi magala, jatorrizko ezaugarriak ez dituena
Berrerabilgarria	Kutsadura sortzen duen edo kaltegarria den jarduera bat kutsatua dagoen edo naturala ez den tokian kokatuz
Birsortua	Topografia berri batekin berreskuratzen den mendia

31 “Hiru behien zerga (Tributo de las tres vacas gaztelaniaz eta Tribut des trois vaches frantsesez) Errokaribarren (Nafarroa Garaia) eta Baretos ibarraren (Berno) artean egindako hitzarmen zaharra da, XIV. mendetik datorrena.” Hiru behien zerga. (2014, urria 18). Wikipedia, Entziklopedia askea.

Mendi Erabilgarriaren posturak bertan aukera eta abagunea bilatzen du, orokorrean oportunistak den jarrera baten bidez. Hala, mendian kokatu behar den jarduera edo zerbitzuak, hango aurrebaldintzak ez ditu aintzat hartuko eta hutsa ikusiko du testuingurua: egokitzapen eranskina eskatzen duten baldintzarik gabe, alegia. Era berean, baldintza mespretxagarri horiek, mendi horren isolamendua eta ondorioz, ziurtasuna bermatzen dute. Biztanleriarengandik gertuago egon litekeen eremu baten kontrako egoera ordezkatzeko du mendi seguru eta isolatu horrek. Hala, garapenaren poderioz, mendi huts, isolatu eta seguru hori inork ikusi nahi ez dituenentzako ganbara aproposa bilakatzen da. Gainera, baliteke, mendia kutsatzea eta artifiziala bilakatzea. Ondorioz, zerbitzu gehiago garatu behar badira, eta horientzako kokapena behar baldin bada, mendi horien berrerabilgarritasunak beste batzuen eraldaketa saihesten laguntzen du, eta zergatik ez, agian mendi eremua birsortu egin daiteke paisaia huts eta kalterik eragiten ez duen baten bidez.

Mendia Berdearekin zerikusia duten Formulaturgabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Zaugarria	geologikoki eta ekologikoki
Aukeratua	Toki guztiek ez dute mendi izatearen baldintza betetzen
Mendi ertza	Hiriko ertza: Bilboko Eratzun Berdea
Mendi Ingurutzaila	Hirigunea inguratzen duen mendia: Bilboko Eratzun Berdea
Ondare-lekua	Ondare historikoa gordetzen duena
Onuragarria	Gizakiontzat onuragarria: Askatasunaren tokia; Armoniatua; Naturala; Garbia
Mendia Guda-lekua	Gerra Zibilean eraiki zen Bilboko Burdin-Gerrikoaren kokalekua eta trazak
Mendi lur-azpikoa	Espeleologia eta kobazuloak
Mendi ezezaguna	Orientaziorako elementuak eta tresnak eskatzen dituena. Orientazio tresneria garatzen laguntzen duena
Mendi Hezitzailea	Moralaren eskutik gizatasuna handitzen duena; interpretazio ekologikoaren bidez ingurumen sentsibilizazioa handitzen duena
Morfologikoa	Tontorrak, lepoak, pikoak, magalak etab.
Mendi Anitza: hibridoa, heterogeneoa, hiritartua	-Hibridoa: hiriaren eta landaren arteko nahasketa; -Heterogeneoa: hainbat jarduera ematen dira bertan; -Hiritartua: hiraren elementuak ere bertan sumatzen dira

Mendia aldi berean da hiritik alde egiteko eremu natural bezain zaugarria, hainbat elementu interesgarri gordetzen dituena, lur-azpiko kobazuloen balioak esaterako, edo lur-azaleko ondare elementuak eta monumentuak bezala. Memoria horren parte dira mendia

koka-leku izan zuten historia garaikidearen traza eraikiek edota mendiak ekintza horietan izan zuten erabilera: Guda Zibileko burdin-gerrikoaren kasuan bezala. Elementu baliotsu horiek, natural zein kulturalak, gizartea hezi egiten dute. Esan beharra dago, baina, elementu batzuk soilik aintzatesten direla mendiaren eremu barnekoak, edo hezitzaileak izan daitezkeenak. Azpiegitura eta zerbitzu asko, edota irauten duten elementu landatarrak, ez dira onartzen edo ezagutzen maiz.

Kontraesan moduko bat sortzen da; alegia, mendiak hiriaren ingurutzailerik gisa onartzen direlako, hots, hiritik gertu baina urruti era berean. Beste kasu batzuetan, Bilboaldeko mendien izaera hibridoa onartu egiten da, eta bertako elementu anitzak eta nahasteak izaeraren parte direla onartzen da.

Mendia Bizigune Formalarekin zehaztua duten Formulatu gabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Mendi Osasuntsua	Egunerokotasunerako baldintza onuragarriak dituen, hirigunearekin alderatuta,
Lurzorua Baliabide Ekonomikoa	Etxebizitza salgai gisa garatzea eta lurzoruen balioaren handitzea horren bidez mozkin lortu ahal izateko.
Mendi Ikusgarria Apaingarria, Erakusgarria, Begiratua	Hiriaren Apaingarria, Hiritik Ikusten dena, Hiriaren atzealdea, Begiratua eta Begiralekua

Hiru ikuspegi guztiz ezberdin Ikuspegi berdinen baten inguruan topatuak: Mendi osasuntsua egunerokotasunaren onerako; mendiko lurzorua baliabide ekonomikoa espekulazioaren bidez mozkin irabazteko, eta mendi Ikusgarria. Azken hau, etxebizitzek bertan kokatzerakoan garatzen duten ezaugarriaren osagarria dela esan daiteke: hots, eraikinak menditik dagoen ikusmiraz gozatzeko eraikitzen baldin badira, era berean, magal horiek hiritik bertatik ikusgarriak direla aintzat hartu beharra dago. Bi norabideko harreman bisual bat gertatzen da hortaz, mendia begiralekua da eta era berean begiratua da.

Mendia Bizigune Informalarekin zehaztua duten Formulatu gabeko Ideiak

Perspektibak	Ebidentziak
Arantzeko Koroa, Latorrizko Gerrikoa	Bilboko mendietako txabola auzoen analogiak
Mendi Apaingarria	Txabola Itsusiek eta Baratza itsusiek eragin Bisual Negatiboa sortzen dute
Mendi Bizileku Desegokia	Giza baldintza eskaseko tokia
Mendia Paisaia	Nahiz eraikuntza informalez beteta egon, mendia, mendia denez eta kalifikazio ez-urbanizagarria lortzen duenez, Paisaia da nahitaez.
Morfologikoa	Maldatsua, Pikoa
Lokaztua	Zikinkeria eta bizitoki baldintza eskasen adierazgarria

Ikuspegi honetan garatzen da bereziki mendiaren ikusgarritasun izaera bikoitza bi norabideetan. Hots, mendia elementu informalez osatua dagoenean, bere izaera ikusgarriaren kalterako dela esan ohi da, hala txabola auzoak garatu ziren garaian, hala baratza informalak agertu direnean ere. Ezaugarri hau, iraun duten auzo informalek beren onerako harrotasunez aldarrikatzen dituzte. Mendiaren izaera paisajistikoa informalitatea erauzi behar denean indartzen da batik bat, paisaia *ikusgarri* bat, bederen.

11.6.3 Laburpena

Atal honetan, ikerketaren Bigarren Eszenan suspertu diren bi emaitzen azalpenak eman dira; Ikuspegiaren arteko elkar-eragite edo Konbinaketak, eta Ikuspegiaren baitako agirietan topatu diren berezko Perspektiba eranskinak edo berriak.

Konbinaketei dagokienez, hiru Ikuspegiaren esku daude lotura gehienak: Mendi Tradizionalak, Mendi Oztopoak eta Mendi Berdeak dira gainontzeko ikuspegiarekin lotura kopuru handienak dituztenak. Mendi Tradizionalak loturak ditu Mendia Baso eta Meatzaritza Baliabide Ikuspegiarekin, eta Mendi Bizileku Formal eta Informalarekin. Mendi Oztopoaren agirietan berriz, Meatzaritza mendiarekin, Mendia Bizileku Formalarekin eta Mendi Berdearekin. Azkenik, Mendi Berdeak, Mendi Tradizionalarekin, Mendi Erabilgarriarekin eta Mendia Baso Baliabidearekin dituen konexioak aipatu dira.

Formulatu gabeko ikuspegiak, Paisaia Ikuspegika sailkatu egin dira, izen adierazgarri eta hura justifikatzeko balio duten ebidentziak zerrendatuz. Atal bakoitzean, denak harilkatzen dituen komentario edo narrazio txiki bat osatu da, nolabait, Perspektiba horien izatearen logika arrazoitu bat osatuz.

Bai Konbinaketak eta Formulatu gabeko paisaia ikuspegiak praxiari begira erabilgarriak suerta daitezkeen emaitza gisa aurkezten dira hemen. Tesiaren helburua Paisaiaren ulermena denez eta ez diseinua edo planifikazioa, hari hauek ez dira gehiago garatuko. Hortaz, metodoa Bazterreko Paisaien indarguneak detektatzeko duen erabilgarritasun gisa soilik aipatzen dira. Hots, tesiak aurkezten duen Paisaia Ikuspegi Tresnaren emankortasunaren seinale gisa

11.7 Emaitzen Ondorioak

Atal honen helburua izn da ikerketa prozeduraren baitan lotu diren ideiak eta ondorioak bildu eta adieraztea, baita fase bakoitzeko—literatura berrikuspena, metodologia berrikuspena, interpretazio tresna, ikerketa kasua, landa lana, artxibo lana— ekarpenak hurrengo faseari eragiten diona ere erakustea ere.

Literatura berrikuspenak eta metodologia berrikuspenak ikergaiari egiten zaizkion hainbat hurbilketa, interpretazio eta analisi metodoak aztertu dituzte, tesiaren zati enpirikoaren

oinarriak zedarritzeko baliagarria izan dira, hortaz 1-6 bitarteko atalak. Oinarri horiek, tesiak proposaten duen interpretazioarko Paisaia Ikuspegi tresnaren lau Dimentsiotako egituran islatzen dira. Tresnak paisaia bi modutan interpretatzen du: batetik haren izaerarekin espekulatuz hurbilketa ezberdinen formulazioaren bidez, eta bestetik, haren izaeraren inguruan ikerketa eta galdeketa bat egituratuz dimentsioen bitarteko interpretazioa dela medio.

Paisaia Ikuspegiaren aplikaziorako, Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia menditsuen kasua erabili egin da. Ikerketa kasu honen izaeran eta elementuetan geografia morfologiak eragin nabarmena du. Ikerketa kasua bi modutan interpretatu da Paisaia Ikuspegia tresna erabiliz, modu bakoitza gorago aurkeztu diren bi Eszenek ordezkatzan dituztelarik. Landa Lanak paisaiaren izaerarekin espekulatzen du Sei Paisaia Ikuspegiaren formulazioaren bitartez eta mapetan irudikatuta. Bigarren Eszenako Artxibo lanak, Paisaia Ikuspegiko lau Dimentsioen erabilerarekin eta oinarri teorikoarekin, espekulazioa paisaia eraikuntza irudikatuak interpretatuz osatzen du.

Bigarren Eszenako emaitzek paisaiaren osaeran joera orokor bat azaleratu dute, dimentsio tipo batzuek agiri ezberdinetan zehar duten errepikarkortasunak adierazten duten bezala. Joera errepikatuez gain, aldakortasun bat ere topatu egin da, dimentsio tipo ezberdinen arteko konbinazioek erakusten duten bezala. Honen esanahia hurrengoa izan daiteke; nahiz hiri bazterreko paisaia eraikitzeke garapen tipiko bat egon badagoen—zorizkoa—, lurraldearen/mendiaren ulerkerarekiko axolagabea edo independentea dena—lekukotasuna baztertzen duten irudikapen estandarrek, agentzia objektibistek eta elementu ukigarri eta ukiezinak eraikitzen dutena—, era berean existitzen da bariazio bat. Bariazio hau lurraldearen Ideiaren menpe dago, baita Agentzia, Irudikapen eta Elementu tipo batzuen menpe ere. Hala, Zube et al. (1982)-ek proposatutako paisaia ekoizpenaren interakzio ereduak kofirmatzeaz gain, Paisaia Ikuspegi batetik bestera ematen den paisaia eraikuntza material eta ez-materialen aldakortasuna adierazten da. Zuberan ereduaren isla dira lau Dimentsioen artean sortzen diren elkarlotura zehatzak paisaia mota batzuk osatzeko. Eta aldakortasuna dimentsio perfil mota batzuen arteko konbinazio zehatzek eta bakanek adierazten dute.

Gainera, beste bi emaitzek ere zera adierazten dute; batetik, egon badagoela paisaia ikuspegi-tako ideien harteko konbinaketa bat hiri bazterreko paisaiaren eraikuntza prozesuaren baitan ustekabeko edo nahigabeko lankidetzak bat adierazten duena. Bestetik, agiritan agertu egin direla formulatu gabe geratu diren zenbait mendi eraikuntza edo paisaia ikuspegi, eta hauek hiri bazterreko paisaiaren eraikuntzan zerikusia izan dutela, eta potentzial gisa baliagarriak izan daitezkeenak.

Esan daiteke, ikerketa enpirikoak hurrengo segida jarraitu duela: espekulazioa, jarraian interpretazioa, amaieran hiri bazterreko paisaiaren eraikuntza prozedura aitortuaren

konfirmazioa. Beste modu batean adierazita, espekulazioak paisaiaren eraikuntzari logika bat topatzeko nahia izan du lurraldeko elementu eraikiak erabiliz, eta paisaiaren definizio teoriko bat erabiliz, hots Paisaia Ikuspegiarena—lurraldea ikusteko eta eraldatzeko modua; jarraian interpretazio bat burutu da espekulazioa osatzeko asmoz eta paisaiaren eraikuntza dokumentatuak erabiliz lau aldagai zehatz aztertu dituen—Dimentsioak; amaitzeko, agiri bakoitzean aitortzen den asmoa eta lurralde ulerkerak aintzatespena jasotzen du eta tesiak barne hartzen ditu lurraldearen eraikuntza alternatibo gisa, ikerketan formulatu ez direnak, baina mendialdeko paisaiaren garapen aukera demonstratuak edo porrot egindakoak direnak, eta hortaz, baliagarriak direnak—Konbinaketak eta Formulaturagabeko Ideiak edo Ikuspegiak. Emaidza eta aurkikuntza hauek, noski, ikerketa kasuari soilik dagozkio; nolana ere, proposatu den Paisaia Ikuspegi tresnak interpretaziorako eta ulermenerako duen ahalmenaren frogatzat onartu daitezke.

Hurrengo atalean, tesiaren ondorio oroko bat da egin diren ekarpenak eta baldintzak orokorrean laburbiltzen dituen. Gainontzean, topatu diren mugak eta etorkizuneko ikerketa ildoak eta gomendioak ere biltzen dira. Hartara, 12. Atalak, proposatu den interpretazio metodoa eta haren emaitzak abiapuntu izan diren irizpide teoretiko, epistemologiko eta metodologikoekin alderatzen dira.

IV. ZATIA

Ondorioa

12. ATALA. Ondorioa

Tesiari abia eman zaio Hiri Bazterreko Paisaien izaera ulertzeko asmoarekin, alderdi objektiboak zein subjektiboak barne hartzen dituen metodo bat osatzeko helburuarekin. Metodo horren oinarri gisa interpretazio tresna bat proposatu egin da, eta ondotik tresnaren aplikazio prozedura bat jorratu egin da. Azkenburuko atal honetan lan osoaren berrikuspena egiten da, landu diren ideia nagusiak aipatuz, azkenburuko baieztapen batzuk eginez, eta, ikerketaren mugak adieraziz. Amaitzeko, aurreragoko balizko ikerketek landu ditzaketen hari xume batzuk luzatzen dira, norabide eta joera berrien iradokizun gisa baliagarriak suertatu daitezkeelakoan.

12.1 Laburpena

Tesia bi parte nagusitan egituratu da, alde batetik zati teorikoa, eta zati enpirikoa bestetik. Lehenengoak aurrekari teorikoen eta metodologikoen lanak antolatu eta berrikusi ditu tesiaren II Zatian. Zati enpirikoa berriz III Zatian jasotzen da, eta, aurretik jorratu diren teoria eta metodologia testuinguruaren araberako interpretazio metodo bat proposatzen du.

Hasteko, Hiri Bazterreko Paisaia ikergaiaren inguruan dauden gaien literaturaren azterketaren bitartez, tesiaren testuinguru teoriko orokorra ezartzeko ahalegina egin da. Honela, hiri bazterren lanerako definizio bat osatzea lortu da. Oinarrian, tesian egin den Hiri Bazterreko Paisaiaren teorizazioa paisaiaren kontzeptu konstruktibista baten eta hiri zein hiri-ertzaren garapenaren intersekzioak osatzen dute. Hartara, HBPa, hiritartzearen egitura eta elementuak dituela onartzen da (geruza-anitza, eta hiriaren hedapenaren eta egituraren parte dena), eta konstruktibismotik aztertuta eraikuntza materiala bakarrik ez, kontzeptuala eta diskurtsibo baten ondorioz eraiki den paisaia bat dela ere onartzen da. Gizarte eraikuntza prozedura horrek sortu dituen elementu eta geruzen ulermena suposatzen du beraz tesian burutu den ikerketak.

Bestalde, mundu mailako hiritartzearen adierek landa-lur eta hiri-lur mugaren gainditzea berresten dute, eta paisaiaren izaeraren homogeneizazio zantzuak iradokitzen dituztela aipatu da. Horien arabera, hiri ertzeko paisaiaren kontsiderazioek ez lukete zentzurik. Bestetik, mendebaleko hiri-kontzeptu tradizionala kolokan jartzen duten eredu anitzak ere azaldu dira. Horren eraginez formaz eta arkitekturaz gain hiriek dituzten dimentsio anitzen arabera ulertzearen beharra nabarmendu da. Oinarri horien arabera, tokian tokiko berezitasun urbanoek mundu mailako hiritartze prozesuan etenak sortzen dituzten hiri, hiri-bazter eta paisaia bereziak eta tokian tokikoaren esanguratsutasunak garrantzia hartzen dute hiriaren ulermenean.

Hau da, geografikoki zehatzak, eta dimentsio-anitzak diren paisaia hiritartuen izatea onartzen duen Hiri Bazterreko paisaien definizio bat osatu da; Bilboaldeko hiri bazterreko paisaia menditsua hiritartze zabalduaren baina geografiak baldintzatutako izaera duen paisaiaren eredu bat da; paisaien homogeneizazioa iradokitzen duen hiritartze mundialaren paradigmaten, edota hiri bazterreko izaera generikoa eta nortasun-gabekoa besterik gabe aldarrikatzen duten teorien aurrean salbuespen eredu bat gehiago.

Bestalde, jorratu diren beste hiru arloei esker Hiri Bazterreko Paisaiaren alderdi esanguratsuen inguruko teorizazioa ekarri dute, eta alderaketaren poderioz ikertu den Bilboaldeko kasuaren izaera erlatibizatzeko eta mugatzeko lagungarriak suertatu diren irakurketak egin dira. Hasteko, HBPen balioztapena indartzeko haien izaera kulturala lantzeko beharra nabarmendu da. Ondoren, Natura-kulturizatu edo antropogenizatuaren elementuen identifikazioarekin horien kontsiderazioak eta ulerkerak garatzeko indargunez ohartarazi da. Hiri bazterrean azaltzen den natura-kultura hibrido edo nahasiaren egoera zehatzak ekosistemen zerbitzuentzako dakarren erronka nabarmendu da. Erronka honen oinarrian legoke HBPen izaera den bezala onartzea, kasuan kasu, guztiz ezberdina litzakeen egoera bat behartu beharrean.. Azkenik, Bilboaldeko mendien irudikapenak eta usteak erlatibizatu dira, Suitzako Alpeetatik eratorria den mendi-paisaia arketipikoaren translazioak eragin dituen mendi irudikapenekin alderatuz, . Hala, bere izaera hibridoaren—hiriaren eta ez-hiriaren arteko nahasketa—berezkotasuna eta indarguneak ardatz hartzea eragin du literatura berrikuspenak.

Metodologiari dagokionez, hainbat alderdiren bidez, eta existitzen diren analisi metodo ezberdinak alderatuz, tesiaren zati enpirikoaren prozedura zehaztu da. Metodo gehienek hurrengo pausuak modu ezberdinean konbinatzen dituztela aztertu da: azter eremuaren mugatzea, dokumentazioa, eremuaren berrirakurketa, ebaluatze irizpideen ezarpena, proposamena. Tesi honek proposatzen duen metodoak lehenengo lau pausuak soilik jorratzen ditu.

Teoriaren eta metodologia testuinguruari jarraiki, tesiaren proposamen nagusia gorputzu da, hots, Paisaia-Ikuspegia izenaz ezagutarazi den paisaia interpretatzeko metodoa. Bere funtsa teorikoa Lau Dimentsioek osatzen dute, paisaia konstrukto gisa ulertzeak dakartzan ideia, irudikapena, agentzia eta elementuen dimentsioak, alegia. Tresnaren aplikazioak abiapuntuan definitu diren estrategia abduktiboa eta teknika interpretatzaileak jarraitzen ditu; hots, zalantza eta espekulazioaren bitartez, demostraziorik behar ez duten paisaiaren izaera azaltzen duten hipotesien formulazioak burutzen dira. Hipotesi horiek paisaiaren izaerarekin jolasten dute, datu-base ezberdinak erabiliz, izaeraren inguruko onargarriak diren azalpenak emateko.

Paisaia-Ikuspegi Tresnak helburu propositiboa eta praktikoa betetzeko izaera sistematikoa

du, esan bezala, lau Dimentsiotan gorpuzten diren azterketa ildoen bidez. Gainera, lurraldearen eskalari aurre egiteko Paisaia Ikuspegi tresnak duen ahalmena ere nabarmendu da. Paisaia Ikuspegiak lurraldearen egitura eta garapeneko hainbat geruzen konplexutasuna interpretatzeko, lurralde ulerkerak, irudikapenak, helburuak eta aktoreak aintzat hartzen ditu. Paisaia Ikuspegiak 1. eta 6. Atal bitarteko testuinguru teoriko eta metodologikoan adierazitako ikerketa konstruktibisten eta interpretatzaileen helburuak biltzen ditu metodologia eta prozedura ofizial batean barneratua edo osagarria izateko moduan.

8. Ataleraino Bilboaldeko ikerketa kasuaren aurkezpenik ez da egin, eta bertan transmititzen den ideia nagusia Bilboko mendialdearen bazterketa kultural eta ekonomikoa da, paisaiaren arketipoak eragiten duen irudikapen arazo batek sortua dela argudiatuz. Bazterketa hau mendietan kokatzen den erabilera sorta mugatuak eta izaera bikoitzeko babes/garapen irizpideen arteko kontraesanek adierazten dute hobekien.

9 eta 10. Ataletan, Paisaia-Ikuspegi Tresna eta Bilboaldeko Ikerketa kasua konbinatu egin dira, interpretazio metodologiaren frogagatik. Horretarako, bi eszena berezitu dira, batetik, paisaiaren interpretazioa Landa lanaren bitartez garatua, eta bestetik, paisaiaren ulermena artxiboetara joaz egiten dena. Lehenengo Eszenaren emaitza Sei Ikuspegi bidezko interpretazio espekulatiboa 7 mapetan irudikatua da. Sei Mendi-Ikuspegi bidezko interpretazio hori, atzera begiko berreraikuntza moduan ulertu daiteke paisaiaren garapenaren eta egituratzaren espekulazio onargarri bat egiten duelako. Hala ere, ikuspegi konstruktibista baten bidez paisaiaren osaera ulertu nahi zenez, landa lana, artxibo lan batekin osatu da. Bertan, Mendi bakoitzaren 4 Dimentsioak aztertu dira modu sakonagoan. Lehenengo Eszenan lurraldea baldin bazen datu base empirikoa, 2.ean agiriak hartzen dute rol hori. Hortaz, esan daiteke, ikerketa kasua lurraldean eta bere elementu fisikoetan bakarrik ez, eta elementu horien inguruko agiritan eta errepresentazioetan gorpuzten dela.

Bigarren Eszenaren aurkikuntzek batik bat paisaiaren osaeraren joerak eta egiturak dira, Paisaia Ikuspegiaren artekoak, baita Dimentsioen barnekoak eta artekoak ere. Esan daiteke, ikerketa kasuaren berezitasunak azaltzen direla emaitza horietan, baina tesiaren ekarpen gisa ulertu daitezke era berean. Izan ere, tesiak proposatzen duen teknika interpretatzailearen ahalmena balioztatzeak kapazitatea dute, baita paisaiaren izaera ulertzeko proposatutako tresnaren erabilerak duen potentzialak adierazteko ere.

Batetik, Dimentsioei dagozkien aurkikuntzek kasuaren informazioa soilik dakarte, baina bilatutako joerak paisaiaren hurrengo alderdiak ezagutzeko baliagarriak dira: paisaiaren irudikapen motak aurkitzeko, paisaia eraldatu duten agente nagusiak eta horien izaerari buruz datuak jasotzeko, agenteen perfila zehazten duten dikotomien—Barne/Kanpo edo Objektibo/Subjektibo—bitartez gaur egungo erabaki-hartze arazoak identifikatzeko, eta paisaiaren proiektzio kontzeptualen eta benetako burutze fisikoaren arteko harremanak

ulertzeko, hots, in-visu eta in-situ, edo politiko/bizitu paisaia eraikuntzen arteko prozedura loturek zer nolako paisaiak sortzen dituzten ezagutzeko.

Bestetik, Dimentsioen arteko gainjartze joerek, paisaiaren eraikuntza eta garapenaren informazio partikularra dakarte era berean. Baina, gainera, paisaiaren osaeraren ildo ezberdinak adierazten dituzte: Ideia eta Irudikapenaren arteko harremanak, edota, Agentzia kanpotarrak, Elementu bizitu eta in-situ eraikuntzek, eta Irudikapen gabeziek adierazten duten egoera berezia, non paisaia materiala eraiki dutenen asmoak ez dauden irudikatuta, eta hortaz, paisaia hori kanpoko agenteen irudikapenen bitartez ulertu eta komunikatzen den.

Bestalde, nolabait frogatu da Hiri Bazterreko Paisaien egungo izaera eta osaeraren erantzukizuna dutela hainbat erabaki independenteez sortutako eragin fisikoek zein diskurtsiboek ere. Hots, paisaiok zoriz osatu egin direla, zatika alegia.

Nolanahi ere, Paisaia Ikuspegi dagokionez, horien arteko konbinazioek lurralde mota hauek modu integralago batean planifikatzeko aukerak adierazten dituzte egungo egoeran dauden elkarloturak aintzat hartuta, eta formulatu gabeko Ikuspegiak espero ez ziren mendiaren ulerkera bestelakoak adierazten dituzte; etorkizunerako egoerak proiektatzerakoan hiri bazterreko mendiek—edo beste lurralde mota batek—onar ditzakeen eta frogatuak/porrot egindako/arrakastatsu izandako aukera sorta zabalagoa adierazten dutelarik.



20 Irudia Metodologiaren laburpena: Pausu metodologikoak eta bakoitzetik eratorritako Kategoriak edo Emaitzak

Esan daiteke, ikerketa enpirikoak hurrengo segida jarraitu duela: lehenengo espekulazioa,

jarraian interpretazioa, eta, amaieran hiri bazterreko paisaien eraikuntza prozedura aitortuaren konfirmazioa. Beste modu batean adierazita, 1.go Eszenako espekulazioak paisaiaren eraikuntzari logika bat topatzeko nahia izan du lurraldeko elementu eraikiak eta Paisaia Ikuspegiaren definizio teorikoa erabiliz, paisaia lurraldea ikusteko eta eraldatzeko moduarekin parekatzen duena. Jarraian, interpretazio bat burutu da espekulazioa osatzeko asmoz eta paisaiaren eraikuntza dokumentatuak erabiliz lau aldagai zehatz aztertu dituen, Dimentsioak. Amaitzeko, agiri bakoitzean aitortzen den asmoa eta lurralde ulerkerak aintzatespena jasotzen du eta tesiak barne hartzen ditu lurraldearen eraikuntza alternatibo gisa, ikerketan formulatu ez direnak, baina mendialdeko paisaiaren garapen aukera demonstratuak edo porrot egindakoak direnak, eta hortaz, baliagarriak direnak; hau da Konbinaketak eta Formulaturagabeko Ideiak edo Ikuspegiak. Emaitza eta aurkikuntza hauek, noski, ikerketa kasuari soilik badagozkio ere, proposatu den Paisaia Ikuspegi tresnak interpretaziorako eta ulermenerako duen ahalmenaren frogatzat onartu daitezke.

12.2 Ikerketa helburuak erdiestea

Ikerketa galderek arazo teoriko bezain praktiko edo praxiari lotutako bat adierazten zuten: hots, “Bazterreko paisaiaren berezko izaera nolakoa da? Osatu duten elementuen eta eraginien ezaugarriak zeintzuk dira? Zeintzuk dira plangintzan edo interbentzio bidez indartu daitezkeen bazterreko paisaiaren balio potentzialak? Nola interpretatu daiteke bazterreko paisaia bat alderdi eta ezaugarri subjektiboak eta objektiboak barne hartzen dituen moduan?”

Galdera horiei erantzuna emateko, Hiri Bazterreko Paisaien izaeraren ulermenerako baliagarriak diren irudikapenak topatzea helburu zuen eta espazio-antolamendurako prozedura propositiboetan erabilgarria suertatu daitezkeen interpretazio metodologia bat hasieratik proposatu da.

Hiri Bazterreko Paisaien izaera Bilboren kasuan aztertu da, eta 6 Paisaia Ikuspegiak osatzen dutela azaldu da, bakoitzak bere modura lurraldea eraldatu duelarik, maila fisiko zein diskurtsiboan. Izaera hori bestelakoa izango da beste toki batean, Paisaia Ikuspegi batzuek osatua izango delako. Bestalde, Bilboaldeko Hiri Bazterreko Paisaia menditsuen izaeraren baitan oinarri geografiko hori bera dago. Lurra, lurzorua, lur-azpia, lurraren kalitatea, lur motak, lur eraldatuak bezalako ideiak, mendiko haizeekin, eguzkitzapenarekin eta ikusmirekin batera paisaiaren izaera ehuntzen duten hariak bezala azaltzen dira hainbat alditan. Meatzaritzaren, Oztopoaren eta Erabilgarritasunaren mendietan, lurraren nolakotasunak arras garrantzitsuak dira eraikitzen diren Paisaia Ikuspegiaren osaeran: ezaugarri geomorfologiko nahiz geologiko, litografiko, estratigrafikoak zuzenean nahiz zeharka azaltzen dira meatzaritzaren agerietan, azpiegituren eraikuntzan eta mendiarekiko egokitzapen soluzioetan, edota lurraren izaera antropikoak eragiten duen lursailaren berrerabilgarritasun irizpidean. Ordea, bestelako kalitate klimatikoagoek osatzen dute Mendi Berdearen eta Mendi Bizilekuaren ikuspegiak: haizeek,

aireak, eguzkiak, landarediak etab. Mendiaren morfologiak ahalbidetu dezakeen isolamendua eta ikusezintasuna ere paisaia hauen garapenaren eta izaeraren parte garrantzitsua da. Honekin batera, mendiari esker lortzen den ikusgarritasun bikoitza aipagarria da: elementuak ikusgarriagoak dira mendian daudelako, eta menditik ikuspegi zabalagoa ere lortu egiten da.

Paisaiok osatu dituzten elementu eta indar eragileak berriz, Paisaia Ikuspegi bakoitzean aztertu dira Lau Dimentsioen arabera: orokorrean Agentzia Kanpotarrek eragin dituzte Irudikapen estandarren bidez eraikitako paisaiak direla esan daiteke, helburu eta Ideia zehatz eta bereiztu batzuei erantzuten dieten Elementuak eraikiz. Zenbait Ideia beste batzuk baino gehiago garatu egin direla ikusi da, eta, bestalde, elementuen eraikuntza fisikoaren, Agentziaren, eta Irudikapen gabezien arteko loturak ere nabarmenak direla topatu da. Hiri Bazterreko Paisaien balio potentzialak, elementuen eta ulerkeren artean nahigabeen existitzen diren konbinazioek, baita formulatu-gabe geratu diren mendi ulerkerek adierazten dituzte. Paisaion izaera objektibo eta subjektiboak aldi berean aztertzeke modu gisa, tesiak proposatu duen Paisaia-Ikuspegiaren metodologia proposatu da, paisaiaren izaera aztertzeke interpretazioa eta espekulazioa erabiliz, baita lurraldearen eraikuntza material zein diskurtsiboak ere aztertzen dituen.

Ikerketak egiten dituen ekarpenak maila teorikoan, praktikoan eta politikoan sailkatu daitezke. Maila teorikoan aipa daiteke, hasteko, Hiri Bazterreko Paisaien izaeraren ulermenari egiten zaion ekarpena. Proposatutako metodoaren bitartez lortzen den irakurketa eta ulermenak bilakaera eta osaera soziala aintzat hartzen ditu hura ulertzeko eta onartzeko, eta kasuan kasuko berezitasunek—sozialek, kulturek, geografikoei eta abar—izaeran duten zeresana nabarmentzeko, baita paisaia tipologia horren existentzia justifikatzeko ere. Bide batez, paisaiaren izaera interpretatzeko erabilitako eredu dialektiko eta dikotomikoei esker, gaur egungo erabaki-hartze prozedura demokratikoagoek azalarazten dituzten arazoak identifikatu egin dira. Baita paisaiaren proiektzio kontzeptualen eta benetako burutze fisikoen arteko harremanak ulertzeko eta sortzen dituzten paisaiak ezagutzeko ere, oinarrian dagoen paisaiaren eraikuntza materialaren eta kontzeptualaren eztabaida azaleraziz. Amaitzeko, paisaion zorizko eraikuntzaren teoria baieztatu egin da, elkarren arteko ia loturarik ez dituzten ulerkeren eraginez metatu diren hainbat eraldaketa fisikok adierazten dutenez.

Maila praktikoan egiten den ekarpenari dagokionez, metodoaren proposamena da funtsezkoena. Hau da, epistemologia konstruktibista oinarri eta subjektuartekotasunaren helburuak abiapuntu gisa hartuta, eta paisaiaren eta hiriaren inguruko teoria ezberdinak biltzen dituen irakurketa baten bidez praktikara eramane daitekeen metodo bat proposatzeko saiakera egin da; hots Paisaia Ikuspegia bezala ezagutzen den tresna horrek irudikatzen duen metodo proposamenaren ekarpena. Tresna honek proposatzailea izan daitekeen erabilera eta praktika ditu helmugatuz egitura sistematiko bat aurreratuz. Eta, paisaiaren potentzialitateen

bilaketari esker, HBPen bokazioak edo erabilera programak osatzeko gaitasuna izan dezake, haren izaeraren ulermenari egiten dion ekarpenaz gain. Azkenik, maila politikoari egin zaion ekarpena, aldarre aldaketa batek suposatu dezake; lurraldea analizatzeko, eta paisaia mota hauek ulertzeko proposatu den metodoak suposatzen duena, alegia.

Tesiaren Emaitzak helburuekin alderatuz gero—HBPen ulermen enpatiko bat— esan daiteke tesiak egin duen proposamen metodologikoko Lehen eta Bigarren Eszenetako emaitzek adierazten dutela lorpenaren neurria. Hots, paisaia hauen kasu zehatz bat— Bilboaldea—erabiliz irudi berri bat osatu egin dela, Paisaia Ikuspegi anitzek egituratua, eta bakoitzak eragin dituen paisaia osaeren nolakotasunek zehaztua. Gainera, beste hiri batzuetako paisaia baztertuak ulertzeko gai, eta, bereziki paisaiaren eraikuntza sozialean insistitzen duen metodo errepikagarria proposatu eta frogatzen saiatu da tesia. Honi laguntzen dion aspektu nagusia Paisaia Ikuspegi konkretu batean du ordezkaria; hots, Mendi Tradizionalak adierazten duena, geografari gehien lotzen zaion Paisaia Ikuspegia edo lurralde ulerkera/egikera, eta, harekin harreman barneratuena duen paisaia kulturalaren existentzia. Oinarrizko geruza hau, nonahi topatu daiteke, nahiz egoera material ezberdinetan. Paisaia Ikuspegi tresnaren baitan oinarrizko geruza paisajistikoa da, eta lurralde orotan duen presentziak, metodoaren errepikakortasuna indartzen du.

Funtsean, ikerketaren motibo izan diren lurraldearen ulerkera fenomenologikoak, eta hiri bazterren definizio gabezia edo negatiboari aurre egiteko saiakera izan da. Izan ere, paisaiok analisirako erabiltzen diren adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen bitartez, beti ateratzen dira galtzaile. Tesiak, bestelako adierazleak eta estrategia biltzen dituen ikuspegi bat osatzeko nahia izan du.

12.3 Mugak

Hainbat muga topatu egin dira, metodologiaren eta teoriaren baitakoak denak. Hasteko, 11. Atalean jada azaldu diren dokumentazioaren inguruko muga—agirien kuantitatearen, kokapenaren eta adierazpenaren oztopoak—berriz aipatuko dugu. Baita Dimentsioen teorizaziorako erabili diren dikotomien arabera sortzen diren interpretazio anbiguoak ere; bide batez esanda, egungo arazoak irakurtzeko erabilgarriak izan daitezkeenak. Ikertzailearen begirada subjektiboa ere muga gisa aipatu egin da gorago, baina funtsean, ikerketaren ezaugarri gisa uler daitekeela ondorioztatu da. Izan ere, ikusiko den bezala, ikerketak erabili ez dituen iturri ez-irudikatuen faltaren konpentsazio gisa papera jokatu du.

Bestalde, Paisaia-Ikuspegia metodoa plangintza prozeduretan barneratzeko modua osatzeko muga ere aipa daiteke. Emaitza ideal batek ezarrita dauden plangintza kodearekin eta diseinu kodearekin bat egiteko modua proposatuko luke. Nolanahi ere, tesiak behintzat lortu du geroz eta gehiago erabiltzen diren parte-hartze prozedura informal baten antzekoa

izan daitekeen metodo bat proposatzea. Horiek geroz eta usuago erabiltzen dira ofizialak diren erabaki hartze prozeduren osagarri gisa.

Azkenik, proposatu den interpretazio metodologiak postura mediatzaile bati segika, lurraldea eta paisaia ulertzeko modu osoago, barneratzaileago eta konplexuagoa bilatzen zuen. Hain zuzen ere, plangintza prozedura ofizialetako analisien eta, indibidualagoak edota subjektiboagoak diren paisaia interpretazioen artean zubi lanak egiteko gai izan zitekeen, eta subjektu-artekotasuna aintzat hartu zezakeen analisi metodo bat proposatuz. Hots, plangintza edo diseinuko erabaki hartze prozesuetan, aditu zientifikoaren eta iritzi edo ulermen estetikoan/subjektiboen ekarpenak lotzen dituen jarrera bat oinarri zuen metodoa.

Ordea, zubi hau erdibidean etenda geratu dela esan beharra dago, 11. Atalean adierazi den bezala. Zehatzago esanda Bigarren Eszenako agirien interpretazioak Bilboaldeko paisaiaren osaketan eta garapenean Agentziaren izaera Objektiboaren nagusitasuna adierazten du. Hots, adituen eraikuntza dokumentatuak soilik aintzat hartzen direlako, irudikapen fisikorik edo “errepresentaziorik” ez duten ahotsak, asmoak, irudikapenak aztertutako eraikuntzetatik eta irudikapenetatik faltan daudela adierazi nahi da.

Proposatutako teknika Interpretatzailearen errepigarritasuna eta subjektu-arteko interpretazioaren kutsua bermatu ahal izateko, “barneko” agenteen eraikuntzek ere – bestelako adituak — beren lekua izan beharko lukete prozeduretan. Muga horren konpentsazio moduan esan daiteke metodoan ikerlariaren rola izan duen eraginak nolabaiteko barneko agentzia ordezkatzen duela, hark azter-eremuarekin duen lotura dela eta.

12.4 Aurrera begira

Ikerlariaren rola erkarpenek subjektibitateek paisaiaren eraikuntzan duten garrantzia gogorarazten dute. Baita, errepresentaziorik ez duten elementuek paisaiaren eraikuntza fisikoan duten garrantzia eta trataera marjinatua ere, Artxibo lanak argitara ekarri duen bezala.

Tesiak egin duen ekarpena, paisaiaren izaeraren eta garapenaren interpretaziorako tresna eta balizko prozedura bat izan da. Baina, adierazi den bezala, konstruktibista eta subjektu-artekoa izan nahi duen proposamenak zubi bat erdi eraikita uzten du. Zubi horren bukaera izan daiteke ikerketaren hurrengo pausua.

Helburu hori betetzeak zer esan nahi du? Zein informazio bildu beharko litzateke? Zein ikerketa teknika erabili beharko litzateke? Zer aurkitu daiteke zubiaren bestaldean?

Bilboaldeko Bazterreko Paisaien interpretazioko Sei Ikuspegietako bi kasutan, 3. Dimentsioa edo Agentzia aztertu denean, begirada kanpotarraren eta eraikuntza material barnekoaren arteko lubakia nabarmendu da. Hots, Mendi Tradizionalaren eta Mendia

Bizileku Informalaren kasuan, paisaia *kontzeptualaren* Agentea Kanpotarra eta Objektiboa zela topatu da, baina paisaia *materialaren* eraikitzailea, aldiz, Barnekoa eta Subjektiboa. Horrek, Irudikapenean ere eragina du, izan ere, paisaiaren errepresentazioak kanpotarraren ideiak irudikatzen dituzte, eta ez barnekoenak³².

Hortaz, egiteke geratzen da barnekoen irudikapenak edo paisaia-eraikuntza material zein diskurtsiboak ezagutzea eta biltzea. Agenteen perfilek dokumentazio gabezia eta elementu sorta berezi bat adierazten dutenez, orain arte aztertu diren agiri-taldeen agentzien bestelakoak bilatu beharko lirateke; hots, zuzenean pertsonak berek ordezkatzeko duten lehen eskuko informazioaren iturrira joanez aztertu beharko litzateke Dimentsio hau. Hori erdiesteko, teknika interpretatzaileak erabili daitezke, esaterako, etnografikoak, edo, suspertzen ari diren teoria ez-irudikatzaileen [non-representative] bidezko espazio irakurketa metodoak. Horien bidez, eguneroko praktikak eta gorputz bidezko tokiaren esperientziak erregistratu ahalko lirateke hiri bazterreko paisaiaren eraikuntza subjektiboa osatzeko. Jarrera horrek paisaiaren egituraren eta izaeraren ulermen osatuagoa lortzeko lagungarria izan daiteke, hasierako helburua zen alderdi objektibo eta subjektiboen, zein material eta diskurtsiboen bidez tesiak helburu zuen hiri bazterreko paisaiaren izaeraren interpretazio inter-subjektiboa erdiesteko.

32 Barneko eta kanpoko adiera horiek dituzten mugak aipatu badira ere, hemen erabaki ahalmena duten agenteen muturrak identifikatzeko erabiltzen dira.

BIBLIOGRAFIA

- Ábalos, I. (2001). *La buena vida: visita guiada a las casas de la modernidad*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Adell, G. (1999). *Theories and models of the peri-urban interface: a changing conceptual landscape*. London: Development Planning Unit UCL. <http://discovery.ucl.ac.uk/view/UCL/BD/-en eskuratua>.
- Aitchison. (1995). Cultural landscapes in Europe: a geographical perspective. In B. von Droste zu Hülshoff, H. Plachter, & M. Rössler (Eds.), *Cultural Landscapes of Universal Value — Components of a Global Strategy (272–288 or.)*. Jena, Alemania: Gustav Fischer in cooperation with UNESCO.
- Alberdi Collantes, J. C. (2001). Horticultura y ocio en Gipuzkoa: nuevas formas de ocupación espacial. *Nimbus: revista de climatología, meteorología y paisaje*. Número 07-08. Año 2001.
- Antrop, M. (1994). Landscapes of the urban fringe. *Acta Geographica Lovaniensia*, 34, 501–513.
- Aprobación provisional del Plan Territorial Sectorial Agroforestal (2010).
- Ascher, F. (1995). *Métapolis ou l'avenir des villes*. Paris: Odile Jacob.
- Ascher, F. (2005). Metapolis: a third modern urban revolution. Changes in Urban Scale and Shape in France. In L. Bölling & T. Sieverts (Eds.), *Mitten am Rand. Auf dem Weg von der Vorstadt über die Zwischenstadt zur Regionalen Stadtlandschaft (Vol. 1, 24–38 or.)*. Wuppertal: Müller & Busman.
- Askasibar, M. (1999). La Evolución y la Idealización del Paisaje Vasco. In E. Ayerbe Echebarria (Ed.), *Geografía Simbólica. Cultura de los Espacios (ETOR-OSTOA)*.
- Baker, A. R. H. (1992). Introduction: on ideology and landscape. In A. R. H. Baker & G. Biger (Eds.), *Ideology and Landscape in Historical Perspective (1–14 or.)*. Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.
- Bakker, N. (2000). *Growing Cities, Growing Food: Urban Agriculture on the Policy Agenda: a Reader on Urban Agriculture*. Deutsche Stiftung für Internationale Entwicklung, Zentralstelle für Ernährung und Landwirtschaft.
- Banham, R. (2001a). *Los Angeles: The Architecture of Four Ecologies (1go ed 1971)*. Berkeley, California: University of California Press.
- Banham, R. (2001b). *Megaestructuras.: Futuro urbano del pasado reciente*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Barañano, K. de. (1990). La Pintura en Bilbao a finales del XIX. In J. M. González Cembellín & A. R. Ortega Berruguete (Eds.), *Bilbao, arte e historia = Bilbo, arte eta historia*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Barthassat, M. (2012). Arpenier, gravir et projeter. *Carnets Du Paysage*, 22, 12–37.
- Bastida, R. (1991). *Conferencia, El problema urbanístico de Bilbao, 1923*. Bilbao: Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala = Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Vizcaya.
- Bateman, P. W., & Fleming, P. A. (2012). Big city life: carnivores in urban environments. *Journal of Zoology*, 287(1), 1–23. <http://doi.org/10.1111/j.1469-7998.2011.00887.x>
- Battle, E. (2007). Metropolis. In D. Colafranceschi (Ed.), *Landscape + 100 palabras para habitarlo*. Barcelona: Gustavo Gili.

- Battle, E. (2011). *El jardín de la metropoli: del paisaje romántico al espacio libre para una ciudad sostenible*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Berger, A. (2006). *Drosscape: wasting land in urban America* (1go ed). New York, NY: Princeton Architectural Press.
- Bernaldez, F. G. (1981). *Ecología y paisaje* (1a ed. española edition). Madrid: H. Blume.
- Berque, A. (2011). Mesologics. <http://ecoumene.blogspot.com.es/p/argument-english-version.html/-en eskuratua>.
- Besse, J.-M. (2010). *La sombra de las cosas: Sobre paisaje y geografía*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Bilbao. (1943). *El Gran Bilbao: plan de la ordenación urbana y comarcal de Bilbao y su zona de influencia*. Bilbao: Grijelmo.
- Bizkaia. (1999). *La cartografía urbanística en Bizkaia entre 1857 y 1956 = Hirigintzaren kartografia Bizkaian (1857-1956)*. (J. J. de Otamendi & G. Pérez de la Peña Oleaga, Eds.). Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, Hirigintza Saila = Diputación Foral de Bizkaia, Departamento de Urbanismo.
- Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua. (2011). *Bilboaldeko ingurune berdea = Cinturón verde del Bilbao metropolitano*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia = Diputación Foral de Bizkaia.
- Bölling, L. (2005). *Bilder einer Zwischenstadt*. Wuppertal: Müller Busmann.
- Bowring, J. (2002). Reading the Phone Book: Cultural landscape myths in public art. *Landscape Research*, 27(4), 343–358. <http://doi.org/10.1080/0142639022000023934a>
- Braidotti, R. (2006). Posthuman, All Too Human Towards a New Process Ontology. *Theory, Culture & Society*, 23(7-8), 197–208. <http://doi.org/10.1177/0263276406069232>
- Brea, U. (2009, January 18). Berandu izan daiteke. *Argia*, (2168). <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2168/espezie-arrotz-inbaditzaileak?ids=argia-astekaria/2168/espezie-arrotz-inbaditzaileak/-en eskuratua>.
- Brenner, N., & Schmid, C. (2011). Planetary Urbanisation. In M. Gandy (Ed.) *Urban Constellations* (10–13 or.). Berlin: JOVIS.
- Bru, E. (1997). *Tres en el sitio*. Barcelona: ACTAR.
- Busquets, J. (2009). El análisis semiótico del paisaje. In J. Busquets & A. Cortina (Eds.), *Gestión del paisaje. Manual de protección, gestión y ordenación del paisaje*. (151–165 or.). Barcelona: Editorial Ariel.
- Busquets, J., & Cortina, A. (2009). La gestión del paisaje como proceso. In J. Busquets & A. Cortina (Eds.), *Gestión del paisaje. Manual de protección, gestión y ordenación del paisaje*. (3–37 or.). Barcelona: Editorial Ariel.
- Cadieux, K. V. (2011). Competing discourses of nature in exurbia. *GeoJournal*, 76(4), 341–363. <http://doi.org/10.1007/s10708-009-9299-0>
- Cadieux, K. V., & Taylor, L. (2013). *Landscape and the Ideology of Nature in Exurbia: Green Sprawl*. London: Routledge.
- Careri, F. (2002). *Walkscapes: Walking as an Aesthetic Practice*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Caro Baroja, J. (1957). *Vasconiana: de historia y etnología*. (1go ed). Madrid: Minotauro.
- Casado-Arzuaga, I., Onaindia, M., Madariaga, I., & Verburg, P. H. (2014). Mapping recreation and

- aesthetic value of ecosystems in the Bilbao Metropolitan Greenbelt (northern Spain) to support landscape planning. *Landscape Ecology*, 29(8), 1393–1405. <http://doi.org/10.1007/s10980-013-9945-2>
- Choay, F. (1994). El reino de lo urbano y la muerte de la ciudad. In *Visions urbaines: Europa 1870-1993: la ciutat de l'artista: la ciutat de l'arquitectes* (CCCB, 61–72 or.). Madrid: Electa. <http://www.etsav.upc.es/personals/monclus/cursos2002/choay.htm/-en eskuratua>.
- Clément, G. (2007). *Manifiesto del Tercer paisaje*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Clemmensen, T. J., Daugaard, M., & Nielsen, T. (2010). Qualifying urban landscapes. *Journal of Landscape Architecture*, 5(2), 24–39. <http://doi.org/10.1080/18626033.2010.9723436>
- Cocca, G., Sturaro, E., Gallo, L., & Ramanzin, M. (2012). Is the abandonment of traditional livestock farming systems the main driver of mountain landscape change in Alpine areas? *Land Use Policy*, 29(4), 878–886. <http://doi.org/10.1016/j.landusepol.2012.01.005>
- Congress for the NewUrbanism. (2013). *Charter of the New Urbanism*. (E. Talen, Ed.) (2. edizioa). New York: McGraw-Hill Professional Publishing.
- Constant. (2009). *La nueva Babilonia*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Conzen, M. R. G., & Conzen, M. P. (2004). *Thinking about Urban Form: Papers on Urban Morphology, 1932-1998*. Peter Lang.
- Corboz, A. (1983). The Land as Palimpsest. *Diogenes*, 31, 12–34. <http://doi.org/10.1177/039219218303112102>
- Corboz, A. (2000). La Suisse comme hyperville. *Le Visiteur, 6-Transforma(c)tions*.
- Corner, J. (1992). Representation and landscape: Drawing and making in the landscape medium. *Word & Image*, 8(3), 243–275. <http://doi.org/10.1080/02666286.1992.10435840>
- Corner, J. (1999a). *Recovering Landscape: Essays in Contemporary Landscape Architecture*. New York, NY: Princeton Architectural Press.
- Corner, J. (1999b). The Agency of Mapping: Speculation, Critique and Invention. In D. Cosgrove (Ed.), *Mappings* (213–300 or.). London: Reaktion Books.
- Corner, J. (2006). Terra Fluxus. In C. Waldheim (Ed.), *The Landscape Urbanism Reader* (21–33 or.). New York, NY: Princeton Architectural Press.
- Cosgrove, D., & Daniels, S. (1988). *The iconography of landscape: essays on the symbolic representation, design and use of past environments* (Vol. 9). Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.
- Cosgrove, D. E. (1998). *Social formation and symbolic landscape* (2. ed). Madison, Wis.: University of Wisconsin Press.
- Cosgrove, D. E. (1999). *Mappings*. London: Reaktion Books.
- Cosgrove, D. E. (2008). *Geography and Vision: Seeing, Imagining and Representing the World*. London: I.B.Tauris.
- Cosgrove, D. E., & Domosh, M. (1993). Author and Authority. Writing the new cultural geography. In J. S. Duncan & D. Ley (Eds.), *Place/culture/representation* (25–38 or.). Psychology Press.
- Creswell, J. W. (2009). *Research Design: Qualitative, Quantitative, and Mixed Methods Approaches*.

London; Singapore: SAGE Publications.

Daniels, S. (1988). The political iconography of woodland in later Georgian. In D. Cosgrove & S. Daniels (Eds.), *The iconography of landscape: essays on the symbolic representation, design and use of past environments* (43–82 or.). Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.

David Thomas. (1990). The Edge of the City. *Transactions of the Institute of British Geographers, New Series*, 15(2), 131–138.

Davis, B. (2014, July 4). Abduction: A Method for Landscape Architectural Research. <http://landscapearchipelago.com/2014/07/04/abduction-a-method-for-landscape-architectural-research/-en eskuratua>.

Davis, M. (2006). *City of Quartz: Excavating the Future in Los Angeles (New Edition)*. London: Verso.

Deming, M. E., & Swaffield, S. (2011). *Landscape Architectural Research: Inquiry, Strategy, Design*. Hoboken, NJ: John Wiley & Sons.

Denecke, D. (1992). Ideology in the planned order upon the land: the example of Germany. In A. R. H. Baker & G. Biger (Eds.), *Ideology and Landscape in Historical Perspective* (303–329 or.). Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.

De Solà-Morales, M. (1997). *Las Formas de Crecimiento Urbano*. Barcelona: Univ. Politèc. de Catalunya.

Diener, R., Herzog, J., Meili, M., Meuron, P. de, & Schmid, C. (2005). *Switzerland – an Urban Portrait: Vol. 1: Introduction; Vol. 2: Borders, Communes – a Brief History of the Territory; Vol. 3: Materials*. Basel; Boston; Berlin: Birkhäuser.

Droste zu Hülshoff, B. von, Plachter, H., & Rössler, M. (1995). *Cultural landscapes of universal value*. Jena, Alemania: Gustav Fischer in cooperation with UNESCO.

Edwards, M. (2001). Sacred cow or sacrificial lamb? Will London's Green Belt have to go? *City: Analysis of Urban Trends, Culture, Theory, Policy, Action*, 4:1, 106–112.

Ellsworth, E., Kruse, J., & Beatty, R. (2013). *Making the Geologic Now: Responses to Material Conditions of Contemporary Life*. Brooklyn, N.Y.: Punctum Books.

Energielandschaft Allgäu: Entwurfsprojekt Landschaftsarchitektur. (2013). Borsdorf, Alemania: Grimma Ed. Winterwork.

Erquicia, J. M., & País Vasco. (2003). *Hirigintza-plangintzatik lurraldearen antolamendura: eskala-aldaketaren premia: Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Europar Kontseilua. Paisaiaren Europako Hitzarmena, ETS No. 176 (2000). <http://conventions.coe.int/Treaty/EN/Treaties/Html/176.htm/-en eskuratua>.

Europe, C. O. (2000). European landscape convention. In *Report and Convention*.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, Pub. L. No. Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. (2006). http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/ver_c?CMD=VERD OC&BASE=B03A&DOCN=000069892&CONF=/config/k54/bopv_c.cnf/-en eskuratua.

Fariña, J. (1998). *La ciudad y el medio natural*. Madrid: Akal.

- Fariña, J. (2011). Recuperando a Patrick Geddes. <http://elblogdefarina.blogspot.com/2011/10/recuperando-patrick-geddes.html/-en eskuratua>.
- Ferguson, F. (2004). *Deutschlandscape: epicentres at the periphery : German Pavilion, Venice Biennale 2004 : 9th International Architecture Exhibition*. Ostfildern, Alemania: Hatje Cantz.
- Fishman, R. (2010). Beyond Suburbia: The Rise of the Technoburb. In *City Reader* (75–83 or.). London: Routledge.
- Fletcher, M.-S., & Thomas, I. (2010). The origin and temporal development of an ancient cultural landscape. *Journal of Biogeography*, 37(11), 2183–2196. <http://doi.org/10.1111/j.1365-2699.2010.02363.x>
- Foucault, M. (1978). Espacios otros: utopías y heterotopías. <http://upcommons.upc.edu/revistes/handle/2099/425/-en eskuratua>.
- Fundación BBVA. (2001). *Los Orígenes De Una Metrópoli Industrial: La Ría De Bilbao*. Bilbao: Fundación BBVA.
- Gallent, N., & Andersson, J. (2007). Representing England's rural-urban fringe. *Landscape Research*, 32(1), 1–21. <http://doi.org/10.1080/01426390601097495>
- Gallent, N., Andersson, J., & Bianconi, M. (2006). *Planning on the edge: the context for planning at the rural-urban fringe*. Taylor & Francis.
- Gallent, N., Shoard, M., Andersson, J., Oades, R., & Tudor, C. (2004). Inspiring England's urban fringes: multi-functionality and planning. *Local Environment*, 9(3), 217–233. <http://doi.org/10.1080/1354983042000219342>
- Gandy, M. (2012). Where Does the City End?? *Architectural Design*, 82(1), 128–132. <http://doi.org/10.1002/ad.1363>
- Gant, R. L., Robinson, G. M., & Fazal, S. (2011). Land-use change in the “edgelands”: Policies and pressures in London's rural–urban fringe. *Land Use Policy*, 28(1), 266–279. <http://doi.org/10.1016/j.landusepol.2010.06.007>
- Garreau, J. (1992). *Edge city: life on the new frontier*. New York: Anchor Books.
- Geddes, P. (1960). *Ciudades en evolución*. Buenos Aires: Infinito.
- Girof, C. (2013). About Topology. *Topos*, 82, 24–29.
- Gissen, D. (2009). *Subnature: Architecture's Other Environments*. New York, NY: Princeton Architectural Press.
- Gogeaescoechea, A. (1999). Los Montes Proindivisos en Vizcaya. *Lurralde*, 22(1999), 299–322.
- Gottmann, J. (1957). Megalopolis or the Urbanization of the Northeastern Seaboard. *Economic Geography*, 33(3), 189. <http://doi.org/10.2307/142307>
- Guasch, A. M. (1985). *Arte e ideología en el País Vasco: 1940-1980*. Ediciones AKAL.
- Haller, A. (2014). The “sowing of concrete”: Peri-urban smallholder perceptions of rural–urban land change in the Central Peruvian Andes. *Land Use Policy*, 38, 239–247. <http://doi.org/10.1016/j.landusepol.2013.11.010>
- Hall, P. (1966). *The World Cities*. London: Weidenfeld and Nicolson.
- Hall, P., & Pain, K. (2012). *The Polycentric Metropolis: Learning from Mega-City Regions in Europe*. London: Routledge.

- Harley, J. (1988). Maps, knowledge, and power. In D. Cosgrove & S. Daniels (Eds.), *The iconography of landscape: essays on the symbolic representation, design and use of past environments* (254–276 or.). Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.
- Herrera Gallastegui, M. (2006). *Panpa-Lezka (Cortaderiaselloana) Bizkaian: kontrolerako gidaliburua*. Bilbao: Instituto de Estudios Territoriales de Bizkaia.
- Höfer, W. (1998). Post-industrial Landscape. In P. D. J. Breuste, D. H. Feldmann, & O. Uhlmann (Eds.), *Urban Ecology* (671–675 or.). Springer Berlin Heidelberg. http://link.springer.com/chapter/10.1007/978-3-642-88583-9_131/-en eskuratua.
- Holl, S. (1989). *ANCHORING*. New York, NY: Princeton Architectural Press.
- Huggett, R. J., & Cheesman, J. (2002). *Topography and the environment*. Harlow, England; New York: Prentice Hall.
- IKT, & PAISAIA. (2005). *Catálogo Abierto De Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAP-Anteproyecto*. Gobierno Vasco. Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.
- Indovina, F. (2005). La ciudad difusa. In À. M. Ramos (Ed.), *Lo Urbano en 20 autores contemporáneos* (49–59 or.). Universidad Politécnica de Catalunya.
- Ipsen, D., & Weichler, H. (2005, May 2). Landscape Urbanism. *Monu - Magazine on Urbanism, Middle Class Urbanism*, 39–47.
- Jackson, J. B. (1997). *Landscape in sight*. New Haven, CT: Yale Univ. Press.
- Jackson, J. B. (2010). *Descubriendo el paisaje autóctono*. (J. Nogué, Ed.). Madrid: Biblioteca Nueva.
- Jones, M. (1991). The elusive reality of landscape. Concepts and approaches in landscape research. *Norsk Geografisk Tidsskrift - Norwegian Journal of Geography*, 45(4), 229–244. <http://doi.org/10.1080/00291959108552277>
- Jones, M. (2003). The Concept of Cultural Landscape: Discourse and Narratives. In H. Palang & G. Fry (Eds.), *Landscape Interfaces* (21–51 or.). Springer Netherlands.
- Jorgensen, A., & Tylecote, M. (2007). Ambivalent landscapes—wilderness in the urban interstices. *Landscape Research*, 32(4), 443–462. <http://doi.org/10.1080/01426390701449802>
- Juaristi, J. (2011). El paisaje industrial entre el patrimonio histórico y la tecnología. *Fabrikart*, 0(7).
- Juaristi, J. (2012). El Paisaje Industrial como elemento de patrimonio en el territorio de Bizkaia. In *Euskadiko Industria Ondarea=Patrimonio Industrial en el País Vasco* (Vol. 1, 44–68 or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza = Gobierno Vasco.
- Kieninger, P., & Holzner, W. (2011). Counting Species or Celebrating Fireflies. Concepts and Conservation of Nature in Europe and Japan. In *Ecological Awareness: Exploring Religion, Ethics and Aesthetics* (151–164 or.). Berlin: LIT Verlag Münster.
- Kirchhoff, T., & Vicenzotti, V. (2014). A Historical and Systematic Survey of European Perceptions of Wilderness. *Environmental Values*, 23(4), 443–464. <http://doi.org/10.3197/096327114X13947900181590>
- Kirkwood, N. (2003). *Manufactured Sites: Rethinking the Post-Industrial Landscape*. Taylor & Francis.

- Koolhaas, R. (2006). *La ciudad genérica*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Larsen, L., & Swanbrow, L. (2006). Postcards of Phoenix: Images of Desert Ambivalence and Homogeneity. *Landscape Journal*, 25(2), 205–217. <http://doi.org/10.3368/lj.25.2.205>
- Lefebvre, H. (1974). *Le droit à la ville*. Paris: Éd. Anthropos.
- Lefebvre, H. (1989, Mai). Quand la ville se perd dans une métamorphose planétaire. *Le Monde Diplomatique: Fulgurants progrès, crise de civilisation : le temps des ruptures*, 16–17 or..
- Lefebvre, H. (1996). *Writings on cities*. (E. Kofman & E. Lebas, Trans.). Oxford: Blackwell.
- Lefebvre, H. (2003). *The Urban Revolution*. (R. Bononno, Trans.) (La Révolution Urbaine, 1970 Editions Gallimard). Minneapolis, MN: The University of Minnesota Press.
- Leira, E., & Argüeso, R. (Eds.). (1994). *Bilbao metropolitano, la propuesta: plan territorial parcial Bilbao Metropolitano*. Vitoria-Gasteiz ; Bilbao: Eusko Jauriaritza, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila ; Bizkaiko Foru Aldundia, Hirigintza Saila.
- Lerup, L. (2000). *After the City*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Lerup, L. (2011). *One million acres & no zoning*. London: Architectural Association Publ.
- Lewis, G. M. (1988). Rhetoric of the western interior: modes of environmental description in American promotional literature of the nineteenth century. In D. Cosgrove & S. Daniels (Eds.), *The iconography of landscape: essays on the symbolic representation, design and use of past environments (179–193 or.)*. Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.
- Lynch, K. (1998). *La imagen de la ciudad* (3. ed). Barcelona: Gustavo Gili.
- Marcuse, P. (2002). The Layered City. In P. Madsen & R. Plunz (Eds.), *The Urban Lifeworld: Formation Perception Representation (94–114 or.)*. London: Routledge.
- Marini, L., Klimek, S., & Battisti, A. (2011). Mitigating the impacts of the decline of traditional farming on mountain landscapes and biodiversity: a case study in the European Alps. *Environmental Science & Policy*, 14(3), 258–267. <http://doi.org/10.1016/j.envsci.2010.12.003>
- Martínez Callejo, J., País Vasco, País Vasco, Bilbao, & Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro. (2009). *Bilbao desarrollos urbanos, 1960-2000: ciudad y forma* (1ª ed). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Martínez, J. (1997). La montaña como espacio privilegiado de identificación socio-cultural. In *Zainak : cuadernos de antropología-etnografía*, 14 (Vol. 14, 97–115 or.). Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.
- Mas, E. (2012). Soporte territorial e identidad urbana: el caso de la Ría de Bilbao. *Scripta Nova REVISTA ELECTRÓNICA DE GEOGRAFÍA Y CIENCIAS SOCIALES*, 414(xvi). <http://www.ub.edu/geocrit/sn/sn-414.html/-en eskuratua>.
- McHarg, I. L. (2000). *Proyectar con la naturaleza*. (J. L. de las Rivas, Trans.). Barcelona: Gustavo Gili.
- Meeus, S. J., & Gulinck, H. (2008). Semi-Urban Areas in Landscape Research: A Review. *Living Rev. Landscape Res.*, 2. <http://landscaperesearch.livingreviews.org/Articles/lrlr-2008-3/-en eskuratua>.
- Meinig, D. W. (1979). The beholding eye: Ten versions of the same scene. In D. W. Meinig (Ed.),

- The Interpretation of Ordinary Landscapes* (33–48 or.). New York, NY: Oxford University Press.
- Mercuri, A. M., Mazzanti, M. B., Torri, P., Vigliotti, L., Bosi, G., Florenzano, A., ... N'siala, I. M. (2012). A marine/terrestrial integration for mid-late Holocene vegetation history and the development of the cultural landscape in the Po valley as a result of human impact and climate change. *Vegetation History and Archaeobotany*, 21(4-5), 353–372. <http://doi.org/10.1007/s00334-012-0352-4>
- Merrifield, A. (2011). The right to the city and beyond. *City*, 15(3-4), 473–481. <http://doi.org/10.1080/13604813.2011.595116>
- Merrifield, A. (2013). The Urban Question under Planetary Urbanization. *International Journal of Urban and Regional Research*, 37(3), 909–922. <http://doi.org/10.1111/j.1468-2427.2012.01189.x>
- Meyer, E. K. (2002). The Expanded Field of Landscape Architecture. In S. R. Swaffield (Ed.), *Theory in Landscape Architecture: a Reader* (167–170 or.). Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Michel, M. (2011). El pino radiata en la historia forestal vasca. *Sustrai*, 75, 56–59.
- Mitchell, W. J. T. (2002). *Landscape and Power* (2. ed). Chicago, IL: University of Chicago Press.
- Mostafavi, M. (2010). *Ecological urbanism*. Baden, Alemania: Müller.
- Muñoz, F. (2005). *Urbanización: paisajes comunes, lugares globales*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Muñoz, F. (2009). Paisajes metropolitanos. In J. Busquets & A. Cortina (Eds.), *Gestión del paisaje. Manual de protección, gestión y ordenación del paisaje*. (61–77 or.). Barcelona: Editorial Ariel.
- Muñoz, F. (2010). Urbanisation: Common Landscapes, Global Places. *The Open Urban Studies Journal*, 3, 78–88.
- Nogué, J. (2008). Al margen. Los paisajes que no vemos. In J. Maderuelo (Ed.), *Paisaje y Territorio* (181–202 or.). Madrid: Abada Editores.
- Nogué, J. (2010). El retorno al paisaje. *Enrahonar: Quaderns de Filosofia*, (45), 123–136.
- Nogué, J., & Vicente, J. (2004). Landscape and national identity in Catalonia. *Political Geography*, 23(2), 113–132.
- Norberg-Schulz, C. (1980). *Genius loci: towards a phenomenology of architecture*. London: Academy Editions.
- Osborne, B. (1988). The iconography of nationhood in canadian art. In D. Cosgrove & S. Daniels (Eds.), *The iconography of landscape: essays on the symbolic representation, design and use of past environments* (162–178 or.). Cambridge, UK; New York: Cambridge University Press.
- Oswald, F., & Baccini, P. (2003). *Netzstadt*. Springer.
- Overland, A., & Hjelle, K. L. (2009). From forest to open pastures and fields: cultural landscape development in western Norway inferred from two pollen records representing different spatial scales of vegetation. *Vegetation History and Archaeobotany*, 18(6), 459–476. <http://doi.org/10.1007/s00334-009-0225-7>
- País Vasco, & Bizkaia. (2008). *Bilbo metropolitarrako lurraldearen zatiko Plana = Plan territorial parcial del Bilbao metropolitano*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Pérez Goikoetxea, E. (2003). *Burdingintza Triano eta Galdamesko mendietan. Minería del hierro en los montes de Triano y Galdames*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia. <http://www.bizkaia21.net/>

- fitxategiak/09/bizkaia21/Territorio_Sostenible/dokumentuak//20100830181735140_mineriahierro.pdf/-en eskuratua.
- Perlik, M. (2011). Alpine gentrification: The mountain village as a metropolitan neighbourhood. *Journal of Alpine Research | Revue de Géographie Alpine*, (99-1). <http://doi.org/10.4000/rga.1370>
- Picon, A. (2000). Anxious Landscapes: From the Ruin to Rust. *Grey Room*, 1, 64–83. <http://doi.org/10.1162/152638100750173065>
- Picon, A. (2010). What Has Happened to Territory? *Architectural Design*, 80(3), 94–99. <http://doi.org/10.1002/ad.1081>
- Pinzon Cortes, C. E., Bekkering, H. C., Meyer, V. J., TU Delft: Architecture: Urbanism, & TU Delft, D. U. of T. (2009). Mapping Urban Form: Morphology studies in the contemporary urban landscape. <http://resolver.tudelft.nl/uuid:e9f69c50-ce09-4e14-87a0-50b24d46bc6d/-en> eskuratua.
- Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao y su comarca*. (1964). S.I.: s.n.
- Prominski, M. (2014). Andscapes: Concepts of nature and culture for landscape architecture in the “Anthropocene.” *Journal of Landscape Architecture*, 9(1), 6–19. <http://doi.org/10.1080/18626033.2014.898819>
- Pryor, R. J. (1968). Defining the Rural-Urban Fringe. *Social Forces*, 47(2), 202–215. <http://doi.org/10.1093/sf/47.2.202>
- Puertas, J., & Iruretagoiena, U. (2013). “Paisaia industrialak ulertzeko eredu berri baten alde lan egin behar da”: Javier Puertas-ekin solasean. *Aldiri: Arkitektura Eta Abar*, (15), 18–19.
- Qviström, M. (2008). A waste of time? On spatial planning and “wastelands” at the city edge of Malmö (Sweden). *Urban Forestry & Urban Greening*, 7(3), 157–169. <http://doi.org/10.1016/j.ufug.2007.03.004>
- Qviström, M. (2013). Searching for an open future: planning history as a means of peri-urban landscape analysis. *Journal of Environmental Planning and Management*, 56(10), 1549–1569. <http://doi.org/10.1080/09640568.2012.734251>
- Qviström, M., & Saltzman, K. (2007). Ephemeral Landscapes at the Rural-Urban Fringe. In *European Landscapes And Lifestyles: The Mediterranean And Beyond* (1–10 or.).
- Qviström, M., & Saltzman, K. (2008). Ambiguous edgelands: Landscape studies beyond rural–urban divides and disciplinary trench-lines. *Urban Forestry & Urban Greening*, 7(3), 143–144. <http://doi.org/10.1016/j.ufug.2008.06.001>
- Rizov, M., & Walsh, P. P. (2010). Is There a Rural–Urban Divide? Location and Productivity of UK Manufacturing. *Regional Studies*, 45(5), 641–656. <http://doi.org/10.1080/00343401003713449>
- Robertson, D. P., & Hull, R. B. (2001). Which Nature? A Case Study of Whitetop Mountain. *Landscape Journal*, 20(2), 176–185. <http://doi.org/10.3368/lj.20.2.176>
- Robinson, J. (2006). *Ordinary cities : between modernity and development*. London: Routledge.
- Roger, A. (2007). *Breve Tratado del Paisaje*. (J. Maderuelo, Ed.). Madrid: Biblioteca Nueva.
- Romera, C. J. (2012). La urbanización y lo urbano, realidades divergentes / Urbanisation and urbanism, divergent realities. *Urban*, 0(04), 15–26.
- Roncken, P. A., Stremke, S., & Paulissen, M. P. C. P. (2011). Landscape machines: productive

nature and the future sublime. *Journal of Landscape Architecture*, 6(1), 68–81. <http://doi.org/10.1080/18626033.2011.9723448>

Rossi, A. (2004). *La arquitectura de la ciudad* (1go ed 1971?). Barcelona: Gustavo Gili.

Rowe, C. (1981). *Ciudad collage*. Barcelona: Gustavo Gili.

Rowe, P. G. (1992). *Making a Middle Landscape*. Cambridge, Mass: MIT Press.

Sabaté, J. (2008). Paisajes Culturales y Proyecto Territorial. In J. Nogué (Ed.), *El paisaje en la cultura contemporánea* (p. 249). Madrid: Biblioteca Nueva.

Sadori, L., Mercuri, A. M., & Mariotti Lippi, M. (2010). Reconstructing past cultural landscape and human impact using pollen and plant macroremains. *Plant Biosystems - An International Journal Dealing with All Aspects of Plant Biology*, 144(4), 940–951. <http://doi.org/10.1080/11263504.2010.491982>

Samuels, M. (1979). The biography of landscape: cause and culpability. In D. W. Meinig (Ed.), *The Interpretation of Ordinary Landscapes: Geographical Essays*. New York, NY: Oxford University Press.

Sánchez, I. (2011, December 11). Coto al plumero de la Pampa. *El Correo.com*. Sopelana. <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20111211/vizcaya/coto-plumero-pampa-20111211.html/-en eskuratua>.

Sandywell, B. (2008). Constructivism. In *International Encyclopedia of the Social Sciences*. <http://www.encyclopedia.com/topic/Constructivism.aspx/-en eskuratua>.

Sassen, S. (2005). The Global City: Introducing a Concept. *Brown Journal of World Affairs*, 11(2), 27–43.

Schmid, C. (2005). Theory. In R. Diener, J. Herzog, M. Meili, & P. de Meuron (Eds.), *Switzerland-An Urban Portrait. Introduction* (Vol. 1, 163–222 or.). Basel; Boston; Berlin: Birkhäuser.

Schöbel, S. (2006). Qualitative Research as a Perspective for Urban Open Space Planning. *Journal of Landscape Architecture*, 1(1), 38–47. <http://doi.org/10.1080/18626033.2006.9723363>

Schöbel, S., Dittrich, A. R., & Czechowski, D. (2012). Energy Landscape Visualization: Scientific Quality and Social Responsibility of a Powerful Tool. In S. Stremke & A. van den Dobbelsteen (Eds.), *Sustainable Energy Landscapes: Designing, Planning, and Development* (133–159 or.). CRC Press.

Schumacher, M., Koch, M., & Ruegg, J. (2004). The Zurich Limmattal Steps of a servant valley towards emancipation. In G. Dubois-Taine (Ed.), *European Cities. From Helsinki to Nicosia. Insights on Outskirts. Eleven case studies & Synthesis*.

Scott, A., Gilbert, A., Gelan, A., & Macaulay Institute. (2007). *The urban-rural divide : myth or reality?*. Aberdeen, UK: Macaulay Institute.

Scott, A. J. (2001). *Global city-regions: trends, theory, policy*. Cambridge, UK; New York: Oxford University Press.

Selman, P. (2009). Planning for landscape multifunctionality. *Sustainability: Science, Practice, & Policy*, 2(5), 45–52.

Shoard, M. (2000). Edgelands of Promise. *Landscapes*, 1(2), 74–93. <http://doi.org/10.1179/lan.2000.1.2.74>

- Sieverts, B. (2006, January 16). A guide to Visiting Cities. *Monu - Magazine on Urbanism*, 4- Denied Urbanism.
- Sieverts, B. (2008). The "Park of least resistance". An inventory. In H. von Seggern, J. Werner, & L. Grosse-Bächle (Eds.), *Creating Knowledge* (446–457 or.). Berlin: JOVIS.
- Sieverts, T. (2003). *Cities without cities : an interpretation of the Zwischenstadt*. London: Spon Press.
- Sieverts, T. (2008). Improving the quality of fragmented urban landscapes - A global challenge! In H. von Seggern, J. Werner, & L. Grosse-Bächle (Eds.), *Creating Knowledge* (253–265 or.). Berlin: JOVIS.
- Sinclair, I. (2003). *London Orbital: a walk around the M25*. London: Penguin.
- Sitzia, T., Semenzato, P., & Trentanovi, G. (2010). Natural reforestation is changing spatial patterns of rural mountain and hill landscapes: A global overview. *Forest Ecology and Management*, 259(8), 1354–1362. <http://doi.org/10.1016/j.foreco.2010.01.048>
- Slaymaker, O. (2010). Drivers of mountain landscape change during the twenty-first century. *Journal of Soils and Sediments*, 10(4), 597–610. <http://doi.org/10.1007/s11368-010-0194-6>
- Smithson, R. (2006). *Un recorrido por los monumentos de Passaic, Nueva Jersey*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Soja, E. W. (2000). *Postmetropolis: critical studies of cities and regions*. Malden, MA: Wiley-Blackwell.
- Solá-Morales, I. (2009). Terrain Vague. In I. Ábalos (Ed.), *Naturaleza y Artificio* (123–132 or.). Barcelona: Gustavo Gili.
- Sontag, S. (1977). *On photography* (2008th ed.). Harmondsworth, UK: Penguin.
- Stremke, S., & Dobbeltstein, A. van den (Eds.). (2012). *Sustainable Energy Landscapes: Designing, Planning, and Development*. Boca Raton, FL: CRC Press.
- Swaffield, S. R. (2006). Theory and Critique in Landscape Architecture. *Journal of Landscape Architecture*, 1(1), 22–29. <http://doi.org/10.1080/18626033.2006.9723361>
- Swanwick, C., & Land Use Consultants. (2002). *Landscape Character Assessment. Guidance for England and Scotland*. Gloucestershire; Edinburgh: The Countryside Agency & Scottish Natural Heritage.
- Tacoli, C. (1998a). Beyond the rural-urban divide. *Environment and Urbanization*, 10(1), 3–4. <http://doi.org/10.1177/095624789801000115>
- Tacoli, C. (1998b). Rural-urban interactions: a guide to the literature. *Environment and Urbanization*, 10(1), 147–166. <http://doi.org/10.1177/095624789801000105>
- Tacoli, C. (2003). The links between urban and rural development. *Environment and Urbanization*, 15(1), 3–12. <http://doi.org/10.1177/095624780301500111>
- Thomas, D. (1990). The Edge of the City. *Transactions of the Institute of British Geographers*, 15(2), 131. <http://doi.org/10.2307/622860>
- Thompson, I. H. (2011). Ten Tenets and Six Questions for Landscape Urbanism. *Landscape Research*, 37(1), 7–26. <http://doi.org/10.1080/01426397.2011.632081>

- Thornton, C., & Quinn, M. (2009). Coexisting with cougars: public perceptions, attitudes, and awareness of cougars on the urban-rural fringe of Calgary, Alberta, Canada. *Human–Wildlife Interactions*. <http://digitalcommons.unl.edu/hwi/3/-en> eskuratua.
- Tracey, D. (2013). *Guerrilla Gardening: A Manual*. Gabriola Island, BC, Canada: New Society Publishers.
- Trinder, B. (1982). *The making of the industrial landscape*. London: Orion.
- Universidad Politécnica de Madrid. (1990). *Cartografía de Paisaje de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Memoria General*. Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.
- Upmeyer, B. (Ed.). (2014). *MONU #20. Geographical Urbanism* (Vol. 20). Rotterdam: BOARD PUBLISHERS.
- Urbane Landschaft. (2014, September 5). In *Wikipedia*. http://de.wikipedia.org/w/index.php?title=Urbane_Landschaft&oldid=133764590/-en eskuratua.
- Uriarte, I. (2013). Euskal Herriko paisaia industrialia. *Aldiri: Arkitektura Eta Abar*, (15), 36–38.
- Uriarte, M. (2014). Urban Fringe Landscapes on Mountains. *Monu - Magazine on Urbanism*, (20 Geographical Urbanism), 90–93.
- Uriarte, R. (2010). Repoblaciones, paisaje forestal y desarrollo industrial en el País Vasco atlántico (1940-1975). *Historia Agraria: Revista de Agricultura E Historia Rural*, (51), 109–142.
- Urry, J. (2011). *The tourist gaze 3.0* (3. ed). Los Angeles, CA: Sage.
- Venturi, R. (1998). *Aprendiendo de Las Vegas: el simbolismo olvidado de la forma arquitectónica* (3 ed). Barcelona: Gustavo Gili.
- Viar, J. (2000). *Bilbao En El Arte* (Vol. 1). Bilbao: Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Vicenzotti, V., & Trepl, L. (2009). City as Wilderness: The Wilderness Metaphor from Wilhelm Heinrich Riehl to Contemporary Urban Designers. *Landscape Research*, 34(4), 379–396. <http://doi.org/10.1080/01426390903019841>
- Waldheim, C. (2010). On Landscape, Ecology and other Modifiers to Urbanism. *Topos*, 71(Landscape Urbanism), 20–24.
- Wascher, D. (Ed.). (2005). European Landscape Character Areas – Typologies, Cartography and Indicators for the Assessment of Sustainable Landscapes. Final Project Report as deliverable from the EU's Accompanying Measure project European Landscape Character Assessment Initiative (ELCAI). funded under the 5th Framework Programme on Energy, Environment and Sustainable Development (4.2.2),.
- Waterton, E. (2013). Landscape and non-representational theories (draft version). In P. Howard, E. Waterton, & I. Thompson (Eds.), *The Routledge Companion to Landscape Studies* (64–75 or.). London: Routledge.
- Weller, R. (2008). Landscape (Sub)Urbanism in Theory and Practice. *Landscape Journal*, 27(2), 247–267. <http://doi.org/10.3368/lj.27.2.247>
- Whitehand, J. W. R. (1988). Urban fringe belts: Development of an idea. *Planning Perspectives*, 3(1), 47–58. <http://doi.org/10.1080/02665438808725651>

- Woods, M. (2009). Rural geography: blurring boundaries and making connections. *Progress in Human Geography*. <http://doi.org/10.1177/0309132508105001>
- Wylie, J. (2005). A single day's walking: narrating self and landscape on the South West Coast Path. *Transactions of the Institute of British Geographers*, 30(2), 234–247. <http://doi.org/10.1111/j.1475-5661.2005.00163.x>
- Zabala, A., Zugaza, M., & Fernandez, A. (1993). *Itsasadarra: merkatal paisaia baten irudia eta ikuspena = La ría: imagen y visión de un paisaje mercantil*. Bilbao: Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilboko Arte Ederretako Museoa.
- Zalasiewicz, J., Williams, M., Haywood, A., & Ellis, M. (2011). The Anthropocene: a new epoch of geological time? *Philosophical Transactions of the Royal Society A: Mathematical, Physical and Engineering Sciences*, 369(1938), 835–841. <http://doi.org/10.1098/rsta.2010.0339>
- Zalasiewicz, J., Williams, M., Smith, A., Barry, T. L., Coe, A. L., Bown, P. R., ... Stone, P. (2008). Are we now living in the Anthropocene. *GSA Today*, 18(2), 4. <http://doi.org/10.1130/GSAT01802A.1>
- Zarza, D. (2008). De la ordenación del territorio al paisaje: Madrid como estudio de caso. In J. Maderuelo (Ed.), *Paisaje y Territorio* (281–303 or.). Madrid: Abad Editores.
- Zube, E. H., Sell, J. L., & Taylor, J. G. (1982). Landscape perception: Research, application and theory. *Landscape Planning*, 9(1), 1–33. [http://doi.org/10.1016/0304-3924\(82\)90009-0](http://doi.org/10.1016/0304-3924(82)90009-0)
- Zuelow, E. G. E. (2011). *Touring Beyond the Nation: A Transnational Approach to European Tourism History*. Surrey, UK: Ashgate Publishing, Ltd.
- Zumthor, P. (2009). *Atmósferas: entornos arquitectónicos*. Barcelona: Gustavo Gili.

